


Eusebio Erkiaga

BERBALAUIAREN KULUNKAN

PROSA LANAK • 2

Sarrera, eta
edizioa:
Andres Urrutia



SUTONDOAN SORTA
LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

SUTONDOAN sortaren helburua XX. mendean bizkai euskeraz idatzitako obrarik bikainenak gaurko irakurleei hurreratzea izan da beti, 1981.ean sortu zanetik eta hona. Bilduma hau eten barik kaleratu izan da hasiera haretako formatoagaz 90eko hamarkadara arte. Hemendik aurrera erabarrituta, edukinez eta itxuraz aldatuta, agertuko da baina.

Aurreko sortaren behin behingo ezaugarriak zainduko dira: edizinoak ohar argigarriak eta sarrera-lan bereziz atonduko dira, aparteko ahalegina eginez idazkerea eta kanpoko itxurea gaurkotzeko.

Liburu honetan, bilduma honetako aurrekoan lez, Eusebio Erkiaga (1912-1993) lekeitiarraren prosa osoa batu gura izan da, narrazioak, itzulpenak, kazetari-lanak eta beste hainbat idazlan txiki behinik behin.

Edizinoaren atontzailea Andres Urrutia euskaltzaina izan da. Testueta-ko grafia zeozertxo gaurkotu da baina lanak bere garaian idatzi ziran moduan emon dira, hizkuntz ezaugarri guztiak zainduta.



Euskal Biblioteka Labayru



1020214
LITERATURA / N. 1201
v.2

EUSEBIO ERKIAGA
Berbalauaren kulunkan
(Prosa lanak)

EUSEBIO ERKIAGA

*Berbalauaren
kulunkan*
(Prosa lanak)

II

Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia



LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO
2002

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza du.

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: A.C. Rontegui, S.A.L.

Lege Gordailua: BI-405-02
ISBN: 84-89816-56-5

·Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopia-tzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elek-troniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erre-gistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argi-taratzailaren edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

I

Antzerkia
BIBV
Euskal literatura
Euskararen inguruan
Hitzaurreak

II

Itzulpenak
Kazetaritza
Liburuen kronikak
Narrazioak

ITZULPENAK

PLATON-en PARMENIDES edo EIDEENA*

Kephalos, Adeimantos, Antiphone, Glaukon, Pythodoros, Sokrates, Zenon, Parmenides, Aristoteles.

Kephalos¹.— Klazomene² gure aberritik Athenea hirira genthor-zalarik, hiriko plazan, Adeimantos eta Glahkonekin bat egin genuen.³ Adeimantok, eskutik horatuaz, erran zerautan: Agur, ene Kephalos! Guk eman ahal diezatzugun ezeren behar baldin ba zara, erraitea bertzerik eztuzu.

—Hain zuzen ere, ihardetsi neraukon, hemen baldin ba nago egon, zuen behar naizelako da.

Ager ezadazu, erran zerautan. Zer da nahi duzuna?

—Nola zeritzan zure anaiari amaren aldetik? Ni neu, orhoitzen eznaiz. Klazomenetik huna lehen aldiz heldu nintzenean, aspaldi dela, haur bat zan hura, anartean. Haren aita, oker ezpa nago, Pyrilampes zan.

—Bai, eta hura bera, Antiphon.⁴ Bainan, zertara dathor hori orain.

—Philosophia zale diren aberkide batzu nerekin baitdathorz, Zenonen adiskide zen Pythodoros⁵ zelakoaren adiskide mami zela Antiphon hori entzun baitdute, eta Antiphon horrek Sokrates, Zenon eta Parmeniden solhasak orhoitzen ditu, Pythodororen ahoz maiz entzunik.

* *Argitaratubakoa*, 1952.

¹ Egileak, Kephalosen ezpainex iaalkhiaritzen du solhas hau. Hunek, Antiphoni entzuna azaltzen du, eta bertze hunek, halaber, Pythodorori, hau Parmeniden eta Zedonen etxeliar zelarik, agertzen duen Elkharhizketan lekhuiko izan baitzen. Bertze norbaitzu ere aipatuak dira, Klazomeneko biztanleak, philosophia zaleak. Kephalos bera ere, Klazomeneko seme zan; gizon hau, ordea Platon-en "Errrepublikan"-n agertzen den Kephalos Sirakusatarrak bertze zen.

² Joniako hiria.

³ Platonen anaiak.

⁴ Platonen bertze anai bat, amaren aldetikako soilik, ordea, textoak erraiten duenez, Platonen ama Periccionak hirur seme ukhan zituen bere lehen ezkontzan; Platon, Adeimantos eta Glaukon. Bigarren ezkontzakoa zuen Anthiphon hau, Pyrilampesen seme.

⁵ Iskoloren seme eta Zenonen ikasle, Eleako eskolan handiro nabari izan zen.

—Egia da.

—Solhas hauk entzun gogo dugu, bada, zinez.

—Oso aise eta erraz da. Bere lehen gaztazarotik, elkhar hizketok behin eta berriz iraganazi ditu Antiphonek bere izpirituan. Orain, bere aiton eta izen bereko denaren ondoan dago, zaldien gorabeheretan sartua, eta haiei dagoten antzeari emana. Nahi baldin ba duzu, haren galde ioan gintezke. Bere etxeruntz ioan berri da, hemendik hurbil hurbila, Melitera.⁶

Gisa huntaz mintzatuki bidean iarri ginan, eta bere egoitzean ediren genuen Antiphon: nekhazale bati, atontzekotz, uhel bat emaiten ikhusi genuen. Alderagin zeraukon gizon hari; bere anaiek gure agerraldiaren berri eman zeraukoten, eta Antiphonek, nire lehengo ethorreraz orhoiturik, ezagutu egin ninduan eta agurregin. Hark zekizkian erranera eta solhasak guri azaltzeko othoi eskatu generaukon. Lehenik, eragozpen batzu agertu zituen. “Artha tipiko lana ezta”, erran zuen. Bainan, halarik ere, hitzaren iabe egin zan, buruenik.

Orduan, Antiphonek, Pythodorok azaldua erran zuen; behinola, Panathenea⁷ handien ospatzera, Parmenides eta Zenon Athenera heldu zirela. Parmenides, ordurako, urtheez zamatua zegoen, hileak zuritsu, bainan anartean eder zen eta iduri leinargiko. Zenon, ordean, berrogoi urthe inguruko zan, soin egoki eta begitarte atsegineko. Parmenidekin kutun bizi omen zan. Bitzuok, hiritik landa, Keramikon Pythodoron etxean lothu ziren.

Haraxe io zuten Sokratek eta bertze anhitzek, Zenonen idazkien irakurtzea entzuteko iguripenaz. Hunek eta Parmenidek orduantxe zeramazkiten aldean Athenara lehenik, heien lanak. Aldi hartan Sokrates gazte gaztea zan. Zenonek berak irakurri zituen bere lanak, eta Parmenides, halabeharrez, etzegoen han. Irakurtaldia bukatuxe zenean, Pythodoros itzuli zan, eta hunekin Parmenides. Aristoteles zekhartan heiekin, hogoitamarren arteko izan zena⁸. Pythodorok beraz, ezer guti entzun zuen, bainan Zenoni lehengo entzunik zegoen.

⁶ Demos, Kekloperen gizeliko.

⁷ Iai hauk bortz urtherik behin ospatzen ziren, eta Panathenea tipiak, urthero.

⁸ Ikhus Jenofonte, Helenikas, II.

Sokratek, Zenoni entzun ondorean, lehen mintzoaldiaren hypothesis lehenaren berrirakurtzea othoi egin zeraukon, eta hunela eginik, Sokratek erran zeraukon: Nola hulertzen duzu zuk hori, Zenon? Izakiak anhitz baldin ba dira noraezeko da ahantzekoak eta ahantzegabeak batetan izaita. Bainan hori ezina baita, ahantzegabea ahantzeko ezin izan ditekkelako, eta ezta ahantzekoa ahantzegabe ere. Ez ahal diozu hunela?

—Bai, ihardetsi zeraukon Zenonek.

—Halakotz, ahantzegabea ahantzeko izaita ezina baldin ba da, eta orobat ahantzekoa ahantzegabe, zerak anhitz izaita ere ezineko dateke; anhitz baldin ba lira, ondorio ezinak atherako baitgenituzke. Zure elheen helburu edo xedea horixe ez ahal da? Erran guztieri aitz, anhitzak izan ere ez tirela ez othe duzu sinhesten, eta beraz, zenbat eta elheak aiphatuago, bertze hainbertze erakhusburu agerrarazten dituzula anhitzik eztela adiaraztekotz? Hunela diozua, ala okher hulertu othe derautzut?

—Bai zera, zion Zenonek, zehatz iaso duzu nire mintzoaldiaren erabateko xedea.

—Ongi dakhusat, ene Parmenides, —erran zuen orduan Sokratek—. Zenon eta zure artean duzuen lokharri soila eztena, zure gaiok Zenonek ere, eta idazkera barne delarik, berdintsu azaldu baititu. Terminak bai aldatu ditu soilik, eta ziria sartuaz, hark diona bertzerik othe den gu xurikatzen bermatu da. Zuk zure poematetan guztia bat dela diozu, eta argibide eder eta bikainak emaiten deraukiguzu; hark anhitzak ez tirela agertu du, erakhusburu ugari eta sendoak azalduaz. Era hortaz, guztia bat dela zuk erranaz, eta hark ezertto ere anhitz eztela adieraziaz, zer diferenteak agertzen dituzuela dirudi —muin berberak izan arren— eta gu atzipetzen gaituzuela uste duzue.

—Oso ederki, Sokrates, erran zuan Zenonek. Halarik ere, nire mintzoaldiaren egia osoa iaso eztuzu. Lakoniako zakhurren antzera, urhatsetatik larregian iarraititzen zatzaizkio diskursuari. Bainan, guztiaz ere, behinen den zerbaitek ihes egin derautzu: nire mintzoaldiak horrelako xede gorarik eztuela zinez, eta nik idatzi nuenean nire izpirituan iragana zela ustuzuna, gizonen begi aitzinean estal-iduriz eman asmorik eznuen, lan handi bat egiten nuela sinhisten ezpaitnuen. Bainan, bada puntu bat igarri duzuna. Zinetan egia da lan hori Parmenideri laguntzeko egin dudana, hari iñaka egiten bermatzen direnen kaltez, guztia bat dela azalduaz geroz, ondorio barrega-

rri eta zeiherrak athera ahal ditezkelata baiterrate. Pluralitatetasun zaleen aurkako ihardespena baitut, alegia. Heien argumenduak itzuliaz eta ugarituaz gainera, pluralitate hypothesisa batasunarena baino makhalago dela izan ere erakustea da lan horren xedea, zerak edo gauzak egoki ikhus dezakenarentzat. Eztabaidazale izateak ernarazi zuen ene baithan, gaztezarotan, mintzoaldi hori idatzi beharra. Eta norbaitek beretzakotu duenez, nik argitara eman ala ez erabakitzea aztertu eztut. Okher zagoz, bada, ene Sokrates, mintzoaldi hori zaharraren nahikeria ziria dela uste baldin ba duzu, eztabaida zale den gaztearen lana baita. Halarik ere, lehen erran bezala, etzenuan okher ephaitu.

—Alkhi gagoz, erran zuen Sokratek; zuk diozunez uste dut. Bainan, erran iezadazu, ahantzekoaren eidea, batetik eta bertze eidea zehierrata bertzetik, biok batetan izan litekezela ez ahal duzu uste? Eta eidea biok izanik, haien aldedun edo zathi garela ni, zu eta anhitzkhoi derizkiegun bertze gauza guztiak? Ahantzekotasun zathi ukhan dut gauza oro ahantzeko bilhakutzen baita, hartaz zathi ukhan duten izarian eta ukhan dutelako arean ere; eta ahantzegabe arteko direnak ahantzegabe bilhakutzen othe dira, eta bateko eta bertzeko, ordean, aldi batetan eidea bietaz kutsatsen edo partizipatzen direnak.

Orain erragun bada: eidea zeiber bion kutsua gauza guztiak baldin ba dute, eta alde bikhoitz horren indarrez aldibatean ahantzeko eta gabe ba dira, ezta hortaz zer harritu. Hain zuzen ere, ahantzekoa ahantzegabe bilhakatu, edota ahantzegabe ahantzeko, horrexek bai harrituko ninduke.

Bainan eidea bion zathi dukenek, heien kharakter iabe izaita, hori, ene Zenon maite, nehola ere burulariatzat ezin etsi dezaket, batasun-kutsudunak oro, bat direla ager ba diezadate, eta halaber anhitz pluralitatearen zathi izanik.

Batasuna anhitz dela, eta pluralitatea batasun dela agerraraztea, horixe dugu bai, nabariarik. Eta bertze horrenbertze erran dezakegu garaitikoetaz. Leinuka eta muetak heien muinke eztiren aldakuntzak onhartzen ditutela irakatsiko ba genu, zilhegi litzaikegu harritzea. Halabainan, norbaitek, bat eta anhitz naizela ni agertuko ba leraut, ez nintzake batere aho zabalik iarriko. Ni anhitz naizela erakustekotz, nire eskuma hau bat dela eta ezkerata bertze, erraita, aski luke, zinez; eta bertzea aitzina, eta bertzea atzea, goiena bertzea eta beheitia bertzea; hortaz bada, anhitzaren zathi naizela uste baitut. Eta bat

naizela aberrarazteko, hemen gagozan zazpi gizonetarik bat naizela neu erranen nuke; horrela bada, batasunkhoi naiz ni. Baiespen bion egiatasuna humelatan erakhutsiko nuke.

Horregaitik, mila gauza —harri, adar, eta gunen arabera bertzeak— bat eta anhitz aldabatean direla agertzea nahi ba genu, zerok aldabatean bakhar eta anhitz direla erakhus dezakegu eta errez gainera, bainan bata anhitza denik eta anhitza bata denik nehork ere ez; eta hortaz nehor ere harritu orde, guztiek batere eta akort dagozke.

Bainan, lehenttoago nik erran bezala, eideak hekien baithan banatzen ariko ba gina, erraiterako, ahantzetasuna eta ahantzegabetasuna, batasun eta anhitzkhotasuna, egona eta higidura eta abar; eta hunen iarraian eidea hauk ondozka nahastu eta bana ditekezela erakhuts ahal ba geneza, horreek bai tutuluturik iarriko nindukela, ene Zenon maite. Argumendu zalhua duzula diot, egitan ere. Bainan nik harrigarritzat etsiko nukeiena, diot berriz ere, eideen baithako kontradizioa edo zeiherdura hori agertuko balerautate, horixe izanen lizateke; eta zuk ikhusgai diren gauzetaz egina, pentsamenduaz soilik atxiki ditezken gauzetaz ere egin ahal izaitea.

Sokrates horrela ari zelarik, Pythodor beldur zen —erran zerautanez— hitz bakhoitzean, Parmenides eta Zenoni hasarratuko ez othe zitzaien. Bainan hauk adi adi zegozen, elkharri maiz behatuz eta irri-goza eginaz, Sokratek zoratuak baileduzkan. Eta humelatan, berhunek mintzoa atertu zuenean, Parmenidek hots egin zuen:

—Philosophi eztabaidei buruzko zure lehiadura ezta nehoiz aski gorai phatua izanen, Sokrates. Bainan, erran iezadazu, nabaritzen eta bereizten dituzu zuk, benetan ere, erran berri duzunez, alde batetik eideak, eta bertzetik, eidea hauetaz zathi ukhan ohi duten gauzak? Guk dugun ahantzekotasunaz landazko ahantzekotasun berezia badela uste duzua, eta batasun eta anhitzkhointasunaz, eta oraintxe berton Zenonek erran dituen izaki guztietaz ere berdin dela?

—Horixe bai, erran zuen Sokratek.

—Eta halaber izanen othe da agian, iarraiki zitzaion Parmenide, zuzen eta eder eta zilhegigoaren eidea beragan dena eta bethetzen dena?

—Bai.

—Nola ordea? Gu eta garen guztian gizon izakeraren bertze eidea bat gizonaren nahiz suaren nahiz uaren eidea berezia, berekiko, ba dela erran ahal dezakegu?

—Parmenides, —gehitu zeraukon Sokratek— behin baino maizago zalantzan egona naiz zer hauei buruz, bertze gauza hekien arabera ebatzi beharraz ala bertze era batez.

—Eta gauza xume eta purtzil iruditu litzaiegun bertze zer hoieri buruz, erraiterako, ileaz, herruaz, zikhinaz, eta are gauzarik zakar eta oihasanaz ere, zalantza berdina othe duzu? Ba da ziorik ala ez, gauza bakhoitz haukietan eidea berezi bat ezagut dezaguntzat, hartu emana dugun gauza heietaz izakera iarria eta beren eskukoa dutela oniritziatz?

—Bai zera, erantzun zuan Sokratek, Gauza haukiei dagotenez, hauietan dakhusguna soilik da izan. Buruleria lar lizatekela, derizkiot nik, gauza bakhoitza haukiei eidea berezien ezagutzea. Bainan halarik ere, gogoeta hunek kezkatzen du ene izpiritua: gauza bateri buruz segur den azalpena, orori buruz ere, segur ez othe lizateken. Bainan buruketa huntaz topo egitean, ihes egiten dut bertatik, alpherreko eta funtsik gabeko ikherketen osinera erorita itho ez nadin beldurrez. Eta eideak ditutela erran dugun gauza hekietara heltzean, hekietan gelditu egiten naiz eta nire lakhet osoz behatzen ditut.

—Oraino gazte baitzara, Sokrates, erran zerukon Parmenidek— eta philosophiak eztu oraindino zure iabegoa hartu; harturen du, alegia, egunen baten, usteak ustel irtetzen ezpa deraut, den orotaz ezertto ere erdeina eztezazunean: egungo egunean, eta zure adina delakotz, gizonen aburuak haintzat hartzen dituzu. Bainan erran dezadazu eideen zathi edo muinkide diren gauzei eideasumaren muinkide direnak gauza ahantzeko direla; eta handitasumaren tarteko direnak handi direla; eta zuzen eta eder, zuzentasumaren eta edertasumaren kutsu dutenak?

—Baiki, erran zuen Sokratek.

—Ongi da. eta eidea baten muinkide dena, eidea osoaren ala eideen alde baten kutsudun othe da? Edo ta, era bi haietaz landa, hirugarren kutsukidetasunen bat ba othe da izan?

—Ezin diteke izan, erantzun zuan Sokratek.

—Eta idea, bakhar den arren, anhitz gauzetan, osoki dagoela egon uste duzua?

—Eta idea, gauza askotan eta bakhoitzean halaber izatea, ene Parmenides, zer eragozten du?

—Idea, bakharra eta berdina, osokiro eta batera, bata bertzeagandik bananduriko gauza anhitzetan edirenen liteke, eta beraz, berberagandik berezitua.

—Ez horrelakorik, —ihardetsi zuan Sokratek—, eta bai ordea hunela: eguna, bat eta berdina delarik, aldabatean lekhu askotan berdineza edo differenta den bezela, eta horregatik berberagandik banandua ezta, horrelaxen eidea bakhoitza gauza anhitzetan batean izanen lizateke, eidea bakhar eta berberaren izatea utzi bage.

—Ezin diteke zorrotzkiagorik eta egokiagorik, Sokrates —erran zuen Parmenidek—, gauza bakhar eta berbera lekhu askotan batean izan dadin antolatzea. Halatsu, gizon anhitzen gainez oihal bat zabaldurik, anhitzen gain oihal hori oso osorik dagoela erranen ba genu. Horixe ez ahal da, guti gora behera, zuk pentsatzen duzuna?

—Behar ba da, bai, —erran zuen Sokratek.

—Bakhoitza gain oihal osoa egonen othe lizateke, ala haren zathi bat soilik?

—Atal bat soilik.

—Orduan, Sokrates, eidea, bat izan arren zathitu egiten dela benetan ere erran nahi duzua, eta zathitu arren ere, bakhar irauten duela?

—Neholaz ere, ez.

—Hauxe gogora ezazu, bada —iarraiki zitzaion Parmenides—: izaria atal ba dezazu, eta gauza handietarik bakhoitza izariaren atal baita, izaria berbera baino tipiago dela erranen; ez ahal da hori burulkeria nabarmena?

—Bai, behintzat.

—Nola? Berdintasunaren zathi baten kutsudun dena, berdintasuna baino tipiago denaren muinkide delarik, zerbaitez berdina etsi othe diteke?

—Ezin diteke. Tipitasunaren zathi bat duela gauzetarik batek bere baithan, egin dezagun. Tipia, berenez, zathi hori baino andiago da, hau haren atal bat bertzerik ezpaita. Hortaz, tipia berenez, bertze gauza baino handiago izanen da. Eta bertzalde, berenez tipi denari kendua gauza bateri eratxikitzen badiogu, hau, zio hori dela bide, lehen zen baino tipiagoa bilhakutzen da, eta ez handiago.

—Ezin horrelakorik irudi diteke, erran zuen humeri buruz Sokratek.

—Nola, bada, —iarraiki zaion Parmenides, gauzek ideen zathi ukhanen dute, eidea osoen eta ez hunen atalen muinkide izan ezpa-ditezke?

—Ala Zeus, —erran zuen Sokratek— ezpaitzait errez ere horren azaltzea!

—Ikhus ezazu, bada, honi buruz zer erran ahal dezakezun.

—Zertaz, gero?

—Idea bakhoitza bat dela sinhistarazten derautzuzun zioa hauxe denz ikhus ezazu, nik hunela uste baitut: gauza handi zehierak zure gogoetara dituzunean, erabatean haintzat hartzen baldin ba dituzu, ariurri guztiekikoa nabaritzen duzu, ustez, hekietan; ariurri hori bata da; eta hortik izaria bat dela burutzen duzu.

—Egia da, aitortu zuen Sokratek.

—Bainan zure buruan handitasuna eta gauza handiak batean gogar baldin baditzaazu, bertze handitasun berri bat ez ahal zaitzu irudituko, eta hori ere bat izanen dena, eta horregaitik bertze oro ere handi izanen dena?

—Horrela dirudi.

—Ario hortaz, handitasun baitharen gain eta haren muinkide diren gauzetaz gain, handitasunaren bertze eidea bat sorthuko da. Eta geroztanik, guzti horren gainez, bertze bat, eta hunen indarrez bertze guztia andi izanen da. hunela, eidea bakhoitza batasun bat izanen ezta, urentzebageko askotasun edo pluralitatea baizik.

—Bainan, Parmenides, —erran zuen Sokratek—, ez ahal da behar bada, gogo edo izpirituan soilik izaera duen bururakizun edo kontzeptu bat izanen eidea bakhoitza? Hunela eidea bakhoitza, bata lizateke, neholako buruleriarik sorthu bage.

—Nola? —erantzun zeraukon Parmenidek—, kontzeptu bakhoitz hunek bata izan behar othe du, deusezaren bururakizun izan gabe?

—Ez, ezin diteke.

—Zerbaiten kontzeptu izanen da, bada?

—Bai.

—Badenarena, ala eztenarena?

—Badenarena.

—Eta bururakizun hori, ez othe da bata den gauza batena, irudi edo tankera bezala gogoratua —bata, hau ere— eta gauza anhitzena arean ere?

—Bai.

—Beraz, bata edo berdina bezala den gauza ez othe dugu eidea delakoa, eta bethi ere askotasun edo pluralitatearen barneko?

—Horrelaxe izan behar duela noraezean, dirudi.

—Eta ezterizkiozu halaber, diozuen bezala ideak bertze gauzetan muinkide direlarik, gauza guztiak, noraezean, bururakizun edo kon-

tzeptu izan behar direla eta sortzaile, edota kontzeptu izan arren ez tutela ezer sorthu behar?

—Bainan horrek, Parmenides, zentzurik eztaduka. Eideak, nire ustez, eredu bezala dira, bertzerik gabe, izadiaren erabateko ondozketa eta ordenan: hekien iduriko diren bertze zerak guztiak aldaki edo kopiak dira, eta gauzak eideetan partizipazino edo zathi ukhaitea ezta bertzerik elkharren artean duten ahantzekotasuna baizik.

—Horren ariora, erran zuen Parmenidek, gauza bat eidea baten iduriko balinbada? idea hori bere kopiaren ahantzeko ez izaita izan othe liteke, hain zuzen ere hunek hartaz duen ahantzekotasunaren izari berean? Ala, ba othe da artekiren (medium) bat ahantzekoa ahantzekoaren iduriko ez izaitekotz.

—Ezina da hori!

—Bainan, ahantzekoa bere ahantzeko eidearen muinkide izaita ez da agitz noraezeko?

—Osokiro noraezeko da, izan ere.

—Eta ez ahal ditu idea horrexek ahantzekoak bere zathidun izanik, ahantzeko bilhakutzen?

—Ezertto ere ez hori baino zigurrago.

—Hortaz, bada, gauza bat idearen baten ahantzeko, eta idea bertze gauza baten ahantzeko izaita ere, ezina da. Horrela izan ezik, eidea horren gain bertze bat agertuko lizateke; eta hunek zerbaiten ahantza balin balu, bertze idea bat idukiko genuke, eta hunela, nehoiz ere eidea berri agertzerik ez genuke, bere zathi duenaren ahantzeko izanen balin balitz.

—Egia borobila da hori.

—Horregaitik, bertze gauzak ideen zathidun ba'dira, ahantzeko indarra delakoaren bidez izanen ezta. Partizipazino-era bertzelako bat billatzea beharreko dugu, bada.

—Zurekin nago.

—Ikhusten duzu, bada, ene Sokrates maite, —erran zuen Parmenidek— ideak berez izan direla onhartzen ba dugu, korapiloak korapilo sortzen ditugula.

—Bai horixe.

—Eta, izaki bakhoitzarentzat idea bereizia izan dela azaldu, eta baitesten dugunean sorthu korapiloa, ohartu eztuzu.

—Nola da hori? galdegin zuen Sokratek.

—Ihardespen anhitzen artean bat hautaturen dut, erantzun zuen Parmenidek; nagusia. Hau erraitera norbait baletor: ideak ezin ditezke ezagut, baldin izan behar dutela erraiten dituzuen bezalakoak ba dira, hori okher dela, hori erakhusterik ezlegoke, gai haukietan experientza handiren bat izan ezik eta gure etsai hunen argumendu ta erakuspenaren aurka azkeneraino iarraitzeko ongi horniduak eta gerthuak ezpa gengoz.

—Zergaitik, Parmenides, galdegin zuen Sokratek.

—Nire aburuz, Sokrates laztan, zuk eta gau bakhoitzaientzat beregan dela unari edo izakai irakats dezan edonork, gugan izakai hauietakorik eztugula izan ere erraiten ihardukiren zenuteke.

—Nola bada, bertzenaz, berez izanen lizateke?

—Ederki, erran zuen Parmenidek. —Beraz, elkharrekiko har-ema-nei hekien izaitea bera zor derauzten eideak, hekien baithari buruzko unaria edo essentza gozartzen dute, eta ez inguratzen gaituten gauzei buruzkoa —hauk kopiak direla nahiz bertze edozein naturazko kutsudun direla —haukien gozartzaile garelarik eta hekietaz gure izenaz iabetzen garelarik⁹. Eta inguratzen gaituzten gauzei buruz —eta gauzok ideen izen berberak hartzen ditute —hekien artean ditute soilik hartu-emanak eta ez eideekin, eta hekien izaitea edo existen-tza hekien buruei zor deraukote eta ez izen berdineko diren gauzei¹⁰.

—Zer erran nahi duzu? - ethen zeraukon Sokratek.

—Egin dezagun adibidez, erran zuen Parmenidek, gizon bat iopu dela ala iaun dela. Iopu balinba da, iaun-iopu gerenez izango ezta; eta ezta oro bat, iaun balinba da, iopu-iaun ere berenez. Gizon beza-la, gizon baten iaun ala iopu izanen da. Bertzenaz, iauntasuna bere-nez ioputasunari buruz ari da; eta, halatsu, ioputasuna iaungotasu-nari. Bainan gugan diren gauzek eztute eideekin uztardurarik, eta ez ideek ere gurekin. Ideek eideekin dute bakharrrik hartu emana, eta inguratzen gaituten zerok ere elkharrekin dute soilik har-emana. Erran nahi dudana hulertzen duzua?

⁹ Edeiak eideekin soilik baitute hartu, guk ezin, alegia, haietaz partizipatu edo kutsutu. Beharreko dugu, beraz, bertze zerbaitez muinkide izaitea; adibidez, hum-ki handitasunaz eta tipitasunaz, eta ez eidearen handitasunaz eta tipitasunaz.

¹⁰ Bigarren hypothesis hau, lehenaren ondorio bat bertzerik ezpaita. Eideak soilik eideekin baitute hartuemanik, halaber gauzak soilik gauzekin, eta bata eta bertzea osotoro eta elkharkiro bereziak dira. Elkharhizketa hunen hulertzean aintzinatekotz, gogoan har beza irakurleak erran hau.

—Ederki; ihardetsi zuen Sokratek.

—Huntaz, bada, iakintza berenez edo beregain,? Egiaren beraren iakintza othe da?

—Baiki.

—Eta iakintza bakhoitza, bere berenez, izaki bakhoitzaren beraren iakintza izanen da. ezta horrela?

—Horrelaxe da bai.

—Eta gugan den iakintza, ez othe da gugan den egiaren iakintza? Eta gugan den iakintzetarik bakhoitza, gure artean diren izaki bakhoitzaren iakintza ez othe?

—Noraezean, alegia.

—Bainan, ideak gure mende eztitugula erran beharko duzu nirekin, eta gure artean egon ere, ez ditezkel.

—Baita.

—Bainan leinuak (generuak)¹¹ berenez, ezagun ba ditzakegu, iakintzaren idea baitharen indarrez izanen da.

—Iakina, ba.

—Guk izan ere eztugu idea.

—Ez.

—Eztezaugu, beraz, idea betere, iakintzaren beraren zathidun ezpaitgara.

—Ezetz dirudi.

—Eztugu ezagutzen beraz, ez edertasunaren berekiro, ez ontasuna, ez berenez badirela izan gogartu ditugun ideetarik bat ere.

—Horren beldur naiz.

—Bainan ohar ezazu bertze korapilo berri ta izugarri bat.

—Zein?

—Iakintzaren eidea¹² bat balinba da, gure giza iakintza baino askotaz betheagoa izanen dela ez ahal da nabari eta ageria, eta edertasunari edo bertze gauza ahantzekoari buruz ere berdin izanen dela?

—Bai.

—Horrelaz geroz, iakintzaren beraren muinkide den izakiren bat baldin ba da, iakintza bethe osoaren iabe Iaungoikoa hainbatean izan litekenik nehor ba ahal da?

¹¹ Edota, eideak Leinu eta eidea izenide bezala berabilzki.

¹² Ala berdin denez, iakintza bat beregan.

—Ezinezkoa da.

—Orduan, ahal izanen du Iaungoikoak, iakintza horren bidez, inguratzen gaituen gauzak ezagutu?

—Zergaitik ez?

—Huntan lothu bait gara, Sokrates maite, —ihardetsi zuen Parmenidek— ideek ezutela ezertariko hartu emanik gure artean diren gauzetaz, eta halaber gure artean diren gauzek ezutela ideekin hartu emanik, eta soilik ideek ideekin, eta gauzek gauzekin.

—Hortan gara, harean.

—Hortaraz geroz, iauntza betheaz eta iakintza betheaz gozartzen ba da Iaungoikoa, ez haren ahalak nehoiz meneraturen gaitu, eta ez haren iakintzak ezaguturen ez gu ez eta inguratzen gaituten gauzak ere; aitzitik, gure ahalmenak iainkoengan indarririk batere emaiten ez zeraukutenez, eta ez gure iakintzak iainko hauietazko ezaguerarik, orobat, izpide ber huntan, iainkoak gure iaun izanen ezтира, eta ezta giza gauzak ezagutu ere, diren bezala iainko izan arren.

—Bainan, erran zuen Sokratek, elhe hori ez othe da burugabeberria larriren bat, iainkoei ezagumena khentzen bait deraukote?

—Halarik ere, Sokrates, —iarraiki zitzaion Parmenides—, ondorengo hoik eta bertze anhitz beharreko dira, gauzen eideak berenez direla izan onhartzen dugunetik, eta eidea bakhoitzaren izaera edo natura zeindu nahirik; hunela, aburu horren aldeztean zalantzaz dagoke nornahiere, eta idea hoik existitzen ezterela erran dezake, edota izanik ere, giza izakerak hekien ezagutza izaitea ezineko dauala. Eta eredu huntaz mintzatzean, zuzen mintzaturen da, dirudienez, eta, lehen erran dugunez, okher dagoela sinhistaraztea agitz zail lizateke. Gauza bakhoitzari berez diren leinu (generu) bat eta unaria edo essentza bat dagozkola, naturak bethegunez sorthutako gizon batek soilak huler dezake. Gizon hori bikainago izan beharko lizateke, oraindano, egia hauk bertzeei ager eta irakasteko gai dadin, egion ezaguera sakon eta osoa emanaz.

—Zurekin alkhi nago, Parmenides—, erran zuen Sokratek, eta zure hitzak ene gogoetaz bat dira.

—Egin dezagun, ordea, Sokrates—, iarraiki zitzaion Parmenides, izakien eideak direlakoa ukhatzea; erran korapiloen arabera, izaki bakhoitzari idea berezi bat ezkeneraukola izendatzen. Orduan, gure gogoeten aria nora burutu iakinen ezkeneuke, idea iraunkor eta be-thi berdina gauza bakhoitzari izendatu ezinik; erausia edo elhea bera

ere deuseztua ta suntsiarazia genuke, baldintza hekietan ezineko bailizateke. Guzti hau errez hulertuko duzula derizkiot.

—Holaxen da.

—Zer eginen duzu, geroztik, philosophiaz? Norat zuzenduko dituzu zure begiok iakintzagabetasun hortatik ilkhitzekotz?

—Eztakit, oraikoz behintzat.

—Eragon baino lehen nahi baituzu, Sokrates maite —erran zuen Parmenidek— eder zer den irakatsi, zuzen zer den, on zer den, eta baita idea bakhoitza zer den ere. Arestian ohartu natzaitzu Aristotelekin eztabaika zu ikhustean. Iakin ezazu eder eta iankotiar dela philosophi hautemanketarako duzun lehia. Bainan zure izpiritua frogapean iartzea beharreko duzu, orain gazte zareno, jendeak alphertzat eta erausi hutsekotzat dadukanean ari izaita. Bertzelarik, zail izanen zaitzu egiaren ardiestea.

—Zer eragoneri buru diharduzu, Parmenides—, galdegin zuen Sokratek.

—Zenonek erran berri derautzunari. Punktu baten izan ezik, bertze guztian: eztabaida, ez gauza ikhugarrieri buruz, adimenez soilik baino ukitzen ez tiren gauzetara ere— eideetara, alegia— burutu behar zela erran zeneraukonean atseginez entzun nerautzun.

—Baiki, erran zuen Sokratek— nire iritziz Zenonen methodua iarraikiz geroz, izakiak ahantzeko eta ahantzegabe batera direla erakustea ez litzakegu zail, eta halaber, bertze anhitz ezagugarri zeihar ditutela aldabatean.

—Ederki; zure asmoari gehitu beharrekoa orain ikhusiren duzu: behar bezala ari zaitezen, idea badela izan uste izaita eta hypothesis horren ondorenak aztertzea, aski ezta; noraezeko duzu, gainera, idea existitzen ez tala uste izaita.

—Zer erran nahi duzu? galdegin zuen Sokratek.

—Har dezagun adibidez, zuk ba derizkiozu, Zenonen hypothesisa. Anhitzak ba dira izan, ¿zer gertatuko zaio anhitzkhoitasunari berari, bere baithan eta batasunari buruz? Zer gerthatuko zaio batasunari, bere baithan eta anhitzkhoitasunari buruz? Pluralitaterik ez tala uste beharko duzu, eta batasunari eta anhitzkhoitasunari, bakhoizkiro eta elkharkiro zer gerthatuko zaien aztertu. Halaber, ahantza badela eta ez tala ere, iarraikiro uste ba dezazu, hypothesis batean nahiz bertzean zer iazoko zitzaien aztertu beharko duzu, bai diren ideak uste dituzuneri buruz ala ez tirela uste dituzuneri ere, eta oro-

bat bertze ideeri, bai bakhoizkiro bai eta elkharkiro ere. Eta hunelatsu ioka beharko dugu ahantzegabetasunaz, higiduraz, egonaz, iaio-tzeaz eta heriotzeaz, eta are izaiteaz eta ez izaiteaz. Labur erran: gauzaren bat badela, eztela ala nolabaiteko aldakuntza ukhan duela uste duzunean, berekiko eta bertze gauzeekiko ere zer gerthatuko zaion aztertu behar duzu, eta bakhoitzarekiko edo guztiekiko; hori eginez geroz, bertze gauzak aztertuaz, berekiko eta edozein bertze gauzekiko, gauzok badirela ala idurimenean sorthuak direla. Bakhar bakharrik hunelaxe dezakezu osokiro ihardun eta egia argiroki ebatzi.

—Lan zaila da agintzen derautazun hau Parmenides, —erantzun zuen Sokratek, eta ongi hulertu derautzutanz zigur eznago. Baina, ¿zergaitik zeuk eztuzu hypothesisen bat hedatzen, nik hobekiago huler diezatzudan?

—Nire adineko gizonarentzat, ezta lan tipia eskatzen duzun hori.

—Baina, eta zu, Zenon —zion Sokratek— zergatik mintzatzen ez zara?

—Eska diezogun, Sokrates —erantzun zion Zenonek irri eginaz— Parmenideri berari. Ezta txirimiria eragonketa hori. Agiri denez, eman nahi deraukuzun lan horren berririk ere eztuzu. Lagun gehiagoko ba gengoz, Parmenideri othoi hori egin beharrik ezgenuke: oste edo iendearen aintzinean thema horren hedatzea egoki ez litzaieko, batez ere bere adinean.

Herri xeheak eztaki ikasketa hauk eta gauzeri buruzko ibilketa hauk egiteke egiaren arkhitzea alpherreko lana denik. Baina, orai, Parmenidek Sokrateren eskariekin batean ditu nireak ere, eta aspaldi ez-ta, nik ere entzun diezodan.

Zenon hunela mintzatu ondoan, —zion Antiphonek— eta Pythodorok berak errana da, berberak, Aristotelek eta garaitikoeak othoi egin zeraukotela Parmenideri, errandakoaren adibideren bat iphin ziezaten, ukha gabe. Orduan, Parmenidek erran zuen: “Nahi eta ez, zuen erran egin beharko; eta halarik ere, Ibikoren zaldia gisan nago; hura maiz izan zen garaile, bainan azkenerako, zahartu egin zan, eta gurdia lotzerakoan beldur zen, baitbaizekien gertha othe litzaiekona. Olerkariak, iduri hori beretzakotuz zaharturik ere maite-tasun uztarria erakhus ba’ deza, bere gogoari aitziti dela aitor ohi du. Ni ere, halaber, —amaika eztabai zeharkatu beharko baitut— beldur ikara naiz. Hala guztia ere, zuen nahia bethe beharko. Zenonek berak esakatzen baitu, eta geu bakharrik gagozenez gero. Nundik

hasiko othe gara, bada, eta zein hypothesis agertuko othe dugu lehenik? Ioko astun huntan hasiko garenez, nahi ahal duzue neuregandik hasi nadin eta nire hypopthesisaz, batasunari buruz, eta bat hori delarik ala eztelarik, zer gerthatuko den aztertuaz?

—Ederki, —zion Zenonek.

—Eta nork erantzun beharko deraut? Gazteenak? Hunexek zereginik gutien emanen deraut, eta zintzoenik ihardetsi. Hunekin, hatsen egiteko aldea izanen dut, nik.

—Certu niagozu, Parmenides, erran zeraukon orduan Aristotelek; gazteena aiphatuaz niri buruz ari baitzara. Galde ezazu, eta ihardetsiko derautzut.

—Ongi da, erran zuen Parmenidek. Bata, bada izan,¹³ anhitza ezta, izan ere.

Aristotelek. — Iakina, ba.

Parmenidek.— Hortakotz, zathirik eztu; ezta oso bat.

Aris.—Nola?

Par.— Zathia, osoaren zathi da.

Aris.—Nabaski.

Par.— Bainan, eta osoa bera? Osoa, zathirik peitu edo falta eztuena ez othe dugu?

Aris.—Egiazki.

Par.— Dena dela, bata hori zathiez osotua lizateke, eta ez bat bakharra, soila.

Aris.—Nahi ta ez.

Par.— Bainan bata hori bat izaitea beharreko dugu, eta ez anhitz.

Aris.—Bai, eiki.

Par.— Bata, bat baldin ba da, ezta beraz oso edo guzti bat izanen, eta ezta zathidun ere.

Aris.—Ez.

Par.— Beraz, zathirik ezpa du, hastapenik ere ukhanen eztu, eta ez amairik eta ez erdirik ere, hauk zathiak bait lirake.

Aris.—Ederki.

Par.— Bainan, azkena eta hastapena gauza baten mugak dira.

¹³ Hemen hasten da hypothesis lehenaren hedapena: Bata existitzen baldin ba da. behinik, bata ba othe deneko aieruz hasten da Platon, bata berberari buruz eta orobat bertzeeri, gogoeta cginaz. Eta ondorio eta konsekuentzi ukhakorrez hasten da.

Aris.—Ukha ezina, alegia.

Par.—Bata hori, bada, marrik gabea izanen da, hastapen azkenik ezpaitu.

Aris.—Marrik gabea da (Marra=límite)

Par.—Hortaz bada, iduririk eztuke, ezpaita zuzen ez biribil ere.

Aris.—Nola?

Par.—Ez ahal da biribila, ertzak oro erditik bide berdinerara dituenara?

Aris.—Bai.

Par.—Eta zuzena, bere puntu erdikoa muthur bien aretan duena?

Aris.—Holaxen da.

Par.—Hunegaitik, bat horrek iduri zuzena eta biribila ba lu, zathidun lizateke, eta beraz, anhitza.

Aris.—Bai, eiki.

Par.—Ezta, bada, zuzen ta ez biribil, zathidun ezpaita.

Aris.—Ongi.

Par.—Baina, hunela ba da, utopiko edo ametsezko izanen da; eta lekharik hartuko eztu, bertze gauzengan ez berengan izan ezpaitdateke.

Aris.—Nola?

Par.—Bertze gauzaren baitan baldin ba litz, hunek inguratua legoke, obo baten bait legoen, eta gauzari lekharitan ukhitzen. Orain, erra-gun: bat dena, zathigabea dena, eta oboaren ezer eztena, mila puntutan ukitua izatea, ezineko da.

Aris.—Ezineko da, nabaski.

Par.—Eta beregan ba litz, bera berberak inguratu lizateke, bera eta ez bertzea izanik beregan lizatekelako, gauza bat bertze baten izaitea ezineko baita, hunek inguratua izan ezik.

Aris.—Bai, ziur asko.

Par.—Beraz, gauza bat inguratzaila da, eta bertzea, inguratua. Gauza batek ezin baitu, aski batetan, ari eta iasan zer berdina.

Aris.—Baiki.

Par.—Bata ezta, beraz, nihon ere, beregan ez bertzerengan ere ezpaita izaiten ahal.

Aris.—Hunela da.

Par.—Ohar ezazu, hortakotz, horrela baldin ba da, geldi ala igian izanen den.

Aris.—Zergaitik ez?

Par.—Igian baldin ba da, nahi eta nahi ez, eramana ala aldatua lizateke, igidura erarik ezpaita hauk baizik.

Aris.—Zuzen diozu.

Par.—Eta bata horrek aldakuntza ba du, lehengo bata izanen ezta.

Aris.—Benetan.

Par.—Beraz, aldakuntzaz igitzen ezta.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Lekhu aldatzez igituren othe?

Aris.—Ausaz.

Par.—Baina, bata lekhuz aldatua ba litz, obokiro eraman lizateke, bere baithan bira eginik edota lekhuz lekhu aldaturik.

Aris.—Beharko.

Par.—Bere gain bira egin ba deza, erdi tiletean orpo eginen du, eta erdi horren inguruka ari diren bertze zathiak beharko ditu ukhan.

Bada, nola obokiro bira egin, erdiaren inguru, ez erdi ta ez zathi duenak?

Aris.—Neholaz ere ez.

Par.—Lekhuz alda ba dadi, puntu batetik bertzera helduko da hurrenaz hurren eta eredu hortaz igituren da.

Aris.—Banago hortan.

Par.—Orain, bada; ez ahal dugu erran bata horrek lekhuren baten hartzea ezineko duela, eta halaber, zerbaitengan izaitea ere?

Aris.—Bai.

Par.—Orduan, ezinago da, arean, zerbaiten izaitera heltzea.

Aris.—Horixe uste dut.

Par.—Gauza bat bertzera heltzean, ez othe da beharreko bertze hortan oraindano egoteko, helduxe baizik, eta heltzean ere, bertze huntaz oso landa ez egoitea?

Aris.—Holaxe da.

Par.—Bainan hori, zathidun dan zerbaitez soilik gerta diteke, bertzela ezin batiteke zerbaiten barne eta landa egon. Aitzitik, zathidun eztena, ezin diteke neholaz ere, bertze zerbaiten barne ala kanpoan izan osoko.

Aris.—Horrela dirudi.

Par.—Bata hori, bada, tokialdatzen ezta, inora ioanez ez bertzeratuaz; ez beregan irauliaz, eta aldakuntzarik ere, izaiten eztu.

Aris.—Horixe uste dut.

Par.—Bata horrek beraz, neholazko igidurarik ere eztu. Igiezina dugu osoki.

Aris.—Igiezina da.

- Parms.— Bertzalde, bata hori bertzetan ezin izan ditekela erran genuen.
- Aris.— Bai, gero.
- Par.— Beraz, lekhu berean nehoiz irauen eztu.
- Aris.—Zergaitik?
- Par.— Bertan ba lego egon, bertan lizateke?
- Aris.—Egia da.
- Par.— Horra ba: bata, ez beregan ez bertzerengan ere ezin ditekela izan.
- Aris.—Ez.
- Par.— Beraz, bata ezta nehoiz lekhu berean izanen.
- Aris.—Ezetz dirudi.
- Par.— Lekhu berean ezpaldin bada, tinkatua izanen ezta, ez eta iraunkor ere.
- Aris.—Ez.
- Par.— Dirudianez, beraz, bata ezta ez egonean ez eta higiduran ere.
- Aris.—Eiki.
- Par.— Ezta, beraz, bertze eta beraren berdina, eta ez beraren eta bertzeren berdiñaka ere.
- Aris.—Nola diozu?
- Par.— Beretaz diferente balitz, bataz bertze lizateke; bata ez lizateke.
- Aris.—Egia da.
- Par.— Eta bertzeren berdina balitz, bertze horixe lizateke, eta berbera ez; beraz, ez lizateke dena, bataren bertze baizik.
- Aris.—Norarik gabe.
- Par.— Beraz, ezta bertze izaiten ahal, bera soil baizik.
- Aris.—Ezta ahal, zinez.
- Par.— Bainan bat den bitartean, ezta bertzearen bertze izanen; batarri ezpaitagoko zerbaitetaz bertze izaiterik, bertzeari baizik, eta huneri soilik, arean.¹⁴
- Aris.—Ederki.
- Par.— Hunela, bat den arteno, bertze izanen ezta. Nik bezala pentsatzen eztuzua?
- Aris.—Bai, hunela pentsatzen dut.

¹⁴ Bertzea beraz, bertzea edo berdingaren eideaz ari da: berberaz edo berdinen eidearen zeihar denez.

Par.— Honen indarrez bertze ezpadadi, berez izanen ezta. Eta berez ez baldin ba da, bera ezta izan. Eta berbera neholaz ere, bertze ezpadadi ezertaz ere ezin diteke bertze izan.

Aris.—Ederki.

Par.— Eta ezta berberaren berdin ere.¹⁵

Aris.—Nola diteke?

Par.— Bataren izana edo naturaleza, berdinarena ezpaita.¹⁶

Aris.—Nola diozu?

Par.— Zerbaitez berdina bilhakatzen dena, bata bera bilhakatzen ezta.

Aris.—Nola?

Par.— Zerbaitez berdina bilhakatzen dena, nahi eta ez, anhitz bilhakatzen da, eta ez bata.

Aris.—Egia.

Par.— Baina bat az eta bere berdinez alderik ezpaitz, berbera lizateke, eta bethi berbera; eta bata bilhakatzen dena, berbera lizateke bethiere.

Aris.—Zalantzik gabe.

Par.— Beraz, bata berberaren berdina ba da, ezta bata izanen berberarentzat; eta hunela, bat izanen da bat izan gabe.

Aris.—Baina hori, ezina dezu.

Par.— Orduan, bata, berzeaz diferente dela eta berekiko berdina dela ere, ezina da.

Aris.—Ezina da, bai.

Par.— Hortaz geroz, bata eziteke bertze izan, eta ez beraren eta ez bertzeren berdin ere.

Aris.—Zergaitik?

Par.— Ahantzekoa berdinarene kutsakide baita nolabaitean.

Aris.—Baiki.

Par.— Baina, ikhusi genuanez, berdina bataren naturaleza berezi-koa da.

Aris.—Horrela derizkiogu.

Par.— Baina, bata hau bateren bereziko izaeraren zathidun ba litz, hortik bat baino gehiago lizatekela atherako genuke, eta hori, ezina da.

Aris.— Baiki.

¹⁵ Berberaren berdin ere ezta, dio, muinez Parmenidek.

¹⁶ Berbera edo berdina, beregan edo baitan.

- Par.— Bata, beraz, ezтитеke beraren eta ez bertzeren berdineko izan.
- Aris.— Ezetz dirudi.
- Par.— Eta horrez geroz, ezta bertzeren ez eta berberaren ahantzeko ere.
- Aris.— Egiazki.
- Par.— Baina, bata hori ezтитеke differentearen muinkide izan, orduan ere, bat baino gehiago izaitea gertha baititke.
- Aris.— Bat baino gehiago liteke, arean.
- Par.— Orain, ikhus: berekiko ala bertzekiko, differentearen muinkide edo erdikide dena, beregan ala bertze gauz hortaz ahantzagabe da, baldin berdintasunaren muinkide den hori ahantzeko ba da.
- Aris.— Ongi.
- Par.— Hortaz erran dezakegu: bata, berdinezaren muinkide ezpaita dirudianeaz, berekiko eta bertzekiko ere, ahantzagabe ezta nehola ere izanen.
- Aris.— Ez.
- Par.— Hunela ba, bata ezta ahantzeko ez ahantzagabe bertzekiko ez eta berekiko ere.
- Aris.— Horrela derizkiot.
- Par.— Beraz, bata ezta berdin ez berezi, berekiko ez bertzekiko.
- Aris.— Nola?
- Par.— Berdin ba da, berdin den gauzaren izarian berean izanen da.
- Aris.— Benetan, zinez.
- Par.— Neurkoi diren zerak baino handiago edo tipiago baldin ba da, neurri arrunt edo orokikoa, gauza tipiak baino areagotan izanen da, eta gauza handiagoak baino gutiagotan.
- Aris.— Horixe bai.
- Par.— Neurkide ezтiren gauzeri buruz, bat baino neurri tipiagoak ukhanen ditu, eta bertzeak baino handiagoak.
- Aris.— Beharko.
- Par.— Baina berdinkide eztenak bertze gauza baten neurri berdina izaitea ezina ez othe da?
- Aris.— Ezina da bai.
- Par.— Hunela, bata ezta berberaren berdin eta ez bertzeren ere, neurri bereko ezpaita.
- Aris.— Horrela dirudi.
- Par.— Eta neurri handiagoak edo tipiagoak balitu, zenbat neurri hanbat zathi ukhanen lituke. Humela, ezlizateke bat izanen, neurriak bezanbat elementudun baizik.

Aris.—Alkhi gagoz.

Par.—Eta neurri edo izari bakharreko ba litz, neurri horren berdina lizateke. Baina ezerttoren berdina izaita, ezinekotzat etsi dugu.

Aris.—Horrela zirudien.

Par.—Bata horrek neurri bakharra ezpa du, ez anhitz eta ez guti, ez berdinarenean kide batetan ezpa da, dirudianeaz, berekiko ez bertzekiko ezta berdina izanenean, eta ezta berbera edo bertzea baino handiago ez tipiago ere.

Aris.—Baiki.

Par.—Eta bata hori, bertze edozein gauza baino zaharrago ala gazteago ala adin bereko izan litekeiela uste duzua?

Aris.—Zergaitik ez ba?

Par.—Berberaren ala bertzeren adineko baldin ba litz, aldiari buruz berdintasun eta ahantzean kide lizatekelako, eta erran dugunez, batak ezta berdinek ez ahantzekorik onhartzenean.

Aris.—Hunela genion.

Par.—Ahantzegabean eta berdinezean ere, kide ez zela, erran genuen.

Aris.—Egia

Par.—Ba, hunela ba da, ¿nola diteke bata bertze edozer gauza baino zaharrago, gazteago eta adin bereko izaita?

Aris.—Neholaz ere ez.

Par.—Horregaitik, bata ezta ez berbera ez bertze baino zaharrago ez gazteago ez adinkide.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Baina, bere naturalezari buruz, bata neholare aldiaren ezin izan diteke: aldiaren dena, noraezean, bata baino zaharrago bilhakatzenean baita bethi.

Aris.—Nahi eta nahi ez.

Par.—Eta zaharrago dena, ez ahal da bethiere, gazteago dena baino zaharrago?

Aris.—Eiki.

Par.—Hortaz geroz, berbera baino zaharrago bilhakatzenean dena, batetan gazteago ere bilhakatzenean da, zerbaiteri buruz zaharrago bilhakatu behar baita.

Aris.—Zer erran nahi duzu?

Par.—Oraintxe ikhusiko duzu: diferente den gauza batetaz diferente ezin bilhakatu diteke gauza bat. Berdineza denaz, diferente da.

Diferente zen zeraz diferentzatu egin da. Bainan bilha bidean, alda hurran deno, ezta eta izanen ere ezta diferente bertze gauzarekiko. Bera da diferente bilhakutzen dena, bainan bertzerik ez.

Aris.—Nahi ta ezeko.

Par.—Hortaz, “zaharrago”-k “gazteagoa”-z aldea du, eta hartaz soilik.

Aris.—Horrela da.

Par.—Beraz bera dan baino zaharrago bilhakutzen dena, nahi eta ez, den baino gazteago ere bilhakutzen da.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Gauza bat aldiari dagokonez, den baino handiago ala tipiago bilhakatzea ezina da; aitzitik, aldiari buruz, bera denez bilhakatzten da, bilhakatu da eta bilhakatuko ere, bai.

Aris.—Ondorio hori noraezeko dugu.

Par.—Noraezeko da, beraz, dirudianez, aldian dena eta aldikide dena, adin bereko dela berekiko, eta batetan den baino zaharrago eta gazteago.

Aris.—Horrela dirudi.

Par.—Baina izaera hauietarik bat ere, eztagoko batari.

Aris.—Batto ere ez.

Par.—Alta, batak eztu aldiaz zer ikhusirik: ukroniko da, aldiz atako.¹⁷

Aris.—Horrela onetsi behar adimenaren arabera.

Par.—Baina, nola! Zen bilhakatu da eta zen terminek, bilhakaturikoa lehengo kide dela adiarazi bide dute!

Aris.—Bai, nabaski.

Par.—Eta “izanen da”, “bilhakatua da”, “bilhakatu izan izanen zen” terminak, ez ahal dute ethorkizun kidetasuna adiarazten?

Aris.—Bai.

Par.—Eta “da”, “bilhakatzten da” terminak oraingo aldikoa?

Aris.—Baiki.

Par.—Hunela, beraz, bata hori nehola ere aldiaren kide ez baldin bada, etzen nehoiz bilhakatu, ez izan, ez bilhakatu izan ere; orain, ezta bilhakatu, ez bilhakatzten, eta izan ere ezta; eta oraindik, ezta bilakatuko ez bilhakatua izan izanen da, eta izan ere izanen ezta.

Aris.—Horrelaxe da, egiazki.

¹⁷ Ukroniko, edota aldiaz landako; utopiko lekhuaz landa den araura.

Par.— Eta, ba dateke izatearen muinkide izan, eta hortaz bage bertzetaz?

Aris.—Ezina.

Par.— Beraz, bata ezta izatearen muinkide nehola ere.

Aris.—Horrela iduri du.

Par.— Hortaz bada, bata izan ere ezta, ezein eratan ere?

Aris.—Horixe bai ezetz.

Par.— Bada, hunela, bata ere ez dateke izan era hortaz, izatea balizateke izatearen muinkide. Eta ondorioz, gure zioak ikhusiki, bata hori ezta ez bata, ez izan ere ezta.

Aris.—Horren bildur naiz.

Par.— Orain, erragun: eztenak, —eta eztelakotz— ba ahal dezake ukhan ezer ere bere denik?

Aris.—Nola diteke horrelakorik?

Par.— Hunela, ezta ez izenik, ez elherik, ez iakintzarik, ez zirrararik izanen, ez eta horrelako deuseren iritzirik ere.

Aris.—Horrela dirudi.

Par.— Hortaz, eztaeteke aiphatua ere izan, ez adiarazi, ez epaitua, ez ezaguna, eta horren nabaripenik dukeen izakirik ere, ezta.

Aris.—Iduriz, hunela da.

Par.— Bainan, ba dateke batari buruz horrelakorik gertatzerik?

Aris.—Badut lorrik hori sinhesten.

Par.— Nahi duzua, oraidanik, lehengo bideak egin ditzagun, eta gure hypothesisa berriren berri har dezagun, gauzak bertze argi batez ikhusteko zori dugunz?

Aris.—Txit ongi derizkiot.

Par.— Erragun, bada: baldin bata ba da izan, izaten humen ondorioak, direnak direla, on har ditzakegu, ez othe?¹⁸

Aris.—Bai.

Par.— Lehen urhatsetarik hasiaz, ikas dezagun bata hori ba da izan, izakiaren muinkide eztelarik, izan ahal dateke?

Aris.—Ezin dateke.

Par.— Bataren izakia existitzen da beraz, bataz nahastzeke. Bertze erduz izakia ezlizateke bataren izaki, eta bata izakiaren muinkide ere ez. Berdin lizateke bata badela erraitea, nahiz bata bata dela

¹⁸ Elkharrizketak une huntan ondorio baikorrez dihardu.

- erraita ere. Bainan guk iakin gogo ditugun ondorioen hipotesisa ezta bata bata dela, bai ordea bata badela baizik. Horixe ez othe?
- Aris.—Erdi erditik.
- Par.— Hunelarik, “badela” terminari eta “bata” terminari balio berdinga emanen diogu.
- Aris.—Nahi ta nahi ez.
- Par.— Bata, badela derragumean, bata izakiaren muinkide dela derragu hitz hortaz.
- Aris.—Holaxen da bai.
- Par.— Itzul gaitezin gure arlora. Ikhus dezagun bata hori bada izan, zeintzu ondorio dakharzkigun. Eta ohar ezazu gure hypotesis hunen onerako, bata horrelakoa izaitekotz, zathidun beharko duen.
- Aris.—Nola?
- Par.— Ikhus ezazu: Den batari buruz badela erraitean, eta izaki batari buruz bata; izakia eta bata elkharrekiko berdingak ba dira, bainan gure aierukiko direlarik bitzuok (bata badela, alegia), ¿den bata hori, oso beharko dela izan, hain zuzen ere, eta hunen zathi bata eta izakia, eztugu beharreko esten ahal?
- Aris.—Noraezeko?
- Par.— Atal bakhoitza atal deithuko dugua, ala atala, osoaren atal dela erran?
- Aris.—Osoaren atal dela, erranen.
- Par.— Eta osoa, bat eta zathidun dena othe dugu?
- Aris.—Hain zuzen ere.
- Par.— Eta den bata horren zathi biak —hunelatsu: bata eta izakia—, bata bertzezanik banantzen othe dira nehoiz? Bata izakiaganik eta izakia bataganik?
- Aris.—Ezineko duzu.
- Par.— Beraz, atal bi batbederak, izakia eta bata izanen ditu barren-dak, eta hunela, zathirik tipienak berze zathi bia ukhanen ditu. Iradipen hau marrik gabe luza diteke; biko ezten zathirik ezta; izana barneko duelarik, zathi bata; eta izana, bata bere baithan duelarik. Hunela batbedera bia da, eta neoiz ere ez bat.
- Aris.—Ederki.
- Par.— Hunela, bata dena, guengabe izanen da anhitz.
- Aris.—Horrela iduri du.
- Par.— Alta, io dezagun bertze ikherbidez.

Aris.—Zertaz?

Par.— Bata, izanaren erdikide dela ez ahal genuen erran, eta izan ere, horregatik dela?

Aris.—Bai.

Par.— Eta hori dela bide, ez othe derizkiogu anhitz?

Aris.—Aren ere.

Par.— Baian, bata horixe —eta hunen zathidun izana bera— bere baithan sail badakhusagu, muinkide den hartaz iarei eta libre, bat dela onhartuko othe dugu, ala anhitz dela?

Aris.—Bat, ene ustez.

Par.— Azter dezagun bada: noraezean ere, bataren izana gauza bat da, eta bertze bat bata hori; bata izana ezpaita, eta bata denez geroz, izanaren muinkide baita.

Aris.—Noraezean.

Par.— Alta, izana eta bata gauza berdinezak baldin badira, izanaz bertze dela bata hori ezta batasunarren izanen, ez eta izana bere baithan bata hortaz bertze ere, ezenez bioj bardingak dirateke diferentearen indarraz (ala berez bertze denaz).¹⁹

Aris.—Eiki.

Par.— Hortaz, differentea, bertzea, ezta ez bataz ez eta ere izanaz nahasten.

Aris.—Dударик gabe.

Par.— Hunela: izana eta berzea batetan har ba ditzagu, edota izana bata edota bata eta bertzea —zue nahiaren arabera—, aiphatu gertuketa bakhoitzean har dezaguna, ez othe da zeazkiro “bion” expresinoz agertarazia izanen?

Aris.—Zer erran nahi duzu hortaz?

Par.— Oraintxe zeuk ikhusiren. Izana, erran ahal dezakegu?

Aris.—Bai.

Par.— Eta ondotik, bata?

Aris.—Baita.

Par.— Beraz, bitzuok aiphatu othe ditugu?

Aris.—Bai.

Par.— Horra bada; izana eta bata erraitean nik, jbitzuok batetan aiphatzen ez ahal ditut?

¹⁹ Differente, berdinga edo berez bertze dena.

Ari.—Egia.

Par.—Eta ondorioz: izana eta bertzea, edota bertzea eta bata erraitan nik, kasu bakhoitzean biok izendatzen ditut.

Aris.—Dударик gabe.

Par.—Bainan bitzuok erraitan, ba da bitzu izaiten ahal, bi izaiteke?

Aris.—Ez.

Par.—Bainan, gauza bi diren lekhuari, ba othe da possible batbera bata ez izatea?

Aris.—Neholaz ere ez.

Par.—Hunela, bada, aipatu gauzak binan binan ohartuak ba ditezke, hekiatarik batbedera bat izaitea beharreko dugu.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.—Gauza hekiatarik batbedera bat baldin ba da, ordean biko hekiatariko edozein batari unitate bat gehituaz geroz, hiruko kopurua ez othe iritxiren?

Aris.—Bai.

Par.—Hirua ez othe bakotxi (impar) eta bia, bikotxi?

Aris.—Ezpai gabe.

Par.—Haatik, bi direnca ezta nahi eta nahi ez birritan izaitea, eta hirur direnean hirur, bia bat birritan baita, eta hirur, bai hirur bider.

Aris.—Beharko.

Par.—Eta bi eta bi direnean, ez ahal dugu agirikon gauza bi birritan direla, eta halaber, hirur hirur aldiz, nahiz eta nahi ez hirur bider hirur?

Aris.—Dударик gabe.

Par.—Alta, hirur eta bi aldiz, eta bi eta hirur aldiz direnean, ez othe dira noraezean birritan hirur eta hirur bider bia?

Aris.—Doi doia.

Par.—Beraz, numeru bikotxiak, bider pareko numeru, eta bakotxiak bider bakotxiko numeru izanen ditugu; eta bikotxiak, bider bakotxiko numeru eta bakotxiak bider pareko edo bikotxiko.

Aris.—Bai.

Par.—Hunela baldin ba da, beharreko ezten numeru bat bakharra ere izanen dela uste duzu?

Aris.—Eztut holakorik uste.

Par.—Beraz, bata existitzen ba da, numerua ere beharreko da existitzea.

Aris.—Beharreko da bai.

Par.— Bainan, numerua existitzen ba da, anhitz izaki izanen da, asko, azkenik gabe. Bertzenaz, izanaren zathidun den numeru azkengabea denik ba dugu ukhatzen ahal?

Aris.— Horixe ez.

Par.— Orain, numeru bakhoitza izanaren muinkide baldin ba da, numeru horren zathi bakhoitza ere, izanaren muinkide othe?

Aris.—Bai.

Par.— Hortaz, izaki guztieri banakaturik othe da existentza, hain zuzen ere izakirik batere tipi nahiz handi, horren gabe eztelarik? Edota, galdera hori kirtinkeria bat ez izaki,izategabekorik ezpaitateke?

Aris.—Ezina.

Par.— Existentza, beraz, izaki handienen eta tipienen artean banakatua dago; erabat erran, izaki guztien artean. Bertze ezer guztarik baino barreiatuago dago munduan, existentza atalak marrikabe edo zenbatezinak baitira.

Aris.—Egia da.

Par.— Beraz, ezerk eztu zathirik existentzak bezanbat.

Aris.—Ezerk ere ez, arean ere.

Par.— Eta atalkizun dena, ez othe da atal dituen adina anhitza, behar beharrean?

Aris.—Behar beharrean.

Par.— Hortaz, egiarik ez genuen oixtian erraiten, izana atal zenbatezinekotan barreiatua zela erraiten. Eztaiteke bat baino atal gehiagotan banakatua izan, eta bai hain zuzen ere, bata adina ataletan. Izana, eztaiteke bataganik bana, ez eta bata, izanaganik ere; ordenan, bitzuok bathi pare dira.

Aris.—Egia handia.

Par.— Beraz, bata ere, izana baithan banandua, anhitz izanen da, eta numeruz zenbatezina?

Aris.—Hunela dirudi.

Par.— Hortaz, ezta izaki bata soilik anhitz izanen, aitzitik bata ere, izanak zathitua, anhitz izanen da noraezean.

Aris.—Dударik gabe.

Par.— Bainan, neholaz ere, atalak osoaren atal baitira bethiere, bata osoa denez, mugatua izanen da. Edo, atalak osoaren baithan ez othe dira, agian?

Aris.—Halabeharrez.

Par.—Orain, erragun: bertze gauza norberagan duena, muga bat da.

Aris.—Holaxen.

Par.—Orduan, bata hori bat eta anhitz da aldabatetan, oso eta zathiak, mugatua eta mugagabea.

Aris.—Humela iduri du.

Par.—Bainan, mugatu baldin bada, ertzadun dateke.

Aris.—Beharko.

Par.—Eta eztu, gauzak oro bezala, hastapen, erdi eta azkenik izanen? Ala, hirur gauzok gabeko oso bat esistitzea ba othe dateke? Hekiatarik bat faltatuko ba litz, osoak badirauela erran ahal deza-kegu?

Aris.—Ez.

Par.—Horren araura, batak hastapen, erdi eta azken izanen du.

Aris.—Baiki.

Par.—Bainan erdia muthurretaz bideberdin izanen da; bertzenaz, erdirik ez lizateke.

Aris.—Egia duzu.

Par.—Eta humela izanik, batak iduri edo tankeraren bat ukhanen du, zuzen, biribil ala biotarikoa.

Aris.—Zinetan.

Par.—Bainan, humela ba da, ez othe bata bere baithan eta bertze gauzegan izanen?

Aris.—Nola?

Par.—Zathi bakhoitza osoan datza, eta ezta bat ere zathirik, hartaz kanpo denik.

Aris.—Alkhi gagoz.

Par.—Zathiak oro, osoaren barne othe?

Aris.—Bai.

Par.—Bataren atalak oro, —ez bat gehiago ez bat gutiago—, osoaren osagarri dira.

Aris.—Baiki.

Par.—Bainan, osoak edo guztiak, bereketz, bata ez ahal du eratzen?

Aris.—Bertzerik iduri othe daiteke?

Par.—Beraz, zathiak oro osoaren barne baldin ba dira, eta hekiek bata eta osoa bera ere, eratzen ba dute eta osoak inguratuak ba dira, ondorio hau dugu: bata, bataren barnetua dela, batak inguratzen duela; eta beraz, bata bera baitha dela izan badugu ikhusten.

Aris.—Ederki.

Par.— Bertzalde, osoa eztago ez eta ere ezta bere atal guztietan ez atalen batean ere. Arean, guztietan ba lego edo ba litz, nahi eta ezean ere, atalen batean lizateke. Battoen ere ezpa litz, ez lizateke guztietan. Atal hori bertzeen artean delarik, osoa bere hartan ezpa litz, nola liteke atal guztietan izaitea?

Aris.—Ori ezina dukezu.

Par.— Orain, bada: osoa bere zathi batzuetan ez baldin ba da, ez hekiatarik baten soilik ez eta guztietan ere, nahi eta nahi ez bertze gauzaren baten baithan izanen da, edota lekharik ere hartuko eztu, betheko eztu, nehon ere izanen ezta.

Aris.—Behar beharreko.

Par.— Lekharik betetzen ezpa du —lehen erran bezala, utopiko ba da—, deusere izanen ezta. Bainan nehola ere oso bat baita, eta beregan eztenez geroz, bertze gauza baithan izaitea beharreko da.

Aris.—Dudarik gabe.

Par.— Beraz, oso denez, bata, bada bertze gauza baithan, eta osoaren zathi guztiez berdin denez, beregan bada izan ere; hortaz, behar beharrik beregan da, eta bertze gauzagan.

Aris.—Ezin bertzez.

Par.— Bataren natura hori izanik, igiz eta egonaz izaitetz ez othe beharreko?

Aris.—Nola?

Par.— Ba da egonean, berbera da izan, beregan. Gauza batean izaki, eta beretik ilkhi gabe, gauza berean izanen da bethi; bere baithan, alegia.

Aris.—Baiki.

Par.— Orain bada: bethi gauza berean dena, nahi eta ez, egonean da.

Aris.—Ederki.

Par.— Alta, alderantzira, bethi bertzegana dena, ez othe ezgai bethi bere hartan, hein batean izaiteko? Eta nehoiz ere hein berean eztena, egonean ere izanen ezta. eta egonean ez baldin ba da, igian izanen da, alegia. Ez othe?

Aris.—Eiki.

Par.— Beraz, beregan eta bertzegana den bat hori, bethi igian eta egonean izaitea beharko dugu.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.— Bata, gainera, berberaren berdina da, eta berberaz diferente; eta halaber, bertzez gauzez berdina eta hekiak diferente, oraino errana egia baldin ba da.

Aris.—Nola horrelarik?

Par.— Gauzen artean diren elkhardurak bi dira soilki; berdintasun eta diferentza. Gauza batek bertzcari buruz berdintasunik ez diferentzarik eztunena, bitzuon elkhardura, zathirik osorako ala osotik zathirako izanen da.

Aris.—Hunela da.

Par.— Hortaz, bata, berberaren zathi othe?

Aris.—Nehola ere ez.

Par.— Eta berekiko ere, bata ezin diteke oso izan, zati bezala ohar-turik; orduan, bada, berberari buruz zathi bait lizateke.

Aris.—Hori ezina da.

Par.— Bainan, bata bertze othe da, batari buruz?

Aris.—Horixe ez, gero.

Par.— Orduan, ezta bertze, berberari buruz.

Aris.—Ez, eiki.

Par.— Bainan, bertze ezbalidin bada, ez zathi eta ez oso, berberari buruz ohar-turik? Ez othe ezin bertzeko indarrez berberaz berdina izaita?

Aris.—Nabaski.

Par.— Bere baithan ez-ta, bertze lekhuana dena, ordean, eta halaber bere baithan irauki, gertze lekhuana izaita, bere buruaz bertze ez othe da?

Aris.—Horixe uste dut.

Par.— Hortaz, ohar dezakegunez, batak beregan eta bertzegana dirau, aldabatetan.

Aris.—Bethe bethean halaere.

Par.— Alta, arau huntaz, batak berberaz diferente izan behar duela ez othe du iduri?

Aris.—Hunela dirudi.

Par.— Bainan, nola? Gauza bat bertzeaz berdinga edo diferente baldin ba da, hau ere lehenaz diferente ez othe?

Aris.—Beharko.

Par.— Bata ez dena, bataz diferente ez othe? Eta orobat, bata ere, bata eztena?

Aris.—Ezpairik gabe.

Par.— Berhain, bata, goraitiko gauzetaz berdinga izanen da.

Aris.—Eiki.

Par.— Ohar ezazu, bada, berbera eta bertzea,²⁰ elkharren aitzikoak ez othe diren.

Aris.—Zalantzarik gabe.

Par.— Eta berbera bertzezan izaitea nehoiz bai ahal othe, ez eta bertzea berbera hartan ere?

Aris.—Ez, ezin dateke.

Par.— Alta, bertzea, berdingea, beregan berdinean nehoiz ere ba daiteke, batere izakiarik ez lizateke berengan bertzea, berdinga, aldireren batez ere, lukenik. Baldin izaki hortan zenbait aldiz ba litza, aldi hortan bertzea berberagan lizatekelako. Ez othe?

Aris.—Bai.

Par.— Bertzea egundano berberagan izan ezpaita, ezein izakitan nehoiz ere izanen ezta.

Aris.—Alkhi gagoz.

Par.— Berhain, bertzea ezta bata eztenan izanen, ez eta bata denean ere.

Aris.—Zinetan ere ez.

Par.— Hunela, bata, bata eztenaz diferente izaitea, ezta bertzeaketz izanen, ez eta bata eztena ere, bataz berdinga.

Aris.—Ez.

Par.— Halaz ere, bata eta bata eztena elkharkiro berdingak ba dira, bertzeak, alegia, eztirateke hunela berenez, biotatik batbedera ere bertzeaz kutsazen ezpaita.

Aris.—Dudarik gabe.

Par.— Bainen ez berenez ez bertzearen zathidun direnez, bertze ez baldin ba dira ekien arteko differentza ez othe suntsituko?

Aris.—Baiki.

Par.— Bertzalde, bata eztena hunen muinkide ezta; muinkide baldin ba litz bata-eza ezpailizateke izanen, bata baizik.

Aris.—Egia da.

Par.— Hortan, bata eztena, numeru ere izanen ezta, izaitea baldin ba litz, zinctan bata-eza izanen ez liztekclako.

Aris.—Ederki.

Par.— Bainen, izan ere eztena, bataren zathi izanen othe, ausaz? Edota, aieru hortaz, bata eztena, bataren zathi othe?

²⁰ Labur: berdina eta berdinga.

Aris.—Bataren muinkide lizateke, alegia.

Par.—Alta, bata guztiz bata baldin ba da, eta bata-eza guztiz bata-eza, bata bataezaren zathi izanen ezta, ez eta bata-ezaren zathi datekean osoa ere; eta, halaber, bata-eza, bataren zathi, ez eta zathi den bataren osoa ere.

Aris.—Horrela da.

Par.—Eta orain: gauza heiek batzuetaz bertze eztirela guk erranikoak, ez zathi, ez oso, ez diferenteak eztirenak, berdinak dira.

Aris.—Horixe erran genuen.

Par.—Berhain, eta halaber, bata —bata ezarekiko baldintza berdinetan baitago— bata-ezaz berdin dela erranen othe dugu?

Aris.—Erran dezagun.

Par.—Hunela bada, bata, iduri duenaz, bertze gauzetaz eta berberaz diferente da, eta bertze gauzen eta berberaren berdin.

Aris.—Horrela iduri du gure elheen ondorio edo oputzak.

Par.—Bata, ez othe, gainera, berberaren eta bertze gauzen ahantze-ko eta gabe?

Aris.—Ausaz.

Par.—Bertze gauzetaz berdinga azaldu izan baitzauku, hekiek ere, halaber, bataz diferente izanen.

Aris.—Bai, nonbait ere.

Par.—Hunela, bertze ororen different da, eta bertze oro, bat horren berdinga da, hain zuzen ere.

Aris.—Eiki.

Par.—Ez gehiago ez gutiago. Beraz, berdinki.

Aris.—Baiki.

Par.—Bata bertze orotaz bardinga, eta bertze oro bataz berdinga direlaren zioa, eta bertzalde, bata bertze oroz berdin eta bertze oro bataren berdin, zio berbera da.

Aris.—¿Zer erran nahi duzu hortaz?

Par.—Oraintxe ikhusiko duzu. Izen bat darabiltzuncan, norbaiti dei egiteko ez othe duzu?

Aris.—Dudarik gabe.

Par.—Eta, izen berbera, behin soilik ala gehiagotan oguzi ahal deza-kezu?

Aris.—Anhitzez, iakina ba.

Par.—Izan bat behin bakharrrik erraitzez izendatu gauza hori aiphatzen duzunez, izen hori sarritan oguztean ez othe duzu aiphatzen?

Edota, izen bat behin ala gehiagotan erraiteaz, nahi eta ez gauza berbera izendatzen ez othe?

Aris.—Zinetan.

Par.—Bainan, bertze ere, gai othe da zerbaiten izen ledintzat?

Aris.—Berdinki.

Par.—Berhain, oguztea, bai behin bai anhitz, izena bertze duen gauza soilik aiphatzen duzu.

Aris.—Beharko.

Par.—Bataz garaitiko guztiak, hartaz bertze direla erraitean, eta bata bertze dela garaitikoeri buru, bertze hitz horixe birritan oguztean, eztugu, halarik ere, gauza bat eta esentza bat baizik izendatzen: bertzea izenduna, alegia.

Aris.—Hunela da.

Par.—Hortaz, bata garaitikoetaz bertze baldin ba da, eta garaitikoak bertze batari buruz, hau, bertzeren muinkide delarik, garaitikoak muinkide diren gauzaz bereaz muinkide da, eta ez gauza differentaren. Orain bada: gauza beraren kide dena, ahantzeko da; egia ez othe?

Aris.—Bai.

Par.—Hunela, bata hori garaitikoez berdinga izatearen sorkun edo erro dena, oro oren ahantzeko denaren erro ere, izanen da. Ezen oro, oroz differente baita.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.—Halarik ere, ahantzekoa ahantzegabearen alderantzi da.

Aris.—Bai.

Par.—Eta berdinga, berdinarean alderantzi.

Aris.—Baita.

Par.—Bainan, bata, garaitikoez berdin ageri izan zaiku.

Aris.—Hunela agiri izan zaiku.

Par.—Eta garaitikoez berdin izaitea, garaitikoez differente izaitearen alderantziko izakera dugu.

Aris.—Eiki.

Par.—Beraz, berdin denez, ahantzegabe izanen da, ahantzeko egiten duenaz alderantziko heinean egonik. Osterantzean, ez othe hain zuzen ere berdinga, ahantzeko bilhakatzen duena?

Aris.—Bai.

Par.—Berdinak, beraz, ahantzegabe eginen du, ala berdingaren alderantzi izanen ezta.

Aris.—Horrela dirudi.

Par.— Berhain, garaitikoez ahantzeko eta ahantzegabe izanen da bata; ahantzeko, diferente denez; ahantzegabe, berdin denez.

Aris.—Horixe da, ene iritziz, gure elhearen ondorioa.

Par.— Bertze gauzarik ere, erakrusten du elhe horrek.

Aris.—Zein, gero?

Par.— Berdin eginarazten duenak berezi-eza billakatzen du; berezi-eza eginarazten duenak, ahantzegabe-eza billakatzen; eta ahantzega-eza denez geroztik, ahantzeko.

Aris.—Egia derrazu.

Par.— Hunela, bata, bertze gauzetaz berdin denez eta halaber, berdinga, elkhardura biotan eta bakharrean, bertze gauzetaz ahantzeko eta ahantzegabe izanen da.

Aris.—Doi doia.

Par.— Orain erragun: bere buruaz diferente eta bere buruaren berdin ageri izan zaiku. Berhain, elkhardura biotaz eta bakhoitzean, berekiko ahantzeko eta ahantzegabe agertuko zaiku batetan.

Aris.—Hala beharrez.

Par.— Orain bada, bertze korapilo bat agertzen zaiku. Batak bere buruari ukhitzea eta halaber, bertzeeri, ohar ezazu.

Aris.—Gertu nuzu azterketa hortarako.

Par.— Batak, zinez, bere izate osoan dela iduri duela ikhusi dugu.

Aris.—Zioz, halere.

Par.— Bertze gauzen barne ere, ez othe da?

Aris.—Bai.

Par.— Eta bertze gauzen barne denez, hekieri ukhitzen ez othe? Berbera barne delarik ezin dezake bertze gauzeri ukhi, bainan bai berekiko, beregan edo berebarne baitirau.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.— Beraz, bere buruari ukhitzen dio, bai eta bertze gauzeri ere.

Aris.—Eiki.

Par.— Bainan, gauza zeina bateri ukhika nehor dena, ukhigaiaren ondoan egoitea beharreko ez othe, ukhi gauza horren ondoko lekhu betheaz?

Aris.—Beharko.

Par.— Alta, batak bere buruaz ukhipena behar ba du, beraren ondoan egoitea noraezeko du, bera dagoen lekhuaren alboan egonik.

Aris.—Noraezeko du, alegia.

Par.— Bainan, hori gertatzekotz, bata bia ixaita nahi ta nahiezko lizateke, eta aldi batetan bi lekhu diferente harturik. Bainan, beraren naturaren ukhapena ez othe, bat baita?

Aris.—Zinez, bai.

Par.— Alta, bata bia izaita bezin ezineko da bata berberari ukhitzea.

Aris.—Eragozpen berdina dugu alderdi biotan.

Par.— Bainan, hortaz, bertze gauzetaz ukhitzerik ere izanen eztu.

Aris.—Zergatik?

Par.— Zeragatik; erran dugunez, zerbaiteri ukhi behar deraukonak, lekhorean egon behar du eta ukhigaiaren ondoan, eta bertze hirugarrenenik tartean eztelarik.

Aris.—Egia da.

Par.— Berhain, ukhipenik ba litz, bi izaita preminazko da.

Aris.—Beharko.

Par.— Eta bi gauza hekien artean bertzeren bat ipiniez geroz, hirur gauza izanen genituke, arean; bi ukhipen soilik, ordean.

Aris.—Egiazki.

Par.— Hunela, bihi edo soin berri bat gehitu-ala, ukhipen berri bat egiten du soilik; eta hunelatan, ukhipen numerua, terminaren numerua bainon bat gutiago izanen da bethiere. Eta nola nahi ere, terminak hastapenik ere ukhipenaz areagoak baitira, hein berdinkiz gainezkatu doaz, terminen kopuru edo sumari termina bat baino gehiago erantsitzen ezpaitiogu, eta ukhipen berri bat ukhipen kopuruari.

Aris.—Arteza duzu ondorio hori.

Par.— Terminen numerua edozein delarik, bethiere ukhipenena baino bat handiago izanen da.

Aris.—Eiki.

Par.— Eta termina bakhar bat baldin ba dugu, bikiatarik ezpa da, ukhitzerik ezin.

Par.— Orain bada: bata ezik bertze diren gauzak, bata eztirela eta hunen minkide eztirela ere, erran dugu; hartaz bertze baitira.

Aris.—Zinez.

Par.— Berhain, numerurik ezisti izanen ezta bertze gauzetaz, hekie-tan unitaterik ezpaita.

Aris.—Eta, nolatan izan ere!

Par.— Bertze gauzak ez titezke, beraz, ez bat ez ez bia, ez nehongo numeruz expressa edo agerrazi.

Aris.—Ez.

Par.—Berhain, bata soilik existitzen da; eta biketarik ez titeke.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.—Biketarik ezpa da, ukhipenik izaitea ezina da.

Aris.—Bai, arean.

Par.—Eta ukhitzerik ezpa da, ez batak ukhituko dio bertze gauzeri, ez garaitikoez batari.

Aris.—Eiki.

Par.—Elhe guzti haukien arara, beraz, batak ukitzea ba-du, eta ukhitzerik eztu bertze gauzetaz eta bere buruaz.

Aris.—Hunelako ahantzak ditugu.

Par.—Hortaz bada, bere buruaz eta bertze gauzetaz berdin eta berdinga ere, izanen da, bata hori.

Aris.—Zelanik hunela?

Par.—Bata bertze gauzak baino handiago ala tipiago izaitea edota bertze gauzak bata baino handiago ala tipiago, bata bertze gauzak elkharkiro handiago ala tipiago izaitea, bata bata delako izanen ezlizateke, ez eta bertze gauzak bataz bertze direlako ere. Laburzki erran: bakhoitzaaren esentzen bidez ezlizateke hori, esentza haukiez gain berdintasun edo ekualitatea dutelakotz baizik. Eta bertze gauzak handitasunaren muinkide ba dira eta bata tipitasunaren, edota alderantzira; orduan, handitasunaz partizipatzen duen eidea, handiena izanen lizateke, eta tipitasunaz egiten duena, tipiena.

Aris.—Noraezean.

Par.—Orain bada: handitasunaren edo hedagoraren eta tipitasunaren eidea biok existitzen ez ahal dute? Existitzen ezpalira, elkharren zeiber izanen ezliratekelako, ez eta izakien arteko ere.

Aris.—Eiki.

Par.—Tipitasuna bata hortan badago, bata osoan izanen da, edota haren zathiren batean.

Aris.—Beharko.

Par.—Egin dezagun bata osoan dela tipitasuna. Orduan, bataren osotasunean hedatuko da, hunen puntu guztietara banatuaz, edota bataren ingurura hedatuko, osoki bilduaz hura.

Aris.—Dударик gabe.

Par.—Bainan tipitasuna bateren osotasunean heda ba dadi, hunen puntu guztietaz banaturik, bataren berdin dateke; eta bildu ba deza, hura baino handiago dateke.

Aris.—Ongi dago.

Par.—Berhain, possible dea tipitasuna hedagoan zerbaitez berdin ala handiago izaita? eta beraren funzino edo iharduketa ordez, berdintasuneko edo hedagokikoak bethetzea?

Aris.—Ezta possible.

Par.—Hortaz, bada, tipitasuna ezta batere osotasunean edirenen, eta bai, gehienik ere, haren zathiren batean.

Aris.—Hunela da.

Par.—Bainan, zathi osoan ere, edirenen ezta, hunela izaitetz geroz, zathiar buruz osoa bailitzan ari izango lizatekelako, legokean zathia bezain ala handiago izanik.

Aris.—Eiki.

Par.—Hunela bada, tipitasuna ezta ezertan ere aurkhituren, ez osoan ez osoaren zathian ere ezpait dateke; eta hunelatan, tipitasuna beregan ezik, ezer ere ezdateke tipitasunaren muinkide denik.

Aris.—Tipitasuna bera, soilik arean ere.

Par.—Bainan ezta handitasunak ere ezertan egoitzik izanen eztu, handitasunaz: lekhore eta berezi, zerbait handiago bat izaita beharreko baitlizateke; alegia, handitasuna barne har lezaken zerbait. Eta zerbait handiago horrek ez ledukake bekhozbekho tipitasuna; halarik ere, hau baino handiago lizateke, hari buruz handi datekenez geroz. Eta nola nahi ere, tipia ezpaita nehon ere aurkhitzen, ezin handiaren aurkha izan.

Aris.—Egia da.

Par.—Bertzalde, handitasuna berez ezin diteke handiago izan, tipitasunari berari izan ezik; eta tipitasuna ere ezin liteke tipiago izan, handitasunari buruz izan ezik.

Aris.—Baiki.

Par.—Berhain, bertze gauzak bata baino handiago ez tipiago izanen eztera, handitasuna eta tipitasuna ere bai berekin baitute. Eta haukiek ezin ditzekete ez gainditu ez gaindituak izan batazko hartuemanetan. Bertzalde, bata, berekiro ezin diteke handitasuna eta tipitasuna bereziaz baino handiago ala tipiago izan, ez eta bertze gauzak bezanbat, handitasunik ez tipitasunik ezpaitu.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Orain, ordea, ikhus: bata, bertze gauzak baino handiago ez tipiago ez baldin ba da, behar beharrez, possible ezta gauzok gain-tutzea, ez eta hekietaz gainditua izaita ere.

Aris.—Beharko.

Par.—Bainan gaintitzen ez pa ditu, nahiz eta gaintitua ezpa da ere, premina herstuz beharreko da heietaz izari berdineko izaitea, eta handitasun bereko izanik, berdina izaitea.

Aris.—Beharreko da.

Par.—Bertze hainbertze gerthatuko zaio batari bere buruaz ere; nolana-
nahi ere berez handitasunik ez tipitasunik ezpaitu, eztezake bere-
gan gaintitu ez bertzek gaintitua izan; bainan hedago berdineko
denez, berberaren berdina da.

Aris.—Ederki.

Par.—Bata, beraz, berberaren eta bertze gauzen berdina da.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.—Baina, bata, beregan ba da, berak inguratua eta beraz kanpo
ere izanen da. Inguratzaile denez, bera baino handiago dateke;
inguratua denez, berbera baino tipiago. Hortaz, berbera baino
handiago eta tipiago izanen da.

Aris.—Baiki.

Par.—Eta, noraezean halaber, izan ezer ere ezta bat az eta bertze gau-
zetaz kanpo.

Aris.—Zalantzarik gabe.

Par.—Bainan den izakia hura, punturen batean izaitea da beharre-
ko.

Aris.—Hunela da.

Par.—Orain bada: bertze batean den gauza bat, bera baino handia-
goan dateke, bera tipiago izanik. Bertzenaz, ezina lizateke bi gau-
za differentetaz, bata bertzean existitzea.

Aris.—Egiazki.

Par.—Bertze gauzetaz edo bat az lothura gabe, ezer izan ezin diteke-
nez, hekiek noraezean zernaitetan existi behar baitute, ¿ez othe da
agitz preminazko elkar barnehartzea, bertze gauzak bat-can iza-
nik, eta bata bertze gauzetan, hunela ezik ez bata ez eta bertzeak
ere nehon existi izan ezpaitirateke?

Aris.—Eztut bertze eraz ditekenik ere uste.

Par.—Bata, bertze gauzetan barrendu denez, bertze gauzak bata bai-
no handiago dirateke, inguratzen baitute; eta bata bertzeok baino
tipiago, inguratua delako. Eta elhe hortaz, bertze gauzak bataren
barne izanik, bata, bertzeok baino handiago izanen da, eta hau-
kiek, tipiago.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Alta, bata beraren eta bertze gauzen berdin da, eta batetan, berbera eta bertzeak baino handiago eta tipiago.

Aris.—Horixe sinhistu behar dugu.

Par.—Eta berdin, handiago eta tipiago baldin bada, izari berdin, ugariagoak eta ugariezagoak ukhanen ditu; eta izariak ukhan dituzan ber, zathiak ukhanen ditu.

Aris.—Ezpairik gabe.

Par.—Izari berdin, ugariago eta ugariezagoak ba ditu, berberaren eta berdin izanen da numeruz, eta arau beran, handiago eta tipiago.

Aris.—Zelanik hunela?

Par.—Gauza zeindu batzu baino handiago izaiteko, izari numeru zeindu batzu ukhaitea beharreko da; izari dionak, zathiak dio. Halatsu, tipiago izaiteko ere; eta halaber, azkenez, berdin izaiteko.

Aris.—Alkhi gagoz.

Par.—Berberaren berdin izanik, eta handiago, eta tipiago, bera bezanbat zathi, gehiago eta gutiago ikhaitea noraezeko dugu. Izariak; eta beraz, zathiak.

Aris.—Dударик gabe.

Par.—Zathiz beraren berdin izanik, beraren berdin dateke numeruz ere. Handiago, zathi gehiago ba ditu; handiezago, gutiago ba ditu.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Eta bertze gauzeri buruz, ez othe berdin gerthatuko batari? Hekiek baino handiago ba litz, numeruz gaudituko lituzke; tipiago izanik, hekietaz gauditua izanen; handiagoan berdinak izanik, numeruz ere berdin beharko.

Aris.—Nahi eta nahi ez.

Par.—Bata, beraz, zantzu guztion arabera, berberaren eta bertze gauzen berdin, garaiago eta ez-ago da numeruz.

Aris.—Horrelaxe da.

Par.—Aldiaren muinkide othe da bata? Berbera eta bertze gauzak baino gazteago eta zaharrago othe da, eta billhakutzen othe da? Eta aldiaren muinkide izanik ere, ez othe da batetan berbera eta bertze gauzak baino ez gazteago ez zaarrago ere?

Aris.—Nola?

Par.—Bata, bata izaitean, ba da izan zernolako eran ere?

Aris.—Bai.

- Par.—Alta, zer deus da, bada, izaitea, aldi huntako existentzaren zathi ukhitea baizik, zen erranak lehengo existentzaren kide eta dateke hitzak ethorkizunaren, adiarazten duten bezela?
- Aris.—Ederki.
- Par.—Izaitearen zathi ukhitean, aldiaren zati ere ba-da.
- Aris.—Egiazki.
- Par.—Berhain, iario darion aldiaren muinkide ere, ba othe?
- Aris.—Bai.
- Par.—Humelatan, aldiaz iraganik, une oroz berbera baino zaharrago izanen da.
- Aris.—Beharko.
- Par.—Orain bada: orhoiz dezagun zahartzen dena bertze termina bat baino zaharrago bilhakutzen dela, eta hau gazteago bilhakutzen.
- Aris.—Gomutan dugu.
- Par.—Berhain, bata zaharrago bilhakutzen denez, berberaren izaitea baino zaharrago bilhakaturen da, eta izaite hori, gazteago.
- Aris.—Beharko.
- Par.—Eta arau hortaz, berbera baino gazteago eta zaharrago bilhakatuko da.
- Aris.—Bai.
- Par.—Aldi huntara heltzean —zen eta dateke-ren bizkitarte— ez ahal da zaharrago? Atzotik bigarrera iragaitean, ezpaititeke egun edo gaurkoa iauzkatu.
- Aris.—Horixe ez.
- Par.—Oraiko aldira heltzean, zaharrago bilhakatzeak ez othe mugarik, eta humelatan ez bakharrrik bilhakutzen ezta, iadanik zaharrago ere ez othe da, izan? Aintzinatze horrerri iarrai ba dadikio, nehoiz ere ezlizateke oraikoan lothuz, aintzinzatzen denak bia gauza humkitzen baititu batetan: oraiko aldia eta ethorkizuna, oraikoa utziaz, ethorkizuna iarraikiaz, eta geroaren eta orainaren artean ibilliaz.
- Aris.—Egia da.
- Par.—Eta bilhakutzen dena oraikoaren gainezka ezin ari izaitea hala beharreko baldin ba da, oraikoa heltzean bilhakatzeak muga du, bilhakatua bihurtzen baita.
- Aris.—Hunela iduri du.
- Par.—Berhain, bata zaharrago bilhakatuaz oraiko aldira heltzen denean, zaharrago bilhakaturen ezta, iadanik badelako.

Aris.—Ederki.

Par.— Hunelatan, ordea, zaharrago da zerbeiteri buruz zaharrago bilhakutzen zen zerbait hura baino. Orain, erragun: bata, berberari buruz zaharrago bilhakatu zen.

Aris.—Bai.

Par.— Eta zaharrago dena, zerbait gazteagoa baino da, arean.

Aris.—Hunela da.

Par.— Ordan, bata, orobat, berbera baino gazteagoa da, bere zaharrago bilhakatzean oraiko aldira hel dadinean.

Aris.—Beharko.

Par.— Bainan oraiko aldia, bataz berezi ezina da hunek diraueno, batak izan ere oraikoan baitirau, denez hola baita.

Aris.—Bertzenaz izan ere eztaiteke.

Par.— Beraz, bata, berbera bainon zaharrago eta gazteago da eta bilhakutzen da tai gabe.

Aris.—Humela dirudi.

Par.— Eta berbera bainon luzazago ala aldi berdinez da, edo bilhakutzen da?

Aris.—Aldi berdinez.

Par.— Aldi berdinez dena edo bilhakutzen dena, ordean, adinkide da.

Aris.—Dudarik gabe.

Par.— Eta adinkide dena, zaharrago ez eta gazteago ere, ezta.

Aris.—Horixe bai.

Par.— Hunelatan, bata, berbera bezenbateko aldiunez denez eta bilhakutzen denez, berbera baino gazteago ez eta zaharrago ere ezta, eta bilhakutzen ere ez.

Aris.—Horixe da nire aburua.

Par.— Eta bertze gauzeri buruz?

Aris.—Eztaikit zer erran ere.

Par.— Bata ezturen gauzak, bertze gauzak direla derrakezu, eta ez bertze gauza bakhar bat, bata bainon ugariagoak baitirateke; bertze gauza bakhar bat ba lira, batasun bat osatuko bailukete, eta bertzeak direlarik, ordea, bata baino ugariago direnez, anhitz ditugu.

Aris.—Erran beharrik ere ez.

Par.— Anhitz direnez, unitate baino numeru handiago dira.

Aris.—Zalantzarik gabe.

Par.— Eta ¿zein numeru bilhakutzen da edota bilhakatua da lehenik: handiagoa ala tipiagoa?

Aris.—Tipiagoo.

Par.—Hortaz, tipiagoo dateke lehenik. Bainan tipiena bat da, ¿ez othe?

Aris.—Bai.

Par.—Hunela, numeruaren muinkide direnetaz lehenik iaioa, bata da. Ikhus, ordea: garaitiko bertze gauzak ere, numeruaren muinkide dira, bertze gauzak baitira, eta ez bertze gauza.

Aris.—Numeruaren muinkide dira, arean ere.

Par.—Bainan lehenik bilhakatu dena, aintzinago bilhakatu izan dela uste dut, eta bertze gauzak, harrezkero. Handik hunat bilhakatu diran gauzak, aintzinago eginak baino gazteago dira. Eta bide hortaz, bertze gauzak bata baino gazteago direla ikasten dukegu, eta bata, bertze gauzak baino zaharrago.

Aris.—Baiki.

Par.—Bataren bilhakatzeko hori, bere naturaren aitziko eraz gertha ahal izan othe da? ala holakorik possible eztea?

Aris.—Ez, arean.

Par.—Bata zathidun dena ikasirik gagoz. Berhain, zathidun izanik, hastapendu, erdidun eta azkendun dateke.

Aris.—Horixe bai.

Par.—Orain bada: bata hartan bezala bertze gauzetan ere, ez ahal da hastapena lehenik iaioa dena, eta haztapan ondotik garaitikoa, azkenerarte?

Aris.—Dudarik gabe.

Par.—Bainan hastapenik azkenerarte, guztiaren eta bataren zathiak iarraiki egiten dute; hunelatan, bata eta guztia eztira azkeneraino osoro bilhakatu izanen.

Aris.—Bahi eta nahi ez, hunela etsi behar.

Par.—Bainan amaia azkenen bilhakatzeko dena da, eta une hartatik bertatik, bata bilhakatzeko dena berez. Hunelatan, bere naturaren aitziko eraz bilhakatzeko ezinezko ba zaio, amaiar bilhakatzeko, bilhakatzeko diren gauza orotaz azkena izanen da, naturalki edo berez.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Beraz, bata, bertze gauzak baino gazteago da, eta bertze zereko bata baino zaharrago.

Aris.—Horrela derizkiot.

Par.—Baina hastapena, edota bataren bai eta edozein bertze gauzaren zathiren bat —zathi bat, alegia, eta ez zathiak—, ¿ez othe da noraezean batasun edo unitate bat, parte edo zathi bat delakotz?

Aris.—Beharko.

Par.—Bata, beraz, bilhakatzen den gauza lehenaz batetan bilhakaturen da, eta bigarrenaren pare ere bai, banan banan iarraikiaz bertze gauzak bilhakatu-ala; eta humelatan, azkena heltzean, oso-toro bilhakatua izan dadino, erdiari, hastapenari, amaiari eta za-thiak orori tiletez tilet lagunduaz.

Aris.—Egia da.

Par.—Humela, bertze gauzen adineko izanen da bata. Bere naturari aitzia iaio ezik, bertze gauzak baino lehenago ez geroago eztezake bilhaka; hekiez batetan baizik. Eta elhe hunen araura, bata ezta-teke bertze zerak baino zaharrago ez gazteago izan, ez eta hauk ere bata baino zaharrago edo gazteago. Bertzalde, lehengo elheari gagozelarik, bata, garaitiko gauzak baino gazteago eta zaharrago lizateke, eta hauk hura baino zaharrago eta gazteago.

Aris.—Ederki.

Par.—Horixe da bataren hein, estatu edo egoera, bilhakatuz izan delarik. Bainan bertze gauzak baino zaharrago eta gazteago bilhaka dadinean, zer pentsa dezakegu bata huntaz, gauza hauk bata baino zaharrago eta gazteago bilhakatzen diren artean, berbera ordean, zaharrago ez gazteago bilhakatzen ezte-lakotz? Izateaz gerthatzen dena, izanen othe bilhakatzeaz ere, edota bertze arauz gerthatuko othe?

Aris.—Zer erran eztakidala nauzu.

Par.—Bainan nik behintzat, hauxe erran dezaket: gauza bat bertzea baino zaharrago denean, sortzapenetik den baino zaharrago ezin bilhakatu diteke, eta kantitaez aldatu ere ez. Eta halaber, gazteago baldin ba da, are gazteago ezin bilhaka ditekela. Kantitate berdingaeri kantitate berdinak eratzikitzean —aldiz dela, nahiz bertze edozein gauzaz dela—, alde edo differentzak lehengo aldeaz berdin iraum dirau bethiere.

Aris.—Bertzelatan ezin izan diteke.

Par.—Humela bada, zaharrago ala gazteago dena bera baino zaharrago ala gazteago den baino zaharrago ala gazteago bilhakaturen ezta, adin-aldeak bethi berdin iran dirautelakotz: bilhakatuak ditugu, eta bata zaharrago da, gazteago bertzea; baina zaharrago ez eta gazteago ere bilhakatuko eztira.

Aris.—Egia.

Par.—Berhain, ba den bata, ezta nehoiz ere, eztiren gauzak baino zaharrago ez gazteago ere bilhakatuko.

Aris.—Ez, eiki.

Par.—Ohar ezazu bertze ikherkera batez, bertze gauzak zaharrago ala gazteago bilhakatzen direnz.

Aris.—Zein ikherkaraz ari zara?

Par.—Orain ikhusiko duzu. Bata, bertze gauzak baino zaharrago dela iduritu izan zitzaiguna, orhoitzen? Eta bertzeok bata bezain?

Aris.—Zer, bada?

Par.—Bata hori bertze gauzak baino zaharrago izaiteko, hekiek baino lehenagotik irautea edo existitzea beharreko dugu.

Aris.—Baiki.

Par.—Alta, ohar ezau, erranen derautzutenaz: aldiune luzeago bati eta bertze laburrago bati aldi-kantitate berdina eratziki ba diezogu, ¿lehengo kantitatez izanen othe da luzeagoren eta laburragoaren aldi-differentza edota kantitate tipiagoz?

Aris.—Kantitate tipiagoz.

Par.—Humela, bataren eta bertze gauzen arteko adinaren hastapen-differentzak bethibat irauenen eztu; aitzitik, batak bertzeak hartu aldi-kantitatea hartu arren ere, adin-differentza lehen baino tipiago izanen da bethiere. Egia ez othe?

Aris.—Bai.

Par.—Eta gauza bateri buruz, adinez lehen baino alde tipiagoko dena, ez othe are gazteago lehenik ere bertze gauza hari buruz gazteago zelarik ere?

Aris.—Bai, gazteago bilhakatzen da, alegia.

Par.—Eta bertze gauzak baino gazteago bilhakatzen bada, hauk batari buruz ez othe lehen baino zaharrago bilhakatzen?

Aris.—Baiki.

Par.—Gazteago sortu zena, lehenago sorthu zenari eta zaharrago denari buruz zaharrago bilhakatzen da, beraz; zaharrago nehoiz izan gabe, lehenik sorthu dena baino zaharrago bilhakatzen da, bethi. Bata tai gabe gaztetasunerantz baitdoa, bertzea zahartzarora bezala. Halaber, zaharragoa gazteena baino gazteago bilhakatzen da bethi. Ioera zeiberrez ari baitira, alkharren aitziko bilhakatzen; gazteena gazteena baino zaharrago; zaharrena, gazteena baino gazteago. Bainan nehoiz ere eztira eien bilhakatzean lothuko; bertzenaz, heien bilhakatzea lipar batez ere gel ba dadi, ezlirake bilhakatuko, izan eginen lirake. Orain erragun: oraikoan, zaharrago eta gazteago bilhakatzen dira, batbederakiko. Bata, bertzeak

baino gazteago bilhakatzen da, hauk baino zaharrago eta lehen sorthua iduri izan baitzaiku; eta bertze gauzak bata baino zaharrago bilhakatzen dira, bata baino geroago sorthuak iduri izan baitzaizkigu. Elhe berean, bertze gauzak bataz elkhardura berdinekoaz dagoz, hau baino zaharrago eta lehen sorthuak iduri izan baitzaizkigu.

Aris.—Horrela dirudi, zinez.

Par.— Hortaz, edozein bia terminen arteko alde numeru tinkhor bai izanik, termina hoitarik batere ezin bilhaka diteke bertzea baino ez gazteago ez zaharrago ere. Bainan bertzalde, lehengo iaio gauzak nahi eta nahi ez atal batean alde baitute, diferente bethiere, harrezkero iaio diren gauzer buruz, halaber bata noraezean bertze gauzak baino zaharrago eta gazteago bilhakatuko, eta hauk bata baino zaharrago eta gazteago.

Aris.—Dударик gabe.

Par.— Hunela bada, bata, berbera eta bertze gauzak bezain zaharrago eta gazteago da eta bilhakatzen da. Eta orobat, berbera eta bertze gauzak baino zaharrago ezta, eta bilhakatuko ere, egiten ezta.

Aris.—Ederki.

Par.— Baina bata, zahartasunaren eta gaztetasunaren muinkide delarik, aldiaren muinkide ere ba-denez, ¿aldi-muinkide indar hortaz iraganean, ethorkizunaren eta oraiko aldiaren muinkide ere izaita, halabeharreko ez othe?

Aris.—Ezin bertzez, horrelaxe izanen da.

Par.— Ondorioz: bata izan da, bada izan, eta izanen da; bilhakatuko da, bilhakatzen da eta bilhakatuko da.

Aris.—Ezpairik gabe.

Par.— Alta, batarendako eta batarena den zerbaite existi diteke; existiti izan da, existitzen da eta existituko da.

Aris.—Hitz mitzik gabe.

Par.— Berhain, bataren iakite, aburu eta oharpen ba ditezke, guhaurk ere une huntan era diferente haietaz ezagutzen baititugu.

Aris.—Hunela da.

Par.— Batak, beraz, izen eta zeintze ere ukhanen ditu, izendatzen bait-dugu eta zeintzen, leinu huntako gauzeri dagotena, bateri ere badagoko.

Aris.—Ederki.

Par.— Bertze hirugarren ikherkera batez gogartzea dagoku²¹: age-
rian izan dugun bezala, bata, aldibatetan bat eta anhitz ba da, eta
bertzetik, ez bata eta ez anhitz, ¿itzuri ezina ez othe, aldi muinkide
delarik, bata badenez lipar batez ere izatearen muinkide izaita,
eta eztenez, izaitaaren muinkide nehoiz ere ez izaita?

Aris.—Bai, bertzenaz ezтитеke, alegia.

Par.— Eta izatearen muinkide izanik, ¿haren muinkide ez izaita
possible othe da, eta muinkide eztenean muinkide izaita?

Aris.—Ezina da.

Par.— Beraz, bada aldirik, bata izatearen muinkide dena, eta bertze
bat eztena. Hunelatan, soilik gauza berberaren muinkide edo par-
tizipe izan eta ez izaita ere, baditeke.

Aris.—Iakina, ba.

Par.— Bata, izatearen muinkide den aldi bat, eta hartaz iaregiten den
bertze aldi bat, aldi biok ba othe dira? Bertzenaz, hunela gerthatu
ezik, ¿nolatan diteke gauza bat ukhan eta ez ukhaitea, hartzen eta
uzten atertzeko ihardu ezik?

Aris.—Hunelaxe diteke, soilik, arean.

Par.— Izatearen muinkidetzeari iaiotzea ez ahal derizkiogu?

Aris.—Bai.

Par.— Eta izatearen uzteari, heriotza ez othe?

Aris.—Dudarik gabe.

Par.— Orduan, tankera edo itxura duenez, bata, izatearen muinkide
egiten baita eta gabetzen baita, iaio eta hil egiten da.

Aris.—Beharko.

Par.— Bainan, bata, bakhar eta anhitz ba da, eta, gainera, iaiotzen
eta hiltzen, ez ahal diteke erran: bata bilhakaturik, anhitz bezala
hiltzen dela, eta anhitz bilhakaturik, bata bezala hiltzen?

Aris.—Zalantzarik gabe.

Par.— Bainan, bat eta anhitz bilhakutzen ba da, ez othe beharreko
zathitua edo bildua izaita?

Aris.—Baiki.

Par.— Eta ahantzeko eta gabe bilhaka ba dadi, ahantzekotzea eta
ahantzegabetzea ez othe beharreko?

Aris.—Bai.

²¹ Ondorio mixto edo nahasiak.

Par.— Eta handiago, tipiago eta bardina billhakatzean, ¿handitzenago, tipitzenago eta berdintzengo ez othe?

Aris.—Baita.

Par.— Eta higiduratik egonera, eta egonetik higidurara aldatzean, aldaketa bikhoitz hori batetan ba ahal othe?

Aris.—Horixe ez.

Par.— Lehenik egonean egon eta berehala higitu, leenik higiduraz izan eta berehala gelditzea, hori ezineko da aldakuntza gabe.

Aris.—Eiki.

Par.— Nchoiz ere ez-titeke ezertto, higiduraz eta geldi batetan izan.

Aris.—Ez, nehoiz ere.

Par.— Bainen ezer ere bertzelakotzen ezta aldakuntzaren bat pairatu gabe.

Aris.—Horixe uste dut.

Par.— Alta, noiz gerthutzen da aldakuntza? Egonean ez hìgian ez aldian, aldarik ezpaitu.

Aris.—Baiki.

Par.— Aldatzen garenean, gauza arrotzen batean ez ahal gara?

Aris.—Zer gauzaz mintzatzen zara?

Par.— Liparraz ari naiz. Izakera batetik bertzera aldatzen garean puntu hura baitirudi egiazki, liparrak. Eta halatsu: egona, egon den bizkitartean, aldakuntzraik eztu; higidura higidura deno, aldakuntzarik ezugu. Bainen liparra deitzen dugun gauza arrotz hori, egonaren eta higiaren erdian da, aldian izaitteke, eta hortixek abiatzen eta hortze bukatzen da higitatik egonerako aldaketa eta egonetik higarakoa.

Aris.—Ontsa liteke horrela.

Par.— Hortaz, bata egonean eta higiduran baldin ba da, egoera batetik bertzera aldatzen da, horixe baita estatu edo egoera biotan izaiteko era bakharra. Aldatzen bada, lipar batetan egiten da; eta aldatzen denean, ezta aldian, ezta hìgian ez eta egonean ere.

Aris.—Baiki.

Par.— ¿Bertze aldakuntzetan berdinkiro izanen othe? Bata, izaitetik ezerezero alda dadinean, edota deuseztik billhakatzerara, higiduraren eta egonaren artean dela erraiten ahal dugu: izaki eztela ez eta ez-izaki ere, iaiozen eztela, ez eta hiltzen ere?

Aris.—Nabaski.

Par.—Elhe beraren arauera, batasunetik anhitzetara iragantzean eta alderantzira, bata ezta bat ez anhitz: ezta zathitzen ez biltzen.

Ahantzekotik ahantzegabera iragantzea eta ahantzegabetik ahantzekora, ezta ahantzeko ez eta ahantzegabe ere: ahantzekotzen ezta, eta ahantzekotzea utzi ere egiten eztu. Tipitik handira, eta berdineko iragantzean, eta orobat alderantzira, ezta handi, ezta tipi, ezta berdin: ezta handitzen, ez tipitzen ez eta berdintzen ere.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.—Hauk dira, beraz, bataren izakerak, izaiten ba da izan.

Aris.—Baiki.

Par.—Eta orain, berze gauzetaz zer gerthaturen den ikhertzea ezta-gokigua, batak iraun ba dirau?²²

Aris.—Bideczko da.

Par.—Bataz diferente direnez, bertze gauzak ez tira bata; hunela ez izaki, batari buruz bertzeak ezlirateke.

Aris.—Eiki.

Par.—Hlarik ere, bertze gauzak bataz gabeak guztiz ez tira, aitzitik eraren batez hartaz kutsatzen dira.

Aris.—Zein eraz?

Par.—Batari buruz bertze diren gauzak ez tirela humelako, zathidunak izan ezik. Zathidun ezpalira, osoki bata hori liratekelako.

Aris.—Horixe bai.

Par.—Baina oso bat da, soilik zathidun izaiten ahal.

Aris.—Horixe generran.

Par.—Bainan osoa, gauza bertzelakoek eratzen duten batasuna da, noraezean. Batasun horren zathi, atalak dira; atal hauietarik batbedera ezpaititeke gauza anhitzen atal izan, osoa baizik.

Aris.—Zelan horrela?

Par.—Gauza askoren artean izanik hekien atal bat ba litz, berberaren atal lizateke —czina dena, alegia— eta bertze gauzetaz batbederaren, hekietariko baldin balitz. Gauza hekietarikoren baten atal ezpalitz, bertze guztietariko atal lizateke, hartaz ezik; eta hunela, batbederaren atal ezlizateke; eta batbederaren atal izan ezik, baterena era ezlizateke. Une hortatik bertatik, bertze gauza guztietarik ezer izaitea ere czina lizateke, hekietariko bataz ere nehola zer-ikhusirik ezpailuke, ez atal bezala ez eta bertze eraz ere.

Aris.—Horrela iduri du.

²² Hypothesis lehenaren bigarren aldea. Ondorio baikorrez erasoten dio Platonen.

Par.— Berhain, atal ezta gauza askoren ez guztien atal, halako eidea eta halako batasuna, oso bat deithuko dugumarena baizik: batasun bethea, atal guztien bildumak osotua. Guzti hunen atala da egiazki, atal bat.

Aris.—Ederki.

Par.— Beraz, bertze gauzak zathidun ba dira, osoaz eta bataz kutsatuko dira.

Aris.—Egiazki.

Par.— Berhain, batari buruz bertze diran gauzek, noraezean, osoa bat eta bethea eratzen dute, atalez ormidua.

Aris.—Noraezean.

Par.— Ataleri buruz, elhe berberaz ihardu genezake. Atalak ere, beharreko du ataz muinkide izaita. Ordean ataletarik batbedera atal bat ba, da, batbedera hunek gauzak bakhoitz bat adiraziko du, berez dena, eta bertzetarik bertze. Osterantzean, batbedera ezin erran genezake.

Aris.—Baiki.

Par.— Bainan, atal bakhoitzak bataz kutsatzen ba da, bataz bertzerik dena agirian dago. Hunela ezpalitz, atala bataz kutsatua ezlizateke, bata berbera lizateklakotz. Hortaz, bata diteke soil soilik bat izan.

Aris.—Bata soilik.

Par.— Beharreko da, bada, osoa eta atala bataz kutsatzea. Hau, oso bat da, eta hunen zathiak atalak dira, eta zathi bakhoitza osoaren atal da, oso hunen arteko izanik.

Aris.—Alkhi gagoz.

Par.— Hunela, bataz kutsatzen diran gauzak, ¿batari buruz bertze direlako baizik ez othe dira kutsatzen?

Aris.—Zalantzarik ere eztuzu.

Par.— Orai bada: batari buruz bertze diran gauzak, anhitz dira. ez bata, ez bat baino gehiago izan ezik, ezer ezpailirake.

Aris.—Baiki.

Par.— Atalaren unitatez kutsatuak diran gauzak eta osoaren unitatez direnak bat baino ugariago baldin ba dira, ¿ez othe da agiria, bataz kutsatzen diran gauza samalda azkengabe edo infinitua eratzten dutena?

Aris.—Zelan horrela?

Par.— Oraintxe ikhusiren duzu. Gauzak bataz eskhuartzen dute bairan eztira bata, eta bataz eskuhartzerakoan ere, eztute batazko zathirik.

Aris.—Eiki.

Par.— Ez othe dira beraz samalda, bata hekieganik urrun delarik?

Aris.—Diozun bezala da.

Par.— Orratx; samalda hortaz, pentsamenduz, bakhandu dezagun ahalik eta zathirik tipiena. Zathi hori, bataz kutsatua eztenez geroz, ¿nahi eta nahi ez askar edo plural ezothe da izanen, eta ez bat?

Aris.—Beharko izan.

Par.— Hunela bada, eideaz diferente den gauza hori²³ berberegan²⁴ gogoratu edo konsidera ba dezagu, konsidera dezagunero ¿anhitz azkengabe bezala agertuko othe zaiku?

Aris.—Dudarik gabe.

Par.— Bainan athal bakhoitza, humelako atal bezala izendatua geldidenez, bertze gauzeri eta osoari buruz mugatua da, eta hau, zathieri buruz mugatua.

Aris.—Eiki.

Par.— Iduri duenez, hauxe gerthatzen da: bataz bertze diren gauzak, bataz haremanetan hastean, heietaz arrotz den halako erro bat hartzen dute, elkharreko mugak ezartzen dituen erroa, heien natura edo izakera marrikabea izan arren.

Aris.—Horrela iduri du.

Par.— Hunelatan, batari buruz bertze diren gauzak, osotasun edo totalitate bezala eta zathi bezala, marragabe dira eta marraz kutsatuko dira.

Aris.—Doi doia.

Par.— Eta heien eta heiekiko ahantzeko eta ahanztegabe ere, ez othe dira?

Aris.—Nolatan?

Par.— Guztiak naturaz marragabe direnez, ariurri berberaz kutsatuak dira.

Aris.—Ederki.

Par.— Marraz kutsatuak direnez, ariurri berberaren muinkide ere, izanen dira.

²³ Batasunaren eidea, edo bakhanago, batasuna.

²⁴ Edota batasunaz zerikhusi gabe.

Aris.—Dударик gabe.

Par.— Mugatuak eta mugagabeak baitira batetan, izakera alderantzikoez kutsatuak dirateke.

Aris.—Bai.

Par.— Gauza alderantzikoak baino ahantzegabeagorik ezer ezta, horraitio.

Aris.—Eiki.

Par.— Izakera bakhoitz haukien indarren, beraz, gauzak hekieri eta heiekiko ahantzeko dira; eta bitzuon indarrez ahal diteken zeiber eta ahantzegabe dira.

Aris.—Egiazki.

Par.— Batarekiko bertze diren gauzak, aldibatetan ahantzeko eta ahantzegabe izanen dira; hekieri buruz eta hekien artean.

Aris.—Dударик gabe.

Par.— Halaber berdin eta berdinga dira, higian eta egonean; eta agertu ditugun izakera zeiberrez, bertzeetaz kutsatuak direna erakustea erraz eta aise lizateke.

Aris.—Zehazki.

Par.— Eman dezagun agirikotzat hau, eta azter dezagun orain, batek irauñ dirauela uste izanik, batari buruz bertze diren gauza hekiek, begitarte berri azaltzen deraukutenz, ala ikhustera onhesgarria lehen adiarazi duguna den soilik.²⁵

Aris.—Oñtsa derizkiot.

Par.— Hastapenaraino hel gaitazin, bada, eta ikhus dezagun bata existitzen baldin ba da, batari buruz bertze diren gauzeri zer gerthatuko zaien.

Aris.—Ikhus dezagun, beraz.

Par.— Ezta bata, bertze gauzetaz berezi izaiten ahal, eta garaitiko gauzak orobat batari buruz?

Aris.—Zergaitik?

Par.— Bataz kanpo eta bertze gauzetaz halaber, ezer ezpaita bertze, batarekiko eta garaitikoeikiko. Bata eta bertze gauzak erraitan, oro erran baitugu.

Aris.—Oso, alegia.

Par.— Ezta beraz bertze hirugarren deusik bata eta berzea ediren direzkenik.

²⁵ Ondorio ukakorrez ari dira.

Aris.—Ez.

Par.— Berhain, nehoiz ere gauza batean eztira edirenen bata eta garaitiko gauzak.

Aris.—Ezta egia iduriko.

Par.— Bereziak dira, bada.

Aris.—Bai.

Par.— Egiazki bata dena, zathiago dela erran dugu iadanik.

Aris.—Dударик gabe.

Par.— Hortaz, bata eztiteke izan bertze gauzetaz ez osoki ez zathiz, hekiez berezi izanik eta zathirik gabea.

Aris.—Ezpairik eztugu.

Par.— Alta, bertze gauzak neholaz ere eztira bataz kutsatuak, ez zathiz ez osoki ere, haren muinkide ezpaitira.

Aris.—Nabaskiro.

Par.— Bertze gauzak bada, neholaz ere batasun eztira, eta batasun diteken ezer ere eztute heiekin.

Aris.—Hunelatan.

Par.— Eztira beraz, anhitz: anhitz baldin ba lira, osoaren zathi bailizateke batbedera. Orain, bada: batari buruz bertze diran gauzak, eztira ez bat, ez anhitz, ez oso, ez zathi, ezertan ere bataren muinkide eztiarelakotz.

Aris.—Ederki.

Par.— Bertze gauzak, haatik, eztira bia ezhirur, eta horrelako ezer ere ezta heietan, bataz agitz gabetuak baldin ba dira.

Aris.—Egia da.

Par.— Bertze gauzak bada, eztira ahantzeko ez ahantzegabe batari buruz, eta ahantzekotasnik eta ahantzegabetasunik ezta heietan. Ahantzeko eta ahantzegabe ba lira, edota heietan ahantzeko eta gabetanik egoitza ba lu, batari buruz bertze diren gauzetan elkhar zehier diren bi eidea lirateke.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.— Orain, erragun: ezertaz kutsatzen ezten izakia, bia gauzataz kutsatzea, ezina da.

Aris.—Ezina da, izan ere.

Par.— Berhain, bertze gauzak eztira ahantzeko ez gabe; ez bitzuotariko kualitatetik dute aldiatetan. Ahantzeko ala ahantzegabe baldin ba lira, eidea bataren ala bertzearen muinkide liratekela-

koz²⁶; eta ahantzeko eta ahantzegabe ba lira, bia eidea zeiharrez kutsutuak lirateke, eta hori ezinekotzat etsi dugu.

Aris.—Egiazki.

Par.— Eztira beraz, ez berdin ez berdinga, ez higian ez egonean; ez iaio egiten dira, ez eta hil ere; ez handiago dira, ez tipiago, ez eta berdin ere; laburzki aurrekatze edo kontradizino hauietarik batera jasaiten eztuke. Ariurri edo karakter haietaz kautsatuak ba lira bertze gauzok, bataren, bikhoitzaren, hirurkhoitzaren, bikhotxiren eta bakhotxiren muinkide lirateke; eta gauza guztiotaz eztute muinkide izaiterik, bataz guztiz gabe baitagoz.

Aris.—Eiki.

Par.— Hunela bada, bata da izan, bata da gauza oro, eta ezta bat berari buruz, ez eta garaitikoeri ere.

Aris.—Bethe bethean halacre.

Par.— Ongi da. ¿Ez ahal dugu orain, bata existitzen ez ba da²⁷, zer gertha diteken aztertu behar?

Aris.—Bai, beharreko dugu horren aztertzea.

Par.— Zer erran nahi du hypothesis hunek: “bata existitzen ezpa da”? Bertzerik othe da hunexetaz: “bata-eza existitzen ezpa da”?

Aris.—Zalantzarik ere eztugu biok diferente direnez.

Par.— Differente othe dira soilik, ala zeiherrak ere bai hypothesis hauk: “Bata-eza existitzen ezpa da” eta “bata existitzen ba da”?

Aris.—Guztiz zeihar edo alderantzikoak dira.

Par.— Bainan “handitasuna existitzen ezpa da” eta “tipitasuna izan ere ezpa da” eta horrelakoak erraiten ditugunean, ¿ez othe dugu guk erran gauza bakhoitza diferente dela erabakitzen?

Aris.—Egiazki.

Par.— “Bata existitzen ezpa da” erraiten, existitzen ez dela azaltzen dugun zer hori, bertzeetan diferente dela ez othe dugu erakusten?

Ba ahal dakigu zeri buruz dihardugum?

Aris.—Bai, badakigu.

²⁶ Edota ahantzekotasunaren eidea eta ahantzegabearena.

²⁷ Bigarren hypotesisa bata existitzen ez baldin ba da. Ohar hmi: hypotesis lehenaren II-garren aldetik bigarren hypotesisaren alde lehenera jotzen du Platonnek, ondorio mixto edo nahasiak agertzeke. Bigarren hypothesisaren alde lehenari eragotean, ondorio baikorrez hasten da.

Par.— Lehenik, ezagutua izan ditekenez gauzaz ari gara, eta gainera, batari buruz aritzen geranean, bertzeetaz diferente denaz arean ere, nehoiz ba dela nahiz eztela izan. Ezten gauzaz mintzatzeko, alegia, beharreko da haren natura ezagutzea, eta bertze gauzetaz berdinga izaitzea. Ez othe?

Aris.—Beharko.

Par.— Erragun bada; arloaren hastapeneraino ioaz, zer gerthatuko den bata existitzen ez baldin ba da. Lehendabizikotz, bataren iakintza ukhaitea beharreko da, bertzenaz, “bata existitzen ezpa da” diogunean zetaz mintzo garean iakinen ezkenuke.

Aris.—Egia da.

Par.— Halaber, ez othe da beharreko, bertze gauzak bataz diferente izaitzea, osterantzean bata bertze gauzetaz diferente denik ezpaititeke erran.

Aris.—Dudarik gabe.

Par.— Batari iakintza ezezik, differentza ere erantsi behar deraukogu. Bata bertze gauzetaz diferente dela diogunean, bertze gauzen differentzaz ari ezpaitgara, bateren beraren differentzaz baizik.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.— Izan ere ezten bat hori, beraz, “hartaz”, “zerbaitaz”, “huntaz”, “huntakoaz” eta “haukietakoaz” kutsatzen da, eta hunelako mugakeraz; bertzenaz ezin genezake erran, ez “huntan” edota “huntako”, baldin bata “zerbaitaz” edo bertzez kutsatua ezpa litz.

Aris.—Ongi da.

Par.— Bata ezтитеke izan, ez baldin ba da; baina anhitz gauzetaz kutsatua izan dedin ez bakharririk ezer eragozpenik eztu, aitzitik, hunela izaitzea beharreko da, “ezten bata” “hauze” ba da, eta ez bertze gauzarik. Bata ez baldin ba da, eztena haur ezpa da, eta halako gauza hura bertze ba da, hortaz tutik ere mintzatzeko biderik ezpaitukegu. Baina, ezten hori bata ba da, hauze da eta ez bertze ezer, eta orduan behar beharreko izanen da bata hori huntaz kutsatua izaitzea eta bertze beredin gauzez.

Aris.—Egiazki.

Par.— Bertze gauzeri buruzko ahantzegabetasunaz halaber muinkide izanen da bata: Bertze gauzak, bataz, diferente izanik, natura differenteko baitira.

Aris.—Baiki.

Par.— Eta natura differenteko dena, ¿bertzelako ez othe?

Aris.—Dударик gabe.

Par.—Eta bertzelako dena, ¿ahantzegabe ez othe?

Aris.—Bai.

Par.—Bataz ahantzegabeko gauzak ba dira, gauza ahantzegabeak ahantzegabe diren gauzetaz ahantzegabe direna, agiriko zera dugu.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Bainan bertze gauzeri buruz, bata ahantzegabe baldin ba da, ¿bere buruaz ahantzekotasuna ez othe dute izan behar?

Aris.—Nola?

Par.—Bata, bataz ahantzegabe ba litz, bata bezalako liteken zerbaitez ez genezake iraditu (razonar), eta gure hypothesisa batari buruz izanen ezlizateke, eta bai bata ezten bertze zerbaiteri buruz.

Aris.—Segurki.

Par.—Horrelan eztu izan behar, ordean.

Aris.—Ez, egiazki.

Par.—Batak bere buruazko ahantzekotasuna eraklustea beharreko da, bada.

Aris.—Beharreko da.

Par.—Bertze gauzen berdin ere ezta, bata; heien berdin ba litz, berdintasun horren arauz, ahantzeko ere bailizateke; biok gauza ezinak bata existitzen ezpa da.

Aris.—Ezineko neholatan ere.

Par.—Bainan bata, bertze gauzetaz berdin ezpa da, hauk noraezean, haren berdin ez lirake.

Aris.—Beharko.

Par.—Eta berdin eztena, berdinga ahal da?

Aris.—Bai.

Par.—Eta berdinga dena, berdingari buruz berdinga othe?

Aris.—Dударик gabe.

Par.—Batari buruz bertze gauzak berdinga diren berdingatasunaz kutsatua da bata izaiten ahal!

Aris.—Bai, hartaz kutsatzen da; partizipatzen du.

Par.—Bainan handitasuna eta tipitasuna bardingatasunari buruzkoak dira.

Aris.—Bai.

Par.—Hortaz, batak handitasun eta tipitasun ditu.

Aris.—Hunela iduri du.

- Par.— Handitasun eta tipitasunaren artean bada halako alde bat.
- Aris.— Nabaski.
- Par.— Berhain, bada zerbait hekien artean ezarria.
- Aris.— Iakina, ba.
- Par.— Eta zer legoke hekien artean berdintasuna baizik?
- Aris.— Horixe soilik.
- Par.— Haatik, handitasuna eta tipitasuna dituenak, berdintasuna ere badu, bien artekoa izanik.
- Aris.— Hunela dirudi.
- Par.— Hortaz, “ezten batek” berdintasunaz, handitasunaz eta tipitasunaz partizipatzen du.
- Aris.— Aztarna hauien araura, bai.
- Par.— Beraz, eraren batez, izaitiaz partizipatzea beharreko da.
- Aris.— Nola?
- Par.— Guk batari buruz erran bezala izaitia beharreko da; bertzenaz, hunela ezpa litz, bata eztela erraitcan egiarik erranen ez genuke. Bainan egia erran ba dezagu, bera ba-dena erraiten dugumo, egiazko zera duzu. Hunela uste eztuzua?
- Aris.— Bai.
- Par.— Egia erran nahi dugunez, beharreko dugu dena den erran nahi izaitia.
- Aris.— Behar.
- Par.— Bata beraz, iduri duenaz, ba da izan, izantzeke. Eta izanik ere ezpa da izan, ez-izakiaren zerbait ez-izakiaren baithan sartzen uzten ba da, berehala izaki bilhakatzen da.
- Aris.— Ezpaiketarik gabe.
- Par.— Ez-izakiaren esentzaz ezizakiari lothua izaitia nahi ta ezko da, bata ez izaitia beharreko ba da; bethebethean ez izaiteko, izakiak, ezizakiaren esentza behar duen bezala. Hunelatan soilik izanen da. alegia, izakia egiazki; eta ezizakia izanen ezta, egiazki: izakia, izaki ezizakiaren esentzaz partizipatuaz, eta izaki ezizakiaren esentza-ezaz partizipatuaz, baldintza huntaz soilik izan diteke osotoro; ezizakia, ezizaki ezizakiaren esentza ezaz partizipatuaz, eta izaki ezizakiaren esentza-ezaz, soilik humelako baldintzaz diteke osotoro.
- Aris.— Zin zinetan.
- Par.— Orai bada: izakiak ezizakiaz partizipatzen baitu, eta ezizakiak izakiaz ere bai, ezten bataz beharreko du, halaber, izakiaz kutsatzea ezizakiari buruz.

Aris.—Beharko.

Par.— Izakia, ez baldin ba da, batari dagokola iduri du, beraz.

Aris.—Bai, hunela iduri du.

Par.— Eta orobat ezizakia, izan ezpaita.

Aris.—Dударик gabe.

Par.— Era batekoa den gauzak, bere izakera aldatu gabe, era hortako izaitcaren uztea, ahalezko othe da?

Aris.—Ezta ahalezko.

Par.— Berhain, era bateko den eta era hortako izaiteari uzten deraukona, aldakuntzadun da.

Aris.—Zalantzarik gabe.

Par.— Bainan aldakuntza higidura othe da, ala bertze gauzen bat?

Aris.—Ez, higidura baizik.

Par.— Bata, badela eta eztela ikhusi eztugua?

Aris.—Bai.

Par.— Beraz, era bateko dela iduri du, eta era hortako eztela ere bai.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.— Ezten bata, halaber, higian delakoan ageri izan zaiku, ikhusi dugunez, izaitetik ez izaitera aldatzen baita.

Sokrates.— Nabaski.

Par.— Eta, hori horrela delarik ere, batak izakietaz arteko ez baldin ba da, (eta ezta, arean, izan ere ezpaita), puntu batetik bertzera ezin alda diteke.

Aris.—Baiki.

Par.— Beraz, higitzen ba da, lekhuz aldaturik izanen ezta.

Aris.—Ez.

Par.— Lekhu berean ere biraeginen eztu, berberaz zerikhusirik eztuelakotz. Izan ere, berbera ez izaitea da. Orain erragun: eztena, izakiaren baten izaitea, ezina da.

Aris.—Ezina da bai.

Par.— Hunela, bata eztenaz geroz, ezin dezake birregin zerbaiten baithan, han ezpaita.

Aris.—Ez, izan ere.

Par.— Baina batak eztu bertzelakotzerik, badela ala eztela. Bertzelakotzerik ba lu, ez ginake batari buruzko solhasean ari izanen, eta bai bertze zerbaiteri buruz.

Aris.—Iakina, ba.

Par.— Baina bertzelakotzen ezpa da, bere lekhuan bertan biraegiten ezpa du, bertzegiten ezpa da, higitzerik possible othe da?

Aris.—Ez, ezta possible.

Par.—Bainan aldatzen eztena, nahi eta nahi ez, higika datza; eta higika dena, egonen da.

Aris.—Beharko.

Par.—Ezten bata hori, iduri duenez, egoncan eta higian da.

Aris.—Hunela dirudi.

Par.—Bainan alda badadi, behar beharreko du bertzelakotzea. Gauza bat higitzen den neurri berean, higitu ala bere lehengo egokera edo estaturik urruntzen den neurri berean, higitu ala bere lehengo egokera edo estaturik urruntzen baita, eta halatan bere buruaz diferente da.

Aris.—Baiki.

Par.—Hunela, bata, higitza duenez, bertzelakotzen da.

Aris.—Egia.

Par.—Higitzen eztenez, ordean, bertzelakotzerik eztu.

Aris.—Eiki.

Par.—Hortan, ezten bata, higian da eta bertzegipena iasaiten du, eta higian ezta, eta eztu bertzegipenik iasaiten.

Aris.—Ederki.

Par.—Hunela, ezten batak, bertzegipena pairatzen du eta halaber, pairatzen eztu.

Aris.—Horrela dirudi.

Par.—Bainan bertzelakotzen den oro, ¿lehen zenaz bertze bilhakotzen othe da noraezean, eta hil egiten othe, bere lehengo izakerari buruz; eta, alderantzira, bertzelakotzen eztena, ez othe da bertzelakotzen ez eta hiltzen?

Aris.—Beharko.

Par.—Hunelatan, ezten bata, bertzelakotzen denean, iaio edo hil egiten da, eta ezta iaiozten ez hiltzen bertzelatzeke; eta beraz, ezten bata iaio eta hil egiten da, eta batetan, ez iaio egiten da ez eta hil ere.

Aris.—Doi doia.

Par.—Goazen berriz, hastapenera, gauzak orai iphintzen ditugun araura iduritzen zaizkigunz, ala berdingakiro.²⁸

Aris.—Goazen hartara, bada.

²⁸ Ondorio ukhakorrak.

Par.— Lehenik, galde hau egin dezagun: bata ez baldin ba da, ¿zer gerthatuko zaio batari?

Aris.—Hori, bada.

Par.— “Ez da” derragunean, existentzarik ezten halako gauzaren baithaz izakia urrun dela bertzerik aipatu gogo othe dugu?

Aris.—Ez, horixe baizik.

Par.— Gauza bat eztela erraitean, ¿eraren baten ere eztela adierazten dugua, eta bertzela ba dela, edota “ez da” expressino horrek, eztena edozein eraz ere eztela agerrarazten ahal derauku nehola ere izakiaz partizipatzen eztuelarik?

Aris.—Neholazko eraz ere eztela.

Par.— Iadanik eztena, eztiteke beraz izan; ez neholaz ere izateaz partizipatu.

Aris.—Ez.

Par.— Bainan zer dira iaio eta hil, izaitza hartzea eta galtzea baizik?

Aris.—Horixe, soilik.

Par.— Orain, bada: izaitzez batera kutsurik eztenak, eztezake ez hartu ez utzi.

Aris.—Baiki.

Par.— Hunela, beraz, bata neholatan ere eztenaz geroz, eztezake ukhan, ez utzi, ez izaitzez kide izan.

Aris.—Nabaski.

Par.— Hortaz, ezten bata hori, ezta iaioez ez hiltzen, neholaz ere izaitzez kutsatzen ezpaita.

Aris.—Ezetz dirudi.

Par.— Bertzelatzerik eztu bada, iasaiten: zerbait bertzelatzerik iasan ba leza, iaio eginen lizateke eta hil ere bai.

Aris.—Egia da.

Par.— Eta bertzelatzerik ezpa du, noraezeko du ez higitzea.

Aris.—Beharko.

Par.— Neholaz ere eztena, egonean datekela ere eztugu erranen, egonean dena bethiere lekhu berean izan beharko baita.

Aris.—Eiki.

Par.— Aithor dezagun, bada, ezdena, egonean eztela, eta ezta higian ere.

Aris.—Dudarik gabe, ez.

Par.— Denetik ezertto ere partizipatzen eztu, beraz, zerbait-ez egin ba leza, izaitzez eginen luke-ta.

Aris.—Eiki.

Par.—Berhain, eztaduka handitasunik ez tipitasunik, eta berdintasunik ere ez.

Aris.—Ez.

Par.—Ez ahantzekotasunik ez differentzarik, ez berberari buruz edo bertze gauzeri.

Aris.—Hunela iduri du.

Par.—Alta, ¿bertze gauzak berari buruz ezer izan ahal ditezke, hura hekieri buruz ezer ezpaita?

Aris.—Ez.

Par.—Nola? Expressino hauk: harena, hari, zerbait, hau, hunen, berze, bertzeari, behiala, iarraian, orain, iakintza, aburua, kordea, elhea, izena; hitz, batez, denik ezertto ere ez othe dateke eztenari buruz ager?

Aris.—Ez.

Par.—Berhain, ezten bata, neholaz ere ezta.

Aris.—Horixe uste dut.

Par.—Erragun orain, bertze gauzeri gerthatuko zaiena, bata existitzen ezpa da.²⁹

Aris.—Bai, erragun.

Par.—Lehenik, bertze gauzak nolabait ere izan behar dute; bertzenaz, ezpa dira, heietaz mintzatzea alpher genuke.

Aris.—Baiki.

Par.—Eta bertze gauzetaz diarduguncan, garaitiko gauzak “bertze gauza” diferenteak direla huleretzen da. Edota, ¿“bertze” eta “diferente” hitzeri zentzu berdina ez othe derauegu egozten?

Aris.—Bai.

Par.—Diferente dena, gauza diferente denaz aldedun dela ez othe dugu erraiten, eta bertze dena, bertze zerbaiteri buruz dela?

Aris.—Bai.

Par.—Hunelatan, bertze gauzak bertze izan ba ditez, bertze gauzaren bateri buruz izanen dira.

Aris.—Beharko.

Par.—Eta zer bertze gauza izanen ahal da hori? Gauzak, bada, batarri buruz ezin izan ditezke bertze hura existitzen ezpaita.

²⁹ Bigarren hypothesisaren II-garren aldea. Ondorio baikorrek aztertzen ditu, nahasiak bertan behera utzia.

Aris.—Ez.

Par.— Batzu beraz, bertzeri buruz dira bertze, ezpaita bertze biderik humelatan baizik; deusezari buruz ezpa dira behintzat.

Aris.—Hori erran ezazu.

Par.— Batzu, batari buruz bertze ba dira, pluralitatearen edo anhitza-
ren indarrez izanen dira, bada; batasumarren ezpai ditezke izan, bata
existitzen ezteletakotz. Nabaski, gauza bakhoitza zenbatezin zathi
dituen ore bat bezala da; eta humelatan, asma diteken gauzarik tipie-
na atxiki dugula uste dugunean, hor dakusagu, ametsetarik bai li-
tzen, batasuna atxiki uste genuenaren ordezt, samalda bat; gauza tipi
batenordezt, gauza handia, hartaz ditekezan atalketari dagokunezt.

Aris.—Ederki.

Par.— Berhain, bertze gauzak hekiekiko bertze izanen dira, natura
hartuko oreen indarrez, ezten bataz bertze baldin ba dira.

Aris.—Eiki.

Par.— Oreotarik anhitz izanen dira beraz, eta heietarik batbederak
bat iduriko du, benetan izan gabe, bata existitzen ezpa dea?

Aris.—Bai.

Par.— Hunela, anhitz izanen da iduriz, ore bakhoitzak bat ba dirudi
eta berdin baldin ba dira?

Aris.—Eskierki.

Par.— Batzuek pare, bertzeak bakhotxi iduriko dute, egiaz alderan-
tzira, bata existitzen ezpa da.

Aris.—Zalantzarik gabe.

Par.— Eta erran dugunezt, gauza zehe batezt eginak iduriko dute; eta
gauza berbera halaz ere, berretua eta handi bezala agertzen da,
bere zathia anhitz eta tipitasunari buruz.

Aris.—Ezpairik gabe.

Par.— Ore bakhoitzak bere anhitz atalttoak bezanbat delakoa era-
khutsiko derauku; handienetik tipienera erdi terminara hel gabe
iragan ditekenik ezin ager dezake, eta erdi terminak berdin-ahan-
tza erakhusten derauku.

Aris.—Alkhi gagozt.

Par.— Berzeri eta berberari buruz, ore bakhoitza mugatua ez othe da,
nahiz eta hastapenik; azkenik eta erdirik ez izan?

Aris.—Nola?

Par.— Ore hoietan zathiren bat existitzen dela ohar ba deza oldoz-
menak, hastapena baino lehen bertze hastapen bat agertzen ikhu-

siko du, azkenaren ondorik bertze azken bat, eta erdian, erdia baino erdiago eta tipiago den zerbait; bata ezertan ere ezpadaiteke atzeman, izan ere eztelakotz.

Aris.—Zinetan egia.

Par.—Gure oldozmenak ohar dezan izakia edozein delarik ere, halabeharrez banatzen eta suntzitzen ikhusiko dugu bethiere; batasun bageko ore bat bertzeri ezpaita.

Aris.—Ederki.

Par.—Ore hekiek urrundik eta osokiro behatzen baditugu, hekieta-rik batbederak bat iduriko du noraezean, eta aitzitik, hurbilerik eta zeheki azter ba ditzakegu batbedera zerbatezinez anhitz agertuko zaigu, bataz laguntzagabe baitira, bata izan ere eztelako. Egia ez othe?

Aris.—Egia borobila da hori.

Par.—Hunela, bertze gauzetarik bakhoitza azkengabe eta mugatua bat eta anhitz ageri izaita beharreko da, bata existitzen ez balin ba da, eta bataz landa bertze deusik ba da.

Aris.—Beharreko da.

Par.—Bainan, bertze gauza hoiek ere, ahantzegabe eta ahantzeko ez othe iduritzen?

Aris.—Nola?

Par.—Erraite baterakotz: urrundik ikhus kuadro batean, iduri gauztiak bat bakharra direla emaiten dute eta ahantzeko direla.

Aris.—Osotoro.

Par.—Pinturara hurbil ba gaitetz, ordean, iduriak berehala berdinga agertuko zaizkigu, eta berdingatasun hori dela-ta, bertze eta ahantzegabe.

Aris.—Baiki.

Par.—Eta hunelaxe duzu, oreak batbederari buruz eta elkharkiro ahantzeko eta ahantzegabe iduritzea.

Aris.—Ederki.

Par.—Halaber, berdin eta diferente iduritzen dute, elkharkuntzen direla eta iareginik; higikera orotaz eta egon bathean; iaiozen eta hiltzen direla eta ez iaio ez hil egiten direla; eta, laburzki, guk asma-alako aldakuntzen pairatzaile, baldin gauza anhitzak, bata existitzeke, ba dira izan.

Aris.—Osoki egia.

Par.— Behin berriz ere, goazen hastapenera eta bata existitzen ezpa da, eta batari buruz bertze diren gauzak existi ba daitez, erragun zer gerthatuko den.³⁰

Aris.—Erragun, bada.

Par.— Bat, bertze gauza batere izanen da.

Aris.—Horixe ez.

Par.— Ez anhitz. Bata, anhitzean ba lego eta berze gauzak bataz partizipatuko ezpa lukete, ezer ere izanen ez lizateke, eta pluralitate-rik ere ez.

Aris.—Egia da.

Par.— Bata, bertze gauzetan edireiten ezpa da, bertze gauzak eztira ez anhitz, ez bat.

Aris.—Ez.

Par.— Eta ez bat ez anhitz ere iduriko eztute.

Aris.—Zergaitik?

Par.— Huneगतik bertze gauzak ez lezakete eztiren gauzetaz hartue-manik ukhan, eta izan ere eztena, bertze gauzeri ezertan ere eztagoke, eztenak zathirik ere ezpaitu.

Aris.—Zinez.

Par.— Berhain, bertze gauzetan ezta ez-denaren iritzirik ez agerrezapenik, eta eztena nehoiz ez nehola ez diteke bertze gauzeri buruz egoki sorthua izan.

Aris.—Nonbait ere.

Par.— Hunelatan, bat existitzen ezpa da, bertze gauzetaz deusera ezta sorthua izanen bat bezala, ez eta anhitz bezala ere, unitaterik gabe anhitz sortzea ezina baita.

Aris.—Ezina.

Par.— Hortaz, bata existitzen ezpa da, eztira existitzen bertze gauzak, eta sorthuak ere eztira, ez unitate bezala eta ez anhitz bezala.

Aris.—Horixe uste dut.

Par.— Ez ahantzeko, ez ahantzegabe.

Aris.—Ezta.

Par.— Ez bardin bezala, ez eta berdinga ere; ez elkhar hunkitzen izanik ez iareginik. Eta oixtion iduri izan zaizkigunak oro, eztira ez iduri egiten dute, baldin bata existitzen ezpa da.

³⁰ Ondorio ukhakorak. Hunelatan, mozki eta betbetan burutzen du Platonen elkharriketa, ondorio nahasiak berriz ere, aldebat utzia.

Aris.—Egia.

Par.— Erraniko guztia orain laburzki erranik: bata existitzen ez baldin ba da, deusere existitzen eztela erran ba genu, ¿zuzenaz ez otheginake mintzatuko?

Aris.—Bethe betheko zuzenaz.

Par.— Erragun bada, eta erragun halaber, iduri duanez, bata existi ala ez, hunek eta bertze gauzak, batbederari buruz eta elkharri buruz, osoki guztia dira eta eztira, iduritzen dute eta iduritzen eztute.

Aris.—Ezertto ere eztuzu egiago.

Erkiaga
1952-V

PANPINIK KRISTO MAITATU ZUANEKOA*

Italiar gizon artega onek, umetandik, siniskera guztientzako narda ta erdeinua izan zuan. Gogoak, oztopo ta esirik izan zezakcanik, ez zuan ontzat artu nai izan.

Au ukatu ta ori ere ukatu, jainko-usairik ez aztamarik gabeko iza-kizun ta jokabide soil osora jo nai izan zuan, buru-belarri.

Alaere... Jainko andia aren begira zegon, aren zai. Ta hamaika bide okerrekoz ibili ondoren, Giovanni Papini, Berri Oneko mendirantz abiatu zan, ta egundoko liburu gartsu ta giartsu idatzi ere: "Kristo-ren kondaira".

Liburu ortarik euskeralduko ditugu zenbait lerro mamitsu.

"Kristo-ri otoia" deritzan ataletik.

* * *

"Oraindiño, egunero, gure artean zagoz. Ta egongo ere bai gurekin, betierekotz.

"Gure artean bizi zara, gure aldamenean, lur-gaiñcan, zurea baitada, ta gurea; ume ziñanean ume-artean artu zinduzan ta zu salaturik, lapur-artean gurutzean josi zinduzan lur onen gañean; biziekin bizi zara, bizien lur-gañean, eder-izan zitzaizun ta maite izan zenduzan lurrean; gizazgaindiko biziez bizi zara gizonen lurrean, zure billa dabiltzanentzat ere ikusieziña; agian, ogia eskatzen duan eskalearen tajupean, iñork ere beatzen ez dion eskale itxuran.

"Baiña eldu da berriro gure artean agertu behar duzun garaia, ta gizaldi oni seiñale berri premiatsu ta ukaeziña eman bear diozuna. Zuk dakusazu, Jesu, gure gabezia; zuk dakusazu gure txirotasunaren andia; ezin duzu aintzat ez-artu gure bearrianaren luzapide-eziña, gure larritasunaren egia ta gogortasuna, gure landerreria, gure etsipena: ba badakizu zure laguntasun oi ez bezalakoa dugula premiazko; zure itzulpenaz dugun bearrizana, ba dakizu".

* * *

* *Zeruko Argia*, 6, 1963.

“Zure bearrean gagoz, zurearenean soillik, eta ez besterenean. Guztiak dute zure bearra, baita ez dakitenak ere; ta ez dakitenek, dakiten aiek baiño areago. Gose danak, ogibilla ari dela uste du, ta zure gosez baitago egon; egarri danak, ura opa duala uste du, baiña zure egarri da; geisoa, osasuna irrikitzen duala-ta dago, baiña aren gaitza zure jabe ez izatean datza.

“Azken urteotan gizadia, leen ere eun sukarretako lilluraz biurrituta, erotu egin da. Mundu osoan, sakonera dijoazten etxazatien iskanbillak burumbaz ari dira; zutarriak lupetzan lurpetuak dira, ta mendiak beurak ere, erpiñetarik, arrizko crasoak amiltzen dituzte, hurgaiña eremu ta zelai berdin bilakatu dadin. Beuren basa-lurretako pakean kutsugabe zeudenak ere, beuren artzai-giro barrutirik erauzi dituzte, iri andietako naaspil amurrutsura jaurtikitzeko, antxe kutsatuak eta neketuak ditezen”.

* * *

“Ta gaur, gizonik gcietak ez dakite, ez zaitute aurkitu nai. Zure eskua beuren gain sentierazten ez ba duzu ta zure aotsa beraien biotzetan, beuren buruen billa jardungo dute, arkitzeke, iñor ezpaita norbere jabe, zeu ezpa zaduka. Geuk eskatzen dizugu, ba, o Kristo! Guk, ukatzailleok, errudunok; guk, oraindiño ere zutaz oroitzen garenok, eta zurekin bizi nai dugunok, nahiz-eta beti zuregandik urrunegi; geuk, azkenok, ibiltaldi ta amilburuetatik unaturik eta nekaturik biurtu garanok, bein eta berriro ere itzuli zaiteala eskatzen dizugu, il zinduzten gizonen artera, zu ilten ari diran gizonen artera, berriz ere eman dezaiguzum guztioi, illunbezuko gaizkilleoi, egiazko biziaren argia”.

Itzulpenez, E.ERKIACA

KIRI-SORPENeko BIRI-ANTURA*

Laburpena

Ukaldiko edo odiko garun-zauri zorrotzak, kiri-sorpeneko biri-antura batekin naasi daitezke. Txosten ontan, geixo-eme batengan aurkeztutako amareunpeko odol-jario baten gertaera erakusgarria aurkezten da, eta agitz-sorpeneko leiketasun eta pisigaitzeko ekintza ezagunenak aztertu dira. GILTZ ITZAK: kiri-sorpeneko biri-antura. Amareunpeko odol-jario. Pisigaitzeko ekintza leikegarriak.

* *Gaceta Médica de Bilbao* 75, 1978,10.

**LEKEITIO URI BEGIKOAN EGINDAKO
BAKALDUN-EGONALDIAN AIPAMEN ZEATZA***

Francisco de Ocamica

Lekeitio uri begikoan egindako bakaldun-egonaldian aipamen zeatza:

Isabel II'gn. eta bere seme Alfonso'renak (jaurri-alkitzean XII'gn. zenbakiagaz orniduko zana).

Habsburgo'ko Zita Kaiser-emea ta bere sendiarenak. Onen ikerle leiatsuak Maria Cristina Bakaldemea ta bere seme-errainak, Alfonso XIII'gn eta Victoria Battenberg izan ziran.

Edestiak ba'ditu ele-melezko zeaztasun batzuk, onela osotuak: M. Azaña Erkal-Lendakaria bere ikertaldi igeskorrakaz, eta lengo Latorri-Buru'ren emaztea, Meirás'go Anderarenagaz.

Bestaldez "Guernika'ko Arbola" zortziko ospetsuaren ereskideta dala-ta, bere Altuna irakaslearen aitatasunatzaz, aiko-maiko txiki zuur bat dator.

* *Caceta Médica de Bilbao* 76, 1979, 5-6.

**LEGE 121 1981, MAIATZAREN 13 GARRENEKOA, ZEINEN
BIDEZ EUSKALERRIKO ERKIDEGO AUTONOMOAGAZKO
ITUNBEN EKONOMIKOA ONARTZEN DAN***

1 KAPITULUA

ARIELAK

Igo. Atalska
Arau Orokorrak

Lehenengo artikulua.—*Itunben Ekonomikoaren iraupena.*

Oraingo Itunben Ekonomiko honek, Estaduaren eta Euskalerriarren artean itundurikoak, bere Autonomi Araudian ezarria danez, bi mila ta batgarren urteko abenduaren hogetamaikagarren egunerarte iraungo dau.

Bigarren artikulua.—*Lurralde historikoetako Iraskundeen eskukotasunak.*

Bat. Lurralde Historikoetako Iraskunde doiek, heuren lurralde barruan, ariel-jaurpidea eukierazo, jarri ta edutu ahal izango dabe, hurrengo arielok ezik, arcan Errenterietako Sarkizumetan horniduak diranak, Jimelketa Fiskalaren bitartez orain batzen diranak eta alkoholen gaingo czarpena, honeen arauketea Estaduaren eskukotasun dalako.

Bi. Lurralde Historikoetako Zerga-Sistemea eratzen daben arielen okaintze, zuzemen, garbiketa, azterpen, ikuskuntza ta diru-batzea bakotxa bere Foru-Ahaldundiari egokituko jako.

Hirugarren artikulua.—*Aburu nagusiak.*

Bat. Lurralde Historikoek jarri dagien Zerga-Sistemea aburuon jarrai joango da:

Lehenengo. Konstituzinoan eta Autonomi Araudian iragarriko esantzetan, atxikitasunari begirumea izatea.

Bigarren. Estaduko egitura orokor zergagarriari adi egotea.

* *Bizkaiko Jauverriaren Foru Ahaldundia / Diputación Foral del Señorío de Vizcaya*, 1981.

Hirugarren. Estaduagaz kiridetza, alkarrari fiskala ta auzolana, Itunben Ekonomiko honetako arauen edura.

Laugarren. Kiridetza, alkarrari fiskala ta alkarrekiko lana Lurralde Historikoetako Iraskundeen artean, Eusko Legebiltzarrak horrezaz idatzi dagizan arauci adi.

Boskarren. Estadu Españolak sinatu ta sendetsiriko Itunben edo Hitzarmen Laterriartekoei menpetasuna, eda bera erizkidetzen jakenei.

Bi. Itunben honetako arauak Ariel-Lege Orokorrean arau zergakorrak ulertzeko jarririkoaren edura ulertuko dira.

Laugarren artikulua.—*Alkarrari fiskala.*

Lurralde Historikoetako Zerga Sistemeak alkarrari fiskaleko arau honeei lotsea gordeko deutse:

Lehenengo.—Ariel-Lege Orokorra ta berau kozkontzen daben arauak erabiliko dira, alkarbideratze neurri lez, sistematika, izensail eta adigaiei dagokienez, Lege honetan moetakiro ipinirikoari jarkiten ez jakon guztian.

Bigarren. Eralgipena gauzatzen daben ondasunen edo ekipuen jatorri-tokiagaitik bereizkatzea dakarren eralgipenak ernaitzeko neurri fiskalik ez da atonduko.

Hirugarren. Pertsona Gizatarren Errentearen gaingo Zergearekiko eta Baltzuen gaingo Zergearekiko, lurralde arruntean lango kenekite taxuak eskatuko dira.

Laugarren. Landako Lurralde-Zerga ta Aberreen eta Urikoari buruz, egikune ezargarriaren adiera berbera eta halango izacrako ondasunei buruz Estaduak ipiniriko erizpide balio-susmogarri bardinak hartuko dira. Honetarako, Hazienda Ministeritzan sortuko diran Batzordeetan Foru-Ahaldundiek ordezkariak izentauko ditue erizpide horreek atonduteko.

Berebat, ondorio fiskaletarako, lurralde arruntean dan sailketa bardina erabiliko da, arean, industri ekintzetan, salerosketakoetan, zerbitzuetakoetan eta bizikaturakoetan.

Boskarren. Estaduko zerga-arau bardinak ezarriko jakez banka egiketei ta diru-merkatuetakoei, eta baltzuen beste diruztatze-moduei be bai.

Seigarren. Lurralde arrunteko arielketa bardinaren menpe izango dira baltzuen iraspen egimenak, domu areagotze ta murrizte, aldatzpen, bateratze ta ezereztute egimenak.

Zazpigarren. Zerga-amnesterik ez da izango, edozein izen emon arren, ezik-eta alde-aurrez jeite orokorrean atonduak izan, Korte Nagusietan botoz gerturiko Legez.

Zortzigarren. Jeite fiskaleko ezetariko lakemenik ez da atonduko, ez artezkerakorik ez zeharkerakorik, ez arielak bihurtzea adierazo daiken urgazpenik emongo da.

Bederatzigarren. Lurralde Historikoei onetsi dagiezan ariel arauztatzeek edo oraingotzeek, ezkutuko eukariak kontura sartzerik ez dabe adierazoko ta ezta zorkari guzurrezkoak aldentzerik be.

Hamargarren. Estatuak jeite ohi ez lango ta abaguneko arau fiskalak lurralde arruntean ezartea erabagi dagiana lurralde Historikotan ezarteko ebazpen egokiak hartuko dira eta iraupen aldia haentzat izentau dan berbera mugatuko da.

Hamaika. Lurralde Historikoetako Iraskunde egokiberaek idatzi dagiezan arauak ez dabe enpresalari lehiaketa egingarritasunen urritzerik heurrez ekarri ahal izango, ez eskuarteen esleitzapenik bilhurrituko, ta ezta domuen eta lan-eskuen ibilera aukerak urritzerik be.

Heuren arau fiskalak idazterakoan, Lurralde Historikoetako Iraskunde egokiberaek ekonomi-politika orokorreko aburuei egongo dira.

Hamabi. Ituben hau ezarteak lurralde arruntean legoken baino benetako ta osoriko estukuntza fiskal apalagorik ezin daike beragaz ekarri.

Boskarren artikulua.—*Auzolanekeo aburua.*

Bat. Estatuak eta Lurralde Historikoei, dagokiezan eginkizunen jardunean, heuren arielen zuzemenari, azterkuntzeari ta batzeari buruz, preminazko deritzen zertzeladak eta jakingaiak emongo deutesz alkarri, emonerazoteak hobeto egiteko.

Bereziki, Arduralaritza bitzuek:

a) Heuren Zertzelada-Aripenen Aldorren bidez alkarri, preminazko daben argi-ta-barri emongo deutese.

Horretarako, beharrezko dan alkarartekotze teknikoa atonduko da. Urteró informatika fiskaleko Egitamu batua ta kidekatua landuko da.

b) Azterkuntza Zerbitzuek itu, arlo ta jarduera aukeratu alkarre-gazkoen gain azterkuntza egitamu bateratuak gertuko ditue eta baita bizitokiz aldatu diran zerga-jasaleen gain, garentasun fiskaleko

jaurpidez diharduen izakarien gain eta garatzetako zifra besteketzekoen meneko baltzuen gain, bere.

Bi. Lurralde Historikoetako Iraskunde egokiberaek Hazienda Ministeritzeari, indardun jarri aurretiaz, adierazoko deutsoez idatzi dagiezan arau fiskalak edo bakotxaren montioak.

Era berean, Hazienda Ministeritzeak alkar-adierazpen bardina egingo deutse Iraskunde haei.

Seigarren artikulua.—*Estaduaren bakarreko eskukotasunak.*

Estaduaren bakarreko eskukotasunak hurrengook etsiko dira:

Lehenengo. Errenteri-Sarkintzea osotuten daberen arielen araukatze, zuzemen, azterkuntza, berrikuste ta diru-batzea, Jimelketa Fiskalaren bidez orain batzen diranak eta alkoholen gaingo ezarpena.

Bigarren. Ariel guztien zuzemen, azterkuntza, berrikuste ta batzea, zeintzuetako jasalea, zerga-lepakari kariatz edo ordeazkoz, pertsona gizatarra ala izakari nortasun juridikoduna ala bagea dan, eta Estaduko ariel-ordenamenduari jarrai, lurralde espainiarrean egoiliar mailako ez dana, salbuespenak Itunben honetako bederatzigarren artikuluko, bi zerean; hamairu ta hamazortzi, lehenengoan, dagozan ustekizunetan dirala.

Hirugarren. Partzuergoen eta Baltzuen aldizko alkartasunak eta baltzuen batzakuntzen ariel-jaurpidea, Euskalerrriaren lurralde-barrutiaz ganez eginak diranean edo bestelango legeteri fiskalaren menean dagozanean, horraitino baltzuen taldekatze horreen irabaziaren banaketea lurraldetasun erizpideari adi egotearen kalte barik eta zifra besteketzekoa zeintzeko jarduera-arau berberak ezarriz.

Laugarren. Baltzu taldeen irabazi gotortuaren ariel-jaurpidea, Euskalerrriaren lurralde-barrutiaz ganez eginak diranean edo bestelango legeteri fiskalpeko diranean, horraitino irabaziaren banaketea lurralde bakotxeango garrantzi besteketzekoaren erizpideari adi egotearen kalte barik, eta zifra besteketzekoa zeintzeko jarduera-arau berberak ezarriz.

Boskarren. Itunben honen ezarpenarekiko goi-azterkuntzea, eta horretarako, horren arduradun diran Estaduko organuek esandako ezarpenei buruzko ondorioen txostena urtero egotziko dabe, Eusko Jaurjaritzearen eta Foru-Ahaldundien auzolana izanik. (...)

ERAKETA BILERAREN BATZAR-AGIRIA -1979-*

Gernika-Lumo Doe-herrian, Batzar Etxean, Gernikako Arbolaren ondoan Eleiza zinegitekoan, mila bederatzirehun eta hirurogeita hemeretzigarren urteko Apirilaren hogeitazortzigarren eguneko hamaikak eta hogeita minutu diranean, bilera apartekoan eta lehenengo deian, ehum eta bi urte iragan ostean, Bizkaiko Jaurerriko Batzar Nagusiak batzanduten dira.

Lehendakaritzearen eraikuntzeaz hasten da egimena, adineko Mahaiaik eratua, eta Eskudun aukeratu zaharrena lez Primitivo Abad Gorostiza jauna eta Eskudun aukeratu gazteena lez Ignacio Martinez Lopez jauna.

Horretarako galdea eginda agerian dago Gernikako Notario Ramon Altuna Uriarte jauna.

Eskudun jaunei dei eginez hasten da egimena, zeintzuok heuron ezaugarriak Lehendakaritza mahaian lagaten dituen.

Bazterretako batzar Hauteslari bakoitxak bialduriko zerrendaen arabera, Esbarru eta Auzi-barrutietako Eskudun jaunak, jarraian aipatuok dira:

(...)

Larogcitamarreko kopuru legezkotik hirurogeita bederlatzi ageri dagoz, arean, horniduten dituen atalkideetarik gehiengo osoa baino areago (Errege Dekretu 124/1979, Urtarrilaren 26 garrenekoa, 5.1 artikulua, zainetan Batzar Nagusien taxuketca eta ibilerea araupetzen diran).

Lehendakari jaunak ageriko guztiei une itzal handiko honetan zutun daitezela eskatzen deutse, eta ahots zoliz aldarrikatzen dau:

“Bizkaiko jaurerriko batzar nagusiak eraikirik jarten dira”.

Txalo luzeak eta deadarrak.

Adineko Lehendakari Primitivo Abad Gorostiza jaunak hurrengo idatzia irakurten dau, lehenik euskaraz, gero gaztelaniaz:

* *Actas de las Juntas Generales de Vizcaya-Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-agiriak: 1979-1983. Diputación Foral de Vizcaya / Bizkaiko Foru Aldundia, 1984.*

“Batzar Nagusiko nire lagunok, Enkartaldeko herrikideok, Euzkadiko emakume eta gizon, hona ni hemen, nire urteok zio dirala, adinekoen Mahaiko buru.

Parlamentu honetarako, Balmasedako Esbarruan EAJ-ren zerrenda-buru naizen hau Muskizko herrian jaio nintzan Lope Garcia de Salazar nire herrikidearen Dorre-Etxetik hurre, halako jatorri matxinada odoltsuetako aldeko eta kronikari ospatsu, Somorrostro Ibarreko bihotzean, nungo burdina-meak itsasontzi bizkaitarrek croandakoek bost legorretan Bizkaiaren izena entzutetsu egin eben.

Bizkaitarra naiz eta euzko etorki garbikoa, nire herrikide enkartarrak lez, Bizkaiko Jaurreriarekiko gure guztiz aintzineko alkartzeak autortzen dauanez.

Gernikako Parlamentuazko gure loturea, Foruen ezereztutea arte, 1876 garren urtean. Gure arbasoengandik ekanduak, gure abizenak asko behintzat, gure ibaien, iturrien, soloen, eta basetxeen euskal-izenak.

Egia da aspaldion euzkerea gure etxeko berbetea izatetik urrundu zala, atsekabez dinot, baina itxaropide sendoa dot, eskerrak hurrengo ikastaro 1979/80 garrenetik gorakoan elebitzaz abiatzean, eta eskerrak berbat enkarterri-ikastolen ahalegin egokiari, gure hurreko umeak eta gazteak gure aurretikoen berbeteaz barriro jabetuko dirala. Besterik ezer bere ez.

Hemen nago testigantza egokia emateko eta demokrazi euzkotarreko lege zaharrak eta gure berbetea barriro ezarteko, nun eta heuren orube berezkoa izan ebenean bertan.

Bere berbaldia amaitzen dau deadarrok eginez:

Gora Enkarterria!

Gora Bizkaia!

Gora Euzkadi Askatuta!

Agerikoez batera erantzuna: Gora!

(Txaloketa luzea).

Jarraian Foru-Ahaldunak deituak dira, Batzar Hauteslariak bialduriko zerrendaen arabera, Esbarruetako eta Auzi -barrutietako, hurrengook izanik:

(...)

Mahaiburuaeren ganatzen da Mikel Unzueta jauna, Eusko Parlamentarien Biltzarreko Lehendakaria, eta mezu hurrena irakurten dau:

«Juan Carlos, Espainiako Errege.

Oraingo hau ikus eta aitu dagienei, jakin:

Gernika Doe-Herrian 1979gnko. Apirilaren hogetazortzigarrenean Bizkaiko Batzar Nagusiak batzanduteko dirala, eta ekandu historikoaren eredura, 1979 gnko. Urtarrilaren 26 gnko. Errege Dekretu 124. bidez barriratzua, Erregeri dagokiola Mahaiburutza edo Errege Ordezkararen bitartez. Bizkaiko Batzar Nagusiak nire Errege aldian batzanduten diraneko lehenengo eretia hauxe izanik, eta heurretan neure lekukoa izatea gura, lehenengo ereti honetan Ahaldun Nagusi izan daitekeana Errege Ordezkarari izentautea erabagi dot, honek eite hori adierezoz Batzarretan buru-egingo dau neure izenez Foru-arabera, aipaturiko Dekretuak ezarria daukanez. Horixe agintzen dot Madrilen, mila bederatzirehun eta hirurogeta hemeretzigarren urteko Apirilaren hogetabost garrenean.

Sinatua eta zirrimarratua, Juan Carlos».

Unzueta jaunari jesarlekua eskintzen jako Mahaiburutzan.

Mahaiburu jaun adinez zaharrenak barriro jakinerazoten dau Ahaldun Nagusiaren hautakuntzea egingo dala eta Eskudunek heuren txantelak Lehendakarietzako mahaiari, lapikoan ipini behar izango dituela.

Ageriango Eskudun jaunak deituak dira alfabeto-aren kirian; botoketea amaitu eta Lehendakari adinez zaharrenak Eskudun biri erregeu egiten deutse boto-azterketea burutzeko aurkez daitezana.

Azterketea egin eta kontautea amaiturik, Mahaiburuak botoketearen ondorena agertzen dau:

Hogetahemeretzi boto Jose Maria Makua Zarandona jaunaren aldeko;

Hamar boto Pedro Rodriguez Sahagun jaunaren aldeko, eta

Hamairu boto zuririk.

Zazpi urruntze izan dira.

Mahaiburu jaun adinez zaharrenak bigarren botoketea egin behar dala dino, botoak alde izan dituenetarikoa batek bere, gehiengo oso-rik lortu ez dabelako; arcan, berrogetasei.

Botoketea barriro egiten da modu bardinean; Eskudunak barriro deituak dira alfabetoaren kirian bakotzak bere botoa laga dagien; botoak laga ostean zenbatuak dira, lehenengo azterketea egin eben Eskudun biak aurrean.

Une honetan, hamairu orduak diranean, Mahaiburu jaun adinez zaharrenak deitua, Ahaldundiko Idazkaria agertzen da egimenazko ziurtasuna beteteko.

Botoketearen ondorioa hauxe izan zan:

Berrogei boto Jose Maria Makua Zarandona jaunaren aldeko;

Hogetabi boto zuririk, eta

Zazpi urruntze.

Txalo guztiz ugariak eta deadarrak. (...)

URDAILEKO HODI-EHUN UGALTZEA*

Urdaileko hodi-ehun ugaltzea, beste hitzez telangiectasia ta bai zaingorrien ta bai zainen makestasuna deritzatena, hestelodian aurkituta gero azaldutako izakaria da; baina egunero ta maizago igarri ohi den eria, alegia, hodi-irudizko ta barneikustezko egitaden aurre-rakuntza dela-ta; gaitz hori urdail eta sabel ararte goitikoan odol-jarioa izatearen zergati bezala hartu behar da.

Urdaileko hodi-ehun ugaltzea zuen 43 urteko emakumearen kasua dakargu, fundus unean hedatua, beste patologiaz loturarik gabea, odol-jario gertaerak jasana, jario aldietan kirurgi josturak behar izaten zituzten. Gertari berri batean, igarpidea zaingorri-les-tiz egin zitzaion eta jarraian urdaila osoro kentzea, soin-gaitzarekiko iritzia sendetsiz. *GILTZ-HITZAK: Hodi-ehun ugaltzea. Ehobideko odol-jarioa. Urdaileko hodi-ehun ugaltzea. Zaingorrien eta zainen makestasuna, urdailekiko. Telangiectasia.*

* *Gaceta Médica de Bilbao* 84, 1987, 3-4.

SARRERA: BERDETIK CORRIRA*

Bizkaiko Foru Aldundi helburuak hauteskunde demokraziz gaur darabilenek, aspaldion izan dabe liburu bat argitaratzeko asmoa. Liburu horrek gure Lurralde Historiko honen irudia izango dau, bere lurak gizonak, edestia, erakundeak, arazoak, saminak, lilurak eta itxaropenak agertuz. «Gura izango genduke liburu hori —esaten eben— izten dogun txartela lakoa izatea, gure bisitea adierazoten dogunean aina, gu ikustera datorrenari doaneango opari». Eta gehi-garritxoa beti hardina izaten zan: «Hasi zaitetz idatzi hori asmetan».

Bizkarreratzen doguzan erantzunpenak ekarri ohi deuskuezan kezkek —batez be, halako adinaz gora— luzaro irauin eben nigan, zera ulertu neban arte, arean be, ez eustela «Bizkaiaren edestia labor esana» niri agindu, Peman-ek frankismoaren hasieran argitaratu ebanaren antzekorik, arean, ume españarren abertzaletasuna zuzpertzeko egin ebalakoan.

Idazte horren aldekoak ba ziran, nunbait; baina Bizkaiko Aldun Nagusiaren erabagiak ebagi eban morapilo amurratua: liburu Alberto Schommer-ek idatziko eban hain berbere diran argazkien hizkuntzan, eta nire arloa —arlo bikotxa— lehenengo ta bat, urteek eta maitetasunak erakutsi deustezan Bizkai honen bazter ezkutuenak hari agertuerazoz, eta bigarren berrogetamar orrialde zehatzek mugaturiko tokian esturaz sartzea, bizitza guztiko irakurketek, burutapenek eta gogai-amesek, ez beti grina bagecek, ariman itzi daben hondakina.

Ba nekian Schommer-ek liburuak egin ebazana, «Cero Huts» Euskadizaz, «El grito de un pueblo», Gipuzkoari buruzkoa, eta «Araba zabaldua», bera jaio zan lautadecarekiko argazki maitatsua. Bizkaiko liburuarentzako izenaz eztabada izan genduan, eta horra, itsasoa, ibarren eta ibaien sakon gerizatsua, antxinctako harpeek daben giza misterioa, hurpean barrura ta barrura zulaturiko meatzak, bizkaiherriaren aiurri sakona —berbetan zuhur, eginetan ugari— zerok guztiok gogoan izanik, batbatean, berez sortu zan izena: «Bizkai sakona», edo «Bizkaia barru-barrutik».

* *Bizkaia profunda / Bizkaia barru-barrutik*, 1990.

Bizkaiarekiko liburu horretako hizkerea irudien bitartez begiek ikusi ebenez, behin hori buruan sartu ezker —eta eraz, nire zereginaz lumaz barik bide-aurreko izatera aldatuz— mapa gancan heme-retzi ibilkizun ezberdin marratu nebazan, guztiak Bilbon hasiera eta gure Lurralde honen luze zabalean ibili ahal izateko aukerak.

Eta Schommer bere tresnakaz heldu baino lehen, aipaturiko bide lerroetan zehatz mehatz ibili nintzan —beharren neban unectan eta lekuetan hain minberatsu ta sentikor dana lagun nebala, eta gero ixil ixilean alde egiten dakiana— han hor gertuz, errekondoetako dir-daiak, erdiaroko torrcaren irudia, ehun urteko aretxaren sendotasuna, urrun lanbrotsuaren misteriopean datzan bazterraldearen edertasuna edo baserritar baten begirakune susma-ezina... guztiok zirkin eragiten eutsoen nire arkatzari, argazki baten sorrera nun izan ete zaintekean ohar eginez.

Haizetan egindako lan horren ostean, 1989g. irailaren 19an, goizean, martitzena zan, —ezin ahaztu jat egun hori— hasi neban Bizkaiko bideetango bidezbidetako liluragari Alberto Schommer lagun nebala, pintore, olerkari ta gizatar dana batean dan argazkilari mozorrotu hau: arean, Gasteizen hiru mende beranduago jaio zan, jaioken bidaiak Medicitarren Florenza berpiztailerakoa zeitkena.

Lehenengo ibilkizunak Santimamiñeraino eroan ginduzanean, harpera sartzetakoan, beti lez, gaurasoenera heltzean izan ohi dogun etxeko zauzkadea izan neban —poza, lehenmina eta lotsea nahastean dauna— joanak doguzan aurretikoen arnasea, giroaren iraupena.

Baina goiz haretan, ohi neban zarrada hari, beste gehitu jakozan. Bata, «Bizkaia sakona», edo «Bizkaia barru-barrutik» izentzat aukeratzean artez genbiltzalakoa, bada han aldiak aldi bizkai-gizonaren sakontasuna susmetan gendualako; hantxe, bitarte haundi hori, Joxe Migel Barandiaran jaunak hara heldu eta bere lur-zulatzeak, bederatzi metro goitik behera sakonduak, 30.000 urte baino gehiago adierazoten ditue-ta.

Eta bigarren, Alberto Schommer-en trebetasunaren eta Santimamiñeko harpe pintoretan egile ezezagunaren artean heldu ta behingoan susmetan hasi nintzan alkarren antzera kezkatia. Gauzak gauzakiro ez ebezan azaltzen ez bata ez besteak. Ez. Zoramenean herberean murgilduak, horixe nenkusan, argazkilaria eta pintorea —bata besteaganik 300 mende urrundua— azturu bi ziraka, teknika gai ezbardinez, gura ta guraez, gauzen arimea harrapateko ahaleginetan.

Gure lana Santimamiñen hasi zan arren —Bizkaian, bizitzearen hasiera ta jatorkia— berezkoa zan Bilboko Ibaian amaitzea, orokartasun sinbolo ta itxaropen bide danez, Europaren eta munduaren etorkizunerantz doana. Eta horretara, azkenengo egunean, erremolkadoraren brankan jesarrita, Schommer alboan, Santurtzitik San Antongo zubiraino astiro ta bazterretara begira joan ginan, eta gero-ago Sestaoko Benedikta mailaraino bihurtu. Barojaren berbak nituan gogoan: «Bidea dan 14 edo 15 kilometroen ibaian aina susmetan dan indar, lan eta garraren erakuspiderik ez dot uste peninsula osoan ete dagoan».

Atal zauzkeragile hori argimintz bihurtu ebanean —burdina, ontzi, tratularitza ta itsasgizonen sekuentzi hori— ziur nengoean Santimamiñeko goiz hasibari haretik Bilboko Ibaian gure azken uragora egin genduan arte, beharrezkoena zan ezerk ez ebalá Schommer-en tresna begizorrotzetik ihes egin.

Bizkaiaren arimea harrezkero ehundaz ataltxuan egoan diapositibetan, eta hartzaileak sailkatu, banandu ta iratziko ebazan puzzle eskerga bailitzan, eta nik bitartean halako erabidea jarri gura neban batbateko argazki igeskor horrek baturiko bizipen, gomunta, toki, lagun, argi ta gerizen nahastean, zeinetan argiak aldiari oinak lotzea lortzen dauan.

Gure lanak irauñ asteetan bidertzean ipinten genduan Stendhalek inoskun espilu zintzoa. Baina haren kristalean agerturiko irudiak, «gorriaren eta baltzaren» bitartean gelditu barik, eukiezineko itsunen-diz, berdetik gorrira doan maila koloredunean zehar joaten ziran beti.

—Artzain zelaietatik mendi zulatuaren meatz odolusturaino...

—Gernikako Arbolatik Laba Haundietaraino...

—Lurrarte jatorretatik Harresidun urira...

—Batzar Etxetik Bilboko Ibaira...

Ezin ba, Alberto Schommer-ek ni ez-ustean hartu, gure liburua-
ren izena zein izango ete zan itaundu neutsanean, bere erantzunaz:
Burdinea.


Hori entzutean, Mario Angel Marrodan olerkilariaren berbak hel-
du jatazan gomutara: «Burdina erdoitutik hasi zan euskaldunen
industri zabalketea. Meatzak emon eutsan bultzadea. Ohiturea da eta
adierazoten dau, lanaren ikurra. Herri honen bizkarrezurra giza-
ondasuna izan da». Egia, izan be. Bizkaiaren arimea danba-danba
mailuz landu zan, gizaldiz gizaldi, bere burdinearen jungude gogo-

rraren ganean. Baina azkeneko salneurria bizkaitarrok galdu genduan askatasuna izan zan indarrek gogorkeriaz narrasean berdetik gorrira aldatutean.

Hala be, hurrengo orrialdeok itxaropen kantua izan gura dabe, arean, benetako demokraziak, Herrien Europan halakoren baten sendotuak, jatorrizko aukeramena mailaka berreskuratzearen hasierea —lehenengo emonaldia—, Bizkaia aukeramen hori geratzeaz etsita egundo egon ez dalako.



KAZETARITZA



OROIPENEZ*

Edestijak irakasten dauskun lez, erri geyenak euki ditubez seme ospetsubak, erri orrek aurkitu ziran ezbiar edo arriskubetatik atara dabezan seme aundijak, emonik euren Aberrijari bizija, galduta edo erdi galduta euken bizija.

Euzkadi'k be, eukiko dituz orrelako semiak baña, beintzat, danen ganetik bat agertzen da, euzkotar gustijok ondo dakiguna: Arana-Goiri'tar Sabin.

* * *

Geure Euzkadi ija osoro galduta eguan. Gure asabak aztuta euken nortzuk zirian eta euren Aberrija zein zan. Castelarren menpian eta eurakin eikezan artu-emonak gatik eurakin bat eginda lez egozan; dana zan bertan erderia, errijetan egozan gixon agindudun gustijak zirian erdeldunak, eta geure euzkera ederrari guda gogorra egiten eutsen. Emenguak be, asi zirian euren (gaztelaren) izkuntzagaz pozik (zoritxarrez gaur be geyenak orretan dagoz, batez be, emakumiak) eta euzkeria, lenengo erdi eta gero ija oso aztu jaken. Geure lege ain ederrak kendu, ostu euzkuezan, eta oitura eta okandu garbijak zapaldu eta loitu ebezan; orregaz, euzkaldunen zinizmena be asko makaldu eta otzitu zan. Euzkadi, ainbeste gixalditan azke bixi ixan zan errija, errijotzia urre-urre eukala eguan. ¡Zelako egun larrijak benetan geure Aberrijarentzat!

Orrelan aurkitu eban Sabin'ak. Erdeldun jayo zan, baña laster ezaguturik bere odola eta bere Aberrija zeintzuk zirian, eurori jago-ken izkuntza ikasi eban: euzkerea. Bere errija ikusirik errukarrizko era orretan, gaizkituteko asmua artun eban. Bere ixate gustija, ezkiñi eutson, jakite, ogasun, lagun, eta baita bere bixitza be, Aberri gaxuari osasuna emotiarren. ¡Sabin bai ixan zala bijotz onekua!

Eta gogotik asi zan bere lanean; sendo ekin eutson, ez iñoren alde-
tik goralpenak entzuteko asmuz, ez; entzun beren itzak: "Pozik emongo neuke neure bixitza ori gatik Aberrijari osasuna etortiarren iñork nire barri jakingo ez ba leuke be". ¡Benetako abertzaliak zela-
kuak diran!

* *Bizkaitarra*, VIII, azaroa, 1930.

Euzko Alderdi Jeltzalia sortu eban, eta oneri ikurritzat “Jaun-Goi-kua eta Lagi-Zarra” ezarri eutson, argi eta garbi azaldurik.

Arautegija be emon eutson. “Euzkadi euzkotarren Aberri bakarra da; galduta dago eta barriztau, berbiztu biar dogu, sendo eta eder jagi dayen len legez, bere azkatasunagaz”.

Jaungoikua, bakar eta egijazkua, zeru-lurren jaubia, Euzkadi'rena, be, bada. Beragan siniste osua euki eben gure asabak, aurrerantzian be. Bera ixango da geure Jauna. Ostu euzkuezan geure azkatasuna eta orregaz geure lagijak; eskatu biar dogu beti lortu arte, biurtu daizela atzera. Eta Euzkadi'ko izkuntza, euzke-rea ixango da, ele zar eder eta garbijena, Urtzik geure errijari emo-nikua. Eta Euzko-Alderdi orri emon eutson biar eban arautegi oso-sua.

Argi-argi egi onek irakatsi ebazan eta origaitik arerijuak alde gus-tijetatik agertu jakozan; zorotsat artzen eben, danak bera irainduten ibiltan ziran, baña Sabin iñoiz ez zan bildurtu. ¡Irakatsi ederra abertzalientzako irakasliak emona!

Berak esaten ebazan egijak min emoten eutsen arerijuari eta onek inun diranak, berari egitea, gura ixan eben, baña gure Irakasliak aurrez-aurre danok artzen zituban. Erakutsi eutson baita bere lagu-nari be beren asmuak eta onek ez eutsen ondo eretxi. “Barri onak Euzkadi'ko mendijetan ots egin ba dau, Jaungoikua gaitik bakarrik ixanda”.

Bai, ondo barruban eukan Arana-Goiri'k bere asmua, eta bijo-tzian dagon gauzea iñok ezin kendu leike-ta “Jaungoikua eta Legi-Zarra” nire bijotzian irarri ziran beti-betiko— esan eban.

Bere arerijo zitalak ez egozan geldirik. Cuba'ko gudea amatu zanian Sabin'ek urrutidazki bat ugarte aretara zuzendu eban eta bes-te ezer barik espetxian sartun eben. Bertan gaxotu zan; bere azke-nengo egunak Sukarrieta'n igazi ebazan. Jaungoikuak, beraganatu eban Euzkadi'ko gaizkatzalia, ogeta amasortzi urtendun zala.

Euzkadi gustia samindu eban bere erijotziak, baña emen itxi euzan irakatsijak eta, berak erein eban asiya biztu eban... laster asi zah erneten; betiko Euzkadi.

Abertzaliak: jarraitu daigun Sabin'ek irakatsi euskun biderik zin-tzo-zintzo; bera artu daigun eredutzat, eta lan egin daigun gogoz bape gogatu barik; ¡Jel alde beti! ¡Ekin, bildurtu barik Euzkadi osa-sunez beterik agertu daiten egun zoriotsu baten...

Irakurle: azilan 25'karrenian da beren ogetasapi garren il-urteu-
rrena, ta euzkotar gustijok zuzendu biar doguz geure bijotzak Jaun-
goikua'gana, Sabin geure irakasle zanaren gogo aldez otoi egiñik, eta
eskatu Aberrijentzako biar dan laguntza.

Goyan bego.

EDO
Lekeitio'n 1930 go.

ABERTZALETASUNATZAZ*

Saspi urte inguruban ganian euki dogun odei moltzuba nozonoz euritu da eta eguztija asi da bere argitasuna zabaltzen.

Errekaldeko senidiaren aldijan, norberak eukozaan asmurik geyenak, eukozeanak, ixil-ixilik gordeta euki biar, bestela..., ondo dakigu zer eguan.

Ori gaitik, euzkotar gaste asko sasoara eldurikuak ezin ixan dabe euren Aberrijatzaz ezertxu be jakin, iñok ezin ezer esan ixan dau-ta. Euzkadiko erri askotan asi dira gastiak bizkortuten, eta alegindu biar diraz, beste orrenbeste egiten oindiño erdi lotan dagozan beste asko be.

Gauza orretzaz inork ezer ezin esan ixan dotsen arren gaste askok euki dabe euren bijtzetan Aberrijentzako maitetasuna, berezko maitetasuna. Orixe da benetakua ixan be adimena dituen. Bakarrik ekiten euzkotarrak zirala, eta ortik Euzkadi zala euren Aberrija, eta ez bestiak; eta auxe da abertzaletasunaren azijera, ta sustraya. ¿Zer dago, ba, gausa samur eta atsegiñagorik semiak bere ama ezagutu ta maitatutia baño?

* * *

Seme barriak agertu jakoz orain Euzkadi'ri, eta eurok ez ei dabe biar uzkurtzarik. "Urtzi Jaungoikua" esan dabe, eta Lagi-Zarra'gaz bakarrik gelditututen ei dira. Urtzi'ri bakian itxita, ezin dot neuk asmau, zelan Lagi-Zarra aldeztu legiken, Urtzi dalako danen azijeria. Eztot uste ba, Urtzi barik, atzera Aberrija, biztuko dabenik.

Beraz ez egin ba, orreri bape jaramonik, abertzale gastiok, Jaungoikua, gura ezpa dabe, Sabin be eztabe gura ixango-ta. Ixar barri bat, agertu da emen bana gixaxua, amatauta.

Ipuin barriekaz datoz iñogaz ezin egon diranak, eta guk, Sabin'an jarraitzaliak, ez doguz gura ipuin orrek; guk Jel nai dogu, besterik ez. Eurak be, abertzaliak ei dira, gu barriz, abertzale jeltzaliak; orixe bakarrik da daukogun aldia baño alde aundija, nire uestez.

Amaitzeko, "Zidorra'ren" olerki zatitxu bat gauza onetzaz:

"Zeruko atian laguntza barik

Lagi-zarreko oiturak,

¡Eztoguz gura, eztoguz biar!

¡Eztira geutzat egiñak!"

EDO.

* *Bizkaitarra*, XII. abendua, 1930.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

AUTESKUNDIAK

Udal auteskundiak barrero daukaguz emen. Jorrala'ren 12'an egin ziran baño auteskunde obarik eztakit noiz egin diran. Ezabatze ogi eztau erriajak ondo artu. Ikusiko zenduban irakurle gure erritarrak Bizkai'ko jauulariari itxi eutsen idazkija. Laterrija oindiño erdi bada-
ezpadan dagubalako, ¡tira! ezta geyagorik ixan.

JAZOKUNAK

Lengo egunetako jazoera iguingarriak dirala bide, zer esana zegaitijagaz-eta, sendo ibili da. Baña, emengo besteko "koitadurik" ikusteko be. ¿Eztogu entzun ba, bizkaitarrak daukiela erretura orren erruba? Ene Txori-Erreka, ikusixu norañoko erruba daukazun. Asto ganian, zenbat oindiño...

TXISTULARI BARRIJA

Markiña'ko lenengo txistularija geure errira dakargu. Emen bere lenengo txistulari eta eresbatza'ko buru-ordia ixango da. Asko poztuten gara onelako izparrakin.

OSATEBAKUNTZA

Bilbao'n aurkitzen da osatebakuntza egitera jua da Agirre'tar Bedita. Ainbat ariñen osatu daitela Goiko Jaumak nai ba'dau.

Baita Zugadi'tar Anbortsi'ren emazia be. Etorri arin gure artera osatuta.

ELEBITZAZ

Arazo onetzaz ekin biar deutsagu. Catalunyaari eskubide ori emon dauksen arren tamalez eztabe Euzkadi'ra oindiño zabaldu. Zirikatuten ekin biarrean gagoz lortu arte. ¿Euzkerek eztauko bixitzeko artezkunik ala? Bai bestien beste ta Euzkadi'n baña bestek baño geyago.

EDO

* *Euzkadi*, 1931-V-24.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

ARRANTZALIAK

Atunetan joaten asi diraz. Egumokaz atun apurrak ikusi dogu. Orain deun Kepa aurregunera arte ezkara kontixu etxera etorriko, esan dausku adiskide batek. Tira ba, arrain asko artu ta ondo ibili.

LUCIN LANAK

Baztarrak legortuta dagoz eta luginak eurijari itxaroten dagoz. Eurija ze aldintsuba orain ixan leiteken iñork eztaki. Errukituko da Goikoa...

OPOR-ALDIJA

Ainbet ikastun gazte geure artian dagoz euren sendijakin udako opor-aldija igarotera etorrita. Udazale gitxi etorri dira oraindik beintzat.

DONIBANE

Laster dogu Jon deuna'ren eguna be. Amaika bidar ixan yaku egun au atsegin egiten gebazan jayak gaitik. Zortzi urtian baña geure ikurrin maitiaren margorik be ikusi barik egon gara; aurten J. L. ikusiko al-doguz. Eta aureskua ta abar zetan aitatu bez.

LIZARRA'KUA

Pozez beterik jarri gaituz igandeko batzarrak. Euzko Araudija ba'daukogu; oraingorako gure naya'ren antzikurra dogu.

Adiskide batek lengo egunian itaundu eustan:

—Ta eingo ete dabe ezer abertzaliak?

—Zer diñostazu, crantzun neutson ¿zer egingo daben? ¿Nungua zara zeu ba orrelan esateko? Ezer egingo daben eztozu esan be egin biar; iñork egin, ez ¡danok egin baño! ¿Bestek ein eta danok jan? Ezkagoz barrixeta ordubetan; gixonak lez jokatu biar dogu. Beraz, edo ointxe edo bapez, gauza barririk eztogu eskatzen. Estalkirik be ezta biar: edo Euzkadin aldez osorik edo aurka: beste bidetik ezta. Euzkadi'n bertokuak, Españan españarrak orixe baño eztogu eskatzen euzkotarrak!

EDO

* *Euzkadi*, 1931-VI-26.

ERRIJETATIK—LEKEITIO'TIK*

LEKEITIARRAK, !EUP!

Euzko abertzaliak ba'dautse polito-polito or eta emen, batzokijak zabalduten. Geuk bere ba'daukagu euzko-abiyatxuba, ama baten semiak garianak bertan batu gaitezana! ¡ze poz aundija artuko dogun leku baten batzen dirazanak, danak euzkotarrak ixatiagaz eta toki atsegintsu orretan euzkera bakarrik entzun eta bertako gauza guztijak euzko-usaindunak ixanik! ¡Zelan poztu ez?

Batasunak indarra dakar, diño esaera zarrak; baña oñarriztat indarra baño eztaukanak —zijo, barik, artezkua barik— ezin legike aldi luzian iraun. Orixe jazo yakon egun illun baten, illuna benetan guretzat, gure batzokiko atiak itxirazo euskunari. Arrotasunez esaten eban batzokijak betiko itxi euzala, etzirela edegiko egundo... ta gu, galdubak gintzazan.

Ordurarte bat eginda gengoanank bijotzan arantza zorrotz bat geyago gendubala batzuk batera ta bestiak bestera, ardi galdubak lez banatu gintzazan; buruban baña, auxe eukagun: gixon ori be, ezta betiko...

Ainbeste urte igazi diraz ori jazo zanetik. Aldi luze orretan itun-itun, anayak alkar ikusi barik egon gara; beti gomutan eukiko dogun Sabin'ak euzko bijotzetan pizturiko suba anatauba zala esan legike, eta Euzkadi betiko galduko ete zan...

* * *

Baña... ¡kendu, alde urrun gogapen txarrak! Eldu da, etorri da gure garaya: egijak beti neketxubago bada be, argi dagi. Gure Aberrijak ba'dituz oraindik semiak, euzko gogua ezta oindiño amaitu euzko bijotz askotan aberri-maitasun suba garretan dago ta Euzkadi, bere etsayak nai arren, ezta ilgo bere betiko Jaunak zainduten dau-ta.

Itxartu zaiz, euzkotarrak! Amak deituten deusku eta dei ori entzunaz, guk seme onak lez laguntza ezin ukatu. "Lekeitio'ko Euzko-Batzokija" da gaur deitza dagubana ta lekeitiar ona danak erantzun biar dau bere izena emonagaz bertako bazkide ixateko. Danok etorri

* *Euzkadi*, 1931-VII-4.

zaitetze bertara ta anayak lez, ba'gara-ta, artuko zaitubez; zuben aizkide ta lagun guztijak be ekarri arte ez gelditu ba danok, nausi naiz txiki, txiro naiz aberatz zar eta gazte ¡guztiyok! batu biar gara: daki-jenak egijak zabalduteko laguntzeagaz askozaz obeto egingo dau-ta eta eztakijanak Euzkadi'ri yagokozan gauza guztijak ikasteko; danak Aberri-gudari ixan gagixan.

Dictadura-zale eta euzkotar-arrotzak ixan diranak geure Ama'ri eta eurenari kalte geyen egin dautsoenak eztauke orain indarrrik, baña ez uste orrek jausi dirala eta Aberrija arerijo barik dagubanik, ez. Orain agindari dagozanak beste jantzikera bat daukoe ganetik, baña barruba, lenguak baxen ustela; orrei ez ziñistu guzurra baño eztarabille-ta. Orreik eztabe nai eurentzako baño beste onik, orreik "Estu" ta lagunok argi esan dabe eztabela nai euzkotarren azkatasu-nik.

Biartubak gagoz ba euzko danok batuteko geure aberri alde; gure aldija eldu da, ta oin astirik galdu barik egi-aldez, Jel alde zintzo jokatu biar dogu. ¡Ezin jasan geinke geyago iñoren bustarririk!

¡Eup anayak! Danok ¡danok! geure Euzko-Batzokira bildurra ¿zegaitik bildurra? alde batera itxita; guztijok geure ikiurriñ pian batuta ba, lortuko dogu geure aberriñaren azkatasuna ta zorijontasuna...

¡Gora Euzkadi!

EDO

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

IGAZIRIKO JAYAK

Larumbatez asi gintzazan jayetan. Gabeko bederatzijetatik ez eguban tokirik Euzko Batzokijan. Jai anaikorra ixan zan, abestija ortik, zantzua emetik. Batian danak abestutene geure abesti samur ederrak, bestian atsegiñez entzuten Joseba mutiltxubaren abots zoli-biguna edo Jon arrantzale lerdnaren abesti gartsubak. Abesti guztijak ixentautera ez nua, ba asko ziran-ta; baña bai orraitino axe ain atsegin ixan yakena lenengoz entzun ebenai.

Lekeitio'ko
San Pedro'peko...

Artu ene Errupa, neure zorijon-agurra ta ekin olako abesti politak asmetan. Amaiak inguruban etxeratu ziran geyenak.

BIJARAMONIAN

Goxeko zazpi ta erdijetan Konpañian jaupa ta jaunarkundia; txadonea beteta egon zan gixon ta emakumez.

Zeu zara Josu, gutzat
itxaropena
Zeugaz lortuko dogu
Goiko zoruna.

Orrelantxe ixaten dozu euzkoak jayen asijerea, txistu soñubak itxartu ta clexara.

Amarrak aurrian kanpotarrak asi ziran etorten eta arratsaldeko laurak arte jetorten beti! Amarretan ixan zan erxadonan jaupa nagosija abesturik Goikoetxea ospatsubaren iru abotsekua eta "Ave Maria". Txaunburubak itzaldi laburrean gomuterazo euskun asaben siñismena; eta azkenian "Iñaki" abestu zan. Batzokia lorak apainduta eguan jeriñotzez apaindu! —esan euskun lagun batek. Tira ba, olan onetsi ta txeigoratuba ixan zan Euzko ereserkija abestuaz. Onen ostian Batzokitik zeya a'erespatza aurretik eta dantzarijak ta ostetza

* *Euzkadi*, 1931-VII-10.

aundija atzetik. Emeko ezpatadantzari txiki ta gorularijak ederto egin ebezen geure dantza zarrak. Bilbo'tar eta zornotzar ezpatadantzarijak ondoren, ederto oneik be. Gero Batzokiko baratzan oturuntza jalako agiñotsik eta amorerik! Akeita artukeran txistu soñubak, abestijak eta bertsuak entzunak ixan ziran; an eguazan muxikar txorijak ba... ta Astelarra eurokin. Batzokiko txeiguan amar ikurrin kanpotar zenbatu gendubazan; batzokijan jantxe bai sartu-urtena sendo! Kaliak betian notiñak, eztot uste iñoiz emen egon danik orrenbeste lagunik.

Lauretan itzaldijak pelotatokijan. Bertaratu gintzazan euri saramia zan arren. —Eztago curirik, Otoyó argi dago-ta— esan euskun lagun batek. Tira ba, olan balitz ta; baita ixan be! Txistuba aurretik zala, danak itzaldijak entzutera. Orue jaunak egin eban itzaurria eta eletarijen aurkespena. Enbeitar'tar Kepa'k eta Uriarte'k bertsotan egin eben eurak bakarrik dakijen lez. Alzeta, Montzon eta Lauaxeta ziran eletarijak. Ederto be ederto egin ebezen itzaldijak. Ez nua esan euskubezanak idaztera, ba euren azalpen ederrak nastau baño enuekez egingo-ta. Lengo oleskarijak barriro atsegindu eben ostetaldia. Izlari guztijak ixan ziran asko txalotubak. Eta amaitu zan "Euzko Abendaren Ereserkija" abestuagaz danok zutumik, burutsik eta bijotza pozez geunkala.

Jarrayan neskatiñen aureskua zeyan eta Batzoki'ko ezpatadantzarijak barriro dantzatu ziran. Eta goxian da arratsaldian dantzarijak euki eben atabal-jotzallia ta bai mutil erraldia! Lau urte edo eidaukoz. Gero euzko erromerija bertoko erespatza eta txistularijakin gabeko amarretaraño. Eta azkenez Euzko Batzokijan larumbata gabian lez jai atsegintsu ta pozkorra.

Orra ba labur eta arin esanda gure Batzokijaren berredegiakundia ospatuteko ixan dirian jayak; jai ederrak sekule bada.

Artu begijez gure artera etorri ziran guztijak geure eskarrak sutsubenak eurak gaitik ba, ospatu dogu aundikiro jaya; ta izlarijak, Batzokiko Artezkaribatza'k ta Sesma'tar Joseba'k artu begije gure zori-jon-agurra ain ederto eratu dituelako gauza guztijak. Olantxe jokatu biar dabe jeltzaliak.

Eta zubek, etxeukuok, iñoren goralpen barik be pozik zezta?

EDO

ERIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

EUZKO LANGILLIAK

Egubaztero gabez itzaldijak ixan ziran Gora-Buru antzokijan Euzko-Langille Bazkuna erri onetan eraturteko. Robles Arangiz eta beste bat mintzatu ziran erderaz eta irugarrena, euzkeraz. Ia ba, euzko langilliak, gogoz ekin zeubek baño beste sosolistorik ezta emen biar-eta.

ERIJOTZA

Solano'tar Karla, abertzale zintzuari aitaginaren il yako. Artu begi geure tamal-agurra.

Gaxorik luzaro egon ostian, oraintsu il da Atxurra'tar Jon, sabin-dar abertzalia. Otoi bana euron goguen aldez, irakurle (goyan bego).

GAXORIK

Elexakuak artuta dago jeltzale gogotsuba dan Bermiosolo'tar Bonabendur mutil gaztia. Goikuak nai dauna ixan bedi.

JAIK-JAI

Ispasterreko jayak amaitu ziran eta orain Mendexa'kuak doguz ganian. Bat baño geyago egongo da estitan orrelan ibilteko jairik-jai... edo ardaurik-ardau.

MENDIGOXALIAK

Emen bere asi dira piskortuten. Zarren artian gazte aldratxuba ba'dogu. Sukarrieta, Bermeo eta Mendaro'ra ixan ditue lenengo ibiltaldijak. Propaganda edo orrelakuen biar ixana dagola uste dogu, ba askok didar eta abestijen barri baño eztakije.

UDALA'RI

Bidai-etxecko aurrian jausita dagon arrija, ¿noiz ipinteko ete da bere lekuban?

EDO

* *Euzkadi*, 1931-VIII-2.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

AMA NESKUTZA-JASOKUNDIA

Egun ori igarotera beti lez arrantzaliak etxera etorri ziran. Aurre-egunian gabeko zortziretan Ertxadonan lau abotseko "Salve Regina" Urteaga'rena abestu zan, ederto atan be. Larunbatean goxeko amarretan Jaupa nagosija abesturik M. Rodríguez'en iru abotsetakua ta Goikoetxea'ren Ave Maria. Ordubatetan geure Eresbatza txaide ziar juañ zan ereskin barrijen eta euren jantzi dotorien askundia ospatuteko. Gabeko amarretan Cora-Buru antzokijan Erandio'ko "Alayak" "Manu Soro" ta "Custión del calabaza" polito antzestu zituen. Antzokija bete-beterik eguan eta batzun-batzuk jamaika barre egin eben!... Igandian be antzerki jai bi egin zituen bata arratsaldian eta bestia gabean.

Orrek baño obeto egiten juck bertokuak laster entzun genduban. Ia ba, bertokuak zelan asten diran ikasten. Asko poztuko giñakez emekuak egiten ikustiaz.

ERROKA DEUNA

Amarretako jaupa nagosi ostian ixan zan deun orren irudijagaz ibildeuna.

EZPATADANTZARIJAK

Igandian Santurtze'ra juañ zan ziran Batzoki'ko ezpatadantzari txiki-jak. Onexek bai aldi laburrean entzute aundidun egin dirala.

ARRANTZALIAK

Emen ixan dira jayetán. Partilla kontuan beti lez batzuk geyago bestiak osterá gitxi-jago ixan dabe. Euren gogaro ona oi-da-lez ikusi-já ixan dá egun orreitan... eta aurrera mutillak.

DEUN ANDOLIN JAYAK

Lekeitiarrak euren errirantza etorteko egunak, egun gitxi barri doguz; San Antoliñak. Iragakijak irarriten ei dagoz eta euzkeraz ta

* *Euzkadi*, 1931-VIII-20.

erderazkuak, ixango ei dira. Orixe da, ba bide bakarra geure elia berpiztuteko: euzkeraz mintzatu, euskeraz idatzi... eta euskeraz iragarri. Udala'ri geure zorijon-agurra pozez damotsagu.

¡ERDEL ERRIJAN?

Emen dagozan udazaliak dirala ta eztirala, erdera ta erdera baño eztogu entzuten... ¡Zorijoneko udazale erdeldunak eta baita udazale eztiran erdeldunok!

EDO

EA'N IGANDIAN*

Igaziriko igandian Ea'ko abertzalien deiyari erantzutiarren Ea'ra-tu giñan. Bazkal ostian belbillan sartu eta ¡Ea'ra! An ebiltzazan genikar, elantxobetar, ibarrangelutar, akordar, kortezubitar, izpaztertar eta lekeitiar abertzaliak, bai gixonezkuak eta bai emakumiak. Eta elduta beriala juan giñan itxeikixunak ixango ziran tokirantza, pelotatokira.

Apain-apain eguan izlarijen lekuba; arriskuban egueldi ona ixan ba'zan ¿zelan egongo? Gure ikurriñaren marguak ikusten ziran eta erdijan gurutza zuriya eukirik ari gorrijagaz egiñiko idazkun au: Jaungoikua eta Lagi-zarra. Ta goyenian eta barrenian adar eta orri orlegi artian arkatz gorrijak eta zurijak.

Iru ta erdijetan Lekeitio'ko ezpatadantzari eta gorulari txikijak dantzatu zituzten aintziñako —eta oraingo— gure dantza ederrak. Lauretan eldu ziran eletarijak eta asi zan itxeikizuna. Aurkespena Agirre'tar Tiburtzi errikosemiak egin eban. Urrengo Ogoñope idazle azkarrak itz egin eban eta esan euskun dictaduria gogorra ixan zala baña jausi zala ta urrengo monarkija: euzkotarrak ostera jagi garela geyago ez jausteko. Bernedo jaunak adirazo euskun euzko abendeak daukozan eskubideak bere buru jabe ixateko. Jarrayan Amezola gaztiak esan ebazan erderaz, euzko edestiko barri batzuk eta gure erri-jaren ezaugarri berezijak eta onen ostian Bite'rik adiraldu euskun, gauza txikijetatik asita, zelako garrantziduna dan Aberrijaren askatasuna. España'ko erkijak zer eskatuten daben eta zer eskatuten daben'ek: eta gero esango dabe Madrid jazpikuz ganera esatiarren! Madrid barik ezingo giñatekela bixi. Ederto egointzan, Bingen. Txalorik naikua entzun zan. Eta azkenez, eguazan guztijak, zutunik eta burutsik Euzko Abendearen ereserkija abestu eben, goraturik Jel, Sabin, Euzkadi eta Ea. Dantzaketa abayagaz egun orreri amaya emon yakon.

Egueldija illuna eta euri garoskua ixan zan lez ostetza aundirik esan ixan baña bai poztuteko beste lagun batu ziran. Urrengo baten egueldi obiagaz ba, lagun geyago etorriko da.

* *Euzkadi*, 1931-X-15.

Ikurriñak bere ikusi gendubazan: Ea'kua. Gernikar mendigoxaliena eta beste bat: ta baita txeiuetan be oyal politak... neskaitllen buru eta paparretan be iru margodun oyaltxu atsegingarriyak.

Zorijonak izlarija, Ea Buru batzarrari eta emakume abertzaliai ain ederto eratu ebelako igande jaya... eta urrengorarte ¡Gora Ea!...

E.

ERIJETATIK—LEKEITIO*TIK*

ZIRRI-BORRO.— Esaera zar batek diño: “Gaur egin zeintikena, ez bijarko itxi”. Gixakijok oster a oso-osuan esacra ori aldatzen dogu: “Gaur egin neintike, baña bijar egingo dot”. Nagikerija geyenetan nagosi. Nagijak asten diranian, andi egiten diranian mokerkeritsubak ixaten dira, eta bein orretara ezker o urrengo mallia ¡alper mallia ixan biar! Gorputzagaz ori yazoten ba’da, tira, ezta txarrena —txarra edo-zetara be bai,e?—baña goguari gexo galgarri ori eldutian ¡guztija damai! Ori ezbiarra, laster esango geunke: geu bere olakuak garanik eztakigu barriz, edo obeto esateko, eztogu entzun gura, ta... ¡gorrik txarrena orixe ei da...!

Eta orain argitu daigun esan nai geunkena. Gure izkuntzea gexo-gexorik egona da; oraintxe bizkortuten asi da, jagiten be asi yaku ba-ta. Salamanca aldetik bixi dan gixaxo bat estu edo ei-dabil orixe dala ta beste barik; bere zeregiñik gurena aspaldi onetan orixe dau ¡beti esanalak esaten euzkereak il biar dauala-ta! Ia ba, ludiko gauzak orrelan dirala-ta... Beñola, notin zartxu bat gexorik eguan. Ezeban jan gura, ez edan, ez ezer bere. Osagilliak, zer gaxu modu eukan laster igarri eban eta senidien itaunari erantzunez, esan eban: Txotxatu ein yako. Ta gexuak iñuanai, jaramonik ez egiteko. Guk bere bilbotartxu orren itzai beste orrenbeste egingo dautsoegu, ezta? ze, gexo hardiñagaz ete dagon bildur gara-ta.

Aspaldiko egunotan zokondo guztijetatik, euzkel idazliak parra-parra agertu dira, izpar au poztutekua dala ixan be-ta, pozez gagoz; yarraitu begije lan orretan. Baña emetik ezta oindiñokarren barririk agertu, ta gañera, zarrak —“Lauaxeta” aizkidia, zartu barik zarra ezin ixango, e?—lenguak, toton egin dabela dirudi. Zoritxar bi batera; arraintzaliak onelanguetan “koble” esan darue. Ez ete gara bizkortuko ta jagiko?

Bai, nik neuk baietz uste dot. Soña nagizalia ba’da be, goguak oraindik zinduak doguz. Idatzi ba, erritarrok, euzkeraz. Lendik idazle diranak garbitu ta zorroztu begijez ugartuta daukezan idazkortzak, eta barrijak; ¡gaztiok, Euzkadi’ren itxaropena! asi zaiteze gaurtik

* *Euzkadi*, 1931-XI-1.

lanan: izparringi onen Euzkel-atala zuben idazkijai itxaroten dago. Errez be errez egin geintikena da; batian batak, bestian beste batek, urrenguan urlijak, eta abar. Erantzun ba, Aberrijaren deyari.

Nagikerijan daguana, luak errez artzen dau, eta bitartian, lo egiteko, ona emen abestitxu baten asijera:

“Gorago, herago
Lekeitio’ko idazletxubak
lo ta lo, gozaro...

EUZKO BATZOKIJAN.— Idazle batek lengo egunian iñuana emen be yazoten dalata gagoz. Bein baño sarrijago ikusi ditut gabetan, mutil gaztiak, abertzaliak dirala-ta ekiñaletan jokuan, beste zeregiñik ezpa’lego lez. Eztakit non errua dan; dana dala, orrek azkena biar leuke. Laster asiko dira lanian, euzkerea ikasten, abestijak eta abar, eta ordubantxe-edo lagako dautse orain-arteko zeregiñari. Tira ba, asi arin, orduba onczkero ixango da-ta...

Itzaldijak ixango dira gaur, gabeko 8’tan “Cora-Buru” antzokijan. Abertzaliak ba, ba’dakije nora juañ biar daben: igutzijok Montzon eta “Alzeta”-ri entzutera! Eta abertzaliak eztiranak be bai, etorri daitezala.

EDO

¡EZ ASARRERIK, ANAYAK!*

Aberrijari begira gagoz... Ete dau lengo antzik? Euzko gogua eztago illik? Gure asaban maitasun nagusi, bijak, Urtzi eta aberrija bixirik ete diraube oraingo euzkoen bijotzetan? Ala gure errija lixun-keriz ete dago? Len zanik, zer ete dago zutumik?... Itau onexek egin ditut eta crantzunik eztot ixan. "Ixillik daguanak bayetz diño". Egija esaereak diñuana? Ez eta ez; eztaki zer erantzun eta ixillari dago.

Euzkadi'ren bixitza geruago ta illagua ixana da. Euzko errija ba' dua, iñuan parantzetar batek. Egija ori? Bai, egija. Baña sortu yakon semerik gurena, aberri-maitalia. Eta bere Aberri onen aldez jokatu eban iñork baño zintzuago. Berak bide zuzena uste ixan eban bidia bere errijari irakatsi cutson, Bide arteza, osua, biar eban bidia, eta orretarako bere ixate gustija emon eban. Gastia zala adizkide barik, ogasun barik, osasunge il zan: bere buru argiko gogayai eta bere bijotz egi-maitaliaren maitasun garden kementsubari zintzua ixatiarren gustija galduta. Eta besterik ezian bere emaztiaren negarrak opaltzen dautsoz bere aberrijari.

"Ama aberrija
artu gogo onez
malko ederrok..."

Egiñen bitartez aberrija azkatu eta gaizkatuteko bidia irakatsi cuskun, eta orregaitik guk Irakaslia deituten dautsogu. Sabin eban ixena... Goyan bego.

Berak emoniko ikurritza da gure osasuna, bixi-iturrija: "Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra". Urtzi, betiko gure Jauna eta Euzkadi, ludi onetako bixitza aldiko gure Aberrija. Ortik yatorku osasuna, ortik betiko Bixitza.

Zegaitik bide orretatik eztoqu gustijok jarraituten?...

Anayak! giriña txarrak zapalduta oldoztu daigun: argitu burubak eta garbitu bijotzak!

Betor maitasuna euzkoen artera; anaitasuna, batasuna, betor ainbat lasterran. Eta goyazan euzkotarrak aurrerantz... Aurrerantz Jel bidetik!

EDO

* *Euzkadi*, 1931-XI-26.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

ITXEIKIXUNA

Estepan Deuna eguziaz ixan genduan Gora-Buru antzokijan, gonburuaño beterik eguala. Euzko aldun jator Leizaola jaunaren gain eguan. Aurkezpena Akarregi zintzuak euzkeraz egin eban. Izlarriak erderaz, laterrikeri "socialismo"-tzaz itz egiñaz asijera emon eutson bere arimari. Zozolistuen dotriña ankar-gora jaurti eban; jayotzatik be errena zala esanaz, Bermeo'n jazoten dana ezta bakana iñuan Pasaya'n, Andoain'en eta abar jazoten dan berbera baño. Etxetik atazkuak etxeko bertakuen aurka nor nagusi ixan; kanpotarrak ba euren bixibidia lortutuari gitxi eretxia euren ezta etxian be euren lotsabagekeri gorrijagaz nagusi ta jauntxu jurek! nai dabe jarri-ta. Agintari barriz zozolistuok doguz gaur España laterrijan eta len txarto eguana ondo ixango zala —euren abuan-edo— esaten ebenak, txarto eguana iñoiz baño txartuago jarri dabe. Ainbat laterritan onda-mendi lanak baño ezta ez egin orreik, eta bardin egingo be. Alemania, Ingalterra eta Australia, beste askoren artian orreik agintza aldijan lurra jota gelditu diranak.

Gero Lagi-Zarra'tzaz jardun eban. Orain, emakumiak gixonak baxen gogotxu ekin biarko dabe aberri lanetan. Gixaldi onetako 31 urtitan, abenda buztartubak buru yaube egiten ikusi doguz; euren eskubidiak galtzen bat bere ez ostera. Ezta zorakerija ezta bildurgarrija, ezta gurari lortu eziña gure Aberrija azkatu nai ixtia. Burrukarik eta gudarik eztozu nai. Suecia eta Noruega, Dinamarca eta Islandia altan onda-mendi lanak baño ezta ez egin dogu geure arazo au, geure auzi garrantzidunau erabagi. Abendeak azkatutia gaurkotasunian bixitia da: Europa'ko geure aldiko edestijan bertan dakusgu, eta Euzkadi be orreik antzera laster azke ixango da.

Azkenengo itzok geure belarrietara eltzeko asti barik an entzun zan txalotzea, ezan gero edozelakua. ¡Ederto, jauna, ederto! Olantxe egin daigun guztijok arrantza gitxi, baño lan gogotik.

Euzko Ereserkija abestuaz amaitu zan jai ain pozkorra.

Gure zori-jon-agurra eta eskar ona Leizaola jaunari, Lekeitio Buru-Batzarrari eta entzuten etorri ziran gustijai, eta aurrera Jel aldez.

* *Euzkadi*, 1931-XII-31.

IRU-ERREGE

Egun orretarako umientzat jai polita eratuko da. Emakume Abertzale-Batza'kuak egun orretan bananduko dabez jantziajk euzko-langillien eta biartsuben seme-alabentzako.

EUZKO BATZOKIAN

Igaziriko igandia autetsi eben Artekari Batza era onetara:

Lendakari, Moral Agirre'tar Bonabendur.

Lendakari-orde, Orue'tar Ixaka.

Idazkari, Arrinda'tar Todor.

Diruzain, Alkorta'tar Martiñen.

Artezkari-tza-lagun, Bollar'tar Adi, Kortazar'tar Kauldi eta Goitia'tar Koldobika.

Aberri-aldez ia zenbat lan egiten dozuben!

E.

IZKI-MIZKI*

Udaberrien asierea izaten da pozkorrena; neguaren asierea oster, enparauko negue baño itunegoa. Orrelan ba urtaro onen asieran dakigu esaten: aldi baterako negu illun otza emen dogu. Eta bein neguko eguraldiaz oitu ondoren, urren udabarria dalata, itun laño orreik geroago ta ezerezago deuseztu lez egiten dira, hurrun ikuskatxak gure ikusmenak nabai ezinda eztiralakotzat emoten dituan beze-la, eurekaz berealaxe aztuteko.

Cagozan garayan, ba, alayo yaku igaziriko negu atala baño. Erdia izaten ei da gaxena, lenen erdia, beraz, urtarrillan ogetabigarrenari jaokan esaeroa egizkotzat artuki, txarrenak yoanen dira.

“Deun Bingen otza
neguaren biotza”

Baña onetzaz bere gustiok ezkagoz aburu baten. Batzuk diñoegabon ostean izanen dala neguak bere arpegi larria erakusten dakiana, besteak barriz, bein eguna luzatzen asi ezkerro bildurra, negu-bildurra, yoan legikela esan daroenak. Gexo luzeak —bularrekoak batez be— otzalla eta epalla autuak-edo dituez notin gexuakaz osoro jaubetuteko. Nire yayoterrian beintzat yualeak il-otsetan illa bi orreitan geyen iarduten dautse.

Aurten len izan dirala otzak eta, gero eztirala izango-edo entzunik gagoz. Dana dala, neguak be, beste gauza oron legetxe, bere antza bear dau.

* * *

Egunean-egunean geure antza gauza orotan erakutsi bear geunkela, ondo dakiguna baita. Gexotu errez ta arin egiten da, sendatu nekez eta gaitz. Geyen-geyenetan, sendagillearen esanekoa dana arinago osatuten da, bizkorkiago uxatuko dau beragandik eri zital kaltegarria. Yakin arren baño betetan ez'pada, zertarako osagillea, bere lanak, osakayak?

Zeure czaugarriakaz izan, zeure izkuntzeaz mintzatu, zeure oiturakaz apaindu, zeure ziñismenaz laztandu, zeure izateagaz agertu: zeure jatorrizko azkatasunagaz ber-jaubetuta noiz izango zara, Euz-

* *Euzkadi*, 1932-II-6.

kadi, ene aberria...? Arana-Goiri'k esan ebana betetea; zeure bizitza biziko dozumean.

Bitartean, jausiriko orma zarrak herriragi, zimeltzen asiriko zugatzak atonduaz zaindu, adar igerrak ebagi, ernetan diran landaratoak jagongo doguz. Zarrari bizitza barria ekarriko dautsagu; Lizardi olerkariak diñon lez egingo dogu "baratz zaarra baratz berri".

Egungo-egunean ba, ein dogu geure bizitza —euzko bizitza— osoan izan, osoro bizi. Origaitik eretia dogunctan ezkara lo egoten. Deun Agate eguna emen dogu. Oi dan lez, ziñopa orren abeslariak etxeriketxe ibilliko dira, Egunkari maite onetan lengo egunean agiri ziran onetzazko abeskiak, txiruetan be txiruak ziralata nago. Enborra ta adarrak barriak izango ba' dira bere susterraya lengoa izan bear leukela dustot. Agate deunaren abeslariak lenen —izena daroen lez— ziñopa orren bizitza abestu bear dabe. Lein abeski geyena orrelantxe zan, eskakizunak eziran aztuten baña. Orain euzko pizkundean gagozan ezkeru, pizkunde orren ditzirak ikututen dautse egun orretarako abeskiak be. Beraz, Agate deunaren abeskian, atalik garrantzidunak bere bizitzako izparrak izango dira eta osagarritzat gauza ongarrietarako eskakizunak, aberri-maitasun itzak eta azkenez, eskar emotea eta zori on opalbena.

Uarra.— Idazle argi onen lanak, abintza andikuak dira, gastetxu bat da oindikarren eta. Irakurliak esango dau geruago.—L.

ENDAITZ.

ERRIJETATIK—LEKEITIO'TIK*

ARRANTZALIAK.— Egunotan papardua polito dakarre. Arrañau aldi baten ezan agertu be eiten, eta orain berau ugarijena. Besigua ostera beste leku batzutarantz yuan yaku edo, kayan bixi ta urtian host edo sei bisigu oskil baño eztoguz jaten ba.

GARIXUMA.— Edo Berrogeikarua. Aldi onetan gagozana ondo dakixue guztijok, nik eztot uste ba laico (lau iko ala lau katu?) edo dalakorik lerro oncik irakurten daguanik. Emen bai, oi zan lez, errez igarten da garixuman gagozana, bestela esan dayela gaztiak. Igarte ori jayagunetan ixaten da batez be, eta eguerditik aurrera. Geyenak ba arratsaldeko eleizkixunetara, Agurtza, txonitza ta Gurutz-bidia, guztijak euzkeraz-ixaten dira. Gero soñurik eztagon lez, eguraztutera ta onen ostian, ori ¡bakotxak berak daki!... Gaztiok orain atse-
dunduten egongo zarie laster neurtitz zar onek diñuana egiteko:

“Erremu'ren urrengo
astia da Pasko,
gaztiak onezkero
pandangorik asko.”

ERIJOTZA.— Igaziriko astelenian il zan Erkiaga'tar Jon, abertzale ona. Artu begije bere emazte ta sendiak geure tamal-agurra. Otoi bat, irakurle. (C.B.)

GEXORIK.— Naiko txarto egon da orain oberantz dua baña. Zumaran'dar úeperin mutil gaztia. Arin osatu zadixala nire gurarija. “Lauaxeta”, zeure aldrakua dozu tostartekuan.

NASKALDIYA.— “Viajiak” ataraten yuan da, ontzi-burukide lagun gure adizkide Goikoetxea'tar Koldobika aberzale gastia. Ia arin-arin egiten dokazan.

Igaziriko igandez emen ixan zan gure adizkide ta jeltzale zintzua dan Urkiaga'tar Estepán, euzkel-idazlia.

ENTZUN!— Abertzale: Ez aztu zeure aberri-aldez egin ziñeiken lanik txikerrenagaz be. Alegindu zaitez zeure lagun eta aizkide, senide eta enparaukuen artian batez be, gure izparringi eta aldizkingijak garaille ixan dadixan. Beti, lenen geuria.

E.

* *Euzkadi*, 1932—III—10.

ERRIJETATIK, LEKEITIO'TIK*

ASTE GURENA.— Beti oi dalako ospatu doguz yayok. Aurten baña, iaurlarijaren agindua bide, gure udalgixonak ez tira ixan udalgixon lez eleizkixun batera be, ez txadonan ez ibildeunetan. Orraitiño udalgin jeltzaliak errez ikusteko giñuan ixaten ixan dira. Bestiak, oporrian edo egongo ziran aitaturiko eleizkixunetan ez tira ikusten ixan eta, bestea beti lez, errija zintzo-ziutzorik gure aurretiko lekeitiar jatorren antzera. Eta baita albo-errijetakoak be.

BATZAR-DEYA.— Berbizkunde aurre gabaz Igotz eta Otoyo mendi gallurretara yuan ziran emengo mendigoxaliak Aberri-eguna ospatuteko dei egijen suak egitera. Otayo —onelantxe esaten dogu emen eta, ixan be ez ete da?— mendi tontorra batzokitik ikusten zan. Gabeko zortziren otsagaz batera euziri margodunak egan egiten egijen ortze ziar suak garra artuten azi ziran. Igotz mendija be lxuntza zubitik begijen aurrian dago. Mendi onetara hamalau bat mendigoxale yuan ziran, Otayo'ra erdijak edo. Eta bertan geitu yakezan baserritar aita-semiak lagunduta txurazko sua egin eben. Tamalez axe barrabasagaz ezin egin gura zan gallurrian.

Mendigoxale orrein ixenian eskarrik beruenak damotsaguz eusko anaya benetako diran baserritar bi orrei, eskerrak Jel pian. Eredutzat ixango zarie gure gomutan. Eta ona orain, irakurle, neugaz batera oldoztu dagixun, baserritar zarrak erantzum ebana eskarrak emotian: "Ez, eskarrik, ez. Badakixue non gagozan biar guzuenetan; abertzala zarra naiz".

Mendigoxaliak!: Oraindik lotan dagoz ainbat eta ainbat baserritar. Orrei aberri-egija irakasten alegindu gaitzezan eurek ixango diralako, orain arte lez, euzko bixitzari osasuna emongo dautsoenak, gaur asko ba, okerrian dagoz, begijak itxita dagoz be euren aberrijentzako.

Euzko mendijak gau orretan ames egingo eben gure asabakaz. Ames ori egi biurtu dadin gure lanak ixan bediz.

E.

* *Euzkadi*, 1932-IV-3.

IZKI-MIZKI, UDAKO GATXAK*

Ene aizkide begiko "Ixotza"ri

Udea, etxagok udea lakorik; esakun aun zenbat bidar entzuna neure aitari. Eta lein irriparretxubaz entzuten genduna, gaur atsegiñago ta alayagotzat etsiten dogu. Len barre-irri eta orain bijotz-ikuttu gauza ber-berak eragitia, edonori yazo yakona da. Eta ixen be, nori etxakoz atsegiñako ixango udako egun eder luziak, neguko egun labur eta otzen onduan? Nori ez pozkorrago ta bixi-azkuragarrijago sasoko mutil eta neska azkar ta lirañak ikustia, urtien azteagaz, pixuagaz okerturiko agure ta atsotxu agurgarrijak baño?... "Lau urtaruak" deritxon Sota'tar Imanol'en antzerki bikañak alan begi-aurrera aurkestu cuskuzan udea eta neguba, eta belarri barren joyazan eres muetak alantxe adirazoten eben. Caztetasuna udea da, eta guk adiñaro ori naye ixanik udazaliak ixan biar. Ori olan da ta, ezta-gor nararik.

¿Udan zegatik ixatea ete dira erri-yairik geyenak? Erririk geyenak neguko deunik, sandurik eztabe nai ixan antza dagonez. Arako morroyari siñistuten ba'dautsagu negua otza, kikilduta egoten garalako ixango ete dan uste ixan biarko. Neguko axia zegaitik ixaten dok otza?—itaundu cutsenian aren erantzuna: "Atiak guztijak itxi ta txai-dera, kalera bidaltzen dabelako" ixan zan ba.

Ozkilkeri larregi be gauza ona ezta ixaten eta ba'liteke egi zatitxua erantzun arek beragaz ixtatia. Eztoguz ikusten, geure errijon berton, sarri be sarri, txiruen umiak ortozik eta burutsik, praka zulotsu, alkondara zar eta yakerik barik negu gogorrenian be? Eta otzaren-otzez iñoiz iñor il danik eztogu bein be entzun. Aprobia egin ezkeru biarba, otzari iges eraingo geunskijo. Onubak, aolkubak iñorentzako ixaten dira barriz, ba egiteko aldija eltzen danian amarentzat izten diraz "amak egingo yok nai ba'yok" esanaz.

Udan gagoz ba, egutegijari buruz eta amaitu da neguba. ¡Laster etorriko da barrija be! esanaz zirikatuten gaitubez zarrak. Eta ludiko barri zarra asko jakiten dabela entzun daruagan ezkeru ezetzik ezin esan. Egi argija ba, ezin ilundu ixaten da osoz. Baña zenbatek

* *Euzkadi*, 1932-IV-25.

alegiñak-alegin egiten ditubez apur bat baño ezpa'da be ilunduteko! Guk be beste orrenbeste egiten ba'dogu egin, ez beti baño bai batzuetan, obeto aurkituko, begitanduko yaku. Ba'dakigu neguba etorriko dana baita bixi ba'gara zartzarua elduko yakuna lepora be, baña bitartian udea da, eta gaztiak gara. Ez-pediz iñork txarrerako itzok artu. Gaztetasuna eta udea gauza onak egiteko, ekintza zinduetan iarduteko gura doguz; ta ez okerrean eta gaistakerijetan ibilteko. Ondo dakigu aspaldijon askoren eretziz oker-egiñen erruba udeak dauala; ori barriz ezta udearen erruba geuria baño, eta beraz, udearen lepo-gain okerkeri orreik yarri barik.

Ondartzaetako lixunkerijak gaistetsigarrijak dira, gaistetsigarririk ezer ba'da. Egitada donge orrein aurka eleiz agintarijak gogor itz egin darue, baña kistar askok ez-entzun, belarri-gor egiten dakije uar orreiri. Jaurleri eta udalburu yaunak be sarritan okerreysi ta galazo ta baita iñoiz galendu, multau be egin dabe burubako eta barrubako bat baño geyago. Baña ezta naiko orrenbestegaz be. Bakotxak jagoten ezpa'dogu geure gogoko garbitasuna, bestek egingo dauskunik ezta uste ixatekua be.

Baita beste "jente modua" be sarri, larregi biarba, agertzen da gure txoko maite, euzko uri txukunetako gentza ta lotzea galdutera edo. Orreik kokomarro antzean, txerrenak bai'liran euretariko asko, geure baserritar maitagarrijen yantzijakaz zoro ta lelotzar, kankailu ta astakuen antzera aldra galantetan etorten diran orreik, euren ardau-zatua, ardau-botia paltau barik —bestelan il egingo litxakez egarrik gaxuak— jauzka, saltoka ta zarataka, hirau, abeski zatar eta itz loya darijola datortzauok zer onura dakarzkube errijetara?

Emen geure erri maitieton geure bake indu ta lotsonian gagozalarik zer dala-ta dakarzkube erbestekuok ainbeste okerbide ta gaistakeri, ainbeste zarata ta iskanbila, naste ta droga, ankaiz gora ta okerokerka ipinteko geure errijen ixakerea? Ori be "demokrazija" ete da?...

Gixona asten dauian piztirik txarrena dala esan ebanak ezaban guzurrik esan. Orren beste, igaziriko urtietan ixan da. Eta aurten zer ikusteko ete gagoz, basurde ta barrabas, urtzinge ta eskertarrak mundubak betian ei-dabiltz-eta? Zer entzun eta zer ikusi biariko ete dogu aurtengo uda onetan orreik dirala ta ezdirala?...

Ondo ba'datorz, tira. Bestelan amets txarrak lez, beyuaz artez. Geure ixakerearen aurka badatorz, oberik kontixu eztauskube eka-

rriko-ta, gu be euren aurka yagi biar gara geure-geuria dana aldeztuten.

Okerra baña ezta beti zaratatsuba ixaten. Oben ixil asko be baidala ondo dakigu. Eta ona, adizkide, zuk eta nik sarri askotan ekin dautsagun arlua. Udatzale edo "veraneante"-ak dirala-ta erri aundijetatik etorten yakuzan sendi aberats edo aundiki ta aundinayak ondo artubak ixaten dira geyenez. Txarto danik eztiñogu. Eta uritxuak, euren txindija bide, poztu ta ondu baño eztirala egiten askok eta askok esaten dab. Baña zoritxarrez, oneik be negar eragiten dautse, gauza eta notin orok edonori lez, udatzale orreik be negar eragiten dautse geure aberrijari beste ezaugarririk senduenetarikuak mindu eta makalduten dituezelako.

Geure oiturak bastertutera etorten dira geyenez, baña negarrik geyen geure izkuntza maitiari eragiten dautse: Egi minkor eta mingotza! Eta euzkereari eragiten dautselako, ¡geuri be bai! Negarrok geuk, ene aberkide, geuk legortu biarko dautsaguz geuria dan ezkerro, bestek ba, eztautsoz legortuko-ta.

"Veraneante" orreik geyenez euzkera bastertu eta azpiratu, auldu eta ezereztu egiten daukub. Zuur eta ernai gagozan.

Gau oni, J. I. ekingo dautsagu.

Irakaslia'ren itzak ausnartu dagiguzan: euzkerea ilten ba'da abertzalerik ezta lako ixango da...

ENDAITZ

IZKI-MIZKI, UDAKO GATXAK*

(AZKENA)

Uritxu euzkeldunetara udea igaroten etorten diran udatzalerik geyenak beintzat, erdeldunak ixaten doguz; euzkeldumik gitxi. Euzkotar erdeldunak batzuk eta beste batzuk barriz, ez euzkotar ta ez euzkaldunak diranak. Eta geitu giñei esanaz, atzerrizaliak ixaten dirala batzuk —atzerritar ixatez ba'dira orixe bidezkoa— eta euzko-abertzaliak enparaukuak. Ain zuzen be onexek azkenen ixentau doguzanok begikuenak.

Idazlan oneon lenengo atalian idazten gendun lez, geure izkuntzea makaldu eta zapaltzen datortzanen aurrez euzkerearen aldezko gure lanak ixan bediz. Eta orreik azkenen ixentau doguzan udatzaliok, orixe lanori egiten, euzkereari indar barri ta bixitza emoteko lanetan geugaz batera ekin, geurekin batian iñardu biar dabela-ta gagoz. Orra ba, gure eretxija.

Udatzaliok, “veraneante”-ok elduten yakuz ba errira. Agurra ta xera ona baño ezta ixaten etorreran, gero, goxetik gabera, iñork susmorik artu orduko etxe-errentia erdi zor itxita janka! jeginba bal dabe be. Urruntxutik ba'datorz “don” kipula ta “doña” berekatz baño eztanori agotan erabiliko dautzube. Eta erritar gaxuak sarritan euren ederrak egin al-eziñik!... Atsuak be, aintxiñeko ipuñetakuen letxe ibiltan yatzuz erderakada matroiluakin “si ta no, ta porque no”-ka. Eta bijen-bitartian, euzkera joztikopera! mantar zarra subil ondora jaurtija ixan oi dan lez. Baña zarrakin jazoten dana ezta txarrena; txarrena uniakaz ta nagosijaguakaz jazoten dana ete dauentz gagoz.

Uniak bertoko uniak kanpotar uniakaz erderaz eurrez ekiten dautse. Gure uniak orretara erdera ikasten dabe, erdera ikasten dabe ta gauza askotarako balijoko dautse —esango daustazu amurruz lez. Ez estutu, irakurle. Bai, ikasten dabe ta biar be bai gagozan egone-tan —crantzungo dautzut. Baña uartu orain orretzaz, ber-berorretzaz. Gure uniak ikasten dabe erdera, eta udatzale orrein uniak —une orrein gurasuak aitatu biarrrik bez— ¿ikasten ete dabe euzkerarik?... Zure erantzuna eunetik larogetamar baño geyagoz jez!

* *Euzkadi*, 1932-VI-29.

ixango da. Eta ez bakarrik eztabe ikasten baita geure umiai euzkel-tzaletasuna kendu be. "Verancante"-ok gauz anditzat etsiten doguz, eta origaitik euren antzak artutiarren geu be, ume ta nagosijaguok, geyenok orixe baño eztogu egiten: erdera gogotsu, ta euzkerea, abar-keta zarrak izten diren lez, etxian utzi.

Umiak errurik gitxien dabe barriz, errudunak, kulpadunak nago-sijaguak, zarraguak dira; eurek ba ikasbide txarra damotselako, "verancante" antzak artuta biar eztiran tokijetan eta garayetan erde-raz be erderaz ekiten dautselako. Oldoztu dagigun, oldoztu, arropuz-kerijok alde batera utzita biar dan lez jokaturteko.

Arerijua beti egoten da zur bere etsayaren okerrak uartu ta bes-tiaren aurka ta bere aldez nun-nai ta edonoiz oker orrein barri esan eta zabalduteko. Euzko-abertzale eztiranai, nortzuk edo zelakuak eurek diran, iñork jakingo dautsela-ta bildurrez enai esanda ibilten diran kokolotxu gaxuai, iñoiz entzun dautset esaten abertzale batzun aurka: "Bai, eta, ¿zelako abertzalia da ba urlija?... (Beti, neuk baño be sarrijagotan erderaz ekiten yautzak ¡gixon orreik guzurrezkuak-edo dozak! ¡nai be etxuat nik olakuakaz batu!" Eta onelangoxe egi garratzak be entzun egin biar ixaten dira, ez bakarrik aberkide ezti-ranen aguetatik, baita aberkide zintzo-zintzuak diranai be. Eta egija bat ixaten da-ta zer erantzun jakin ez, ta ixildu egin biar ixaten gara gixon areik aldeztu barik. Gure erantzuma auxe ixaten da soilik: gogayak eztirala nastau biar gogai orren aldeze diran gixonen txatxarkerijakaz. Bada-ezpadeko egitadak kalte galantak dakartsoe sarritan alderdijai.

Euzkera dok, euzkotarra, ire izkuntza. Euria itxi ta iñorenaren bila ba'ua Aberrijaren asarriaren gai egiten aiz. Amak seme txarra gaistetsiten yokan letxe, gaistetija ixan axala! Euzkadi azkatu nai ba'dogu bere bixitza, euzko-bixitza berpiztuta ixango da soil-soilik. Geuria eztan eliazaz eztogu azkatasunik ixango.

* * *

Udatzale abertzalia; zeuk euzkeraz ezpa'dakixu be, zeure umiak ikasi dagijela aberrijak eskatzen dautzu. Eta orretarako, ¿zer gauza errezagorik uritxubetara zatortzenian zebeu semetxubak euren odolari yagokan izkuntzea ikastia baño? Alegindu zaiteze ba, aurtengo uda onetatik aurrera zebeu umiak euzkeraz ikasi dagijen. Errijetako ume euzkeldunakaz errez-errez, igarri barik ikasiko dautzube euzke-raz. Eta gure umiak be, alantxe biar gaurkuan-eta, eurekaz erdera

ikasiko dabe biar dabenetarako jakin dagijen, baña euren izkuntzeaz aztu barik.

Aberkide udatzale: zebek zarie guretzat “veraneante”-rik begikuenak. Zatorzte uritxu euzkeldumetara, euzkeldundu zaitezen, zebek bixi zarien Euzkadi’ko erdel-urijak be euzkeldundu daitezantzat, zebek egiten zarenez batera egingo dira-ta.

Euzko-goguari begira beti, ortik yatorku bixitza indarra-ta. Euzkaldunai euzkeraz, eta euzkaldunak be ¡beti! beste izkuntzaren biar ixanik eztaunian ¡beti euzkeraz! amaren seme ona ixateko...

ENDAITZ

EUZKO-ERRI JAKINTZA*

ESAERA ZARRAK

Esacra zarretan be aberats-aberatsa da gure izkuntzea. Zarren abuetan sarri ibili oi diraz epayak. Egunari jaokazanak be asko ixango dira. Ona emen batzuk.

Otsala'ren 2'garrenari: "Kandelarijoz eguzki, neguba dogu aurretik".

"Kandelariyoz edurra, juan da negubaren bildurra."

Epaila 25: "Andra Marija martiko, arrain barriko tatiko."

Jorraila 23: "San Gorki, artuak ereiteko goxetik."

Jorraila 25: "San Markos, artuak ereinda ba'legoz."

Orrila 30: "San Pernandoren eguna, gaztaña-lakatzta sartuteko eguna."

Agorrila 10: "San Lorentzo, esku baten ura, bestian suba."

Iraila 8: "Irailaren zortzijan da Andra Marija orduan Alboniga'n dago erromerija."

Azila 1: "Domunu santuru manturu, txarri andi bat il dogu bus-tana ez bestia jan dogu, bera lapikuan daukagu."

Azila 25: "Santa Kataliña uoiz da? Besigurako goiz da, idi-gari ereiteko otz da."

Gabonila 21: "Santo Tomas, egurzaña."

Gabonila 24: "Gabon, bon-bon, dagonian jan, eztagonian egon."

Gabonila 25: "Natibitate, ase ta bete."

Urtarrila 22: "San Bixenti otza, negubaren bijotza."

Urteko egunik laburrenak diranian esakun au esan darua errijak: "Abenduko eguna, argitu daneko iluna."

Neskatilak ederrak, kolore argikuak ixateko, mayatzaren lenengo egunez esnia jan biar dabe. Orrelantxe azal argituten ei-da ba.

"Maripatxu Motxatena, gaur dona ba mayetz lena, jan egiña esne guri, ixateko zuri-zuri."

Arlo oni ekingo dautsagu, eta orretarako batu egin biar geyago.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1932-VII-2.

ERRIJETATIK— LEKEITIO*

JAYO DA.—Kaxio, Kattan, eta ikusi dok jaioparrija-edo?

—Zer dok ikusteku ori? Ez nok, etxaut ikusi.

—Ba, Eskolape-ziar juaten ba aiz juan, au ikusi ta irakurriko dok txeigo baten dagon erretuluak diñuana. Ta bai ikurriña ipinteko-edo, dagoan taketa be. “Agrupación Republicana” yok bere ixena jayoparri orrek eta taket ori ain zuzen ba, bakaldarren Círculo’an eguan berbera ei dok, entzun yuadanez. Langa orren bitartez oñez ibilten ikasiko yok edo, ba, zezegaitik, erregalau yentzat il zuan “Circulo jaimista-tradicionalista-upe-tradicionalista” bixitzan eretxonak.

—Beraz, norabuenan gaya-gozak gu, kabernikola gaxuok, orreik ango egualdeko basurden kumatxubok ekarriko yauskubek ba, iñoiz emen ezagutu, eztan lako aurrerapen eta demokrazija. Ontxe-edo, zorijon jaube ixan biar yuaguk, eztok?

—Bai-edo. Olan ba’dok eztok gustiz txarto be. Cañera, orreik agertuko jauskubek argi-argi nortzuk diran eurek: aurrerapen zalenik gogorrenak. ¡Ba-yagok biar ixana be. Kattan, ia ezagututen ba’y-uagozok gixonok bein-edo-bein!

—Egi-egija ori. Orduban ¡amaika belarri agertukozak ori dala-ta beste barik! Ur askotan ibilten diran arrañentzat ¡a zelako aukeria! Bixi bedi, ba, il arte jayoparri ori.

MARKIÑA’RA.—Batian or ta bestian emen, ba-diardube abertzaliak batzokijak zabalduten. Datorren igandez beste uri batzuben artian, Markiña’n ixango da zabalkunde jaya. Eta guretzat urrien orixe dagola-ta emeko abertzaliak eurrez juango dirala uste dogu. Mendigoxale Sabin’guak beñipein gertatuten asita dagoz.

ETA GEYAGORA.—Baita beste erri batzubetara be juan biarko da egun gitxi barru. Ispaster’eko batzokijak be, bere jai eguna eskatzen dauan ezkerro jayokan lez ospatutia bidezkoa eztanik eztau iñork esango. Ispaster’en bakaldarrak ixan dira nagusi aspaldiko urtiotan, asi txauburutik eta maixuraiñokuak be alakoxiak dira-ta. Euzko-Batzoki’rik barriz ezta iñoiz egon, eta orregaitik geure laguntza eskiñi biar dautsagube ango aberkide banaka baña zintzuak diranai. Illa onen 19’garrenez ixango ei-da edo.

* *Euzkadi*, 1932-VII-4.

Eta gero, Ea'ko Batzokija'ren eguna be elduko da. Ta ara be juañ biarko da orduko eratuko dabezan jayetara. Jairik ederrenak euzkel-jaiyak dirala ezpeye aztu erdel-zale diraneatar batzuk ¿Aiturik zagoze?...

Guenez, ondarrutarrak be laster ospatu gurako dabe euren batzokijaren askundia. Ia zelako arin gertatuten daben ba, aurrera ta urrera yuañ gaitezau.

EDERTO.— Santander'en Euzko-Batzokija zabalduteko ain sutsu eta euzkotar jatorra lez lanian ibili dan errikide gazte Arrinda'ri buakijoz geure txalorik beruenak. Aberriyak ordainduko dautzuz, Josu, eta ekin zuk.

E.

IZKI-MIZKI, ENTZUN BAÑA AZTU*

Abertzaletasuna zer den eztakijen abertzale ta abertzale antzeko bat baño geyago da zoritxarrez. Diñogunan egi-liskar antzaduna ba' da be, egija baño ezta. Itaundu dagiyogun aberkide bateri, aurrenatarikuai barik beste edozeñi abertzaletasuna, euzko-abertzaletasuna zer dan-edo ta azkatasuna berriro geugenatutia dala erantzungo leuskigu gastelarrak ostu euskubena atzera emon dagiskuben dirala abertzaletasunaren lanak. Araudijatzaz itaun egiten ba'dautsagu be, bardiña bere erantzuna: "Emon" dakisgubela Madrid'en eta geu atonduko gara. ¡Zorijoneko emon! Au emotian baña, opil bat edo berekatz bat eskura emotia lez dala uste dabe askok. Beraz, buru tatanekuak diralako-edo, gauza orretzaz tautik be eztakije.

Orain baxaren legor-aldian laprastik egiteko bildur baga ba'dagoz be, apurtxu bat alborantz egiten dabenco odoldi ezotubaren ganian oña jarriten dabenez batera txirrist egin eta ankaraz-gora errez-errez juango leitekezan asko ixentautia eltzake lan gorrija ixango. Au one-lan barik bestelan ba'litz ostera, obe.

Eztakije, eurek ba-dakijela uste dabena. Ezjakite ori, noren cruz etc-da baña? Bakotxa bere cruz sarri askotan. Zenbat eta geyagotan entzun ainbat eta ainbat txarrago: esakera au askoren lepuetan idatzi leiteke zuzenduten diranentz. Mitiñetara-ta juateko gogo bixi, amurru zinduaz eta bertan izlarija entzuten adi-adi egoteko ta onen ostian txaluak-txalo joteko be gertu egoten da lagun asko, ta baita zantzo gangar eta ganora-bako batzuk egin eta abestu baño arrantza geyago, ta abar egiteko be; ta egin biar oneik egin oste "satispetxo" ene mutilok. Belarri batetik sartu eta bestetik urten: orra izlarijen lorrak ze zori, ze suberte ixaten dabena. Entzun bai ta jaramonik ez egitekotan, entzunikuari etxamon egitekotan, bape ezta juan biar olako tokijetara. Onetzaz, egi garratzak entzun geuntsozan oraintsuko itzaldi baten Biteri izlari trebiari.

Itxcikixunak entzutera juan eta etxeratu orduko ¡kitu! len baxen utsik txapelpia. Baña geyenetan ez urdaila, ardauz ondo beteta, ganezka baño. Ta aurduban bai, len ezer ezpadakije be, buruba argituta egongo dirala. ¡Aurduban bai astuaren aldian eztarri ederra! Jai

* *Euzkadi*, 1932-VII-10.

ederrak egin ondoren, egun aintzagarriak aberrijarentzako eta geutzako igaro ostian iluntzeruntz agertzen yakuz sarrijegitan olakoxe bada-ezpadakuok.

Ardaua drogia ta nastia baño eztan ezkeru olako ereti ta aldijetan, bada-ezpadakokeri orreikaz amaituten alegindu biar gara. Bana-banaka egin biar dogu orrelantxe, eta ez laketu bestiai oneteriko larregikeririk. Eztogulako nai ta ezta biar, be, geure erri zinduan moskor-erri bigurtuterik. Bijotza bero ta buruba otz, bijotza sutan eta buruba argiz orixe dogu bideko makila laguna. Makila orren gain bego gure atsedena neketuten garanetan, ez arduaren gain iñoiz be.

ENDAITZ

ISKI-MISKI, ANDOLIN DEUN JAYAK-ETA*

Aurtengo Andolin Deun-Jayak be, txarto edo ondo, arin edo nekez, igazi dira. Emendik urte bete barru izango dira ostera be.

Lauziriko-launariko apurrek eralgiteko bestelako egunak ixan doguz; Jai onein ixakerarik barrutikuenta, auxe, dirua neurri barik, eta geyenez ganora andi barik txaututia ez ete da gero? Bai urrian, zoritxarrez.

Diru apurrok jan-edanian txaututia dok onena —ene adizkide batek iñuan jayotariko egun baten. Triparako, urdaila beteteko ezti-ran txutxulukerijetan dituzan diruak eralgiten dauzanak eztauko ez gatzik ez berekatzik. Itzok, gogorak ziranez, aztertzeke gurea sortu yatan.

Ixan be, kanpotik yatorkuzan kinkileruak eruaten dauskubez gure laukuok, eta abo bete azurregaz iste gaitubezalarik. “Markia” da auxe gero! Bateko belarriajak gortuko leukiezan erreminta traketsai ots-eragitiarren, txakur aundi bat, ori gitxijen dala, emon biar da ezetan asi orduko; besteko “chichí americano” edo dalakuan dirua errez irabazi biar dogula-edo-ta, beste pare bat txakur baño geyago. Ta bata besteko zurezko elaztuntxubakaz ardau boteilak atzemotiarren, beste txori batzuk ta ez txikiñak aundijak baño. Eta ostantzeko “tío vivo” ta “churrería” ta abar. Baita etxolen bat edo beste be. Onelan ibili ondoren urrenguan be esan biarko: eztogu jaten ezer be baño barre asko egiten dogu.

Jayok amaitutera doyazan baxen laster gure laukuak be ba-yua-kuz eta arin jua be, erritik at, eta aberritik at be bai sarrijegitan. Eta ori ezta ondo iñundik iñora be. Jayak dirala-ta eralgiten doguzan txindijok be, berton al’dala, gelditu biar litzakez. Eztalako gauza zala, gauza gatxa be. Gure txindijok kukuren baten eskubetaratu, zer dala-ta?

Salokarijen bila iñora jua biarran ete gagoz? Berton ez al’dogu ba nork saldu ta nun saldu be?

Aberrija gauza askok osotuten daben ezkerok, gauza orreik gusti-jok osotuten doguzanaz batera Aberrija be ordubantxe osotuko da.

* *Euzkadi*, 1932-IX-16.

Eztaigun aztu auxe: euzkotarrak lagundu begije beti euzkotarra. Geure aurka egingo dauskunari ez emon ezetariko izkilurik, armarik.

(I) Egi galantak diñozuz. Euzkadi euzko-usaindu ta bere buru-jaube ixtatia gura ba-dogu, barkilleru be, barkillo-danboliñak euzko-marguakaz margoztuta, geu euzkotarrok asi biarko gara, ta txurroak saltzen be bai.

ENDAITZ

IGAZIRIKO IGANDEZ...*

NATXITUA'RA eragozpen ziar eta aldatz neketsu asko igaro ondoren, natxituar aberkidia be, batzokijaren zabalkunde-jaya ospatuteko garaya eldu yake. Lan eta lor geyago, aldi obiagua... esan daruagu. Eta alantxe da.

Bazkal-ostian Natxitua'rantz eruango gaituzan tarranta batian sartu gara. Odei ilunak gure buru-gain egaz arin dagijen bitartian, gure burdijaren bultzkiñak eztagoz lo. Eldu gara Izpazter'era. Zortzi bat abertzale gaste sartu dira gure belbilean; eurok eta gu leku bate-rantz guaz. Ederto, izpaztertarrak, gurasuen okerrak laster zuzendu biar doguz-eta. Euzko-Batzokiko ikurriñari agur dagitsagu, eta aurrerantz belbila. Ean jatsi gara, eta batzokira guaz zuzen-zuzen, oraíndik eztoгу ikusi ba.

* * *

Areto ederrean gagoz; erredixa apañak eta lauki dotoriak dakusguz, Sabin, Ibero abea, Ibiñagabeitia... Eatarrok abijatxu txairua dozube. Baña ugutzaukeran ¿zelan ipiñi dautsazube ixena? Batzoki "Goyalde".

Bai, ba; errekearen ubetua (corriente de agua), uyolen bataitik ixan ezik, bere bidetik duan lez, zubek be gaztelera-errekearen ubetuban ibili zarien ezkeroz, ezin ba ¿ezin! ur-artetik erreka ertzera crabatera urten. Euzkel-joskereari buruz, atzekoz-aurrera jarri biar doguz itzok. Ara, ba: "Goyalde-Batzokija."

* * *

Enparautza'ko saloki, denda bateko iragarkijak poztu gaituz: "Goxotegi" euzkera ederrean diño ba-ta... Natxitua'rako aldatza gora oñez guaz. Ezkara bakarrik osterá. Iru edo lau-notin taldetxubak poliki duaz aldapa-ziar.

Talde bitaz uar-egin dogu. Batzuk euzkera utsian diardube; bes-tiak erderaz soilik. Eta... catarrak dira. Antza denez, "Viva Burgos! deituteko iñor eztagualako-edo. Zuben errijan cuzkeraz baño ez-tala egiten "Txitxik" zínestuko dautzube, nik ez behintzat. Baña, ez asarretu, e?..."

* * *

* *Euzkadi*, 1932-X-20.

Txirri-para eldu gara Natxitua'ra. Oyal idazkunak ondo etorrija damoskubere; sapailuak apain, eta apain, baita be, iztun-tokija. Eldu gareneko paparra loretxuz bete dauskube: neguko lorak ei-dira. Eta eguraldija otzitu dala-ta, guri be ¡sakela utsitu biar dauskubela!...

Jentetza polita-asko ez, gitxi bezbildu dularik ezpatadantzarijak dantzan diardube, eta jarrrayan asi da itzaldiya.

Uriarte erritar mutil gastiak egin dausku izlarijen aurkespena. Oleskari bik bertsuetan dagije eta urrengo Barrenetxea'k bere itxeikixuna. Ondoren Isusi eta Irala andereñuak eta Urkiaga jaunak. Onen barriketak eztira gero barriketak, egijak baño...

¡Beyondeizula, "Lauaxeta"! Ostian, oleskarijak eta Txordo, eta euzko-ereserkija. Eta gentzeaz jaya buka da. Oztia arat-onat sakabannatu da...

Aurrera ba, natxituar abertzaliak, eta ekin zintzo aberri-alde. Eta zorijonak zebeñ jai ederragaitik.

ENDAITZ

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

BELGUNTZAK.— Aste onetan mixiñoetan gabiltz. Milen-semiak dira belgundarijak eta ozte aundija erduten da euroen itzak entzute-ra.

EZKON-DEYAK.— Igaziriko domekan ixan ziran lautsu ezkon-dei. Ara nortzuenak:

Arakistain'dar Kepa ta Agirre-amaloe'tar Julene.

Arteagabeitia'tar Paben eta Goitia'tar Miren.

Ugartetxea'tar Paul eta Salinas'tar Miren; eta

Goyenetxea'tar Ilari ta Bermeosolo'tar Lide.

ABERTZALE-GORA-BERAK.— Euzko-Gastetxu-batza eralduten asi dira emen be. Bazkide geyen ixen lerrokadia asitxuba da. Antzerti-Batzordia oraintxe asi da nagijak botaten-edo. Laster ixango da antzerki-jairen bat. Onezkero sasoa be, ba-da ta!...

Ila onen 25'knez, abestuteko, Goikoetxea'ren "Requiem-Jaupea" eta "Liberame" ikasten asi dira Batzokiko abeslarijak.

Egun orretan-edo, baita itxeikixunen bat be ixango da.

NASKALDIJA.— Chile'n urte batzutan egonda, bere errira etorri da Obieta'tar Damas mutil gastia.

Donostia'tik, Arriaga'tar Elene neskatilea.

Baita be etorri dira Ertze'tar Errapel eta García'tar Julen itxasgi-xonak.

Bilbao'ra jua da, neguba igarotera, Orue'tar Joseba Mirena bere sendijagaz.

EUZKEL-IXENA.— Edurne ixena ipiñi dautsoe Astoreka'tar Joseba ta bere emazte Aundikana'tar Gentzane'k euraen alaba jayo-parijari. Aita-emabixijak ixan dira Odiaga'tar Danel eta Amilategi'tar Koldobika.

Zorijonak gurasuai.

E.

* *Euzkadi*, 1932-XI-18.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ANTZERKI-JAYAK.— Ila aunen 8'garrenez ixan zan antzerki-jai ederra "Gora Buru" antzokijan, bertoko Euzko Batzokija'k eraturta. Antzerkijak "Iziartxu" eta "Morroi jatorra" ziran. Antzezlaririk trebeki eta ederto jardun eben. (Lagun askori entzun deutsegu ederto "egon" ziralda antzezlaririk. "Egoteko" ¿papauak edo ete ziran, ba?

Urrengo igandez ixan zan barrero be, antzerki-jai orixe.

Gabon jayetari ixango ei-da beste antzerkixumen bat.

MIREN-ALABAK.— Euren Ama'ren jaya ospe ta oste aundiz ospatu eben. Coxian-goiz ixan eben jaunartze orokarra eta 9'tan Jau-pa nagosi abestuba. Arratsaldian bederatzirenen-amaya eta txonitza Eguzkitza jaun agurgarrik eginda.

Eleizkari guztijetan ederto abestu eben. Zorijonak, ba.

ORRI BALTZA.— Igaziriko egumetan hil dira.

Bengoetxea'tar Bitor arrantzale gastia.

Ametzaga'tar Koldobike anderea.

Garcia'tar Ixidor, eta gure aizkide Arrizubieta'tar Jon eta Laurentziren amama.

Otoi bat, irakurle, euroen gogo alde. Goyan begoz.

MUSEKO TXAPELKETA.— Laister amaituko da, Batzokijan eraldu eben txapelketa ori. Ori dala bide-edo, ume gustirik be, ikasi dabe jokuan, irakurten ikasi ezpa'dabe be.

Joko-bitartez gure gastiak askatuko dabe Aberrija! "Jagi-Jagi" zertarako irakurten ete dogu? Argija biar ta bilatu nai ez... Ta bitartian paparrarian ikurrak erabili eta noizpein, arrantza batzuk egin eta barriketan jardun.

Bost edo sei bakarrik lan egiteko. Tamala benetan...

E.

Uarra.— Idazle azkar ori; asarre bixijan zagoz-edo mus-txapelketa dalako. Ez, ba. Neuri ondo deritxat olako jolasak ayatutia. Txarra, alako gauzak bakarrik egitia. Orreik atsenduteko baño eztera,

* *Euzkadi*, 1932-XII-17.

garrantzi andijako gauzak egin biar dira aberrijaren aldez. Batez-
bere bakotzak al duan eran irakurri ta ikasi, buru-argidunak gadixan
cuzkotarrak.

Emakumiai Sukarrieta'n esan eutsoen juango nintzala, baña ezin
juan, ba. Urrenguan ixango da. Erregenetan-edo juan gura nintza-
ke.—Lauaxeta.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ANTZEKIXUNAK.— Datorren igandez, Urtebarri igandez, ixango da antzerki-jai eder bat “Gora Buru” antzokijan, Euzko-Batzokijan eta Emakume A.B.’k atonduta.

Antzerkijak “Aitona ta biloba” eta “Xabiroya” ixango dira.

Antzez-oyalak guztijak barrijak ixango dira eta argijak be bai.

Beraz, irakurle, txartelak salgai jarten diranian ez egon lo, belu dabilenak azurrak baño eztitu ixaten-eta.

BATZARRA.— Ila aunen 25’knez, ixan zan Euzko-Batzokija’ko urteroko Batzar orokarra. Urteroko kontuak eta gora-berak ontzat emon ziran. Araudijari buruz, Bazkintza-Artezkaltza erdiya barriztau zan. Ona emen autetsijak ixan diran agintari barrijen ixen-abixenak: Lendakari, Larreta’tar Albontsa; idazkari, Ibañez de Aldekoa’tar Telespor; diruzain, Etxebarria’tar Ikiñi eta batzar-lagun, Fresnedo’tar Domeka.

Gure txaluak euren agintzarua ain ondo bete dabena. Aberrijak ordainduko dautse.

TOMA DEUNA.— Egun orretan azokea egin zan Atea’n. Baserri-tar asko uriratu zan. Gureztat atsegiñago orreik ikusita udaetako erdaldu zirtzil aldrak baño.

ERIJOTZA.— Igaziriko astian il zan gure adizkide Anakabe’tar Damen eta Gotzon’an amama. Lagun gayakoez atsekabian. Goyan bego.

JAYAK.— Gabon-jayak dirala-ta ainbat uritar ikusi doguz gure artian. Batzu-batzuk juan be egin dira beste erri batzutara jayok igarroteko asmoz.

ZORIJONAK.— Urte zarrari amai on bat emon eta barrijari asiera obia opa dautsegu artezkari jaun idazle lagun eta irakurle guztijai.

E.

* *Euzkadi*, 1932-XII-31.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ANTZERKIJAK-ANTZERKI.— Urte-barri egunez ixan geban antzerki-jai eder bat eta urrengua Iru-errege egunez ixango da. Iga-ziriko igandez “Aitona ta Biloba” eta “Xabiroya” antzetzuta ziran. Antzetzlaririk ederto jardun eben. Lagun asko ziran eta ezin, ba, guztijen ixenak ipiñi. Len txaluak jo neutzubezan eta orain zorijonak damotsubedaz.

IRU-ERREGE EGUNEZ.— Antzerkixun bi ixango dira “Gora-buru” antzokijan, Euzko-Batzokijak eta Emakume A.B.’k eralduta.

Lenengua arratsaldeko 4^{tan}:

“Josu’ren Jayotzia” gastetxubak antzetzuta. Iru atal dauz antzerki onek.

Gabeko 8 ¹/₄ tan:

“Josu’ren jayotza” iru ataletan.

“Erri oiturak” antzetzakai errikoia. Ona zeintzuk atal antzetzutoko diran: “Iru-errege-eskaliak” “Gau-jabola” “Mendi-goitarrak”, “Oleskarijak” (Gau-txorijak), “Arrantzalien deya”, eta azkenez

“Mai ganekua” Mendexa auzo-urixuko jai amayerako oituria. Egilia: Orue’tar Ixaka jauna.

Irakurle: aldi atsegingarri-zalia ba’zara bai-dakixu Iru-errege egunez nora jua: “Gora-Buru” antzokira.

E.

* *Euzkadi*, 1933-4-5.

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

BIXIRIK?—Inguruban doguzan otzakaz errez ete da, gero? Uri onetako idazliak urrian garbitu dituz eguraldi otzak. ¿Eta “Artzulo-kuak”? Oneik, aspaldiko edurtiagaz euraen lezatic urten ezinda eidoz. Beintzat, eztogu izparririk. ¿Ez ete dira il-edo? Tamala litzake.

IZPARRAK.—Ez ba, irakurle, eztogu barri askorik. Egunekeo gexua emen be bai-dabil.

Ilik laburrena ixan be gogorreña ta, juañ yakuz notin batzuk bixitza obara. Jayotzak be ixan dira; ain zuzen be, abertzaletzat dagoan guraso batzuk erdel-ixenak ipiñi dautsez euren seme-alabatxu jayoparrijai. ¡Olakorik!...

“Conciencia nacional” uri aumetara ezta eldu oraindik; barrako baxetan “enkalata” gelditu zan!...

“AVASC”.— Eleiz-etxia'n ixan doguz gixarte-autualdijak Eguskitza jaun agurgarrija buru dalarik. Lagun gitxi. Edarija urre eztagon lekuko itzaldijetara-ta, eztua emen iñor. Ama zarraren semiak-edo gara lekeitiarrok jgarritsubak!

EPAIKARIJETARA.— Ondarroa'ko epai-ctxera deitu cutsoen lengo egun baten Sarria'tar Kepa abertzale ta euzko-langiliari, uri orretan aurtenuñ ¡Gora! batzuk didar-egin ebazala-ta. Salatu dauana Santi “Orbela” ei-da. Eta geure Kepa, ¡pparra beteko orbelagaz juañ ei-zan bere salatarijaren aurrera!... ¡Alako auzirik!

ARATUSTIAK.—Ganiañ doguz urteko egunik ganorabakuenak. ¿Abertzale asko ikusiko ete doguz kokomarro egiñik?

ENDAITZ

Uarra.— Gatika'n ixan zan omcna bide artu neban zeure agurra. Mila esker aberkide on ori.—L.

* *Euzkadi*, 1933-II-25.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

EUZKEL-IXENAK.— Sabin Eusebi ixenak ipiñi dautsez Eiguren'dar Eusebi'ren semetxu jayoparrijari.

Ikazuriagagoitia'tar Imanol'an semetxuba Imanol ixenagaz ugotzau dabe. Zorijak guraso bitsuoi.

Aberkidiak entzun: Auzitegi-idazkari barrija daukogu errijan, eta idazkari ori, bertora eldu daneko, gurasuen erabagijen aurka jarri da; ta eztau gura ixan "Registro civil"en euzkel-ixenik ipinterik. ¡Kontzuba, abertzaliak!

ERIJOTZA.—Astelenian il zan geure aizkide on dan Etxeberria'tar Domeka'ren ama. Uste bako erijotza onek saminduta itxi gaituz. Geure tamal-agurra artu beye bere sendikuak.

Baita be, egun orretantxe Gomendiourrutia'tar Josebe ta "Seabekua" deritxon basetxeko gizona. Otoi bat, irakurle. Goyan bego.

NASKALDIJA.— Oyon (Araba)'ra jua da sendatuteko ustez, Barbarias'tar Jon Joseba abertzale gastia.

Bilbao'ra Kortazar'tar Garbiñe neskatilea.

Palencia'tik etorri da atzerritar gudari-janzkijaz Osoro'tar Joseba Mirena aberkidia.

Gexorik dago "gastetxuben" abesti-irakaslia. Akarregi'tar Gurutz.

IDAZTI BARRIJA.— "De su alma y de su pluma" deritxa ta Euzko-Batzokijan dagoz salgei. Arana-Gori geure irakasliaren oldozpenak dira. Jeltzale guztijak erosi biar leukila-ta gagoz. Ta baita eztranak be. Euzko-abertzaletasuna zer dan jakin dayen.

ZIRIKA.—Gauza batzuk edo kontu batzuk ez ei-dira idatzi biar; "iñuzentekerijak" ei-dira ta. Ori neuk entzuma da. Ta asarrez eguan bati entzun be, gero. Baña ¿zer dala-ta asarratu? "¡Gastiak olgau egin biar dira!" Ta, ¿nok esan dau ezetzik?

Idijak nagitu ta dagozarian aurrerantz egin dayen, itzañak akulua eukiten dau ziri-eragiteko, ez idijak minduteko solik. Guk, be, iñor mindu-egiteko bakarrik, eztoqu nai idazkortzik; baña aurrerantz zirkin-egitjarren ziri-egiteko ¡bai arranotan!

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1933—III—16.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ARRAINTZA.— Esateko arrainik ezta karkube arrantzaliak. Bokarta apur bat eta ezebez besterik.

EUZKEL-IXENAK.— Akarregi'tar Bittoren'ak seme bikotxak ixan ditu. Martiñen eta Bittoren euzkel ixen politik ipiñi dautsez ugutzaukeran. ¡Ori da euzkel-ixenakaz zuzen jokotutia...

ERIJOTZA.— Astelenez ixan zan Goikoetxea'tar Ilari (G. B.) arrantzaliaren jortzija, enterrua, lagun asko erdurik.

Artu begi bere sendi atsekabetubak geure tamal-agurra. Otoi bat, irakurle.

EZKONTZA.— Laster ezkontuteko dira: Lauzirika'tar Josu ta Zapirain'dar Miren, eta Leturia'tar Imanol eta Meabe'tar Jone. Ezkontza geyago be ixan dira egunokaz, baña gustiyen ixenak ezta-kiguz-eta... ezin esan. Dana dala, zorijonak gustijai.

NASKALDIJA.— Pasai'ra jua da oraintsu, an lanari ekiteko ustez, Txakartegi'tar Andolin. Bilbao'ra ikasten inarduteko asmoz, Ertze'tar Andoni. Ondo ibili.

ESKARIJA.— Donostia'n Euzko-jakintza Astea ospatuteko egin ziran itzeikixunak ezin ete leikez idaztino baten bildu? Gastientzat ikas-gai ederra litzateke autualdi-txorta ori. ¡Entzungo ete dauskube agintarijak, ala lendiko asmua ete da argitalpen ori egitia?

ENTZUN DOGU.— "Xanti Meabe" bixitan datorrela uri onetara.

E.

* *Euzkadi*, 1933-V-12.

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

JAUPEA.— Igaziriko egubenez, Igokunde egunian, goxeko saspi ta erdijetan Mikel deunaren ondi edo altaran ixan zan San Miguel Oyartzabal'dar Iñaki'ren gogo aldezko jaupea. Jaupea emole Eguzkitza jaun agurgarrija ixan zan; abertzale askok jaunartu be egin eben. Lagun asko erdu zan.

ANTZERKI JAYAK.— Espetxian dagozen gure anaya eta gogaikidien alde txindi apur bat batzeko.

Datorren igande 28'garrenian, gabeko 9'etan asikerea emonik ixango da antzerki jai eder bat, "Gora Buru" antzokijan

Egitaraba

Lenengo atala: Euzko-Gastetxuben gain:

1. Eresija. Itxarkundia.
2. Gastetxubak gara (olerkija) "Endaitz'ena", Garamendi'tar Arcne'k esanda.
3. Abestijak: "Goiko mendijan", "Andre ona daun gixona".
4. Babes ta Laguntasuna. (Olerkija "Endaitz") Goitia'tar Begoña'k esanda.
5. Euzko-abestijak: "Aitonaren esana", "Guazen danok JEL-aldez"
6. Espetxian (Olerkija, "Endaitz"), Solano'tar Begoña'k esanda.
7. Jagi-jagi euzkotarrak...

Bigarren atala.

"Nekane" Tene'ren atal bakardun antzerki polita.

Antzeslarijak: neskato-mutikotxubak:

"Nekane", Zarzoso'tar Miren Irdagire.

"Maitane", Antzola'tar Ane.

"Edurne", Erkiaga'tar Edurne.

"Miren Itziar", Iturraran'dar Itxaropene.

"Anderea", Orue'tar Karmele.

"Gotzona", Arano'tar Lourdes.

* *Euzkadi*, 1933-V-28.

“Atso bat”, Zumaran’dar Todore.
“Neskatila bat”, Solano’tar Begoña.
“Gokaiztua” (diabrua), Odiaga’tar To-dor
Irugarren atala

“Maitasun eta Gorroto”, Garcia –Goldarazena’tar Joseba’reu an-
tzerki ederra. Atal bakarrekua. Antzezlarirjak:

“Etxe-jauna”, Atxurra’tar Errupa.
“Katarinë”, Egurrola’tar Elixabete.
“Peli”, Agirre’tar Mari.
“Matale”, Antzola’tar Miren.
“Iñese”, Orue’tar Ane.
“Andoni”, Goikoetxea’tar Estepan
“Bidezkarija”, Egurrola’tar Joseba Mirena

Salneurirjak

Aurrekuak: 2 laurleko

Erdikuak: 1,50

Atzekuak: 1,00

Orokorra: 0,50

Azkenian, “Euzko-Abendearen ereserkija” abestuko da

Abertzaliak: ba-dakixu nora juan biar zarian igandian, “Gora
Buru” antzokira. Utsik barik, erdu, erdu geure jaira.

E.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

IGANDEZ.— Goteum-Etorkundia audiro ospatu zan. Amarretan, ertxadonan eleiz-abestaldiak I. Mitterer'en lau abotsetako jaupa ederra abestu eban.

Bazkal-ostian, ordu bijak aurretuban eldu ziran Bilbao'ko Sabin-Etxia'ko gastetxubak. Eguraldi ona ixatezkeruan Batzoki'ko baratzean jango eben euren bazkarija, baña eurija zan-eta antzoki-are-tuan bazkaldu eben. Txistu-soñuak entzunaz bazkaldu be. Jarrayan, antzeztokiratu zirian abandotar gastetxubak eta aretua lagunez bete-rik eguala egin ebezen euren euzko-jolasak: "Pra, pra". "Lenengotxu ori", "Gona-gorritxu", "Kiri-kiri-ken", eta abar neskatotxubak, eta mutikuak egiñik "Oge-zulo". Ba-zan an txalo-otsa. Lau ta laurenetan urten zirean gastetxubok Ondarroa'rantz. Eldukeran eta jueran egundoko arrera ta agurra egin eutsoezan emengo "gastetxubak" eta... zartxubak be bai.

Lekeitio'ko gastetxubak egun orretan.

MARKINA'RA.—Urrengo igandez uri onetara juateko asmotan dagoz batzu-batzuk. Arratsaldian pelotatokijan itzaldi ederren bat ixango ei-da: Ugartetxea, "Altzeta", Robles Arangiz eta Onaindia jaun-nak izlari. Beraz, irakurle, juan al-ba daikezu jbagila II'gnez. Marki-ña'ra!

OLAETA'N.—Igaziriko astelenez Amoroto'ko auzune orretan ixan zan oi dan erromerija. Lagun asko ixan ei zan.

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1933-VI-7.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*TIK*

ONDARROA'KO JAYAK-ETA

Igaziriko igandez Ondarroa'ko Euzko-Batzoki eta Emakume A.-Batza'ren zabalgunde-jai nagosija ospatuteko zala adierazota, jakinien ganian gengozan. Uri orretara juateko deya entzun eta jaso genduan. Egunokaz urte bi bete dira emengo E.-Batzokija edegi zala, eta ondarroatarrak zintzuki eldu yakuzan jai aretara. Orain, geu euren jaira juatia, bidezkoa zan. Eta orrezkero, etxian bazkaldu ondoren, belbilian sartu eta juan gintzan Ondarroa'rantz.

Bidian giñoyazela, bide-ertzeko basetxeko atarian iru edo lau ume ta agure bat eguzan; guri agurka lenen asi zirianak umiak ixan ziran eta ¡Gora Euzkadi! didar egiten eben, eta azkenerako euzko-aguretxu maitagarrija be, agurka asi zau. Bere abendatarrak giñala igarri eban, ba. Jazokun orretan be, euzko-ixakerea zelakua dan oartu genduan. Euzkotarra ez-ezaunari txaloka ta agurka ezta asiko beriala, itsumustuban ez; euzkoa labankeri-zalia eztalako.

Eldu gara Ondarroa'ra. Belbiletik jatsijaz batera ingi-loretxuba paparrean ipiñi dauskube andereño abertzaliak. Bide orretaz batu al ixango dan txindija Gipuzkoa'ko anayai laguntzeko ixango da.

Jatetxe aurrian aurkitu doguz lekeitiar mendigoxaliak euren urdail utsak beteteko asmoz. Bazkari ederren bat gertauten ei dauke, seguru be. Mai-ingurura batu dira ta guk agur dagitsegu geroarte. ¡On dagitsubela!...

Euzko-Batzokira juan giñan. Apaña eta polita berau: txaki edo gela bakotxak ateburuban dau idazkuna; euzkeraz ¡jakiña! Berton dabe antzeztokija be.

Errija ikertu eta ikusi genduan. Txaide edo kalien ixenak erderaz eta euzkeraz idatzizak dira. Ori ondo. Lekeitiar ziñegotzi jaunak: jnoiz beste orrenbeste emen?

* * *

Goxian jaupa, jaunartze, txonitz, ikurrin-onespen eta ezpatadantzari ta gorulari dantzaketeak ixan dira. Arratsaldeko iru ta erdijetan batelen estropadeak egin dira. Itzaldija bostetan asi da, pelotatekijan.

* *Euzkadi*, 1933-VI-30.

Arbeloa'ren abost-jasokin edo "altavoz"ak ipiñita dagoz. Jendez gañezka dagoz leku eta ingurubetako leyo ta sapaloak. Uriarte oleskarijak asijera emon dau; sei bertso bota ditu. Txalua ta santzua baño eztana entzuten da.

Corulari gaste batek itz-egiten dau. Ederto mintzatu da. Eletari ona laster.

"Altzeta", Gipuzkoa'ko mendi-artetik nator —diño— abertzalerik zarrena eta gastiena —Sabin eta Iñakitxu— il ziran Bizkaya maite ontara, Bizkai'ko itxas-ertz ontara. Euzkoen anaitasunatzaz itz dagi. Beñola nekazarijak arrantzaliali lagundu eutsoen legez, gaur arrantzaliak laguntza dagijo gipuzkoar nekazari gaxuari. Euzkotarrai diñotse euzkotarra ezagututeko eztala biarrekua paparreko ikurrera begiratutia. Agertu gaitezana beti euzkuak lez, eta paparrean ikurrik erabili ez arren, arrotzak esan dagijen: "Oneik euzkotarrak dira". Mendigoxaliali diñotse: abenda sendotu biar dogula, ez aztu; txurut madarikatu orrek beste ezek baño kalte geyago egin eta egiten dau Euzkadi'n. Integristatzaz ekin ostian, Aita Santua Erroma'n dagola diño, ta ez Donostia'n.

Goenaga andereñoa izlari. Emakumiak zer egin biar daben. Baita beste guztijok be: euzkotar lez jokatu, euzkera dakijanak euzkeraz egin; euzko-jakintza-arlo guztijak aztertu eta ikasi. "Boicot" Jaungoiko-bako ikastola madarikatubai; Euzko-Ikastola zabaldu eta edatu. Izlari errimia andereño auxe.

Zabala'tar Josu laburkiro mintzatu da. Euzkotar gixaxo batetzaz. Onek abestu leike Benabarra-eresijaren idurikideko au:

"Zorotasunak bai-nerabila
aizean "orbela" bezala..."

Abertzalio erkal-zaletasuna zelakua dan adirazo dausku. España'ko oraingo erkal zakarra eztogu gura iñundik-iñora.

Azkenez, Agirre aldun jaunak bere berbaldi ederra. Gure jatorrija, gure eskubidiak, gure naikunde eta gurarijak. Abendearen gaurko egoera.

España-zale diran eskumatarrei diñotse: Estatutorik, etzenduen nai, laster Alfonso Carlos etorriko zala-ta, eta Furuak errege orrek osoro biurtuko ebazala-ta: Etzenduen nai ixan geure buruba zelabait jaurri edo gobernateko zan Araudi txatxarrenik be. Ta oraingo lagi okerren aurka ta gure aurka zabiltze oraindik. ¿Nun dira, ba, Furuok? Nun Alfonso Carlos, zaldi zuririk be, ezpa'da agiri...?

Euzkadi'ko eskertarrai: ¿Nun dozube guri abindutako autonomi zoragarrija? ¿Nun dira azkatasun eta demokrazi ederrok?

Sabin ixan ezpa'zan —diño— ondatu rik egongo zan betiko gaur Euzkadi, eta euzko-langiliak be, ondatuta egongo ziran.

¡Abertzaliak!: azkatasuna elduko da; ez estutasun larregirik. Erri-jak eztira egun baten azkatuten. Gastiak!: agintarijen esanekuak ixan beti eta gertu ta ernai aginduten dautsubena beteteko. Karlistak euren siñismena eta azkatasunagaitik jagi ziran alantxe gu be, gaur. Sutsu eta gogor Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra'ren alde. Adorez, keme-nez, itxaropenez aurrera, eta ekin. ¡Gora Euzkadi azkatuta!...

Itzaldi eder-ederrau gogoz txalotuba ixan da.

Txapelak eskubetan doguzalarik, Euzko-Abendaren Ereserkija abestuten dogu. Izkintokijan eguan erri-txiñela txapela jantzita eta jezarrita dogo. Soria'ko Sevilla'ren ordezkarija numbait.

Jarrayan, euzko-erromeri alaya ospatuten da.

* * *

Neure errikidiakana batu naz belbileratuteko. Eta jau laskagarrija! euretariko askok erderaz eta erderaz diardube. Eta itzaldijak entzuten eta txalotuten egongo zeranik zer-esanik bez. Onetzaz, urrengo baten idatziko dogu argijago, zorrotzago eta zertzelada gayagogaz. Baña lotsagarrikeri au ezin geinke ixildu. Entzundako itzaldijetatik ori baño onura obia ataraten ez baldin ba'dogu, ez uste ixan egingo dogunik ezer, len baño lotuago geratu eta galdubago egin baño. Ezta ori bide ona. Maketuen aurka egitia errez da, geu gara gu naikua maketo esango ba'gcunke, guzurrik andirik ez genduke esango. Gau au bego urrengo baterako. Oargarrija dalako.

Agur, ondarroatarak: lagun asko bildu zan or igandez. Guk 28 ikurrin zenbatu genduzan. Sapailoetan iñun ez ainbat oyal eder ikusi genduzan. Jai ederra, egun goguangarrija igandekua.

Zorijonak orko aberkide guztijoi; bijotz-bijotzez ¡zorijonak!...

ENDAITZ

TXAKARTEGI'TAR ANDOLIN (G. B.)*

Emoyozu jauna betiko atsedena ta argi iraunkorrak argi egin beyo.

Aberkide bat gitxijago dogu euzko-abertzaliok; mendigoxaliak lagun baten utsa dabe; euzkotarren itsasuan arrantzale bat gitxijago da; Euzkadi'ri seme-zintzo batek betiko agur egin dautso, euzko-etxe baten seme apal, langile eta maitagarrijaren utsuna dago. Negar-zotiña besterik ezta entzuten.

¡Txakartegi'tar Andolin il da!...

Bere bixitzako ogeitalaugarren urtian, hur ori lotuta euken lokarriak apurturik, egazka —uso zurija bai-litzan— egazka juan da aren gogua. Betiraumeko toki bardinbagera, an amaibako egunetan bixiteko. Autsagaz egiñiko etxia jausikoa ixanik, aren goguak ez eban nai bixi goiz edo belutxuago jausi eta apurtu biarko zan bixileku aretan.

Guraso ta anaya atsekabetubok: Ez egin negarrik, negarrak legortu egiten dira-ta; otoitz egizube, errezauegizube bere arimiak Goiko zorijona jadetsi ta lortu daikijan. Eta zubek be, esan bijotzez, beñola Job deunak esandako itz ederrok: "Jauna: Zeuk emona zenduban; Zeuk kendu dauskuzu: ¡Goretsija ixan bedi Zeure Ixen donia".

* * *

Ila bi dira bere erritik Pasai'ra juan zala lanian iñarduteko asmoz. Ara juan baño egun bat lenago, apal-ostian emengo Euzko-Batzokija'n —Andolin'ek kutunen eban Euzko-Batzokija'n— egon giñan izketan eta barriketan. Bere asmuak eta ustiak ziran gure barriketagai. "Mendigoxale-alkondarrea ta makilea be, eramango yuadazak Pasai'ra, igandietan-eta batera ta bestera mendijak-ziar ibiltzeko" alkarri esanaz.

Batzoki'tik batera urten gintzan eta kalian agurtu giñan, ondo ibilteko alkarri esanaz.

—Urrengora arte, ba. ¿Noiz ikusiko ete gozak urrengo? —itaundu neutsan.

* *Euzkadi*, 1933-VII-6.

—Etxakijat, ba— ixan zan aren erantzuna. Ta arrezkero, ez gozak alkar ikusi; arrezkero etxuat ire abotsik entzun; arrezkero, Andolin, ik maite uan abesti au:

Atozte bada, atozte bada,
Ikusi daigun ikurriña;
Geuria da-ta geuria da-ta
¡Gora euzkadi azkatuta!...

ain gogotsu ta yoranez abestuten yuan eure abotsa etxuat entzun. “Etxakijat ba” ixan zuan ire azkenengo erantzuna, ta ondo igarri uan.

...ta Batzokiko ta uriko txoko gustijetara so-egin, begiratu oi dot, eta eztot ikusi soña arrantzale arronta-antzekua ta bijotza aberatsa eban adizkide barru-barrukua.

* * *

Gaitz zakar batek jo eban bere gorputza ta Bilbao’ko Gexotegi’ra eruan bear ixan zan. Jake paparrean iragan urtiotan erabili oi eban ikurra —ikur jeltzalia— ixentaubaz, aren laneko lagun zan erdaldun batek esan ei eutson: “Para ir allá (Gexotegi’ra) tendrás que quitar eso”. Andolin’ek laster erantzun eutson: “Esto lo llevaré yo hasta la muerte”.

Ta alantxe ixan be. Bijaramonean, gorpu zan.

* * *

Ez negarrik, aide ta senide atsekabetuok: otoi eta otoi baño...

“Enintzan jayo ludirako...
jayo nintzan zerurako
ta Jauna’rentzako”.

Ta aren adizkide ta lagun ziñanok a bixi zanian, il-ondoren ez aztu berataz. Otoi, ba.

¡Goiko toki zoriontsu orretan ez adi aztu eure ta nire Aberri gaxo onetzaz!

Ta gure urrengo alkar ikustia, Andolin, ixango al dok, iñoz ez al denduteko, betikorra dan Donokija’n.

Agur, ba, Andolin; laster arte.

ERKIAGA’TAR EUSEBI

JAYAK-JAI*

EUPEME DEUNA.— Igaziriko larunbatez Eupeme deunaren eguna ixan zan. Egum au askok ospatu oi dabe. Geure uri ontan be, Igotz-mendi tontorrera juateko oitureak aztu bage dirau. Mendi-gailur arkaiztsu orretan dago, ba, Eupeme deunaren txauño edo ermittea. Ta egunari dagokijonez guk be, mendi ortara juateko ustia genduban. Len be ixanda gengoan tontor orretan; ez osterá bertako egunez.

Goxian-goiz jagi, bazkal-iskidan pardeltxuba artu ta abijau giñan belbil-tokirantz. Jatorrak oñez juan oi dira; gu be bai len ixan gintzazanean. Baña oraingo aldijetan gustijok gara aurrerapen-zale, bai zarrak eta bai gastiak be. Aurrerapenak ixan be, gixonaren onerako egiñak dira eta bei, urda, oilo eta abar belbiletan dabiltzala ikusirik ¿ainbat nekatu biar ete gara gixonak? ¿Bide-aldi luziak oñez egin? ¡Bai zera!... Sartu belbilean eta beingo baten gara Igotz-mendijaren oñetan.

Bidian giñoyazala —belbilaren barruban eta atsedén gozuan— aurkitzen gendubazan oñez joyazanak; noizean bein zantzo eta uyu-yuren bat entzuten genduban.

Iru ordu laurenen buruban eldubak giñean mendi-oñetara. Belbiletik jatsi ta, oñak apur bat bizkorturik, ¡aupa! aldapan gora.

Utzi dagigun
aldi batekoz
urija;
jo maldak-gora
maite bai-dogu
mendija...

Orra ba, mendigoxale egiñik; euzko-mendigoxale atan be. ¿Ba'dakixu, irakurle, zegaitik diñogun euzko-mendigoxale? Ara: gure adizkide batek esan eban bein, orain aspaldi, mendigoxaliak ikusi ebazala, "guardazibil" jantzita; bai ba, españar mendigoxaliak orretxek dira-ta. Batobatek eztau ziñistu gura ixango; baña egija da. Igotz-

* *Euzkadi*, 1933-IX-226.

mendirra geugaz batera igo eben iru españar mendigoxaliak, iru “gor-dazubilek”. ¿Eztira españar mendigoxaliak ala bai?

Notintza edo laguntza ederra batu zan tontorrean eta beragoko zelayan Eguraldija be gero, alakoxe ederra ixan zan. Eta eskekotan barriz, eskekotan! Ango beste eskale ikusteko be!... Geyenek euzkeldunak ziran-eta, tira, tira, geuk al-genduban ukartxuba onexetari-kuai egiten geuntsen. Aguretxu eskale batek Urkiola'tik etorri zala esan euskun.

Eguberdijan asi zan dantzaketea edo erromerija, zelayan ba-egua-zan kinkileru batzuk be: eunak, zapijak-eta salduten ebezan. Jaki-edarijak be bai salgei baña onein saltzaliak euzkeldunak ziran. “Erre-tratista”k eta paltau bako “barkileruak” be ba-eguazan. Txistu-dan-boliña ta inpernuko auspoak soñulari. ¿Ta zein atsegiñago an ebiltzan euzkotar gastiei? Eztakit ba, baña “tango” eretsi-otsera dantza lotuban edertotxu egiten eben. Dantza lotubau “internaciona-la” ei da-ta, ez ei yako eragozpenik jarri biar, diñue... ¿Zenbateragi-ño galdu garean!... Eupeme deunaren txaumua ikertu, bazkaldu ta arratsalde-erdiruntz menditik jatsi giñean Erromeri alaya amaitu bage itxi genduban. Kankailu batzuk alkondara barik eta barruko motz-motxakaz ebiltzan. Eibartarren “progresoa” edo ete da ori?...

Aulestia'ko Batzokira eldutxu bat eta iluntzian belbilean sartu ta etxeratu giñean. A!... amaitzeko, betiko izpar mingotza. An bildu giñean gustijak —¿erdaldunak eun bai ete?— euzkeldunak ixan arren, gastiei erdel-zalekeri galgarrija susmau geuntsen. Zoritxarreko arrokerija!

ENDAITZ
Lekeitio'tik

IZKI-MIZKI*

Endaitz

Gauz arrigarija jazo ei zan juan dan astelenez. Ixarrak, gabaz, arterik artuteko ei ebiltzan, jolasean lez, batetik bestera eta gora ta bera. Ordu bi inguruban, atan be. Bai; amaika ba-ei eguan estu, ixarren ibilte jolasgarritsubori zantzu edo ikur ona etzala-ta. Ixarren irrada orreik ikur bi-edo, ei ditu: gudea, gerria datorrela edo-ta gixon andiren bat il dala. Eztogu orrelakorik uste. Ixar-dantza bakan ori noiztik noizera, ene bage-edo, ixaten da: eta "ixar orronen (errante) euria" deritxa. Orobat, astelenekua.

* * *

Irrati edo "radio"ren aurrez-aurre, geure Batzokija'n, ainbat notin edo lagun. ¿Zer jazoten da? Ezer bez; España'ko erriketa gora-berak entzuten. Bai ba, zoritxarrez gu be laterri orren menpian egon. Abertzalio itzaldiren bat irratiz egin ezkeru ¿ezetz batu ainbeste abertzale? Ezta; geuk bape igarri barik españar-arra sartuten yaku barnera. Ta bein españazale egiten ba'da gure gogua: ¡guriak egin yok!

* * *

Abertzale batek bestiarri (neuk entzuna): Laster auteskundiak-eta "orain" ba-daukagu lana sendo ¿e? (Neurekiko): "Orain" bai, ta orainarte ez?

Orra irakurle, batzuen ustez auteskundiak dira zeregin bakar. Baña ¿zenbat bidar esan ete da abertzalio lana egunorokua dala, eta auteskundiak garrantzi eskasa daukela guretzat? Abertzaletasuna ezta auteskundiak irabaztia. Zerbait geyago da.

* * *

Iñoren aurka ekiten errez da. Bestiak txartzat etsitia, ariago. Euzkeren arerijo ta erderaren zabaltzale karlatarrak diriala (bardin españazale gustijak), sarri be sarri esan oi dogu. Ta ¿ez ete gara beste orren-beste geu abertzaliok? Euzkeraren arerijo-arerijo ez, baña

* *Euzkadi*, 1933-X-13.

naikua arerijo bai, nik uste. Beintzat erderearen zabaltzaliak, eta ez makalak be. ¿Noiz? ¿nun?

Igazi dan igandez, uritxu euzkeldun batian ixan giñean. Albo-urri nausitxuko gorulariak dantzan ziarduben, galartzu-zintz dantza egiten. Eta alkarrekin berderaz izketan! euzkeraz ekijen-arren. Gernikar gorulariak zirean, baña beste edozein erritakuak ixan ba'lira be, bardin jazoko zan, erdera-zalekeri madarikatuba euzkeldumetaz ija osoro jaubetu dalako.

Onelako lotsagarrikeriak amaitu egin biar doguz. Biar dan beste-ko garrantzirik etxake emoten olako jazoerai, eta zenbat laketubago, ainbat txarrago. ¿Egingo ete gara abertzale oso, ala abertzale erdeltzale irauñ? ¿Noiz-arte?

* * *

Amaitu zan udea. "Basarri" argijak iñuan lez: "Guk, itxas-ertzetako erritxoan bizi geranok, udara bi modutara artzen dogu. Bata da pozgarri, ta bestera negargarri. Pozgarri, goyan diodan guzia (¡Ene udararen ederra!) berekin dualako udarak, eta negargarri, ikusten diran zikinkeri ta nazkagarrikeriak izenik ez dualako".

Aitz labanean txirrist egiten dan lez, udean ugarija ixaten dan zantarkerijan, arrotzkerijan eta erdertzalekerijan txirrist egin eta ondatu dira euzkotar asko.

Euzkerea'k dagokijonez, galtzen-galtzen duala oarturik, bildur be bildur naz zietz galduko ete dan neure erri maite onetan. Abertzaliak: euzkeraz egixube, arren!

Lekeitio'tik

GERO... GEROKUAK*

“Endaitz”

Egunokaz idazle geyenen gaya ezta auteskundietaz idazia baño besterik. Eta geyenak, arian be, gure areyoei euren egitada lotsagarriak aurpegira jaurtikitzeko ta euren galtze zaratatsua adierazoteko. Arerijuok eztira asko lotsatuko egin dituenak aurpegira jaurti-arren, joko-lege orreik eztituez ba oraingo barriak, aspaldikuak baño.

Gure gogaikidiak, ostera, poz-beerak ixan be-ta, abertzalien gurenda ederragaz zoratu edo erdi-zoratuta ikusi doguz asko. Ona da poza, poz zindua ba' da.

Baña oraingo gurenda au aundija dalarik, lenengo mailea baño ixan eztan ezkeru, goguan ixan biar dogu geure elburua. ¡Zenbat dogu egiteko oindiño!—idatzi dau “Aitzol” azkarrak. Egija, ixan be. Asi baño ezkara egin; lenengo urratsak, pausuak dira oraingo gure garaitza oyek.

Naikua dala uste dabe batzuk, auteskunde-aurrian zabalkundia egitia. Ta auteskundiak egin-ostian —ta irabazi ezkeru, batez be—, “jan-trope” batzuk egin eta ziziriko edo “bolabolak” ugari jaurti, ta ¡bapo...! atsedendu urrengo auteskunde-aldirarte. Eta orduan, estu ostera be, egun bakotxian bi edo iru “mitin” izlari berberak egin, eta... arin ibili.

Ta gero, “preskura” ederragaz auteskunde-egunetan izlarijak esan dagijoela entzuliei: “Ez gatoz boto-bila, bijotz-billa baño”... ¡Guzurra! Boto-bila juaten dalako auteskunde-aurreko izlarija. ¿Zer esan nai ete dogun?

Ba, beste batzuk esan dabena, ta geure betiko cretxija: Auteskunde-egun-ostian eta edonoiz egin biar dogula geure gogayen zabalgun-dia; ta ez lan ori utzi auteskunde-aldi aurreko barritsu-egunetarako. Juan gaitazan bijotz-bila boto-bila baño len, ¿Zer deritxazu, irakurle? Arren, oldoztu onetzaz.

‘Ta gaurkoz, naiko da, aski da. Urrengorarte, ba.

Lekeitio'tik.

* *Euzkadi*, 1933—XII—6.

EUZKERA ESITUTA... ETA ERDERA NUN-NAI*

“Endaitz”

ERTXIJAK.— Gure izkuntza ederra galdu-agiñean dala-ta gogotik lan-egin biar dala, sarri be sarri entzun dogu. Euzkerea berpiztuko ba'da, alak eta lerrak egin biarrian garala, euzko gustijok atan be, buruz ikasija dogu. Beraz, zer egin biar dogun, ondotxo dakigu.

Baña, baita be ondotxu dakigu barriketan jardunda eztala ezer lortuten. Eta gaur ikusten dan baño euzkereaganako zaletasun oberik baldin ixango ezpa'da, eztauala euzkereak bururik jasoko.

Aspaldijon “abertzalekeri” larregi baño eztogu nabaitzen ainbat abertzale (?) agiriko-artian. “Ni abertzalia naz, baño euzkerea eztot atsegin”. “Neu be, abertzalia nazarren, enaz euzkeltzalia, euzkeraz nai dodana ezin esan ixaten dot-eta.”

Orrelako “kirtenkerijak” sarri entzuten dira. ¡Eta, jakiña!... Esakunok erderaz esan oi dabez. “Ni abertzalia naz, euzkerea apur bat ba-dakit, baño eztot euzkeraz egiteko erreztasunik”. Eta ¡bai orixe! erreztasunaren jabe egiteko, “erderaz egin beti”. Onelako “jente modua” eurrez aurkitu leiteke abertzale (?) artian.

Orrelantxe dago errija. Eztagigun amesik egin. Egunian baño egunian abertzaletasun otzagua nabaitu daroyagu. Gero ta zaletasun urrijagua bazterretan euzkerearentzat... ¿Noiz jasoko ete dau buruba Euzkerea'k? ¡Izkuntza gaxua, ta aberri gaxuagua!...

Itzaldi aundijetan euzkerea ederra, aberatsa, ta abar dala esanaz, eztogu ezer irabazten. Abertzale-ostiari (pueblo patriota) labankerijak esanaz solik, eztogu ezer jadetsiko. Errijari esan biar yako —erri abertzaliari, alegija— edo-ta euzkerearen alde benetan jokatzeko, edo-ta... abertzale ixatiari lagateko.

Gaur baño, euzkeltzaliagotuko ezpa'da errija, erri abertzalia, Euzkerea, gure izkuntza laztana, ondatu egingo da. Diñozun au larregi esatia ba'litz, poztuko giñake. Baña zantzu onik eztogu susmauten.

* * *

* *Euzkadi*, 1933—XII—30.

Euzko-Alderdi-Jeltzalia'ren iskuntza "oficial" a euzkerea da. Eta ostera, alderdikide-jeltzale-askorentzat, ezta ez "oficial" ez "cooficial", euzkerea ezagutu be eztabe egiten-eta. Eta ezagutzeko alegiñik egiteko asmorik bez, onetariko askok. Orixe txarrena, ixan be. Ta orrelan danian, atxakijak eztabe balijo.

Aspaldi ontan-ija zietz españartu-edo egin be, egin gara-ta-españarren oker ta "defecto" asko geuregan, euzkotarrokan dazauguz. Españarrak ziñesmen-zale porrokatubak zirala, eta guzurra zala, esan daroyagu. Kontuz ezpa'gabiltz, geuri be, urte asko barik beste orrenbeste jazoko yaku, urrian. Españarrak "patriotismo" esaten dabnian barre-egiten dogu, ori be guzurra dabela esanaz. Geure abertzaletasuna be, oraindik aize ta uts bigurtuko ez ete dan... ezta-kit.

"Karlistak" ¿zer egin dabe euzkera-aldez? Ezer ez, erantzun oi dogu euzko-abertzaliok. Eta geure alderdikide askok ¿zer egiten dabe euzkera-aldez? ¡Ezer ez! Are geyago; euzkerea zapaldu.

¡Au zoritxarra!... Iñoren begijan lastua...

* * *

Labur; ona gure eretxija. Euzko-Alderdi-Jeltzalia'ren izparringi "oficial" ean —EUZKADI—, Alderdija'ren izkuntza "oficial" a nagusi ixan biar litzake. Eta orri eziñik, bederen izparringi ontara egorri edo bidaldiriko euzkel-idazlan gustijak argitaldu biar litzakez. Beintzat, lekuri ezagatik baztertu, iñoz bez.

"Egunekua" len lez, orain ile bi-edo arte lez, lenengo ingoskijan, izparringi-leku gurenean agertu biar litzake. Geure izparringi nausijan eta edozeñetan, lerro gitxi ba'dira be, euzkerea buru.

Euzkerea'k laguntasuna biar dau, ez barriketarik...

Lekeitio'tik.

LEKEITIO'TIK*

LAN GORALGARRIJAK.—Gabon-jayak dirala-ta. Emakume abertzaliak biartsubai jaki eta jantziak emon dautsez. Benetako abertzaletasuna urkuaganako maitasunian agertzen da. Egitada ederrak sarri ikusi al daiguzala.

ARRANTZALIAK.—Egunokaz papardo apur bat baño eztabe ekarri gure arrantzale gixaxuok. Orra: ainbeste egunetan juan ez, eta juan diranian, arraña urri ta eskas. Bakar-bakarrik, gosia ta itza ugari.

ANTZERTI-JAYAK.—Urte-Barri egunez antzerti-jai atsegingarrija ixan genduban. "Neskazar" zala ta ezala, jamaika barre egin zan! Antzerlarriak egundo baxen jator egin eben euren lana. Jai au galdu ebenak eztabe edozer galdu. Damutuko yako, bai.

IRU ERREGE.—Egun onetarako be, antzerti-jai bat eralduten diardube. Euzko-gaztetxubak ixango dira antzezleri, eta nagusiren bat be bai.

Arratsaldeko lau ta erdijetan ixango da antzezkixuna.

"Josu'ren Jayotza" antzerki polita eta ikusgarrija: "Luxemendi" jaunarena, eta "Laño eta Izar", ipuin-antzezgarrija. "Lizardi'tar Jabier" euzkel-olerkari bikañarena.

Saneurrijak:

Besaulkijak (butacas), 1,00 laurleko.

Zizeluak (bancos), 0,50 laurleko.

Orokarra (general), 0,30 laurleko.

Orokarra umientzat bakar-bakarrik ixango da. Umien eguna dala-ta, gozokijak-edo agertutia ixan leiteke, baña umientzat solik.

BIJARAMONIAN.—Gabeko zortziretan ixango da Iru Errege-eguneko antzezkixun ber-bera.

Coyan esandako sarpide-txartelak eta gañera, aulkijak be egongo dira. Euren sancurrija, iru errial (0,75 laurleko).

"LAN-DEYA".—Euzko-Langilien Alkartasunak asteoroko barrija atara dau; bere ixena lerro oncin asijeran jarri doguna da: "Lan-Deya".

* *Euzkadi*, 1934-I-6.

Erderaz eta euzkeraz idatzita agertu da. Asko poztu gauz. Geure langile-arazuctan be, beti erabili daigun abertzaletasuna. Eta bardin, bestera be. Abertzaliak gariala-ta, ezta langile-arazuari "erria-manda" egin biar. Bixi luzia ixango al dau asteroko azarri onek.

"EGUTEGI BIZKAITARRA".—Egutegi begikuau aurten be, agertu yaku. Polita da ixan be, eta abertzale gustijak erosi biar leukie. Sei txoriandi dau saneurrija.

E.

LEKEITIO*

EUZKEL-ANTZEZKIXUNAK.— Iru Errege-egunian eta bijarmonian ixan genduzan antzerti-jai bana. Euzko-gastetxubak antzez-lari zirala. “Josu’ren Jayotza” eta “Laño ta Izar” antzeztu zirian. Oso polito antzeztu be. Laguntzeari, beintzat, atsegin ixan yakazan.

Bakaldunen egunian, antzoki-txartela eroyan une bakotxari zorrotxu bete gozoki edo karamelo emon yaken. Bai oneik pozik miazkatu be.

“NESKAZAR”.—Datorken igandez, urtarrila 14. berrantzeztuko da antzerki eder eta barragarri au. Ikusliak edo publikuak eskatu ei dau-ta. Salneurriak lenguan baño merkiago ixango doguz. Ara emen.

Besaulkijak, 1,60 laurleko.

Aulkijak, 1,00.

Zizeluak, 0,60.

Orokarra, 0,40.

ARRANTZA.—Aste onen asikeran besigu apur bat ekarri eben gure arrantzaliak. Ekarriko al dabe, sarri be sarri, onelantxe.

“Euzko”.—Janzki barriz apainduta ikusi dogu geure asteroko azarri au. Guri geuri, lengo janzkijaz atsegiñago. Dana dala, aurrera orañarte baño be gartsubago ta zaratatsubago.

Emen gure uri onetan “Euzko” gitxi be gitxi irakurten da. Lotsagarrija da, baño esan egin biar. Irakurle: zuk beñepein erosi ta irakurri egixu al dozun gustijan. Abertzalia bai, ta euzkeltzalia ez. ¿Zelan da ori? ¿Margarituen modura gu be? Orixe txarra, Manuela, burutik egitia. Jokatu daigun jokatu euzkotarrak lez, ez ganorabakuen lez.

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1934-I-13.

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

“EUKADI” PELIKULEA.— Urrango igandian Otsaila'ren 4'gn. bertoko “Beitia Aretoan” ikusi al ixango da “Euzkadi” ikuskai edo pelikulea. Areto ontan aspaldijon oi dan lez, iru ikustaldi ixango dira: arratsaldeko iruretan, seiretan eta gabeko 8 ta erdijetan.

GOGO-IÑARKUNAK.— Juan dan igandian asi zirian elduko danian amaituteko Miren-alabaen gogo-iñarkunak “Konpañia” ele-xan. On ugari bekijoe.

IRUDIJA.— Euzko-Batzoki'ko aretuan ikusi dogu irudi-lauki ederra. Areitz-ol-lan duban Arana'tar Sabin'en irudija. Irudi-inguruan sei euzko-laterrijan ikurdijak daukaz. Lan ederra.

AGATE DEUNA.— Egunokaz diardue abesti-ikasten mutil aldra ederrak Euzko-Batzokija'n. Entzun doguncz batuko dan txindija onclan bananduko da: erdija Euzko-Langilientzat eta enparaba Batzokija ta mendigoxalientzat. Ba-dakije, ba, aberkidiak.

¡IDIAKEZ!—Gure abendakide gixaxo onen alde zerbait egiteko, Erkal-Eralguntza nagusira eruan dau auzija Gipuzko-Buru-Batzarra'k. Orretarako, baña, esku-artekuak biar eta txindija batzeko “Bilpidia” zabaldua dago gure Euzko-Batzokija'n be. Emokun bakarra: 0,50 laurleko.

Al-dauan edonor emon бага geldituko danik eztogu uste.

¡Idiakez azkatu!...

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1934-1-31.

¡ARATUZTE, IÑAUTERI...!*

“ENDAITZ”

“No temáis que nadie ponga coto a vuestras acciones. Es Carnaval y al amparo de la careta habéis adquirido la plenitud del derecho animal...”

Y es obra fundamental, constructiva, del nacionalismo hacer que imperen en tierra vasca costumbres dignas.”

G. tar Eli.

Ziñeskuntzeak eta zilegitasunek gixonaen egitada oro euren mende artzen ditube. Alantxe, baita be, euzkotarraí dagokigunez, gure egitada guztijak geure abertzaletasun-arabera bediz.

Euzko-abertzaletasuna noizik beñeko zerbait dala uste dabena, oker dagoz. Edonoiz, uneoro geugan bizi dan gogai ta bijotz-eragipena dogu, aberrijaganako ta bere Egiliaganako maitasun au. Ta Egilia, maitatuki uts-eziña bait-da—. Berak egiñiko guztijak be, maitatu egin biar. Orregaitik, maite dogu gure aberrija ta bestien aberriak, beste edozeintzu abendaídiak be, maite doguzalako.

Abertzaletasuna, ba, czta geuk nai dogun aldijetakua bakarrik. Abertzaletasuna beti da beira: urte osuan eta egun guztijetan. Eta geure buruak maite doguzan ezkeru, ta geure gixontasuna ta ixen ona kutun be kutun doguzala ¿zer dala-ta egun batzuetan gure ixakera on eta goralgarri ori ukatu oitura lixun orretan murgilduta?

Edonoren aurrian, alan biarrez, arazorik garratzenetzaz be, aurpegi emoteko gertu gagozala esan daroyagun ondoren, ¿aurpegija estalduko ete dogu biar ixan barik? ¿Zetarako, ta jolastuteko aurpegija estaldu?

Ori egite-czkero, bego urte osuan xomorru. Jolastuteko bere burua etxura-aldatuten dauanagan ¿zer itxaron geinke arazo guren eta aundijetan?

* *Euzkadí*, 1934-II-10.

¿Jolastu egin biar dala gastia? Egija, eztoigu ezetzik esango. Jolastu bedi biar dan lez. Baña jolastuteko lotsabagatu biar danik, eztoigu uste. Ona da jolastutia, onuragari ba'da. Baña jolasketa ori bide kaltia baño lortuten ezpa'da, txarra dogu jolas ori.

* * *

Urtero lez, eldu yakuz aratuzte egunak. Egun alayak eretxi oi dautsegu egun-oneiri.

Alayak, bai, azaleko alaitasun orren barruan eden zitala ezpa'lebe. Alayak, bai, jolastu biarra ta gaste-egunak dirala-ta edo, neurri bageko ta ixen bageko dongakerijak egingo ezpa'lira.

Gure Uskurtza'k egun onetan marmo-egiñik, kokomarro eginda ibiltia galazo egiten dausku. Oitura okerra dalako, obenerako bide dalako.

“Egun bat, egun bat da” —esango dabe au irakurriko daben askok. Ez, guzurra! Egun bat dala-ta, geure ixen ona galtzerik ez geunke nai ixango. Larunbatean baxen gixon agertu nai ixango gara. Auts-egunian be. Ta gixontasun ori geuk geurez baldin galtzen ba'dogu ¿noren gana juango gara, gero, ixen onaren eske?

Ta luditarren arteko gure ixen ona ezer be ezta, gure gogo ta ari miaren ikusijan. Au irakurrik barre-purrustadea egingo dabenak be, ixango dira, aurki. Baña eztago barriketarik. Edota katoliko ixan oso-osuan—beintzat aal-giñuan— edo-ta, kokomarro ixan, eta azke, nai dan lez ibili.

* * *

Aberrija osotu biar dogula oitura ta ekandu txarrak baztertuz, eta ¿abertzaliak ixango etc gara marmorik marmuenak?

¿Jolastu, jolastu bedi euzko-gastedija aurpegija estaldu barik! Jolastu bedi, antxiñakuen antzera, egun argitan, zindo eta garbi.

Benetako alaitasuna garbitasuna da-ta.

·Lekcizio'tik.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*TIK*

ARRAINTZA.—Egunokaz papardo apurra dakarre. Baita sardiña be agertu da. Bekarre ugari.

EZKONTZAK.—Igazi zan astelez eskondu ziran bertoko ertxado-nean Zamora Amias'tar Josune, lekcitiarra eta Perez Iriguren'dar Laurentzi, arabarra. Zorijonak.

Baita be laster ezkontzeko dira —biarba, idazki au argitaldu baño len— Garamendi'tar Jon, itxasgixona eta Egurola'tar Sorne. Urte on askotarako bediz.

ANTZERTI.—Egunokaz diardue antzerki-ikasten Euzko-Batzokija'ko antzezlarijak.

“Gora-Buru” antzokijan urrengo ixango dan antzerti-jaya bertoko Euzko-Langilien alde ixango da. Ori dala-ta; iñoizko lagun geyen antzokijan ikustekotan gazoz.

IÑAUSKETA.—Enparantza inguruko zugatzak iñausten diardue langile batzuk.

SASI-KOIPETSU.—Juan dan egubenia askok ospatu eben egubenzuri. Guk, emen, “sasi-koipatsu” deritxogu. Sasijak, egun orretan, ez eban koipe larregirik ixango, baña batzuk ederto koipeztu ziran.

BARREGARRIKERIJA.—Lengo baten ixenpuru orregaz EUZKADI'n agertu zan idazlana zala-ta, batzu-batzuk barre ederrak egin ebezan.

“EUZKADI” PELIKULEA.—Uri ouetan be ikusi genduban pelikula ori. Ikuslei atsegin ixan yaken.

ACATE DEUNA.—Aurten be, bestetan lez, Euzko-Batzoki'ko eta Euzko-Langiliak ibili ziran abestuten.

Beste batzuk barriz, erbestekuak, ba-crebilen zaparradarik... impernuko auspo ta gusti.

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1934-II-15.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

ANTZERKI-JAYA.— Igandian, otsailaren 25'gn. ixango da “Gora-Buru” antzokijan, gabeko zortziretan. Euzko-Batzoki'kuak eta “Emakumiak” antzezleri.

Jai onetan batuko dana bertoko Euzko-Langilientzat ixango da. Erdu, ba, igandian “Gora-Buru”ra, ainbat lagun geyen. Antzerkija: “Abarua ta babesak” (Protección y amparo). Iru ataletan. Antzezoyalak, be, barriak dira.

GUDARITZA.—Ila onen leneguetan jua zirian gure artetik Gas-teiz'era, España-gudari, bertoko lau mutik gaste. Ainbat lenen euren etxietara biurtu daitezala opa dautsague. ¡Euzkotarrentzat morroitza lotsagarrija!...

ERIJOTZAK.—Egun onecitan ainbat lagun il dira. Natxiondo'tar Bingen eta Ugarriza'tar Erramunda mutil gastiak; eta Mendieta'tar Kuireke, Etxebarrieta'tar Kalista eta Legarra'tar Peli'ren amama. Goyan begoz.

IDAZLE BARRIJA.—“Txiparra” ixen-gordiaz asi yaku emetik idazten idazle barri bat. Ekin, adizkide, aspertu baga.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-II-25.

ERRIJETATIK—LEKEITIO'TIK *

KARAMARRUAK LEZ.—Emengo euzkel-antzeri ikusle-entzulei dagokijenez, karramarruaren ibilkerea ikasi-edo egin dabe. Igazi dan igandian aspaldiko antzez-jai ederrenetarikua ospatu, eta aretua erdi-bete baño ez. Guk iñori ezarri geuntson errua, baña dirudijanez—obeto esan, diñuenez— guria ei da obena. Carixumia dala (“ziñerako”, ez baño) gexo asko daguala, ta... naikua da, naikua da barriketarik.

Axe... gogua gitxi geure gauzetarako; besterik ezebez “Teatru-ra”?... —Bai, “jun dayela ama nai ba'yok”.

Bai, bai, orretzaz “konporme”: emen guztijok gara abertzaliak... bakotzak nai dauana egin ezkeru. Orixe bai! Ai, ai! Amaika gauza esan leitekez, esaten asi ezkeru. Batzuntzat eztago gauza andijagorik “zertuta” dagozanean ¡Gora Euzkadi azkatuta! didar-egitia baño.

IRUZKIÑAK.—Iruzkina erderazko “comentario” dozu irakurle. Igandian “Abaroa ta babesa” antzeztu eban Euzko-Batzoki'ko “Antzerti-Taldia”k. Antzezlarijak ederto bete ebezen euren eginbiarrak. Eztoguz banan-banan ixentauko gaur beintzat, baña. Banabendur gustijetarik nabari zana, eztausku iñork ukatuko. “Joanes” bikainki bixiazko eban. Txalo beruak danontzat, lagun maitiok. Ikuslien bijotzetaraño sartu zan antzerki onen guna. Gurasuak maitatuteko irakaspide bekigu.

Antzeztoki-tayua ta marguak, iñoizko onduen. Ekitaldi-bitartietan abestijak. Eta gustijon bijotzak taupaka. Orra, labur, igandeko jai-goraberak. Urrengo, “Etxe-aldaketa”.

“LARRA-GANE”RI.— ¿Nor zaitugu “Larra-gane”? ¿Arako emendik urrun eztagon urtxu batetik ixen-orde berberorregaz idazten ebana? Entzun dodanez, nik bayetz uste. Zorijonak, ba, eta ekin idazten.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934—III—2.

ERRIJETATIK-LEKEITIO'TIK*

IZPARRINGI-KUTXA.— Gure Euzko-Batzokijan be, ipiñi dabe. Izparringi abertzaliak bein irakurri ezkeru, askok eztabez biar ixaten; orregaitik, biar eztabenak ezpegijez jaurti edo apurtu, kutxa onetara bota baño. Gero, Araba ta Naparroa'ra bialtzeko, ta orrelan abertzaletasuna edatu ta zabaltzeko. Bota ba, izparringiak kutxara.

IDIAKEZ!.—Gure aberkide gaxo onen alde zerbait egiteko ustez, zabaldu zan "Bilpidia", amaitu da. Berrogeta bost laurleko bildu dira uri onetan. Gabeko egunen baten argitalduko doguz emote gustijen ixenak.

ANTZERTI-IZPARRAK.— Ondarroa'ko "Euzkeltzal-Bazkuna-kuak" igaxiriko igandez antzeztu eben "Gora-Buru"n. Lenengo "Itxaro Ixarra", atal bakar, eta gero, "Oleskari bijak" ekitaldi bitan. Osuan begiratuta, ederto antzeztu eben. Jakiña, antzezlari batzuk bestiak baño yayoago agertu zirala; ori betikua da-ta. Osotara so-egiinda, ondo.

Ostetza naikua ixan zan, eta atsegiñez ixan be. "¿Mikel ala Jon?"—itauna ondo ulertu eta adi-adi egon zan korapilo-azkatzia zelan ixango ete zan jakin guraz.

Txalo ederrez, ta "Euzko Ereserkija" abestuaz amaitu zan jai atsegingarrija. Ikusliei, eskarrak; antzezlarijei, zorijonak eta txaluak. Eta orobat, ikuslien begiz ikusten eziranai.

ITZALDIJA.— Urrengo igandian, arratsaldeko bostetan, Gixarteitzaldija (conferencia social) ixango da, Euzko-Langiliak eratuta. Jauregi'tar Juli eta Ariztimuño'tar Joseba, izlari.

"Gora-Buru" aretuan ixango da.

Ez gelditu al dauan iñor bertara eldu baga.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-III-8.

IZKI-MIZKI*

“ENDAITZ”

“Euzkel-Atala” begiko onetako Artezkari jaunak ots-egin dau bariro be, errijetatiko izparrak Uri-Buru-Batzarren ikurratza, seilua biar dabela-ta. Egin-ostian damututia baño oba egin-aurretijaz ondo oldoztutia, esan oi da. Bai; noizipeñian or ibilten dira gure idazliak estu ta larri Urlija idazliak esan ebana guzurra zala ta abar. Atzo bertan oindiño “Txirri” aspaldiko euzkel-idazliak gogor iñarduan “Guzurrari bidera urtetan”.

Ezkaitezan, ba, euzkel idazliok guzurtijak ixan. Egi-zaliak ixan gaitezan; eta orrelan geutzat ixango da oba eta enparauentzat be bai. Beraz, seilau daiguzan errijetatiko geure izpar eta albistak... eta egi-tijak ixan.

JAZORIKUA.— Eta oraintsu atan be. Uritxu bateko antzezlarijak beste batera juan zirian antzeztutera. Eta bete eben euren eginbiarra. Andik iru egunera, eta azkenengo uri orretatik idatzita ba'lego lez, jai aren azalpenak agertu zirian izparringi ezaun baten. Izpar orreik eztatit nik nungo seiluaz jota juan ziran, ezta bape cruan ezpa'eben be. Idazlia, barrija zan, antza. Eztakigu nor zan. “Abo zabal” zana, bai, ostera. Eta antzezlarijak goraldubiarrez, ¿ba-dakixu, irakurle, zer yazo yakan? Antzezlari gaxuak “triskilata” itxi ebazala. ¡Ai, “Talapeko”, arto-bero ixatiak etxakak mesederik...”

* * *

¡Eup, irakurle! Aurten Gazteiz'en ospatuko ei yuagu “Aberri-Eguna”. Ara juan naiko dok, ezta? Asi adi ba; polito-polito, gauzak atonduten. Atzera begira dagonak etxok ezer lortuten. ¿Entzum dok? ¡Ia, ba, jasian gero!

LEKEITIO'TIK

* *Euzkadi*, 1934—III—10.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*TIK*

¡IDIAKEZ!— Aurtemein abindu genduan lez, gaur argitaltzen doguz Idiakez-aldezko Bilpidia'n emole ixan zirianen ixenak. Emokun bakarra, 0,50 laurleko.

Moral'dar Bonabendur, Egurrola'tar Joseba Mirena, Agirre'tar Justa, Telleria'tar Julen, Larreta'tar A., Solano'tar K., Akarregi'tar Gurutz, Ordorika'tar Joseba, Arrinda'tar Todor, Ordorika Ander, Salegi'tar Joseba, Goitia'tar Keperin, Zabala'tar Julen, Barbarias'tar Emil, Koskorrotza'tar Iñaki, Erkiaga'tar Eusebi, Anakabe'tar Damen, Arrieta'tar Bitori, X. X., Ordorika'tar Imanol, Leturia'tar Joseba, Atxurra'tar E., Ertze'tar Andoni, Irigoien'dar E., Akordarrementeria'tar J., Sarasola'tar Anbortsi, Alkorta'tar M., Iturraran'dar Miren, Zabala'tar Eusebi, Ordorika'tar Erramon, Erkiaga'tar Estepan, Barbarias'tar T., Legarza'tar Paul, Zelaia'tar P., Kortazar'tar Urkola, Garamendi'tar Koldobika, Sotero'tar Joseba, Etxeberria'tar Polendin, Orue'tar J., Markes P. Mikel., Malaxetxebarria'tar A., Torraldea'tar Sabin, Torraldea'tar Dabi, Torraldea'tar Erramon, Torraldea'tar M. Terese, Torraldea'tar Karnele, Torraldea'tar Josune, Arriaga'tar Josu, Arriaga'tar Elene, Arriaga'tar Jone, Azpilgoeta'tar batek, Garabila'tar M., Etxebarrieta'tar Jon, Odiaga'tar Domeka, Erkiaga'tar Eupeme, Zugadi'tar Julen, Koskorrotza'tar Mikel, Erkiaga'tar M. Terese, Larreta'tar Kalare, Larreta'tar Agurtzane, Elordi'tar Nekane, Elordi'tar Kolestin, Elordi'tar Gotzone, Etxebarria'tar Domeka, Bengoetxea'tar Jon, Zamora'tar A., Zamora'tar Josune, Urberuaga'tar Domeke, Artolaba'tar Domeka, X. X. X. X, Garcia'tar Julen, Onaindia'tar J., Madaricta'tar Nikole, Solano'tar E., Ansola'tar Bitor, Azkarregi'tar Joseba M., Etxeberria'tar K., Etxeberria'tar Miren, Zabaleta'tar Joseba, Agirre'tar Jule, Jagalde'tar Dominike, Zarzoso'tar Felipa, Bollar'tar Adiran, Sarasola'tar Paben, Badiola'tar Kepa, V. G.'tar A., V. M.'tar J., Etxebarrieta'tar Asentzi, Telleria'tar Andoni. Guztiz 45,50 laurleko.

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1934-III-15.

Gasteiz'en
EUKERARI OMENA*

Beste askoren artian, eldu giñan Gasteiz'era juan dan igandean. Aberri-Eguna ospatutera, jakiña.

Beste gitxiren artian, goxeko amaikak berutxuago Prinzipe antzokijan gengoan, euzkel-antzezkiuna ikusteko asmoz bertaratuta.

Goizeko 11 ta erdijetan —iñuan Egitarauak— “Prinzipe-Antzokian” Euzkera'ri maite-agurra. Ta guk, gure izkuntza laztan dogula esan daroagunok, maite-agur orretan kide ta barruko ixtatia erabagi genduan.

Amaika ta erdijak... ta antzokija utsik. Berrogei-berrogetamar lagun baño geyago ez gengoan. Odola be sutu egin yakun olako lotsagarrikerija ikustian. Iñor bez, iñor bez...

Ta ezta ori bakarrik. Beste au da negargarrijago. An gengoan guztijak euzkeldunak ixango giñan, aurki. Baña gure inguruan batakijen erdera be, beintzat atzerri-elez ederto berotu euskuezan belarrijak. Iguingarrija, euzkeldumon erdeltzaletasun zijo bagea...

Aldija aurrera, ta jaya asi barik. Olakoren baten euzko-aldun batek adierazo euskun antzezkiuna utzi egiten zala... txistularijak entzutera juateko. ¿Benetan be, orregaitik? Eztogu uste. Antzokija erdi bete egin ba'zan—egin ba'zan, au lotsagarrija!—ospatuko zan bai, jaya. Ordu txarra be, ba-ei zan...

Baña, tira. Arratsaldian jederto ospatu zan Erderea'ri maite-agurra...!

Bai ba; erderaz edonok ulertuten dau. Euzkeraz, barriz, geuk irulau “iñuzentek” baño ez.

Euzkerari laster, ez maite-agurra, ¡betiko agurra...!

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-IV-7.

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

“ETXE-ALDAKETA”.— Onezkero ba-dakixu, irakurle, “Euzkeltzaleak” eraturtako “Euzkel-Antzertaldien Batzaldijan” konkursuan, lekeitar antzezlaririk be, tarteko diriala. Ori dala-ta, urrengo domekan jorraila-15^{gn.}, arratsaldeko bostetan antzeztu biar dabe “Gora Buru” aretuan.

Ta antzeztu biar dabena, nai-ta nayeztu lana “obra obligada”, auxe da: “Etxe-aldaketa”. Ekitaldi bakarra. Berau ikusten Donostia[’]tik etorriko dira jaun batzuk. Jaun oneik dira Epai-maya, juraua.

Eta betegarritzat “Txiribiri”; atal bakarra au be.

Jayau labur-samarra (bestien ikusijan) ixango dala-ta, txartelak merketxuago dira oraingoz.

Umiai sarpidia galazotia erabagi dau Batzordia[’]k.

Begoz, ba, jakitun, gurasuak.

Ta zuk, irakurle, jakin egixu “konkurso” onetara amabost “kua-dro” sartu diriala. Ortik sumauko dozu zelako inportantzija daukan domekako teatruak. Eta ordua txarra ba[’]da be —olantsek agindu dabe-ta—, “Gora Buru”[’]ra jua barik ez gelditu, al dozuba.

Badakixu antzezlarijai “animua” emoteko saloya beterik egotia baño gauza oberik eztagona.

¡Ja lekeitiarrak lenenguetarik geldituten garian!...

LARRAMENDI ZANAREN SENDIALDE.—Gixaxo onen senidien alde zer bait batzeko asmoz, “Bilpidia” zabalduta dago Euzko-Batzokijan. Lagundu, abertzale...!

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-IV-14.

LEKEITIO*

ARRAINTZU.—Egunokaz bokarta edo antxobia ugari, parra-parra dakarre. Kai-aldian alaitasuna da nagusi. Arin jentia batera ta bestera arrain-karriuan. Kabanetan be, urduri dabiltzaz lanian. Ori dala-ta, ba, uitar guztijak poz-pozik gabiltza. Ixan be, poztutekua da, gero.

ERIJOTZA.—Igaziriko larunbata edo sapatuan. Intxusagarri'tar Elade andera zar agurgarrijaren cortzia, entiarua.

Laguntza ederra ixan zan. Bere senidiai laguntzen dautsegu atsekabian. Otoi, irakurle. Goyan bego.

ITZALDIJA.—Juan dan sapatuan osakuntza-itzaldi ederra ixan genduan "Gora-Buru" aretuan, gabeko zortzi ta erdijetan.

Arrozpide'tar Jon, Bilbao'ko Gexotegi'ko sendatzale ospatsuba ixan genduan irakasle jaun. Jente asko ixan zan; eta atsegiñez urten be, berbaldija entzun eta aitu ondoren.

Itzaldijori, zetan esan bez, euzkeraz ixan zan. ¡Zirikada ederra euzkera ezetarako balijo eztauana dala esaten dabcn kirtenentzat!...

IGANDEKO JAYAK.—Sendategi-askundia zala-ta ospatu ziran jayak, ona emen labur. Goxeko zazpi ta erdijetan, jaupa edo mezia Antigua'ko Ama'ren altaran. Amabijetan, osategi-onespena, bedin-kaziñoya; arazo ori, bertoko txaunburu agurgarrijaren gain egon zan.

Arratsaldeko ordu batetan, Batzoki'ko baratziari, bazkari ederra "jan eben" ogetamarren batek. Ta ostian, txistu-soñuan bai dantzan ederto egin be. Emakumien auresku, ta abar...!

ETXE-ALDAKETA.—Arratsaldeko bostak eta erdijetan, gure antzez-taldiak jardueban, Gora-Buru'n; "Etxe-aldaketa" eta "Txibiribiri". Batzaldi'ko antzez-lan ori ikusten Donostia'ko "Euzkeltzaleak"-etako jaun batzuk etorri yakuzan. Jaun oneik dira Epai-maikuak. Antzezlarijak alegin egin eben... eta guk eztakigu besterik ezer. Txalo asko irabazi ebezena, bai ostera.

Gabeko bederatzijetan barriro egin zan arratsaldeko antzezkixun berbera. Lagunak, urri, gitxi.

* *Euzkadi*, 1934-IV-19.

MUNDAKARRAK.—Urrengo domekan, ila onen 22'gn. mundakar abertzaliak jatorkuz antzerki-jai bat egitera. Jayau "Gora Buru"n ixango da, gabeko zortzi ta erdijetan.

Erderaz eta euzkeraz antzeztuko dabe "Ama", ekitaldi bi, bakarrizketa bat, eta "Mendibeta'ren larriak". Azkeneko bijok euzkeraz; lenengua gaztelera. Orain ilebete, lekeitiar antzezlarijak Mundakara juan zirianian ondo be ondo artu ebezen ezkeru, geuk bertokuak, mundakarrak ondo artzia bidezkoa dala esan lei.

Ta ondo artze ori saloya betetia da. Badakixu, bai, irakurle. Txartelak, beti lez, Batzokijan salgei.

ENDAITZ.

BIDEZ TA MENDIZ AMOROTO-URREGARAI*

Naikua egun eta ilebetez baztarron jaun gaizto ixan ondoren, Negua'k alde-egin ete daun susmau dogu. Beintzat, arako jantzi zuri garbija ez darakuse mendijak. Eta euzkeldun-supita zar a be, aztu bide yaku egunokaz: "Elurra zurija dala ere, beltza da". Otz-giro'ko soin-jauzki ta gorputz berokiñak zokoratu doguz. A!, bero-arruaren erdu-zantzua!...

Aspaldijon asarre-edo ixana dogu ortzia. Arrai ta argi noiz agertuko ete dan luze-eretxijan gengoanean, "Lizardi" maitiaren aspaldija begi-barru eta zentzunak oro ziar sartu yaku ta...

—Gaur, orra agiri, tarteka urdina...

Sor zait baruan larrera-miña;

ta, aspaldi ez-ta, mendi-aldi.

Bete ditzadan argiz begiok;

eten zain-giar lotuegiok;

bularra asetuz noan geldi.

Goxa da. Astegun buru-zurija; baña alan be, gaurkoz, betaz gara. Egunaz baterako eresaldija amatu eben txorijak. Bazkal-izkija par-deltxuban gertu dogu, eskuan makilea... ta kalera.

Lagun banakak dabiltzaz kalietan barrena. Azokara, plazara datoz baserrietatik etxeoandra maratzak eta neskatila mardo-ederak astotxoan ondolik. Ara, an, kai-aldetik emakume arrain saltzaliak, bizkor ta eragin, auzo-writxueta rantz, astirik galtzeke, abijauteko gertu.

Gure makila-muturrak, ots-dagi beeko arrijak jotean. Ona emen gaurko ibiltaldiko ene lagunak. Ez gara asko, ez. Iru, Lumentxa mendixkaren galurreko gurutzeak ainbat. Iru, ai! aldi luze bateko Igualdegiko iturrijak aña...

Aupa, mutilak!... Bizkortu oñak;

artu makilak, ta urrundu miñak

Abijau gara bidez-bide Amoroto'rantz.

* * *

* *Euzkadi*, 1934-IV-21.

Bake ederra bidietan, ontson zoragarrija mendijetan. Eta aurrera ta aurrera dagigu. Arrupain, "Benta zaarra"... Amila-basetxera elduxe, oar bide-ertzeko il-arijari. Arri-buruan Kisto'ren irudija dauka; eta "Kristo txistua joten dagola dirudi" len entzuna geunkanez aztertu dogu, ta alantxe da. Urtiak-urte nork daki irudi au ospatsu ixango ete dan?...

Olalde —jayoparri ixanik il zan sartagin-oles— Olaeta, Zulueta; toki oyek ziar guaz. Laster, Amoroto elexaldia begiz jo dogu. Euzko-Batzokijan sartu-urtena. Il-erri aurreko bidez Urregarai'rantz azkar ta zailu. Ortzian laño batzuk agertu dira; odei ilunak gero ta arcago. Guk, aurrera.

Orra or "Legardeitz" basetxia. Bertako mutikotxuaz —gixontxo iduri—topez egin dogu.

—Txo, gaur ez az juan ikastolara?

—Ez, martitzenarte kanpuan da maxua.

—Ba'dakik erderaz?

—Ez, cztakit.

—Etxagok ardurarik, txotxo—guretariko batek, larregi be, gero ikasiko dok-eta. Agur!...

—Bai. Agur!... Eta mutiko jator a, ¡bai begiko ixan yakula!...

* * *

Basetxe-ixenak: Arratzike, Odijaga, Anitua an urruntxuago, Tellerija emen, Tellerija-etxetik urre, osin txikija; bertaruntz dator amama zarra ontzi bat garbitutera. Egun on, amuma—gure lagun batek—¿bizkor gabiltz, bizkor? Orain urtebete guk emen sagardaua edan genduan ba...!

—Ixa leiteke —amamak darantzu—. Nortzuk zarie zeuek ba, "mendigoxaleren" batzuk? Orretara, "mendigoxaliak" ibiltzen ei dira-ta...

—Bai, amuma. "Santa Eufemia" rako ustez goyaz ba. ¿Zenbat urte, zeuk, amuma? —Nik? Larogei...

—Guretzako, amuma, urruntxu dagoz urtiok, bai. —Ez jakin, jardetsi euskun berak. Agurtu genduan urrengo baterarte, Urtzi lagun.

·Eta orrelantxe, ixadijaren liburu edegiñan irakurri ta zarren zuritzak eta jakintza-esakunak entzumik ikasten ari gara, ikasten diardugu eta gure bidiari jarraika, azpertzeka, adorez ta gotargitsu.

Likuona, an beyan Ortzeria, emen Gontzolari. Artalde polita aldapa-landan; goyan, egaz andikiro, mirua. Solo-ertzean, beste amona-

txo bat— ai!, bere miutzuak geuria zana gomutazo dausku—iloba-txuak zaintzen. Gugaz daroyagun txakurrari euzkeraz itz egiten dautsagu-ta, amamak, ia txakurrak be euzkeraz ete dakijan, itandu dausku. Aro ederratzaz itz-dagigu, amaitu dan negu luziatzaz. “Aur-ten axe otza nekez paltau ixan da” esakera polita entzun dautsagu eta eztoгу beinguan aztuko.

Urrats batzuk aurrerago eta eldu gara Aldundijaren ikastola-ondora. Oraintsu egiña dogu; emengo inguruko baserritarrak “Eskol-etxia” deritxe. Etxe naiko ederra, pelota toki da guzti. Aurrian, españar laterri-ikurriña; barrutik erdera-otsak urtetan dira eta gure belarrijak minduten dauskuez. Ariago bijotzak.

Eta onetan... ¡kuku! ¡kuku!... aurten lenengoz entzuten dogu, ta ezdiru askorik be, aldian.

Ona emen udabarrija; kerixa-zugatzak apain dagoz; apain lurra- ren azala; arro landara guztijak eta kukua, barriz, bere abesti alaiga- rrija entzun-erazoten.

Gero, Soloaga basetxia, eta... Aizpelar gora. Axeak ba-darabil emen goyon zaparradarik. Eurija asiko ote? Ez, argitxubago orain ostera be, zeru-aldia.

Neba-arreba sendo ta marduak larrabeya oratu nairik. Lenengo begiratuan —iraizez so-egin bai-dautsagu— basatijak dirudija. Baña ez, ez dira basatijak euzkaldun jatorrak baño: mutil azarrija, azal argija, neskatil ederra, kolore gorrija. Agur, bijoi! Asele-notiñak (per-sonajes legendarios) bai-dirudixue!...

Orra, or, begiz aurre Urregarai mendija. Ai, pagadija, beste aldi- jan orriz gaur soil... Mendi oneri askok: Igotz-mendi deritxoe, oker ostera. Len be, idatzi genduan; Murelagatarrak “Urregarai” dala diñooc.

Eguncrdija amaitu zan. Arratsaldian sartubak gaituzu. Eta baita bazkaltzen asijak be. Jan-ostean, Eupeme deumaren txadonaraño igon gara, ta au, orma-kutxan, “buzoyan” ingi-atala, gure oldozkun bat antze idatzita, utzi dogu. Ona, zein:

“Mendi-goyetan axe garbija

geu-bijotzetan su-garra;

¿noiz askatuko ete dogu, noiz,

geure Aberri ederra?...

* * *

Jatsi gara, ta etxerantz abijau. Murelaga an, beyan dakusgu. Emen ikaskiñak zugatz-iñausketan, ikatza-egiteko. “Olarijaga” basetxera jo dogu. Emen datoz mutiko-neskatuak eskolatik etxera. Goixian orixe ikasten jardu dabe-ta, — “Cuatro por ocho” ikasi dozue, itaundu dautsegu. —Bai. —Zenbat dozak, ba? —“Treinta y dos”. —Eta euzkeraz? —¿Euzkeraz? Ba... ogetamabi. —Ori, ori!... guk pozez. Eztagigun aztu. Jaungoikuarren, geure berbetia euzkeldunok!

Iluntzija. Burdijaren kirrinkak eta zomorro-otsak. Amoroto eleizaldia ziar igaro gara geure urirantz.

Gautu da. Bazterretan zaratarik ez. Ixilaren kolkuan gure oiñotsa, soil. An-emenka, argi motel-samarrak basetxietan.

Ixarrak dantzan oskarbijan. Asago, itxas-marrua.

¡Aupa! Elduak gaituzu. Bakotxak bere etxera. Gabon, gabon!...

Eta urena arte, Jaungoikua lagun.

ENDAITZ.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ARRAINTZU.—Polito darabile bokarta gure arrantzaliak. Ori dala-ta, emakume asko lanian dabiltz. Noiz edo noiz arraña ugaritu danian be! Jaungoikuari eskar-zor gagoz.

IBILTALDIJA.—Lengo domekan Kortezubi'ko "gastetxuak" etorri zirian uri onetara ibiltaldija egitera. Tamalez, eguraldi zikiña ixan genduan. Gu, Euzko-Batzokijan gengoan, baña gugana iñor eldu ezan ezkeru, gu be ez iñogana. Ia, ba, "Uso Txorija", besteren baten ezautzen garian. Belu irakurri genduan-ta...

MUNDAKARRAK.—Emen ixan genduzan igaziriko igandian Mundaka'ko Euzko-Gastedija'ko antzezlarijak eta aizkide pilo galanta. Arratsalde-erdijan eldu yakuzan eta gabeko bederatzijak aurretxuan asi eben euren antzezpena, Gora-Buru aretuan.

Antzokija bete zan, ez makalian be, ikustez. Oraingo aldikua "markia" dalako, urrengo baten esango dogu onetzaz zerbait.

Garaiz edo sasoyan iragarri genduanez, mundakarren egitaraua auxe ixan zan. "Alperreko damua", bakarrizketa, euzkeraz; "Ama", Uruñuela jaunarena, ekitaldi bitan, erderaz eta "Mendibetarren larriak" atal bakarra, euzkeraz.

Antzerti-jai orretzazko iritzi-miritzi edo kritikan eztogu jardungo, geuk ba-dakigu zer dala-ta. Ikusliai atsegin ixan yaken, eta batian ixil, bestiak barreka, urenguan txaloka, iru ordu ederto ta pozez igazi ebezan. Ostiari, jentiarri etsegin ixan yakola esatiaz, ordainduta dagoz antzezlarijen neke ta lanak. ¿Ezta?

Orain ilabete lekeitiar antzezlari abertzaliak Mundaka'ra juan zirianian beso-zabal artu ebezan, eta domekan emenguak curekin be beste orrenbeste egin ebela uste dogu. Iraun begi olantxe uri bi onein alkarganako ondo-naya, leen lez gero be.

Gure aldetik be, zorijonak. Baña oar bat bakarra, eta Aberrija-rena. Erderca gure zapaltzalien izkuntzea dala ez aitzu, eta Euzkerrea goguan, bijotzian eta mingañian aal dan edonoiz erabiltia Abertzaletasunaren indar zoragarrijena litzakela, beti ta beti gomu-

* *Euzkadi*, 1934-IV-27.

tan ixan, ¿Noiz ikusiko dogu egun eder ori? Laster, laster... geuk
nai ba'dogu.

Agur mundakar begikuok, eta ekin aurrera "Euzkel-Antzerti"
zelayak ziar. Agur ta goraintzi.

ENDAITZ.

BIAR – BIARREKUA ABERTZALETASUNAREN ZABALGUNDIA*

Etenbako lana da euzko-abertzaliona. ¡Ainbat dogu oraindik egitekotan!... Zabaldutez, zabaldu da bai, era pozgarrijan gure asmuen barrija. Baña, ta gagoz batian beste edonork, gutarrak jakiñe ba, esango leukenez, iñoiz be ezta zabalgunde “propaganda” larregirik egingo.

Zabaldu, edatu eta sakondu abertzaletasunaren uste ta gurarijak euzkotar gustijen bijotzetan ¡ze gauza ederragorik! Lan au, gustijok eta bakotxak egin biar geunkena da. Bakotxa bere arluan, bakotxa bera dabilen inguruetan eta lagun ta adizkiekan. Tamalez, egija esan, eztogu alegin aundirik egiten. Auteskundiak diranian, orduan bai, jo ta su, ija lorik egiteko be asti barik. Eta bitartian...arerijuak ixil-ixilik eta geldi-geldika azpitik lanian.

Eldu auteskundiak, eta “¡urliak uts emon dau, baltzai bota deutesel!” zarataka ibili oi gara. Ori dago ba. ¿Nori botako yeutsak, ba, ezer ezta kijanak? Lenengo jua yakanari.

Auteskunde-egunak baño beremodukuagorik, gitxi. Au zelakua da, beste ori nortarra... Orrek gauzok, lenago; aurretijaz jakin biar geunkez abertzale dan ala ez: eta ezpa'da, abertzaletuten alegindu.

Emen dogu udabarija. Aldijau ixan oi dogu abertzaliok nayen, zabalgundia egiteko.

Poztu bijotzak, bizkortu, ta ekin lanari.

ENDAITZ
Lekeitio'tik

* *Euzkadi*, 1934-V-4.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

EGURALDIJA.—Ointxe edo onduko da, antza. Ia, mayatzian sartu gara! “Etorriko da mayatza, jango doguna lebatza”, diño supita edo esakun zaarrak; bana guretzako, kontixu, ezta elduko lebatzik, Ixan be, len arraiñau ugarijago erabiliko eben gure arrantzaliak, Orain “arrasteruak” nagusi orretan.

ARRAINTZU.—Oraindik be ba-dabil urduritasuna ta poza kai-aldian. Antxobia polito atxitzen dabe.

Ori dala-ta, belbil batzuk ariñegi ibiltan dirala erri-barruan, ta “kejauteko” esaten etorri yaku, “serijo” etorri be, gixon ezagun bat. Ia, ba; agintarijok, larregikeri oneiri neurrija ezarten ba’yake. Jazo ta gero negar-egin baño oba lenagotik kontu artu.

ELEIZKIXUNAK.—Astelenian asi ziran gure Eleiz nagusijan mayatzeko lorak. Naikua lagun juaten da. Geyago elduko ba’litzaz, baña, asko be oba.

ABAROA JAUNA.—Lekeitiar jatorrenetariko bat genduan, Abarroa’tar Paskal jauna. ¡Amaika mesede egin eutson gure uri maite oni! 1825’gn. urtian jayo eta 1890’gn. il zan. Eta aurtan, dagonila edo agostuan, omen eta gorasarrerik ospatsuena egin biar dautsagu lekeitiarrok. Oroigailu edo monumentu eder bat jaso biar dautsagu. Edergarri ori norik egin ta zelakua, aste onetan erabagiko da. Opal-itza edo “dedicatoria” “euzkeraz bakarrik” biar leube, edo-ta euzkeraz ta erderaz.

¿Zer erabagi dozue, ziñegotzi jaunak?

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-V-5.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ERIJOTZA.— Ainbat aldijan gexo egonda, il zan igaziriko larunbatean Atxabal'dar Kepa gixon ezauna. Bere aokura lagun asko erdu zan. Laguntzen dautsegu atsekabian senidiai. Goyan bego.

OLAETAN.—Domeka ta astelenez ixan ziran auzune onetako jayak. Bigantxen perijia eta erromerija. Eguraldijak lagunduta oste galanta ixan zan.

Auzune oneri len, Olaeta barik "Ugane" deitzen eutsen.

IBILTALDIJAK.— Mungia'ko Miren-Alabak ixan genduzan emen juan dan astelenian. Belbil audija bete. Gure uri maite au ikustian atsegindu ei ziran. ¡Aren barre zantzuak Tala'ko gurutza deun ederrari iru bira egitian! Arek "seguru" dauke onezkero... Tamalez baña euretariko batzu-batzuk Tala'ra eldu barik itzali ziran. Oneik, "Ama-ya" eztagoz zuen kofraditik urtetako iraduz, antza dagonez. ¡Erdia!, ori egingo zenduen ba...!

Euren ibiltaldija ta ona etortia guri be atsegin ixan yakun. ¿Zegaitik? Gustijak zirala'ko euzkeldunak eta... euzkeltzaliak. Guk, beñe-pein, euzkel-idazle pilo bat agurtu genduan. Agur, urrena-arte.

JAUNARTZE NAGOSIJA.— Martitzenian ixan eben, oi dan lez, "komuniño-andija", orretarako aurten ixentauak ixan dirianak. Mutiko ta neskato aldrea polita.

ASTERRIKA'RA.—Lengo igandian ixan zan jai aberkoya urrengo domekan, ila onen 27'gn. ospatuko da. Goxian mezia, arratsaldian itzaldija ta dantzaketa.

Aupa...! Asterrika'ra domekan!

E.

* *Euzkadi*, 1934-V-24.

EUZKERIA, EUZKOEN ELIA*

Erkiaga'tar Eusebi'k

LEN-ITZA

Gabon, gustijoi:

Euzko-Gastedija onetan lenengoz itz-egitijan, oraingo Euzko-Abertzaletasun-Pizkundiaren lenengo egunak gomutau gura doguz.

Lenengo ta bein, ezin antzi Arana-Goiri'tar Sabin irakasle maitatzaz. Eta onen lenengo jarraitzale zintzoetaz, be, ez.

Ekaiztsuak ziran egun areitan, ontzi txiki bat, txatxarra ta ezereza zirudijan ontziñoa, itxaso asarratu artan kementsu ta adorez sartu zan. Eta barruko adoria ta oldia baño ezer indatsuagorik lur-ganian ezta-ta, ontzi txiki arek itxaso naasijan jo ta ke! aurrerantz ekin eutsen. Eta orain iñoizko senduen, iñoizko ederren agertuten yaku ontzi bikain a. Ontzi ori, Euzko-Gastedi auxe da, eta ontzigixon areiri, gaur, erakutsi gura dautsegu gure hijotzetiko eskar ona.

Gora ba, lenengo euzko-abertzaliak Irakaslia buru dabela!... Aintza ta eskar iraunkorra eurei.

ABERTZALIAK:

Itzaldi-sail onetako lenengo Jardunketan Azpeitia andera agurgarri ta idazle argiak. "Euzkera aldeztutera nator"—iñuan. Nik, be, gaur, beste ainbeste esan dagiket.

Euzkotarrok geure izkuntzeaganako biar dogun zaletasun eta maitasunatzaz itz-egin gura neuke. Abertzaletasunari eskar, euzke-reak indar aundija artu dau; baño ez biar leuken ainbat; ezta urrik emon be.

Euzkereaganako ardurabakotasun ori, ezta Abertzaletasunaren errua, abertzale askorena baño. Ezta besterik, egin biar geunkena egin бага iztia baño.

Euzkotarrok, eta batez be abertzaliok, "euzkerea erabili ta indartutera biartuta gagoz".

* *Euzkadi*, 1934-V-29.

Gaurko eleketa au, ba, euzkera-aldezko itzaldija ixango dogu. Sarri entzun eta esaniko asmo ta eretxijak beste bein esango doguz. Orregaitik, ba, azketsi orain irakurriko doguzanak len esanak ba'dira. Bein eta barriro gai batetzaz ekitia gogaikarri ba'da be, ezta ardurarik, ezta asti galdurik, guenez, garaitzale ixan ezkeru URTZI'-ren aintzarako eta ABERRIJA'ren onerako.

I ABERRIJAREN OSOTASUNA

Abenda asko dira ludijan. Eta asko diranez, bata bestiagandik bardingiak. Bardingetasun au berezkua da, jatorrizkua.

Idazti deunak irakasten dauskunez, gixaki guztijak gixaseme ta emakume batengandik sortuak gara. Gaur, ostera, eta aspaldidanik arian be, gixakijak gixaki diranaren, batzu bestietarik alde aundija dabe, bai euren gogo-ayurrijai dagokijenez, bai soilik euren soin-tayuai buruz. Gixonen bardingetasun au dala-ta, alkarren antz-antzekuak —gogo ta soñez— batzau ta berezitu egin dira edestijaren aldijak ziar. Gixa-batza berezi oneiri egungo egunean, abendak deritxegu. Abenda orreik eztira gixonak egiñak; euren jatorri-lagiz eraldu dira.

Abenda bakotxak Aberri-bat adirazoten dausku. Eta abendea osotu ta orniduten daben ezaugarri ta oñarrijak, ornidu ta osotuten dabe Aberrija be.

Endea, clia, eralguntzak, ayurri, oitura, ziñeskuntza, lurraldia: orra ABERRIJA osotuten daben oñarri ta agerkayak.

Aberrija, buru-bijotzez maite dogun gure abendea da. Geuria ezian Aberri bat buru-bijotzez maitatuten ba'dogu, aberri-ordezkua ixango dogu, baña Aberrija ez. Asaben errija dogu, ba, Aberrija.

Abendak Urtzi, Jaungoikua'k egiñak dira. Eta gixaki bakotxa, nai ala ez, ain abendatakua da edo-ta beste ain abendaidia.

Jatorriz, onen edo aren odolotikuak garean lez. Geu baitan daruagu ixate au, naiz-ta gero, azarrez aldatu-edo egin.

II BEREIXPIDE BIKANĀ: IZKUNTZEA

Abenda oro gixonak osotu ta orniduak ixanarren, bata bestiaganik bardingiak, berezijak dirala, esan dogu. Egija. Ta abendak bar-

dingiak ixanik euretariko gixonak, abendakidiak be, berezitasun ori ezaugarri agirijen bidez agertuko dabela dirudi. Olantxe da, ixan be.

Ezaupide orreik, ostera, eztira guztijak ain ezaun-errezak ixango, antza.

Esaterako: gixaki bat ikusten doguncan, sarri, "Au, ain endatarra da"—esan oi dogu. Bere soin-tayua ezagutu dogulako, edo-ta arpegikereak adirazten dauskulako, edo-ta bere izkuntzea entzun, ala bere janzkerea oartu ta zein edo nuntarra dan igarri dogulako.

Baña bere oituretaz ezer jakin baga gelditu giñeikez. Lurralde naiz ziñeskintzeatzaz be bai, eta baita janzkereatzaz be.

Abendak euren soin-tankeraz eta azaletiko antzez baño obeto ezagutzen dira euren gogo ta ayurrija ezautuki. Gixonak gogua dauan lez, abendak be, euren gogua dabela esan oi da. Diñogun au, maiz eta sarri entzun eta irakurri daruagu. Eztot uste zuetarik iñor au jakin baga daguanik.

Eta abenda-gogua elia, izkuntzea dala ikasi dogu. Ikasi ta edonork ontzat emon dau.

Ori dala-ta, abendearen ezaubide bikañena elia dogu. Gogua baño berexigai zietzagorik ezer eztalako.

Eta abenda bat ondo ezagututeko, abenda baten ixakera-baitan kide-ixateko, bere izkuntzea jakin biar da, eta bere clez adierazo abenda orren naya, abenda orren ituna, abenda orren zorijona, jabenda orren gogua!...

¡Eta gero esan dagiskueta abendea ezagutu ta maitatu leitekela bere elia ezautzeka! Eta gero oyu-egin dagijela aberri bat goraldtu, aberri bat berpiztu biar danian, naiko dala beraganako zaletasuna, azaletiko zaletasuna!

¿Noiz ikusi da, ba, iñor, gauzak ondo egiten sakonki ikasi baga?

Iñoren gogua ezagutu baga ¿egin ete leiteke, ba, ezer onik bere alde?...

Gogo bageko abendea ¿zer dogu ba, ilotz bat baño?

Eta bein betiko, esan daigun barriro be: Abendearen gogua elia da.

Gogorik eztaun gixona, ilotza, gorpua da. Gogorik eztauan abendea, beste orrenbeste.

III GURE MINTZO

Jardunaldi-asiunian lur-gain abenda asko dirala esan dogu. Abenda orreik guztijak euren ixenak dabez; abenderri bakotzak ba-dau bestietarik ixen berezija, ixakerea be berezija dauanez.

Cu be, abenda bat gara. Ludijaren gane danik antxiñetarikueua; Europa'ko erririk zaarrena, askoren eretxiz.

Abenda bat gara, Aberri bat gara. Euzkuak gara, euzko-semiak.

Eta abenda zaar onek mendiak-mende, gixaldijak-gixaldi, leentan baxen gaste dirau; abenda bikain onek bere aldiko abendaen goraldi ta gurentasunak ezagutu ditu; abenda onek antxiñatiko erri asko bera baxen zaar eta kementsuak, ludi-ziar euren aginpena ta aunditasunak zabaltzen ikusi ebazan; abenda onek, guenez, bere kide ziran abenda ta erri orreik euren aunditasunak ezereztuko mendigailurrenetik arrijaren crori-amiltzia antzo, gainbera lezara doyazela ikusi ditu eta erri arein ixakera zoragarrija betiko ondatuta eta abendak makal eta adorebaga ikusi ditu.

“Euzko-Abenda” bikaña!... Edestijaren ziñaldari ixan zara. Eta aldijak-aldi gaurko egunerarte bixi ta kemenez eldu zaralako, zure semiok iñoiz ez baxen zintzo, eguno ez lez, zure ixakerea “sendo” eta “oso” ikusi nai dogu...!

(Darraike)

EUZKERIA, EUZKOEN ELIA*

Erkiaga'tar Eusebi'k

II

Ba-dogu euzkotarrok geure elia, izkuntza bakarra ta bedegarra, seniderik ezagutzen eztauana. Beste edozein ele baxen ederra, beste edozein ikuntza baxen aberatsa

Izkutza bigun, gozo, samurra. Ele garbi, xalo, eztija. Mintzo jori, aundizuren bardingabia: "Euzkerea"...!

Edestija-ziar abenda-ixena emon euskuna: "euzkelduna".

Geure ixatiaz batera geure barnian daukagun abenda-gogua; gure soña azi ta adimena argituaz, amaren besoetan bularra edoskijaz ikasi genduan elia; gure aurtzaroko aldijetan jolastu gintzazanetan oguzi oi genduan izkerea; geure gastezaroko egunotan kutunen dogun izkuntza.

ABENDA-GOGUA...! Geure Aberri'ko zoko ta bazter guztijak biztuta ipinten dozuzan mintzo ilgaitza; mendi ta baso, aran eta ibar, zugazti eta solo, lats eta erreka, zelai eta aldapa, zubi eta bide, aitzulo eta leza, landa eta larre; uri ta baserri, bizkar eta troka, arru eta gailur, aitz eta muño eta geure "Abixenak" euren gunez ixendatuak doguz; maldetan dagozan basetxe zuri-zurijak—usuak iduri— euganik artuta dabez ixenak. Eta Aberrija'k bere ixena: Euzkadi...!

Guk be, ba-dogu geure elia; eta ele onek gure edesti osua bere barne darua; leen aldi ezaungiak bere bitartez argi eta zietz dazaukuguz.

Euzkerea, euzkoen elia; Euzkerea euzkoen gogua.

Gure bijotzaren lenengo taupadak ele gozo onek eresalduak ixan dira; gure bixitza-ziar gure zanetako odol eta kirrijo dogu. Eta geure ezpanetan lorarik ederrena baxen dogu maite. Izkuntza onetan abestuko doguz geure min eta atsegiñak. Eta bixitza osuan beragaz laztan ixanik beike gure azken-itzetan be, adizkide ta lagun.

"Euzkara, jalgi adi kanpora!" Ator, ator, geure artera; gure artian biar-biarreko aunagu-ta.

* *Euzkadi*, 1934-V-31.

Eta ene abenda-anayak —anaya batzuk, ziñez— burua galduta, adimena itsututa, bijotza olde-baga, eta galbide-ziar doyazela ezesten ba'abe.

“Ez adi beldur, nere Maiteder:
Baserriz landa nai aunat ager-
arazi, bazterrik-bazter,
arrok: ezpaitun ezer
lurbiran ederrik i bezain eder!”
(“Lizardi”)

Maite abela ta baztertu egingo abc; ire kutun ixaki, ta gomutau ez;
“eder” esan, eta ostioperatu nai ixango abe...

“Baña nik, izkuntza larrekoa
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.
(“Lizardi”)

Gure adimenak beste elez argitu doguzala-ta, ire nagusitza eznai euzkotar askok be. Baña gure bijotzetan, Euzkera eder maite eu ixango az nagusi.

IV ELE ABERRIGABIA: ABERRI IZKUNTZAGABIA

Ba-dira batzuk aberrijaren elia ezagututen dabenak, eta lan eta guzti be, aberri ori ez tala Aberrija esan daroyenak. Aberri ori beste Aberri nagusijagoren baten zatija baño ez tala esan oi dabenak. Eta orreintzat Euzkerea euzkoen elia ixanarren, “lengua regional” ereisten dautse, egija baztertuaz. Abenda baten elia, aberri baten izkuntzea “lengua nacional” da, naita batzuek, eurek jakingo dabe zergaitik, ukatu.

Ba-dira euzkotar arrotzaliak euzkera maite dabenak: euzkeltzale zintzuak diranak. Eta oinek maite daben izkuntzeak, eztau Aberri-rik; orra, ba, ele aberrigabia. Ta aberri-rik eztau an elia bijotzez ezin leike maitatu; biar ba'da, buruz yaukala, ederra dalako-edo.

Baña ona Arana-Goirik zer diñuan. “Elertirako, izkuntza yayoa dala-ta Euzkera ederrestia ezta ezer; gure abendearen zindotasun eta ziñizpenaren oñarri dogu.”

Orregaitik, guk, ezto gu maite Euzkerea ederra dalako, ez; geuria dogulako baño.

Ba-dira barriz, beste batzuk, Aberri ori berez dala Aberri, ta ez besteren zati, diñuenak. Egi biribila. Euzkadi ezta ez France ta ez España sorkun-lagiz. Baña Aberri au, askoren lan okerren bidez, Aberri elegabia da. Ixatez —¿zelan ez?— ba-dau bere izkuntz; egungo egunean, oster, eta bere seme askori dagokijenez, eztau elerik.

Euzkuak esaten dabe: Abenda bat gara! Eta arrotzak... bayetz erantzuten dau. Euzkuak diñue: geure ele berezija dogu!... Eta arrotzak —zein zuzenki, geyenez— itaunduten dau: Non dozue ele ori, geuk lez itzegiten dozue-ta? Eta beste elerik jakin be, eztakixue-ta?... Egija ixan be. ¿Nun dozue euzkotarrak, zeuen izkuntza ori? Iru-lau urixkaetan? Ala, bazterturik mendi-aldian?...

“Soy vasco” didar dagixu, eta nun dozu zeure elia?

Zucre Aberrija maite dozula, ta aberri-gogua eztozu maite. Zelan ixan be, ixan bardinbagia? Gure asabak “euzkeldunak” zirala “gomutauteko” soilik, ala?

Iñoiz euzkeldunak erderaka ikusi doguz, ta euren ondo-onduan arrotzak —karabiñero-semiak (?)— euzkeraz izketan. Ona emen, euzko elegabiak eta arrotz euzkelzaliak.

Euzkerarik bagako Euzko-Errija zer litzakian, Jauregi olerkarijak aspaldi abestu eban, bijotza saminduta, onela:

“Euzkal-Erria Euzkerik gabe...

bai erri gaxoa...!

Masti orritsu ederra baño...

matsik gabekoa.

Lorategian il eta agortu

dan iturritxoa...

(“Biozkada”, “Bai Erri gaxoa”).

V

ABERTZALETASUNA:

ARGI TA SU

Euzkotar adimenak edestija ziar, ilundu egin ziran, eta nortzuk

ziran, aztu. Ta euren bijotzetan lehenago garrez eguan txingarra, itzali, amatau. Eta orretara, or dakusgu, oker-bidietan barna, euzkotar gaxuak. Goibeldu zan ortzia, eta euzkuak bidekatu.

Euren barruko txinparta iltzer, eta euren kemena galdurik.

Ta orra euzkuak aul, makal; itsu ta gaxo.

Baña, egun batez—: ja goizaren ederra!— Euzkadiko ortzian agertu zan aspaldi ezezauna zan argi ederra. Eta euzkoen adimenak argitu egin zirian, eta euren bijotzetan leengo txingarra berpiztu zan, eta berotu eta gorritu.

Ortzian agertu zan ixar dizdizari-berua: “Abertzaletasuna argi eta su...”

(Darraike)

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

EUZKEL-IXENAK.— Miren Edurne, Mendieta'tar Erramon ta Etxebarria'tar Pakunde'ren alabatxuari.

Miren Gotzone, Zarragoitia'tar Koldobika'renari. Zorijonak.

EZKON-DEYAK.— Deyetan dabiltz Moreira'tar Kasimir eta Zabala'tar Bitore.

Baita Legarra'tar Jon be. Zorijonak zuei be.

ERIJOTZA.— Domekan ixan zan Algorta'tar Joseba Iñaki muti-kotxuaren eortzitia. Eta astartian Telleria'tar Kandida, Zubieta'ko ortulau zarrarena. Goyan begoz.

ASTERRIKAN.— Alai ta jazian ospatu zirian juan dan igandian jai aberkoyak. Arratsalde-erdijan "txapel-okor" kirtinak zirala-ta, ija "txori-pilua" egin zan.

TXAPELOKERRAK GEITU?— Oraintsu Madrid'en, ez emen, egin daben legia dala-ta, gordazubil bat geyago "tokaten" ei yako Lekeitio'ri. Baña, entzun, irakurle. ¿Ba-dakixu Lekeitio'ri zer "tokaten" yakon? Ba... len dagozan gustijak jospa! emendik urrun bialtzia.

Orixe lortu biar dogu. Asi gaitezlan lanian.

BERMEO'KO JAYAK.— Bagilaren 17'gn. ospatuko diran jayetarako belbil aundi bat artunda dauka Batzokija'k. Juan gura dauana bizkor ibili bedi. Txartela bost laurleko juan da-etorri. Ija salduta dagoz gustijak.

BIDARIJAK.— Ile bi kanpotik eginda etxeratu da Izagirre'tar Eusebi, sendatzale jauna. Ondo etorrija.

Udea igazteko asmoz emen doguz Orue'tar Joseba Mirena ta sendija.

Gure artian atsedendu ondoren ontziratu da Garamendi'tar Jon itxasgixona. Baita Elordi'tar Augustin, be. Ondo ibili itxasuak apur-tzen.

"UGARAN".— Azkenengo idazkijan Olaeta'ren ixen zaarra "Ugane". dala giñuan. Baña Ugane barik "Ugaran" da. Ugaran, umaran, ur-aran, erderaz valle, vega.

* *Euzkadi*, 1934-V-31.

ABANDOTARRAK.—Urrengo igandez, bagila-3'gu. Sabin-Etxia'tarrak yatorkuz. Emen bazkarija, dantzak eta itzaldija ixango dabez. Itzaldija euzkeraz ixango dala uste dogu, ezta? Bai, bai, emen eztoгу biar erderarik.

E.

EUZKERIA, EUZKOEN ELIA*

Erkiaga'tar Eusebi'k

Geroztanik, abertzale gara argija maite dogulako; arrezkero, abertzale gara maitetasuna kutun dogulako. Gixonen artian gentza ta bakia nai dogulako. Gixaki guztijekan anaitasuna nabaitu gura dogulako. Abenda guztijentzat, gixon guztijentzat lez, azkatasuna nai dogulako. Aberri orontzat zorijona opa dogulako.

¡Bakia, azkatasuna. Zorijona, orain eta Betirako!...

IV

EUZKELTZALE, ABERTZALE GARALAKO

Aberrija zer dan eta zerk osotuten dauan, azaldu dogu. Abertzale-tasuna aberri-zaletasuna da-ta, aberrijaren ezaugarri ta oñarri guztijak maitatutia da. Maitasun agintza-bidez agertzen da.

Abertzaliak bere elia maite biar dau. Edo-ta ezta abertzale osua. "Euzkerea eztakijan abertzalia, euzkeldun-egingo da. Ostera abertzalia eztanak, euzkerea baztertu egingo dau." (Arana-Goiri'tar Sabin).

Euzkoak, lenen galdu eben abertzaletasuna; gerorantz, euzkeltzaletasuna. Eta orain lenen abertzale egin gara-ta, euzkeltzaletu gaitetzan aal dogunik lasterren.

Eliak bizitzea nai dau; leen zala esanaz ¿zer aldeztu daruagu abertzaliak? Leen ba'zan, gaur be ixtatia, zijo aundijagoz gura dogu. Euzkadi gure aberritzat ezagutu ta autortuko ezpa'geunke, bere eliaz ez geunke ardura andirik ixango.

Euzkotar asko ainbat urtetan abertzale dirala ¿eta euzkera ikasten be, asi baga? Ta gordiñago dana: euren umiak erdeldunak? Eta ziur-ziur, euzkel-ixendunak!... Negargarrija da euzkotarroijazoten yakuna. Gertacra lotsagarrijok amaitu daitezana, argi eta zorrotz itze-egin biarran gagoz. Euren semiai, aal ixanik, euzkera irakatsi-erazo eztautsen gurasuak, aberri-ondatzale dira ta ez abertzale.

* *Euzkadi*, 1934-VI-1.

Gaste askok neguan gogor jarduten dautse euzkera ikasten. Eta ¿zegaitik gero, udan, euzkeldun-urixuetara doyazenian euzkeraz ez nai-egin eta txarrago doguna, zegaitik erdereza zabaldu, euzkeldumai erderaz itz-eragiñaz? Ala ezta kije azkenengo urte bi oncitan, udan ija ez tala entzun be egiten euzkerarik Bizkai'ko uri euzkeldumenetan? ¿Eztabe oartuten gaurko jokabide okerrari jarraitutezkero, laster ez tala euzkeldumik ixango?

“Eztozula maite Euzkerea diñostazu, ezertarako gauza ez talako. Baña ¿ezta Euzkerea zeure abenda ta odolaren elia? ¿Ezta zeure Aberri-jaren izkuntzea?... (Arana-Goiri'tar Sabin).

Euzkerearen erdi-arerijo geu ba'gara, ¿zegaitik odol-berotu gure elia arrotzak iraindu ta laidoztuten dauanian?

Arrotzak baño obiak garala esatia, geure asabak orrela zirala-ta, ezta ezer. GEU ixan biar gara, geu, oraingo euzkuak gure asaben oker guztijak zuzendu, euren egitada onak guretzakotu, ta gure ondorenguai, oñordekuei bide oso ta jatorra jaraunsi biar dautsaguenak.

Eguneroko Aberri-aldezko gure jarduna bedi gure agerkai ta egi-taraurik onena.

* * *

Arana-Goiri'tar Sabin jayotzetiko erdelduna zan. Baña euzkeldun egin zan, eta euzkerea maite eban. ¿Zegaitik? Abertzalia zalako.

Euzko-Alderdi Jeltzalia'k be, bere izkuntza “oficial” euzkerea dau. Eta agindu ori egiztautia alderdikide guztijoi dagokigu. Gure agintarijak euzkera jakin biar dabe. Baña ez agintarijak bakarrik, guztijok jakin biar geunke.

“Euzko-Gastedi” onetako “Euzkeltzale-Bazkuna” goralgarrija be, euzkereari indar-emon gurarik dabil. ¿Zegaitik? Abertzalia dalako.

Euzkerea berpiztuko ba'da ba, euzkotarren alegiñez ixango da.

VII

ERDEREA IKASIJAZ, EUZKEREAZ BAZTERTU

Euzkeldunok orixe egiten diardugula dirudi. ¿Zetarako euzkera?—ezespenez diñogula, esan lei.

“Gerèn aitonak ta gure Erria maite ditugu nolaz ba, maite ez euzkera...?”

Gerok, gure eskuz ustekabean gure ilobia ai! egiten ari gera”

(Jauregi'tar K. “Biozkadak”)

Geuria dogula Euzkerea, ta bera baztertuten geuk diardugu. Ez aundikijak, ez jakitunak bakarrik; eurrez, edonok-edonok be bai.

Jayotzetiko euzkeldunak erdereira iraezez —barregarriro biarba— ikasi dabela-ta, ¿eztakusguz, ba, geure egunotan erderaz otoi-egiten?

Eleiz-idaztijak euzkerez erabilten ebezan erdera ezekijen gure gurasuak. Gaur, guk, erdera apur bat ikasi dogunerako, eztarabilgu euzkel-eleiz-libururik erderazkuak baño.

Euzkotar askorentzat euzkerea ezta hape onuragarri. Euzkeldun batek beste bati euzkeraz idatzi gura, eta bestionen crantzuna: “Ez egin niri euzkel-idazkirik eztot ulertuten-eta...!”

“Eztautsazue irakasten zeure semiai, gurasuak zeuri irakatsi eutsuen elia? Zeure semiak zeure gurasuakin ez ulertutia nai dozu ala?... (Arana-Goiri'tar Sabin).

* * *

Erreztasunik ez euzkeraz mintzatzeko, erderaz ikasijak dirala-ta. Bai gu be; baña gatxago ixan arren be —ta sarri errezagoba baño ezta— euzkeraz jarduten dogu alegiñak egiñaz. Abertzaliak garalako!

“Ta guk ere, beroyetxek bezela, ikasi dogun guzia erderaz ikasi dogula nabaitu gabe, guk ere erderaz eurak bezin errez ta gai askotan euzkeraz baño askoz errexago egiñaz genukela nabaitu gabe aberriagatik “burua” emango lutekenak, ezin diote “mingañik” ere, eskeñi.” (“Euzko”, “El Día”n.)

Erderaz ekitiarren “¿euzkeraz eztakit ondo!” —esan oi dabe askok. Eztago ondo jakin biarrik: aal giñuan edonoiz egin, eta ikasiko dozu. Ganera sarri, euzkera ez jakitia, guzurra ixaten da. Jakin bai, baña ez egin gura...

Arrotzaren jopu gara: ta arrotzagana eukerca-aldezko erabagibila, ta geu euzkera zapalduten edonoiz, edonun eta ¿euzkeldun-artian erderaz jardunaz...!

Euzkeldun ikasijak, geyenez, erdeltzale biurtu oi dira. ¿Ori ete da jakintza? Ele eder bat deuseztutia ¿kultura ete da?

Gure aldijetan, erromeririk euzkeldumenian be, erdera ugarijegi entzuten da. Ta jakiña! erderaz batera zabaltzen da dantza zikiña.

Orain urte bi edo, irakurri noban, itzaldi baten zer jazo zan. Izlarijak “Aberkidiak!” oyu-egin eban, eta ostetza ixilik, tentel. Gero, erdelizlarijak “Compatriotas!” didar-egin ebanekoxe, ostetza osua urduri, arretaz, adi-adi, yoranez... (!) Bai kirten asko leku baten batu be!...

* * *

Mendijan sendo dirauala gure eliak? Bai, baña ez uste laster gaur lez ixango danik, oraingo euzkera-baztertze au baldin zietz amaituten ezpa'dogu. Ta ganera Euzkerea ¿menditarrentzat bakarrik gura dogu, ala?

Ez, bestera baño.

Euzkel-iragarkijak zabaldu biar doguz saloi guztijetan. Erki ta uri ta txaidien ixenak, be, euzkeraz jarri. Salerosketa-txartelak eta edonungiak be, euzkeraz egin. Eta izparringijetan indartu euzkerea: euzkel-errijetako izparrak gure izparringijetan euzkeraz bediz. Erderaz baño sarrijago ta ugarijago, bai beintzat.

Izparringijak eurak be, euzkeldunagotu, erdera moztuaz. Onela diño euzkel-idazle argi batek, gure izparringijetako euzkera baztertziaz: "Aurreko ingoskijetako euzkreatzazko goralpenak, "kanposantuetako" oroitarrijak dirudija. ("Zapel"). Egi aundija, ta erregarrija.

Geure aberrijaren zapaltzalien izkuntzea maitatu eta darabilgu... ¡Eztogu lotsarik!...

Euzkerea berpiztuko ba'da, gaurko indarra eztau galdu biarko, gure eretxiz, bestela ¡betiko ondatuko da Euzko-Errijarentzat!...

Zaindu daigun ba, Euzkerea, eta indar-barritu daigun.

Euzkeldundutzia lan gatxa dala? Ez geuk gura ba'dogu!...

VIII

"JAGI ETA ABIL", JARE TA OSO

Azkatasun-bila goyaz euzkuok, abertzaletasun-bide neketsuaziar. Lenen, gogo-askatasun bage nardagarri da soin-azkatasuna. ¿Ba ete gara azke ixateko gai?

Nun-nai ta edonoiz abertzale lez jokatu gura ba'dogu, zer garian, zer nai dogun eta zergaitik, artez, zintzo eta zietz jakin biarrian gara. Azkatasuna arrantzaka eskatu, ta arrotzai didar-egiteko baño zerbait jatorrago ta egikorragerako ixan biar dogu geure adimen-bijotzetako abertzaletasuna, eta geure adore ta kemena.

Gure eritxiz; euzkera galtzen ba'dogu, eztoqu euzko-gogorik berpiztuko, ezkara azkatuko.

Izkuntza galdu-orde-gogua; alegija-iadetsiriko azkatasuna, garestijegija ez ete? ("Irular"). Ixan be; iñoren goguaz, arrotz-goguaz ¿zetarako azkatasuna?

Eztaigun aztu; abertzale ixatia oñaziak-oñaze jasatia da. Maitasuna da; buru-eskaña, lorra, nekia, egunoroko lan asperbagia. Abertzaletasuna ezta barriketia, ezta nagikerija.

EUZKERIA, EUZKOEN ELIA*

ERKIAGA'TAR EUSEBI'K

"Prakak eztabe egiten gixona"; ezta euzkeldun-jantzijak be, euzkeldunik. Euzkotar zindua ixateko odola ta gogua biar dira ixan.

IDIAKEZ ta Euzkera-aldez gure emokuna ornidu ondoren, leen lez, erdaltze asko be asko. ¿Ez ete da Euzkerearentzat gorasarre obia geure bijotz ta ezpanetan bera aal dan edonoiz erabiltia?

Ganera, euzkeldumak baxen argirik ezta iñor, ezta "Txerrena" bera be.

* * *

Ikusi zer yazo yakan, euzkera ikasi eziñik. Ara "Daranatz" en ahapaldi onetan argiro azalduta:

"Ezkual-herrirat "omen" jautsi zen deabrua

Ezkuara ikhasteko, kechurik burua.

Zazpi urthe egonik joan behar izan zen,

"Ez" eta "ba" doidoia zielarik zuzen".

* * *

Euzkadiren azkatasun eta zorijonarentzat bere ixakera jator, zindo, osua bedi oñarri. Erdizka, ondamendija besterik ez.

¿Nork galazoko dauzku euzkeraz egiten? Iñork bez, geuk nai ezkerro. "Euzkera bako Euzkadi, oraingo lokarrietatik azkatuta balego be, "benetako Euzkadi danik elitzakigu begitanduko", berria eztan atzerriko elez jantzita ikusiko gendukelako." —("Uribitarte" tar Ibon".)

¡Ikasi, ikasi edozein izkuntza, baña emen, gure Aberrijan eta euzkotarren artian Euzkera bedi nagusi...!

IX

¡Euzkaldunagotu Gaitezán, Aberrijarren!...

Aberrija azke ta oso ikusi gura dogu. Orregaitik, osotuten alegindu biar gara. Erabateko lanik eztoгу eskatzen apurkakua baño. Ezin danik eztoгу eskatuko.

* *Euzkadi*, 1934-VI-2.

Izkuntzea abendaen berexibide bikaña; guria ariago, bakarra dalako.

Abertzaliak gara, ta geure eliatzaz gaurrate baño ardura andijagua ixan daigun. Bestela, onela jarraituki Euzkerea il egingo da, zalantzarik bage.

II?... Zer dala-ta? Ai! Negargarrijagua dan aunexagaitik: "Baldin Euzkera ilten ba'da, "abertzalerik ezalako ilgo da" (Arana Goiri'tar Sabin).

Euzkotar erdeldunak: ikasi, arren, ta erabili euzkerea. Abertzale euzkeldunak: ez galdu arren amagandik ikasi zenduen elia. Erabili edonun, Aberrijarren!, gure arbasoak ain maite eben Euzkera kutuna.

Uritxu euzkeldunetan ¡zein eder udazaliak euzkeraz mintzatzen!

Euzkel-iragarkijak noiz indartuko ete doguz?

Gure Euzko Batzokijetan "Euzkeraz itz-egixue", zetarako dogu? Eztakigu, ba, zer diran aberri-etxiak?

Euzkel-Batzoki batetik bestera MUY SEÑOR'ka, noiz arte? (Uzturre)

"Euzkeldun errietan, itzaldiak euzkeraz bear dira; antzerkiak euzkeraz ere; euzkeldunetan euzkeraz bakarrik. Ala balitz, etzen gertatuko oi dena; abertzaletasunaren aitzakiarekin sartzen dela euzkeldun errietan, iri andietikako gazterien eta mintzalarien erdera." ("Irular").

* * *

Erri bat gara; abenda bat; zintzua, sendua, gogo ta soñez jatorra.

Alegindu gaitezán, ba, bakotxak bere lana egiñik, ludi osuaren aurre, geure egitaden bitartez gure abendea, dagokijon leen-ospe ta beti baxen jator agertu dadin.

Europa ta ludiko guztijak esan dagikijen: Euzko-Errija ezta il. Eguno baxen yayo ta bikain agertzen da bere azkatasun eta zorijon-bila. ¡Aintza abertzaletasun benetakuari: asarre-gudurik eta agintarikeririk gura eztaunari! ¡Aintza bake-zale dan Abendeari! Txalo eta goretsipena erri guztijentzat eta gixon guztijentzat azkatasuna ta buru-jaubetasuna opa dauan abertzaletasunari!... ¡Goraldú eta maitatu Jauna'gandik artutako edertasuna Berari biurtu nai-asmoz sortu zan Euzko-Abertzaletasuna: URTZI TA ABERRIJA, UZKURTZA TA AZKATASUNA, JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZARRA...

* * *

“Ez dezagun euzkeldunak yostagailutzat artu gure elea: ezta izan bear gure aldizkingietako apaingarri bat bakarrik. Izan bear da “bidea”: gure asmo, gure nai, gogoeta, gertakizun, atsegiñaldi, atsekabe eta geure maitasunen “erakusbide bakarra”. Orduan gure aldizkingiak euzkeraz agertuko dituzte euren lanak, guztija ezpa’da ere, eta euzkerazko oriek izango dira bizienak eta jakingarrienak.” (“Iru-lar”).

* * *

Gure Aberriko mendi ta zelai zoragarriak, udabari bixigarrijaren musu maitati beruak erazota, janzki barri apañez janzen diranian, jantzi gaitazan gu, euzkotarrok be, geure janki zaar-barri ta ederra-gaz, Euzkera laztan gaxuaz.

Maitatu daigun gure arbasoen elia, maitatu daigun euzkoen gogua.

Ixan gaitazan abertzale ta euzkeldun.

Eta amaitzat, entzun Urkizu-mendiko euzkel-olerkari bikain eta abertzale purukatua zan “Lizardi’tar Jabier” maitiaren itzok. Entzun, eta sartu beitez zeuen bijotz barru-barruraño, iñoiz be, ez aztuteko.

“Euzkeldunak: euzkeldunagotu zaitezte, ta zuen kanta zaarrekin batera irauin beza euzkera zaarragoak egunen azkeneraño!”

(Lizardi “Laño eta Izar”).

AMAYA

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

LARRAMENDI ZANAREN SENDI-ALEZKO BILPIDIA—Moral'—dar Bonabendur, 2 laurleko; Egurrola'tar Joseba M., 2; Zelaya'tar P., 2; Atxurra'tar Errupa, 1; G.'tar M., 5; A.'tar M, 3; O'tar Joseba, 1; Erkiaga'tar E., 1; Elordi'tar Nekane, 1; Goitia'tar Keperin, 1; Julian G. A., 1; Etxebarrieta'tar Jon, 2; Sarasola'tar Eulogi, 1; Kortazar'tar Kauldi, 2,50; Zabala'tar Julen, 1; Koskorrotze'tar Mikel, 5; Euzko-Batzokija, 15; Agirre'tar Mari, 1; Akarregi'tar Gurutz, 1; Arrinda'tar Todor, 0,50; Bollar'tar Adiran, 1; Leturia'tar Joseba, 0,50; Erkiaga'tar Estepan, 1; Agirre'tar Justa, 1; Barbarias'tar Emili, 1; S.'tar Julen, 0,50; Goikoetxea'tar Luki, 0,50; O'tar J., 1; Etxeberria'tar Kasilde, 1; Larreta'tar Albontsa, 2; Solano'tar K., 5; Jayo'tar Pilare, 0,50; Onandia'tar Jone, 0,50; "Emakume batek", 1; Sarasola'tar Anbortsi, 0,50; Urkiaga'tar Kelda, 1; Emakume-Abertzale-Batza'k, 15; "Galletas Arriola", 2; Sabutajon, 1; Barbarias'tar Jon, 1; Legarza'tar Paul, 0,50.

Guztiz, 85,50 laurleko.

E.

* *Euzkadi*, 1934—VI—6.

EZTALAKUAN-BAIDALAKUAN*

“Mucho nos agrada esta tendencia que sale de tratar en euzkera temas inocentes que siempre (?) se concretan en la defensa del euzkera o de la patria únicamente.”

(EUZKADI.)

Igazi dan asteko barikuan irakurri genduan izparringi onetantxe, gorago berridatzirik dakuskezuna. Eta oldozkum bikotxa beinguan bururatu yakum. Ona, ba. Baldin ori idatzi dauana “euzkelduna” ba'da, eztogu ezer berezirik esan biarririk; diñuana, tamalez, maiz eta sarrijegi jazoten dala, bai.

Ori idatzi dauana euzkelduna ezpa'da, ilargijari zaunkeka asi dala esango dogu. Ta ezta ori esatia bakarrik merezi dauana. Ixan be ¿Zetarako jardun gai jakintzatiarrak euzkeraz azalduten baldin entzuten dagozanak euzkerarik ezpa'dakije? Izkuntzea bera iñork eza-gutu ta maitte ezpa'dau, ¿zetarako ele orretaz idazlan bikañak eta itzaldi sakon-apañak egin?

Euzkeltzale-talde txiki ta ezerez-antzekuari ¿zer dala-ta lan osuak eta ederrak eskatu, norberak ele ori ezagutu be ezpa'dau egiten? Ta ezagututera biartuta dagon lez egonik?...

* * *

Nagosija da gure kontua. Aberrija euzkera ta guzti aldeztu nai, ta geyenak “or koupon” esanik-edo ezer ez dagijen bitartian, guk, bazterretan ganora eskasa susmauten dogula, ele aldez ekin... eta beti (?) gabiltzala gai “iñuzentiari” zirika entzun biar...

Ija ilian dagon izkuntzeak maitasun-apurra baño eztau gaur nai. Larregi ez (?) apur bat, eta gero ta ariago.

Guk maite dogu euzkerca. Ez gara jakintsuak. Beraz, aal dogun edozertxu—ezer gitxi, tamalez—egiten euzkereaz diardugu. Euzkere-aganako maitasunik nabaitzen eztogulako, ta beste gai sakonetzaz ekiteko gauza ezkaralako. ¡Aberrijarren! gure eliaganako maitasuna aal dogun edo-nogan erein ta landu gurarik gabiltz.

* *Euzkadi*, 1934-VI-8.

Beñola guk idatzi-itza, orain erderazko idazkai baten irakurri dogu. ¡Gu bai... euzkeltzale “iñuzentiaak”! Ta gayak be orrelakoxiak oi doguz: “iñuzentiaak”.

Naikua da, aski da.

Baña, num doguzala euzkeldun jakintsuak? A...! Oein lan txairuak erdel-orrijetan ikusi daikeguz. An ekingo dautse euzkerea erderaz goralduten.

Ta gero, negartijen kofradijak-eta esaten dabez?... ¡Gagozan ixilik!...

Laster abestuko dogu, antza dagonez, arako:

“Betiko (?) agur-egiten natorkin, ene maite...!”

ENDAITZ.
Lekeitio.

V'gn. EUZKO-OLERTI EGUNA. BIJAR, ZARAUTZ'EN*

Oraindiko gure lan gustijak arren, euzkotarrak buru-lanetan erdi asi-barriak gaituzu. Geure elez, alegija. Euzkotar jakintzu geyenak erbestetar izkuntzaz sortu ta apaindu daroez euren idazti eta lanak.

Eta esanak esan, gaur be zelako nagikerija darakuse gure jakitunak euren arazo ta zeregiñak euzkera bidez azaltzeko! Guzurra dirudi euzkereatzako euren aburuak. Gure mintzo gaxua ain naro ta ugarija dala noiznai adierazo eta... iñoiz be ez erabili gura eurek ain zuzen eta zietz ezagutu arren.

Maitasuna egintza bidez—ez barriketakaz— agertzen dana, argi ta garbi dakigun egija da. Orregaitik ba, gorago idatzija irakurri ba'dozu, irakurle maite, geugaz batian auxe esango dozu. Euzkerea eurak —jakitunak— ezagutzen daben lez ezagutu eta euren autorpeñez ain bikaña ba'da—guk baietz uste—euzkeldunen izkerea, ta eurek beti erderaz jardū... jakintsuok euzkerea eztabe maite.

Bestela elitzake jazoko gure egunotan bijotza minduta edonoiz dakusguna. Noraño jausi garian!...

Gure euzkel-izparringiak baño argitalgai kaskar eta biartsuagorik gitxi ixango da bazterretan. Euzkeraz soilik idatzijak ala erdel-aldizkari euzkel-orridunak. Euzkoen eliatzaz ala erdel-aldizkari euzkel-orridunak. Euzkoen eliatzaz ainbeste goralpen egin ondoren orri-landerrok ikusiki, zearo lotsatu eta aurpegiko narrua be gorrituteko aña. Onetzaz esan doguzanak esan ostian, eztakigu geyago zer idatzi be.

¡Ia ganera entzuten doguzanak entzun eta irakurten doguzanak irakurri biar!...

Gauza bakanik ba-da lur-ganian... Euzkeltzale gustijok euzkerea galdu-agiñean dala-ta, bere alde estu ta larri alak eta lerrak egiten diardugun bitartian, erdeltzale buru-ariñak euzkerea eztala ilgo pozez esaka eztira aspertzen. Euzkeltzaliok buru-lausoaz gabiltz, antza. Guk etorkixuma ilun dakusgunean, erdera-darijolako... zorijontsuok, guk baño beste modutan susmauten dabe euzkerearen gerua. Ai, eurek diñuen lez ba'litz! Orduan bai txalotuko geunkezala erdelzaliok!

* * *

* *Euzkadi*, 1934-VI-9 / *Ekin*, 123, 1934.

... A! ta gayari agur egin dautsagu. Azketsi, irakurle. Gu "sermolarirako" jayo giñan, urrian. Zelan ixango da, ba!

Erdeltzaliak, eurak nai daben bat egingo dabe; baña guk euzkeltzaliok jai andija dogu bijar Zarautz'en. Boskarren Euzko (cuzkel)-Oleri eguna. Ta "Lizardi'tar Jabier" kutunari gorasarria.

"Euzkeltzaleak" eratu ebenetik urtero utsik barik ospatuten da, bakotxean erritxu baten, olerki-gudua ta jaya.

1930'gn. Errenderi'n, Urkiaga'tar Estepan'en "Maitale kutuna" olerkija ixan zan zilarrezko abarrez saritua. 1931'gn. Agirre'tar Joseba Mirena'ren "Baso itzal", Tolosa'n, 1932'gn. Ernani'n, Bedoña'tar Jokin Abaren "Maita-kanta". Olerkari saritu bi oncik, "Lizardi" ta "Loramendi" ilak doguz. (G.B.).

Igaz, 1933'gn. Urretxua'n, Etxebarria'tar Pantzezka jauparijak, josulauna, irabazi eban areitz-abarra; bere olerkija, "Bost lore". Olerkari aunek, mixio-zaletasunez sututa, Txina'ra iges-egin euskun. Baña an be, euzkeltzale purrukatu lez jokutzen dau. Beyondaizula, kistar ta aberri-anai.

Loran dago gure Oleri-tija. Adu oneko gure euzkera beste arduran olerti-sailean baxen jori agertu ba'daite.

Bitartian, batu euzkeltzaliak oro, eta aurrera!...

EUZKO-OLERTI EGUNA DALA-TA ESKARI BAT

Igandeko jai onen egitaraua irakurten diardugula adizkide batzuk, guretaiko batek eretxi auxe azaldu deusku: "Ta zer deritxazue Barrena'tar Arantxak igandeko Elerti-jayan "Lizardi"ren olerki bikañenotariko bat edo beste irakurtiari? Oso egoki ixango litzake, ta atsegingarri iñoiz esale yayo, ori entzun eztabenentzat, ta... baita len entzule ixanentzat be".

Orixe ixetu dausku adizkidiak.

Ta guk ontzat artuki "Euzkeltzaleak"eri agertzen dautsagu. ¡Ze gauza ederra Zarautzaren baten gorasarrean bere olerki garaya bere erritar (?) batek oguztia!

Orra gure eskarija. Yaso, arren, antolatzaizikiak.

Ta orretako, onezkero berandu ba'da, parkatu.

ENDATZ.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ABANDOTARRAK.— Emen ixan genduzan juan dan igandez Sabin-Etxia'tarrak. Eta baita emen inguruetakoko asko be: ondarrutar, berrituar, amotar, mendexar, eta abar. Edozetara be, laguntza ederra batu giñan.

Euzko-Batzoki'ko baratzen bazkaldu eben abandotarrak Itzaldija "gobernadori" ak galazo eban-ta, bertoko gaste batek eta txangotiar batek (Callastegi) egin ebezan azalpena ta agurra. Onen urrengo, enparantzan, "plazan" pospoliñak eta ezpatadantzarijak jardun eben.

Eta zazpirak aldian, batzuk batera ta bestiak bestera, bakotxa bere errijetarantz aldendu jakuzan erbesteko abertzaliak. Urrengora-arte ta ondo bixi.

EZKONTZA.— Laster ezkontzekotan dira Laka'tar Martin, Andijoko semia eta Gonzalez'tar Miren.

Baita Altzibar'tar Modesta eta Idoyaga'tar Eukene be.

Ondo ixan zaitezela, ba.

ERIJOTZA.— Martitzenian il zan Etxebarria'tar Pakunda, arrantzale zaarra. Bere senidiai atsekabian laguntzen dautsegu. Goyan bego.

JUAN-ETORRI.— Ikastarua amaituta gure arteratu dira ainbat ikasle gaste, neska ta mutil.

Baita Gazteiz'tik gure abade-gai zintzuak be. Ondo etorriak gustijok.

Barriz, gure artetik juan da, itsasuak apurtzen, Ertze'tar Andoni, euzkel-idazle gastia. Ondo ibili, gero!

ONDARROAN.— Urrengo igandian, 10'gn Euzko-Gastetxuen ikurrin-onespena dala-ta, ikusgarrizko jayak ospatuko dira Ondarroa'n. Batez be, ¡130 dantzari ekinñalian ikusita... Dantzaldijau, arratsaldeko lauretan. Ta gero, erromerija.

E.

* *Euzkadi*, 1934-VI-10.

ENE BIJOZKADAK*

Edozerk dau bere garaya. Eta aldija aurrera, eguna iritxi yakun. Zarautz'eratzeko eguna.

Udabarriko goiz argija. Ortzia jantzija urdiña, ta begija areago. Guganik urbil ezta kezkarik. Eleizako jaupara deika diarduan kanpaiak Jauna'ren etxe-barruratu gaitu. Cerotxuago, Bizkai-bazter onetatik sorkalderuntz, giputzen erkiruntz abijau gara.

Udabenez gure Aberrija dan zoragarrija! Olerti uts, eder soil, eresi garaya abestuten diardu, ixiltzeke, gure erriaren ikuspegi, aurkintza gurenak, ¿Zer dogu ba, ederragorik, buru-bijotzak argi eta zindotasunez igurtzijak dituan euzko-semiak landu ta jagoniko lurralde au baño? Bazter guzti oyetan sumau ta nabaitzen dan baño barruko bake ta zorijon-asiagorik ¿num aurkitu daikegu, ba?

Arbaso laztanen Euzkalerrija!... Zoratu-agiñean maite dogun gastion Euzkadi!... Oraindik maite ezaituen seme galduakanaño zurekiko ezaguera eldu dedin, iñoiz baño adoretsuago ekingo dogu, gaur geroz, zure edertasuna goratuten, zure zindotasuna ezagutu-erazoten, zure maitagarritasuna gure txinta bijotzetikoenakaz abestuten.

Parreka ari yaku Gipuzko-lurra gu agurtu-biarrez. Bake-asmoz, maitasun-mezulari, bizkor goaz lur-azal ziar. ¡Euzkel-festetara, gure jayetara!...

* * *

Gurdibilaren bultzagiña geldi lotu da. "Neskatx polit bat iduri" dan uritxu txairoaren atietara elduak gozuz.

¡Zarautz!... Ortzia eta itxaso urdiñei begiraka jayo zan lore gorri-zuri usaintsua! Amets gurijen kabi, bixijontzat ategin-kolko. Bidazti arrotzarentzat—geu, joan dan igandez—aterpe adiguritsu ta babes gozo. Olerkari aundi baten amatxo bigun, maratz, xamurra! Itzez ez-ezaguna genduan biotz-adizkide aztu-eziñaren—"Lizardi"— jayoterrri kutuna..

Agirre'tar Joseba Mirena! (G.B.) Aren iletetara etorrijak ez gaituzu, irakurle, aren gorasarre-jayak ospatzera baño. Ari gure barrengo

* *Euzkadi*, 1934-VI-14.

eskar ona agertzera, arenganako kutuntasuna agirijan, barru ta aza-
lez, agertutera baño.

Gizon baten edestija? Ona: etxe bat, eliza bat, uritxo bat —bi—,
bere lanak, bere maite-zituak, ilerri bat. Besterik ezer ez. A geure
artian uts, eta gu, gure artian ba'lego lez, aren arpegi, abots, adimen-
argi ta bijotz-sua nabaitzen ari gara. Guganik aldegiña? Baña ezin
aztu... Ez bijotz onek taupa egingo dauan artian. "Lizardi"...

* * *

Elerti-jaya. Montzon jauna itzarten jabe. Itz samurrez, bijozki,
"Lizardi" zanaren poema gurena gomutarazi dausku: "Euzkera...
Euzkera... Euzkera. Eskarrik asko, Montzon jauna zure itzaldi
bijotz-eragipen korragatik. Zauri bixi genduan bijotza, itzaldija en-
tzutian. Iges-egin euskun gizon zintzuaren oroipena, gaurdanik ira-
kaspen jatorrena, jarraibiderik biribilena, eredu antzekotu-nayez-
kocna bekigu. Azken-arnasetan, erijo-atzaparretan egoala "Jabier"ek
esan-itzak ez dagiguzan ¡Jaun goikua'ren! aztu aantzi. "Otoiak, euz-
keraz!..."

* * *

Begijak jauso doguz. Ta malko-jarioka... Geldi, ene lumatxo.
Ezpaiboguz kemenik jarraitzeko.

Agur, "Jabier". Geu baitan dogu zure olerki garaya. Euzkera...
Euzkera... Euzkera!... Goi ortatik, lagundu!

ENDAITZ.
Lekeitio

DOMINGO AGIRRE EUZKELTZALIA*

Gure zaletasuna-arren, maiz eta sarri egon oi gara motelduta, adorebagatuta, guri dagokiguzan arazo eta lanetan. Baña zer dala ta diardugula neke ta lorrez zeregin onetan? itanduten dautsagu geure buruari. ¿Zer dala-ta, gure alegiñeri utsari adiña jaramon egiten ba dautse? Euzkereari buruz, euzkel-arloatzaz diardugu, irakurle.

Eta olango ezaldijetan leenguakana, zaar-aguakana zuzenduten doguz gure gogo ta bijotzak. Orainguak baño aldi eskartxarraguak ziranian jardun eben euzkel idazliak ¡bai kementsuak doguzala!

Euzkeltzale zaarren lanak indar-barrituten gaitue; euren ekite ta jardun ixugarrijak, adoretu.

Idazle orreitariko bat aipatu, ospatu eta goretsiko dabe laster bere erritarrak, eta oneikaz batian euzkeltzale gustijok: Domingo Agirre'tarra, apaiza, Ondarroa'ko seme argija.

Urtiak dira berau il zala. Guk ez genduan ezagutu. Baña bere idazkijak, arek idatziriko liburuak edozein euzkeltzalek dakiz zeintzuk diran: «Añamendiko Lorea», «Kresala» eta «Garoa». Azkenau gipuzkeraz idatzija eta lenengo bijak bizkaycraz.

Euzkerazko irakurgairik ederrenetakuak doguz. ¡Liburu oneitako euzkercaren ederra! Bene-benetakua, jatorra, errikoya, bixi-bixija deritxagu Agirre'ren izkera errez ta ugarijari. Gurasuai ainbat bidar entzun eta oraindik ikasi eztoguzan euzkel-esacra ta joskera ederra oparo aurkitu dogu idaztijotan. Idazle gustiontzat bere-bixiko irakurgayak euzkera ikasteko!

Kepa Deunaren egunez omendu biar dogu Ondarroa'n. Ta urrundu «gorriña» euzkereagandik, Agirre'k gura ebanez.

ERKIAGA'TAR E.

* *Ekin*, 124, 1934.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

DONIANE.— Jasian ospatu genduan jayau. Bisperan, oi dan lez, arratsalde-lenian txistu-joten kalerik-kale ibili ziran txistulariak. Gabaz, eleizkixun ostian ixan zan Batzoki'ko baratzean San Juan-sua ta dantzaketa.

Doniane goxian, zazpi ta erdijetan jaupa ta jaunartzia Konpañia'-ko elexan. Oso lagun gitxi ixan zan, batez be gixonezkotan. Ordu berian, txistulariak eta eresbatzak jo eben kaliak ziar Zortzikua.

Amarretan, elexa nagosijau, jaupa andija Goikoetxea'ren iru abotsetakua abestuaz. Urrengo, Batzokijan ikurrin barrijaren donespena, ta beriala makil-erpiñera jaso zan. Gero, neskatuena auzekua. Eta "jantropia" Batzoki'ko arbolapian batzuk.

Ibildeuna eleiz-bajuan egin zan. Eta gero, beti lez, bitariko dantzaketia: geuria ta... edonona. A! ta iluntze-gaberantz arrantzia ta zaparrada larregi.

KEPA DEUNA.— Emen doguz San Pedruak be. Benetako "Kaxarrankia" ikusteko aukera mamiña, irakurle. Dantza zaar jator au Lekeitiarrena bakarrik da, gero! Ta eztaukagu galtzeko. ¡Ez orixe!

IDAZLE BARRIAK.— Aspaldion pozez dakusgu (ikusten dogu) emengo idazle barriren ernezia gure euzkel-asteroko baten. Ekin orrelantxe, baña emen, EUZKADI'n, be, idatziko ba'zendukie, guk nayago. Osterantzian ementxe gagoz beti umezurtza lez. ¿Entzun?

UDA-ANTZA.— Asi da uritxu onetan be. Guk eztakigu besterik ezer, baña edonok diardu erdera nok-geyagoko. Ori, ori, ¡gora Erde-rea! Ta orretan, abertzaliak edonok adiña. ¡Ederki! —giputzak olakuari.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-VI-29.

LEKEITIO'TIK*

KEPA DEUNA.— Iñoizko itunena ta ganorabakuena izan dogu aurtengo Kepa deunaren jaya. Coxian, euriaren zaparradia baño beste soñurik ez genduan entzum. Bederatzijetako mezatan, ez San Pedro'n meza, ez kanta. Amarretan, sermorik bez. Arratsaldian, prozesiñorik ez. Ta "Kaxarrankia"... Udala'k, Ayuntamentua'k ordainduta; bestela bapez.

¡Kofradija'k onelako gauzetarako dirurik ez ei dauko-ta!... Baña, zer da au, jaumak?

¿Zentzuna galdu dogu... ala nok aginduten dau?

Eta gero, "postre"-tzat, "fiesta de la flor".

Ixan da zer esana naikua, Ta gagozan ixilik.

San Pedro egun tristiagorik ikusteko be!

San Pedro Txiki'z egon zan soñu-apur bat.

"ITXAS-BITSA".— Juan dan igandetik Kárraspijo'n garagardo ederra dago salgei. Hurritik arako edarija bai'litzan. Domekan, tanbolin-da guzti ixan zan askundia. Orra, ba, "Itxas-bitsa", Kárraspijo'ko garagardotegi barrijaren ixena.

Ba-dakixu ba, irakurle, gauza ona nun dagon. Eta ardu nadunari asko saltzia opa dautsagu.

AGUR.— Itxasora juan dira itxasketan, nabegaten, Ordorika'tar Joseba eta Kortazar'tar Erramon, itxas-gizonak. Ondo ibili.

LUISTARRAK.— Igandian ixan eben euren ileroko eleizkixuna luistar mutil gastiak. Ija amaitu dira. ¿Ez ete dago Lekeitio'n mutil gasterik? ¿Bai? Ezta iñun agiri.

E.

* *Euzkadi*, 1934-VII-4.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*TIK*

ITZALDIJA.— Urrengo larunbata edo sapatuan, gabeko bederatzijetan (9), “Gora-Buru” antzokijan gixarte-itzaldija (Conferencia social) ixango da.

Jauregi'tar Juli eta Ertze'tar Erramon jaunak izlari.

“Itxastarretzaz” bapor aundijetako itxas gizonetzaz, itz egingo dau Jauregi jaunak; eta Ertze jaunak “Emakumien kabanetako biar ta lanak dirala-ta”.

Itzaldi au “Euzko-Langiliak” eraldu dabe.

Ila onen 14'gn. gabeko bederatzijetan, “Gora Buru”'ra!

BATZARRA.— Barijekuan, ila onen 13'gn. batzar nagosija ixango dabe “Euzko-Langiliak” euren leku edo etxian.

“Mutualidadia'ren gora-bera” arazuak erabagiteko ixango da. Gabeko 7 eta erdijetan.

Batzar onetara Euzko-langile ez ixanarren, arduria dautson edo nor eldu leiteke.

ARRANTZUA.— Eguaztenian ugari ekarri eben ega luzia edo atuna. Aukeran, arrantzaliენტzat merketxu; ta erosi biar dauanarentzat ez merke.

“EUSKAL-ERRIA”.— Orainguan gogotik lan egin dausku gure dragiak; ondarretan baztarrak eruan ditu Artzabal-aldera. Oin atsenduten dago.

“KONTRABANDUA”.— Batzuk uste dabe “veranientiak” errijari onurak ekartera etorten dirala. ¡Bai zera! “Kontrabandua” parra-parra erabili oi dabe aundiki-usañoak. Ori dala-ta, Udala'k gizon bat izentau dau beste zeregin barik, udazalio “kontrabanduak” arrapatuteko. ¡Naikua dabe beste urtietakuakaz!

TOLOSA'RA.— Urrengo domekan garrilak 15, Tolosa'n izango diran jayetara iñork jua gura ba'dau, emon begi bere izena Euzko-Batzokija'n.

ANTZERTI-JAYA.— Urrengo domekan ila onen 15'gn. Gora Buru'n antzez-jai atsegingarrija ixango da “Patxolo” zanaren ome-

* *Euzkadi*, 1934-VII-13.

nez; bertokuak antzezleri. Gabeko amarretan, "Abaroa ta Babesa",
iru ekitalditan.

Eup, zaliok, ez utsik egin!...

E.

ERRI-ITZAK: "BIZKAITARRA"*

Ez samindu, ez asarratu irakurle, itz ori oker ulertuta. Ain zuzen be, orixe argitu gura dogu. Ezta aitu eziñekua, baña oraindiño askorentzat gauza barrija da, antza.

Betikua dogu ipuñau. Erriak sarri be sarri onduen itz egiten dau. Baña noizik-beñian ixugarriak yalkiten ditu. Ta gauza bat esan guraz eta ondo esaten daualakuan gatz bako zerbait esan darua. Ta larrijago eztanian, pozik.

Onexetariko itza, herbia dogu or gorago idatzi doguna. «Bizkaitarra» berbiak zer esan nai dauan eztakijenik onezkero ezeguala uste genduan. Ara be euzkeldun-artian. Baña, uste ustela.

«Ori bizkaitarra da» entzun ezkeru, batzuk ezitan yarten dira, beste batzuk asarre gorri ta amurru-bitsetan. Ori be ba-dok, ba, gatz! ¡Baña ez al dakije, gixaxuok alakuok, Bizkai-yatorrikua «bizkaitarra» dala, nai-ta izan... errepublikanua?

ERKIAGA'TAR E

* *Ekin*, 128, 1934.

“KRESALA” TA “GAROA”*

Idazti bi oneitatik eztoguz bata be salgei aspaldijon. Argitaldu ta beinguan saldu ta sakabanatu zirian.

¡Ta Euzkerea'k eta euzkeltzaliak biar-biarreko izan!...

Ori dala-ta, Agirre jaunak idatzitako azkenengo irakurgai ederra “Garoa”, Lopez Mendizabal'ekin alkar artuta “Zabalkundea”'k laster argitalduko dau. Ori ondo.

Ta “Kresala” zergaitik irugarrean be argitaldu ez? Gogo-goguan doguz Iriarte Aitaren arako itz zuzpergarriak.

“Kresala” zer dan? Ona bere 211 eta 212'gn. orrialdetan irakurri daikezuna. “¡Kantauriko umant apalak! Uskeri batzuen euki daroezu, batzuetan, zuen arrotasuntxo, ta egitadarik andienak eztituzue aintzakotzat artzen. Iñok eztitu itxas barruetako zuen lanbide garratzak eta ibilbide leñargiak ikusten ondo, ta gitxik goratuten zaitue bear dezuen añan; baña Jaungoikoa'k dakus zeru goyetatik eta berak goratuko zaitue egumen baten. Berak dauka zuentzat gordeta azken-sari ederra, ez erramuetan, igarian edo arraña joten (artzen) daki-zuelako, ezpada eruapen andiko ta biotz oneko kristiñau zintzo ta egiazkoak zarielako baizen.

Jaungoikoagaz batera jaso nai zeusket nik neure aldetik, eta ara emen orretarako geienbat egin dodan KRESALA.

KRESALA zuek jasoteko, zuek ezagutuagoak, errukituagoak eta maitetuagoak izan zaitezen sortutako liburutxo da.”

Argitaldu daigun “Kresala”: a). Euzkerea indartuteko. g). Bertan ain maitagarri edestuten dauzan arrantzalien ziñismen jatorra, orain, ¡au zoritxar larrija! otzitu eta galtzen dakusgulako. ¡Comuta arrantzale zaarren ziñismen bixija! ¡Goraldu jauna ta gure Erri ta oiturak!

Ondarroatarrak: zuentzat da, bereziki, eskari au.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-VII-29.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*TIK*

ABAROA JAUNA.—Ganian dogu Andra Marija. Eta Abaroa'tar Paskal lekeitiar jaun ongiliari orduan gara geure esker ona agertzeko lekeitiarrok. Sasoia zan!

Ertxadona edo eliza nagosija edatu ta barriztau zala urrengo astian beteko dira berrogetamar urte. Ori dala-ta, eleiz-jai batzuk ixango dira, ta aundi-ro ixan be. Ila onen 13, 14 eta 15'gnz.

Iaren 13'gn., astelena, goxeko amarretan Abaroa jauna'ren gogoaldezko eleizkixuma.

Iaren 14'gn., gure eleiziaren eguna, goxeko zazpi ta erdijetan, altara ta jaunartzetoki barrijaren onespina ta Jaunartze orokorra Gazteiz'ko Gotzaña'k emonda. Amarretan mesa nagusi abestua. Mezia, Txopitea'tar Gotzon jaupari ta lekeitiar txonizlari azkarrak egingo dau. Sermoia, Gotzain jaunak.

Meza-ostian, Abaroa jaunari opalduko Arrilobija (Mausoleo) agertutia.

Gabeko 8'etan, "Salve ederra" oi dan lez.

Andra Marija Egunian, amarretan jaupa nagosija. Azkue lekeitiar jaupari argijak egingo dau jaupea, eta Ertze'tar Erramon jaunak izkintza edo sermoia. Lekeitiarra da au be.

Iru egunotan bisperak arratsaldeko iru ta erdije'tan ixango dira.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-VIII-9.

BASERRIRA... ABERTZALETASUNAREN IXENIAN (?) ERDEREA ZABALDUTEN*

Ezin danik eztagola esan oi da. Ta egija da urrian.

Eztakit nok eta badakin nok au edo ori ezin leikie egin esan daruagu. Baña ¡kalabaza zarra! Ezin leikie-baizim leikie, beñipein egin dabe.

¿Nork egin dau zer? Ara, ba.

Aberrija maite dauanari abertzalia ereisten yaka. Ta aberri-maitaliak, beste edozetariko ta edozein maitalek lez, bere maitia laztan eta kutun ixango dau.

Baña aberrija maite eztauanak eztau nai ixan be egingo berari abertzalia deituterik. Eta, zuzen nai oker, izpidian dago, errezoya dauka.

Ta ona orain, gauza bakana, oi ez lakua.

Ba-dira asko, ta geure artian ain zuzen be, eurari “abertzalia” (baña batez be “patriota”) deitu ta eretxi ezkeru, aberrijaren eta aberri-aldez ezer egin ezaren ardura tantarik, axola pitiñik eztautsenak.

Guzurra dirudi diñogun onek, baña egijaren antzak ditu. ¡Ai, guzurra ba'litz! Gure poza!...

Azalpena biar dau, baña, diñogunak. Irakurri.

Ixenak baño garrantzi, inportantzi andijagua dauka beti ixanak. Ori dala-ta, ixen onagaz egiten dan gauza txarra, txarra ixango da beti.

“Abertzalia” beti ta edonun da ixen ona. Baña abertzale ona ixa-teko egitadak nai leukez onak, ez itz ta barriketa labanak bakarrik.

Ulertuten al dogu alkar, irakurle?

Ta orain itaun, galde bi. Abertzale euzkeldunek ¿zer dala-ta biar ixan barik jarduten dabe erderaz? Ta baserri aldera erdereza darijola doyan abertzale euzkeldunak ¿zer merezi dau? Katixu... “abertzale jatorra” dala esatia... ¡Euk igarri yok!...

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-VIII-28.

EUZKEL-GAIZ*

Ba-eban aspaldi baten Euzkel-Atal onek arlo oso atsegingarrija. Sail orren izena lerro onein burutzat ezarri doguna zan. Baña orain iragan urtiotan eztoгу ezautu be egiten sail ori.

Egija da noizik beinka euzkel-arau batzuk agertu izan dirana emen berton. Baña ezta naikua.

Sail ori baztertutia, gureketz, bete-biar barri bat utzik iztia, bertan-bera lagatia da.

Gaurko euzkel-idazle geyenok erdel-jokeraz kutsutuegijak gagoz. Au esatiaz kontu barririk eztiñogu. Gure euzkel-idazlanetan geruago ta erdera-sunda aundijago darabilgu. Geuk eztakigula, igarri be egin barik.

Bai ba; erderaz irakurten dogu egunero euzkeraz baño ariago; etxian erderarik entzuten eztoгunok juan edonora, ta erderea ugari, parra-parra entzum biar.

Dana dala, okerrena auxe dala uste dogu guk. Erdera-usaña, joskerea, parra-parra erabili idazliok eta euzkera jatorrez, garbiz idazten dogula uste izatia. Ez, ez, ezta ori ondo. Zuurtu gaitezán.

Euzkel-itz zinduak, geuriak biar ba'ditugu, mila bidar biarrago dogu euzkel-joskera, euzkel-sintaxia. Izkuntzen izatia itzetan barik joskeran dagoalako.

¡Ez ditu "Kirikiño" k ikusten gure ikuslan erdel-joskeratsuak! Ai, ikusiko ba'litu, ikusi! Beste modutan argitalduko liteke orrialde oneitan! Ba-dakigu, baña, gure eguneton ori egiteko lan izugarrija egin biarko leukena. Gure idazkijak gaztelera-kutsua ganezka idatzi oi ditugu-ta. Bai, bai, onantxe da.

Labur: Euzkel-Joskereatzaz orri onetan ataltxu bat biar dogu, astian bein badere. ¿Entzum, Lauaxeta jauna?

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-VIII-31.

PERRETXIKOTAN*

Gure errijan perretxikuak eristen dautsaguenai, beste erri batzuetan zizak, zuzak, eta abar, eristen dautse.

Perretxiko zalia danarentzat gozuak oi dira, beste gauza azko lez, perretxikuak edo zizak.

Udamiñian-udagoyenian, oraintxe izaten da onen sasoia. Aurten ostera, atzera dagoz. Ta ezta arrigarri, lein legortia ta orain berorik eza ditugulako.

Iñoiz aldi onetan egunero sarri jan doguzanaren, guk geuk ikusi be eztogu egin aurten oindiño perretxikorik.

"Mañariko" k ostera, "batxu" bakar bat artu ei dau aurtemein. Ori irakurri dogunian, alako zerbait otu yaku. Ipuin barri bat. Ta berialaxe azaldu gura dautzugu, irakurle on orri, ze gatz ta ganoragaz egin daikegun eztakigu baña.

* * *

Ipuiña. Dagonila'ko egun ederra zan. Igandia, domekia. (Dagonila erderaz "Agosto" dozu, irakurle).

Goya argijago eguan, argijago!... Euzkotarren lurraldia txairo ta apaiñik agiri zan. Ikustekuak zirian artotza mardo gurijak! Gari-solo izandakuak atsen-egiten egozan, soil, garbal, motz, gari sustrayak baño besterik euren barruan ezebela. Garijak jota eta garbituta be ha eukezan ordurako gure baserritar aspertu-eziñak.

Goizian goizik jagi zan Simon. Guk ezkenduan ezagutu, (errez be, ezta-ta); baña mutil zaar nasaya ei zan, seguru be. Auzoko Zakari'ri esan eutsan bisperan, perretxikotan yoiala, ta perretxikuok onak ziranentz igarri eta esango ete eutsan, ba. Eta Zakari'k: "Bai, esan ez!, eta ekarridazak neuri etxera basotik atorrenaz batera".

Orrelan atondu zirian Simon eta Zakari sapatuan.

Jagi zan, ba, leen esan dogunez, gure Simon. Bere mezatxua entzun, gosarija jan, eta barreka barreka abijau zan mendiruntz, bazkari aurretzurako, zorrokada perretxikoz, osterea eginda etxeratuteko ustez.

* *Euzkadi*, 1934-IX-2 / *Ekin*, 135, 1934.

Juan ta juaan, eldu zan gaztañedi aundi eder batera. An sakonago, emen garayago, ezan leu-leua gaztañedi orri. Perretxiko-abijatan ugarija ei zan, barriz. Baai...! Aratu ezkerro, ez ei eguan etxera ain barik biurtuterik.

Asi zan gure mutilori be, kusan, bila. Zoro galanta sakeletik atarau ta ipini ei eban gertu, batu ala bertan sartzeko.

Baña otzik be ez eguan-ta, jakea erantzi biar ebala bururatu yakon. Otu, ta egin. Jakea erantzi, ta an itxi eban otamulo batzuan onduan. Eta baita txapela be.

Ta ba eutson, ba eutson bere arluan. Gogoz ziarduan perretxiko bila. Batian emen, bestian aruntzago, emen arakatu, an ikusi. Onetan emon zituan ordu batzuk.

Alakoren baten, nekatuta, (czta milagro be ta), ats eta putz, ba etorren lanian lenengo asi zan tokiraiño... zorua utsik ekarrela. Ta aurduantxe zirian an kontuak!

Bere jake dotoriaren ordez jake zaar, zulatu, zirtzil, koipeztau bat aurkitu eztau, ba!... Ta bere txapel ederra? Ta bere jakean ondo estimau gorderik eukan amar ogerlekoko paper zabala? Bapez. Ezeguan an aztarrenik be. Alako ondamendirik...!

Laster bila asi zan, baña alperrik. Nasaya zan arren, orraitüño estutu zan orduan. Baña... agur aren ondasunak!

Beste biderik ezeukan ta, etxerantz asi zan isil-isilik.

Aren zain eguan ordurako Zakari etxaurrian. Eta Simon an urruntxuan agertu zaneko, laster susmatu eta igarri eban Zakari'k areri zer jazo izango yakon. Otayo mendi baño betondo andijaguaz etorren Simon. Eta urreratu zanian, Zakari'k, irriz, burlaz, barre algara bat egiñaz esan eutson: "Arrayo arrayua! Ze, estropadaren bat edo, Simon, orrelan jake ta txapel barik ain bizkor etorteko?..."

* * *

Gaztañedi'ko perretxiko abijak ez ei eban geyago Simon'en oña-tzik ikusi!...

ERKIAGA'TAR EUSEBI

EUZKEL-IDAZLIAK ERDELTZALE (?)*

Gure erriko jai bitzuen egitarau bakoitzak ditugu esku-artian. "Tantobale" idazliak jai iragarki oneik euzkeraz eta albuari erdel-itzulpena dabela argitaratuak izan dirala esan eban. Ez, jauna; iragarkijok lenengo erderaz egiñak dira, eta aurrian euzkeralpen motel elbarritua darue.

Iragarki oneik daben baño euzkera erderatsuagorik eztozu sarri ikusi. Euzkel-itzak ugari dira lerro orreitan, urrian, baño euzkel-joskerarik ezta noizik beñian baño agiri.

Negargarrija da benetan esakuntza ija gustijak erdera-keraz idatzi-biarrara. Orra gaurko gure okerrik aundijena.

Euzkerea maite dogu idazliok, iñork ba. Baña maitetasun onek itsuturik gaukazala dirudi.

Zentzatu gaitez. Euzkeraz sortu daiguzan gure burutapen eta asmuak. Eztaiguzan euzkeralpenak egin erdera irakurri ala. Irakurritakuaren guna ta mamiña ausnartu dagiguzan, eta gero uste ta txadeok euzkel-azal gozoz yalkijak, idatzijak beitez.

Azkenengo idazkijan, idazle geyenak eurek oartu bage erdera-kutsuz idazten dabela esan genduan. Egija, izan be. Gaur biar-biarreko deritxagu-ta, andijagua esan biar.

EUZKADI'ren euzkel-atal onetako lankide geyenok, larregizko erdel-joskeraz idazten diardugu. Zuurtu gaitez, idazlekide maitiok, bide ontaz oker, oso oker goaz-ta. Eztaigun idatzi itsumustuan, onetara eginda erdel-lurriñez bai-gabiltz.

Oartu ta ikasi daigun euzkel-joskera, euzkel-sintaxis. Ona "Larreko" maitagarrijaren aspaldiko lelo zuurra. Ta ona urrengo egingo dan Euzkel-idazlien Batzarrerako gai jaso ta beñena, gure eretziz.

Ez aztu erriarentzat idatzi biar dogula.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1934-IX-11.

ABAROA JAUNARI GORASARRE*

Goralduek beitez edonun eta noiznai ongiliak!

Lekeitio gure erri maite onek ordaindu uste dau bere seme aundi ta ongile maitagarrijari dauksan zorra. Urriak dirala erabagi zan asnuu, egiztau ta osotu dogu.

Dagonila'ren 13, 14 eta 15'gnz. gomutau ta goratu genduan eleiz-jai berarizkuakaz.

Iraila'ren 7'gn. kaliau txalotu ta aintzatu dau erri osuak. Arrezke-ro, an dakuskezu Lameda-barrenian. "Don Pascual" zanaren irudija. Egun eta eguzki, Izuntza ondartzari lepoz, berak ain maite eban Lekeitio alai ta txairuari begi-begira, antxe beti, Jauna lagun.

¡Bego beti, erritarak laztandua, oraingo andiki zikotz eta xuurren lotsagarri-rako! ¡Bego aundiki zinduen eredu ta jarraibidetzat! Aunitz urtez!...

* * *

1934 Iraila'ren 7'gn. Goizian goizik kalerik-kalerikako soñuak entzun genduzan.

Amarretan, beko Elizan jaupa (meza) nagosija izan zan, Goikoe-txea'ren iru abotsetakua kantaurik.

Amaiketerdijetan Udaletxian batu ziran erriko agintarijak eta batzar berezija egin eben Abaroa jauna goralduteko. Batzar orretan, ao batez, Abaroa eta Uribarren'tar Paskal jauna Lekeitiar seme ongile ta kutune dala erabagi eben, eta uriko batzar-liburuan idatzi.

Onen urrengo, Udala eta erriko agintari enparauak eta Bazkuncetako ordezkarijak, irudija daguan lekurantz zuzendu zirian, bertoko ezpatadantzari txiki, pospoliñak eta txistulari jak aurretik zituela. Antxe eguan batunda erri osua, txiki ta aundi, zar eta gaste. Eguraldija be, etzan asarre izan.

Oroigailuaren armailetatik itzaldija egin eben alkate jaunak. Abaroa goraldue, eskarrak emon berari, ta erri-gizonak lentsuago egin eben batzarreko erabagijak agertu ebazan. Itzaldi ori euzkeraz izan zan. Gero, erriko idazkarijak (sekretarijuak) erabagijok irakurri zituan.

* *Euzkadi*, 1934-IX-13.

Bijon itzaldijak txalotuak izan ziran, orrela Abaroa jauna txaloturik. Urrengo, txauburu (parroko) jaunak irudija onetsi eban, eta erriko mutiko batek eta neskatotxu batek, bijok biartsu-umiak, agertu eben oroigarri ederra.

Unc onetan, errijak, erespatzak lagunduta, Abaroa'tar Paskal'en gorasarre-ereserkija abestu eban. Ona emen:

“Ongilia benetan
ixan zan
Abaroa'tar Paskal.
Cogo
barrutik
lekeitarra maite eban.
Errija,
semiak
maite lez
onura askoz bete eban.
Txiroen
malkuak
legortu
zituzan...
¡Opalben
zintzoa...!
Lekeitio'k
bijotzez.
emokunen eskarrez
goraltzen dau giz-irudiz
azken bagako omenez.”

Ereserkijau amaitutian txalo-ots burundara aundija izan zan. Abesti onen eresija Valdes Goikoetxea'tar Alesander'ena da, eta izkija, Ictria, Orue'tar Ixaka'rena.

Urrengo, agintarijak bariro jua zirian udalatxera. An, agintari ta bazkun-ordezkarijen amaiketakua izan zan. Bitartian, Lagi-Zarraren enparantzan euzko-dantzak, nok obetoka, gastetxuak eginda, sari ta gusti.

Arratsaldian, pelotakia, ta gero erromerija.

Jai zoragarrija Zumardi-barrenian egin zana, cuerdiko amabijetan. Beste mila urtetan eztau ikusiko alako jai eder ta batasuntsuagorik Lekeitio'ko errijak.

Oroigailua arlandu ederrez egiña da. Giz-irudija, alboko txaplatak eta erriko ikurdiya (eskudua), brontzezkuak. Jezarrita datza, gailurrian, Abaroa jaunaren giz-irudi osua. Huertas (M.)'ek egiña da. Opal-itzak onetara diño, euzkera utsian, lekeitiarren izketia besterik ezta-ta:

“1934-VIII-14

Lekeitiarrak
geure ongile andi

ta

erritar maite

ABAROA'TAR PASKAL'I

esker on sakonaren
gomutagarritzat.”

¡Zorijonak gorasarre-Batzordia'ri! Opal-itza euzkeraz bakarrik ipintiaz gauzarik bikañena egin dozue. ¡Txalo, Abaroa zanari! ¡Txalo zuei bel lekeitiar onek.

ERKIAGA'TAR EUSEBI

ASARRE BARIK*

“Etxekua”ri

Pozik irakurri dot zure azkenengo idazlana. Eztakit nor zarian. Nayago nik; onela burua berotu barik alkar-aituko dogu-ta. Bare ta aizkide antzo.

Eneuke nor-ka jardun gura, zer-ka baño. Ori dala-ta, nire idazkitxuan enchan esan ez nungo egitarauak ziran, ez nun ez nor-kegiñak. Irakurliak zertzelada orrein barri zetan jakin eztaualako.

Lan astun ori duban egin dauan euzkeratzaliari guk be eztautsagu txalorik ukatuko.

Orrenbeste uts eta oker eztaguala egitarau orretan, diñozu. Tira, ba. Neure “begitaziñoren” bat izango zan. Esakuntza geyenak oker barik geyenak zuzen begoz. Poztuten naz onelan izatiaz, eta euzkeraltzale orrek parkesle nauka.

“Orraitíño uts bakorik gitxi gara” —diñozu. Egija aundija. Ni ez naz beintzat uts bakua, ta eztot eguno ukatu, ondo dakit-eta. “Diar-dugu” idatzi nebanian, eneban “diarduzue” idatzi.

Norbera zuzenduten dan artian bestiai be zuzenduten lagundutia, eztot uste txarto jokatzia danik.

Erdel-jokera larregijan darabilgulako zirikatu dodaz EUZKADI'-ko euzkel-idazliak. Onetzaz oker gabiltzala uste dodalako ta bide zuzenera jo daigun. Min-egitiaren solik iñor zirikatu, ez! On biarrez, bai. Orra nire asmo bakarra.

Erdel-idazlien aurka, itzez ta idazkiz, bein baño sarrijago ekin dautsat.

“Beti euzkel-idazle gixajuekaz barriketan “diñozu”, ta zuzen esan be. Baña ez aztu neu be, euzkel-idazletzat nagona. Neuk be ba-dakit euzkel-idazlien lanen barri.

Oartu orain ene eretxi oni, ta ia zer deritxazun. “Gure euzkel-idazlanetan—niñuan ementxe, dagonilaren 31'gnz.—geruago ta erderasunda andijago darabilgu. Geuk eztakigula, igarri be egin barik.”
¿Entzun? “Igarri be egin barik.”

* *Euzkadi*, 1934-IX-15.

Eta ori jazoten dan artian, norbaitek ots egiten eztauan artian, erdara-joskerea darigula idazten eragon..., erdel-usañez idazten dogula oartu be egin bage.

Orixe sumau dot nik aspaldijon, orixe izan dot ene eretxi, eta orre-gaitik egin dautset oles idazlekidiai. Baldin ausartaegi egin ba'dot dei ori, azkets-eske nago.

Euzkel-idazlien Batzarrean idazleiei euzkel-joskereaganako ardura zolija eskatu biar dala esan nai neban. Euzkel-joskereak eztabaida biarrik eztaukala uste dodalako. Euzkel-joskerca zer dan leendik be ondo erabagita dago. Joskera-arauak beteten alegindutia, orixe bai ba-da gure gurari ta biarkuna.

“Batzarra ospatu biar ba-dogu egin daigun anaitasunez”—diñozu. Ederto esana. “Euzkel-idazle oro maitagarri yataz, abertzale jator diralako”.

Ona ba, dana argi esan. Euzkera ondo jakin barik eztaigun uste izan ondo dakigula. Eta askok, “Etxekua”, orixe sumau cz. Ta kontu-ratu ezik, ba... arduratu be ez euzkel-joskerea obeto ikasten. Baña alegiñak egiten dituanari ezin giñeyo ain gogor egin agirakarik.

Ta asarre-bide ez gaitezcan, esan daigun “Lizardi” zanagaz batera: “Euzkel idazleok! Beyondeizutela! Eusko-pizkundek ezer ekarri ba-du indardunik, iraunkorrik, ona zuek”.

Beti euzkera alde, agindu.

ENDAITZ.

MIXIOLARI EUZKELDUNAK*

Euzkotarren erriak onen txiki dala, beste edozeinek beste edo ariago sakabanatu ditu bere semiak ludi edo mundu zabalian. Izan be, noragiño ezta eldu euzkotarra, euzkelduna? Ba ete da lurralderik euzkeldunak bere oña ezarri eztauanik? Ezetz esango geunke. Baña dana dala, eretxi orren zeaztasunak emotia, Edestijaren esku bego.

Gaur beste itaum, galde bat egin gura dogu. Ba ete da mixiolari edo belgundari euzkeldun bageko lurralderik?

Gure Euzko Erri au, maitagarrija ta aintzagarrija da langile asper-tu-eziñen erria dalako, zintzua dalako. Baña Euzkalerrija'ren ager-kairik aundijena, bikañena, bere Egilia'ren otseintzan zindo diarduan langile talde aundi ta izugarrija da. Beste zein abendak ete dau, Euz-kadi'ren ikusijan, gure Erriak baño Jauna'ren otsein ta mirabe geya-go?

Jauna! Oraindik beti lez zaitu gure Errija'k maite. Errukitu zaitetz zapalduta ta zoritxarpian dagon gure Aberrija'gaz ta iguzu laguntza. Egungo ez lez maitatu ta goratu zagiguzan. Arren.

* * *

Gugana eldu dan eskutitz batek bururatu dauskuz or goratxuago irakurri dozuzanak.

Txina'tik eldu yaku idazki au. Mixiolari euzkeldun batek egina.

Comutaten zara, irakurle, arako Etxeberria'tar Pantzeska Aba, josulagun gazte ta euzko-olerkari samurraz? Orain urte bete ta geya-go, Txina'ra juañ zanañ? Ba, berberak idatzi dausku, ta jakiña, cuskeraz idatzi be.

Azaldu daiguzan eskutitz onetako albistak eta izparrak. A! esku-titzagaz batian argazkitxu bi be, artu ditugu. Oncitatik batek cleiza-txu polita agertzen dausku.

Ona argazkitxu ori, irakurle maite, zuk be ikusi dagizun.

«Wuhu-goterkiko txadon txiki bat —irakurri dogu argazki-ostian. SOEITON deritxo erriyari. Ama Mari'ri eraspén aundiya dautsoe erri ontakoak eta urtearen buruan bidezkundek izaten dira».

* *Ekin*, 141, 1934.

Ta ona orain eleizatxu orren edestija, Aba orrek laburkiro esanda: «Txadonak aundiya dirudi: onerako ainbestekoa da. Oberik ezin leiteke, ala ere, txanponik izan ezkerro. Orain zortzi urte edo, gorriyeta-ko batzuk su emon eutsen txadon orreri eta erabat kixkali eben. Ilabete batzuk geroago berritzen asi ziran, eta su emon eutsen egun urte-betetzean, berriz be, yaupa emon eban, orduan an belgundari zan Barreiro Aba'k».

Onelango izparrak, irakurle, eleizari ta su emotia Txina'n, ezta bape arrigarrija, Txina baño askoz urriago be, onelako dongakerijak bein baño sarrijago ikusi ditugu-ta.

Beste argazkitxuan lau mixiolari agiri dira. Iru, euzkeldunak. Arrizabalaga Aba, Arregi Aba ta Dorronsoro Anaia dira.

Gerotxuago diñoskuna, irakurle, askorentzat zaarra, lendik jakiña izango da, baño guztientzat ez. Orrexegaitik ona emen: «Emengo berriyak iñoiz irakurtzen ba'dituzu, bear bada, ez dozuz ulertuko beti. Egumotan be, gu beroak gagoz; beste zenbait lekutan ewri asko egin dau, eta uyoaldeak be izan dira. Laterri batean izan arren, ainbateko gora-berak!! Europa baño aundiyagoa da iya, Txina au; eta, alde batera ez da arritzeko ain gora-bera aundiyak izatia».

Ta urrengo jakingarri auxe diño: «Urte bat dot oraintxe (emen), eta sarritan ezin ulertu izaten dodaz txinatar onen gauzak. Guk txuritzat (zuritzat) doguna —esate baterako— auek beltza dala esaten dabe ta».

Eztozu iñoiz entzun, irakurle, Txina'n zurija dala «lutua»? Orra, ba; egija da. Txina'n dagon batek baietz diñosku ta.

Eta gaurko lantxu au amaituteko, Etxeberria Aita'k Txina'tik diñoskuzan itz eder eta gogoangarriyak ber-idatzi daiguzan, eta gogooan artu betiko.

«Kistar oitura onak txutik iraun dezaten, eta urruti auetan bizi geranok emengo lanak pozik egin ditzagun, gure euskera maiteari eutsi zayozute!»

Eskari done ta bikain orri, alegiñez geure Euzkera maitiari eutsiko dautsagula esanaz erantzun biar dautsagu.

Eta zuri, Aba agurgarri ori, goi-eskar ugarijak opa dautzuguz, Urtzi'ren maasti lanetan uzta yoiija izan dagizun.

Agur, urrena-arte, ta goraintzi.

ENDAITZ

1.934-Urrila-1'guan

UDABARRIJA, ITXAROPENA*

Udalenean, loraz ta pitxiz
yosiko dira zelayak.

Izparringi onetara idatzi barik urte-erdi jua eta gero, gaur, uda-
barriko lenengo egunez, zerbait atonduteko asmuz asi gara. Ogeiga-
rren eunkijan geure errijan geure berbetaz idaztia gebenduta izan
dogu, eta geu asmu ta gurarijak argitalduteko Bizkaya'tik Gipuz-
koa'ra jua biar izan dogu!

Nun dira, ba, izkuntzen eskubidiak? Nun dira lege azkatasun-
tsuen emoi eta emaitz zoragarriak? Nunbaiten bai, antza. Baña gure
erritik urrun, beintzat.

Agur, bizkaitar irakurle maitia. Sei ilabete luze eta baltz igazi
dozuz amak erakutsi eutzun elian egindako izparringirik Bizkaya'n
jayoten ikusi baga. Baña, ez al da epeldu ta otzitua izan zeugan len
zenduan euzkeltaletasuna!... Ez. Jaungoikuarren.

Ez, ez, ezelan be ez; iñundik iñora be ez.

Urrilean euzkeltzale zana, gaur be, euzkeltzale dala esan gura
dausku bijotzak. Eta leen euzkeltzale ezana be, gaurdanik. Aberrija
ondatutia nai izan ezik, euzkeltzale biurtu biar dogula, didar ta oyu
egiten dau gure barruak.

Edo-ta euzkerea berpiztuko dogu, edo-ta barruko ixatia galduko
dogu euzkeldun-semiok.

* * *

Jua da negua, bildurtuta eta kokilduta euki gaituan negua. Ta
elorrija zuri-zuri jantzitian, negu luze ta baltz ostian, euzkerea, irar-
kola-jantziz tayututa, kalerik-kale, etxerik-etxe, eskurik-esku eta
bijotzetik-bijotzera dabil. Jazoera bijok batera gertatu izatiak, ez ete
dausku euzkeltzaliok zerbait adierazoten? Ez ete dausku adore ta
indar, ta azku ta kemen barrija emoten? Ez ete dausku "Aurrera,
mutilak!"... irrintzi aundi bat egiten, eta bijotzak dardar jarriten?

Bai! Aurrera ekin biarrian gagoz euzkeltzaliok.

* *Euzkadi*, 1935-III-27.

Urte onen asikeran "Luzear" idazle azkarrak jaurti eban oyua, barru-barruan sartu yakun. "1.935'gn. urtea", iñuan gipuzkoar idazliak, "Euzkerearen urtea" bear dogu.

Asmu ederra, eretxi zuurra orixe. Ta gaurtik egija biurtu biar doguna, ganera, baldin geure buruaren alde gabiltzalakuan geure kaltez ibili ta jardun nai ezpa'dogu.

Euzkerearen aurka ta kontra eztauka zer esanik euzko-abertzaliak. Ezta zer egiñik be. Baña, ezta lakuan baidalakuan... erderia maitetxuago dogu, urrian, geure elia baño. Ezta ori egija!—esango leukie ez batek eta bik, askok be bai—. Ta, guk, ostera, bayetz eta ezetz, bijak batera, esanaz, erantzungo geunskijoe.

Abertzale batzuk euzkerea maite be maite dabena, zalantza ta ezbairik bage esan giñei.

Eta abertzale asko gorabera, euzkeria laster "derrepente" gogortuko litzakela be, ziurtasun osoz eta zer diñogun ondo dakigula diñogu.

Baña oneik biurrikerijok amaitu egin biar doguz, baldin ezer onik egiteko ustietan bizi ba'gara.

Egija galanta diño "Luzear"ek onela esatian: "Ta, jaunak, aberztaletasuna aurerra dijuan bezela euzkerak atzera egiten ba'du. ¿Albiñana'ren laguntzalerik onenak ez al gaituzu azkenerako geroni izango?"

Izan be, geure izakerea ta gogua geuk galdu ezkeruan, berandu baño len, euzkeldun eta beti euzkeldun izatia nai gendukenok... edonortarrak izango geintekoz, baña ez euzkeldumak. Orrelan, ba, egiten doguna egiñaz benctako zoruak baño zoruago dirudigu. Guzurre al da?

* * *

Udabarrijan gagoz. Suzpertz gaitzean euzkerea maite dogunok. "Komunistak" baño ugarijago ta langiliago izan biar gara. Asmu ta dotriña txarrak edonora zabaldu diran antzera, euzkera-zaletasuna. Euzkadi'ko bazter guztietara eruan biar dogu. "Euzkeldunei euzkeraz"... ta euzkotarrak euzkeldundu.

Ekim geure lanari. Jo ta ke, nekatu barik, ukatu barik... Abertzaletasun euzkeldun biar dogu, ta ez besterik.

ENDAITZ.
1935'gnko. udabarrijan.

ERREMU-EGUNA*

“Endaitz”

Eriñotza loran dago. Txaraka-bazter eta bide-ertzak eriñotz-loraz josita agiri dira. Ta zinkurinka, intzirika dabiltz, gogaitu-agiñian negarrez eriñotz-adarrak, euren egunaren zain. Bai, eta eldu be egin-go yake, gizon guztiori lez, gorakunde eguna.

* * *

Erremu-eguna! Abar-igandia...!

Alde guztietan palma-adarra ta eriñotza baño besterik ezta ikus-garri. Zoiatz eliz-ondora, ta ume ta nagosi, adar-txortaz ikusiko dozuz. Sartu barrura, eta edonun ikusgai berbera; besada loretsuz ta palma orri-orritz beterik agertuko dira zeure begijen aurrera. Etxezokonduetan be, ez uste izan beste ezer idoro daikezunik. Ate-ganc ta sapailuetan, balkoietan oraindiño igezkuak aurkitu ziñeiz. Ta solo ta ortuetan be bai.

Ta baita geugan be, gaur, orri-lorok. Egunari beria emon-guraz eta emotiarren, jake-paparrian, solapan eriñotz bat edo beste erabiliko dogu gaur. Eriñotz bedeinkatua, orri eta lora donetsija.

Kanpoz, olantxe ospatu eta jaitu daruagu gaurko eguna. Josu-Kristo Jerusalem'era aintza ta ospez sartu zana. Bere aunditasun eta Jaungoikotasun guztia arrokeriz barik apal ta zindo erakutsiarren, astoeme baten ganian sartu be.

Hosanna, Filio David! Aintza ta goraltza, Dabi'ren Seme orri! Erruki zakiguz!

* * *

Ba-dau egun onek beste zeregintxu bat. Guria lako orritxuetan arratsaldez egin oi dana. Goizian, gorago aitatu dogunez, kanpo-jaya egin dogu. Eta arratsaldian barru-zeregiña.

Parkaziñoko sermoia izaten da bazkal-osteko egitamua.

Baña, egiten ete dogu, gero, zeregiñau ondo?

* *Euzkadi*, 1935-IV-14.

Ustez, bai. Jaungoikua'ri eskerrak, erritar geynok bete daruagu arazo au, azalez behintzat. ¿Nor izaten da, ba, parkaziñoko sermora osteratxua egiten eztauanik, eleizara juanda, edo jun-eziñian gogoz eta barruz eleizkizun orretan tarteko izaten eztanik?

Amar kanpa andi ta ozen edo zaratatsuren durundija entzun, eta arik asti laburgarrenian, an juango dira erxadonara ume ta andi, atso ta agure, mutil eta neskatila erreskadan, eurrez, asko; erriko ta erbesteko, bertoko ta auzoko, kaletar ta baserritar, lureko ta itxaso-kuak.

Baña juaan barik be, orraitño, amaika amaikaterdiko geldituko da zokonduetan. Eta oncitarikuok, murmurur zer adierazoko daben be, ondixerik dakigu, ta ondotxu jakin be. "Gaur, parkaziñoko sermoia. Gaur, sermotara juaan barik be, bayakijuaguk zer esango dauan." Eta ori esan ezkerro, nasai eta barrua artetsu ta kezka aundi barik dabela, dagozan lekuan bertan "erria-manda" egingo dabe Etxe Aundira juaan barik, azpijan atrapau eztaayan...

Gorrotorik ez, alkarganako ezin-ikusirik ez kristiñauen artian. Cizonen artian, esango dau izkintzarajak. Kristo'ren legia ori eztalako, Jaungoikua'ren agindua alkar-maitatutia dalako.

Eta entzulerik geynok, norbere kautan eta kolkorako: "nik eztot iñor gorroto" esango dogu, nunbait. Ta sartu izan garian antzera, kanpora be. Iñor gorroto eztogulakuan; baña lagun urkua biar-bes-tian zoritxarrez, maite eztogularik.

Izan be, aspaldijon aberatsari leporatuten dautseguz erru guztiak; leziño au ederto baño be edertuago ikasi dogu. Geuk be, ostera, siñis-men-arazuak eurek baizen azaletik darabilguz. Areik gure erctxiz, zatar eta gaizo batzuk dira; baña beste enparauok be, eztaigun uste izan aingeru zuri ta garbi garianak.

Kanpoko siñismenez okotzeraño bete gara; azalckerijaz ziaro iguin-duta gagoz. Barruko siñismena biar dogu, ez mingañekua. Bijotzeko ontasuna biar dogu, ez ganctiko santukeririk.

Iñor gorroto eztogulakuan bizi gara; baña lagun urkua biar-bes-tian maitatuten eztogularik. Ta auxe izan osabide ta ontasun bakarra!

Bakia, alkartasuna, maitetasuna...

Orra kistarron gaurko biarkunik andijena: orra mundutar guztion "oraingo bagetasuna eta biar-izana".

Dongetsija bedi gudua, gerria, ta asarria ta gorrotua!

Eztaigun aztu gaurko eriñotz guri ta txairuen antzera, bijar, laster, auts eta ezerez bihurtuko gariana.

Gaur ba'da gure gorakundia, bijar epai zorrotza izango dogu-ta. Begiratu dagigun Zerura...

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

ERRUKI-ASTIA.— Igandian zirian emen be asmu orregaz jai batzuk egiteko, baña eguraldi txara zala-ta, urrengo baterako utzi zirian. Eskia, egin eben, orraitño.

Albista oneik agertu orduko, kontixu, batzuk eginda egongo dira.

Aste onetako egubengan, kalerik-kale “karrozia” edo, ibiltekotan da. Eta gabaz, “Beitia”n, zinia an baturikua Bilbao’ko Geixotegirako.

Domekan, ila onen 12’gn. gabeko bederatzijetan, “Gora Buru”n be, antzez-jai bat izango da, bertoko Batzoki’ko Taldia’k eginda.

Ona emen egitaraua.

Eresija.

“Mox, miss, Xapil”, ekitaldi bakarreko antzerki laburra. Eta antzeznotiñak, oneixek:

“Moexta”, Orue’tar Ane.

“Txomin”, Sarasola’tar Anbortsi.

“Etxekandre”, Egurola’tar Elixabete.

“Prontxi”, Sarria’tar Kepa.

“Indal”, Erkiaga’tar Eusebi.

Neurtitzak, neskatotxu batek esanaz.

Abestijak: “Bizkaitik Bizkaira”, “Txanton Piperri”ren atalak, eta abar, gizonak abestuta.

“Neskamiaren marmarrak”, bakarrizketa.

Ortiz’tar Jone’k.

Bigarren aldija.

“Edatuna”, neurtitzak, neskatotxu batek esanda.

“Irudija: geixua eta geixezaña”. Itz-neurtuak.

Zozketea; erderaz, “rifa”.

Abestijak.

“Bijar arte? Ja jai!”, alkarrizketea, Antzola’tar Miren’ek eta Goi-koetxea’tar Estepan’ek.

* * *

* *Euzkadi*, 1935-V-11.

Lagundu, ba, lekeitiarra! Eta ez aztu gaur bestiagaitik egiten ba' dozu, lagun urkuagaitik egin ba' dagizu, bijar edo etzi, zeugaitik egi- tiaz be danak eztirala aztuko.

Geu sendo gagozan artian egin daigun geixuen alde, gero geu gei- xotu gaitzeanian, geure alde egin dagijen ba.

ZABALDU?.— Au idazten diardugunian emengo Euzko-Batzoki- ja laster zabaldu edo edegiko dabelakua entzun dogu.

Tira, ba, edegi dayela, baña Batzokija Batzoki izatekotaz gero ta ez lo egiteko, edo... musian ekiteko bakar-bakarrik.

Asteren bi edo dira. Emakumiena egin ebela.

E.

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

UDALDIJA.— Asi dira banaka-banaka udazaliak onuntz etorten. Domekan sekulako kanpotarterija ibili zan emen. Ikasle erdeldunak-eta be, etorriko yakuz udaldija emoten. Ikasiko ete dabe, ba, euzkerarik? Eztaki-pa... emengo “ikasliak” baizen erdelzaliak ba’dira, ez beinguan!

Zer ba? —Zer ba!... begituyozue alkarregaz berbetan diardue-nian eta erderaz sumauko dozuz. Danak ez gero!

MAYEZPASKUAK.— Aurten eztoгу mayezpaskorik ixan, bagilekuak baño. Ugaran’eu (Olaeta’n) jai andijak ospatu ditue, bei-proba (edo dema) ta guzti. Garagardua be, naidan beste egon da auzo orretan. Oi dan lez, astelen iluntzian juan zirian emendikuak.

¡Prontoian ebilen an mazija ederra, prontoian...!

ABERRI-EGUNA.— Ganian dogu Iruña’ko jai-eguna. Beribil (automobil) andi bete lagun doiak ez emendik. Gurc dantza zaar maitte “kaxarrankia” be, an egiteko dira-ta, bene-benetan egin be egingo dabe. Orretarako, kaxu jatorrak dira, bertokuak. ¡Ondo egin gero, kaxaganekua!

PANTXOTAN.— Norte’ko moila-mutur guztie arantzalez plen-plen egon da egunotan. Baita “kilin-kalia” egiteko tokija be. Irurogei kañabera bai, eta danak pantxotan. Gixon, andra, neskatila, mutil eta edonor arrantzuan. Al dabenak al dabena egitia.

ATONDUTEN.— Guztiz konpondu dabe ija Arranegi-kalia. Urrengo jayetarako amaitu gura ei dabe.

DONIANE.— Laster dogu Doniane, urteko egunik alai eta pozgarri-jenetarikua. Okerrik ezpa’da, Euzko-Batzokija’k eratuta jai politen batzuk ixango ei doguz. Meza, “jantropia”, pelotajoku, bertsolari...

E.

* *Euzkadi*, 1935-VI-15.

MENDEXA'KO JAYAK*

Aundiuro ta ederto ospatu eben mendexar abertzaliak Iñaki Doniaren eguna. Benetan eta jasian, eurek oi dabenez.

Goxeko zortziretan, meza ixila ta jaunartzia. Baña abesti gozorik asko kantau ebezan.

Amarretan, meza nagosija, iru abadekua. Angelis jaupa-eresi polita abestu eben, gixonezkuak goitik eta emakumiak beetik, txauneskiño-armonijo soñuak lagundurik.

Izkintza, sermoia Lekeitio'ko abade gaste Larruzea jaunak egin eban eta egoki egin be. Euzkel-garbikeri berregi barik, beintzat. Garbi eta errikoi egin ezketiño, eztago garbikeri-bildurrik. Errijak errez ulertu dagijala, orixe da asmo bakarra. Gure semolari onek be, artzez asitako arlo orretatik jo begi.

Siñismen beroa, oitura ta ekandu zinduak, Iñaki Deuna ta Euskalerrija: orra cleiz-itzaldi aretako gayak. Azkenez, Iñaki gurena, amaren aldetik jatorriz mendexarra zan-ta, Likona-Likua alderdijak, jatorri lekuak, gomutagarrija izan dagijan, auzume orretan jaso ta iraggi gura dan oroigailua aitatu, ederretsi ta aibat lenen egin biar dana zala, esan eban. Asmo zindo ta txalogarrija.

Bai eder ta txairo legokela Likua inguruan arrizko irudija, josulagunen, jesuiten buruzagi bikain Iñaki'ren jatorri amatarra mundutarroir iragarri ta autortuaz! Urte bete barru bai?

Benedictus-ostian, lagun eta samur abestu eben neskatilak. Abestija, "Egaz doa usoa" izan zan. Eta azkenian, Loyola'ko semiaren goran, "Euzkel-erriyak".

Ondoren, pelotaka iardu eutsen gaztiak, bik-biri. Pelotia gogor jotzen eben, baña eguzkijak gogorrago jote-ebalakuan nago ni, an bertan. Ederto, mutilak.

Oituriari eutsijaz, eta bai biar be, elixako mayordomiak amaiketaka emon eutsen abeslarijai. Batzuk orduantxe artu eben; bestiak urrungan artzekotan.

Burugiñak munduan amaitu zirala baña, oindiño eztira amaitu. Zer ba? Zer ba...! Plaza-onidoko zelayan ez eguan an lekua makala,

* *Euzkadi*, 1935-VIII-4.

gerizpe gozo ta aixe ozkirritxuaz, bazkari mamiña “barrunateko”. Antxe batu zirian ogei bat lagun, jateko gogo onez ta unore obiaz. Erramon: batu giñian, esanda, artezago, ezta? Tira, ba, olantxe zan-ta.

Mendexarren artian mendexarrak ezirianak be, egon zirala csatia aztu egin yaku; baña dana dala. (“Ibiliko zara zu”).

Emen dok, emen dok suzko zezena. ¿Nun? Aaur, gixona: Uriarte bertsolarija. Ai, alia! Mayan geunkan guk onen inbiri bakue: ogei urteku. (Lau bidar). An jaurti zituzan bertso biribil ederrik asko, “Biztuko ba’litzakez”-etik asi eta “Euzkaldun jayo nintzan” arterañoko guztiak. Uriarte ari baten ebilen Kauldi jatorrari erantzum eziñik.

Gero, kompletak eta errosarijo deuna ixan zirian eleixan.

Jarrayan, mendexar poxpoliñen ekitaldija. Poliki poliki, giputzak olakuari. Lagun-pilua plazia crdi-betian eguan. Bertsolarijak, barriro be, lexarraren azpiko tuntur-ganian. Kauldi’k bota eban lenengua, onelantxe (egi-egija):

San Iñazio egunian
Mendexa’ko errian,
erromerija bat ein biogu
guztion artian

Ango txaluen durundi ta burrundaria! Uriarte’k ekin eutsan gero, asmau-alian. Eta danak pozik, danak adurretan.

Tanbolin soñua, guraña, onen ostian, Benerito eta beste jatorriko atabalari gazte bat txistulari zirala. Andik geruetan, bertsolari ekitaldija, eta auresku bat erbesteknuak eginda.

Ta bitartian, amandre Eguzkija bere amagana juan zan-ta, gaba gancratu yakun. Eta bake ederrez asitakua olantxe amaiturik, Mendexa baserritxu atsegin eta euzkaldun uts aretatik alde-egin genduan, poz eta alai.

Errezioia eban bai, “Amaren semiak” Mendexa’ko aurtengo jayak aundijak ixango zirala csan ebanian. Ai, ta egija! Amaren seme eta alabatan asko ikusi genduzan, egun orretan, baña “Amaren semia” eztakit nun arrano gelditu zan. Bijaramonerako mai-ganekua ikasten-edo...

* * *

Jayak iraun diraue au idazten diardugun bitartian. Iru egunako jayak ixaten ditue-ta...

Agur, irakurle aspaldikua, urrengorarte. Ta ondo bixi.

ENDAITZ.

SANANTOLIÑAK* (UMORE ONEZ)

Aurtengo "Sanantoliñak" izango ete dabe ezer barririk? itanduten asita dagoz aspaldijon gaztiak. Umiai, barriz, ze ardura ete yake pre-gunta orrezaz...! Eta zaarrai? Zaarrentzat, emakumientzat batez be, buruaustia ta esturia besterik eztakarre yayok. Urlija (fulano) etorri-ko bada, sandija agertuko ezpa'da, au izango dana, bestia izango eztana, bata nun sartuko, ori nora bialduko, bazkaritarako zer ipini, aparitarako zer prestau... Mila burutasun.

Egikizum barririk aurtent? Bai ba beñepein eta ja bai egikizuna! Ez al dakizu zein ja Astuen estropadia, gizona...! Amaikatxu batuko dituk bakar batek arrantza egin dagijaneko! (Sanantoliñak alegren-tzijako egunak dirian ez "aztu", gero! astuak kortan egoten dira-ta).

* * *

Ezer barririk ikustekuak eztira izan urteoroko yayok. Baña orre-lantxe oituta gagozanez, yayok beti bardintsuak izan arren, utsune aundija izango geunke barruan urteren baten ospatutzeke geldituko ba'giña. Oituriak darabil ba, geyenbat, gizona. Burruko argijak, gi-txitan.

Esan bestela. (Arira datorren ezkerro aitatu egingo dogu, naita norbaitzu asarratu, molestau). Egun batian eta bestian, sailian, eten barik, onenbeste edo orrenbeste "txetxu-erdi" ardau (batian zuri, urrenguan baltz), eta txolak eta "kañok" eta abar edaten diarduenak, ez al dakije orrenbeste edarik, gaur eta bijar, yai naiz astegun, gauza onik ezin ekarri leyoenik, bai osasunian eta bai sakelian? Eztabe danak yakingo, baña askok bai. Eta olan-da guzti be, oituriak dara-biltz... eta orduantze gustoren. Ain gustora "ze" (!), noizian bein txu-rrut apur bat egiten dauana, be, euren koprarijan sartu nai izaten dabe. (Au, alcohol zalekeri larregijaren kaltezko akulukadia da, ez onen ala aren kontrakua. Ba-dakigu danak bizi biar dabena...).

* * *

* *Euzkadi*, 1935-VIII-30.

Oiturak garabiltzaz ba. Oitura ona ta zindua baldin ba'da, eztago ezer oberik ondo biziteko. Baña ekandu okerrak azpijan artzen ba'gaitu artu, ondatuta gagoz. Ez egin barrerik, egija da-ta.

Lekeitiar yator pilo galanta agertuko yaku egunotan. Euren etxe-ko ta senide ta adiskidiak ikusi nairik. Euren erri maitian egon gurarik. Euren txikitako abijatxuan eguntxu batzuetan baño ezpa'da be, bariro bizi naye.

Onein guztion ezpanetatik yakin nai geunke urte batzuetatik onuntz "sanantoliñak" ze tayu artu daben.

Atzerri-usain geyago edo, erderra ugarijago edo, umore eskasago edo, alaitasun urijago edo, alegrentzija ilago edo, barruko poz guzurrezko geyago edo bizkortasun "artifiziala" edo... Dakijanak esan begi.

Bitartian, umiak luak kontetan ekin dautse. Gaztiak "ixil-poltsia" orniduten. Zaarrak... negua geruago ta urriago dala-ta triste eta itun gomutetan. Auxe da mundua!

* * *

Laster asiko dira zeruan gora "bolabolak". Kotsijupia umez plen-plen dago. Antzarrak bidian dira...

Umore eder eta bake santuan ospatuko al doguz yayok...

ENDAITZ.
Lekeitio'tik.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ARRANTZUA.— Juan dan astian polito ekarri dabe egaluzia. Baiña bai merke saldu dana! Ija ezebezia.

Banaka batzuk txikiña be ekarri dabe.

Ba-dira emen dagoneko besigua jan dabenak be...

EZKONTZA.— Deyetan dabiz Saez Buruaga'tar Jon eta Arteta'tar Eloise. Bata Elordi'tar Jon eta Uberuaga'tar Augustiñe be. Zorionak bitzui.

IKITANESEN KANTAK.— Edo beintzat antzekuenak, bai ba-dira, aspaldion gortu-alian entzuten doguzanak. Orrelan jarraitu ezkeru "azkatasun-eguzkija" laster guk amatau be egingo dogu, amatau be, eta ara be ikusi be egin barik.

PERIJA.— Azkenengo larunbat, sapatuan izan zan ileroko perijia. Esakunia danez bestera, ezaban euririk egin. Urtiau amatutian, J. L. aterri egin dituan perija-egunak zenbat dirian esango dogu. Perija-egun euritsuak gitxijago ixan baietz?

URRILAREN 25'KNA.— Egun gomutagarrija euzko-tarrantzat, geure buru-jaubetasuna galdu gendualako. Larogeta amasei urte aurten ori jazo zala. Legiak egiteko eskubidia kendu euskuen. Euzkeraz egiteko eskubidia ez euskuen kendu, baña ori geuk emon dau-segu arrezkeru. Geuk saldu dogu geure burua.

Iñon erderia geure euzkeria baño maitiagu dogulako. Ezetz esan arren, Castilla-zaliak garialako.

ENDAITZ.

* *Euzkadi*, 1935-X-24.

LEKEITIO*

ANTZERTI-JAYA.— Igaro zan lar egin eztozun arren, arrain barija agertu yaku dagoneko: sardiñia ta bokarta.

BATZARRAK.— Egin dira bazkun abertzalietako urte-azkeneko batzar nagusijak. Amaikatzuk egin dabe “pando”...!

EZ-BIARRA.— Zoritxarra izan genduan juan dan igandez uri onetan. Lor-beribil astun batek Iraola'tar Joseba Andoni mutikotxua zapaldu eban, eta otsian il zan gixaixua. Samin-aldijon lagun gatxekez bere etxekuei. (G. B.)

EUZKEL-ALDE.— Noizik beñian zerbait egiten da-ta, tira, bapez baño oba da. Orainguan egin dana emen, auxe dozu, irakurle: ilero bananduten izan dituen “San Prantzixkuen paperak” orañarte, erderazkuak izan dira. Ta orixe dala-ta, irugarrendar batzuk “boikota” eztautzue egin ba? Gora zeuek! Auri dok lekitar izatia! Eta orain euzkerazko orrijak ikusi doguz.

Zenbat arazotan beste orrenbeste egin giñeiken!

PERIJA.— Larunbatean izango da ilero izan doiana. Azkenengo idazkijan abindu genduanez, igazko perija-egumetan aterri zenbat izan dirian esan biar dogu: erdijak euritsu, erdijak aterri. Ona ba, ezta beti eurija izaten.

KANTATZALIAK.— Aste onetan asiko dira barrero kanta-zaliak. Euzko-Batzokijan, martitzenetan eta zapatuetan, gabeko zortzi ta erdijetan. Euzkaldun zaarren kantak, bertso berriak, abesti barregarriak, eta abar. Gazte nai zaar, liortar eta arrantzale... luak artu baño len!

GAZTIENTZAT.— Eleiz-ctxian be asi dabe gaztiak euren kurtsi-lua igazko antzera. Gazte askok jakin be eztakije-ta, orregatik iragarten dogu emen. Astelenetan, gabeko zortziretan izaten da batzar-txua. Erdue.

E.

* *Euzkadi*, 1936-I-17.

ERRIJETATIK-LEKEITIO*

ARRANTZUA.— Aspaldijon eztoгу arrainki askorik jan. Eztabil esateko arrañik.

BIDE BARRIJA.— Ainbeste bidar ao miñetan erabiliriko Santa Kataliña'ko bide barrija laster asiko ei yaku.

EZKONTZA.— Ba-da oinguan ezkontzia baño ezтана. Domekan bertan bostzu dei izan zirian, batzuk asi eta beste batzuk amaitu.

Etxebarria'tar Domeka eta Iturbe'tar Jone; Mendiguren'dar Burna eta Salinas'tar Elene; Elordi'tar Augustin eta Larzabal'dar Elixabete; Sesma'tar Kepa eta Elordi'tar M. Gotzone, eta Gabiola'tar Erroman eta Odria'tar Erromane.

Zorijonak, zorijonak guztioi. Urte on askotan.

ERREGETARRAK.— Zirkulu barrija edegi dabe Eskolapian. Urizarreneko etxian. "Union Vascongada" edo deritxue euren gudatoki (baluarte) orreri. Berton izan ditue itzaldijak be.

AUTESKUNDIAK.— Orretzek dirala ta eztirala, emen dabil ibiltekua. Ija egunero doguz itzaldijak. Bateko ezkertarrak, besteko eskumarrak, etxe-barrenak paperez josita agiri dira.

Guzur-egunok ainbat lenen amaituko al dira!

AZKEN-MITIÑA.— Sapatuan, jaungoikua lagun, izango da abertzalien azken-itzaldija, auteskundietzazkua.

Arratsaldeko bostetan edo izango da. Dana dala, izparringi onen beste orri alde baten irakurriko dozu zer dan edo ze eztan.

Agur, irakurle, zuzentasuna ta bakia beitez zeugaz.

E.

* *Euzkadi*, 1936-II-14.

ERRIJETATIK—LEKEITIO*

ABERRI-EGUNA.— Urrengo larunbatian, Aberri-Egunaren atzegunian, suak egingo dira Lumantxa-mendijan, edo Kalbarijuan, iluntzian.

Gabeko zortzi ta erdijetatik amarrak arte, erromerija izango da Batzoki'ko baratzian.

Domekan.— Goizeko 7 ta erdijetan, jaupa eta jaunartzia, Konpañia'ko eleizan.

Zortzi ta erdijetan, danbolin-soñua kalerik kale.

Meza nagosi ostian, ezpatadantzarijen ekitaldija, mutil gaztiak eginda, eta ondoren, aurrekua.

Ordu batetan. Batzoki'ko mats-parrelpian bazkarija. Ona emen jakijen barri:

Bitartekuak.

Arro-zuku ornidua.

Lebatza saltzan.

Lebatza brijiduta.

Bildotsa edo-ta solomua.

Ezkaratz-gozuak.

Igalijak.

Ardau gorrija.

Saneurrija, sei laurleko gizonezkuak, eta bost, emakumiak.

Arratsaldeko lau ta erdijetan, geure Etxe-ko baratzian. Euzko-abertzaletasun itzaldija.

Gabaz, enparantzako dantzaldija amaitutian, amarrak arte, danbolin-soñuaz erromerija batzokiko ortuan.

EGUNEKO ALOGERA ABERRI-ALDE.— Zapatuan arratseko seiretatik 9'tara eta igandian, goizeko 10'etatik gabeko bederatzijetara egongo dira maikuak, Euzko-Batzokijan.

ARRANTZUA.— Ezune luze ta gorrijaren ondoren egalaburra agertu yaku. Astelenian lau-bost lurrunontzik ekarri euskuen zeozer. Bakarra ugari, bakarra iñoiz ez lako biarrizan gogorra dogu-ta.

* *Euzkadi*, 1936-V-28.

BIDE-BARIJA.— Asi dira parolerako bide barrija egiten. Andik onuntz diardue.

E.

LEKEITIO'KO OLERTI-EGUNA / GOMUTA SAMURRAK*

Ainbeste kezka ta lorrez eratutako jai gogoangarria, joan yaku, igazi zan. Eralguntzeak berezko dituan buru-auste ta ardurak aztu yakuz jai-batzordeko izan giñanoi. Ospatu zan jaya; ixildu dira zarak. Gomuta samurrak ditugu, soil, geure kolkoetan. Zelan azaldu, nola adirazo?...

Egumerokoak ederto baten azaldu ditue albistak. Cuk, zeaztasun batzuk jaulkiko doguz.

* * *

Umien azterketak izan genduzan lenen. Euzkeraz zeñek obeto idatzi, eta irakurri. Eum bat mutiko-neskatok jaso eben gure deya. Ikusgarria egoan Udaletxea; ango zarata eta zaparradea! Nok ixildu eta nok ezi ango lagun-taldea?

Neskatoak izan ziran txapeldun, mutikuak baño azkarrago bai zati bat. Sariak, ostera, guztientzako lain izan ziran.

Kepa deumaren egunez banandu yakezan sariok.

Sariketok urtero egiteko asmoa artu dau Lekeitio'ko "Euskaltzaleak". Ori ondo!

* * *

Gabaz, Azkue'tarren goran itzaldiak izan genduzan. Errik polito erantzun eban; antzokian, ba-zan leku utsik, ostera.

Itzaldi egokiak egin euskuezan Urkiaga, Labayen eta Ariztimuño jaunak eta Altzo abak. Abestaldeak, "Bizkai'tik Bizkai'ra"ren arrantzalienen abestia kantau eban. Eta neskatotxu bik, "Antxiñarik ona" ta "Gaba" olerkiak esan ebezan; Malax'ek, barriz, "Sur bateri" neurtiz zorrotza:

"Munduko surren surrik surrena
Ikusi danik sur aundiena..."

Ango barre-purruztadak eta aren esateko jasa, bape dolidu barik. Auri dok, Josu, auri!

* * *

Binp'eta baump, Goikokalian ba-zan barbarua baño esana. Uzta-yak, arkuak ipinten ebiltzan eta... Bi atondu ebezan. Ezea bata,

* *Euzkadi*, 1936-VII-5.

buru-buruan “Ondo etorri” iñoala. Itxas-tresnaz egiñikoa bestea: “Arrantzaliak, gora!” eresi ta guzti idatzita.

* * *

Igandean, eguraldi ederra izan genduen goizean goiz. Txistularien kalerik-kalekoen ostean, agintari, jakintsu, olerkari, idazle ta abar Udaletxean batu zirean meza nagositara joateko, “Alkate-soñua”ren ots gozoetara.

Gero, Udaletxean bertan, Olerti-Eguna’ko sariketak izan genduzan. Benetan izan zan bai, batzar a, euzkeltzalien batzarra, norbait esan dauanez. Euzkel-idazlerik asko eta olerkari geyenak antxe zirean, eleiz-gizon eta enparauko.

Ondoren, enparantzan, “Basarri”, “Uztapide”, Uriarte, “Zepai” eta “Txapel”, Zubimendi jauna artezkari ebela. Ango entzulien poza! Ango barre ta alaitasuna.

* * *

Eresbatzak euzko-dantzak bakarrik jo zituen. Baña erriak —gure erria abertzalea ez ete?— gogo txarrez ikusi eban egitada ori. Txistuka ta didarrez, bai...

Gomuta samurrak izantauten diardugun onetan, beyua egun eder orretako oroipen mingots gogoragari au.

* * *

Gabeko bederatzietarako antzokira sarrera txartelak salduta egozan. Oyartzun’go “Mendiburu” taldea ezagutu gura, Gora-Buru betebete egin zan.

Lekuona’en “Eun dukat” oso ederto antzeztu eben. Goralpenik asko entzun daroaguz. Tamalez, ixil-samar ari baitziran, orokarlekukoak ezin entzunik egon ziran. “Karmeleren etorkizuna” be, polito baño obeto. Zorionak!

Eta orrenbestez, bertsolarien aapaldiak ormiduta, amaitu genduan Azkue aita-semiaen gorasarrez, Lekeitio’n eralduteko VII’gn. Eusko-Olerti-Eguna. Jai eder, egun zoragarria!

* * *

Udaletxean lau bat egunetan, Azkue’tarren lanen erakusketa egonda. Iruzpalau mai idatziz eta liburuz beterik: elerti-saila, euzkel-saila eta eresi-sailetan bananduta.

Egokiro iñuan "Lauaxeta"k: Azkue'tar Eusebi zanaren irudi bat aurrian gebala, eta Azkue'tar Berpizkunde Mirena geurekin geunka-la ospatu ditugu jayak. Lekeitio'k, alakoren baten be, goratu ditu bere seme argiok.

* * *

Emen izan ditugu Euzkaltaindi'koak, emen izan ditugu olerkariak, idazleak, euskeltzaleak. Geure jayak apainduten, geure erriki-deok aintzatuten.

Pozik artu zaitue gure onek, eta erriaren izenez, eskerrak emon gura dautzuez Jai-Batzordea'k eta Lekeitio'ko "Euskaltzaleak".

Gomuta samurren artean beyoa esker-agiritxu au bere...

ENDAITZ.

AKARREGI'TAR GURUTZ (G. B.)*

Banaka barik piloka yoakuz joan, cuzko-semiak orainguan. Iletazparrez josita datorkiguz albistarijak egunerero. Agurka eta agurka arako egun itzalgarri-arte.

Izadija barreka eta bizitz-indarrez ganezka dakusgun aldiyon, negarra, erijotzea eta ondamentdija geure mendi ta erri maitieton. Eta banaka barik, piloka yoakuz gure ezagun eta aberkide, erritar eta senide...

Batian bestian, il-barriak adierazoten diardugu idazliok, sarri be sarri. Gaurko onetan be, orixe gure zeregin. Oraindik orain, bat eta bi baño geyago agurtu doguz. Beste bat agurtu biarran gagoz une onetan.

* * *

Egun sentija ixan danetik laster, erijotza aldiko kanpai-ots astunak zabaldu dira itxas-ertzian barruna.

Eta barri ituna ezpanik-ezpan, berialakuan edatu da. "Gurutz il da! Juan da gure artetik Akarregi...!"

Il da, bai, gure gogayaren gudari zar bat. Ceure izkuntza gaixuaren maitatzale zintzo, benetan, euzkeltzale eredurik inor izan baldin ba'da.

Aren euzkeraz egin biarra! Bai egoki ta bete-betian esan giñekela Gurutz gaxua: "Euzkelduna izan da". Eredu bikaña, jarraibide txalogarrija.

Zenbat ezkel-abesti eder ez ebazan irakatsi. Eta gure gaztetxuen ezpanetan zenbat eresi zar ez berpiztu! Arek asitako jana etenda gelditu zan. Eta berari sarri entzun itzok gomutau daguz: "umiai irakatsi egin biar yake, irakatsi, ez bertanbera utzi".

Agur, adizkide. Jeltzalia izan zaitugu emen; Lagi-zarra'ren aldija amaitu yatzun ezkerro, izango al zara Jaungoikua'gan betiko!

Otoi gure alde, arren...!¹

ENDAITZ

* *Euzkadi*, 1936-VIII-26.

¹ Bai, otoi, eta gogoz egin be. Akarregi czaguna geban, Kurutz, adizkide kutuna.

Kurutz zintzuaren espanetan euzkereak leku berezija ixaten eban, jausi be inoz etxakan egiten-eta. ¡A ixan zalako euzkeltzale asko ixan ba'lira, ixan...! Goiko Jauna'k, baña, Bere ondora deitu deutsa, ta Kurutz esangina, Goiko Jaunaren ondora joan yaku.

Bai, irakurle, otoi, jotoi aren gogo-aldez!
Goian bego.—Ibon.

GOMUTA SAMURRAK /
“AITZOL” BIOTZ-BEGIETAN DODALA*

Idazpuru onegaz aurtemcin idatzi genduan. Lau ilabete dira ordutik ona, eta gaur gai berberatzea yardu batetzaz ari giñan orduan. Euzko-Olerti Eguna-gaz, alegia. Egun aretako buruzagiak gure arte-tik egaz egin dau-ta, arentzat bedi gure gaurko gomuta zintzoa arentzat gure oroipen gozoa arentzat gure gorasarre maitekorra.

Biotzean min du, min etsia —iñoan beñola Lizardi maiteak—. Olantxe dasakegu geuk bere oraingo. Min atsekabetsua, oñaze bizia. “Aitzol” andia erail dauskue; gure aizatzaile azkar eta irakasle eragi-ña kendu dauskue. Gure samñaren sakona! Zelan siñistu? Nola iruntsi barri itzal au? Bai erdiragarria gure biotzaren zartadea!

Ludiko zorigaitzen menpean gagozalarik, ortzi urdiñera so-egin dogu, eta izarez yantzia ikusi dogunez, baretu gara, eta deunen esanai yarraiki, gure Yaunaren itz biotz-betegarriak otoiztu ditugu: “Zeure naya egin bedi, donokian lez ludion be...”

* * *

Bagilaren guenetan ixan genduan Olerti-yai zoragarria. Zazpigarren Euzko-Olerti-Eguna! Batzordearen lanak garaitzarik mardoena izan eben.

Orduan esanak ez ditugu berresango. “Euzkaltzaleak”-en idazkari nagusi eta suzpertzale azkarrenetariko izan doguna yai orretan arteko bait zan, areri opaldu nai dautsaguz lerro oneik. Aren azken-itzaldiak guretzat, Lekcizio’koak izan ziran-ta.

Olerti Eguna igandez zan. Larumbatez itzaldiak genduzan. Azkenengo eletaria bera izan zan, “Aitzol” azkarra. Aren itzal adi-adi yari zan erria; bai entzule guztien biotzak sutu bere. Esakera egokiz, etorri beroz abertzaletasuna aipatu ebanean, dardara gori batek iñarrosi ginduzan. Gure Erriaren bizitza ta etorkizuna, abertzaletasunaren asmo eta itxaropen yas ederre azaldu (aipatu baño ez), zituanen zarradaz egozan entzulien gogoak. Epel egoana, biztu egin eben aren itzäk; gartsuak ziranak yoran barriz indartu. A bai uncaren gogoangarria!

* *Euzkadi*, 1936-XI-6.

Biaramonez meza nagusi ondoren, Olerti-guduko sariketan egin eban bigarren itzaldia. Gure olerkarien gorralbenak beti oi ebanez yardun zoragarriz abestu zituan. Euzkereari kemen barria txartatuteko lan eta lan diarduen neurtizlari ta idazleak ao ederrez goraldut zitan. Olerkari sarituak elesari bero ta biozkorrez aintzatu ebazan. Ai! Nun ete dira gure lagunak? Sarikide izan nituen olerkariak nun eta zelan ete dira? Bizirik ete ditut guztiak? Ala gure irakasleaz batera yo ete dabe Olerti-Zelai Batera...?

Egun orretako gorabera guztiak, "Yakintza" aldizkari apañean agertzeko, argazkiak bere, bialdu geuntsozan, gure idazkari nagusiarri. Erantzuna izan genduan, beti bezela, samur eta eskertsua. Arrezkero, aste asko barik, guda zital au sortu zan, eta ez dogu izan aren barririk.

Albista baltza izpar mingotsa soil-soil yaso genduan iluntze batez. Badakizu zein, irakurle maite. Goyan bego, euzkotar yator aura. Aldi egokiago baten yardungo dogu, J. L., aren lanetaz.

Aberriaren seme andien arteko izan zan bizitzan; Aberriaren ziñopa aintzagarri eriotzan.

Utsune gaitza dau Euzkadi'k; maitale kutun bat galdu dau Euzkerea'k. Urtzi'ren aginduak, baña, doneak dira. Bere aginduetara biotz zindoz makurtu gaitez, gure zoriona orixe da-ta.

Agur, yaun maite. Irakasle izan zaitugu, aolkari zintzo, aberkide galen, adiskide laztan. Eredu bikaña zu! Yarrantzale izango al gaituzu.

Otoi, otoi, Goi Eder orretatik.

Gero arte, ba.

ENDAITZ.

LEN, ZER? GAUR, BA-DAKUSGU.—
GERO... GEUK NAI DOGUNA*

Aldijaren orrijetatik bat geyago urratu dogu, eta atxe indartsubaren zirimolak barru arturik biurrika eruan dau. Lokatzartera jo dau eta antxe ezerezera bidian, nabarigai eztala txumil, igar, margul lotu da.

Aurten'en ataditan gara urtez josiriko bidezti antzo. Zidor ezaungiak ziarkatu niarrez, pardel jasko ta makila senduaren jabe egin gara. Bidertzak sastarkaz dira, ta astuntasunez gure oñak.

Lena

Ilunabarrak, ozkorritz jantzita, dirdira bitxijak irradatu ditu, osertzean ubel-gorriska txipristiñak barreiatubaz. Geruxe, kirrinka erdiragarritz, gabaren atiak ertsi dira, eta zirikituetatik argi-irristada batek iges egin dau, erbesteratuazoriko maitaliaren intzirrija antzo.

Ikara ilun batez iñarrosi da bijotz eguna ta oroimenak karaxiziñuba egin dau.

Lena...? Gomuta eta ametsa... orra, orra, gixonaren bizitza osua.

Arnasa sakon egin eta bekokiko tximurak luzetan me igitu dira. Gomuta mingotsak berpiztuazotia dan oñazetsuba! Zorijon-aldirik ezin oroitu, min ain bixija sortzen yaku barruban-ta. Itumak, jazokun baltzak, beriala gogora, izpar tamalgarrija antzo.

Zorijoneko urte areik! Gentza zan maizter gure zelayetan eta mendi ziar bere otseñak albokaz eragoioen artalde zuriyak zaintzan. Burdi kirriñaren soñura, maite-jayak sortuten ziran, eta areiztijetan amets-lurriñak egazka ebiltzan.

Ke urdiñak zeru urdiñagoan barruna kiriñauka jolas egijen eta basetxe urtetsubak txori oroen kantaz lokartzen ziran. Eta aitona, txartesaz apaindurik. Areitzpera ibiltaun eta aulkijaun yoianetan, dardaraz, barru eragiñez, irribarreka asi oi zan euzko-lurra. Azkatasuna... gendum laguna.

Gaur

Ugar ta erdoiez arrakalatu ördez, sendo ta osotuten, ustez, kate bat, zintzilik baña lotuta. Gorputz mardo bat, odol-ixurika, erijonez,

* *Eguna*, 1, 1937-1-2.

zauri ertsi-eziñetik. Neskatil baltzerana, ule motz, joputasunez jantzija. Etxe bat, ez ate ez aterpe, ezko ta lixunez josija. Emen, —gixakija dirudi— begijak gorri be kokija ilun, mingain motel...

Asago, orraitño, oyartzun baten irrintzi bixija, aixiak daroia odoi arin baltzez estalijai bai'litzan lasterka ta beti geldi. Umezurtz bat orra, malkuak bagijan, bakar, oyuz.

Ta aixiaren upada barrijak, ostera be, irrintzijaren durundi, bixi ta zolijago...

Gero...

Baso iluna, begiz ziarka eziña, zugatzez bazter artuba. Bide anitz nabari; gurutzez, bideburubak. Emen bidexka bat loraz, edaturik maitetasun-amesea egiña bai'litzan, erdu, esaka. Larrez, zidorrak be aurrera deyez.

Arago, urun-samar, bijotzpian sarriro ixaniko gurarijaren susmurrera leya-ren leyaz, entzun. Pizti orrubak, latz, errukarri bildur-jarijo belarrira otska, argi bagako gabetan letz. Geroenetan, ixilaren baretasuna.

Gero...? Oroipenak eta amesak gixonaren bixitza osua, orra.

Lenetan ondo giñan eta ez giñan. Gaur berebat ete? Gero, ondo ala ez ondo?

Bidiak sastarkaz dira eta astun gure belaunak. Guda oyubak entzun-miñez dira gogo urduridunak, eta baretasun-egarri bijotz amestijak. Arantzak loran, jolas biurriz laster eta odola lurgane borborka gixaki argalaren lereaz aurkan. Malkuaren ezetasuna, irribarre dagijen ezpan gorrijen ezetasunaz oretuta, ezotuta, nastauta...

Aldijaren gorputzean gixonak gurari zoroz ezarritako maian, gixadijak, bein barriro, gaur, oñotsaren danbada astuna. Eta zer? Ezerez.

Bixitxea, erijo jaun makal setatsu baren bijurikerijai gerau-egiñaz, beti-betiro irribarreka.

Etorkixuna? Geuk nai daiguna.

Gogo il-eziña geure ta geure dogu ta.

ENDAITZ.

KARRAXIKA, OTA-LORE*

Enarak Euzkadi'ra eldu-garaiz alegiña genduan olerkariak, bere egun au, irakurle.

Epaila urdiñeko goiz argi izpitar bildurrik, aspaldi eta beñola arestian eta oraintsu, iges egindako «Lizardi» dot gaur, begi eta biotzean.

Ta ona urteoroko opari.

Yo zian usai arek goiaren urdiña; geroztik miazkatzen dut utsunaren samiña, iñoan geroxe «Orixe» adizkide maite eta idazle gailenak. Alabearrez, euzko olerkariok, alkarrenganik sakabanatuak gaituzu, oraingoz.

Ezin, ostera, alkar aaztu.

Otalorak, bide baztarretan, zidor aunaetan, bein eta bairro karraxika, aldarri bizian, itziri gozoz, aantzi samurrez nabari ditut. Eta euren kantari bikaña gogo-gogoan dot, biotz-barruan, barnemuntan.

“Bizitza herri baten aztarnak dira”... Bai, iñolaz bere. Txindoki ta Urkizu aldeetan, ordea, bide-bakan ibil-ertzetan, arrotzaren oiñ gaitzetsigarriak ire gomuta eta oroipen, ire neurtitz betikorrak zapaldu egin nai izan ditu, euzko-lur maiteari bere semeen odol gorri ta gorriez izacra aldatu eta antzutasuna ezarri nairik.

Bañan ez!

Ez dau Izadi amaren sabelak burnirik sortu euzkoa deuseztuteko. Alper gaiztoan eta utsalki, gorrotoaren erauntzi zitalak.

“Urte-giro oro, nik dei ta zatozte, nork zeren saria ekarri zazute”...

Besteak berpizte”...

“Batak itxaro,

yantzi urdiñetan bildurrik, neskuts aratz, ximen eta garbi, esku gurietan bakoitzaren bezuza eder dakarrelarik gure zelai muskerran barrena —ametsezko iduri!— udaleneko goiznabarretan usai gozo ixurika, maitagarriak irradaka datorkiguz, ik bialduak bailiran, «Lizardi»!

* *Eguna*, 63, 1937-III-14.

“Bizitza indar bete” azkenik, eskusari ederrentzat garaitza-koroe disditsua, Euzkadi’rentzat bekar!

Yare, azke nai dogu Aberria gaurkoan iñoiz ez añean, gudari zaar «Lizardi» maite ori.

Egunaren atadian, orain, zauri eze gordin —Urre bearrean odol— odol gorri dogu.

Sakoneko tontorrean, laño bat agiri.

Lañoa urtu dediñean —oñaze itxasoan, zomorro bizia—, ... garaitza izar zeruan agiriko.

Ta orduan bai, maite-yayak, Euzkadi leozpetu yareberrik!...

“Endaitz”

“AITZOL”, OLERKARI ZUZPERZALLE*

Zaspi bidar, urtez urte ospatuteko Euzko-Olerti egunak aurtengo ontan ere, barrituak izango ditugu edertzale ta euzkeltzaleon atsegin aundiz.

Erri-pizkundean arlo eta sail guztiak eraberritzea oi danez, gure aberriaren losorro astunetik esnatze ontan bardin bardin jazo yaku. Gogo azkatasun arazuak zearo eta egoki aberriarenak eta aberriarentzako eskuratu nairik, soin auzi ta arloak ere, erabaki eta burutu bearra dogu.

Aberriaren azkatasunaren alde zcin bidetaz ezin leiteke jokatu? Mila lanbide artu giñeiz, beredin arazu eskuetaratu, zeregin ugari egin, lan asko zuzendu.

Geure egitaraua betetea dagokigu, izan ere, abertzaleoi. Bakoitzaren izakerak alakoxe jardun eta ekintzetara eroan oi gaitu. Amaika egiteko bai-dogu Erri zar bat, erdi eroria ta zearo noiz galdu aurkitu genduan, zutitu, indartu, osotu eta len añean bizi eta sendo, azkar eta buru-jaube biurtuteko. Leze sakonean amildua genduan Euzkadi jaso bearrez, erri artean nortasuna galdua genduan abenda sakabatatua barriren barri osotu bearrez.

* * *

Biotzik bako asmo biurriz kutsututako jendeak izetu eban sutzaro gorabera, gorputzak tinko, gogoak tinkoago, euzko Erri zarraren seme zintzoak lengo bidietaz dabiltz orain ere. Ainbeste eta ainbeste gauz eder ondatu dituan gerra madarikatu onek, euzkotarren gogoari ikuturik ez dautse egin. Ikuturik egin ba'dautse ere, lanean irmo eta trinko iraun aziteko izan da.

Paxismoaren abere-indarra eldu ezin leiteken bazter zoragarriak bai-ditugu, aldiko gertaera bat edo beste ez yaku ezetariko eragozpen.

Irrintzi zoli aura gure hurraldean entzun zanetik gaurdaño, bere oyartzun gozua geure entzumenak osoro indar barritxu daroaz. Azkatasun oyuak durundi egin ebenetik, euzkoak biderik aldatzea eziña da.

* *Eguna*, 95, 1937-IV-22.

Azkatasun zoragarri orretxek beñola bere kantari ta abeslariak sortu zituen. Gaurkoan gudari errime maitaleak sortu ditu.

Azkatasunaren otseiñak edonun bai-dira, ta izan dira. Azkatasunaren borroruak, oro bat.

Soñaren makalune ta gexoaldietan bai egitada bikaña gogoa jaso, indartu, azkatutea. Orixe egitea nabaiten asmo zur izan dogu aldi baltz onetan.

VIII Euzko Olerri Eguna antolatua dogu, buztarria ezarri nai dauzkuen egunetan azkatasuna goratu daigun. Egunon eragile eta zuzpertzailleak soñez gugatik urruti ditugu, ordea. Alabañaz gogoz geure gogoen arnas ditugu, geure biotzen beso garri, geure asmoen zuzpertzale, geure egitaden eragile.

Aberri berpizkundean euzko-olertia jasoten, osatzen eta gurenduten ari izan diranen ikasle ta jarraitzale izan nai dogu, ta orretan aleginduko gara. "Aitzol" zanak eraindako azia, lur antzu ta idorrean jausi danik ez begi iñork esan al.

ENDAITZ

USKOLA'TAR ERRAPEL*

Zastada andia izan yok gure Aberriak ire eriotzeaz, Errapel adizkide min; andiagoa oster, ire barruko ta kutun giñanon biotzak artu dauan atsekabe-ukaldia. Beñola benetan abestu uan kanta zoragarria, oraintsu baten egin uan eskeintza gurena bete dok, eta zearo atan bere, oraingoan. Eztok utsa izan ire oparia, " gerturik daukagu odola, bere aldez emoteko..."

Ta mendi tontorrean, entzun zuan irrintzi, ta mendiaz gora joan intzan oreña baizen zailu, eta ikurriñaren atzean, bai gudari danak azkar abiau ere. Olantxe, jorrailaren goiz argi batez, Gorbeia tontorra euzko-ikurriñaz apaindua lotu zan; ire beso zangarrak arceria erpin aretatik jaurtitzen jo ta su jardun yuen, eta gaiña etsai barik lotu zan. Ire ezpañetik jaso-ala entzun yuaguzan gudaketa gogor aren zertzeladak, eta gure ondorengoak edestiko orrietan irakurriko yuezak "Padura" gudataldekoen egintza bikañak!...

Euzkadi'ko mendiak ire soñaren kemena aspaldi czagutu yuen; euzko gudari baten adorea oraingoan sumatu yuek, Errapel, eta cure jardun eta ekintza gailenen saritzat, magal beroa eskeñi yeutzuek ire gorputzak atsedean dagian, ire gogoa munduko lokarri ezerezak etenda, garbi eta eder betiko bake zelaietara egaz joan dan uanean bertan.

* * *

Gure poza adiskide, ire eriotzaldi donearen barri jakitean! Amaika bidar aitaturtako uena izan yuagu, munduko gure bizitzako azken uena!

Zauri andia, sakona izan dok soñean, euk eskuratutako Gorbeia mendi zoragarrian lortu uan zauri gordiña, burrukalditik ilabetera. Antxe jausi zuan lenengoz ire soña; gero, emen, Bilbo'ko eritegi gomutagarrian izan augu amabi egunez, soña makal, gogoa sendo; gorputza etzanda, gogoa argi ta jaso.

Bañan guk bestera uste izan arren, cure ogetabost urte baño besterik ez dituk izan emen egitekoak. Eta mayatzaren 21'gn., goizalde disdiratsu batean jauparia bitarteko, Jauna'rekin artuemon guztiak

* *Eguma*, 124, 1937-X-27.

garbitu ondoren, intzan bezelaxe, otzan, alai, zindo eta argi, Goiko bidean abiau intzan... gu oñazez gintzan bitartean.

Aurretiaz ikusi uan bakar ori, argituak oi dabenen antzean. Geu gelditu gaituk emen, oñaze bidietan zear ibili bearraz, Urtzi'k nai dauan arte. Baña ire itzala geurekin izango yuagu, ire adizkidetasuna geure kolkoetan ire laguntasuna bere bai gure bizitzaldian.

Laster arte, ba, Errapel, ta ik, bitartean or, Goian,

“Otoi adizkide
otoi gure alde...”

EUSEBI

RAVEL, ZIBURU-KO SEME*

Euskalerrian eta euskal-alaba batengandik jaio zan gizon aundi hontaz, lerro atsegingarri batzuek eskeiñi nai genizkioke irakurle zintzoari.

Histori arazoetan ez jakin gara-ta, eskuratu diguten aldizkari baten orrietatik bilduko ditugu zenbait zehetasun gurbil eta politik, euskeraz jantzirik. Ameriketan dugun Fagoaga musikari entzute-tsuak egiñiko artikulu batetik alegia, adiskide maitagari harek ontzat artuko duelakoan.

* * *

Aita, suizarra izan zuen eta ama, euskalduna, Maria Deluarte. Ama, seindun zegoela, Aranjuez aldetik urbildu omen zan bere bazter kutunerantz, eta an, Donibaneri datxikola dagoen Ziburu-n jaio zan Maurice Ravel aipatua, 1875 martiaren 7-an.

Alabaiña, ez zan aldi luzean egoan bazter hortan sendi hura. Handik laisterrean, Paris-era jo zuten. Aurtxo honen sentipenean, ordea, halako sorgin-kutsu ta lilura-deiera sortu zion itsasoak, Bizkaiko itsas-kolko haren ukitu gordeak.

Behin eta berriro, haraxe itzuliko zan, sorterriko hurraren eta itsasoaren igurtzi isilak miazkatzera, dantza gotorrak ikustera, kirol sendoak onestera, aintziñako musikaren zorapen-durundiak bere gogo ernagarrian kulunkatzera.

Egingo zuen, iñolare, Maurice-ren amak, amaika alegin bai euskal-alaba xamur harek, erri-maitetasunaren garra gaztetxoaren barruan illentiturik irannarazteko.

Paris-en bizi zelarik, urteak joan-ala, nabarmenago ta agiriago zetorren mutikoaren musikarako joera. Berberaren itzak dira, gaiñe-ra: "Umetxotatik nintzan minbera musikarako, edozein musika-muetarako. Aita gurea, zaleen artean ikasi jatorragokoa izanik, nire gustu ta joera sendotzen, egundoko laguntzaillea izan nuen".

Amalau urte zitularik sartu zan Konserbatorioan, pianutik asi ta konposiziorañoiko guztiak hantxen ikasirik. Erromako Sari aundiaren

* *Egan*, XII, 1959.

uzian iru urtetan jarraian agertu zan. Alperrik ordea. Orduan, ain zuzen, bere gustuko musika asmatutzeari ekin zion, aldi hartan zebiltzen simbolismu ta impresio joeren zerbeit kerru izauik, alegia. Joera hauek, pintura ta olertian ezezik, musikan ere, borbor ta galgalean bait zebiltzen.

Dabordutik, Ravel-en musikak, beronen asmoen gorputz argi ta umotua izatea zedukan ezaugarri bedegar eta bakan.

* * *

Geroztik, maiz ta sarri agertzen zan bere sorterrirantz. Batez ere, udaran, beranduko elai ameslariak bezala, etorri ohi zan humerantz, Ziburu-n egon orde, Donibaneko ostaturen batean pausa egiñaz, handik, leiocetan barna, aurtzaroko itsasoari so ta begirakume samurak egiteko aukeran.

Berandu oerutzen zan, eta halatsu jaiki. Haren izaera, aiurria, isilxamarra zan; baiñan, euskaldun jatorra iduri, ba zekian bai, ziri ta irri-itx goxoak bestela-baitakoan esaten.

Euskeraz ongi aski mintzatzen omen zan, paristar azentu ezagunez heterik, jakiña.

Ba zekian utsgabea ez zena, askok ez ohi duten araura. Bere buruaz mintzatzerik ez zitzaion atsegin, eta besteeri buruz itzegitean xaloa omen zan, "baiñan" pipertsurik geitu gabe.

Gorputzez, txaparra zan, lendabiziko gerrate aundian soldadutzatik libre gelditzeraiño.

Begi aundiak zituan, zorrotzak, itsas-seme antzo; bekokia zabal, sudurra dexente luzea, belarriak apal, buruari zearo atxikiak. Gogoko zitzaion, egitan, burutsik, buru-as ibiltzea. Jaztea, ori bai; txairo ta txukun zalca zan, eta korbata nabarmen ta zerak erabiltzen zituan, pozik erakuts-araziaz, gaiñera.

Tabaku zalca ere bai, noski, ta amurratua. Merkea izanarren axola aundirik ez; agian, naiago, ameriketakoa tabakua harentzat sobera bai zegoen.

Pilota-partidak gogoz ikusten zituen, jokoaren gorabeheretaz biziro arduraturik. Erriko dantzak ikusteko ere, beti egon ohi zan gertu, gizonzkoen zailutasuna ta emaztekiek doiñu-neurriaren sena goretsiaz.

Euskal-kantak izaten zuten aldi, haren ezpaiñetan. Alabaiñan euskal-melodi bakar bat ez omen du osoro armonizatu. Behin batean, bai esan ere Aita Donosti zenduak zer bakan hori, eta Ravel-en eran-

tzuna: "Ene aberri tipia maite ez dudalako ez da, noski, gertapen hori; ez. Ene asmo-oiñarri zioz da, eiki. Par principe. Erri-kanta hoiek —beste erri batzuetakoak bai—, edapenerako maneagarri ez direla uste dut".

Ez ote horrelaxen, izan ere, ogei urtez ziri ta ukituka erabili arren, euskaltema ornitugogo zuen "Zazpirak bat" kontzertua ezpait zuen bukatu?

* * *

Baiñan, euskal-doiñuen zera, nabarigarri da haren konposizio batzuetan, nahiz ta azalez ta gain-taiuz ohargarri ez izan. Ikus, esaterako, pianu, arrabita eta txeloarentzat idatzi zuen "Trio en la" paketsu ta distiranta. Berberak aitortua ere, euskal-erroa zuena. Haren melodia baiñon ere, ezaugarriagoa da haren ezurketa, neurri askotarikoa, 8/8-z asi ta geroago zortziko jakiñaren oiñera jartzen baitu, 5/8 neurrira. Jakiña, raveltar tankerapetua, eta horrela, arau berdiñen igesi jarraitzen du, mailla autsiak emanaz. Donibanen idatzi zuen Trio hura, 1914'garren urtean. Haren lanik bikaiñena, agian.

Ritmu aldaketaz josiak ditu beste lan batzuek ere. Horra: "Noctuelles", "L'Enfant et les sortilèges", eta batipat, haren gaztetango "Cuarteto en fa" lana. Hui buruz, hauxe esan omen zion Debussy-k, aldabatean arritua ta maisu-lgegez betea: "Ez zazula, arren, musika-jainkoen izenean eta neurean ere, nota bakartxo bat ere aldatu zure "Cuarteto" hortatik".

Itsasoan igarian ibiltzen amorratua zan, eta ain zuzen, goiz eder batean, uretan murgildu zanekoxe, legorrera irten omen zan, arrapaladan eta oiuka: "Emen zegok, emen zegok!" esanaz; ta jatzeko ta aldatzeko astirik gabe, ariñketan joan omen zan pianura, eta atza, anartean guztirik zedukala jo ere bai: do-do, si do re do si la do-do la-do... Horra sortua "Bolero" ospatsua, soil, ta bakan iduri arren, sumin izpiritua sarkorrazten duena. Sabbathier-en itzez, orkesta eratu danik arrezkero, instrumentuzko arrigarrikeri abillena izan da.

* * *

Ravel-en entzuteak, 1929-gn. urtean artu zituan gaiñak. Biarritzen eta Baionan, Donostian eta Iruñe zaharrean, eta batez ere, bere sorterrian, Ziburu-n egundoko gorazarreak jaso zituan.

Handik epe laburrean, 1933-gn., zoribeltzaren atzaparrak itsasi zitzaizkion maisu argiari. Igarian ari zala, nagi ta hagi somatu zuan

bere gorputza. Urrengo egunetan, areago. Aphasía omen zan, gorputzaren zerak pixkanaka galtzenago jarriko zizkion eri ta gaitza. Orduan, etorkizun ilunbezu hori igartean, igesari eman zion. Joan zan Paris-era, gero Suiza-ra, ta berriro Euskalerriratuaz, Larrun mendira igo zan, bere sorleku maiteari, bere senak aginduta, azkenengo agur tristea egin beharrez...

Eta itxaropena galdu urren zuela, Monfort-l'Amaury-ko etxeñoan sartu, Paris ondoan. Han astiro, apurka, gaitzaren mende, ezur ta azal egiñik geratu zan.

Gauzak zeatz eta neurritz doi-doi egiten zekizkian buru bikain hura, bere burua deusetarako gai ez zela ikustean, bai haren samin ta oiñazea bizitzako urte goenetan...! Itxaropen gabe, eta itxaroten...

Ibaieko urak ispillu dituala, han al dago Ziburu panpiñean, haren jaiotetxea, bere bular-gaiñean seme aitorraren izena, arlanduz ertzatua, arro ta maitero erakutsiaz.

ERKIAGA, Eusebio.
Bilbon, 1959 uztailean.

BIZKAIKO BERTSOLARIAK, NOR GORAGOKA*

Joan dan agustuko 27-gn., Bilbo uri aundian, Bizkaiko Bertsolarien burrukea izan zan, Coliseo Albia deritxan antzetzean, Euskaltzaindia-k eraturta.

Lau urtetan jarraian egin izan da jai eder au, eta lauretan emen-txe, Bilbo'n. 1958 ta 1959 urteetan, Balentin Enbeita, Muxika-ko Urretxindorra zanaren semea izentau eben Bizkaiko txapeldun. 1960 gn. urtean, ostera, Juan Mugartegi, Berriatua-ko semea berau, jarri eben lenengo maillan.

Aurten, zortzi bertsolari agertu ziran, gorago esaniko teatruetxera. Ona emen euren abizenak: Ormaetxe, Enbeita, Alberdi, Sardui, Azpillaga, Mugartegi, Ajuria mutiko gaztea ta Ibarzabal, beste askoren artean, Bizkaiko barrutian gaur egunean onentxuentzat jotakoak. Aitaturiko zortzirotarik iñoren utsunerik izan baldin ba litz, Pujana zan ordeazkoa.

Nork siñistu, orrelako mordo egoki ta jatorrik batzea, lau urte leenago?

Asieran izentau dogun egun orretan, eta tamalez teatrua beterik ez egoala, ikusi ta entzun al izan genduan, alderdi onetan bear ba da, egundo izan ez dan lako bertsolari ekitaldia.

Lenengo, Bilboko Txistulariak soiñu politikak jo zituezan, eta unenai, euskerazko azterketak egin eutsen, biñan biñan. Bigarren burrukaldirako, lau berezitu zituezan, epaimaikoek: Enbeita eta Azpillaga; Mugartegi ta Sardui.

Oi diralako puntuez ganera, amaierako berbak bere emon yakezan, bitarteko itzak bakotxak bete egizan, bertso bitan kanta-kantari. Urrengo, lanbideak izan ziran euren eginkizumak: Azpillaga, ganadu-zalea ta Enbeita, piñu-zalea; Mugartegi, dendaria ta Sardui, beti zorrean dabillen bezerua.

Jarraian, gaiak ezarri yakezan, eta bata kantau bitartean, burruka-laguma gela batean sartuta egon oi zan, ezertxu bere entzuteke. Lenengo bien gaia, «Euskerearen alde zelan jokatu» izan zan, eta beste biena, «Gizona ezkondata ala ezkongia, zelan dagoan egokiago».

* *Karmel*, azilla-lotazilla, 1961.

Azken-erasoaldirako, Sardui ta Azpillaga aukeratu zituen, muxikarra ta berriatuarra. Entzule-ikusleak sekulako zarradaz eukezan biotzak. Puntuak ezarri ondoren, lanbideak onexek izango ziran: Azpillaga, langille geisokia izango zan, eta Sardui, alper galanta, baiña osasunez ganezka hizi zana. Orren ostean, batak besteari ezertxu entzun bage, gai onezaz launa bertso: «Oraingo aldian, sendiaren batasunaren kaltezko gatxak». Eta azkenen buruan, bakotxak bertso bana, bederatzi puntukoak, «Sorgiñak» zertzat arturik.

Txapeldun, Juan Azpillaga izentau eben, eta bigarren, Deunoro Sardui. Bertso burrukaldi osoan, jentea adi-adi egon zan, eta batzuetan, biotzean ikutu, urrengoan barre algara gozoak eragin, ikaragarritzko txalo-otsez goratu zituen aurrenen geratu ziran biak, eta beste enparauak bere bai. Asieran, Jon Enbeita, 12 urteko mutikoak, bertso arin eta politak asmau ta esan zituan.

Labur: bertsolari guztiak ekin cutsen gogoz, zorrotz eta arduratsu. Urterik urtera jasoago ta bikaiñago agertu izan yakuz. Egundo ez lez, ziu asko. Bizkaiko bertsolarien urrezko jaiia izan zala esan giñei, bapere zalantzarik bage.

Entzuleak eta burrukariak curak bere, pozarren egozan, jai ikusgarria amaitu zanean. Epaimaikoez erabagi zeatza ta arteza emon ei eben, guztien eretziz, seguru bere.

Eta ori entzunik, baita gure kolkorako esan bere, arako Simeon zintzoak esana: «Nunc dimittis servum tuum, Domine, secundum verbum tuum in pace».

Gau aretan, Jaungoikoari eskerrak, nasai lo egin genduan, gizonen onespena guregan genduala-ta...

Eusebio Erkiaga
Bilbo-n, 1961 udan.

BILBAO'TIK*

Bermeotarrak kantari

Gure errietan, gazteak asi dira ernetzen eta azkortzen. An, or, emen talde berriak sortzen dituzte: dantzariak, txistulariak, teatrugille azkarrak, abeslari ta jende kantaria. Berriro apurka apurka izango ditugu euskal-errietan leen bezela, kulturadun talde politak, errikoen eta auzokoen pozgarri.

Or agertu dute beuren burua Bilbo iri andian Bermeotarrak, joan dan igandean; kantuz ta soiñu pozgarriz ta sentikorrez bete dituzte bilbotarren biotzak.

Gaiñera disku apaiñetan ezarri dituzte kantuak, entzungarriro.

Musika denda batean gertatu izan da orain iru aste. Zaldun batzuek zeuden berriketari, eta ontan, jarri zuten pik-up dalakoa soiñu jotzen.

Zaldun aietariko batek —musika irizle azkarra bera, R. Jalón ziu-rago esan— berriketa etenaz esan zien:

—Orra or musika ederra. Errusitar koruak dira, noski.

—Zer diñozu? —erantzun zion bertatik dendari-andrak, bere senarrari—. Oiek ez dituzu koru errusitarak.

—Ez?

—Ez, jauna. Bermeotarrak dituzu.

Agur maitekorra

Urteak joanda ere, urak beuren bidean...

Ezin bukatu lantxo au, irakurle euskaldunari agur maitekorra egin gabe. Ainbat urtetan gure izkuntza au erdi bazterturik izan dugu euskaldumok.

Orain, berriro izango dugu astekaria, igandero etxera etorriko zai-gun paper euskalduna, Bidasoa-z aruntzekokoengana beurena joaten zaien bezala.

Emen gaude, leen geunden bezela: euskeraren alde. Zuek ere orixe egin bear duzute, euskeraz etxean, kalean, lancaan, aal dan guztian. Beste izkuntzak ere ikasi; baiña gurca izan dedila gure.

E. ERKIAGA

* *Zeruko Argia*, I, 1963.

ZINEA. ZEÑEK GALDUKO DU?*

Izan ere, gaur egunean ez dago iñor zineko moku goxoa uzteko. Nornai da orain zine-zale amorratua. Jakin eta ezjakin, ume ta gazte, ta zaarrak ere, guztiak dakite zinetxeak nun dauden.

Iri andietan eta erritxoetan ba dira zineak ugari, eta izan da norbait, oraingo eskolak zinetxeak dirala esan duana, eta maisuak pelikulak, igimintzak, filmeak.

Gazte ta gizonak ardanegietara bezela —nun dira leengo sagar-dotegi aipatu aiek?— astegunetan maiz, ta jai-egunetan eta bezperetan batez ere, or dijoaz erritarrak ateak betean zineetara.

Zineak berak, ordea, aldakuntza andiak izan ditu, urte laburren barruan. Lendabiziko zine txuribeltz eta isil aietarik oraingo filme doiñutsu ta kolorez beteko oietara, ez dago alde makala! Neurrian bertan ere, leenago maindire edo izara bat naikoa izan zuten gu txikiak giñanean, erriz-erri zebiltzaten “zine belga” erakusle aiek, beuren pelikulak agertzeko, erriko plazan eta kontsejuean.

Ikus-zapi ikusgarri zabal luzeak ditugu orain premiazko, kine-maskope ospatsu ortarako.

Leen, zinera joan eta zer “bota” uraxe ikustea zan legezko ta jator bezala, itsu-itsuan, zetorrena zetorrela. Denbora paxa atsegingarria zan, iñoiz negarrez, iñoiz bildur-izuaz ta zalantzaz —gure “suspense” oraingoa— ta azkenez parra algara eder ta zabalak egiñaz.

Parra kontu ortaz ere zerbait idatzi diteke. Ez ote zaigu parra zabala egiten aaztu?

Baiña, goazen arira.

Zinea ez da ikusi behar, geiagoko gabe. Geroztik, elizako atean, mailla ta neurrietan berexirik agertzen dituzte, baiña ori ontasunari edo zillegi-legeari buruz soillik da. Pekatu-bide ote dan eta gauza ez-egokiak ote dituan, agertuko duten pelikulak.

Ez da nahikoa; ikusi baiña leen jakin bear omen da filme ori nola-koa dan, ederrez, jakituriaz, zindotasunaz. “Zine forum” sortu da. Orrek galduko ote du zinea?

* *Zeruko Argia*, II, 1963.

Beste asmo bat izan du gure goiko galde orrek. Oraintsuago sortu duten asmakaria aipatu nai izan dugu: TV dalakoa, "urrun-agerra". Urrun gertatzen dana entzun bakarrik ez, erradioak ematen zigun bezala; entzun eta ikusi, biak batean.

Orixe omen da zinearen etsaia, telebisio berri ori. Urrutiko berriak horrela ziran asi-berritan, eta ez genekian horrela zan ala ez. Orain, ordea, emen bertan dugu, Euskalerrian, tresna orren bitartez ikusi aal izatea, eta euskaldun askok dakite nolakoa dan, eguero ortan ari diralako.

Ez du noski, urrunagerrak zinca galduko, gaur dauden neurrian irauten baldin ba dute. Zineak ba du bere baitan, TV dalakoak ez duana. Urrunagerra egunkaria bezela da; irakurri ordez ikusi ta entzun egiten dala, geienbat. Alaere, ariñeketako gauza da, berriketa usaiña du, eta eder-ukiturik doi-doi, zineak ortaz ainbat edertasun dualarik.

Orregatik, ez du zinea urrunagerrak galduko. Ez, zati batean.

E. ERKIAGA

UDABERRIAREN BEGIRA*

Olantxe gagoz aspaldion, eguraldi ona noiz elduko yakun. Sekulako negu gogorra egin deusku aurten, eta itsas-ertzetakoak izan ezik, arpegiak zurizka ta kolorga daukaguz.

Arrantzaleak negu eskasa izan dabe; besiguaz ez dabe gauza andirik irabazi, ta Dakar aldean ibili diranak bere, uste eben onurarik ez dabe jaso atunagaz.

Orain, esaera zaarra dan lez "Andra Maria martiko, arrain barria tatiko" pasau da, ta bokarta noiz agertuko esperantzan dagoz.

Itsas-frankuko arrantzua be, errime meetu ei da, ta Ondarru aldeko lumeruak irabazi motzagoak erakutsi deuskuez.

Lugiñak bere, arduratan ibili dira; askok oraindiño ez dabe patatarik erein, eta laster artoa bere, ereteko sasoia izango da. Ganera, eukalitu-mendi ederrak zearo ondatu izan dira an or emen kalte itzelak egiñik, lenengo izotzak eta gero suak batez bere, piñadi sarra-tuetan.

Garizuman

Sartu-sarturik gagoz eta eliza guztietan itzaldi, gogo-iñarkunak eta sermoiak ugari ditugu. Aita jesulagunak sermolari guztizkoa ekarri deuskue Indautxu-ko elizara.

Euskaldunak bere izan ditue aurten eta izango ditue aukera egokiak, sermoiak euskeraz entzuteko. Karmengo clizan eta Donianekoan izan ditue Bilbo-ko euskal-gogo iñarkunak, Aita Alustiza, prantsizkotarra eta Aita Genaro, kalmeldarra iztun izanik, bakoizka.

Aprillaren lenengo egunean asita, gabeko 8-retan, Eliz-erradioz izango dira geisoentzako ejertziuak, aste osoan.

Orrez ganera, Eliz-erradio orren bitartez, domeketan, ordu bi eta laurenetan ehangelioa adierazoten dabe euskeraz; Larruzea abade agungarriak dauka bere gain zeregin txalogarri ori. Eta sapatu arratsaldetan, 4 1/2-tan, gure erriko ekonomi eta kirol eta dantzen agerpen polita egiten dabe geure berbetan.

ENDAITZ

* *Zeruko Argia*, 6, 1963.

LEKEITIO-KO AZKUE-TARRAK*

E. Erkiaga-k

Gure uste onez, ZERUKO ARGIA-ren irakurle askok, ba aal dabe Resurreccion Maria Azkue zanaren entzuterik.

Euskalerrian gure berbeteazko eskolarik gitxi edo baperez izan dogulako, ez litzeteke, ostera, arrigarri izango, euskaldun arteko gizonik andienen entzuterik ez izatea be.

Deportista era kirolzaleen kontuak eta zincko mutil galant eta neska liraiñen gorabeerak obeto dakiez gaurko euskaldunak, euren Errikoseme gailen ta goragarrienenak baiño.

Azkue abadea —gure erritarrak eta etxeakoak be, esan oi eben lez—, Lekeitioan jaio zan, 1864 abuztuaren 5-ean.

Eun urte dira ba, egin egiñak.

Ortik dakusgunez, Txomin Agirre, ta Migel Unamuno ta Azkue gurea urte batekoak zirean. Orra iru euskaldun andi, bakoitza bere arloan. Irurok euskalzale be, baiña ostera, neurri ezbarðiñetan. Lenengoa zaarregi egin barik il zan, baiña euskera ao-miñetan eta bere luma zorrotzean erabillela; bigarrena asi bai egin zan asi, joranez atan be, baiña beste arlo batzukaitik utzi egin eban euskerea bertan beera, geienbat. Azkue gurea, Jaungoikoak emondako urte luzetan egundo etenik egin baga langille ta euskera-maite sutsu agertu izan zan beti.

* * *

Bere gurasoak izen eder ta luzeak ezarri eutsezan: Resurreccion de Jesus, Maria de las Nieves.

Aren abizenak —deiturak— Azkue ta Aberasturi izan zirean.

Aita be, lekeitiarra izan zan, Eusebio Maria, euskal-bertsuak egi ten ezan izan edozelakoa bere denporan. Arena dozu "Parnasora bidea" deritxan bertsu-liburu gazi-gozoa. Bermeoko, Mundakako ta Lekeitio-ko Nautika-eskoletako irakaslea izan zan. Matematiku itzela, arean bere.

* *Zeruko Argia*, 76, 1964.

Azkue abadearen ama, mundekarra izan zan, Mari Karmen Aberrasturi, Eusebio-ren bigarren emaztea. Anai-arreba ugari izan zirean, baiña gaur dan egunean, behintzat, guk dakigunez, ezta aen ondorengorik bizi Euskalerrian.

Aitak, Eusebio-k, euskeraz asko ta asko idatzi baldin ba eban, zer esan dakikegu aren seme onezaz?

* * *

Resurreccion Maria-k nautikako zerak ikasi zituan lenengo. Urrenik, batxiller, Jaungoikoaren bide eskutuak ezaguturik, abadegei egin zan eta Bituriau egin zituan orretarako estudioak. Gero, Salamankan Teologia ta Idatzi santuetako maisukuntzea.

Bere aitaren paperetan eta amaren berbete gozoan izan eban, sekulada osoan, bere kutun izango zan izketearen ernamiña. Il arte-raiño guztian, euskeraren alde lan eta lan ekingo eutsan abade andi ta asperreziñak. Orrez ganera, ba eban beste zaletasun itsu bat be: musikea. Bilboko, Bruselas-ko eta Kolonia-ko Kontserbatorioetan ikasi eban: azkenengo onetan armonia ta konposiziñoia.

“Ibaizabal” eta “Euskalzale” paperak sortu eta Bilbon ataraten zituan... diruak amaitu arte. Etzan sekula diruzale izan, eta orregaitik sarri be, trabesean ibilli oi zan txanpon-kontuan.

Bizkaiko Diputazinoiak Euskal-katedra zalakoa —nun da gaur?— eratu ebanean, maisu izentau eben, eta orretan ekin eutsan urte luzeetan, arik eta ordezkotzat “Kirikiño” itzirik, andik alde egin eban arte. “Euskaltzaindia” sortu zanean, angu Buru izan zan, il zan arte, atan be. 1951 zemendiaren 9-an il zan, Bilbon 87 urtegaz.

Gure berbeteaz egin direan liburuen artean onentxuenak dira bereak, gauzak zelan direan ikasteko eta jakiteko. Iztegiak, gramatikak, lan bereziak... Iztegi nagusia, euskeraz-gaztelaniaz-frantsesez; Morfologia vasca deritxan berbete libururik ederrenetarikoa berea da. “Euskalerraren yakintza”, gure erriko siniskeriak, oiturak eta jolasak-eta, dituan lau liburuko mordoia.

Euskalerrri osoan ibilli izan zan baterik bestera, ta gora ta beera berba zarrak, esaerak eta kantak batzen. Millatik gora kanta batu eta pape-retain jarririk daukaz. Aren edu ta neurriko lanik eztatu beste euskaldun-ekin egin. Bego ba, arro, Lekeitio, bere seme andi ta gailen onezaz!

Beste neurri bateko lanak bere egin zituan: teatru-lanak, musika ta guzti berberak bakarrik egiñak osoro: lau zarzuela, opera bi,

“Urlo” eta “Ortzuri”; “Bein ta betiko”, “Ardi galdua” ta “Latsibi” nobelak. Gramatika txikiak, iztegi txikerrak, eta euskeraz osoro eskribiduriko gramatika bat be bai, gaztetako lana ganera: Euskal-izkindea. Arrezkero eztau iñok egin antzekorik be. Elizarako kantua eta liburuak; abestiak eta itzaldi ederrak.

Pedrell-ek esan ebanez ezan edozelako musikoa Azkue gurea.

Arrigarria da gizon arek egindako lana, guztia berak egin, guztia berak zuzendu. Gizonen lanak obetugarriak oi dira-ta, arenak bere ba ditue, jakiña, utsune ta okerrak. Baiña berari esker or ditugu aren liburuak, “monumentu” izena merezi izan dabenak.

ZIRIKADAK ETA ERANTZUNAK*

E. ERKIAGA

Gazteak ez dagoz lo —zorionez— gure errialdeetan. Errialde geienetan. Zaharren csanak gorabehera gorabehera. Zahar edo zahartzakoenak.

Juan San Martin-ek euskraz eta Ossa Etxaburuk erderaz, lepobetena emon deutse Olaetxea jaunari, onek Donostian egin izan dauan berbaldia dala- ta.

Izkuntzea, berberca ta ezaugarri nabarmenatarikoa dan berbetea galdu arren, erriak iraun legiala, ta bere senean iraun bere, adierazo ei dau Olaetxea orrek.

* * *

Ossa-k lerro batzuetan aztertu dau arlo ori, ta gure Erri onek, euskaldun motz asko, zera, euskel-seme erdaldunik ugari dauala barruan, agertu dau. Ala ta be, euskaldunak —euskeradunak— euren gogoa, arnasea ta izaera berezia daukela epaitu. Egia, izan be.

* * *

San Martiñek, barriz, sakonago ekin deutsa. Eibartar idazle atsegingarri orren lana irakurri-ala, doiñu zaharren otsa entzun dot nik bere, neure kolkoan, guncan, eta aren itzak, nireak be ba dircala gomutauteko, lerro zahar oneik barriro jarten ditut emen. 1962 gnean, agertu nituan.

“Eta edonork daki euskaldunak alkar-soiñuko txori dirala somatzen dutenez batera, izaten duten barru-isuri ta zabaltasuna, sentipen arrunta, erdikitza, batasun-arnasa ta alkar poza.

“Zinez ere, euskal-semeen artean, egungo egunean guztiak izkuntza berberaz ez mintzatzetik, egundoko leze sakon ta galgarria eratu zaio euskaldunen erriari. Ta euskaldungoak, jakiña ba, jasan bear izan du bere bular-bizkarretan, ondamendiaren zauri odolusgarria. Euskera izan dan lokarria ta euskarria urratu ta dcuseztutzean, barneko giroak betiere bi izango dira, edo iru.

* *Zeruko Argia*, 188, 1966.

“Jatorrizko mintzaira galurren dan belaunaldikoen barru-giroa, naasmendu-kabia izan oi dalako. Artegatasuna, goragalea ta larria ditu ezaugarri” (ARAIBAR ZALDUNA, 155).

* * *

Izan bere, euskalduna ta... “vascoa” ez dira bardin samarrak. Banaak dira. Naita euskalduna dana, *bilingüe* izan.

* * *

Ezin erraldatu bage laga Juan San Mrtiñen esanaldi biribil au: “Unibersalidaderako ez det uste euskerak txikiago egiten gaituanik, baizik Europarago sentitu bear giñake, kontra jarri zaigun sasi-muga bat gorabera. Ez da alperrik euskera, European izkuntzarik zarrenetakoa”.

* * *

Gitxienez, elebitzaren alde diardugu aspaldion. Izan bere, noizdantik ete ditugu gure erririk azitxuenak berbeta bikoak. Ikusi gure illerriak, gure paperik geienak, gure izenak eurak.

Alan bere, beste berbetak ikasiak —ta bearreko yaku ikastea— gurea euskera makaldu, auldu eta apurka *bazterrean izteko arriskurantz* goazala esango neuke.

Aste betean egon naiz neure jaioterrian eta orixe susmau dot. Alperrik da, oraindio bere, erririk euskaldunenetarikoa dala nasai-nasai esatea. Gu geu, gazteak gareala esatea beste da. Lillura, txakur-amesa.

Mutikoak, eta batez bere neskatoak erdera parra-parra egiten dabe kalean. Leentxuago jazoten ez zana.

Batxiller egiteko komeni ei yake. Egia orixe be. Baiña 10-16 urte bitartean erdereari gustoa artu ezkeru, nok gero euskaldundu barriro? “Lizardi” eskas izan da gure artean. Eta “Lizardi” gurea, txit maitagarria bera, erderaren gogortasunpean ibili izan zan betiro, euskera egosgogorra sarri askotan eskeiñiaz guri. Bere bikaintasun eta bakantasan jatorrak gorabehera.

Orixe da gure min sor eta larria. Orain 30 urte Lekeition, 95 % —euneko larogeta bost— izango zan euskerea. Gaur dan egunean, 50 % inguru. Euskera ugari entzun leitekela an? Bai, guztia errelatibua baldin bada, an, gaur, nik neuk, gaztelania franku entzu dot aste orretan; eta artean frantsesak eta abar aldegiñik egon dira.

Ez da naikoa jakitea. Egin egin bear da euskeraz. Bestela... marrut.

* * *

Euskerea baztartzte orretan, “monjak” —mojak— elementurik biurrienak dira. Aen errekomendaziñoa ei dabe gure neskatoak, edonun eta beti gaztelaniaz egitea.

Azkue-k gogor jo zituan bere “Ardi galduan”, eta beste ereti askotan.

Baiña, monjak —ezin esan lekainek, euskal-arerioak dira-ta— aurrera eurenari. Ekin euskerearen kaltez. Agirimagirian, ez ezdakie-la.

Ez dabiz aspaldion “klero indigena” diralakoen billa gure katolikuok eta egokitasunez jardun be?

Emen, ostera, ez dirudi dotriña orrek aukerarik daukanik.

Monja madarikatuok...!

Jakin begie musika isillegirik eta berbeta muturik ez dogula nai, ez bear, Euskalerrian. Eta etxekandrearen semeak ez dauala jopu-seme izan bear emen bere.

* * *

Folklore ta abarrekoak or ekin deutse bero-bero, gure asaberriaren alde, biderik egokienak zeintzuk ete direan alkarri adierazo gurarik.

—Zergaitik hainbeste folklore— itaundu dabe batzuek.

Ai, lastanok, zergaitik diñozue? Beste biderik asko eragotzirik ditugulako euskaldunok. Argi dago ori.

* * *

Beste batzuen esana: oraingo idazle gazteen lanak, illunak direa-la, bai asmoz, bai idazkezaz.

Asmoz illunak izatea bada batzuen akatsa. Edo asmorik ez izatea... Edonok daki Saizarbitoriak euskal-idazle GUZTIAK pikotara bota zituana.

Baiña illuntasun ori, gure egumetan, sarri askotan, bildurrak eragiten dau.

Eta obeto idazten, ikasiko dabe... nai dabena. Traketsak, orraitio, trakets jarraituko. Gramatika geiagoren premiña dogu batipat.

Orañago, ostera, euskal-idazle erdal-berbaldunai emon deutse makillakadea, ta ez gozoa, jakiña.

Ona emen “eskandalu” barria, nabarmena, Gomez Ozerin-ek diñoanez...

* * *

Iztegiaren lanak, polito polito egitekoak dira gure Euskaltzain jaunak. Eritxi mailla ta bitarte bardiñean egingo ditue lanak. Eta izan bere, oiñarri egokiak jarri ezkeru, obra egoki, jator ta onuratsua egingo.

Integrismu zitalberaatik aldeginbearra dogu, orraitio, eta dogun guztia bildu ta batzandu. Eta ikasi ta eratu, ornidu, ugaritu.

“F” ta “H” doakabeak, zoribakoak bere, gureak ditugu; gure gureak aspaldion. Ez dira euskaldun guztiak sudur luzeak. Ez dabe letra guztiak luze-zabalean biziera lodi ta bardiñsua. Eta baldin Nafarroan —ez Naparran— afari esaten badabe, Bizkaian bere, afa-ria, afaldu, ifini, frekak eta bafora bere, esan daroagu or emen.

Eta Markiña ladean za-a-rra, ozpera-a, ana-a, eta abar.

Kontuak olan dira.

Eta “H” letreari dagokionez, zer gertau izango zan, Arana-Goiri gazteari, Bidasoaz aruntzekok lenengo liburuetatik arrezkeru erabili daben eta gaur bere darabillen “h” errubako ori, Iparrean ta eguzkialdean lez Egoaldean bere, erabiltea otu izan balitzakio? Ziur ziur, guztiok erabili izango gendukcala. Itsasoan ura dagoan legetxe.

Bai. Aita Villasantek norazean diñoanez, Sabino-ren eragiña izugarria ta egikorra izan yaku.

Uka-eziña dana, politiketa azalak gorabera, Sabino baiño lehen, eta Sabino-gandik arrezkeru. Orixe agertu eban lotsarik bage, beiño-la, Azkuek berak.

Ez dogu beste testiguirik bear.

“GERNIKAKO ARBOLA” TA LEKEITIO*

*«Bitaño» adiskideari, gaiñerako
zeetasunak billa ditzan.*

Ba da gure sorterrian musika kutsuzko oroitzapena damaigun mendixka. Zera, Lumentxa deritzona. Erriak, Kalbario izenez darabil maizenik, gurutze-bide pollita ta idurikorra baitu muiño bakar ta tuntur orrek.

Seireun urte beteko dira urrengo urtean, muiño orren barrenera eldu zirala Guzmango Domingo santuaren alabak.

Geroztik, noski, kantu gozorik ez da falta izan bazter beeratu orretan. Alegia, lekaiume oien komentuetan, bai zaarrean, bai berriagoan.

Seigarren eunurte-buru orretan jaialdi bereziak izango baitira, egun batzuk oporretan emateko eldu berri gentalarik, egin diguten eskariari ezin, ba, ezetzik esan. Eta orra, izneurtuak egin ditugu seigarren gizaldi ori aipatzeko, ta euskal-itzei, euskal-doiñu egokia asmatu ere bai.

Bestalde, mendixka orretan gora ta beera, amaika kantu berri eder ernarazi zituan Bizente Goikoetxea musikari azkarrak, emen, gure uri ontan egon izan zan urteetan eta egotaldietan; ain zuzen gure jaiotetxean bizi izan zan lenbizi onera etortzean.

Baiña orain astindu nai dugun zeraz ari gentalarik, Lumentxa mendixkaren mazelean dagoan illerrian, beste askoren artean datzan gorpua dugu aipagarri.

Gaiñean dugu, izan ere, Juan Maria Blas Altuna ta Maskaroa musikari ona il zaneko lenbiziko eunurteburua.

* * *

Durango jaio izan zan J. M. B. Altuna ta Maskaroa.

Noiz, ordea, 1827 gn. ala 1828 garren urtean?

Ikasirik zituan musika gaiak, goi-maillako jakituriaz ondu nairik, Altunak, Paris-en egin zituan azkeneko estudio onuratsuak.

Noizarte egon zan Paris-en eta noiz eldu ote zan Lekeitio-ra, emengo organista izateko?

* Egan, XXVI, 1967.

Oraindik orain, A. Zubikarai-ren luna urduriak adierazirik, arako «Ondarrutar abade» ospatsua, jaiotzez lekeitiarra izan zala jakin izan dugu.

Orraitio, ez dugu noski Altuna gurea zanik idatziko, baiña bai ordea, «Gernikako arbola» kantu ezagun eta maitagarriaz, ba duala zerikusi andirik gure sorterri onek.

* * *

Edonork daki Joxe Mari Iparragirre ospatsuaren ibilleren berri.

Bigarren karlistada, txit laburra arean, Catalunya aldean sortu ta aizatu zuten, 1847 gn. urtean, Tristany ta Ros de Eroles buruzagi ziralarik. Cabrera entzutetsua ere, arako Maestrazgoko katamotza, berriro sartu izan zan España aldera.

Tristany eta Ros berealakoan baitu zituzten eta armaz garbitu ere bai. Orrela, gudu biurtu ez zan matxiñada ori amaitu-ala, zenbait karlistak Frantzi alderako biderei ekin zioten, eta oien artean Joxe Mari ere joan zitzaigun, 1848 gn. urtean.

Frantziatik ere biali egin zuten, ordea, Iparragirre. Ango errepublikazaleak aizatuta, an or emen ozenki ta bero xamar kantatu oi bait zuan Marsellesa dalakoa.

Geroztik batera bestera ibilli zan Suiza, Alemani ta Itali aldean, kanta kantari ta antzerti-taldeekin noski, gose-egarriak asetu bearez. Geroago, Londreseraño jo zuan, eta an, Mazarredo jeneralaz ezaupidea ta zerbait artueman izanik, arek iritxi zion bere lurralderantz biurtzeko baimena.

Ta aukera ortaz baliaturik, uste danez 1851 gn. urtean azaldu zitzaigun euskal-lurretara.

Orduan kantatu bide zuan «Ara nun diran mendi maiteak» abesti xamurra.

Idazle zaarrak diotenez, famarik andiena eman zion kantua («Gernikako arbola» jakiña!), Madrilleko Montera kaleko kafetxe batean, San Luis izenekoan, lenbizi abestu omen zuan.

Ez dugu orrela uste. Bizkaian eta Gipuzkoan kantatu izan zuan aurretiaz, noski. Baiña, diotenez, Madrillen, ainbat euskaldun ikasle ta gaiñetiko euskal-semerengan sekulako zarrada egin omen zuan Joxe Marien zortziko aberkoi arek.

Arik ganeko astéetan, Euskalerrian bertan, erriz erri jardun izan zuan Joxe Mari egoneziñak, euskal-biotzak zuzperten eta leen-miñez jartzen: «...Euskaldunen artean, guztiz maitatua».

Leenxeago Frantzi aldean gertatua, orduan bere sorterrian bertan ere gertatu zitzaion. Alegia, Joxe Mariren kantuak ez zirala ez ango ez emendiko gobernuaren gogoko eta, besterik gabe, baitu eta baitegian illunperatu zuten Iparragirre ederra.

Ta ereti artako kantua utzi zigun, beste zortziko bat:

«Kartzelan sartu naute
polliki polliki,
negar egingo luke
nere amak baleki...»

Anartean, ama gaisoa an zegoan Madrillen, eskolara joan zitzaion mutikoa, berriro noiz etxera biurtuko ote zan begira.

* * *

Urteak joan, urteak etorri, Iparragirrek asmatua zala uste izan zuten doiñua, arena ez zala agertu izan digute. Zalantzas ba zebillen aspaldi asko ta asko, Altuna-rena ote zan musika ura.

Eta orra. Berriki azaldu digute aldizkari batzuek, itzak Iparragirrenak izan arren, doiñua ez zala ez Iparragirre-rena, ta ez Altuna-rena.

Altuna durangarra zan.

Eta Altunak ondotxo zekina, Garai errixkan entzundako doiñua. Egin egiñean, oraintsu arrotu diguten dantza zaar baten doiñua, «Dantzari dantza» bere izena.

Jakiña, komeni litzateke «Dantzari dantza» orren doiñua, zan bezela cukitea. Eta orduan, alkar erkatze lana egitea besterik ez, zortziko zaarra ta Altunak Iparragirre-ren eskiñi ziona berdiñak zenbatcan ote diran jakiteko.

* * *

Eta orain, goazen eunurte ta geixego leenerantz.

Inglaterratik eldu ta geroago, noski, beiñola, Joxe Mari Iparragirre-
rrek Lekeitio-ra jo zuan, ibiltauna bait zan.

Karlista jatorrenak ongi ezagutzen zuten orduko ere, Iparragirre, lenengo gerrate azkenetan don Karlos-en beraren jarraigoan ibilli zalako, arako zauriak zirala ta ez zirala.

Oiñez etorri al zan, ala mandazaiekkin? Dana dala, orien artean Beeko kalertzean zegoan ostatuan sartu zan Joxe Mari. Ta baita ango ctxeko jaunak bereala czagutu ere.

Taberna ori, Bittor Arroitarena zan, gaitzizenez Bittor Arrupaingo, ta baita Bittor Bizar ere. Erreketek kementsua bera, sarjentu maillara jasotakoa. Bizarra gizon arek!... Bai, eta ez nolanaikoa.

Guk ere ezagutu bait genduan, ba zuan izan ere Bittor-ek alako mixterio usaia. Gure denporako gertaldia izan zan urrengo au.

Bittor Arrupaingo min artuta zegoan, eta gero, erren eta koxo geratu zan. Ortuan erori omen zan. Baratz andi ta zabala zeukan, an Santa Kataliñara bidcan. Txakoliña ere egiten zuan urtero, eta zenbait kupel egin ere.

—Maats-parrelak konpontzen diarduala jausi da Bittor, eta min eginda dago.

—Maats-parreletik jausi dala? Jum...!

—Zer, ba?

—Zer ba? Ez ete da jausi, gero, an Armiñako artzudian, azken gerratetik gordeta daukazan armak garbitzen eta zertzen diarduala?

Azken-itzok egiazkoak dira, guk geuk entzunak umetako urte aietan. Eta geroztik, an ikusi oi genduan Bittor trinko eta koxo; arik eta zaarrez il zan arte, 1920 urte inguruan, aiten agurgarri ura.

* * *

Gorago aipatu egun artan, etxeko jaunak ondo baiño obeki artu izan zuan Joxe Mari Iparragirre bere ostatuan. Bapatean, an bertatik urbil zeukan bizartegira joan zitzaion Bittor, bere asmukide zan Popittori.

—Txo, Popitto! Etorri aldi bertatik geurera! An yenkat Iparragirre geurea, kitarra ta guzti!

—Eztok egia izango!

—Ez be.

Popittotarrak, karlista sutsuak ezezik, musikazale purrukatuak ere ba ziran. Aipatzen dugun egun artarik urte asko geroago, Pio Baroja ere Lekeitiora etorria zan, eta zuzen zuzen, Popittoneko bizartegiaren goian ostatur jarri. Popittoren kitarra jotaldiak ain luze eta etengabeak izan oi ziralako, Pio asarratu eta suak arturik, andik aldegin omen zuan, esku-artean zeukan eleberria tajutzeko —Xanti andia ote?— kitarra soinu ekin ura, atsegin ez baiña gogo aldagarri zitzaiolako.

Baiña biur gaitezen gure arira.

Arroita eta Mariari (Popitto) karlista asperreziñak, Iparragirrerekin solasaldi gozoa izan zuten. Egun artan eta gaiñeko egunetan, alegia. Eta Bittor-ek jan eta edan galanki eman zion giputz ibiltariari.

Bertso ederrak zituela, ba, Joxe Marik, Gernikako arbola goratuaz antolatua, eta musika egokia asmatu eziñik zebillela.

Eta bapatean, lekeitiar gizon biak asmo bakarra izan zuten.

—Ba dogu guk, ba, musiku ona errian, ori zertuko leukeana.

—Zein, ordea?

—Altuna, mutil Durangarra, Paris-en ikasia.

Eta ez bai ta ez ez, an dijoaz irurak Altuna-rengana, Iparragirrek zuan musika premiña, nork eskiñi ba zutela-ta.

Eskolapean zegoan Maruriren bizartegia, gaur Caja Ahorros Municipal de Bilbao dalakoa dagoan tokian bertan. Arroitararen ostatuan, ordea, orain bizartegia dauka gure adiskide betiko batek.

Eskolapetik urbil samar dago Trinitade kalea. Ortxe, 7 garren etxean bizi zan, lenengo oiñean, Juan Mari Altuna, erriko organista ernea. Etxe orrek zutik dirau oraindano, aldamenekoa eratsiberri izan arren.

Altunak, etxean bertan zeukan harmonio txiki bat. Eta soiñugailu ortaz baliatu izan zan durangarra, Joxe Mari Iparragirreri doiñu ez ezaguna irakasteko.

Egun batzuetan irauu zuan, beraz, errian giputzak, eta Bittorenean jan, edan eta lo, eta Altunarenean entzun eta kantatu, andik aldegin zuanean ikasirik zeraman Iparragirrek munduan laister agertuko zuan kantu ederraren doiñua, itzak berbereak bait zituan.

Altunak irakatsi doiñua, esan bezela, Garai errixkan entzundakoa zuan gure organista argi arek.

* * *

Leenago aipatu bezela, Madrilleko gobernuari ez zitzaion batere gogoko izan Iparragirreren kantu ernagarria, eta Joxe Mari kartzelatik atera arren, ez zuan onek giro egokirik izan geroztik euskal-lurretan, eta erbestera bidean jarri zan. Asturias-en zear, Galiziraiño jo zuan eta azkenez Portugal-en egotalditxo egiñaz, Ameriketarantz abiatu, 1857 urtetik geroz. Emakume giputzarekin ezkondu zan an, eta artzain ibili. Geroago, berriz, 1877 urtean edo aberriratu zan, eta Zozabarro basetxean il, 1881 gn. urtean.

Iparragirrek il zanean 61 urte zituen, beraz.

Altuna, gazteago zalarik ere, leenago il zan.

Lan au idazte orduan ez dugu argitu aal izan, Altuna noiz eldu izan zan onera. Baiña, 1857 baiño leen izan zala gertakizun ori, argi dago, noski.

Urte aietan, gure erri inguruko seme ta gure erriarentzat ongille ain bikaiña izan zan Jose Jabier Uribarren zalduna, Paris-en bizi zan, bere Bankuetxe ta guzti.

Sinigarri da Paris-en alkar ezagutu zutela Uribarren bankeru ospatsu euskaldunak eta Altuna musikari gazteak. Eta Lekeition aberats arek jarrieraziko zuan organu berri bikaiña jotzeko, nor aukerakoagorik Altuna baiño?

Eta organua baiño leen, noski, eta urte batzuk aurretik, Altuna emen zegoan, erriko organista. Ta organu berri ori zertu orduko, irakatsi izan zion Iparragirreri Garaiko doiñua.

* * *

Uribarren aberats ori, bestalde, senitarteko dugu. Gure aitonaren lengusua zan, eta onen bigarren deitura, aren lenbizikoa bezela zan.

Ikus dezagun orain, R. Okamika gure erriko istorigilleak, 1965 gn. urtean argitara liburuan, 243 gn. orrialdean: «Uribarren, Paris-en il zan, 1861 gn. aprillaren 8-an. Erriko gizon batzuek beren berengiz joan ziran mugaraiño, ongillearen gorpuaren billa. Maiatzaren 14-an eldu ziran urira. Ilkutxa gaiñean mantu egalundua ezarri zioten, itz oiek zituana: Iturriak, ikastetxea, Nautika eskola, Lazunarri. Arek bere diruz egindako lanak. Elizkarietarako, Juan Maria Altuna organistak meza berezia idatzi zuan eta orduantxe estreññatu zuten Parisko 1855 Agerketan saritua izan zan Cavaillé-Coll organu ederra.»

* * *

Gazterik il zitzaigun, beraz, Altuna. Ez zituan 40 urte besterik. Eta aldi artan asko ta asko il oi ziran eriaz il ere, erromantikuen gaitzez: bularretik.

Anartean, bere bizitzako azken urteetan, zenbat bider ez ote zuan ikusi izango Altunak, an, bere etxetik oso urbil, Konpañiako elizaren aldamenean eta armailletan, orduan mutil koxkorra zan R. M. Azkue, 1864 gn. urtean, Juan Mari-ren etxetik bertan, jaio zan ura?

Udazkenean eta udaberrian joan dijoaz geienbat geiso ortarikoa dutenek. Eta alaxe, Altuna ere, 1868 gn. udaberrian joan zitzaigun, garagarrillean, San Antonio bezperan, musika arloan ainbat ikasketa egin eta emaitz mardulak eta borobillak emateko gertu-gertu zegoanean.

Lekeitioko illerrian datza aren gorpua ere. Lumentxa muiñoak maitakiro gorde izan digu oraiñarte, solo santu artan sartu eta esku-bitara, bigarren goimaillan ezkerretik, bidetik urbil xamar.

Arrizko edergaillua du estalgarritzat, karakatxez egiña, emen ugari baita mucta ori. Arriaren atzean, arrabita irudia du, azalgain. Zenbat bider ez ote genduan ikusi, umetxo giñalarik ere, gaur aren omenez lerro maitari auck egingo genituala buruak eman gabe? Zer genekian guk Altunaren berri, orduan?

Aurrean ilartitz auxe dauka:

AQUI YASEN
LOS
RESTOS MOR
TALES DE
D. JUAN MARIA
DE ALTUNA Y
MASCARUA. QUE
SU ALMA ESTE
ENTRE LOS BIE
NABENTURADOS
AMEN
AÑO 1868

Nork jaso ote zion illobi apainxka ori? Agian, Espaiñiako Erregiña Isabel II gn. aginduz, onera etortzen zanetan, arek eskiñi kantuak atsegin izaten zitzaizkiolako?

* * *

Illerriko berri ori azalekoegia izanik, argitasun geiagoren eske elizako artxibura jo dugu.

Eta egia. Aipatutako 1868 gn. urtean il zan. Aurkitu orduko, aibat orri itzuli ditugu, eta arrituta geratu, gaiñera, erri txiki batean, urte barruan aibeste lagun il zala oartzean. Urte artan 121 lagunek izan zuten eriotzaldi. Ez zegoen iñun automobilik, eriotzak orrela ugaltzeko.

Baiña ezbearrez, azidentez, 27 lagun il ziran, geienak ez umeak; sabel-jarioz 13; sukarrez 17, aurrak eta umeak batipat; bularretik 9; tiphus dalakoaz 7; aurrak eta txit gazteak, 8. Zaarrez ere il zan mordoa, ordea, 13. Oraingo cri izugarri ontaz, bizienaz, ez zan iñor il. Eta biotzetik, bat bakarra, ura ere Uribarrendarra, Paristik etorria, baiña gaztea.

* * *

Eliz-artxibuan datzan lur-emate agiria, erraldatu dezagun orain.

“D. Juan María Blas de Altuna, profesor de música.

Como cura de la Parroquial Matriz Santa María de Lequeitio en Vizcaya, obispado de Vitoria, mandé dar sepultura eclesiástica el día de la fecha al cadáver de Dn. Juan María Blas de Altuna, natural de Durango, de cuarenta años, soltero, e hijo legítimo de Dn. Vizente de Altuna y Mazcazaga, natural de Aramaiona, y D.^{na} Cecilia de Mascaroa y Echevarría, natural de Zornonza; falleció ayer de Tisis, habiendo recibido los Santos Sacramentos de Penitencia, Sagrado Viático, Extrema Unción; siendo testigos Pedro de Barainca, sacristán, y José Antonio de Gaviola, enterrador, natural de ésta. Y para que conste lo firmo. Lequeitio treze de Junio de mil ochocientos sesenta y ocho.

Juan Domingo de Aguirre.”

Eta orrelaxe joan zitzaigun, aztarna aundirik uzteke, artista argi ura. Geroago, Belasko ospatsua izan zan organista txit ona urte luzectan, eta urrena, Alex Valdes Goikoetxea, gure musika irakaslea.

Altunaren eriotzako lenengo Eunurteburuan gagozan ezkerro, urrengo urte ortan, 1868–1968 bitartean ondorengo egoki bezala, euskaldun errimaiteak epe gogoangarri ori egokiro ospatzea, bearkizuna litzatela dirudi.

Iparragirrek itz ederrez tajututako bertsuak, euskaldun guztien biotzetara, euskaldun zintzoen biotzetara beintzat, eldu baldin izan badira, Altunak ortarako autatu zuan erri-musikaz isuriak izan dirala ez dezagun aantz.

Goratu ditzagun beraz, kantu maitagarri ori abestutzean, Joxe Mari Iparragirre urretxuarra eta Juan Mari Altuna durangarra.

Euskalerrriak ez al ditu aaztuko, ez bata eta ez bestea, urte luzectan.

E. ERKIAGA

Lekeition, 1967 irailcan.

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Aspaldiko gauzak eta oraingoak

Berba orreekaz, «Aspaldiko gauzak» izenaz agertu eban liburu bat, donostiar idazle G. M. Laffite-k. Arean bere, 1936 gn. urte aaztu-eziñean.

Ba dau liburu orrek atal bat, beste askoren artean sasoi-az eta sentoraleaz diarduana. Gaztelaniaz, euforia berbea ezarri eutsan idazleak. Aren lerro batzuen mamiña azaldu giñei emen, euskerazko jantzi-az.

* * *

«Umore onaren aldekoak gara, ta beti agertu izan dogu orixe. Baita kor izatearen agerpena da eta ganera, osasunaren aldekorik onena.

»Umore ona, birtutea da; antziñako esangura jatorrean, indarra.

»Umore oneko gizonak, izadiak ondo orniduak dagoz; ta orretxe-gaitik, ganetiko gizonak baiño goragokoak dira.

»Bizitzan, burrukaldiak eurrez izango ditugu; ta umore onekoa danak, errez gainduko ditu erasoaldiok.

»Baiña, zer da, zeatz esateko, umore ona?

»Eguneroko gorabecera latzei aurre emoteko era bat; eta orrelan, lagun urkoaz artu-emon samurragoak izateko modu egokia.»

Orra or, Laffiteren errezoi batzuk.

Bizarra moztu

Aldizkari batek, gaur dan egunean, gai barriak edota barritza-koak eta idazle gazteak bear ditu, ta eurrezean ganera. Gai barriak dira jentearen gogoko, albistak eta abar, asmauak izan arren.

Gauza ikaragarriak baldin badira, gogozago irakurten ditue. Izugarri unadan gabiz, egin egiñean be. Tremendismuaren menpe jausi gareala dirudi.

Alan bere, mundukorik geienak, eguneroko boladak eta aizealdiak ez darabiz. Nagiak eta egonzaleak garealako.

Geienok, bizarra moztei ikasi genduan, ta garbiago ta apaiñago dala uste dogu.

* *Anaitasuna*, 156, 1968.

Bizartsu ta bizardun ibilli gura dauanak, ostera, bere esku dauka.
Zikin ibilli nai dauanak, beste ainbeste.

Ez aaztu, orraitíño, eskekoei, txakurrak eurak be, ausi ta zaunka egiten deutsela.

Legepean

Guk geuk, aspaldiko gauzak gomutateari zuzen deritxagu ta komenigarri.

Izan bere, Estoria, bizitzako irakaslea izan oi da.

Estoria itz ori, Gaztelako Alfonso X gn. errege jakintsuak erabili eban; eta baita gure amamak bere, estoria berba orixe berori sarri askotan azaldu euskun. Amama gureak, barriz, ez ekian erderarik. Jazorikoa ez da ipuiña, ta gogoangarri izan bekigu.

Estoria ta Estoril gogoan izateko zerak ditugu, nunbait be, gaueko urteetan. Orraitio, Estoril eta Montejurra esangura bardiñeko ez direana, begien bistako zera da.

Orixe agertu izan dau egunokaz abogadu batek, ain artez esan ezarren. Ez da naastau bear, orraitio, legepean egotea ta lege-barruan ibiltea.

Jakituria

Eguneroko bizitzan, gazteak emen jabilkuz au galde ta ori itandu; onen azterrenak jakin eta urliaren ibillerak susmau guran.

Bai, enetxuok. Ain urte asko lepoan izan arren, gorabeera naikoa ikusiak gaituzue. Gaztetxu giñeala, errege ezagutu genduan Madrillen agintari goren. Areak bere, errege orren alargun anderea eldu izan da zaartzaroan, aitatu dogun uri aundi orretara.

Jazoera orrek, bapatean, arbindu egin ditu batzuen gibelak; kezka ta artega jarri; ames zaarrak birloratu.

Errege orren jaustea, urrengoan aztertu giñei. Arrezkero, errepublikako urte gerakak be, ezagutu genduzan. Ta jarraian izan zan gudua, ariman eta gorputzean utzi euskuzan ondakiñak eta zauri-markak.

Bai, onuragarri da Estoriari begiraldiak egitea noizean bein.

Madrilleko azken-errege izan zana, Romanones kondeak ezik besteak, bakar bakarrik laga ebela be, ezin ba aaztu.

Beste gizon baten esan barragarria be, gomutan dogu: «Errege bako monarkikoa naiz ni»— esan eroian Ossorio y Gallardo zanak.

Caur dan egunean bere, Ossorio-rik naiko ba dala bazterretan,
azaldu giñei.

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Gazteak eta urtetsuak

Gazteak ez ei dagoz konforme.

Ezta zaarrrik asko be, ainbat gauzari buruz, geitu giñcioe artega orrei. Eta ori dala-ta, zaarrak, zartakoak artuak dira, moduren baten alan bestean: gorputzcan, sakelean, ogibidecan, atzerrietan.

Anai-arteko gudu guztien ondorena da izan, besterik ez.

Gu bere, ez genbiltzan konforme.

Zerbait egin bear zala-ta, egin genduan eta egiten jardun genduan. Asmoak egi oso biurtu genduzanik, ezin autortu giñiei.

Gaztetako gure asmo nagusiak, eldutzeke igartu zirean. Gure Erriarentzat eskeiñi genduzan amesak, ames geratu zirean. Indarraren larregikeriak biguntzeko alegiñak, gurari utsean gelditu, orrenbat.

Gu bere, ez gagoz konforme, gazteak izan ezarren.

Txorien lumak

Aldakorrak ei dira txorien lumak. Ez gara bein bere txorizaleak izan. Gorroto ditugu kaiolak. Txorientzat izan, ala gizontzako egin.

Txorien antzera, gizonak bere, luma-aldatzen dakienak beti izan dira gure artean. Aspaldion luna-aldatzeak urri samar izan dira, geienbat; baiña aldaketok ugaritzeko arriskuan gagozala deritxagu.

Txori aldakorrak gizonak direanean, erdal-itzez txaketeruak erizten deutse. Txori zaarrak luma barrickaz... Olakorik!

Komeni jaku Estoria-ri noizean bein begirakunc zorrotzak egitea.

Gazteak ez dira orrelakoak izango, nunbait be. Zintzoak ei dira guztiak. Baiña, arriskurik bere, ez dabe izan txaketeru biurtzeko.

Ori, geroak esango dau. Bien bitartean, esakune jator auxe ausnartu egizue, gazteok: «Eguzkia nora, zazpiak ara».

Gizon baikaiñak

Errien agintariak ba dabe koxka ta sosterrik naikoa euren jardunean. Ideiak eta asmoak direala; gazteen jokerak eta zaarren zorrotasunak direala; ta ekonomi gorabeerakaz, ez urriago.

* *Anaitasuna*, 157, 1968.

Ekonomi unada onek, gure artean be, erpa zorrotzak agertu ditu, ta ainbaten ondasunak meetu ta argaldu egin bere bai.

Urrengo baten egingo deutzagu ukutua ekonomi-egoera negargarriari.

Lantxu onen amaieran, gogora dagigun gizon bikain bat.

Gergorio VII Aita Santu aundia izan zan. Gorputzez erkiña ta indargea izan zan arren, kementsua ta adoretsua, ostera. Eleizearen askatasunaren alde jokatu eban, erne ta bildur barik jokatu be. Errege ta jauntxuen azpitik jaregin guran.

Eredu itzela leengoentzat, oraingoentzat eta gerokoentzat.

Gerrartean bizi izatea gerta izan jakon, eta Erromatik urrun, erbestean, eldu jakon azken-ordua. Bai arek egoki esan be, salmuetan agiri direan itzok: «Zuzena maite izan dot, eta okerra gorrotau. Orregaitik, desterruan ilgo naiz».

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Errege-aulkia

Palomino jaunak argi ta garbi berba-egin dau.

«Errege-aulkiak, au da, tronuak diru-mailla bat dauka: zintzotasuna. Karlistak ez dabe beinbere zintzotasun ori eten. Errepublikak denporan bere, karlistak ez zirean banandu. Leenago ta arrezkero, karlistak, euren asmoak, jokabidea ta erregegaia ez ditue iñoiz ez iñoiz bertan beera laga».

Comutan dogu 1936-39 gerratearen azkenaldera, ordurarte egi-ten zan euren diadarra «Viva el rey», galerazoa izan zala.

Eta alderantzira, E. Romero idazleak artikulu luzean, Falange alderdia, leentan trinkoa zana, geroago ur-antzekoa, orain aize biur-tu dala esan deusku.

Mentalidade zaarreko gareanok, ezin errez aitu onelako gorabe-erak. Orraitio, etorkizuna argi dagoanik ez deusagu iñori siñistuko. Munduko gorabeerak aundiak izan be-ta, giza-burrukak eta diru-burrukak gero be, jarraituko dabe, seguru be.

Irakurgarriena

Komentario naikoa sakona egin dau, laburkiro egin arren, J. M. Alonso idazleak Bilboko «eusko-kultura asteari» buruz.

Gure gauza jatorrak ez ei doguz zetan galdu: kultura, pentsabide, izkuntza, oitura, kirolak, jokoak, bizimodu, ta abar.

Mediterraneu barria agertu dau idazle orrek, sekula bada.

Baiña tira!

Esaera zintzoa ta argia beti da goragarri. Alde baiño kalteko lanak ugariago ikusi oi ditugun ezkerero, Alonsoren lan ori eskergarri bere, ba dala autortu bear.

Asteleneko Orrian azaldu eban artikulu ori. Emen egunerokorik ez asterokorik ez dogu-ta, barri ta albistak, jakiña, erderaz irakurri bear. Egokia da eguneroko papera, izkuntza bat sasoian jarteko. Noiz izango etc dogu barrero?

* *Anaitasuna*, 158, 1968.

Radio Popularreko euskerea

Goizeko zazpiretatik zortzirik arte, euskal esanaldi banakak izaten dira, «Egunon, Bizkaia» atalean. Umore ona ta baikorra agertzen dabe... baiña, mutillak, zelako euskera modua! Orrelakoari eibartarrak euskal-gaiztoa edo orrelako zeezer erizten deutse.

Esaterako, gaur goizean «Radio popularrien» entzun dogunetarik zerbait: «Gaur udaberria, illeko 21. Denpora txarra, baiña ez ainbes-tekoa. Euria botaten dau... Itxi andrieri oien...»

Andrieri oien zer, kafesne berotxua, ala?

Auntz-euskerarantz ete goaz, ba?

Aita Santua eta bakea

Berbaldi mamintsu ta beroa egin deutse Paulo VI gnak. italiar mendi-soldau izan direnei. Ainbat argibideren ostean, auxe geitu deutse:

«Bakeraren soldau izan zaitze; gogoen batasunera doan benetako bakearen zaleak. Eta gauza oneek zaindu bear dozuez: zuzentasuna, askatasuna; eta ondrau ta biotz zabalak izan».

Aita santu maitagarriak zer geiegi eskatzen deutsez bearbada, oraingo gizon eta emakuneei.

Dirua ta indarra ta biurrikeria ugari direan mundu onetan, apalen eskuak eta zuzenen errazoiak lotuta sarriegi. Indarrrik ez baldin bada, eskubiderik bere, ez da errez izaten.

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Ekonomi egoereari ikutua

Azken zenbakian, ekonomi arloa aitatu genduan, eta ikutu egingo geuntsala eskiñi. Onek emoten ditu buruausterik aundienak. Egunean eguneango zera dalako.

Mezarik entzun barik bizi leiteke. Errege barik be bai. Baiña jan barik eta edan barik? Jateke ta edateke ez dago biziterik.

Buruausteak esan ete dogu?

Ba zan beiñola, joskileari praka barriak egiteko agindu eutsana. Baita egin be nekazaleak. Arrezkero, ostera, alegiñak egin arren, ez egoan modurik praken dirua lortuteko. Pagatzaille eskasa izan, gure gizon ori.

Artzeko egoana estu ebillen artean, praka barriduna nasai bizi zan. Alako batean, erre-erre eginda, joskileak auxe esan eutsan praka barridunari kalean bertan, au lagunakaz joiala:

—Ta? Prakak?

—Prakak... estutxu gerrian —erantzun eutsan zordunak, eta aurrera joan zan bere lagunakaz.

Estutxu gerrian

Bai, askotxuk ditue prakak estutxu gerrian, arcan bere.

Esaterako, alemanak euren diru-maillak gorantz egin ez dagian, crabagi sendoak artzekotan dabiz. Eta amerikanoak, barriz, euren dollarra erre kara jausi ez daitean, urreari, urre gorriari maillak jarri guraz, bildurak jota, eguno ba!

Urre gorriaren kalentura egunak izan ditugu udabarrian. Urrea gorantz, dollarra beerantz: erri-agintariak eta dirutsuak arduratan jarri ditu orrelako abaguneak. Jakiña, eguneroko lanez bizi gareanok ez dogu orrenbesteko urre-sukarririk izan. Gaur be, atzo lez bizi gara.

Gure laterrian

Urre gorriaren gorabeera orrek, leen baiño makalago jarri dau gure ekonomi arloa. Lurrak, orraitio, zezeillean izan direan euriakai-

* *Anaitasuna*, 159, 1968.

tik, obeto dagoz egon; baiña aurten garia gitxiago erein da; garagara, geiago, ostera.

Industri kontua meko-meko dabil; atzera nai ez, ta aurrera egiten gatz. Turismuak asiera on izan dauan arren, eralgipenak —inbertsiño saillak— geldi ta illun dagoz. Joan dan urtean ez da aurrerakadarik egin industri sail onetan.

Ekonomi-joera makal au, urte onen bigarren sei illabetekoan mardotuko ete dan uste dabe adituak. Orraitio, diruak puzturik lortu leitekean bizi-aldi ori, barriro kaltegarri izango litzateke.

Dendariak saltze urriak ei ditue. Baiña, ezer merkatzen al dabe? Bai zera! Beti gorantz gauzak. Merkatze-kontuak aaztu zirean. Lenago be, merke... guzura ibiltan zan. Soldatak izoztu dituen arren, gauzen neurriak aldapan gora beti. Lapur aundien artean, txikiak be, izan oi dira.

Bizimodua gorantz

Urtarrillean bizimodua, izotz guztiak gorabeera, 0,28% gorantz. Eta janari, edari ta tabakuetan, 4,87% giño.

Zezeillean kanpuetatik ekarririko zerak, 236 millo dollar baliodun izan dira. Kanpora bialdu zireanak, 117 milloe besterik ez.

Komertzi-dendunak 1968 lenengo illabetean, 325,5 milloe dollarreko billoistasuna izan dau; zera, deficit dalakoa.

Aurten ez ei dogu izango, laterrian premiñea dan beste azukara. Orregaitik 150 milla tonelada azukara ekarriko da aurten Cubatik.

Eta aragi izoztua, 6 milla tonclada ekarriko dira Rusiatik.

Aita-semeak barriketan

—Aita, zer da betikotasuna eta zer aldaketea?

—Betikotasuna, beti bardiñeko egoerea dok, seme. Eta aldatu, munduko gauza guztiak aldatuten dituk.

—Pertsonak be bai?

—Baita pertsonak be. Orreek be, aldakorak dituk.

—Ez eben esaten ba, Urtia betiko zala?

—Aiko, betikoa Jaungoikoa dok. Eta aundia be, bera bakar-bakarririk. Orixe esan joan Bossuet obispoak Luis XIV il zaneko elizkarietan. Beste guztiak danak joango dituk, upea lakoak izan arren.

—Orduan...

- Emen ez dok iñor azitako geldituko.
- Aita, zuk jakin dakizu, gero!
- Zaarra nok eta... deabruarena jazoten jatak niri be.

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Erantzuna

Irakurle bat azalpen eske eldu izan jaku, Bilboko egunkariak di-reala-ta, aurtemein idatzi genduanaz.

«Emen egunerokorik eta asterokorik ez dogu-ta» idatzi genduala.

Bai, jauna. Euskerazkorik ez dagoala esan gura genduan. Gure irakurle orrek apurtxu bat jarraitu izan baleu, laster igarriko eukean guk agertu nai genduana.

Dana dala, azalpena egiteko aukerea emon deusku.

Bilbon ez Bizkaian ez dogu euskerazko egunerokorik ez asterokorik. Ezta euskal atala dabenik be. Orrezaz, ez dakigu euskal errietan bizi garcan ala Gaztelako eremuetan, ala egoaldeko Andra Mariaren lurretan.

Oraintsu auxe, ANAITASUNA asi jaku amabostero agertzen.

Baiña amabost egunean, euskaldunok Bizkaian, baru egin bear dogu, baru luzea, emengo albistariak ez barri onik ez barri txarrik euskeraz eskiñiko ez deuskuelako. Ez dogu euskeraz irakurterik.

Ta ezta entzuterik bere, sermoiren bat izan ezik.

Arakatu dagigun, ostantzean. Ogetamaika urtean, zer argitaratu dabe euskeraz Bilboko «periodikuek»? Zeinbat artikulu? Zeinbat albista? Urtean bein, lantxuren bat bai gero?

Ai, Bilboko ta Bizkaiko irakurle euskaldunen barualdiak!

Euskal leziñoak agertu ditue eguneroko batzuk... diruaren pozean.

Ta, zetarako gura dozu pelotaka jakitea, frontoirik egiten ez baldin badeutsue?

Bilbon, iru «radio» bere, ba ditugu. Baiña ez albistak euskeraz emoteko. Samako miña izaten dabe orretarako. Gure abesti zaar ta barriak bai, noizean bein emoten ditue. Euskal leziñoak be bai, tarteka.

«Erri-irriatiak» orraitino, otoiak, abestiak, Barriona ta gaixoentzako gogo-jardunak be esaten ditu. Leenago, ba zan «Euskal Ordua» bé.

* *Anaitasuna*, 160, 1968.

Baiña esanak esan, batzuen eretxiz, euskereak ez dau balio «informaziñue» egiteko. Cervantes'en berbetea da bakarra orretarako, emen beintzat. Or gorago dozuz agerpenak eta argibideak.

Zinerik noiz izango ete dogu euskeraz? Eta TV? Errazionamentu-ko egunetan 100 gramoko zatitxuak lez jasoten dogu euskerea TV bakarrean.

Orreek ete dira gure berbetea indartuteko modu egokiak?

Euskerazaleak asko bazterretan; «lengua vernácula» dogula ta ez dogula, barriketa ugari. «Alcaloide de lo español» eta orrelako pitxi-keriak bai, «reliquia prerromana» ta abar; baiña...

Belarriak dituanak entzun begi; begiak dituanak, ikusi.

Txekoslobakiara begira

Aldakuntza aundiak izan ei dira Estadu orretan. Askatasun giza-joari arnasa apurra artzen laga ei deutse Txekoak eta Slobakoak eurak. Burutapen sekulakoa, kontxo!

Ez ete dabe jakin oraiñarte, askatasuna Jaungoikoak gizonentzat egin ebala, batez bere? Asmo ta teori politikak buztarri eta buztarri ari-ñen inguru, leen eta orain. «Baiñe, pratike aluu falta» ondarrutarrak esan oi daben lez.

Txekoslobakiara begira dagoz europear gizon batzuk. Comutagari da gure Getxoko armarriak daukan esakune au: «Kalte dagianak, bizarra lepoan».

Arbola tantaictan urkatu dabe batzuk euren burua Praga aldean.

Itxasoko ura

—Aita, itxasoko ura zegaitik da gazia?

—Uretan barruan makailauak bizi direalako.

—Eta, ur geldiak zegaitik izaten dabe ustel-atsa?

—Ur egondu orreek kirastu egiten direalako. Orrelako tokietan arraiñak bere, il egiten dituk. Bakeak ilten jozak.

—Bakea il?

—Bake lar dan lekuan, eriotzea jabik, seme.

—Bai, ur egonduetan lez.

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Esekuo

Txirrindularietan ospatsua izan zan aldi baten Esekuo gurea.

Ziklisten artean, esan gura dogu.

Etapa geienetan, bigarren edo irugarren eltzen zan. Irakurle askok goratuten eben Esekuo. Alako mutillik! Beti edo ia beti lenegoari txirriña miasketan, igurtziten.

Baiña, kontxo! Guztien mailla osokoa, «generalean» iñoiz be ez eben ikusi al izaten Esekuo azkarra. Zelan egiten ete zituen, ba, epai-maikoak, txirrindulari bakotxaren neurtzeak?

Oraingo ibiltaldietan, ez dogu inun ikusi Esekuo (Ex aequo). Aren orde, emengo egunerokoak m. t. letrak ipinten ditue... eta kittu!

Agur, ba, Esekuo! Latiña beerantza doana ezagun da.

Vascongado Itza

Askok eta askok, gu euskaldunok izentatuten gaituenean, *vascongado* berbea erabili oi dabe. Irakurle batek itaundu deusku: zer eta da *-gado* ori?

Ezin neizu gauza ziurrik erantzun orain beñeon, irakurle maite.

Egitekotan, jakitunak erantzun al izango leuskizue. Baiña «Kaleko gizona» zeure antz-antzekoa dozu.

Izan, ba dira emen Bazkune batzuk, izenondo ori daukenak. Ez ete litzakizu onurakorrage eurei itaundutea?

Godo itza Estorian ikasi genduan. Ain zuzen be, *godo* errege guztiak jardun izan eben euskaldunakaz burruka ctenbakoetan. Eta «kronikak» diñoenez, euskaldunak galdu, eta *godoak* irabazten zituen burruka guztiak. Alata be, *godoak* amaitutzat dagoz; euskaldunok ez, barriz.

Euskeraz ba dogu itz bat, bearbada, aengandik jaso: *gudu*, *guda*. *Godoak* euskaldunengana agertu eta *gudu* egitea, zer bardiña zalako, arenbaten. *Gudari* itza, ortik sortua da. Frantses euskaldunak *gerlari* esan daroe.

* *Anaitasuna*, 161, 1968.

Baiña —*gado* ta —*gada* atzizki orreek, ez dirudie gureak. Gaztelaniak berak be, txit bakanak ditu.

Gauza bat esango deutsut ziurra, orraitio. *Vascongado* ta *vasco* bardiñak direala, ikusi dogun iztegi batean. Ostera, batzuk ez dabe iñoiz be, *vasco* esango; geien be, «Bascongado». Eta orra! arean bere, ez dogu oraiñarte «vascongadueñce» iñun irakurri.

Tira, zeozer da ori be!

Alargunak

Gure egumetan, ezkontzen zireanei erretratuak ataretan eutsezan, senar-emazteai, ain zuzen bere. Ezteguna joaten zireanak be, iñoiz, guztiak urtetan eben argazkietan, «fotoetan».

Oraingo aldian, barriz, andra-barri egin direñci, bakarrean egiten deusez erretratuok.

Ez al dozuz ikusi, irakurle, Bilboko Gran Vian bertan, eskaparate aundian, emakumeak zurizko jantzita... baiña bakarrik?

Leengoan, umetxu batek bai esan be, bere amatxuri, zurizko foto ederrok ikustean:

—Ene, ama! Begittu zenbat lenengo jaunartzeko erretratu!

Gure senide batek, emakunea bera, auxe esaten daki:

—Amaika alargun barri oraingo aldian...!

Karguak laga?

Leengo baten, «El Alcázar» paperean zala uste dogu, idazle batek zera eskatzen eban: eleizgizonak, politika kargu guzti guztiak laga bear zituela.

Idazle bakan eta ume-arimaduna!

Kardenal izateko egarriaz dabizan gizonak, zelan orrelako kargu deigarriak itxi? Izau be, Cisneros ta Richelieu, esaterako, izen aundi-koak izan zirean, eta antzemon gureak kilikili egin oi deusku gizonoi.

Santutasunecan be, aundiak izan eta zirean, orraitiiño?

Eleizgizonak, arimako gauzetan itaurreko bear litzatekez, batez be. Ez errietako agintari izatekò.

Ez da bapere betegarri, lurreko arduretan gar aundiago izatea, betikoetan baiño zerago. Ori, edonogan baldin bada, eleizgizonetan, zeresan bakoa.

On igeskorrak ez dagiczala gure begiak lausotu. Ori esan gura ete eban «El Alcázar»eko idazleak?

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Santos Arana jauna

Abade birtutetsu ta on au il jaku, Bilbon il bere.

Baiña Bilboko egunkariak gizon aren neurririk aitatu ez daben ezkerero, geuk egingo dogu euskaldunon aldizkari onetan. Euskaldunen paper bakarra gaur dan egunean Bizkaian, ANAITASUNA dalako.

Bilbon jaioa izan ez arren, don Santos bilbotarra izau da euneko eun, arenbaten. Ona etorri zan gazte zala, ta San Juango eleizan izan zan abade laguntzaille, urte batzuetan.

Euskaldun jaio izan ez arren, don Santosek euskera ikasi eban; eta azken urte oneitan, euskaldunen illetetan errosario santua euskeraz errezau oi eban.

Orain ogeitamabi urte sortu zan-anaiarteko gerratearen ondorenak, emendik urrun croan euskuen don Santos, arik-eta Andaluciako lurretan esipe geratu zan arte, beste abade ta fraille askogaz batean.

Geroago, egon zan Sevillan elizgizon mailla aundiko bat, don Santos bere zeregiñetan laguntzat aukeratu ebana. Ain zuzen, Segura kardenal agugarria. Aren alboan emon zituan don Santosek urterik naikoa; ta gerogarrenean, zaartzarorantz, barriren barri bere Bizkai ta Bilbo maite onetara biurtu zan, Enkartaziñoetan sorturiko eleizgizon apal eta ona.

Barrero Bilbora agertu zanean, leenago ezagutzen ebenak, leengo kristiñau berbera aurkitu eben don Santosengan. Arimaz ta biotzez, leengoa bera; gorputzez zaartxuago.

Orraitio, Andalucia aldeko nekaldiaren ostean, bere erri onetan be, nekeak barritu ta berratu egin jakazan, batekotik bestekora ibilli bearra sortuerazo eutselako. Eleiza bat laga eta bestean egon eta abar jarraitu eban, arik-eta Indautxuko Karmengo eleizan abade laguntzaille ezarri eben arte.

Arrezkerero, Indautxun emon ditu bere azken urteak. Arimen maitetasunean bizi izan da; ta oraingo gazteen eretzix gaukotasun osoa izan ez arren, aren itz argi ta sarkorrak entzungarri zirean berbaldi bero ta kezkatzaillactan.

* *Anaitasuna*, 162, 1968.

Emengo aberri iraunkor onetan lan, neke ta samiña sarri askotan jasan ostein, betiko Aberri ederrean sarrera merezia izan daualakoan gagoz.

Karmengo eleizako abade jaunak opari ximen ta berezia egin deuse. Aren gomutagarrian herba oneik irakurri giñeiz: «Orain bakean bertan bizi da, Kristogaz». Coian bedi, Jaunaren atsegin betean.

Nortzuk dabiz oiñez

Geroago ta gitxiago dabiz oiñez. Jesarrita ibiltea erosoago da, izan be. Eta erri aundietan —txikietan be bai orain— gora ta beera ibilteko be, zurezko ta burdiñazko kutxak daukez, zera jasogarriak, azen-sorak. Eta baita eskillara ibiltaunak be, belauak eta bularrak nekerik bapere izan ez daien.

Bideetan eta kaleetan arriskuak geitu egin dira, beribilletan doazanentzat eta oiñezkoentzat be bai, arranotan! Estadistikak argiro diñoe arrisku orreïn barri. Ikusi daigun munduan dabizan automobillak zenbat zirean 1966 gn. urtean, arrezkeroko zerzeladarik ez dogun ezkerok.

USA aldean, milla laguneko 398 kotxe ebizan; Canadian 282; Australian 265; Suezian 195; Frantzian 195; Alemanian 179; Bretaiña aundian 177; Italian 122; Espaiñian 33, Japonen 29. Arrezkero geitu direanak zenbat ete dira? Eta gaiñeko urteetan egingo diranakaz, nor ibilli oiñez bide-kaleetan?

Zine gorrotagarriak

Zineetako mintzen izenak irakurtea baiño ez dago, odola, gorrotoa, aragi-jokoa ta eriotzea besterik ez susmetako. Amurrua ta gorrotoa agiri da itzetan, irudietan. Bake-bide egokiak ete dira orreik?

Ta gaiñera, umeen jostailuak, jugeteak, zelakoak dira, batez be mutikoentzat saltzen dituenak? Gerra-usaiña besterik ez daben tresnak, pistolak, guda-jantzi eta abarrak. Gurasoak ez ete dira errudun zerik askotan, gaurko mundu onetan be?

Traketsaldian bizi gara, ta milla gauzatan bizi be. Negar egitea ez naikoa, ostera. Oker dagoana zuzendu egin bear da; eta leenago egin ez dana, egin be bai, onerako baldin bada. Bide ona aukeratzea ez da beti errez.

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Batasuna ala bitasuna?

Autsak emon gura izan deutsez, euren bizitza osoan euskeraz baiño idatzi ez dabenei. Orraitio!

Amaika entzuteko jaio giñean! —esango leuke edozein euskaldunek. Euskeraz jakin barik be, euskaldunek. Euskeraz jakin barik be, euskaldun jaio ezta be, eusko izakeran jatorrago izan leitekeala... erdal idazlea.

Olakorik! Astoak prakakin Markiñan!

Ai, baiña, intelektualen zolitasun bakan eta parebagea: euskera umetatik ez dakiana, jatorrena!

Tira! tira! Txiritxu'ri sakatuko deutse ori.

Cantarranas'eko Txiritxuri.

Liburu barria

Dendetan agiri dan liburu orrek «Presente y futuro del Pueblo vasco» dau izena. Gizaldra baten erakutsia dan arren, bakar baten izena besterik ez dabe azaldu. Besteak isillean laga ditue.

Asmoa: gazteen adimenak argitucrazo; lurralde onetako gizasemen pentsabidea zuzendu eta araupean jarri.

Asmoak asmo, geroak esango dau liburu orren emoa, aitorra ala antzua.

Auzi zaarra

Oraingoak, auzi itzaren orde, prolema esaten dakie.

Zaarra da izan bere, Euskalerrriaren auzia. Aspaldietakoa. Nafarroa be, gureztat, Euskalerrriaren zati bat besterik ez da, barriz.

ASDV aldrakoak diñoenez, joan dan mendeko dotriñea, zimeldu egin ei da. Naziño dotriñak, erraza, odol, berbeta ta abar, amaiturren ei dira. Orregaitik eurak, pueblo deritxoe gure Erriari.

Españiña legerrian direan erri guztiak —gai direanak beintzat— autonomiadun jarri ezkerro, guztiak baketsu ta laztantsu biziko ei litzatekez.

* *Anaitasuna*, 163, 1968.

Eta bake-ardatz lez, Madrilleko aginpidean, errege. Orra or, liburu orrek diñoanez, separatismuak tutarrez baztartzeko bide bakar ta egokia.

Pueblo...

Enda ta izkera kontua baztertu ezkeru, pueblo orren izenondoa zein izango ete litzateke? Norteñuak? Kantabresak, Axularrek nunbait agertu ebanez?

Demokrata barrioi, Pays Basque aaztu egin jake.

Alan bere, liburu orren pasarte batean, S. de Madariaga'ri erantzutean, beste euskaldun batzuk be, ba direala argituten dau.

Madrilleko errege egokia zein adarretakoa izango litzatekean be, ez dau zertzen.

Euskerea, or konpon

Bost! ardura deutsa euskereak aldra orri! Sarri askotan illun samarra ta astuna baldin bada, euskera-kontu onetan egosgogorra da, nunbait, liburu ori.

Batasunera bidean diardugun unada onetan, ez dau liburu orrek ezar onuragarririk eskintzen izkereari buruz. Lerro artean erdi agertzen dauana, bitasuna izan leiteke; zera, emen gatzeleraz egin; ta Bidasoaz andik, frantses.

Emen bere, ba dira euskaltzaleak, gure iztegiaganako ardura bakoak; gramatika arloan, zabarrak; sintaxis saillean erderaz diarduenak. Euskaldumen esaera jator ta berezitasun pitxiak aintzat artzen ez dituenak.

Orretara, bearbada, peninsularrago dira, ta baita kontinentalago be. Euskeraz soillik idazten aspertuten direanak.

Ez begiskue erbitzat, katu aragirik eskiñi.

Universal txutxuaz ez begiskue euskal bakotasuna opa.

Alkateak

Albistari batek itaune aixe eginbarri dau: errietako alkateak, noiz izango ete dira erriak berak izentauak?

Ori ba! Bide ori artzea, ostera, demokrazi joeraz ibiltan astea da. Bai. Komeni litzateke ori ta geiago be, egitea. Gaur dan egunean, erri askotan alkateak euren buruz ta kabuz artzen ditue erabagi guztiak.

Udaleko beste gizonak, papau utsak ditue.

Leenago, kargudunak, maisuak, medikuak eta, ez zirean alkate izaten. Orain bai. Jauntxukeri aundiagorik ezin lei jasan erriak.

Alkateak eta epaillak, juezak, ez dira erriko nagusi izateko, errien zerbitzari izateko baiño.

Etxaniz olerkaria

Lenengo saria irabazi dau Zornotzako Larrako lore-jokoetan, Azkoitiko seme dan Nemexio Etxaniz apaiz jaunak.

Or agiri da, urteak gorabeera, neurtitzak egiteko daukan doai berezia. Jakiña, gobernadoreei gutunak egiteko daukan abildadeaz gainera.

Zorion, karlista kumeari.

KALEKOA

ZAARTZAROAREN BILDUR*

Erretirupean bizi direanak

Ekonomi-arloan aitua direan gizonak, argiro agertu dabe gure urteetako ondasun-malkarra.

Zera, diruak geroago ta gitxiago balio izateak dakarren okerra. Oker ori, batez bere, ezukientzat, txiroentzat da.

Aspaldi luzetan diruak geroago ta gitxiago balio izaten dau beti. Baiña ain zuzen, azkenengo gerrate nagusitik arrezkerokoan urtero egin oi dauan beerakadea, ez da bapere atsegiña, egin egiñean be, eskuarte urridunentzat. Gizartearen aberastasun aundiak ez dira guztientzat, antza.

Alogeraz bakarrik bizi direan gizonak eta emakumeak izan dabe naiko lan, aldatz-gora pike ta latzean, euren premiñak zurituteko.

Aldapa orrek ez dau agiri, orain bere, lautadarik. Beti aldatz, beti gorantz. Urterik urte ezezik, illerik illera be, bizimodua karuago; ta orregaitik, diruaren neurria aulago ta makalago.

* * *

Erbesteetako diruak, batzuk sendoago, beste batzuk erkiñago, zelan edo alan mailla bardiñean zaindu ta sendotu eziñik dabiz.

Ortik beste egoera batzuk sortuten dira. Esaterako, beste naziñoakaz edo legerriakaz dituen artu-emonetan be, diruak leen baiño gitxiago balio izatea, sarri askotan.

Guztiok dakigu, zemendian zelako beeraldia izan eban ingelesan diruak, eta espaiñarrak, be bai, beste askoren artean.

* * *

Alogeraz bizi direanak, orraitio, ba dabe sarritan —ez beti— euren bizimoduan zerbait diru geiago irabazteko aukerea.

Baiña lan egiteko edade lar dabena, zera, zaartu direalako erretirau direanak, zelan euren premiñak bete al izan? Diru-sari bardiña artu eta diru orren balioa geroago ta makalagoa baldin bada?

Alogerak jaso-ala, erretirua be gorago jarri ezkeru, ainbat eta ainbat gizajoren bizimodua obatu al izango litzateke.

* *Anaitasuna*, 164, 1968.

Izan bere, oraindiño zaarrak ez direan guztiak bere, atzerago aurrerago izango dabe egunen baten erretiruaz bakarrik bizi izateko ordu naita-naiezkoa. Pinay ekonomistearen ardurak orretan ezagunak izan dira.

Etxe zaarren jabeak eta

Erretiruaz bizi direanen kide ta bidelagun premiñatsuak, beste oneik dira, Keynes'en eretziz: euren kontura lan eginda bizi izan direanak, eta zaartzaroan, euren etxe-errentakaz edota baloreen etorriaz biziteko ustea gaztetan izan dabenak.

Etxe zaarren jabe badira, errentak euren gurariaren neurritz jasoterik ez dabe izango. Orren ikusian, askozaz be obeto dagoz ondasun kontuan, etxe barrien jabe direanak; jakiña, errenta barriakaz diru galantak artu leiezalako.

* * *

Ondasunak baloreetan sartuta dituenak, apur batzuk zori ta suberte ona ta onuratsua izan leie. Baiña azken lau-bost urteotan, emengo ekintza-etxe, enpresa askok, euren arteko emoiak, dibidenduak, ezagunean zimeldu ta erkindu ditue eta askok, zero kendu be bai.

Orretara, balore-jabe gizajo askok be, gorriak ikusteko aukera ona dabe ezuneko urte mee oneitan. Arako ez daukanaren eriotza gozoa...!

* * *

Paperetan eraturiko kozkontzea (desarrollua), ez da gero benetan ain erreza, egikorra ta arteza izaten. Batzuentzat onurakorra ta koi-patsua izan arren, beste askorentzat mamiñak arinduteko ereti kaxkarrak izan oi da. Or bazterretan ba dira arako kozkontze-polo orreik, eperdiz gora jausi direanak bere. Lantegi asko geitu ta geitu jardun izan dabenak, euren atea ixten be ikusi izan ditugu.

Labur esan, etorkizuna gazteak argi ikusi oi daben arren, bai leen ta bai orain, lanegiñaz bizi gareanak, zartzaroaren bildur izan oi gara, urteak mordo aundi biurtzen jakuzanean. Eta bide batez, indarrak auldu ta geure menak makaltzen asten direanetik.

E. ERKIAGA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Urre billa

Gizonak antxiñatik dauka urrezaletasuna. Bizkaian urre mueta bi ditugu: urrea edo urregorria ta urrezirua edo zidarra. Baiña, meatzik ez.

Urregorria da barriren barri, munduan gorabeera aundiak izan dituana oraintsu. Eta izango dituana.

Num dago urrea, gizona aren billa joateko?

Gu bizi garean legerrian, numbaiten, ba da zeozer. An, Almeria aldean meatz koskor bat izan da, urre-abia urri ta ez ugaria ain zuzen. Eta meatz orretako lanak, bertan beera laga ditue. «Minas de Rodalquilar» deritxana geldi lotu dabe. Orain urte bi, 1966'an lanik eza aitxakiaz zertu eben. Eta arrezkero, 1967 gn. urtean be, ez dabe zirkiñik egin meatz orretan. Orraitio, oraintxe dira barriro asteko Tinto ibaieko meatzetan. Kobrez gaiñera, urrea ta zidarra bere, ataratako usteetan dabiz; 70 milloi dolarren balioa edo.

De Gaulle

Gizon luze onek bere aldera jarri ditu barriro be, frantsesik geinak. Alan bere, egin dauana, errezena izan da. Emendik gorakoan izango ditu zeregiñak, ostera be. Erria ezin leiteke beti, norbaiten gogara eroan.

Iru puntutan jokatu bearko dau, eta ez ain errez, bere menpeko gizaseme ta gizalabakaz. Ikasleen auzi garratza; langille ta ogibidekoen auzi garratzagoa: arazo bi oneik buruausterik naikoa ekarriko deutse.

Ondasunen egoerea ta erriarteko artuemonak, frankua makal biurtzeko arrisku gorrian jarriko dabe. Alogerak, zenbatean jasoko ditue? Bizimodua estututeak, eta neurri ain goran, ez dau ondoren baketsurik eratuko. Irugarren puntua, errialdeen eskubideak izango ei dira. Baiña eskubide kontu oneik, ez dira ain zeatzak ta naita-naiezkoak, berez oker ala zindoak izan arren. Deskontu-maillea

* *Anaitasuna*, 165, 1968.

3,50%'tik 5%'ra jasoteak, ez ditu ugazaben begiak argitu. Couve de Murvillen praktetan baiño nasaiago gagoz.

Kontribuziño agerpideak

Ezer ez daukanak, ez dauka kontribuziño paperik zetan bete. Orretan ez dau bapere buruausterik. Sabeleko zorriak emongo deutzaz, orraitio, bereak eta bi.

Amar zaldiko automobilla daukanak, barriz, ba dauka zetan arduratu. Eta orretarako ain zuzen laguntasuna bear dauan ezkerero, liburuak be egin-barri ditue, kontribuziño paperak bete al izateko.

Izan be, ba dira gauza batzuk, gorde ezin leitekezanak: indarra, edertasuna ta ondasuna.

Eta ondasun aundiak dituenak, ez dabe aberririk mundu onetan. Sekulako abiadan iges egin eben diru-mordoak Frantziatik, maiatzeko ta bagilleko egun zaparradatsuetan. Aberriak, jende apalarentzat ta eziñarentzat izan oi dira. Aberatsak eta ijituak, internazionalak izaten dira, ostera.

Andrarik bikaiñenak

Or dabiz ibilli errialdeetan eta legerrietan andrarik azkarrenak aurkitu bearrez. Antxiñatxuago, Miss ortik eta Miss andik, katurik ugari ebillela esan oi eban «Kirikiño» maitagarriak.

Orduan, neskatillarik ederrenak eta lotsabakoenak izaten zireala, esaten genkian. Jakiña, gaur dan eguneko gonamotxik ez egoalako.

Oraingoan, etxekandrarik bikaiñenak billatuko ditue.

Orraitio, pena apurra sortuerazoten dau orrek gizonengan. Izan be, andrarik bikaiñenak, auzokoak dira beti, urrunekoak. Eta urruneko intxaurren kontua, ondotxu dakigu.

Andra bikaiñen ondoan oraingo «gizon bakarrak» jarri giñeiz. Tamalez, izen motza ta ezaiña ezarri deutse bizi garean inguruetan; Errodrigez ain zuzen be. Asmakizun eskaseko gizonak asmaturiko berbea. Zegaitik ez esan euskaldunok, geure zeretik sorturiko berbaren bat? Esaterako, gautxorien antzera jarrita, «bakar-txori» edo?

U Thant jaunaren bildurra

Munduan gerra izugarriena sortzeko bide bakarra ez dala atomika indarra, esan barri dau gizon zintzo orrek.

Izan be, gaixo-kutsuz eta gasez atara leitekean gerrea, ikaragariagoa ta merkeagoa izan leitekeala.

Munduak gaur daukan artegatasunak iruntsiko ete gaitu guztiok?

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

«Lizardi»ren umore ona

Errez-zaleen ta gaitz-zaleen auziaz, orain 35 urte, «Cure bideko mugarriak» idazlana idatzi eban «Lizardi» zanak.

Gaur dan eguncan, andik eta emendik, izkerearen goimaillako batasunaz diardugun ezkerero, ez da ezegokia izango, aren asmoari orraztaldia egitea.

Puxketa batzuk agertuko ditugu, berberak idatzi zituan zitua-nean; beraz, giputz. Ona emen aren esanok:

«Ara. Ba det nik laguntxo bat. Errez-zale purrukatua da, iñorena irakurtzekoan. Baiña bera idazten asten dancan, luma biurritzen zaio, ta iñork ez dio kolperik konprenditzen».

Laguntxu orrek ez eban ulertzen berbere gatx-idazte orren zegaitia zein zan. Baiña alakoren baten, bertso jator errikoi baten egilleari bostekoa estutu ta zorion-agertzerakoan, olerkari onek crantzun eutsan:

«Eskarrrik asko, eskarrrik asko... Zuek bezela ez dakigu, baiña..., amaren bularretik aziak gaude beintzat... Zuek berriz, iñork ba al daki nongo errapetik edoski zenuen?...

«Ateraldi aretxek argi eman zion nere laguntxoari. Bereala, gorri-gorri eginda, izkide errikoiari aitortu bear izan zion baietz, bera etzala txikitán amarenctik aritua..., biberoiakin azia zala!».

Beste argibide batzuk geitu zituan Lizardik artikulu aretan; eta amaiera esana, oso-osorik erraldatuko dogu oraintxe:

«Argatik, bada, bide artan eserleku bakarra izatea baiño lenago eskatuko nuke nik lege ok jartzea:

«Lenengoa: danok iskribatu dezagula *con sintaxis* esaten dana.

«Bigarrena: irakurtzekoan erreza nai dunak, idaztekoan ere ala nai izan dezala, *Trigonometria*z ari balitz ere.

«Irugarrena: biberioiez azitakoeri mugarri koxkor baten eskubidea eman dezaietela; ta ori euskerari txarkeria egitea dala aproatuko balitz, lenengo eskolara baiño len, lepoa biurritu ta ibaira bota ditzatela.

* *Anaitasuna*, 166, 1968.

«Legeok bear bezela kunplitzen baditugu, pake santuan bizi gaitzke guztiok».

Irakurle zuurrak egin lei bere maxiaketa sakona. Ez daijala, osterara, Lizardiren umore fiña aintzat ez artu.

Sindikatuena izaereaz

Españiako obispuak oraintsu izan daben batzarrean, sindikatuena izaerea zelakoa dan argitu gura izan dabe, ta orrezaz, arean bere, idazki egin.

Edu orretako azalpenok, beranduegi datoz, gure ustez. Urte luzeak iges egin dabe, gai ori bear dan moduan azalduteke. Ba dirudi, sindikatuena izaerea bardin samarra izan bearako dala alderdi guztietan. Eleiza katolikuaren eretxia be, orixe izango dalakoan gagoz.

Gizonaren eskubideak jasean eta egokiro jagonik, sindikatuak bere, askatasun bidez cratuak eta jaurriak izan bear dabela, adierazo deuskue argi ta garbi. Belumendu, osterara. Belumendukeri orrek kalterik sortu dauala, askoren ustea da.

Sindikatu bakar, soil ta goitik-beerakoa besterik ez dogu ezagutu aspaldion. Menpekoak, ez dabe ezagutzen sarri askotan, euren ordezkari goikoa. Artu-emonik bein bere ez dabe izan. Eskariak goian sortzen dira ta erabagiak bere bai. Labur-bidea ba da izan; zuzen-bidea danik, ezin baieztu. Oporregiteko eskubideak be zutunik irauten dau, gotzaiñen esatez, ogibideko eskubideak zaintzeko danean, ain zuzen.

Sindikatuena legeak aldatuak izango ete dira? Solis jaunak eztenkada zorrotza bota deutse berba laburretan obispu jaunei.

Erriaren ederra

Eleizeak, erriaren ederra egin guraz, noizbait dotriña ori agertu baldin badau, legegilleak bere, erriaren ederra egin guraz, bankeru aundiei mugak jarri deutsez. Zera, Bankuetako aolkari direanak, ezin leitekezala beste baltsu batzuetako aolkari izan. Legerriko ekonomiaaren alde egiteko sortu daben lege barri orrek, dirudunak miñarturik laga ditu. Eta asarre gordiña agertu bere bai, eurerariko askok.

Paper-albistariak alde ta aurka agertu ditue euren eretxiak, norbercak azalduaz. Errazoiak, beti bere, orrelakoak izaten dakie gizonen artean. *Nor, noiz, nun eta zelan*, itaunebideak dira izan be; eta gizonen eretxiak be, edu orretan izan oi dira.

Lege ori traba ikaragarria da, urliaren esatez; baiña sandiaren eretxiz, makalegia da, gatxaren susterrak sakonagoak direalako. Tarragona jaunak aldakuntza tutarrezkoak egin bear litzakezala esan dau, soziedade irabazpidekoen izaera ta arauak aldatuaz eta barriz-tauaz, oraingo egoerea azpikoz gora jarrierazota.

Egia da, oposiziño-lana beti bere, errezagoa izan oi dana. Egitea, ez ain errez. Ta orregaitik ondatuten dira gizonen asmo onik asko.

Gose eta ase

Bien bitartean, Afrikako sartaldean, Nigeria ta Biafrako gizonak guduan diardue; eta erritarrak, batez bere (nundik arraio asmau dabe idazle gazteak «guztiz ere» esaera erdaldun ori?), eta batez bere, diñogu barrero, umeak saillean il doaz, goseak lorrinduta.

Batzuetan goikoen aurka burrukan egin bearra, ta urrengoan alkarren aurka; ta eriotza-bidez gaiñera! Gizonaren aberekeria! Dirua maitcago, urko laguma baiño!

«Euskerazaleak» toki barrian

Alkartasun onek, bere asmo ta egikizunak obeto bete dagizan, etxebizitza aundiagoaren premiña izan dau; eta emendik gorakoan, Colon de Larreategi kaleko 14 gnean., 2 gn. oiñean izango dau bere toki barria, bere egoitza.

Bazkideak pozarren jasoko dabe albista atsegín au, toki aundiagoa ta egokiagoa izango dabelako. Laster gertauko dabe, bazkide guztientzat atea zabaltzeko. Ori ondo!

KALEKOA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Gizontasunari dagokiona

Madrilleko Auzitegi nagusiko salatari gaillenak, agindu garratza banatu deutse menpekoai.

Gizonari dagokion berezko zintzotasunaz diardu, ta jokabide lar-dats eta endekatuak txarresten ditu.

Arlo batzuk argiro erakutsi ditu. Gizonaren izakerea aberetu ta doillor biurtzen dabezanak izentau bere.

Droga gauzak, isilpean ara-onako tratuetan, osasunerako galgari direan drogen saldu-erosi ugariagoa, egunetik egunera. Zaarrak iñoiz botika maillako direanon zale izan baldin badira, oraingoan gazterik asko drogazale itsu biurtu direalako.

Zatarкерian jausi direanak eta egunero jausten direanak, gazteak betiko ondatuaz, emakumerik asko betiko lorrinduaz, norbere gorputza tratu-gauza biurtuaz, aragijoko uts besterik ez bailitzan.

Eta oraingo okerrik aundienetarikoak, gizonen alkar-bearra ta edarikeri ikaragarria.

Orra or, salatari nagusiak agertu dituan okerretarik asko.

Gizabide modernuaren etorri onenak, orreik ete dira?

Itxaropena bear dogu

Ez dago, ostera, beti negarretan zetan ibilli. Gure eskuan dagoana zuzen bete ezkeru, Egilleak ez deusku besterik eskatuko.

Mundu osoa urte gitxiren buruan lorrindu eta zuzituko dala uste dabe batzuk.

Arrokeriak esan erazoten deutsez orrelako ao zabalkeriak.

Zera, munduaren zil eta ardatz geu bagiña lez. Gure aurretikoak ainbat eta ainbat izan dira. Eta ondorengoak be, bearbada, ez dira gitxiago izango.

Gaztea danean, amesak galantak izaten dira. Eta baita bear bere. Izan be, udabarrian loratsu ez bagagoz, lorarik geienak galdu egiten direan ezkeru, lora urri dan tokian, garauak be, ainbat urriago izan-go dira.

* *Anaitasuna*, 167, 1968.

Ercin ba azi ona, berba osoz ta gozoz. Baiña batez bere, *egitada onak* izango ditugu betiko bidelagun.

Norbere zerak kontuan izanaz, bestecnak be izango bagenduz, ortik letorke bakebiderik egokiena. Baiña gorrak direan tokian, ez dabe gaitasunik izango, *auzokoaren premiña ta gurariak* jakiteko.

Bai, ba. Or konpon esanaz bakarrik, ez dira gauzak... konponduko.

Artu eta emon

—Zuri zer jatzu atsegiñago: zorrez beterik ibiltea, ala artzekoak izatea?

—Zorra ez da zer ona. Zorra, astuna da berez, karga astuna.

—Orduan, zuk artzekoa naiago, zorra baiño, ezta?

—Jakiña! Beti nasaiago, artzeko dagoana.

—Tira ba! Emoidazuz berrogei milla ogerleko, ta patxadaz biziko zara urte luzectan.

Betikotasuna

Pintore ospatsu bateri egindu auxe emon eutsen: irudi egokia aukeratu egiala, kuadru baten, «Betikotasuna» pintura bidez ezarteko.

—Ta? asmau al dozu zetariko irudiak ezarri?

—Bai. Emakume bi barriketan.

KALEKOA

MUNDUKO BEARRIZANAK*

Garia

Udan albista onak entzun doguz, aurtan izan dan uzta ugariaz.

Gari soloetan igaz baiño lur ta azia gitxiago erabilli arren, legerri osoan, igaz baiño gari geiago artu da, euneko 2,2 inguru geiago. Guztiz, 57,2 milloe kintal metriku, garitan bakarrik.

Beste laboreak bere, mardoago izan dira. Esaterako, garagarra 25,3% geiago. Untzegaria bere, 18% geiago; ta oloa, 11%.

Ba al da garau guzti orreik nun gorderik?

Artoa

Abercen janari ta pentsurako, Espaiñiako gobernuak artoa ekarri dau kanpoetatik, eta ugari ekarri bere: 3.860.000.000 pesetaren balioa.

Jakingarri da, dirutza orixe izan dala ain zuzen, lenengo bost illa-beteetan, laranja ta limoetan atzerrietara bialdu izan dana: 4.000 milloe gitxi gorabeera. Igaz baiño 233.000 tonelada urriago.

Ortik agiri da, emendik gorakoan, gobernuak garaun jatekoaz ardura aundiagoa izango dauana.

Beste janari batzuk

Orio gaiak ondo ei datoz; eta oker aundiren bat izan ezik, 600.000 tonelada lortuko dituela diñoe. Atsegiñago jaku orio ori, urrunagoe-tako soja ugariagoa baiño.

Maasti ta ardantzak igaz baiño beteago ta zindoago datoz; eta edari kontuan, urrialdi ta ezunerik ez dala izango uste dogu.

Okelea edo aragia zcozer merkeago dabil, legerri-lurrak osotara ikusita. Batez bere, ardi aragia dabil merkeago. Txarrikien salneurria, ostera, bardin samar.

Laneko gauzak

Industri gauzetan, egindakoak ugariegi dagoz pillatuta, tegi aun-

* *Anaitasuna*, 167, 1968.

di ta txikietan. Salgai gauza asko, ta nok erosirik ez. Oraingo esakeraz, stock mardoak gai askotan.

Aintziretan indar-gai dan ura 65,2% dago egon, tokien artze osoren ikusian. Baiña ur gordeak urrituaz doaz; eta udeak legor samar iraun ezkeru, udazkeneko euriak eldu arte, estura apurren bat izan leiteke.

Turismo beribillak, aurreko urtean baiño 7% geiago egin ditue azken aldian. *Seat* etxeak iñoizko geien saldu ei dau, joan dan garagarrillean.

Kanpoetara bialduriko gauzak 12,9% geitu dira aurtengo urte erdi onetan, igazkoak ikusirik.

Diru arloan

Bagillaren azkenean 972 milloer dolar maillea egoan, kaltetan, merkantzi denduncan. Au da, kanpora bialduriko gauzak gitxiago izan direala, balioz, ekarririkoak baiño.

Ordainketa galgearen egoera, maiatz azkenean, 948,9 milloer dolar urretan eta atzerri-diru aldagarrietan.

E.E.

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Txekoslovakia

Orain aste batzuk izentau genduan erri zintzo au.

Orduan, albista eta barri onak jaso genduzan. Zera, askatasuna barrero ezagutu gura ebela; naita komunistak euki aginpide ugelak, euren sistema barruan be, leenagoko modu ta joera gizontsuagoak artu barri izan zituela.

Asteak joan, asteak etorri, oster a be, gauzak aldatu egin dira; baiña ez oberantz, ez aurrerantz, atzerantz baiño.

Egunetik egunera albista eta esames ikaragarriak entzun ta irakurri izan ditugu. Ez dakigu zeintzuk direan egiak, eta zeintzuk guzurak.

Eguneroko paperak alde aundia dauke, une bakotxean albistarik barrienak agertzeko. Orregaitik, au idazte orduan, laiño arteko illunpean gabiz; eta txeko ta eslovakoen ta enparauen egoerea baketsuagoa ta egokiagoa izan daiteala opa deutsegu.

Munduko erri askok asarre antza ta bildur miña agertu izan dabe, jazoera garratz orregaz. Orraitio, gizonen asmoak eta joerak iñok ez dakiz aurretiaz. Komunismua zer ete dan argi jakiterik, ez da errez. Indarkeria baiño ez baldin bada, indarkeriaren kolore guztiak ez dira maitagarri.

Unibersidadea

Maiatz aldean, usterik urrien genduancan, albista argi batek gozatu euskuzan begiak eta belarriak:

Arako Gernikako Eusko Ikaskuitzako batzarrean eskatu gura izan zana, moduren baten, lortu izango ebala Bizkaiak. Amaika bidar ames egiñiko Ikasgu Nagusian, zera, Unibersidadea. Leenengoz, 1870 gn. urtean aitururiko arloa.

Zein eratan osotu ta zlakō bizikerea izango dauan Unibersidade jaiobarri orrek, laster jakingo dogu, ausaz.

Bizkaiko eta ingurukoak, arduratan jarri gaitu irakasteak, gaur dan eguncan, leenetan eban baiño gora aundiagoa daualako mun-

* *Anaitasuna*, 168, 1968.

dualde aurreratu guztietan. Orain beñeon, lau zati izango ditu Bilboko Unibersidade orrek bere kolkoan.

Orainarte izan ditugunak, bi dira: Industriko asmatzailleen eskola eta Ekonomi-gizonena bestea. Bata, irakurleak dakianez, Basurto aldean dago; beste au, barriz, Deustun. Biok etxe barriak izan arren, diñoenez, laster beste toki baten jarriko ditue, barriren barri.

Orrezaz gainera, Osagille ikasgua ta Kimi ikasgua jarriko dabez udazkenean. Emen koxka bat jarriko dabe, barriz. Lektorik geienetan egiten daben modura barik, bestera egingo dituela asierako estudioak, ikasle barriak. Untze ta eragozpena, ain zuzen, iñok uste ez ebana. Emengo umeak, beste tokietako umeak baiño geiago jakin bearko dabe, osagille ta kimiku izan nai badabe.

Asierako eragozpen oneik, denporaz arindu ta mesedegille biurtuko direala uste izan bear dogu. Bereizgarri edo selektibu orrek, zeregiñak emongo deutsez askori. Lubana igaro baiño leen, amaika jausi baietz!

Bakea, nun?

Errez lortzeko zera zalakoan bizi izan dira asko ta asko.

Ez da bakea egunero lortzen. Kanpoko bakca, sarritan austen da. Barruko bakea, sarriagotan.

Norbere asmoari ta gurariari uko egiñaz, besteenai amor emon ezkeru, bakebiderik geienak eginda ei legokez. Baiña ez beti. Amor emon arren be, sarri askotan, beste aldekoak ez dau bakea gura izaten.

Eta amor emotea be, ez da eguncroko janaria. Batzuetan, zuzena ez dalako; ta beste batzuetan, gura be, ez dogulako. Bakea, nun dago bakea?

Opor

Eguneroko lanak nekatu egiten gaitu, eta oraingo bizimoduak ba ditu lazkeri ta gauzakeri lar. Gizonari berea izentau arren, gauzak zapaldu egiten dabe gizona, azpian artu, ito, orrenbaten. Orregaitik, atsedan opor billa goaz gu bere.

Oporrak ez dira bardiñak.

Indar oporra ta indarrezko oporra ez dira guragarri.

Eta ainbat ezago, asarre oporra.

Guk naien, atseden oporra dogu. Lana ta nekea lagata, egunero-ko bizitzako leku ta zeregiñak apur baterako utzita, erri aunditik igesi, baztertxuren batera joatea jaku atsegingarrien.

Mendialdera, itxasegira edo baserri zoragarriren batera joan gura genduke.

Gure erriak dituan edertasunak ikusten, Jaungoikoak eskiñi deuskuzan gauza ikusgarriak gureganatzen, emon deuskun osasuna zaintzen.

Bakebideak billatzen, gizarteko lokarriak iñoiz be ausi barik. Gizonari, angoari ta emengoari ta orkoari dagokion lotsa ta begirapena ausi ta lorrindu barik.

Billatu bai, baiña aurkitu? Or dago untzea.

Eleizearen dotriñan, bakea, zuzenaren ta askatasunaren ta maitetasunaren umea da. Orreik barik, ez dago bake jatorrik.

KALEKOA

ITSASALDE PAREGABEAN*

Ez dau oraindiño galdu ez lorrindu bere taiua ta gatza gure jaioterri onek. Kresalak ba dauka euki, gaur be, bere gazi-neurri berezia, apartekoa, inguruko gauzak eta personak jasez ta ganoraz orniduteko.

Íñoiz egon izan da garbiago, egia esan, gure sorterri maite au. Errietako udalak orain, sakelestu bizi dira, eskuarte neurtuakaz; eta urritasuna dan tokian, ez da aberastasunik.

Dana dala, ortik edo andik lortu bear izango dabe udaleko gizonak, urbide aundiagoak eta saneamentuko zerak egiteko dirua. Premiña gordiñeko lanak ditue ta.

BearkUNETARAKO bagara, eskubideetarako be, izan egin bear dogu.

Arraintzaleak motel

Itxasotik onura aundirik lortu ezik, jakiña, gure arraintzaleak ezin leitekez pozik ibilli. Aurtengo udabarriak uts emon eutsen; eta oraiñarteko atuneteaz be, ez dabe esateko dirurik eskuratu.

Ori dala ta, erriko jaiak, Sanantoliñak, ez dabe poz larregirik artu aurtan. Dirua urri ibiltea, illuntasunaren pare da kailde euskaldunetan. Antzar egunean, laguna batu zan; baiña... baldan lororik ez, eta ozta-oztako poza.

Arrezkero, Algeciras aldera jo dabe ontzi batzuk; eta ereti mamintsuagoa izango al dabe, egaluzeaz naiz aginzorrotzaz.

Artetxeri besarkadea

Esku artean daukazun ANAITASUNA onetan ez baiña, 167 gn. zenbakian ikusi genduan Joxe Artetxeren argazkia. Lerden, zut, urrunera begira.

Zerualdean laiñoak laiño ikusten dituzun arren, ba dakizu, Joxe, ziur asko jakin bere, odeiak urratu ostean, eguzkiak ezin izango dituala bere argia ta beroa ukatu.

Albistarien idazkerea ezin dozula zeuregandu? Bai, azalkeria ta xurikeria nai izan ezkero. Orduan errez ibilli zeintekoz, lerro luzeetan

* *Anaitasuna*, 169, 1968.

murgildurik. Orraitio, barrua bear orretarako. Erroiak ez dabe gari garbirik maite. Ustela dabe gogokoen.

Bai. Idazle zintzoak ba dau naikoa lor, esiz ta maillaz inguratua dagoanean.

Altuna musikaria

Durangon jaio izan zan, Parisen ikasi eban: Lekeition il.

Aren illobia ikusi dogu, Joxe Mari Arriola ondarrutar osalariaren gorpuari azken agurra egin deusagunean. Uste-uste barik joan da Arriola jauna gure artetik. Goian bedi!

Udazkeneko arratsalde epel baiña curitsuan ikusi dogu Juan M. Blas Altunaren illobia, kurutzean zedro orrizko koroia dauala. Aurten 100 urte il zala.

Gure dantza zortzikoa mundu zabalean zear bialtzeko zanaldia izan eban, Iparragirre bitarteko zala.

Lekaition irakatsi eutsan soiñu ori, Altunak Iparragirreri ain zuzen be. Ta ortik sortu zan «Gernikako Arbola» abestia.

Euskalerrriak ez dau bear dan moduan gogoratu ez goratu Altuna. Aretx orren esangurea maite dabenak, geroago ta gitxiago ez ete dira gizarte materialista onetan?

Laguntasuna

Orix eskatzen deutse ANAITASUNAK irakurle ta adiskideai. Suskritore barriak aurkitzea. Asteroko biurtu nai baldin badogu, beste askoren laguntasuna naitaczkoa izango da.

E. ERKIAGA

KALEKO GIZONAK DIÑOANA*

Isabel II bota ebenean

Eun urte bete dira, Espaiñiako erregiña zabal ori bere tronu edereetik bota ebenetik. Amaitubarri dan iraillean, egin-egiñean be.

Orduan be, zalapartea ta erreboluziño usaiña ba ebillen beekoen artean. Baiña baita goikoen artean be.

Oargarri da, orduan ezpatadunak erabilli eben jokabidea.

Mailla garaiko militarrek ez eben alkar ondo artzen, eta ortik sortu eben sekulako matxiñadea.

Topete asaldatu zan Cadiz aldean, menpean zituan itxasontzi gerakoakaz, eta gobernukoak estu ta larri jarri zituan praktetan.

Itxasgudari nagusi ori gora-goraka asi baizen laster, erbestera bialdurik egozan Serrano ta Prim generalak, euren aberrirentza biurtu zirean.

Burruka batzuk egin zituen; eta Pavia izarduma menperatu eben burrukaldi ostean, Isabel II, Espaiñietako erregiñak, anka egin bear izan eban, ain zuzen orduan Euskalerriko lurretik Frantzi alderaiño.

Oraintsuago be, ikusi izan ditugu errege batzuk euren aberrietatik jaurtiten. Berbarako, Egiptokoa eta, oraintsuago, barriz, Greziakoa.

Turistei agur

Aurtengo udeaz batera joan dira turistarik geienak inguru oneitatik.

Legerri osoan guztitara jota, urtearen leenengo zortzi illabeteetan 14.000.000 turista gitxi gorabeera agertu izan dira.

Joan dan urteaz gain, 6,2 %.

Ala ta bere, kanpotarrok igaz baiño esku zabalagoak ez dira izan. Ba leiteke errua eurena ez izatea, euren sakelak aurtan tximurragoak ibilli direalako baiño.

Beste askori bere, orixe berori jazo jake. Eskuarterik ugari ez bada, otzago ta geldiago ibilli bear.

Turistak aurtan eralgı dabena, igaz baiño 5 % gitxiago izan da. Lagunak bai ugariago, baiña ezkurra meatzago bere bai.

* *Anaitasuna*, 170, 1968.

Urte guztiak ez dira bardiñak, izan bere. Meko-meko ibiltekoa, aurtengo au. Zera, gerriko laburragoak bere, balio deuskue oraingoz.

Dana dala, «barruko turistak» bere, aizatu egin bear direala aita-tu eban norbaitek aurtemeen.

Lanbakoak eta etxebizitzak

Europari begira jarri ezker, lanbakoen egoerea bere, aitatugarria da.

Joan direan urte biotan, ekonomi-zabalkutea makalagotu egin izan da, egitamu barriak, makiñeria ugaritutea ta buru-eraketak direala ta.

MEC errietako aginpidedunak, naikoa buruausterik dabe arazo orrezaz.

Beste aldetik, etxebizitzak bere, ez ditue iñun be naikoa egin, ez egiten. Amar-ogei urte urrengoetan etxegintzan jardun arren bere, ez da errez izango premiñea asetuterik.

Ondasun bideak meaztu guraz dabiz amerikarrak eta ingelesak. Orraitio, Frantzia ta Alemania Sartaldekoa ekonomi-neurriz aurrera ta gora egin nairik ikusten ditue orretan adituak direanak.

Urez andikoen bultzada makalagoari geiago egingo ete deutse europar erri bi orrein, alegiñak? Ekonomi-erizle batzuk orixe agertu deuskue.

Esanak esan, gaiñeko illabeteetan susmatu al izango dogu europar errion gorakadea egiazkoa dan ala ez.

Katujabeak

—Aiko! Gure katu nabarraren billa naiabik.

—Etxakiat nik ezer, ire katu orrezaz.

—Aiko! Gure katuaz zer egin dok?

—Egin-eginean bere, etxakiat ik zer diñoan.

—Aiko, aiko! Ire iokabide makurraren saria artuko dok.

—...

—Aiko... ! Isildu egin al aiz betiko?

Eta «Aiko»ren gorpua, jakiña, isildu egin zan betiko.

KALEKOA

DOS CENTENARIOS LEQUEITIANOS: EL DEL MUSICO ZAPIRAIN Y EL DEL POETA E. AZKUE*

En su popular ambiente, aunque este año algo desanimado por la salida anticipada de los pescadores en su iniciación de la costera de atún, hemos visto una tercera variante en cuanto a los símbolos que, erguido sobre el arca, suele portar el bailarín, aparte de aquellos dos usuales y sucesivos modos que gráficamente están recogidos como bello documental en la película "Ama Lur". De ese ambiente fueron ambos. Del músico Zapiráin se cumplen estos días los cien años de su nacimiento, mientras que del poeta serán cien años de su muerte el próximo mes de noviembre. Hubo un relevo de artistas hace un siglo.

Buenaventura Zapirain

Este músico lequeitiano nació poco después de la desaparición de otro vizcaíno de su mismo arte, Juan B. Altuna, durangués que había sido traído aquí por el mismo benefactor Uribarren, cuando adquirió en París en donde se hallaba asimismo Altuna, el estupendo órgano "Cavaillé-Coll", que aún funciona en nuestra basílica.

A este Altuna, que vivió en la casa número 5 de la calle de la Santísima Trinidad, en su primer piso, en donde tenía un pequeño armonio, le fue presentado, según testimonio recogido de los labios de personas ancianas, el juglar José María Iparraguirre, en una de sus correrías.

Iparraguirre tenía, al parecer, ya compuesta una letra para un canto al roble secular de Guernica. A un veterano carlista le gustó la idea y entonces le sugirió al bardo que el organista, que era un músico de fama venido de París, pudiera proporcionar una melodía digna para formar una composición notable. Dicho y hecho. Altuna recordaba un aire de zortziko de un baile popular de Garay (Vizcaya) que pudiera acomodarse para el objeto perseguido y así nació, según la tradición local, repetimos, el "Gernikako arbola", canto de gran estima de los vascos.

* *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1973-9-1.

Erriko seme

Esta palabra es válida para Zapiráin y para el poeta Eusebio María de Azkue, es decir, naturales del lugar. Este un vocablo que merece ser matizado en su fonética local. Tal palabra "seme", entre otras cosas, recibe dos acentos tonales en sendos significados, en un enunciado normal.

En este caso, "Erriko semé" (hijo del pueblo), el acento tonal desciende en su última sílaba, mientras que en la acepción de referirse a hijo de cierta persona, su tonal sería recto, no descendente. Sirviéndonos del tilde grave y agudo, la grafía del primer caso llevará acento grave, y acento en el segundo. Así, distinguiremos "erriko semé" en el primer sentido, y por ejemplo, "Txomiñen semé", hijo de Domingo.

* * *

Citemos algunas palabras de las características referidas. Tenemos entre las de tonal descendente: toki, soiñu, zingo, bekoki, adiskide, egaluzá, Ondarru (sitio, música, profundidad, frente, amigo, bonito, Ondárroa). Y he aquí otras de acento no descendente: buru, esku, gizon, ume, lagun, zezen, euskaldun, arrantzale, Bermio, Motriku (cabeza, mano, hombre, niño, compañero, toro, vasco, pescador, Bermeo, Motrico).

Así ocurre que cada vocablo citado en un grupo o en otro, en enunciado normal —no vocativo, afectivo ni imperativo— se comporta como corresponde a su grupo.

Pero hay algunas palabras que, análogamente como ocurre con el ya citado vocablo "seme", son simultáneamente de ambos grupos, si bien con significado diferente. Aunque se les añada el artículo singular, sigue en vigor la regla, pero teniendo en cuenta que entonces el acento tonal se traslada de sílaba, pero siguiendo la norma. Así tendríamos que semé=semeà, pero semé=semeá. De manera semejante "txistuà" (silbo), pero "txistuá" (saliva); "arroà" (medida de peso), pero arroá (orgullosa); "basoà" (recipiente), pero basoá (bosque).

Y esta curiosa particularidad sigue hasta en las palabras de sentido gentilicio. Así, decimos por la población marinera cercana Motrikú, en tono recto, pero a una persona natural de ese puerto como un alias se le dice Motrikù, con tonal descendente. Idénticamente Bermió, población, pero como monte Bermiò y también Bermijò.

Como aclaración general, el lector culto no ignora que en euskera no existe el acento rígido, como ocurre, por ejemplo, en el castellano, en el que son contadísimas las palabras en que el acento se traslada de sílaba, como en los plurales de régimen, carácter, etc.

Deterioros en los idiomas

A esta entonación y musicalidad del idioma acaso no se presta mayor atención. En el euskera ha tenido su importancia para el entendimiento cabal de hablantes de la misma población o comarca, puesto que se trata de un idioma cuyo mayor uso se ha hecho para la comunicación oral.

El estudiar un idioma solamente a través del texto escrito y normas gráficas que no recogen los fonetismos ni tonalidades indicadas, dificulta la conservación y transmisión de tales particularidades.

Pero también entre los propios nativos actualmente se observa un deterioro no insignificante puesto que parece difícil sustraerse a la influencia extraña y aun permanece con lo propio usual en generaciones anteriores.

También las lenguas evolucionan por diferentes causas. La radio, el cine, la televisión que es bastante absorbente en la generación actual, los viajes, la emigración, la misma migración alteran modos de otras épocas, incluso en el lenguaje.

Para nadie es una revelación el castigo que va sufriendo el mismo castellano de Cervantes en su propia cuna concretamente a través de la televisión, con las fuertes dosis de lo andaluz y de hispanoamericano. A veces duda uno de la existencia, vigente, de más de veinte consonantes en la lengua castellana.

Si bien, se da el caso de que con el bilingüismo se conserva el euskera en muchos puntos del país, también parece cierto que el idioma no oficial se va empobreciendo sobre todo cuando el que habla no domina bien ambos idiomas.

Los niños de hoy no oyen ni aguantan en idioma alguno las conversaciones, los relatos, los consejos con largas explicaciones orales de sus familiares. Por esa razón, las lenguas no son poseídas de una generación a otra con el mismo garbo, intensidad, fuerza y riqueza que hemos escuchado. Hay que romperse, no hay continuidad plena, y se resiente en los nombres, en los adjetivos, en el manejo del verbo,

en la sintaxis y nada se diga del colorido y gracia de los dichos, refranes y metáforas.

Pero, cortemos la digresión.

La ópera "Txanton Piperri"

Zapiráin nació el 14 de julio de 1873. La música le atrajo desde muy joven. Sus composiciones de mayor aliento tuvieron como guión el texto en lengua vasca, en la suya nativa. Pero al escribir su primera ópera, innegable que también él quiso introducir algo que es de su ambiente popular.

Nos referimos a los versos de otro poeta lequeitiano, el sacerdote J. Antonio Aboitz (1751-1824) que pertenecen al primer acto:

"Iru lagunek Izpazterren
apustua egin eben..."

En el que expone la comilona que se organizaron los amigos de Ispáster para comerse un ternero bien cuidado, de la mañana a la noche, su peso diez "raldes", que teniendo por cuarto camarada al glotón de Txantón asimismo, en otros versos de la misma composición se ve:

"Lekeitioko kalia
besigu denpora danian..."

Y esta vez, el nunca harto Txanton, cenó abundante chicharro, veinte por lo menos, en la costera del besugo en Lequeitio.

Que el músico conozca bien la lengua en que se va a fundamentar su pentagrama es importante. La experiencia dice eso, porque hemos conocido dificultades para seguir la descada unidad en obras musicales cantadas. Pero Zapiráin eligió el buen camino.

Es cierto que le teníamos olvidado últimamente a este compositor. Antes de la guerra saboreábamos con frecuencia los mejores pasajes solos o coros de este "Txanton". Han sido las huestes artísticas mondragonesas del infatigable maestro Arzamendi, las que nos han proporcionado ese deleite espiritual, y al mismo tiempo recordar y rendirle homenaje al bueno de Buenaventura.

En el espléndido marcó de la basílica gótica lequeitiana le han dado una versión magnífica de la parte musical más algunos arreglos del director arrasatearra. Afinada en todo momento, bien empastada y con arrebatadora interpretación en los momentos dramáticos de la

obra, entonada siempre con entusiasmo en los coros finales de cada acto.

Poeta y matemático

Así fue Eusebio María de los Dolores Azkue y Barrundia, padre del gran don Resurrección. Nació en abril de 1813 en nuestra villa y aquí murió hará un siglo, en el próximo noviembre. A la muerte de su padre, don Resurrección no contaba más que nueve años.

Nuestro tocayo fue un notable poeta en euskera. De él esperamos ocuparnos con amplitud este otoño en que, Jangoikoa lagun, nos ofrecerán un día dedicado a las letras vascas, Euskaltzaindia, el Ayuntamiento de Lequeitio, la Asociación de familias y la Caja de Ahorros Vizcaína.

Si bien, toda la obra escrita de Eusebio no ha sido publicada, contamos con un valioso volumen de poesías que con el título de "Parnasorako bidea" publicó con entusiasmo su hijo sacerdote ya citado.

Nuestro poeta tuvo familia numerosa, doce hijos. Aunque Eusebio nació aquí porque su madre era lequeitiana, pasó su niñez e infancia en Zamudio, y hasta parte de su juventud. En Bilbao estudió Latín y Filosofía. Su padre era médico de Zamudio de donde era natural. Se alistó en las tropas de Carlos V, si bien no voluntario. Después en El Ferrol hizo los estudios para ser marino. Navegó durante bastantes años y más tarde se quedó en su tierra para dedicarse a la enseñanza en Bermeo, Mundaca y por fin en Lequeitio durante los últimos años de su vida, en la entonces recién abierta Escuela de Náutica.

Al decir de ese mismo A. Trueba, era un hombre culto, campechano, simpático, sin falsedades ni hipocresía. En sus composiciones así se nos presenta, humano, humorista. Tiene versos amorosos, delicados, pero cultivó principalmente motivos populares en cuadros bien descriptos, costumbres, de tono festivo, envueltos con gran frecuencia de una fina sátira. Demuestra tener un gran conocimiento de los hombres y de las mujeres, sus mentalidades y sus costumbres.

A veces, se nos muestra con aire de preceptor, pero siempre usa un lenguaje fluido, claro, de léxico abundante, que hacen fácil y grata la lectura. Conocía bien la mitología y de ella hizo aplicación en la poesía euskara. En las composiciones que nos dejó se ve la pericia del hombre en la métrica y en el lenguaje. Apenas hay imperfecciones en

sus composiciones. No era partidario de la rima de los ocho puntos, aunque usó con profusión el zortziko menor. Tiene también algunas composiciones satíricas bilingües, tales "Las hembras de Mundaca" y "Las mozas de Bermeo".

Muchas de sus composiciones se cantaban hasta no hace muchos lustros, como se cantaban también las del mundaqués J. Manuel Etxeita, marino como él, buen prosista en sus dos novelas vascas y más tarde alcalde de Manila (Filipinas). Con éste, también están en deuda los mundaqueses, por el prestigio que dio en vida a su pueblo natal y al idioma.

Eusebio ERQUIAGA

ARITZMENDI, BASERRITAR UNIBERTSALA*

Baserri-baserrian sortua izan arren, don Joxe Maria gurea beste hibe batzuetan zehar ibiltekoa zan. Ori bai, baserri bizitzaz ukapenik egiteke. Are gehiago; bere jaiotetxea, Barinagako "Iturbe" —onen maiorazgo zan eta bere anai Patxiri lagatako basetxea— oraindik orain zimenduetatik asi eta tellaituraino, barri-barria egiñerazo dau eta.

Mailla goreneko gizonen eduz, bariñagar onek, danik aundiena artu eban gogo betez eta erantzupen osoz, bere nagusizat: Jaungoikoa.

Onen zerbitzari zintzo izatea, orixe aren zeregiñik behiñena ta larriena, unetan, mutikotan, gaztetan eta abade egin zanik arrezkerokoa, bere egumen ondarretaraino.

Bigarren elburua, Jaunak berak aukeratu eta emon eutsan Erria, Euskalerrria, iñork ez dakian aiñean maite izaten jakin dau. Eta ori irakatsi ere bai, ez agirian eta barriketaz, egitada etenbakoetan baiño.

Irugarren egoerako aren garra eta lana, gizonarentzat izan da, gizonaren alde. Eta ori, ez limosna bidez, lanaren bitartez baiño. Ortik dakusagu aren atertubako ekiña gazteak argitzen, sendiak sendoagorutzen, lanbideak sortzen, lantokiak ugaltzen, obeagotzen, eta ondoren onurakorrez, erriak ondasunez ornitzen.

Lanbide-Eskolan egin dauana joan 36 urtetan, ez dot nik mondragoarrei zetan esan. Zeuek dakizue ondoen. Eta aita inguruetako eta urrunagoko errietan ere, apaiz soziologo aren cragiñaren eta frutu emonkorraren barri, ondotxo dakie. Ez zan, ostera, soziologo ameslari orreen artekoa; ekonomista ikaragarria ere bait zan. Arako diruaren gose-egarri txarra izan baldin balau, diruz bete izau zeitekean. Baiña, bai zera! Aundiagoa zan aren arima ederra, diruaren doillorkeriek menpera ahal izateko. Ona ba emen, baserritar unibersal bat num dogun. Mende onetan jaiotako euskaldunen artean, punterengoetan lotu jaku abade au, euskal- seme au.

* * *

* T. U. L ankide, 1976.

Arrasatera bialdu eban obispu jaunak abade eginbarritan. Eldu-barriko igandean, eguerdiko amabietako mezatan, izan eban lehen-biziko sermoe gogoangarria. Bertatik, salakuntza izan eban. Eta urrengo domeka batzuetan ere, sermoiak aiña denuntzi irabazi ohi zituan Aritzmendik. Antza danez, aren zensuragille ta salatariak entzule zintzoak ziran, kristau apal baiña kaiserraren otsein.

Zer esaten ete eban don Joxe Mariak —ez kulpitotik, onetan ere kontzilioz aurrerago zebillen eta— aldare nagusiko armailletatik?

Gizonaren eskubideak...

Ene bada! Gai zindo ta jatorra, baiña bildurgarria, gerrate ondoko apaiz garbi batentzat, egun illun, nahastu aotan. Kemena ta adorea behar zan, gero, 1941 urtean, Euskalerriko uri batean orrelan itzegiteko, eleizan ere!

Orraitio, galerazpen eta zigor-zemaiak izan arren, geroagoetan desterru aipamenak ere iñoiz egin arren, ez dabe abade egin zanetik, agiriko eran behiñere zigortu. Betiro gaindi izan ditu kinka larriak. Eta orra ba! Ez gura ta ez eskatu zituan beste zerok izan ditu: gobernuak eskeiñiriko domiña bi, Jakintsu Alfonso X garrenarena eta Landomiña urrezkoa.

* * *

Alabaiña, abadegei zala bai, kartzelaratua izan zan. Eta modu zitalez gaiñera.

Aria, 1936 gn urtean asten da. Espaiñian eta Egoe-Euskalerrian ere, gerratea sortu eben. Orduko egoera ura, egia esan, ez zan normalea ez gustagarria; baiña nork esango, alako ondamendirik eta sarrakiorik iñork atera zeinkeanik?

Urte orren amai aldera ezagutu neban Aritzmendi, gazte sendoa. Alkarrenganako zera egin baizen laster, iragarri eustan: «Gerrate au, sortzailleek irabaziko dabe. Eurek egin dabe, eta eurek garaitzaille izango». Nork siñistu, artean, orrelakorik, mapari begirada egin ondorean, alako lurralde zabalak eta itsasoak ere, errepublikak espaiñarraren zerera egozala zirudialarik?

Aurretiz susmau, ikusi; intuizioz bizi zan gizona izaki don Joxe Maria. Orduan ere, azkar asko igerri arek. Baiña etsibage, asiriko arloari jarraitu eutsan. Ondo dakizue arrasatearrok, aren men arri-garri orren barri.

1937 gnean, bagillaren 19 an, Bilbon sartu ziran gudutalde ikaragarriak, garaitzaille bezela. Uriburua onetatik, «Iturbe»-ra joan zan

gure mutilla. An egun batzuk emon ostean, barriro Bilbora bihurtu zan, Markiñan zehar, kamionetan. Beribil onetan, iru lagun etozan, guztiz. Bilbora eldu, ezagun-etxeokak ikusi eta kalera aldegin eta andik ordu erdira edo, polizo-gizonak joan ziran etxe aretara, aren billa. Arrituta egotea ez zan millagro. Bidelagunetarik batek egin eban orrelako xixtrinkeria!

Ez iges egin ez eskutatu, bere burua agertu eban. Eta jakiña, bertatik Larrinaga kartzelara croan eben. Zorionez, andik ille bi inguru epaitegira jatsi, eta epailleak, aske laga eban.

Gure mutilla, bere bideari atxiki asmoz eta gogoz egoan. Orduan, kalbario barria izango eban, barriro Seminarioratzean. Salakuntza ta kaltebideak ostera ere gaintitu, eta Bergaran jarraitu ahal izan eban, abadetzarako ikasketa sailla.

Orrelan, aren ametsik biziarena egi bihurtu zan, arik urte pare bat, arako itz bere arimearentzat betegarriak entzuteko aukera izan eban: "Tu es sacerdos in aeternum..."

* * *

Oroipen zaharrak, bolboladan datorkiguz. Une ahaztu ezin bi, gerrate ostekoak, gomutauko orain. Aren mezabari bezpera gaua "Iturbe" basetxean, ain zuzen Gabon-zahar gaua, aita, ama, anaia-rreba, adiskide kutun... euskalgiro betean; eta biaramonean, Barinagoko eleizan, don Joxe Mariaren lenengo meza abestua. Armonio jottzaille egokitu nintzan eta bost-sei abadegei aren lagunek kantatu Perossiren ahots bitakoa. Azkenean, gabon kanta polit ura, Azkue gureak bildua, "Nun dezu, Amandrea, zedorren semea..." Kantari aietarik bata, Narbaiza eibartarra izan zan, orain urte bi Gasteizen il izan dan abade gartsua.

Bigarren oroipena, ene ezkontza egun, 1943 gn. urteko udazkenean, Begoñan. Ona eldu zan Aritzemendi, Arrasatetik berariaz, mezaemoille ta sermolari. Arrezkero, betirako lotu ziran gure barruak, adiskide bihotzak. Onu mamintsurik, mamintsurik ezer baldin bada, jasorik dogu arengandik.

* * *

Alperrak ez zituan begiko; bai langilleak. Lana bera, ordea, ez edozelan egiña, ondo burutua baiño. Orretarako barriz, gertaera egoikia, tresna aukerakoak, giro gizartetsua, izpiritu zuzena, bai oraingoari, ta geroari, ta betierekoari ere, begira uneoro.

Gizon. Apaiz. Argiemoille beti. Bere buru agertzale ez, ondo daki-zue. Eratu eta eragin, zirikatatu, ekinaldi guztiak adoretu, baiña saietsetik, albotik, agerpen arrorik gabe.

Edonori lanak arindu gurarik; baita etxekandreei ere.

* * *

Arrasatera eldubarritan, goizengo mezea berak esaten eban seiretan, egunsentian. Gau-gurtzailleen arduradun ere, behingoan, bera zan aldi batcan.

Abade egin eta arik laster: "Arrasatera noa; ango parroko jaunaren laguntzaille izendatu nau obispuak".

Alantxe gerta ere. Inarra jauna izan zan aren nagusi aldiro, eta misteriozko zerak, don Joxe Luis agurgarriak lur onetatik aldegitcan, bertatik, aren ondorik joan jatzue Aritzmeni.

Arrasaten lanean azkar eta azkor agertu baizen laster, Markiñara, Donostiara, Bilbora Morcillo jaunak, eroan gura izan eben. Gerocxago, baita Madrilleko puntara ere, Estatu osoko gazteen kontseilari buru jarriko ebela ta.

—Konpromisu aundian jarri nabe, ta ez da gauza zera, erantzuna olan edo alan emotca —esan eustan behin Bilbon—.

—Zuk ez dozu joan nahi, zihur —geitu neutsan—.

—Ez, ez dot nik emendik joan gura. Zelan erantzungo?

—Osasuna aipatu ciezu. Osasun kontua.

—Orixe egingo dot.

Eta Aritzmeni orduan, aritza baizen sendo egoan.

* * *

Geroenetan aitatu izan neutsan behiñola:

—Arrasatetik norabaitera, aginpide aundiagoetera ez ete zaitue eroango?

—Ez —arek, barremurritz egiñaz—. Arrasaten laguntzaille asi, Arrasaten laguntzaille amaituko.

Gai ori ez genduan arrezkero inoiz aipatu. Zehatza zan Joxe Mari jaunaren itza. Ortxe Jaunaren otsein asi, ortxe bukatuko. Zeuena zenduñ, eta bereak zinduezan, abade santu arek, arrasatearrok.

* * *

Aurrerakoi eta geroko barri aurretiaz susmetan ebana zan. Petroleo-kinka larria ere, 1974 gn. udan argiro ikusi eban gaiñera etorkiguna ekonomi-arloan, zera, dalako krisis latz au, Aritzmendik.

Arako ministru espaiñiar Barrera Irimok ikusi ez ebana.

Au ametsetan zebillen; don Joxe Maria ez.

—Urrengo urte batzuk gogorak izango ditugu —, esan eustan uda orretako San Iñazio eguncan, Zarautzen egin agerraldian.

Bai aurretiaz eta zehatz igerri ere!

* * *

Azi ta ugaldu zaitez... eta aurrerapenean abia eta aurrera ekin beti...

Bibliatiko kutsu daben itzok sarri be sarri erabili ohi zituan gure abade azkarrak. Ez da beste tankerako, il bezperan Madrilleko ministru bati esana: "Aurrera begiratu behar da beti; bestelarik jokatzea, gure Jauna iraindutea bait litzateke..."

Sinismena sendoro sartua eban azurretaraño, arimearen ondarretaraño. Orregaitik egin dau ainbeste lan besteen alde.

Gerrate ondo urte lakar, zakar, larderiatsu eta siñistu eziñeko aetan, fedearen eta zuzenaren izenean alako dongakeriak jazo ziranean, latz bait zan ikusten genduana aintzat artu beharra, ontzat ezetara ere ez, sinismen sendo orren txertu guri geuri ere, berrero sartu euskun bariñagarrak. Zelan ahaztu dohai ezin esan ori?

* * *

Or, Arrasaten bere gain artu zituan zeregin nekatsu eta lardaspean, ez eban betarik eta aukera siñisgarririk izan, cuskera lantzen jarduteko, iñoiz orren eragiñaz gogotsu ekin eutsan arren.

Oraintsu, orraitio, euskal-lerroan berrero sakondu gurarik zebillen.

Anekdota txiker au bedi erakushuru. Bere "seme-alabetarik" bati, empresa bati ezarteko euskal-izen barri, labur, argi, egokiaren billa asi zan. Bizpairu urte dira. Zera, "Caja Laboral" entzako izen euskalduna. Izen-edu autesgarriok eskatu arek, niri eta beste batzuei ere. Eta batek be, ez eutsan gogoa bete.

Orduan, berberak eratu eban: "Lan Kide Aurrezkia". Eta kittu.

Kide ori, atzizkia besterik ez zala adierazo neutsanean, arek erantzumez, sustantibu bezela erabillitz, itz ori goratu eta indartu giñeicla.

Eta amaigarritzat, itz biribil eta biribillago oneek:

— "Gu, tradizionalista izateko ez gintzoazan jaió".

* * *

Aspaldi onetan bihotza ganorabage zeukan aldi luzean ere, behin bakarrik aipatu izan deust bere osasun kontua. Ainbat bider estu egon arren, beti erantzun bardiña: "Osasuna?... Ondo".

Baiña Jaunak dei-egin deitsala susmau baizen azkar, inguruko arduradunei, senideei, milla onu ta kontseju zuluu, milla zehastasun emon deutsez, adimena beti argi izanik. Dana lagateko prest jarri zan: 36 urteko sail nekatsua, alako batean, urraturik geldituko zan eta merezi izaniko atsedena lortu-urren.

Azkenik, zerurako jaioa, zerura da bere Arrasatetik.

Lehen ere, apaiz onak pasatu izan dira or zehar: Arin eta Markiegi, gerratean esku gogorrez garbituak; eta arrezkero, Iñarra zintzoa. Eta orain, Aritzmendi, zeuekin batean bizi izanik, zeuen artean lan egiñik, santutu izan dana, iñola ere.

“Betiko oroipenean izango da zintzoa, eta barri txarren bildurrik gabe...”

“Kantaberri” Jaialdian, 1971 gn urteko Donianetan, or Arrasaten egin zan Azken eder aretarako idatzi kantuan agertu nebana, osoro erakutsi izan dozue mondragoiarrok egia dana:

“Arrasate,
Arrasate,
anai-gizarte...”

Zure anai barriok, olantxe portau dira zurekin, Aritzmendi. Erri osoa eliza izan da Abenduaren lenengoan, gau-leheneko illeta gogoan-garrían.

Anaien gizarte orretan, zure anai-arrebok erruz, ugoidean, gogo minberaz, sentimentu sakonez eta esker onez eldu jatzuz, lur agiriko agur azkena egitera.

Ez ordea, betikoa, geroko bizitza siñisten dogu ta.

Eusebio Erkiaga

ABADE EUSKALDUNAK JARDUNEAN*

Arima-zain izateko gertu zirean, gehienbat, abadeak Euskalerrian. Eta horrelan, arruntenik, artez eta jasean lan egiñikoak dira.

Horraitiaño, gure Herri txiker eta aspaldietan bere aukeramena jñoren esku dauan honek, bere ohiturak, usadioak eta batez be, bere berbetea galtzeko arrisku benetan ikaragarrian, arrisku negargarrian herri-jente gehiengoaren ardurarik-ezaz, eta inguruan eta ganetik dituan kultura arrotzen azpietan, esan dogun lez, arrisku negargarrian ikusi izan dau bere burua, aldiak iraganago ta galpidea, hondamendi larritasuna handiago izateraiaño.

Ta gaia mugatuz, euskaldunen herri honetan, nortzuk izan dira euskeraren alde zintzoro, arduratsuen, ekin sakonean jardun dabena?

Arean bere, ehuneko larogetamarreko eduan edo, abadeak eta fraileak izan dira, eleiz-gizonak, azken mendeotan. Eta XX garren mende honexen erdiraiaño be. Banak izan dira herrigizon euskaltzale langileak.

Hemendik urrun, beste herri batzuetan be, elizgiroa herri hizkuntzaren aldekoa izan ei da. Gure artean Eliza katolikoak berak baiña be, abade batzuk eta fraile batzuk arduratu izan dira, beren beregi, euskerearen oncan eta mesedean lan egiteko. Arimen mesedea lortu guran gehien gehienetan, baiña batzuk, ganera alkarpide dan elementu hori, euskerea hain zuzen, egokituago, apaiñagotu nahirik. Horretan be, lan egin izan dabe. Lan hori, batzuk bide zentzunezkoz egin dabe; beste batzuk saraketa zorangea, jorra trauskila besterik ez dabe egin. Behiñola Kirikiñok idatzia dogu gogoan, zera, «fraile horrek horrelako berbakaz, mandoak porrutzan baiña kalte handiagoa egiten dau».

Abade eta fraile batzuk adimen zorrotza eta argia, eta dendua, oreka eta eratasuna ebela erakutsi dauskue, gure euskal-historia txikian zehar. Hor dagoz euren lanak, zelan halan baliotsuak, hain nabarmen eta zoragarri mailakoak izan ezarren. Arean be, gure elderrean, bai intereseko literaturan, hau da, arimen onerako taiutu eta

* *Karmel*, 1, 1987.

idatzi izan direan liburuetan, bai eleder hutseko edo, diranetan be, maila apalean daukagu gure literatura idatzia, gaur dan egunean be. Ez gagoz beste iñungo literatura mardo eta gizenakaz erkatzerik ez alderatzerik egiteko moduan.

Gure alorrean eta soloan, ganera, idazlerik asko, ez dira idazle soil izan. Bai zera! Gure artean idazlerik asko maixu eta hizkuntza legegile be izan dira. Euskereari legeak edo bihorrerak ezarri gura izan deutsoezenak. Izan ditugu bai. Eta ditugu. Lehen eta orain. Batzuen berbak jasote ezkeru, ba dirudi euskerea eurek egingo dabela, sorbarrituko dabela, edertuko dabela... auzoko txarakatik -beresitik- harturiko adakiz, taketez, arantzaz eta larrez. Sorbarritu, edertu? Ez etc... ilundu, morokildu, lizunduko?

Barragarria litzateke, negargarria ez balitz. Gure eremuko edota arrotz eremutik heldurikoeak euskereaz ganoraz eta modu egokian jabetu baiño lehen, euskereari ikutuak, mozketak, adabakiak, txaplatak, bortzakeriak ezarri guran ikusi daroaguz batez be gure egunotan.

Baiña hau, antziñatik dator. Hizkuntza arloan be, ez da ameslaririk falta izan gure artean. Eta erreformadorerik. Zezenari bizkarrean burdiña edo dana dalakoa ezartzen deutsoen antzera, euskeralari erdimerdi batzuk be, bakotzak bere xakia ta seilua ezarri beharreko izuri madarikatuak ikutuak izango ditugu. Eta ditugu.

Bai, enetxuok! Iraizean bada be, ikusi dagigun zerbait.

Euskerearen barrutiko langilerik asko, idazle edo sermolari apal eta emonkor suertatu da. Hori ondo! Horraitio, hor ditugu erraldoiak be, euskalari iraul-zaleak be. Dinoskuenez, Aita Larramendi be, ameslari izan zan, arean be, hiztegi kontuan egin zituan bere amesaldi sakonak eta luzeak, eta ondoren luze ta ugaria laga euskun; ez jakin sakona. Baiña Larramendik euskeraz idatzi zituan lanak jasekoak, onak, gartsuak, bikaiñak dirala adierazo deuskue. Besta ameslari haundia Astarloa J.P. izan zan. Honen kezak, buru zorrotzasunak eta buru berotasunak. Mutillak! Munduaren hasieran edo, harako amesetako paradisu haretan prakabakoak eta gonabakoak euskeraz berba egiten ebela, burura etorri arren, horrelakorik idaztea be!... Barragarria, Astarloa lagunzarra, horrelako ustekizuna. Zure anaieak bai, euskeraz jasean idatzi, asmakizun errobakoak alde batera lagata.

Maixu oiñarrikotzat etsia dagoan Leizarragak berak hizkerari ikuturik egin etc eutsan? Haren kideek halan berba egiten ete eben

eta halan idazten? Aditz formek menpe-tankeretan, atzizkiren premiñarik ete eben aldi haretan? Oraintsuetan, ostera, gure umezarora-
ren inguru, elantxobetar batek eta nabarriztar batek erabili ebezan
euskal-asmaketak. Neologismo ta superneologismo, eta ausardiaren
haundiz, aditzean be txertuak, mozketak eginez. Harako leban, leu-
dan... Eta adarran, bihotzan... Eta «Belduben egiñak» Arana Goiri-
ren azterrenez ete ebiltzan, esan daroe. Baiña abandotarra txiki laga
eben euskal-azturu horreek. Ez da arteza.

Horraitiño, laga dagigun alde motza ta ezaiña, eta alde ona,
osasuntsua aintzat hartu dagigun. Eta hor ditugu Etxepare aintziña-
koa, Axular langilea ta kezka betea, eta hainbat abade ta fraile lan-
gile fin, Euskalerrri ekaldekoan. Batzuk ezti txito gozo, beste batzuk
mingotsagoa eskeinirikoak. Nafarroa goitian, Mendiburu, Kardabe-
raz, Lizarraga, oraintsuagoetan izen haundikoenak. Gipuzkoan, Agi-
rre Asteasukoa, Ubillos, Gerricko, Lardizabal, Iturriaga, Mogel Juan
Antonio ta honen anaiea, eta Urruzuno. Eta Zaitegi, Mokoroa (J.M.).

Gure Bizkai maite honetan Kapanaga, Mikoleta, Zabala, Añiba-
rro, Uriarte, Prai Bartolo, Olaetxea. Eta gure sentimentua bero sama-
rrago jarririk aitatzen doguzan Tx. Agirre, R.M. Azkue, Zamarripa,
Eguskiza, Gabriel Manterola, Ibargutxi Juan, Artzubiaga eta ahaztu
ezineko Mikel Zarate... Eta arabar langile errime Aita Olabide. Ia
guztiok hilak, gizon bakotxaren biziak muga laburra ta halabeharre-
koa daualako. Parka begiskue izentatzeko geratu diran euskal-langi-
leak.

Antzena egoki biribildu guran, bariro esan dagigun Euskerearen
eusle zintzoenak eleiz-gizon batzuk izan dirala. Ai, guztiak izan bali-
ra! Ai, euskaldun guztiak euskaltzale izan balira! Katuaren amesak,
oster! Eleiz-gizonak, euskerearen kalbarioran lagun ixil eta egiko-
rrenak. Eleiz-gizon ez diranek oraindik gora, gure berbetearen alde
egin izango dabena, geroak esango.

Baiña gure esker ona bego, euskal-nekazale joandakoen izen ona-
ren ganean, sari erakusle dan koroe antzera.

E. Erkiaga

BILBO, BARRIRO EUROPARI ADI*

Eusebio Erkiaga

ORAIN hiru mende ere, Bilbok ba eban zerikusirik eta hartumunik Europako alderdi batzuetan.

Eta izan ere, hartuemon zuzenekoak, horretarako bidea biderik zabalena zala; arean, itsasoa. Garai harretan Españaiko alde askotan baino Europa aldean zan entzutetsuago Bilbo.

Indar eta eragin berezi hori, bizimoduko arloetan bitarteko izateak emoten eutsan. Euskalerriko ontzien artean Bilbokoak ziran gailenak, batez ere merkatal-saileko ihardunetan.

Arrantzu arloan, bale eta makailau arrantzuan garrantzi handikoak ziran besteak beste. Ontzigintzea ere, Bilboko ta Bizkaiko ibaie-tan eta itsasertzean ekintza sendo ta onurazkoa gertatu zan.

Horraitino, bitartekotasun zereginetan izan ohi eban lankizunik iraunkorrena eta ahaleginik arduratsuen.

Gaztelatik etozan ardiuleak Bilboko kaitik urtetan eben itsasorantz, Europako toki jakinetara eroateko. Ingalaterrarentz ere ba ziran joan-etorriak, baina horrez ganera Baiona gurean, batez ere, baina Bordale, Rochele, Ruan, Amberes, Flandesko hurraldeak sarritan ikusten zituen Bilboko ontziek, euron sabelak ardiulez eta burdinaz ta galtzairuz zituela. Aldi baten Nantes ta Bilbo kutun samarrak izan ziran euren merkatal-tratuetan.

Gure inguruko idazlek hainbat orrialde bete izan ditue Bruxas-en egon zan etxeaz, zera, Bizkaiko Tratu Etxeaz.

Agiri danez, Bruxas uriko zuzenburuak bereiztasuna emon eutsen, hain zuzen «Bizkaiko nazionoko Kontsulei», harako 1493 g. irailaren lehenengoan, eta horren ondoren iragi eben Bruxas haretan Bizkaiko «Cassa de Contratacion» hori.

Etxe horren taiua italiar artearen eredura egin izan zan, abe zutunak ugari ta aberats erakusten zituala; aurean plazatxu hedatua, etxerako sarrera apaina eta teilatua zelai zapala.

Joan-etorrietan bestera ere jazoten zan, hau da, ontzi flamenkoak Bilbora etorten zirala.

* *Bilbao*, 5, 1988.

Asabengandiko eite horren jarrai, barriren barri eta gure Herriaz hegoalderagoko lurraldeetako bankariak aho bete hazurrez lagata, Bilbo honetako bankariek, diru-saltzaileek, egitada azkar eta ausartu burutu dabe urte honen hasieran.

Arean, Europari adi barrero ere, Bilboko Bankoetxea deritxonak eta Bizkaiko Bankoetxea deritxonak, biok euron ondasunak eta baliabideak alkatuz, bion baterakuntzea onartu dabenean, «ontzi» sendoa eratu dabe, bai hemen, bai España estaduko beste lurretan eta are Europan eta abarrean ere, diru eta diruordeen hartuemonetan iharduteko.

Eta honelan, lehenetakoari jarrai eta adore haundiz Bilbo ta Bizkaia Europari adi jarriko. Orduan merkatari arloetan, eta harrezkero ta batez ere hemendik gorakoan finantza luze zabal ekintzetan.

Eta horra ba, Europan ezezik, Gaztelan eta beherago ere Bilboren eta Bizkaiaren izena, are Euskaldunen ihardun ernagarri, nabari ta agirikoa edozeinek ulertzekoa gertatu daiteke.

Beraz, XXI g. mendea hasi-hurren danean aurretikoen ereduari jarraitzea dirudi. Bide zaharretan zehar bide barrictara joatea.

LEKEITIO HITZAREN JATORRIAZ*

Etimologiari euskeraz hitzorkuna berbea asmau deitsoe. Dana dala, gure uri honen izenaz iruzkin laburra egin gura dogu. Hainbatetik astindu daben arazoa da, hain zuzen be.

Paperetan erdal-grafia *Lequeitio* agiri da. Orainarte beti bardin. Uriaren lehenengo izena hauxe berau ete zan? Izen zehatza, izen osoa ete zan? Nun ete egoan lehenengo Lekeitio eta zelakoa ete zan?

Hitzorkizunari gagozala, eritxi ezbardinak izan dira eta hemen aitatu doguz.

I. Norbaitek 1735 garren urte inguruan idatzi eban «Villa de Lequeitio, su descripción por maior o ressumen» dalakoan, hasieran bertan, brastadakoan hauxe inoan: «Lequeitio: su etimología en lengua natural vascongada lecuitua, que decir lugar ahogado».

Leku eta *ito* berba biok alkartu, eta izena hortik sortu dala esan eta sinistuerazo nahi izan da. Baina horrelakorik nork sinistu? Hitzkuntzearen eremuan bertan, zelan eta zegaitik, arteza ez eta iluna bai gertauten dan bidaketa hori? *Leku*-tik *leke*-ra aldatze hori, zer dalata? Eta bigarren berbea *ito*, *itoa* izan ezkeru, zegaitik *itio* bilhurtu?

Hitzorkun arloetan kontu haundiz ibili behar da. Huskeriak esatea errez dalako.

Esangureari adi, ostera, ganora eskasa dauko euki azalpen horrek. Begiratu Otoio tontorretik, nahiz Lumentxa ganetik, nahiz Kurlutxutik: horra hor zabalune aukerakoa begien aurrean, ingurune egokia. Ez da toki lau-laua, baina nahikoa hedatsua da, inondik inora be ez leku itoa, estua ez medarra.

Horrelan ba, etimologi horrek ez dauko ganorarik, indarririk.

II. Pedro Aguado Bleye historigileak 1931 g. urtean argitaraturiko «La Villa de Lequeitio en el siglo XVIII» liburutxuan, I go. orrialdearen barrenean ohar hau dauka: «según escribe Juan Iñiguez de Iburgüen, se originó el verbo *Lequeitio* (vulgo Lecaitio) de *Lecayos*, militares antiguos, guardacostas, que poblaron en el arrenal, para impedir que internasen en Vizcaya los enemigos. Las armas de la antigua Casa de Lequeitio era una águila».

* *Lekeitio*, 1, 1988.

Antxina hori noztikoa ete da, eta Lecayos horreek noren menpekoak ete ziran? Nun da dokumentazinerik paperik, azterrenik?

Harrezkero be, ba da horren antzerako eritxirik; zera, berba hori pertsonaren baten izen latinekotik ete datorren, aldakuntza txikerren bat eginez.

Une honetara heldu, eta ez da bazterrean lagatekoa Antonio Cavnilles akademikoak «Lequeitio en 1857» bere liburuan (Madrid, 1858), 3 g. orrialdean ezin azkarrago inoana: «Decir que las etimologías de Lequeitio son caprichosas y hasta ridículas es también inútil porque nadie creerá que este nombre significa lugar angosto; pues con igual razón debería llamarse Lequeitio el resto de la provincia. Tampoco se necesita acudir a un documento en vascuence ¡y el siglo XVIII! para probar que no procede de Lecayos o Lacayos. Contentémonos con investigaciones accesibles y dejemos ese mundo congetual para otros más habituales».

III. Gorago aitatu dan «Villa de Lequeitio» idazle ezezagunaren paperetan, hemengo Zubiak izentautean, 12 eta 13 g. orrialdeetan dino (liburutxuaren neurrietara gagozala): «Hay dos puentes para entrar en el lugar por la parte de Mendeja: el uno es el sobre dicho Esunza (II g. orrialdean «otro parage llamado Esunza» hiru bidar esan dau-ta), de madera, sobre dos pilastornes de piedra, tiene una parte movediza, por donde pasan los navíos de echar vena y a ybernar en los Juncales; el otro está en el parage que se llama Lea, por la una parte de estribos en la jurisdicción de Ispaster, y por la otro de Mendeja; el río es de la villa en todo cuanto sube la mar; las dichas dos Repúblicas, con algún ayuda de la Villa, hicieron dicho puente, que se llama de Lea, de piedra labrada, de un arco, que declaro tiene 72 pies, el año passado 1734».

Aipamen luzea egin dogu, ba, izan be, puntu jakingarri bi dagozalako, gogoan izateko diranak. *Esunza* (orain Isuntza) toki baten izena zala, ez hondatza txikiaren izena ta ezta hondar zabalena be; bai horraitino Lumentxa mendiskearen sortaldeko barrena. Ohargarria da los *Juncales* berbea generatzen dauala, adierazpena guri argiago jarri guran edo; ihia = junco; ihiza, itza, izuntza, ezuntza = juncal. Honela ete zan?

Eta bestetik, *Lea* berbea be, beste paraje baten izena zala 1735 g. urtean. Eta han egin eben zubia harentzat «puente que se llama de Lea» zan. Leaalboa orain Leeaegi da aspaldion, herri-hizkeran Liei, eta beraz, Lieiko zubia.

Honelan ba, Oiztik behera, Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga eta Oletan zehar datorren ibai honeri noiz eta zegaitik ipini eutsoen Lea izentzat?

Hau zetara datorren? Ba, beste etimologi baten gorabehera aztertzeko. Leako edo Learen kaiak izan ete leiteken gure uri honen hitzorkuna. Burura etorri eta esan: Lea-kai-ti-o. Nundik eta nora horrelakorik? Azalera begiratuta bakarrik Lea berbeak amaierako *a* galtzen dau, Lea = Le, eta ez dakigu zergaitik. Kai eta ti uste dan hori -keiti bihurtzen da, eta ez dakigu zergaitik. Eta kaitia baldin bazan, zegaitik geroago -keitio? R.M. Azkuek bere Morfologian izentau eban honelako zer bait: -itio, atzizki hau argitasun haundi barik daukagu: Areitio, Momoitio, Lekeitio...

Beraz, iluntasun artean gabiltz oraindino be, -eitio eta -oitio amaieretan.

Eta arazoaren sakonera jota, gure uriko kaia eta portua Lekeitio baino oraintsuagokoak dirala uste dogu. Lekeitio zaharra antza dagoanez, ez egoan urondoan, lehorrerago baino. Uriarte ingurua, zingi-zangoa, Athea kalca (oraingo Goiko edo Dendari kalea zan) «desde la moralla y portal de Nuestra Señora de la Esperanza hasta un pozo llamado Zinguizango, calle poblada por ambas partes» dirausku idazle czezagunak. Lekeitio zaharrena leku goiskoan egoan.

Handik geroetara egingo eben hor izentauten dan «Cay o el paradero de chalupas y navichuelos». Liburuari jarrai, 1735 g. urtean hor egoan Kaia, eta beraz, Kaigana. Ez horraitino Sanpedroperik toki oraingoan, harrezkero baino.

Eta cay txiki hori... «El puerto es malo, así por naturaleza como por los pocos medios que ha habido para abonarle; tiene dos barras, la una por la parte del lugar, y la otra por la de Carraspio; en medio está la isla de San Nicolás Bari, por su Hermita que hay en ella; por la parte del lugar entran las chalupas y navichuelos; en mareas vivas podrá haber agua para navío con carga de 60 toneladas (ez metrikoak); en las muertas, apenas para 20; es peligrosa y a poca marea las chalupas (son embarcaciones de pesquería) entran con athalaia, que, observando la avenida de las olas, las hace seña para que puedan entrar con alguna seguridad, a la que los naturales llaman *eretia*; en frente del sobre dicho Cay; paradero de chalupas y navíos, hay dos muelles, el uno en línea recta, llamado *Nazanueva*, y el otro tortuoso, que se llama *Nazazarra*, Nazavieja; por entre estas dos entran

dichos navíos y chalupas al dicho paradero; para el verano en buen parage, pero para invierno muy malo, pues, habiendo mareta no puede quedar en él embarcación alguna, por las fuertes resacas, por lo cual pasan a otro parage llamado Esunza...» (10 eta 11 orr.).

Horrelan zan 1735 garren urtean, Arropain alderantzeko toki haretan eta Loibe barreneko zingiretan eta ihitzetan euken leku hobeia orduan be.

Eta Lekeitio zaharra, antxinakoago zan.

Guzti honegaitik, Lea-kai-ti-o hitzorkune hori be, lilurazkoa da. Beste alde batetik, hasierako Lek-daben berba mordoa be hor da, Lekarotz, Lekanda, Lekerika eta honenantzeko Legendika, Leku(b)e, Lekumberri, Lekuoua, etab.

IV. Azkenez, zerau gehitu beharko. Orain urte batzuk, bergarar idazle argi dan Justo Garate jaunak idatziz inostan bere ustez gure uri honen izenaren esangurea «gaztainandia» ete zan. Berba bat ekarren autura, *legerio*. Bai jauna, legerio gaztaina moeta baten izena da; horraitino gaztaineak gure inguruetan hogetaz izen eta moeta ditu. Azkueren DVEF hiztegi nagusian gaiztaina sarrera dakarrena ikustea besterik ez dago. Legerio Lekeicio... ames polita, baina besterik ez gure aburuz.

Cavanilles-gana joko dogu barriri: «Lequeitio está situado en terreno pedregoso y estéril» (4 g. orr.) Hori, 1857 g. esana da; uria nahikoa handi zanean. Baina Lekeitio zaharrena zan toki txikia, Lumentxa harritsuaren barrenean gaztainadia, eta hain zuzen be legerio klasekoa? Uritik kanpora, Eluntzetan, Otairan maldetan, Mendexa aldean... tira!

Esanak esan, laurok hitzorkune ilunak. Lausoa eta lanbroa ugari, eta argitasunik ez.

Horraitino, leitekena da gazte ikastunek, paper zaharrak arakatuz eta aztertuz, noizbait argitasun ziurak arakatuz eta aztertuz, noizbait argitasun ziurragorik emon ahal izatea.

Betoz ba, ikertzaile barriok, eta beharskuez albista jakingarri eta sustraituak.

Lekeitio, 1985.
Eusebio Erkiaga

ARDAOA IXILPERA*

Eusebio Erkiaga

JAURLARITZAREN egitekoen artean, drogen eta alkoholaren aurkako jarrera aitatu dabe; arean, asmoa mahai ganean ete dagoan. Legeren bat iragarriko ete daben. Lege hestutzailea, eta ardaoa be, ardaoarean zabalkundea be ixilpera bidean jarriko ete leukeen.

Aspaldi esan ohi dabe, ardaorik ez edateko. Ardaoa egiten dabenek, ostera, arbin eta urduri jarri dira, droga ta alkoholaren txutxuaz ardaoa be, askatasun bage lotuko ete dan.

Horrelan ba, ardao egileak batzandu egin ziran oraintsu, Euskerriaren hegoaldearen barrenean, ardantza ta mahasti lurretan, hain zuzen.

Eta galdera zorrotza egin dabe idatzi baten: Zelan, baina, kaltegarria ez dan ardaoa drogaren eta alkohol hutsaren eretzean jarri? Parean jarte horrek ardaoak aspaldion dituan ibilpide askatuak hesiz eta langaz mugatu nahi ditu, antza danez. Nor ete da hain ez-jakina ardaoak betiro dituan nolakotasun onak ez jakisteko? Ikuspegi ez egokia dirudi ardao ona edari gogorraz nahastean lardaskatzea. Ardaoa txarra ete danentz, nok jarri ete dau aspaldiko uste ona zalantzan?

Lar edatea da txarra. Edozein lar da txarra, kaltegarria edo behintzat, makalgarria. Muga bako atseginik ez dago. Batzuen eretxiz, atseginik beteena haragiaren atsegina izan arren, hor be, mugak eta geldiduneak, aterruneak dagoz.

Ta ganera, antxinakoez sarri esana da: «Ardao onak, gizonaren bihotza poztu egiten dau».

Horren antzekoa esan dabe aurtemein Errioxako ardao egileek. Gaur dan egunean, ardao zabalkune idatziak eragozpenez zigortzea, ardao markak ez ezagutzea, zelan-baiteko atzerapen ez ete dan. Saltailek horrelako zerbait dinoe.

Bilbon eta inguruetan horrelako bide hestutzeari, ez deutsoe artez eretxiko. Comutan itzartu guran lez, harako kantatxua jabilku:

* *Bilbao*, 8, 1988.

Mahatsaren orpotik dator
mama gozoa.
Edango neuke
baso bete,
bizigarri dan ardaoa.

Uraren eta ardaoarean eztabaidak, horraitio, amairik bakoak dira mendeetan zehar. Banan onak ei dira. Euren ezkontzea, ostera, guztiz ezegokia. Bakotxak berak bere burua galtzen dau, eta bestea hondatu, ganera. Osagileren batek edo bestek, urdail eridunei, ardaolari ura zertzeko esan ei deutse. Ardao ikerlari azkarrak egungo ez horrelako obenik aitatuko. Ardaoak nahikoa dau, berez daukan ura.

Ez, beraz, ardaolari urik bota. Are ezago, ardao ona baldin bada.

Egia da esnari be, noizean behin edo sarriago, ura bota eta esnea ugaltzen dabela. Ura, esnearen mesedegarri dala be, esanaz.

Mahasti jabeek eta ardao egileek euren erresumina agertu gura izan dabe idatzi haretan. Izan be, edari bakotxak dauka bere erroa, egitekoa eta bere ordua. Egarrri haundietan, ura edan. Baina jatorduetan baso bete ardao edo bi, hori gauzeak dakarrena da. Ez be!

Gure belaunaldikoa baino lehenagoko izan zan euskal idazle batek argiro esan ehan: Urzaleak Euskalerrian —gizonezkoak batez be— gitxiengo nabaria zirala, minoria kaskarra. Beste kanta batek be, badino: Ardao gorri nafarra, edan beti ahal bada: a, a, a, ardo gorri nafarra.

Errioxa aldeetako mahasti jabeek eta ardo egileek ez dagoz gogara, eragozpen asmo horregaz. Ganera ardao egileak, egin bakarrik ez; geroago seinari titia emoten jakon antzera, eta hazi eta hezi, eurek ardaoa ondu ta zaindu daroe, hilabeteetan eta are urteetan, edalearen aho-sapaia bere orduan gozatu eta sabelean janarien egosketan halako berotasun egokia sor dadin.

Labur esan. Auñamendiz bestaldeko diran ardao baltzak ainako lez joten dan Errioxako ardao jatorrek, harrera ta txera berezia merezi ez ete daben.

Bestalde, bilbotarrek ba dauke euren kantutegi arruntean honako hau be:

«el agua para las ranas
y para los peces que nadan
bien».

Bilboren histori txikerrean lar barruko ardantzen eta mahastien eragina, nabarmena izan dala autortu dauanik be, izan ei da.

Eta hortxe dogu Don Diego toki ikusgarrian, ardao herriko zalduna izan eta hemen agintari mailako gertu zana. Orain barriz, bilbotarrek daukez han Haron, ardaotegi naroak eta Bilboren izena.

«EUSKALDUNA»... ONTZIAK NUN DITUZU?*

Eusebio Erkiaga

Urtean behin ospatu ohi dogun hildakoen egunean, saratsak nakar Bilboko parkera, oraintsu edertu daberen alderdi honetan gauza politik eta atsegingarriak ikusteko eta jazoera batzuen ondorena be, begietaratzeko aukerea dodala.

Pergola apainduan antzerti ta soinu jaiak eratzen ditue ta, izan be, agerleku egokiro atondua dakust. Bideak errime barriztatu ditue, eta gizakientzat eta txakurrentzat be, preminazko bazterrak gertu jarri.

Parkearen eremuan, goialdean nahiz behealdean uso piloak hegan, hurganean ibiltzen edo bedartza samurrean, zeharo berde, gozar etzunda. Usoek literaturan daberen entzute txairoa, ostera, euren zikinberatasunak itsusita daroa.

Etxeen leihoak eta erlaiz politik zikintzen ditue aspaldi honetan. Gure uri honetan hainbeste uso eukiteak zer hobari ekarri legiskun, erdi itandu deust jaun ibiltan batek. Parkean ezezik —sasoi baten Arenean euki genduzan euren etxetxu ta guzti Bilboko usok edo nora joan-etorriak eta edozein etxetan egoteak egiten ikasi dabelako.

—Han, Milan-en esan deust— usok egiten dituen kalteak zelan-bait ekiditeko, hau da, usoen ugaltzari mugak jarri guran, han Milan-en aztoreak, uso-mirotzak jarri ditue hango etxerik ederrenak, arean katedrala ta Scala entzutetsuaren hormak, tontorrak, erlaizak, harmailak eta abar zirinez beterik laga ez dagiezan.

Halan be, hainbeste uso urdin, zuri ta nabar inguruetan askatasunez hegan ikustean...

Horraitio, pergolatik ibai aldera begiratu dodanean, bihotz gancera harlosa astuna jausi jat.

Eta izan be, «Euskalduna» ontzigintzaria, nun dituzu behinolako zeure ontzi sendo, azkar eta lerdanak?

Hilerriko egoeraren antzekoa dakuse ene begi nekatuok.

Bilboko dike emonkorra zana, dana ixilik, dana geldi.

* *Bilbao*, 12, 1988.

Ni ibili-ahala, nire oin astunok orbel horiak zapaltzen ditue. Orbel kolorga zapalduaren antza hartu deusat «Euskalduna» lantegiari. Haren alboan zehar tren luzeak astiro doaz, baina beribil arinak itsumustuan, zarataka, txaranbel doinu zoliak entzunerazoz. Dike sendoan ixiltasuna da nagusi.

Hor dagoz garabiak ailartuta, gogor, zerurantz begira; besangak luze, dangilizka, lan egitea zer dan be ahaztu jakela. Hor, zutunik etxe gorrilunak, urdin samarrak, grisak.

Dikeko ibira, uberkara, ez da orain ibaiko ur ilunik sartzen. Horrezaz aspaldi lehortu dira. Euriaren hezoa baino ez dabe oraingo aldian lortzen. Bitarteok biloistik dagoz, ez da gila barririk agiri. Itxaropena izan daitekeen ume barriaren susmorik ez azterrenik ez da hor nabari. Eta ume zaharrak, ontzi zaharpilduak be, ez datoz horra. Ez dakarrez.

Hildakoen egunak irudi lanbroa, behartsua dau parkepean. Amaitu zan harako urduritasuna ta ekintzarako garra.

Dike entzutetsu hori eukitsuen eraginez sortu zan behinola. Bati-pat, industri gizon azkar baten asmoz. Gizon horren eta partaideen ontzidiko elementu asko be, hortxe egin. Ontziok, izentzat, amaieran —Mendi atzizkia euken, urte onuratsuetan. Eta itsasoetan zehar gure lurrataleko izenak zabaltzen zituen, edonoren begien aurrean. Dike honi ta —Mendien bazkuneari be, sirats eta patu baltza heldu jaketzan, hogetameseiko gerratea hasi zanean: handik lasterrean esan gura da. Gizonik argienak Iparraldera ihesi joan beharrak, hain leber ez ziranen eskuetan laga ebazan arloak. Honeek dikea saldu egin eben. Eskualdatze makurra izan zan. Geroago, ekonomiako ezuneak egundoko okerrak ekarri lehenetan —Mendi ziranci ta geroago Monte... bihurtuei.

Gizartekoen jokoak, tratularien burrukak, ekonomi txutxuak eta guztion ondorenez, Olabeaga aldeko lantegia hor dago kikilduta, antxumaturik, ixil, geldi. Horko langileek azken urteetan gogor antzeko saioak egin izan ditue; ez beti onerisgarriak. Baina ekonomi ezunea gordina ohi da demokrazian. Errekonbertsinoak erre dau.

·Berpiztuko ete? Uxela lehen-bailehen.

BILBO POLITA ETA GARBIA*

Eusebio Erkiaga

NOIZEAN behin, izen bereko uri honetan, adiera honetako esaldiak haizutzen eta zabaltzen dira.

Polita izan edo ez izan, honezaz mila eztabaida sortu ohi da bertokoen artean. Hainbat ugariago hemengoak ez diranen artean.

Ni polita naz edo ederra naz esaten inor gitxi ibiltzen da. Baina norbera bizi dan lekuaz eta bestalde, norbera ez jaio ez bizi izan dan lekuaz zeresan haundiak sortzea, gizakiaren izatean datzan zerbait da; arean, grina ta barruko joerea. Aiurritz onbera izatea edo triperrea, hori ez da sarritan norberagan.

Horraitio, urrunetarik etorri diranek, aspaldion aipamen begiko ta txeratsua egin dabe, ta Bilbo gora ta Bilbo beheara, goralpeneko berbak esanez, bertan bizi garanok susmatzen ez dituguzan zeren agertzaille gertatu jakuz. Eurek ohartua argi ta garbi azaltzen jakin dabelako.

Erbestekoa urruneko izan ala auzokoagoa, horretan be, mailak egoten dira. Ikuspegi ez bardinak. Auzokoenak ez dau sarritan lar goralpenik egingo.

—Gure uria ikusi, eta hau...

Horrelakoak Bilbo polita ez dala aho betean adierazo gura dau.

Bai. Edozeinek esan daroa Bizkaiko uririk haziena baino politagoak dirala han itsasertzeko Easo edo arabar lautadako uri zuria, urrunagoko leku jendetsuak aitatutzeke. Uri txikietakoek be, gure uri nagusi honezaz eretxi bereziak eta bardingak agertzen dabez.

Eta izan be, polita eta garbia adierak alkartzean ta buztartzean, eta izatean horrelan ez baldin bada, hainbat eta okerrago eretxi aldezkoa emotea. Errezago, nunbait be, destainezko berbak esatea. Kaleko zaramak eta zikinak, usain zatarrak, esturak eta zaratak, ez jakuz goragarri. Eta esturak aiatatu dogun ezkerero...

—Ezin leiteke Bilboko inun ibili. Bizia arriskuan, arrisku gorrian edo holakoren baten dago beti. Eta kutsapena ta haize zikindua...

* *Bilbao*, 15, 1989.

Burpilez bete dabe mundurik erdia eta kaleotan kristinauek ez dabe errez ibiltea, are ezago egotea. Edozein kalertzetan dago zain andra heriotzea bere kodain luzeagaz.

Bultzagileak ditugu biko, lau burpileko eta gehiagoko burdi txiker eta galantak. Bultzagileak gara kalean goazanok, alkarri sakadak eginez espaloietan, kalean batetik bestera joan behar doguncan, den-da haundien sarrera-urteeretan, kirol-jaietan, toki askotan.

Eta hori, urian ibilten ikasi daigun, espaloien bitartean astonabarrren marra zuriak lerrotzen deuskuezan arren; bai ba, asfalto ganean. Aldi berean, kaleko alde baten eta bestean argi gorri, hori, berdeak hor ditugu erakusle. Oraintsu, ganera, itsuen mesederako, argion laguntasunaz batean leku larrienetan soinu bakartia be, joten dabe, kale aldatze tanean soilik, tete-riiro... tete-riiro... Pertsonak ezezik, txakurrek be, ba dakiez kale aldaketa jokuok, eta hor egoten dira begiak ernai, belarriak tente.

Argion eta soinu motelon esanera hor goaz danok batera bultzagileok haruntz eta honuntz, soinekoz jantziriko artaldean antzean. Beste kontu luzeagoa da OTA arazo hori.

Garbia, aiatu dogu gorago. Hemen ditugu sekulako burrukak eta istiluak. Uri haundi bat garbi eukitea. Etxeko ta auzoko, aho batez diharduenak dira ezespen berbak esaten. Bilbo uri baltz, ilun, zikin, itsusia...

Inok berresaten eta dau orain Bilbo lehenago «zidarrezko katilutxua» zanik? Txikia eta polita eta garbia. Holakoxea izan zan.

Oraintsu, albistari gazte batzuekin berbetan jardun eta horrelako esakerarik entzun be, ez dabela egin, erantzun euskuen. Irakurri be ez?

—Ez zarce bilbotarrak —ohar egin geuntsen.

Eta horrelantxe zan. Irratiko albistari gazteok ez ziran ez hemen jaiok ez hemen haziak. Geroetan ikasten eta lanegiten etorriak baino. Gazte bedekatuok gure berbak sinestu ezinik egozan. Ezkontzera doazanen birgintasuna sinestuten ez daben ainean. Halan be, bai, jaun andreok, Bilbori «zidarrezko katilutxua» eritxoen lehenagoko urte luzeetan.

Ikuspegia ta ikustemodua belaunaldi bakotxean aldrebes doaz. Besteen esanei baino norbere usteei jaramon zehatzagoa egiteak dakar horrelako eretxiak. Esnobismoa ta zazkeleria eurrez da bazterretan. Ba dirudi ikusi ez dogunaz ez dogula jakinminik, ardurarik ez zentzunezko argirik.

Egin izan diran gauza onen aldeko begiramena baino ardurabakotasuna ta zazkeleria errezago jakuz gaur dan egunean. Erruak guztiak, zaharragoen bizkarrera egotzi, eta bapo mutilak.

Esanak esan, Bilbo garbiagoren alde jokatu daigun. Garbitasunak, itsusi samarrak be, politago egiten ditualako.

Baina, askatasunaren emoi onak ikusi ahal izan daiguzan, guztion ardurea ta laguntasuna beharko. Ibaizabaleko uren lorrina kendu, haizea kiratsik bage geratu dadin lortu, hormetako pintura moltzoak garbitu, kaleetan zaramak eta zikinak ez bota, ez laga... Zaratak eta burrunbadak bakandu, taberna aurreko, espaloiak jende mordoan egonleku barik, kalean doazanen bide izan daitezala. Lanik-eza ikaragarria, droga kaltegarrien beherapena... Hainbat eta hainbat.

MEDIKUEN ACERKARIA BILBON*

Eusebio Erkiaga

ORAIN urteak uri txikerra besterik ez zan Bilbo honetan, ihardun eta ahalegin ugari egin izan dabe bertoko semeek; bertoko semeek eta erbestetik bertoraturik, harrezkero euren burua hemengotzat jo dabenek.

Aldi bateko baserritar usaineko zan uri honi, destainezko berba zatarrrik be, egotzi izan deutsoe, urteetan zehar.

Itsasbiderik hestuen a bailitzan, Ibaizabal honegaitik «alcantarilla navegable» zala esan eban politiko entzutetsurik be izan da.

Ekonomi alorrean, zorionezko batzuen ustez, zer txarreko ekinz-
zak burutua ta jasana ei da Bilbo.

Ekinza horreen bitartez, lurralde baserritarra ta itsas-zalea zana, azken mende bietan industri zoli ta jarraikoaren ondorioz, gauzak ugaritzera bultzatua izan dala.

Aberastasun iturriak sortzen, horraitio, ez da edozein gangordun izan. Zera, batzuk aberatsegi egiteak, beste askoren joputza ta morrontzea ekarri izan dauala. Arean, gehiengoaren uste hori etc da?

Beste arlo batzuetan be, esaterako kiroletan, Bilbo punterengoa izan da mende honetan, eta orobat, Euskalerrria. Fubolaren sorrerea, gagozan Estaduan, zeinek ez daki hementxe izan ez danik. Ingelesak edo asmatu eben jolas horren aintzindaria, pionerua Bilbo izan da. Bai. Gure gurasoen garaian oinjoko edo ostikoketa hori zuzenean hel-
du zan Bilbora. Hain zuzenean, lehenengo ekipoaren izena bera be, ingelesa izan zalako, ta dalako: Athletic Club. Berba bi, eta eurak uharte haretakoak. Horra ba!

Jokolarien soinekoen koloreak, barriz, zuria ta gorria, etxeko kolore alaiak. Ikurrin antxinakoarenak eurak. Horrelan eratu, horre-
lan diraue. Jakina, bilbotar asko, mendearen hasieratik «Aleti» esa-
pide errezaz baliatu izan da. Izan be, zeinek ekian hasieran ingeles
ogutzkera gatz hori jatorrizko taiuz esaten?

Txirrin eta bizikleta arloan be, Euskalerrriak garrantzi haundia izan dauana, zabal da; armak ezezik beste ihardute batzuetarako

* *Bilbao*, 17, 1989.

tresnak be, egin izan ditualako. Egin eta egiten, antxinako lapurrak lez.

Ondasun eremuan kaia ta Boltsea eratu izan arren, bilbotarrak jakituri sailean atzereak izan ete diran susmo ta barriketa ziztrinik be, sortuerazo izan dabe hor zehar noizean behin.

Jakituri sailak alderdi ugari ditu. Lehengo zeren gorabeherak aztertzea ezezik, gauza ta modu barriak asmatzea be, gizonaren goienengoko zeregina izan diteke. Halan be, Unamunok inoiz arbuio: «Eurek asmatu begie» aitatu eban. Esakera murriz horregaz, ostera, bere burua mugatu eban, ez xori onez. Egun goibelen baten esan izango eban azazkaldi hori.

Gomutan izatekoa da, Estaduak laguntzarik emon bako arloetan Bilbon eta Euskalerrian, norbere kabuz ekintza indartsu ta funtsezkoak izan dirala.

Ezetariko zaratatik eta espanturik bage, hementxe daukagu Bilbon, mediku ikastun eta osagile onak eurrez izan diralako, hemengo Mediki Jakintza Akademiak mamindu ta kaleratu ohi dauan agerkeria. Ehun urte beteko ditu laster; ba, aldizkari hori, «Gaceta Médica» bere izenez, 1894 garren urtean sortu ebelako. Honelan da, Españako mediku aldizkarietan zaharrena, dekanok da ta. Aldizkari jatorra ta ofiziala, bere eremu berezian.

Beste euskal lurraldeetako osagile ta idazle ikertzaileek toki aukerakoa ta zabala dabe, agerkari dekanok honen orrialdeetan euren jakite lanak agertu ahal izateko.

Faciam ut potero goiburuaz dihardu lanean Akademia goragarri honek.

GAUZA HARRIGARRIAK HEMEN?*

Eusebio Erkiaga

IRAKURRI izan dogunez, gure Bilbo hau azken aspaldi honetan erdi loak hartuta egon dala dirudi. Egin dana gauza txikia izan balitz edo, hainbat eta hainbat asmo dabil bazterretan.

Munduko uririk haundiena ez hain zuzen, baina ederrenen artean, behintzat, ipini gura dabe. Mende honen hasierako Bilbo txikerra, itsasgizonen eta dendarien uria, industri herri indartsu izan ondoren, eta diru-arloetan be bai, hemendik gorakoan industri-osteko zerbitzu ugari egozleku bihurtu behar ei da.

Ordago eupadea dabil, arean bere, barriro gure inguruan.

Irudimen barriko Atlantiko ardatzaren ingurumarian be, testigantza emoteko ainako plazagizon antzera, plazaherri bilakatu nahi dabe. Hori ondo! Aurrera egitea gehienetan, onuratsua izan ohi da. Eta hor zehar doaz azterrenak, asmoak eta gurariak.

EGITASMO orokorra egiten diharduenek, Bilbon beharmodu eta zerbitzu barrien eskeintza nabaria sortu daitekela uste dabe, eta horrelakoak dinoez.

Ekintza barrien iturri izan daitekezan etxeak, hotelak, kulturtegiak, osasun eta kirol erdiguneak, eskeintza eta laguntasun sailak, finantza erabiltzaileak, banakaritzako saio aurrerakoenak. Zer ez?

Lehenagoko lan moduak orain aldatuz doaz. Mendeetan eta mendeetan gizakirik gehienak hurrari lotuak egozan; lurra landu, hurretik bizi, bide batez abereak eta artaldeak eta oiloak eta, haziaz eta ugalduezoaz. Munduko alderdi gehienetan hurretako lanari agur egiteko goga. Gogo hori, aldi baten, industriak hartu eban indarrak aizako gogo. Gogo hori, aldi baten, industriak hartu eban indarrak aizatu eban. Meatzak euken ondasunaz jabetu gura eban gizonak, eta harrikatza ta burdinea eta beste metal batzuk eskuarteko egoki izan jakozan.

Eta horrelan hasi eta seño bihurtu zan industriaren garapena. Base-rietako jendea, jende gaztea batez be, lantegi haundietarantz begira

* *Bilbao*, 20, 1989.

jarri zu. Lurreko ondasun jakinak edo ezjakinak gitxitzat eta zalantzazkotzat etsi, eta alobera, gehienetan urri eta motza, horixe gurago. Norbere askatasun txikerra saldu edo galdu, inork emongo deuson sari eskasaren truke. Ordu luzeetako lana, neketsua gehienetan.

Baina astero, edo hamabostero dirua eskuan hartzen eben. Dinonez, dirugaitik, txakurrak ere, dantzan egin ei eban.

NEKAZARITZEA, industria eta postindustrialdi honetan, bitartekoen nagusitasuna, nabarmen gertuko da. Bitartekoak, zerbitzuak... lehenagoko lan astun eta beharmodu neketsuak bazterturik, antzinako «chupatintas» bakanak aurrerantzean munduko jabe egingo dira. Paperak bete, eta pixurik besartean erabili ez. Izerdirik bako lana, gehienetan. Jakina ba!

Makinak dagoz orain edozetarako. Jakituri apurra izanik, argitasun barriak lorturik, gizonak eta emakumeak makinadun bihurtuz doaz.

Horren antzera, edo ondorioz, urian, eta hemen be, parke, jardin eta ibiltekuak ugaritu gura dabez. BILBAO honetan urte azkenean, «Euskalduna» lantegiari erdi hileta kantau neutsan. Eta erdi hileta ori, irakurri dogunez, horixe izango da. Agur lantegiak, eta horren orde, ibiltekuak, paseo dotoreak, baratz barri eta alaiak. Zetarako lan egin?

TOKI itxusiak, etxe erkinak, kale estu eta ilunak argitu, zabaldu, edertu. Aberastasun giro barria jatorku gancra. Miloiak eta biloiak zenbat ete diren jakiteke, burua zoraturazoten deuskue. Herriak, Estaduak, alkarte ta gizarteak zorrez beterik dagozan une honetan, inbertsino ikaragarriak egingo dira.

Paradisu barriruntz goazala dirudi. Gauza harrigarriak gu bizi garen txoko honetan be. Zaratarik handiena sortu dauana, kultura abia izan daiteken kristalezko etxe hori. Kalearen ganean etxea, zelan da hori? Agian, lehenetan triku-harriak izan genduzan Euskalerrian be. Orain, behar bada, triku-etxeak izango doguz, toki desegokietan edo.

Zentzunezko asmoa ete da kristalezko triku-etxe hori?


Zurbaran

Euskaltegi bateko ikasleak dirala, dinoe, BILBAO-ren 19 g. zenbakian, eskutitzen atalean. Benetan pozagarria —dinoe— baina

benetan ez pozgarria esan gura izan dabela uste dogu, arean, 36 orrialde dituan aldizkari baten, euskerazko lanak 2 bakarrik agertzea.

EUSKERAZKO irakurgaiak gura douezala? Arduradunak zer erantzungo deusuen, ez dakigu. Elebidunak, dinozue? Ez, maiteok. Diglosia itzelak zapalduta bizi gara. Bilbon bizi izateko ez da euskeraren preminarik. Euskeraz idazten dakian idazle askorik, ez da hemen. Eta eurotarik batzuek, gaztelaniaz gustorago egiten dabe. Hor da arazoa, untzea ta kakoa. Hori gorabehera, zuok ikasi ta ikasi. Aurrera, mutilak.

LIBURUEN KRONIKAK



“AZALPENAK”- Lauaxeta*

IDATZ & MINTZ 2gn. zenbakia eskuratu dodanean, hango 26gn. orrialdean, hurrengo lerrook be argitaratu dirala dakusat: “Uarra: Bialdu dozun Euzko Idazti Aldeko arpide agiritxua artu dogu. “Lauaxeta” egunokaz, beste zeregin batzuetan dabil, oraingo jazokunok guztion laguntzea eskatzen dabe ta. Eskerrik asko eta agur: L.”

Lerroon amaieran L. irarririk agertu arren, lehenengo esaldi biak arretaz irakurri eta gertaerak gogoan izanik, dinoana osoro sinistuten dogu; eta horrezkero, “Uar” hori Lauaxetak idatzi ez ebalakoan gagoz. Ibonak idatziko eban. L. letra horrek, I. behar eukean.

Aurreko orrialdean aitaututen dan norbait hori, “Erletxue” izen-goitiduna, jakin dakigu Juan Abando Urrejola jauna zana, Urkiagaren lagun haundi, eta aldi haretan Bilboko zinegotzien mordoan EAJ-koan ziran udalgizonen taldeko buru zana.

Horra ba. Erletxuek, sei lerroko bere idazkunean Euzkel Idazti Alde inoan, eta horren erantzunean be, Urkiagaren dudarik bagako lerroetan “Euzkel-Idazti-Alde” agiri da.

Azkena dalakoa uste dan “Uarra” horrek... “Eusko Idazti Aldeko” dino. Eta arpide bat... ez dino; Urkiagak baino zehatzago ta biribilago esanik, “arpide agiritxua” aitutzen dau. Eta hurrengo esan-modu hauxe be, arean, “Lauaxeta” egunokaz... ikertza lan esturik egun ez dogun arren, laukiztarrak erabilten ete eban...

Berba baten, “Uarra” osorik eta astiro berrirakurri, eta Lauaxetarena ez dala deritxagu.

Eta gaurkoz, amaitzeko, Gotzon Garateren eritziari ikututxua egingo geuskio. Elgoibartar honen aburuz, “Lauaxetari garbizalekeriak kalte egin ziona, ukatu ezina da. Horratx haren akatsik nagusienetako bat”... Garatek, artikulu horretan “Bide Barrijak” eta “Arrats Beran” soilik arakatu ditu (“Deia”, 1981-V-31).

Bai, Lauaxetak garbizale izan guran joran lar erabili ebala esan izan da. Horraitino, haren lana literaturako eder-maila goragokoan jarri izan ez bada, zertu gura eban lana burututeko euskerea bere menpe ez eukalako izan zan; erreminteagaz egokiro baliauterik ez

* *Idatz & Mintz*, 7, 1984.

eban izan. Hizkera biziaren eta jatorraren jabe izan balitz, barruan erabilezan asmo, ames eta gurariak hobeto adierazo eukezan, ziu asko. Haren esaldi eta irudi batzuk, eder eta jatortzat daukaguz. Ostera, gaztetxutako erdal-berbeta bizitzeak moztu egin eutsan bere gurasoen hizkerea, eta argiro behar eban txingarra, ilintia, hautsez estaldurik lotu jakon.

Oraintxe, 50 urte inguru geroago, Jon Kortazar errimearen lan nekatsuari esker, laukiztarraren hainbat "Azalpen" berrirori irakurri doguzanean, gure aburua sendotu baino ez dogu egin. Lan politikak laga euskuzan arren, itxaropen-lora izan genduan, eta zabalago ta ederrago bilakatu baino lehen, lapurrek ebagi eben lora guri ta heze haren txortena.

Gure adiskide izan zan olerkari gazteaz, hurrengoan beste zoezer-txu esango.

Bilbon, 1984-IV-10.
Eusebio Erkiaga

GAZIGOZOAK-Agirre, T.*

Barriro heldu jaku euskeraren gizartera, gure eleder zelaira Tomas Agirre, «Barrenoro». Hau berau hil ondoren, haren alaba Begoñak, izenburuak adierazoten dauan liburutxuaren bigarren argitalpena egin dau. GEU argitaldiaren bitartez.

Adinez egingarri daitekena izan arren, Euskalerra txiki honetan ez da beti aukerarik izaten euskal idazleok alkar ezagutzeko.

«Barrenoro» ikusi izan genduan guztietan, hemen Bilbon ikusia dogu. Errezilen jaioa, gazterik agertu zan hona, eta hemen bizi, batez be gure elederak, errepublika aldian, pizkunde nabaria erakutsi eban.

Idazle apal antzera hasi zan, bere burua izenordepean gordeta. Horraitino laster susmatu genduan une haretan «Euzkadi» egunkariaren atal gero ta zabalagoetan ziharduenetarik bat edonor ez zana. Haren idaztelanek edertasuna ta gozoa ekarren.

Gerratea hasi izan zan arte, ez genduan arpegiz ezagutu. «Orixe»-gaz batean, «Barrenoro» izan genduan aldi haretan, gipuzkoeraz ezezik bizkaieraz be idazten ebana. Jazoera bakana, benetan.

Agirre Errezilgoak neurtitzez eta hizlaur jardun eban. Goi mailan beti be. Lehenengo liburutxua, «Gazigozoak» 1933 g. urtean kalera atara eban. Lan berekiak eta itzulpenak ekazan txorta atsegin haretan.

Canera, beti gure giro estuan jarduteke, hemendik eremu zabala-goetara, urrunekoetara be jo eban.

Liburu horretan 26 orrialdeko ipuin luzea dakar, zazpi ataletan uzitua dan maitetasun istorioa. Jarraian lantxu laburrak eta Walter Scott-en poema bat, Moringer zalduna; hurrena, Barojaren, Papiniren eta Silvio Pellico-ren lanen atalak. Guztia jasean eta irakurterrez. Lanok, gorago adierazó dogunez, euskalki bitan maneaturikoak.

Hain irakurgai gitxi egoan unada haretan, labatik harako arto gozoa bailitzan hartu genduan. Eta hainbat bidar irakurri.

Etzegerrate luzea 1936 g. urtean hasi eta harik laster, 1937 urte-nago lehen asteetan, egun bateñ, Correo kalean egoan «Eguna» goiz

* *Idatz & Mintz*, 9, 1985.

aldizkariaren erredazinora agertu jakun Tomas eta «Eguna»-ko idazle ginanoi bere «Uztaro» nobela luze samarraren ale bana emon euskun, 300 orrialde eta gehiagoko elebarria, gipuzkeraz idatzia.

Gerotxuago, tamalaren handiz, bagilean bestetarikoen gudasailak Bilbon sartu ziranean, batzuoak batera, besteak bestera, alkarren azterrena galdu genduan. Hurrengo urtean, horraitino, Agirre han lur giputzetan zelan halan bizi zala jakin genduan. Barri pozgarri lehenengo behinean. Baina estureak, ardureak eta bizi beharrak bultzatura, Sevillaruntz joan jakun, bere sendi ta guzti. Han lan eginez bizi zala, 1950 g. urtean, bere «Uztaro»-ren bigarren agerraldia eskeini eutsan euskal irakurlegoari.

Eleski eta zehazkuntza jasekoak egiten ditu elebarri luzeago hone-tan. Bere kera ta joerak argiro erakusten ditu. Orrialdeak, patxaraz irakurtekoak be ba dira. Jakina, ordurik harrezkero leitekena da oraingo idazleak eta irakurleak be, beste era eta ahoa izatea, ausaz, laburtasuna, zailutasuna gura izanik, jazoeren agerpenean eta joane-ran.

Halan be, elebarria luzea danean, gura ta gura ez, idazleak idatzi izan dauan guztia irunsi behar dogu, edota, liburua bertan behera laga, gure artean, oraintsuenetariko bat, harako poliedroen zera izan da, irakurlearentzat bide erreza ez zana.

Kontakera luzakariak bere aldeak ditu, batzuetan astun gerta arren. Idazleak esateko ugari baldin badau, jakingarriak badira, eta batez be, irakurlearentzat guztiz aldapa eta koskatsu ez izan ezkerro, nekez bada be, jarraitu egingo dau orrialderik orrialde azkeneraino.

Gure elelderrean, oster... Irakurribarri dogu Eusko Jaurlaritzaren eleder sariketan, nobela sailerako lan batik be, ez dala sari-bila ager-tu. Azalpen hau osotuteko, antzerkia eta saiakerea be, maila makale-ko etsi epaile-taldeak, eta horra, bost sailetik, hiru... basamortu bihurtu.

Beraz, eleberri luze samarra egiteak nekea dakarrela dirudi, gure artean behintzat. Izan be, «barriketea balitz gorua»...

Horraitino, dendetako kristal ostean joan dan neguan egon da ele-barri mardulik; beste hizkuntzetakoak. Berbarako L. Alas-en «La Regenta» liburu totoloa, letra txikerra izan arren, 800 orrialde ditua-na, gaztelaniaz jatorra. Eta itzulpenen artean Umberto Eco-ren «Larrosearen izena». Norbaitek Agirregaitik kontakera luzakari samarra dauala esan ebanean, aitaturbarri ditugun liburu biokaitik ez

dakigu zer iruzkinduko eban. Idazle bion kontatubeharra, sakontasuna eta itzulingurura guztiz oparoa da. Honetan ez da jazoten sarri agertu ohi dana, zera, eskuan hartu eta laga ezinak dirala. Laga ez? Beharko.

«Gazigozoak» honetan huts nabarmena zertu da. Areak, irakurlearentzako egin dan aurkespen barri horren egilea Lino Akesolo izan arren, irartaldian, parkatuezinako okerrez, GEU ipini dabe, konturatzeke, ziur asko. Hor dozu, beraz, irakurle, liburutxu zahar barria, tarte bitarteetan edo udako arratsalde baten errez ta gozaro maminez zeuganatu daikezuna.

Eusebio Erkiaga

AZKUEREN «ARDI GALDUA» ZENTSURAPE 1918GN.*

Gure herrikide lanzale hau jaio zala 120 urte bete diranean, Lekeition beredin jaikune zertu dabez, eta haren hazur hondakinak hango Basilikako kapilla baten chortzi.

Norbaitek noizbait haren biografi osoa eta zehatza egin dagian, beharrezko da zerzeladak eta zernolak batzen guztiok ahalegin egitea; arean ere, 1964g. urtean eskatu genduan guk Udalak bere kabuz eta laguntzaz burutu egian. Ostera, alperrik izan zan, tamalez.

Horretarako orain, puntu bi jorratu gura ditugu.

1) Azkueren atsekabea «Ardi galdua» nobelea eleiz zentsurape geldierazo ebenean.

2) Barriztau dan zalantza bateri aurpegi emotea. Zera, R. M. Azkue beti euskalduna izan ete zan. Koldo albistari eta edasleak zirikatu dau ikuspegi hau, dendu-eza agertuz.

«Ardi galdua» Gasteizen geldu

Aspaldion erdi ahazturik geunkan zertxu honeri ere, ikutu egin gura deusagu. Ikutu, zeharo azaldu ahal izateko asmoz, bidea edegiz edo. Gehienbat ez-jakincan dagoan zera da, Azkueren «Ardi galdua» elabarria 1918g. urtean argitaratu eban arren, eleizearen espenak dike lehorrean apurren baten geldierazo ebal.

Aspaldietan burutik urrundua, bapatean jakin-minaren eztenak ziki egin deusku barruan, idiari narruan akuluak lez.

Bai, ba. Nobela hori, orrialde bitako lerroak zirala-ta, zurrun, gogortuta geratu zan, hobeto esan, geratu eban, obispaduko espengilearen luma gorriak.

Irakurleak jakin daki elabarri honen egiturea karta bitartezkoa dana. Hau da, hamahiru eskutitz, beste hainbeste kapitulu dira. Bederatzigarren eskutitzcan gerta zan ezetza. Zehatzago 91 eta 92g. orrialdeen edukirik larriena.

Zentsuaren oharra egitea zegaitik izan ete zan jakingureak zirkin eragin deusku, kezka ilintitxua hauspetik argitara nahian. Sinismen

* *Idatz & Mintz*, 9, 1985.

gaietan esaera urtenen bat; orduko moral arloan gordinkeria ikutu-txuren bat?... Horrelakorik irunsi ezinez gengoan. Areak ere, eskuar ez geunkan «Ardi galdua» bilatu, eta hona hemen, mahai ganean.

Eta hasieratik sailean irakurri dogu. Bide batez, «Morfologia»-ren egilearen urratsen ondorik ibiltea beti ere, jakingarri dalako. Ez horraitio Azkue besterik ez lako hutsezina izan gendualako, haren alde onak eta txarrak ere —guztiok ditugunak— irakasgarri izaten jakuzalako baino.

Eta beste hau ere, bidenabar. Nobela hau egiteko bidea kartagintzea izatea, behar bada, nekagarri zan irakurlearentzat. Halan ere, modu horretan zegaitik egin eban, harek berak jakingo.

Sailean irakurteari ekin, eta heldu gara 9g. eskutitzera. Abade egin barritan Leon, Leaburuko bere senide abade zaharraren ondoan egon da aste luzeetan. Baina, orduko jaurpideari adi, Arabako uriska baterako bereter izentau dabe. Faido uriskako abade. Senide abade zaharra mandoak hilda gertau da, kikilduta, okildurik, lobatzakoa beragandik urrundu deutesanean. Leon gaztea Leaburura ekartea, zelan lortu ahal izango?

... Enc! hementxe datza untzea. Koxka honek ekarri deutsa egurra Azkueri. Beraz, sinismen gai edota moral eta ekandu arloko ezer ete danik, ez dirudi. Zein da ba, horretara ezkeru, agiraka edo errez-pearen susterra?

Azkue jauna mindu samar geratu zan. Atsekabe barri sortu eutsoren, ordurarte ere, bateko eta bestekoek emonikoak gitxi bailirean. Zori onez, ereti haretan eta beti ere, Azkuek eroapenez jasan zituan hainbaten adarkadak. Berberak hainbat bider aitaturiko berezko gogaro onak errime laguntzen eutsalako. Odol gorria zan arren, umoretsua zan. Berotasunetan beheko ezpana dardarako jarten jakon arren, sarri bai sarri irribarre gozoa erakusten ekian. Haren idazlanak lekuko.

Zentsura lerrokadea gauza larria ez zan ezkeru, Azkue arbindu eta zerbait garratzu ebana hauxe zan: liburua moldiztegian eginda egoanean, kálera baino lehen lorrinlana egin beharra: liburuaren bizkarra hausi, saihetsak —orriak— atara eta azal barria ipinteak ekartsozan lan, neke eta galtzaiak. Ale guztiak hausi-urratu eta azalbakotu beharra... barriren barri, orrialde barri bi trukau ondoren, liburua atonduteko.

Asarre samar Azkuek bai idatzi ere: «hamazortzi urte lehenago —irudimenez— jazorikoaz, eleiz-zentsureak zerbait ezabatubeharra».

Zirriparrea sortu zan. Idazlearen txirristadea ete zan; obispua, harako edozeini ez baina, nor dan bati men-egiteko, amore emoteko prest edo, jarten ete eban nobelagilearen lumeak? Ausaz,... «con la iglesia hemos topado, Sancho»?

Azkuek atsekabetxu hori irumtsi, eta berrogei lerro inguru —ez jakin zenbat— barrero asmau eta idatzi zituan. Kendu behar eban zatiaren truke.

Ezer jakin ezean, irakurleak «Ardi galdua» nasai zertu, eta ezeren susmorik hartu ez, gehienbat. Edozeini jazorikoa. Ustez, Azkuek azterrenik laga ez eban-eta. Hori 91 eta 92 orrialdeetan barik, atzerago, Edirenguan datza.

Aurkibidea Etxeitak bere «Josetxo» lanean jarri eban antzera burutu eban don Resuk ere. Kapitulu bakotzeko edukiaren laburpena ipini.

Azkuek, horraitio konturatzeke seguru asko, 164g. orrialdean hiru berba ez zituan kendu, eta... irarririk lotu ziran. Cursiva hizkiz dagoz: Condesa de Burunda.

Hona hemen idoro, guk bilaturiko giltza. Idazleak, edatsiaren harian, obispuagana bitarteko lez bialdu gura ebana, andere hori edo zan. Nor dan bat zan, ez edonor.

Azkuek men egin eban. Baina ez zan turdiduta, mutu geratu.

Idatzirik laga eban Gasteizera joan zan gutun baten: «hurrengo nire nobelan, destinoa dalakoa lortzeko bitartekotzat, ez dot ez Kondesarik ez Markesik, ez ministrurik, ez Osiorik ta ez Paulorik izentauko.»

Are gehiago zan harek idatzia: «nazan nazanez, promes egiten dot lan barriaren orrialdeetan ez sotanarik, ez habiturik, ez beaten mantilarik eta ezta latinazo txikerrenik ere, sartuko ez dodala.» Eutsi horri, ondarrutarrak.

Eta azkenik, zein zati kendu eban eta zein truke ezarri jakiteko, azterrena utzi eban. Liburu lehenengoetarik lau, hau da, zentsurabakoetarik lau zabaldu zituala. Bata, barrero eskuratuko ebala uste eban. Ostera, beste hirurak Baiona eleiz-barrutiraino joan zirala.

Cure eruditoren batek argitu begi noizbait testu jatorra zein izan zan, eta zein, aldatu behar izan ebana gure Azkue handiak. Eskerrik asko.

Koldo San Sebastian eta Azkue euskalduna

Idazle azkar honek zalantzan jarri gura izan dau Azkue ea beti euskeradun izan ete zan. Abuztuko zenbaki baten, 1984 urteaz dihardugu, «Euzkadi» aldizkarian hain zuzen.

Irakurleak ba daki 1868g. urtean, Bizkaiko Aldundiak halakoren baten Euskal-irakasgoa eratu gura izan ebala. Horretarako deia egin eban. Irakasle izango zana, konkurtso moduz izen au eban. Ez zan lehiaketa hutsa, oposizino gordina izan: konkurtsoa egin, izena emon eban sei irakaslegeiek.

Resurreccion Maria Azkue izentau eban. Haxe irakasle.

Esames handiak izan ziran. Ez da harritzeko. Toki baterako sei... Erabagite jokaldi haretan Aldundikoeck esku ona izan ete eban? «Geroak esan beza...»

Koldok zirrikada bi daukaz aitaturiko aldizkariko lanean. Batak, Sabin-en berbak ditu oinarri: lekeitiarrak lantxu bat agertu ebala; aitaren olerkaritasunaren gerizan agertu zala: Azkuek, euskerea inoiz ahaztu jakon Azkuek, ez ebala ordurarte, 1888 g. urterarte gramatikaz ikasi. Besteak... ez dauka zuribiderik; arinkeria trauskila da: «y aquel curita que no sabía euskera, llegó a ser...» eta abar.

Guzurra dirudi harik geroetara honelako ganorabakokeriak astindutea.

Azkuek konkurtso haretara «Grankaton arrantsaleak» irakurgaiia agertu eban. Ordurarte euskal-gramatika arloetan sarturik ibili ez zana, berberak idatzia da.

Baina hortik... euskeraz ez ekiala. Eta euskerea inoiz ahaztu egin jakola. Tira, tira! horrelako lelokeriarik zelan idatzi lei inok... 1984g. urte honetan?

«Grankanton arrantsaleak» hogetalau urte izanik idatzi ebanak, euskeraz ez jakin... Hamalau urterarte ama euskaldun hutsa zanagaz bizi, orduko Lekeition bizi, eta urtero-urtero, 87 bete arteko guztian udan bere jaioterrian asteak aste emoten zituan don Resuk, ez eban euskera ahaztuteko aukerarik izan... ez astirik... ez gogorik.

Guré arrantzaleak esan obi daben lez: «samea egingo neuke» esanbarri doguna egia dana. Erägusgarririk...? «Grankanton arrantsaleak» bera! Eta ez gaitezcan liliputekoentzat idazten hasi.

Ez dakigu lan hau inoiz inprentan jarri dan. Harek berak eskuz egindakoaren xero bat eskuratu deusku, adiguritsu, Arana Martija

adiskideak. Lan hau inoiz ikusi izan genduan Erriberako etxean. Baina, gure kaltetan, ez irakurri. Jakingarria dalako.

Hori idatzi eban mutil gazteak, —abade egin barri zan Azkue— ba ekian bai, euskeraz. Are gehiago; jasean idazten ere, ba ekian. Euskera gramatikaz sakondu ez eban gazteak, euskerea menpe eukala erakusten deusku. Ordurako ere, idazlea zan ganera, artista ikutua eukana, eleder zelaian itsumustuan ez ebilena. Gaia, ezagun eban; eta jantzia, hizkerea, egia esan, «Ardi galdua»-ngo hizkerea baino biziagoa, herrikoiagoa ez ete dau? Txomin Agirrek «Kresala»-n laga euskun lan horren azterrena; zenbat bider irakurri ez ete eban?

Bai. Gure aldundikoek esku ona izan eben harako jokaldian. Geroak argi ta garbi esan deusku Azkuek euskera jakin ebala eten barik. Eta... etenak egin zituala besteoi irakasten. Gure esker ona. 1984.

Eusebio Erkiaga

ITXASTARRAK*

Hona hemen liburu barri bat. Hau esatea ez da gauza handia.

Horraitio, euskal-liburu barria aitatutea, besterik da.

Are gehiago, Euskal-liburu barri hori bizkaiko berbakeraz argitaldu dala agiri jartea, meritu berezia.

Meritu berezia, gauzearen egoerez aintzat hartzen badogu.

Izan be, preminazko dogu une honetan, oraingo irakasle batek erakutsi dauan laneko estadistika edo dalakoaren komentarioa egi-tea.

«Euskal kulturaren zapalketa, 1956–1981. elkar liburuxka». Hor, Txillardegik, SIADECOn 1975g. urteko zifrak darabiltz; hau da, orain HAMAR urtekoak. Begira: Euskalerrian 2.784.320 biztanle ziran. Honeetarik euskera ekienak —ez jakin erabilten dabeenak— 623.301 lagun. Beraz, %22,7. Ehuneko 23 eskas.

Liburu horretan SIADECOn inkestako batek, arean M. Ugaldek dino: «es la población vascoparlante la que padece una mayor marginación».

Eta guk, horren buztantzat zerau gehitu ginei: oraingo aldian, euskal alorrean, idatzian eta Telebistakoan, senide txiro horren senitarteko mar-gi-na-tu-a bizkaicra da.

Lerro hau idatzi nik, eta biharamoncan, eguneroko prentsan, Kar-mele Errotaetxek hitzaldi baten, bizkai dialektoaren egoereaz «una seria reflexión» egin behar dala esan eban (maiatzaren 3gn.). Atzo bertan, maiatzaren 7-an, «Deia»-n Adolfo Arejitaren artikulu mamintsu eta luzea agertu izan da, gure euskalki honen alde.

Orain 100 urte, gure herri honen barruan, euskera ekienak %54 ei ziran. Orain, lehen esan dogunez, %23 murrizuz.

Hona hemen Txillardegiren kuadru bat, orain hamar urtekoa. Euskaldunak eskualdeka dakarz beste toki baten, baiña kuadru hau, berba zelan egiten dauanari adi dagoana da. Hau da, euskara mintzatuari dagokiona.

* Ondarroa, 1985.

Bizkaieraz berba	%37,7
Gipuzkeraz berba	%37,6
Nafarroako euskalkiz	%9,7
Baxenabarrekoz	%8,8
Lapurdiaraz	%4,3
Zuberoaraz	%1,9
Beraz, hona	%100

Ondorioa: orain hamar urte, bizkaieraz ziharduenak 11 lagunetik 4 ziran. Gomutatu dagigun Deba, Elgoibar, Eibar, Placentxi, Bergara, Oñati eta Arrasate inguruak, eta Arabako Aremaio be, izatez azken mendeetan, bizkai euskalkikoak dirala.

Txillardegiren berbak ditugu: «Euskara Batua erdialdeko hiru euskalki nagusien arauera erabaki da. Estadistikak erakutsi dutenez, bestalde, %75-ek baino gehiagok onartzen du Euskaltzaindiak proposatu duen Euskara Batua. Opoziziorik handiena zaharren artean dago».

Horraitio, estadistikak zeinek egin ditu?

Dana dala, beste norbaitzuen esana dala eta irakurri doguna da mingarriena. «Bizkaiera hori hondatzeaz ez da zertaz kezka jarri... horren ordezkoko bezala Euskara Batua geratzen baldin bada». Ai, ai, ai,... eta baldin ez bada...?

Baina, berbalapiko horrei zein Aseguruk erantzungo deutse, kalea galtzen dan euskerearen ordezkera beste berbakera modu bat sendo, indartsu ta bizi geratu daitekena? Zein aseguruk, zein jakitunek edo sasi jakitunek? HAMAİKATIK LAU euskaldun galtzen badira, kaleko mehaztute hori, hutsune hori, lorrin hori, zelan konpontzeko?

Kalean galtzen dan euskerea eskolatik, ikastolatik, euskaltegitik Unibertsitatetik indartuko dalakoan?

Hor dago Irlandako erakuspen negargarria.

Askatasuna mende honetan lortu dauan herri horrek hizkerea galdu egin dau. Liburuz eta eskolan ikasi arren, ez dabe kalean, gizartean ez hartuemonetan erabilten. Ingeles parra parra. Eta modu horretan, hori... ba doa. Latina joan zan antzean.

Ukatu ezina dogu Euskal Telebistan lan itzala ta txalogarria egin izan dabeena. Baina... bizkaiereak, gure berbekereak ez dau han tokirik. Errime gortu nahiz, horraitio, zuok zoririk izaten ete dozue

bizkai hizkerearen modu dointsu eta soinutasunik entzuteko? Beti bat, monotono, idor samar, kukuaren kantua, golden sagarraren bardintasuna ahoan, hor belarrian.

HAMAİKATIK LAU euskaldun galtzen badira, zelako anemiak ez dau joko euskera osoa? Barrero, labur:

Bizkaieraz berba	%37,7
Giputz kutsuz	%37,6
Beste guztietara	%24,7
	%100

Bizkaiera gal dadinean —kalean be urterik urtera galduz galduz doa, ez gaitezen kirtanak izan, umeak eta gaztetxuak euskaldun urietan han frantses, hemen gaztelaniaz dihardue ta—, gure euskalki hau gal dadinean, Euskerearen mendebaldeko mugea Zumaia, Azkoiti, Azpeiti, Zegama, Segura... eta horik sartalderumtz... dana gure Enkarterri bezala?

Giputzei mendeen mendetan zeinek gorde ta zaindu dautse mendebaldeko saihetsa Bizkaiak eta bizkaierak baino?

Beste ohar bat, horraitio. Mintzaira mugaz ganetik be, goitik datorkiok euskereari itobeharrak eta esturak. Galtzen dana, Euskerak galtzen dau. Eta bizirik dirauanari ez laguntzea, zer da?

Baina laga dagigun arlo lorrin eta mingarri hau, eta gatozan, ahal dogun bitartean, bizkaiederreko zelai atseginera.

«Itxastarrak». Hitz honen barruan, Bermiarrak ebagi ohi dabenez itsasora joan diran, joaten diran eta joango diranen ingurua eta giroa hartzen da. Itsasjentea, sendi eta auzoak, guztiak itsasoaren haizeak igurtziak, haren amaibako orro apalaren oihartzunean durundipe-tuak. Eta kresal usaina, kresal mina...

Liburu honen egilea, euskeraz idazten sekula aspertu ez dan ondarrutarra, Augustin.

Zahartzen hasia dala esaten deustan arren, oraingoan be, seiná, une barria ekarri deusku honen lumeak euskal sehaskara.

Zubikarairen liburuak zenbat? Elebarriak dozenerditik gora. Teatru lanak, jaungoikoa lagun, zientu erdi baino gehiago. Ipuinak, olerkiak, kantak, histori gaiak, artikulua... ez jakin zenbat.

Liburu barriaren ondorik, irizleak hor agertuko dira. Preminazko dira, eta betoz ordu onean. Horraitio mundua aurrera, eta beti gauza

ez bardina edo barriraztasuna gura da. Pikutara joanak ei dira harako eleberri erromantikoak, ohiturazkoak, historikoak, kontakizun lau, apal eta jarraikoak.

Menturazko zerak azaldutea barik, kontaketearen abenturea ei da kilikagarrien.

Zeharbako jarduna, barruko isuri eta ikuspegiengaritasuna, flashback eta psikologia... Eco idazle italiarrek bere Lan Edegian bide urratzen jardun dau abanguardismoaren zidor eta bideak ikasi eta erakutsi beharrez, gurlotasuna, zimardi usaina, bitarikoa...

Horraitio Umberto Eco berak, hainbeste teoria egosi ondoren, literatura mamintsua dan bere lehenengo liburua 1980 gn. urtean argiratu dau, Italian, 48 urtera heldu danean, eta teoria mehe zorrotzak alde batera laga eta sekulako nobela lodia eskeini deutsa edozeini, kontakizun dana kontaketa jatorrez burutu behar dala konturatu dalako. Sekulako liburu barrokoa da, moduetan izan be, «Il nome della rosa». Semiotikak bide ertzean lagata.

Ondo da elitearentzat nobela psikologitsu eta teknikaz edo teknika-keriaz hornidua idaztea. Eta euskeraz idaztea, ta ez poliglot. Bada, horrelako lanak zeinek irakurtzeko, hil zan amamak, Txirixuk, ala idazleak berak bakarrik?

Eskolan ikasi ez dalako, euskeraz liburuak irakurri ahal izatea, neketsua da gehienbat herri zehearentzat. Herri lauak euskeraz irakurten ez badau, berba egitean atzerantz bagoaz, irakurtean ez gara aurrerantz joango. Ez gabiz bapere txantxatan.

Liburu hau irakurteko egin da. Irakurteko bape gogorik badau, «Itxastarrak» eskuan hartu degianak hasi baizen laster jarraian ekingo deutsa, sailean joango da, prosa argia, erreza, gatz-piperrez egoki maneatua dalako. Eta misterioz inguratua.

Orriak irauli alean, aurrera ta aurrera joango da, lerroak lerro begiak jango ditu, adimenez iruntsi, jakingureak zirikatuko dau-ta.

Elebarria idazlearen lana da, historia bat da, ez historia bera. Tokiko giroan eta sasoi jakinean eratua. Txomin Agirrek harako «Arranondo» asmau eutsan toki horri. Augustinek «Ondardi» aldean sortu dau eleberri hau. Idazle biok ondarrutarrak. Horraitio, lehenengo abadea, beste hau herri gizona. Txominek gatz zehea, fina erabili eban bere lerroetan. Zubikaraik, ostera, gatz lodia erabili daike. Eta darabil. Hiztegiaren hesiak urrunagora daroaz, eta berba zorrotz, ausartak eta latzak aukeran erabiltea dagokio, benetasun

trinkoagoa emonez. Realismoa giroan egin euskuzan «Kresala» eta «Garoa». Eredu honetako dogu gaurko «Itxastarrak» be.

Toki jakin honetan sustraitu da, baina orain ehun urteko aroan, uria txikiago zan, lagunak be, urriago, baina mendu ta aiurri berekoa, herri zindo, zintzo, langile, bulartsu, bizigurakoa.

Nobelearen gaia eta haria ernagarriak dira. Bestalde jakingarriak diran zer asko gordeten ditu ondarrutar irakurlearentzat batez be, ohitura, ekandu, lan-modu, orduko estura eta gurariak, amesak eta oinazeak, maila apalenean gehienbat.

Augustinen nobela hontako pertsonaje nabarmena —biribila, Edward M. Forster-en eskaeraz— bat da. Simon «Simon zarra». Liburuko bizitzaz orain ehun urte hemen bizi izan zana. Irakurten ez ekiana. Baina bizitzako zeretan, bere lan berezietan gizon aitua, arteza, adoretsua.

Kitolis aguretxuak «Kresala»-n guztiak jatortzat etsi daben kapitulu urduria berea dau. Bestalde, horren iturria R. M. Azkueren «Arrantzaleak Grankanton» lantxuan ez ete dagoan itantzen dogu. Liburu barri honetan, barriz, Simonek ia hedapen osoa berea dau.

Nobelagaileak, nordan horren inguru, fabula ziztatzaila ta ernagarria sortu eta jaso ahal izan dau.

Eta, liburuak akatsik? Ez da hutsezina dan gizonik. Eta beraz, gizonaren lanak izan ohi ditu. Bai. Ederlanak ba, behar ditu akatsak. Eta arrainak, zakatzak. Pentsamentuak zorrotzaren zorrotzez buru garunetan euki barik, alkarrizketa luzeetan datoz kanpora. Umore baltza textulari teknika baserritarrez emoten deusku. Idazlea ez da murrizt gurako, ugari aldeko baino. Horraitio, ez dau liburuak beste inoren azalpen beharrik, hasieratik amaierara ulertzeko. Nobela bat idazte orduan, Eco-k semiotika morroskoari ostikadea emon dautsa.

Erkiaga'tar Eusebi.

IRRIBARREA GALTZEN DANEAN*

Euskalerriko ohituren artean, andra-ikustea eta bertatik sein, sein barria erakustea egin izan da. Urteokaz, liburu barria munduaren aurrera agertzeko ospakizuna asmatu dabe.

Ospakizunaz baliaturik, sein barri honezaz zerbait esateko aukerea dogu, beraz. Zeregintxu hori itzul-inguru bitartez egitea, egokia-go, hurrean.

Ondotxu dakizue historia eta elebarria ezbardinak direana. Historiak, jazoriko gorabeherak batu eta agertu behar ditu. Cauzen, herrien, jente-taldeen eta gizakien gertakariak.

Horraitino, historia bera be, kulturagintzako arloa danez, gizonak, ez beste inork, idatzi daroa. Baina, kontuz! Antzinako liburuan datza: «gizona, guzurrontzia da». Behar bada, ez hain zuzen guzurria, eta beti. Baina egia osoa esan orde, egia erdia, saihestua edo lardastua, edota erdi ixildua edo benetako ez direan zertzeladaz apaindua agertzen, zalea da gizona.

Histori idazlearen ikuspuntua zelako, haren emoi idatzia halako. Eta horretara ezker, kaskoan eta kolkoan izan daitekeanaren craginez, arean bere, historiako une, jazoera eta joerak sarri askotan morgilduta, itxurabakoturik, lanbropean idatzirik lagaten ditu. Hurrengo datozanek argitu dagiela.

Historia, batez be gauza ta egitada haundiak azaltzeko modua izan dau gizonak. Osotara ikuspegi zabala ta biribila emongo deusana. Hori, oster, gizonak berak nahikoa ez dala uste izan dau. Ezin maila horretan soilik etsi.

Pertsona soilen gurariak, gardiak, grinak, pozak eta minak, ezkuctako egitadak eta dardarak agertu ezinak izatea, ez dau ontzat emon. Eta ausaz, dantzarako ta kanturako poesia asmatu eban arren, horrezaz ganera, arimako ta gorputzeko jitek, bultzadak eta premi-nak azaldu beharrez, gizonak ipuina, istorioa, kontakizuna, aslea gauzatu zituan. Eta azken mende honeetan nobelea, guk elebarria deritxagun indartu dau eta ugaltzen dau. Euskaldunok guztiz beran-

* *Idatz & Mintz*, 15, 1987.

du heldu gara nobelagintza arlo honetara. Teatrora lehentxuago jo eben gure aurretikoek.

Honelan ba, elebarria historia ez dan arren, erizleen ustez elebarrian historiaren baten haria, ingelesen plot hori, preminazko da. Nobelea ederlana da-ta, ederlan horretan ager daitekeanak bere jazo-erea, fabulazinoa izatea komeni dala erabagirik dago.

Eta horra ba! Nobelea zeharo edo zati haundian asmatua izanik, elaberri batzuen barruan, ganera, arean edukinean, benetako eta numbaiteko historiako uneak, egitadak, gertakizunak eta pertsonak be, irudituriko lagunen bitartez eta zelanbaiteko jazoeraz azaltzen dira. Lan batzuetan hazur-haragizko izan direan lagunen izenak eta egitada erdi zalantzakoak be, zuzenean edo saiheska idatziak, hor geratzen dira.

Eta orduan, lerro artezak eta jakinak alde batara lagata, historia-ko orrialde hotzak eta haundigurakoak zeharo aintzat hartzcke, nobelagileak askatasun ikaragarritz, literatura berezi honen bitartez, historian agertzen ez direan eta bide batez estaltzen direan zerik ugari, esangarri bihurtu, eta apal eta baretsu, edo ausart, biloiz eta gordin azaltzen ditu, bai arimearen eraginei dagokienez, bai gorputzaren higiera ta zirkinei. Berbarako hor dogu, beste batzuen artean, amerikar idazle batek Adolf Hitler eta honen azken orduko emazte Eva Braun, Berlingo bunker haretan hil ete zirean, hil ez ete zirean, burutu dauan nobela asko-gurako ta haizetsua, munduko bestseller dala-ko hori («Zazpigarren sekretua», Irving Wallace).

Elebarriak, eurenaz, irakurteko egiten dira. Baldintza orokorre-entariko bat, irakurterreza izatea da, jakina.

Eta orain parkatu, baina Euskal Elaberriaren kondaira egiten diharduan Gotzon Garateren hitzak be, aitatu egingo ditugu. Hona.

«Egia da gaurko zenbait elaberri moderno, ilun eta irakur zail dela. Zailtasunak, ordea, ez du inolaz ere esan nahi elebarria on ez denik. Hor ditugu Faulknerren elaberriak, askoren iritziz XX gizaldian idatzi izan diren onenak. Sanctuary, Sound and the Fury, Light in August ez dira irakurterrezak, zail dira, baina bai baliotsu ere alderdi askotatik».

Geroxeago Garatek iruzkin hau egin dau:

«Egia aitõr dezagun: euskal elaberrien meriturik HAUNDIENA euskaraz idatziak izatea da. (...) Guk ez dugu Faulkner, Dovstoeviski, Flaubert, Musil, Tolstoi edo Balzac-ik».

Eta benetan jakingarria dan beste esaldi hau be, hementxe jasoko dogu, hain zuzen, berba bakarra, bardina ta berbera, lerro horreetan eta nire nobela barri honen azkenaldean agertua izan dalako.

Garatek irakasleak dino:

«Orain arte euskal elaberriei egindako kritiketan, euskarari oso toki urria eman zaio. Euskararen kritika egitea, ordea, ez da erraz. Idazle entzutetsu baten euskarari kritika egiteko, hark bezain ongi edo hobeki jakin behar da euskaraz. Puntu honetan gauzak oker dabiltza Euskalerrian. Oraindik ez da euskal estilistikari buruzko estudio seriorik egin. Euskal Filologi karreraren bertan ere, zulo haundia dago alor horretan. Euskal estilistika oso baztertua dago».

Gotzon Garatek hori argitaratu ebanetik hiru urte joan dira. Ez dakigu harrezkero zulo hori bete izan ete daben. Zuloa... Mundu honetako bizitzan —ez jakin gerokoan— eta ohizko jardunetan zelako zuloak, zenbat zulo ezbardin; batzuk preminazko, beste batzuk ez hainbeste. Muxikaren Hiztegi totoloa eskuratu, eta zuloa berbeak 22 esangura ditu gitxienez, 22.

IRRIBARREA GALTZEN DANEAN liburu barri honetan berba hori, zuloa, azken alderuntz irakurri daitekeala esan dogu.

Elebarri honetan, joanaren ikutuak eta oraingo aldiko ñabardurak eurrez garatu dira. «Jaioko dira» lanean orain berrogetamar urte inguruko giro ta jazocerak taitu asmoz agertzen zirean. IRRIBARREA... honetan, ostera, orain urte ta erdi idatzia danez, giroaldi horretakoen alboan eta lardaskatuz, lehenagoko zerak be aitatzen dira. Lanaren hariaren inguru doazan iruzkinak.

Haria, plot dalako hori, ezkontza-hausteaz, senar-emazteen banaketaz doa. Horraitino, gizarteak, gizakiek be euren artean dibortzio arriskua ete daben salatu edo iradoki izan da hor.

Zuloak betetea aitatu dogu. Mezua, izenburuak dakar, arean, Irribarrea galtzen danean gizartea da galtzaile. Zuloen ganetik zubiak behar ditu gure herriak. Bere izpiritua itzali ezina dalako. Eta izpiritu horrek alkarrenganako lilurea, maitakundea eskatzen dau. Alkarpide horretarako, zubigintza horretarako adrilu kozkorra izan bedi lan hau, eta zer esan bakoa, irakurlearen atseginerako.

Eskerrik asko.

Eusebio Erkiaga
1987-III-4

UNEKA... GABA*

Opari xume ta fina eskeini deutso gure hizkereari, hain zuzen lehenengo esku-erakutsia, lekeitiar idazle gazte honek. Labayru Ikastegiak bere GALBURU arloan argitaratua. Kanpo-neurriz txikerra, 123 orrialde, sakelerako egokia, edukiari, eleder txorta txanbelinari antzo, usain gozoa dario.

Dituan apaingarriek, Jaime Vicariok plumilaz taiuturik, irakurle-arentzat atseginago bihurtzen dabe.

Ipuin edo azalpeño, idazle askoren emoietan agertu ohi ez dan gardentasuna, barru biloiza bipil erakusten deuskue irudimen-lan laburrok. Erioneko gardentasuna, tolesbakoa, batzuetan poz arindua, hurrengoan atsekabea minsor agertu ohi dauana.

Txorta txanbelin horretako pitxi ugarien artean bereiz daitekezan esalditxu esangarriak; halako... «mehetzen doan egunaren aztarna», «tordantxa batek kantuari ekin eutson», «Arratsalde barrian niretzat ernetako larrosa», «uneak baino ezin daikeguz gorde»... honelakoak nik irakurtean, Lauaxetaren harako txorien hegalotsa behin eta berrero sentidu izan dodala esan nei.

Izan be, hizlauezko lerro luzeagoetan sarritan lirika ereduko ixuria txit nabarigarri da, doinu minkun, bigun, sarkor.

Eta nunbait be, etorkizumean lan barri baizen gozatsuak izango doguzan promes argia da. Lora ta abesti, urrin eta kolore, durundi eta gurari, miniaturaz jazten dau eder lerrorik ugari. Arima samurreko artistearen ikutu atsegina.

Gauza txikien mundu hedatura garoaz, konturatu be egiten ez gareala. Enkantu ezezagunaren sareetara sartzen gaitu, eta noizbaiteko poz tintilaren ostean, tristeziaren edari mingotsa eskeintzen. Agiriko ta ezkutuetao gauzak, pertsonak, abere xaloak.

Idazlearen ikusmenak beretu dituan pintura agerpenezko oharrak eta izenondo ugariak pilatzen ditu, eta gure barruko itsaso bare gura-koan uhin bizi biziak harrotzen. Lerroetan zehar, sentimentu bizipenen mihesa fina ehunduten jakin dauanak nortasuna dakarrena uka ezina dogu eta euskal-elertian dagoaneko toki bereziaz jabetu daitekena.

* *Idatz & Mintz*, 15, 1987.

Bai. Iheskorra jakun bidealdi honetan «uneak baino ezin daikeguz gorde». Ausaz, egunero bost minutuko atsegin igurtzia besterik guretu ohi ez dogun antzean.

Mirenek asmamen iturburua neskato zantzik ohe-burukoan euki dau, eta egon dan eta dabilen tokietan. Bilatu baino lehen etorri jatorkoz mila irudi, ames-atal, gertari txit harrigarriak.

Gizaseme ta emakume azturak asmo-ikuspenez antzemoten dakiana zer nabaria da, barruko argi dartadaz susmatzen ditu eta lerro biribiletan agertzen, bihozbera, zirikari, zelan dan. Ustebagako pasarteak damoskuz, ogi mamintzan ezkutaturiko intxaur zati gozagarriak bailirean. Sarritan, irakurleak ezin susmatu jarraian zer dato-rrin. Sospresa gazigozoak, oraingo idazle batzuek ohi dituenetarikoak. Eta jostariak be bai.

Besteak beste, aspaldi izan genduzan gure inguruko jatorriko idazle erdaldunak, Santi baina batez be Tomas Meabe. Orain bazter berberean beste Meabe bat loratu da, baina zorionez euskal-zelaian, sentimentu eta irudi adaskak ganezka dituala.

Zein dan pozgarri testigu credua hurrengorik hurrengo eskuratzea! Gure ereskin zahar samarrean jo ez ditugun nota beratz samurberak, orainarte entzungatxuak, eskeini deuskuz, apalkiro eskeini be.

Euskal-literatureari eder opari oparoagoa egingo deutsalakoan gagoz, zeruetako jaunaren borondate ona bitarteko dala.

Agur, Miren Agur. Ondo etorria!

Eusebio Erkiaga

MUTIKO BASERRITAR BATEN OROITZAPENAK*

Beste liburu bat eskuetara deusku Labayru Ikastegiak, bere GALBURU sailean. Xose Neira galegoaren «Memorias dun neno labrego» lan atsegina, arcan bere Andres Urrutiaren luma puntukariak errazto, aukeran eta gozatsu euskeraldua.

Gure arteko langile jarraikia dogu Urrutia amultsua, irribarrea ahoan eta begietan. Euskal-alorrera buruz aurrera sartu zanetik harrezkero, gogotsu ta denduz diharduana. Hori ondo!

Neira Vilas-en gomutamena haragi bizian, antxinako bizipenen irakinean egon izan da, ziur asko, lanegin hau burutu dauanean. Artzain taiuko eleder liluratuaz besterakoa nunbait be, hasierako orrialdean agiri dan lez.

Horraitio, lilura horren ikuturik ez dauanik ezin esan. Galego honen barruko zan minbereak pertsonaiak, jazoerak, atalak, hain polito eratu ta josi ditualako. Halako erritmo ta joanera berezkoa, zelanbait esan.

Gertaera latz gogorren zale danak, beharbada, edukin ez aintzaketzat etsi daike kontaketa lau hauxe. Izan be, errekaistoaren polpola dirudi batzuetan, murmuxe berekiz doanarena; halan be, inoizka urak jauzia egiten dau, must eta jauskeran zurrumbilo ustebakoa sortzen.

Balbinok, gure neno labrego dalakoak, bere esku samurretako matasea harilduten dihardu, jasean, astiro; jazoera arrunten alboan, bulko ta gorabehera barriak aitatuten dituala. «Liburu bat idatziko banu...» guraria agertzen dau kontakizunaren bigarren orrialdean. Gurari hori ailaginean asetu dauanaren erakutsia 116g. orrialdean emongo deusku, eta apal, baketsu emon be.

Balbinoren esaldi zorrotz, zirrikari ta berezkoetan ixuritako prosa guragarria ederto baten cuskeraratu dau Urrutia kezkatu ta ederzaleak.

Hizlauzketa horretako eskuda bat edo beste hona azaltzeke, ezin laga, ba. Esaterako, 32 orrialdean: «Gu, kakolak itaumez beterik ditugula gatoz mundura. Gauzak belarrietatik, ahotik, begietatik

* *Idatz & Mintz*, 18-19, 1989.

sartzen jakuz, eta curon izena eta esanahia aurkitu nahi deutsagu. Baina ez dogu beti lortzen. Adinekoek gogait egiten dabe eta ixilera-
zo edo baztertu egiten gaitue atxakiaren bategaz, jakin nahi dogun
horretatik. Ixiltzen gara. Garaiz ez ixiltzea arriskutsua dalako. Eta
edozein egumetan, edozein tokitan edozeini galde egiten deutsagu.
Geure gurasoek esan beharrekoa, kanpoko batek esaten deusku.
Kanpoko horrek beharbada oker gidatuko gaitu. Eta gure bizia kan-
poko txantxaduraz, maileguzkoaz, doa jagiten».

Beste nunbaiten, arean aitita hil zanean. Balbinok lerro murritze-
tan barbaro laburrez esan deuskuz zertzelada sargarriok (78 orr.):
«Beheko gelan beilatzen eben aitita. Barrutik oihalzuriz hornituriko
hilkutxa ilun baten euken sartuta. Jaieguneko jantzia soinean eta
eskuak bularraren gainean gurutzatuta. Lotan balego-lez. Ez neutsan
bildurrik txintik be euki. Zergaitik eukiko neutsan ba? Hotzikarea
emon eustana, arnasarik ez ebala hartzen jakitea izan zan. Nireztat
heriotzearen seinale bakarra zan».

Eztabaida hutsala izan dan aingeruen setsuarekiko esaldia dakar
Balbinok geroago, 93g. orrialdean, sakristau izan zan aldikoa. «Eta
ez dakit zer emoten eustan Santiago apostolua zaldi gainean ikuste-
ak, txukun-txukun jantzita, mauruak hiltzen. Hori ez dago ondo san-
tu batentzat, neuk uste. (...). Aingerutxoeri pena apur bategaz begi-
ratzen neutsen. Hareek aurpegi polit eta biribilak ez eben mutilak
edo neskatoak ziran ikusten ixten».

Lanegin edegia, arean, Neirarena. Urte laburren txortan neno
labrego horrek lau eta mazal azalduko kontuek liburu bat ondute-
ko guna ta jasa izan dabe. Ezetariko purruztada barik jalgi ditu muti-
ko eratsuaren barrukoak. Espanturik bage, itxurakerietan murgiltze-
ke.

Gazteagoek idatziriko lerro heldu gozaberak irakurtea, ezin goga-
rakoago jaku irakurle zaharragoi.

Neira ezezagunari agur ixila bialtzen deutsagu benetan be urrune-
ra. Eta gure hegalean dogun Urrutiari, ereti berezi honetan, txalo
berezia, esku-erakutsi txairoa eskeini deusku-ta. Pelotariak pelotea
eskuan gozau ohi dauan antzera darabil euskal-lumea be, eskribau
urduri ta argi honek. Abeiondeiola.

Eusebio Erkiaga
1988 abuztuan

**LIBURUAK / IGONE ETXEBARRIAREN ESKUTIK BILBO
«IXTORIO-MIXTERIO» (Jean Barbier, B. M. Garro)***

LABAYRU Ikastegiak Sutondoan sortan argitaratu dauan liburu horren aurkezpena egin dabe otsailean, Bidebarrietako Udal Liburutegian, Piarres Xarriton euskaltzainak eta Igonè Etxebarria irakasleak.

Banakoa eskuar dogula, 387 orrialde ditu, iruzkin laburra egingo.

Xarriton jaunak Barbierrri buruz jardun eban. Donibane Garazin 1875. urtean jaioa, eta 1931. urtean hila, hainbat euskal lanen egile dogu. Eleizgizon honek, gehienbat herriagandik zuzenean harturiko ipuin eta pasadizuak bildu zituan. Lapurdieraz idatzi eban. Lan luzeago bat ere ba dauka, berekia, «Piarres» nobela, 1925 eta 1929 urteetan argitaratua; kontakizunaren hariaren lagungarri folklore gaiak izanik.

«Legendes du Pays Basque d'après la tradition» frantsesez eginitako liburuak, euskerazko testua ere ba eukan.

Liburuaren moldakuntzea ta sarrerea zertu dituan, Etxebarriak dinoanez, testu horixe izan eban oinarri Garro «Otxolua»-k bizkaierara itzulpena egiteko, izen barri hau generatuz: «Ipuin-Mipuinak». Edukia lau atalekoa da: Laminak, Jesus Jauna eta Jon Doni Petri, «Ixtorio-Mixterio» eta Axularrezaz lau ipuin.

Hirugarren idazle honen herbak jasotea dagokigu. Arean, euskal filologian trebatua dan Etxebarriak sarrera hau ezezik, beste batzuk ere eginak ditu; esaterako, «Loramendi» olerkariatzko lana, (Egan, 1985), «Txurio txoria» elebarriaren sarrerea (1986); Litterae Vasconicae banakoan «Ana Juanita» baladaren eredu azterketea (1988) eta Labayru Ikastegiko «Gerraosteko literatura» idaztian Salvatore Mitxelena zanz, lan jakingarria (1989).

«Ixtorio-Mixterio» honetako sarrerako azalpen oparoa irakurleari errez, argi, egokia izango jako; izan ere, Igoneren prosa, euskal-iturburuaren erion laua, garbia dalako. Hiztun-eder naroa, didaktika harikoa izan arren.

Irakasle honek ezaugarriak zertzean, joerak eta ñabardunak azaltzen ditu, orobat hizkerearen guna ta jantzia; tipologia eta topikoak euskal-kulturazko ezaugarriak, ipuinen hasierako ta atzen formulak azterkatuz. Hizkuntzearekiko, adar bi dirala nabari, dino: bata,

* *Bilbao*, 28, 1990.

herriko ipuinak kontatzerakoan egiten diran esaldiak, egiturak; hau da, hizkera berezia. Bestea, ostera, alde linguistikoa litzatekeela, kontacta berberak aldaera bitan aurkeztu jakuzalako, euskalki bitan, arean Barbierrek lapurdieraz eta Otxoluak bizkaieraz emonik.

Kontaeren hizkuntzako errekursoak ere hortxe dirala; zera, entzuleak ipuina jakingarri jotzen dauan arren, esaleak kontateko daukana, modu atseginez garandu behar dauala; bada, ipuin-entzuleari esatari mondagea ez jako gustoko. Areago, narrazino-alkarrizketea, esaldi eginak, hots-hitzak eta indartzaileak, egokitasunok ernagarri eta zirikatzaile izanik, entzulearen edo irakurlearen onuragin diralako.

«Hizkuntza, idazle bion erabilera» txatalean Etxebarriak idatziriko pasarteak dakarguz hona. «Askotan leporatu jako Jean Barbierri ahozko iturritik hartutako ura liburuetera ixurtzerakoan eskua gehiegi sartzea, material horri itxura literarioa emon gurean, euskal kutsurik sartzea, material horri itxura literarioa emon gurean, euskal kutsurik ez dauken berbak eta egiturak kentzeko. Gure testu honetan euskera ulerterreza darabil, herri ipuinek berezkoa daben joskera errez eta aberatsagaz, esaldi laburrak gehienetan eta hiztegi ezaguna, batez be, euskalki hori erabilten dan lekuetan. Hizkera arina, bizia dala esango geunke, ohizkoa azken batean» (54 orr.).

Eta Carrozaz ari dala: «Otxoluak autortu egiten dau ipuinok bizkaieraratutean, bere helburua etnografikoa eta filologiakoa barik, euskalki bik alkarren artean dauken antzekotasuna eta hartumona frogatua izan dala. Horrek askatasuna emoten deutso testuan berba, egitura eta antzerakoak moldatuteko. (...) Egia esan, begien bistakoa da Otxoluak bere eskuz landu dauzala ipuinok, herri kontalari batek inoiz erabiliko ez leukezan berba, egitura eta esakerak darabilzalako. Otxolua bere garaiko gizona dogu alde honetatik eta orduan indartsuen ebilen joerari jarraitu cutsan» (55 orr.). Ipuinok herritik jasoak dirala kontutan hartuta, herriko hizkera horretatik nahikoa urrun gelditzen dirala esan behar» (56 orr.).

Bestalde, Garrok euskeraz sakon zabal ekiana, eta bizkaieraz haren maisutasuna, zirrile zoliek adionez adierazo eben. «Baina bilduma honi bagagokioz —Igoneren berbak dira— oso ederra dala esango dogu» (59 orr.).

Horra ba, zelan halan, XX mende honen atzenaldian, hiru euskal idazle Bilbon bateratu diran.

Eusebio Erkiaga

**“EUSKARAZKO BERTSOAK”- EUSEBIO MARIA
D. AZKUE BARRUNDI (1813-1873)***

“Parnasorako bidea” bertso liburuak ehun urte beteko ditu laster. Egileak ez eban inprentara sartzen ez handik urtetan ikusi. Ezta Mogel-ek ere, bere “Peru Abarka” entzutetsua.

Orain, lehengo edukiari haren beste lan batzuk gehitu deusez, berriaz “Euzkadia” poema amaitubagea, eta hona hemen bigarren agerraldia.

Euskal literatureaz ere ardura etenbakoa dauan Bilboko Labayru Ikastegiak bere Eleder taldearen bitartez, esku-erakutsi antzean, labatik-harako idaztelanak ete baita aspaldietakoak ere, argitara ekarri ohi deuskuz, batez be bizkaieraz jantziak izan direanak.

Liburu hau atonduteko Mikel Zarate Iker Mintegiko neska-mutilak jasean ta biziro jardun izan dabe. Eskuetan hartu eben arloari ekin eta ekin, lorratz eta zertzeladen bila inoiz zidor korapilatsuetan zehar ibili behar izan daben arren, lana polito burutu ahal izan dabe.

* * *

Edozein gauzak berez dauka bere balioa.

Ederlanetan, ostera, hainbat eritxi ezberdin eta nabarmen plaza-ratu ohi da, bakotzak bere aukerabidea dauan ezkerero.

Eta ganera, lanaren gun, mamin eta apaingarriak aina, egilearen berezko doea eta jardunez beraganduriko jakituri ta trebetasuna arakatzeo gurariak sustrai luzeak ditu.

Egileak zer eta noiz esan eban, nun eta zergaitik idatzi eban jakin beharrez, azterrenen eta susmoen bitartez, idazlea biloistik jarri nahi izaten da. Arean, honek agerturiko emoia besteri ostua edota sasikoa ez dala epaitu ahal izateko strip-tease egitea premia gorria da.

Gizonak espilu bat ei dauka, hain zuzen, bere obra osoa. Horregaitik sarritan egilearen izena ta irudia urteen joaneko bide zidorretan galdu egiten dan arren, egilearen laneginak barriz, bizirik eta indardun irauten dau. Eta hori zelanik? Zelanik... lehenagokoek itxirikoa belaumaldi barrikoek estimadu izaten jakiten dabenean.

* * *

* Argitaratubakoa, ¿?

Gure gizona Lekeition jaio zan, baina hazi Zamudion, eta hantxe bizi ere, hainbat urtean. Hori zala ta, Eusebio Mariaren berbakuntzea Txorierrikoa izan zan betiro; haren idatzietan dogu erakutsia eta haren aldiko lekeitiarrek be, testigantza laga deuskue, azken urteetan haren berbeta entzuten ebenean, orduan bizi izan zan eta, "Bilbo aldeko" euskerea ete zan, uste ebela.

Mutikoa zala, Bilbon latin eta filosofia ikasi ebazan. Horraitino lehenengo karlistadeak bere erpeetan harrapatu eta Karlosen aldeko mendi-mutilakaz ibili zan. Ez, ostera, gerra zale zalako.

Gerrate latz hori amaitu eta Ferroleko puntaraino joan zan. Itsasgizon izan gura eban eta, horretarako behar zana hantxe ikastekotan. Haren egoerea ez zan atsegina, bada, 26 urte gino zituan.

Ikasketak amaitu eta itsasoan ibili zan, pilotu, eta ausaz, kapittan ere bai. Dakigunez 1843 garren urtean czkondu zan.

Eta jakina; etxeak dei egiten eutsan eta, lehorreratu zan, itsasoari agur eginik. Harik gorakoan Nautikako maixu izan zan Bermeon, Mundakan eta Lekeition, hurrengorik hurrengo.

Mundakan bizi zala, 1856 garren urtean alargundu egin zan; eta lau seme-alaba etxean. Hurrengo urtean bariro altara aurrera. Bera baino zatia gazteago zan mundakar andra alarguna hartu eban bigarren emazte, eta beste zortzi seme-alaba mundura ekarrierazo. Hogetamar urtean 12 une. Portzino polita, dozenatxua.

Beraz umez heteriko gizona izan zan. Ez jakin ba, oraingo Post-Modernismo honek sistor unadea ezagutuko ete dauan Euskalerrian ere. Bazterretan gizonak eta emakumeak eurrezean. Baie... umerik gitxi.

Umezalea baizen unore onekoa. Haren erretratua, pintaturikoa, behin ikusi genduan, orain 54 urte. Gizon sendoa ta ederra, zalduna zirudian. Ezagutu genduzan haren seme-alabetarik gehienak galantak zirean. Aitaren jasekotasuna euken. Don Resurreccion morrosko itzela izan zana, edonork daki.

Hartuemonia izan eban Anton Trueba idazlearen berbak ere, hor ditugu: "Eusebio Maria gizon atsegina, argia ta itxurakeria bakoa izan zan".

* * *

Kritikoren batek gure gizona fabula idazlea izan zalakoa, esan eban. Beste batek, koplagilea ete zan. Askorentzat, olerkari herrikoa izan da. Halan bere, ez kantu bakarreko txoria.

Gogoan izan daigun baserritarra eta itsagizon ikasia izan zala, biok batean. Hiru hizkuntzaren jabe ba zan, behintzat. Ausaz ingeles ere...

Gure gizonaren poesi alorrean, hirulau hesi ipini leitekez.

Lirika bigunaren arloan dituan olerkietan giro gozo samurrean atonduak direana nabari da, maitetasun dardarea, berenez agertu ohi dana, irakurleak errez ta gogotsu beragandu leikeana. Berbarako haren esate hau: "... bada, ezta inoiz gogoa / maiteantzat ilten". Horraitino, arlo honetako jardunak murrizak izan dira.

Zelanbait epika ikutuko lanak daitekezanak ugariago ditu. Erre-sumei egokiezanak, gizon handiei buruzkoak, gizartearen ibilpideari adi, eta zehetuz, prakadunen eta gonadunen upuinak azalduz eta senar-emazteen sokatirak ixilean laga barik, irakurleak ezjakinean geratu ez eitezan. Beraz patarien alegiak ez, kadera bikoen kontakizunak zituan aukerakoago.

Alkartzepide edo komunikazino lanik ere egin eban.

Gizarteko eguneroko giroan eta behar bada, bila ibilteke, entzutea eta ikustea nahikoa eban, bere adimen ete asmamencan oretu ondoren, hizneurtu zerrendak idazteko.

Cauza ziuura dana, irakasle izateko txinpartaka eukala bere barrua edonoiz. Horretan, idatzi ala ez idatzi, irabio jarraikoa eban. Lehenetako jazoerak eta lilurak gogoan zituala, bere sasoiko gauzetaz ere, esangarririk eukalako.

Eta ziri-bertsoetan, horretan genduan mutila!

Beraz, osoroki erlearen antzerakoa gertatu jakun. Berak zituan ezta ta eztena.

Haren izateaz areago jabetu nahirik, Pinturarako joerarik ete eban; bada musikarakoa nahikoan agertu eban. Bere lanak neurrietan eta azken doinudun izateaz zintzo arduratu zan ezkerero. Neurribako poesiaketarik, ausaz, ez eban susmatu. Hori, geroago heldu izan da gure aukera ta erreztasunerako gure olertigintzara ere.

* * *

Eusébio Mariaren barruko baretasuna, bakea eta umorea apurtxu bat ezagutu daikeguzan, atal txiker bi aitatuko ditugu. Hauxe bata:

"... Munduan beti dago / gizona amesetan,
gabaz zorakerian / ta gunez benetan".

Ugari samarra da haren gaien saila. Itsasaldeko eta portuetako aroko bizipenak, arrantzaleen gizentasunak eta nekeak, baserritarren izerdiak, esturak, tratuak eta trikimailuak, gizezkoen irrisak eta grinak, emakumeen amarrukeriak, baina kontu, hauxe be esan deusku ta; munduko zerua zein dan ba ete dakizue? "Ezkontza ona, emazte ona".

Beste nunbaiten, "Gazteen batzarrak" lanean aitatu dituan gazteen berotasunak, gaubelan egon arren... Entzun:

"Neska-mutilak ibiltzen dira / gaubean isil ostuka /
eskuetatik alkar artuta / amodioa burruka /
ez dot nai, ba dot nai / neskeak dino bai /
noizean beinean mosuka.

Gaubela baten dagozanean / oilarra kantau ezkerro /
udabarrien txoriak legez / jente gaztea da bero /
ezta alan, ba da alan / gazteak gaubelan /
atsoak iges da gero

* * *

Bere burueran gizona maite eban, eta zuzentasuna. Handikiak gerra-sortzaile zireala uste eban, eta horreen lagun, alperrak zireala bitzuok edertotxu astindu zituan. Berebat, bizitzan edo lanbidean bitarteko baino ez izanik inoren lepotik bapo bizi zireanak. Orain be, zeozer esango eukean lekeitiarrak. Eta bestera; errukia emoten cutoen bizimodu narrasean jardun beher ebenak, euren artean, domeka bako langile gizarajoak. Eta hona nundik nora, gerrateen kontra eta soldautzearen kontra agertu zan eta, Eusebio Maria objektore pioneru izan genduan! Beste zertxu hau be, azpimarra daikegu; frantsesek bazterretara zabaldu gura izan eben *égalité* horren birtutea bada-
ezpadakotzat jo ebala, eta siniskera hori ez ebala iruntsi. "Bardintasuna" txortan agertu eban.

* * *

Kultura eremu zabalean Ele Ederrak bere barrutia dauka aspaldiko mendeetan. Gure euskal baztertxua oraintsu samar arte horrelako jardunean atzera, erdi antzu, bakartuegia izan dala esan daroe jakitunek. Ondorioz, alort erkinak, ausaz behumenduak eskeini izan jakozala irakurleari eta auzoetako elelderrei. Garaikide ditugun kritikoek eta idazleek tradiziorik-eza esaten dakie hemengoan letragin-

tzeari buruz. Lan jatorrik urri sortu dala hemen, maila jasorik ezago; eta itzulpenen arloa harako elciz liburuak bereiz, jardun ia ezezagu-na izan dala.

Itzulpenak dirala ta, larregikoaren arriskua aitatu dauanik ere, ba da. Arean bere, azken gizaldietan aintzat eta ontzat erabili izan dan euskerea, deskafeinadua eta ganera estabilizante arrotzagaz birgizen-durik geratuko ete dan.

Eusebio Mariak euskereaz hain lagun gitxi arduratzen zala ikusi eta zer egingo zer ez egingo, bere buruari itandu eutsanean, zelango asmoa eta zelango eritxia izan eban jakitea, garrantzitsu izan leiteke.

Labayruko ikerle gazteok harentzako goragarri direan berba lauok idatzi ditue: "Euskal poesigintza, poesia idatzia, helburu lite-rarioa daukana, hasikinetan agertzen da halako lanetan. Bere kon-
testuan... autore hau zelan edo halan olerkigintzan lehen urratzaileen artekoa dogu, inguru honetan (...) poesigintza goranahi ahalginez eta indartsu ageri jaku."

Hareri berari, tamalez, guretzat guragarri ez dena jazo jakon. Hau da, euskerea landuten berandu hasi zala —berrogetaz urteak euka-zan— eta harik lasterrean lan hari bertan behera laga ebala. Idatzi gehienetan ez da noizkorik agiri, baina ikerle gazteak uste dabenez, 1860 hamarkadako lehenengo urteetan jardun eban soilik. Orduan jazo ei zan haren Sartu-urtena edo Porciuncula dalakoa.

Berandu berotu, behingoan hotzitu... ez da jokabide arrunta edo usadiokoa olerkarien artean. Izatekotan, bestelan dirudi. Arean, poe-siaren sehaska parcbagean lo egiten, ames egiten eta kontetan ikasi genduanoi, zahartzaro gazigozoan ere, sehaska maite horretan lota-ratzea zeharo gogoko izan behar litzakigula, guztiz atsegin.

Gure itsasgizonak bere ontzizubitxutik ikusi bide ebazan neokla-siku ta erramantiku olatuak, eta ausaz, errealismoaren olatu ganera eratsi eban bere batela.

Beste ohar esanguratsu bat ere egin dabe ikerle gazteok. Hain zuzen, idazlanak egite, orduan lekeitiarrak bat-batekotasuna, otoz otokoa ete eban bere sorketea. Baina haren poesigintzeaz egosten diharduen beste lan baten emongo deuskue horren barri.

Aita Uriarte adiskide ta adore-emoile izan eban aren, gureak bere garaian bakartade antzekoan jardun eban. Hurrean baina urrun ziharduen giputz bik: bata, Iparragirre kantari kitarraduna zan. Bes-tea Bilintx, ziri-bertso zalea eta berebat minberatsu ta negartia.

Lekeitiarrak barrurengo eukana, barruan gorde eban; intimista lerro-rik ez eban bere ontzian idatzi, ez brankan ez popan.

Etena eginez, esangarri da Juan Blas Altuna Durangoko seme ospatsua Lekeition organista egoan eta, gure gizonak hantxe ezagutu ebala, eta sei bat urtean hartuemon handia izango ebena, uste izatekoa da. Altuna... "Gernikako Arbola" kanteari musikea egokitu eutsana.

Eusebio Mariari ezilbehartasunaren garra ez eutsan arimarik erre. Horraitino, geroetan, Unamunok eta Lauaxetak berak ere, gar horren erreusaina erionean izan eben. Eta azkenik, *gloriya hildakoen eguzkiyu* baldin bada eguzki horren distirak beioakoz lekeitiar olerkari txeratsu oni ere.

Eusebio Erkiaga

NARRAZIOAK



ESNEDUNAK (Neguko goiz batez)*

Endaitz'ek

Busti egozan baso-bideak. Eziban euririk egin gabaz, baina bai iruntz aundia. "Leya egin dau bart" inñotsen alkarri azokara merkatura etozan baserritar andra eta neskatillak.

—Bai, an gure errekartean ez da egon makala gaur goizion—erantzun eban Modesta etxeoandra maratzak. Eta hori esatean, esku bataren ganea igurtzitzen ziardun beste eskuaren azpiatz. Bere albo-txutik asto-galanta yoan, gayez ta gauzaz beterik otzara biak tuntur ebazala.

—Ez, ezan egongo edozelakoa an zuen etxondoan-yardetsi eutsan bideak betean etorren Dominike andra zabalak, baratz eta abots meetxuaz. "Geurean be, otz andia egon da-ta".

Eta batak au esan, besteak ori erantzun, urrengoak a geitu, yoan yoiazan errirantz, traka-traka astoak, eta txiri-txara neskato eta andrazkoak.

Eguraldiaren gora-beerak alkarri esan eta azaldu ondoren, nekazaritzako arazoaz erabili ebezan euren barriketak luzaroan. Eta azkenerako, beti oi danez, erriko ta auzoetako esames eta autuak atara zituen.

"Martíne"—esan eutsan samur-samur ia malmuzkeriz ta yakin-guraz Dominike andra zabalak eurekaz batean yoian neskatilla galant eta begi urdiñari. "Martíne: laster ezkonduten ei zara, e?"

Atsegiñezko barre algarak egin ebezan an aldran yoiazan neskati-lla biak eta iru andrak. Irugarren neskatillari ostera, Martíne'ri, sagar-gorri eldu-elduak baño gorriago egin yakazan matarлак.

Ederra zan Martíne. Ba-dakizue baserrian eta kalean bere bai, an or zelako neskato banaka ederrak egoten diran. Azal argia eban. Azal urdiña be esan daroe gure baserritarrak. Azal urdiñau ei —omen— da azalik bikañena, fiñena; azal zuria eta leguna. Ta beti olantxe azal ederreko il arte guztian be, izan doiaz azal urdiñak.

* *Argia egutegia*, 1936.

Ederra zan, ba, Martiñe, ta biotz onekoa. Dominike'k esan eutsana entzunda, erdi lotsatuta ala zeatz lotsatuta gelditu zan, ez dakit. Baña itzegiteko adorea ia galdu egin ebana, bai, ondo dakit.

Eta ixil-ixilik: "Bai, asmua orixe dogu" esan eutsen bide lagunai.

Berari begira jarri yakazan guztiak. Andrak alako neska yasekoa egokion sasoiaren ezkontuteari ondo baño obeto eritxoelako. Ta neskatillak Martiñe'ren ondamuz lez yarri ziralako ta euron txandea noiz izango ete zan buruausten eta asmuetan yarri zitulako.

—Ez dozu zeri lotsatu, Martiñe — geitu eban Modeste'k, ama batek oi dauan biguntasunez. Yangoikoa'ren guraria orrelan dala, ezkondu al bait leenen, eta kitu. Zuk eta Erramon'ek bizimodutxua atara eziñik ez dozuela uste dot.

—Eta nora ezkontuten zarie? — itaundu eban ordurarte erdi ixilik egon zan Yonetxu begi baltzeranak.

—Erramon'enera, ba, Urtiaga'ra —azaldu eutsan ezkongeyak.

Eta irribarre gozo-gozo bat egiñik, Yonetxu'k adiguritsu ta maitekiro esan eutsan: Eztegu-egunez ikustekoa egongo zara, zu orraitinõ...

Itzok entzun, lagunak emoten eutsezan zorionak yaso, arpegia barriren barri, gorri-gorri egin eta barrua eztitan yarri Martiñe'ri, guztia izan zan bat-batekoa. Bizikera barriaren gomuteak berak bakarrik, zirrara ta zauzkada aundia egiten eutsan barruan.

Amesetz beterik eban burua ta adu-on egarriz biotza. Ai! Ogetabat urte zituen!...

* * *

Eldu ziran urira. Azokako lagun-artean aldendu yakun begiaurretik Martiñe zoriontsuaren irudi lirain zoragarria.

Mendi-ostetik orduantxe yagi zan eguzki argiaren ditzira baizen argi ekusan etorkizuna ezkongei azal-urdiñak...

ENDAITZ

AMES-LARREKO MAITAGARRIA*

(Lilura- elhea)

Eldu nintzan ainbat bidar izandako toki-tokira. Zenbat aldiz nik nire buruari esan ere: "Aurrera, ioan adi aurrera!

Baiñan ezin.

Nor, ausartu maitagarri-mugako arri borobil eta zabala zapal-tzen? Nork arri aren gainean oiñik ipiñi?

Burutik beatzetara dardaraka asi oi nintzan. Eztakit nungo aize xume batek iñarrosten ninduan bein eta berriro.

Egun artan, ordea...

Ortzia argi-garbi zegoan. Noizik beiñean, odei, arre-txuri zoranga batzuek agertu, estutu, medartu, edota edatu ta mee luze egiñik, ezcrezten eta suntsitzen ziran zeru-barna.

Birigarro baten atzean nenbillen, aren kantuen iarraika ninioan landetan zear eta zugaztietatik.

Arizti naroan sartu nintzan. Goiaren zale, an zegozten gerri eder, lepo luze, burutxutak, irmo ta zuzen, aritz tantai aiek. Udazken giro-aren zirrikaz, ezkur zimel banakak kok-kik hurrera zetozten.

Ezkur eder, mardul, legun borobillak, abarretan goxoki kokatuak begien ikusgarri, ikusmenaren atsegingarri, izadiaren indar eta esne-odolen erakusburu, etorkizunaren xinta isil-isilak...

Iratzeak erdi eze, erdi urrexka, gizon nagjaren etzin leku merke ta oatze biguin bai lirean, zuzaz ta perretxikoz apainduak or emenka.

Gooldio emez josia, ur axaleko uin kixkurrak antzo, lur gaina guri zegoan, katu garbiaren bizkarra iduri.

Etzin nintzan etzin, geldiro, Ames-muga ez zapalduko bai zapalduko, bizkarrez lurra, aurpegiz zeru, besoak zabal, luze zangoak.

Osto tartetik goiaren urdiñak agur egiten zidan, bere kolore bakar berdinbagean nire izena idatzi nezala esanaz bezela.

Eta orrelatxo asti naro, aldi lasai, bertanbera ezti, egote atsegin.

Bapátean, ots motela entzun nuan, xir-xir isila, arrigarrizko edo misteriozko arnas-aldi soiñua iduri. Zirkin egin nuan, akulu batek

* Egan, 5-6, 1956.

eragiña bezela, eta burua eskui-alderatuz, sasi legor artetik kee mee xurixka nabari zuten nire begiok, laiñoaren gisa.

Lanbro ura anditzen, anpatzen ari zan eta zeruko odeiren bat adarrean naasi eta urratutzer zegoala zirudian.

Sua ote zan? Laiñoa ote zan? Odei galduren bat ote?

Zart-egiñik, pikoa erdibitzen dan antzera, urratu ta bitu zan lanbroa.

Ta begien zorapen ta liluramendua!...

;;Neskatxa eder zoragarria nedukan nire aurrean!!

Ez ninduten, iñolaz, saldu ez atzipetu begiok! Ene ba, angu Maitagarri berbera ez zan bada?... bai, zalantzarik gabe; berbera zan, arranotan!

Ni zurbil, beluri, odol-geldi lotu nintzan, lurrari atxikia. Mingaiña askatu nai, igimenak iges egin bai lion. Mintza nai, ta mintza ezin, egoera larria...

Ontan, irudi urdiñezko neskatxaren ezpaiñak ideki ziran eta —czkilen jai-bezperako dilinda goxoa ote?— doiñu samur beratz eta eztiz mintza zitzaidan, bere begiak irriño emez izetuaz.

Itz auek bakarrik ditut gogoan, eta oraintxen esango.

—Ioriñe nauzu, Ioriñe —esan zidan emaztegai baten aots kartsu biguñez—; Ames-larre ontako Maitagarrien erregiña”.

“Mendeak mende, ementxe bizi naiz, gizasemeetaz urbil eta urrun, bertan-xamar eta bereixi. Amar urtetik amar urtera mutil gazte bat galdetzen dut, eta onekin mintzaldi luze ta egonaldi gozo egin ondorean, aske ta iare ioaten utzi oi diot. Aske, taiuren batean; baiñan nire oroiak, ordea, egun eta eguzki iraunen dio, eta nahiz eta onera berriz eldu nire billa, leen ikusi nauanak ez nau ez, iñoiz berriro ikusiko”.

“Ez zaitez bildurtu, bada, eztizut kalterik egingo-ta”.

“Nire ames-larre bikain ontara etorri nai ezik ibilia bait-zara zu ere, besteen zori eta besteen ioera ta jokabidea merezi zenuke. Bai! Gaurgeroz alperrik datorke bigarrenz bere gogara, leen nai ez-ta etorria, ni berriro ikusteko irritsez. Alperrik!”.

“Esker gaiztoentzat eztut nik ere ezer onik. Nire izena entzun ordukoxe niregana orde z nigan dik urrundu-gogo duzutenok, zagozte bai ametsik gabe, liluragabe, beti lurrari lotuak, biotzak legor, aztun begiak, ogi soilaren zale abere araura”.

Nire bularra ler-zorian zegoan, arnas itoaren mende. Izerdi otza tantaka nuan bekokian beera. Begiak zabal, oso zabal nituan oro-bat aoa.

—“Parkatu —esan nuen agin-artetik mintzo epel utsa aize-putza bezela kanporatuaz— bein ta berriz ikusi nai zinduzket alegia...”

—“Ederki, bada —erantzun zidan irriparez. Olérkari zaranez gero, zatozke urtean bein, udaberriko eguzkiaren lendabiziko arratsaldean”.

Ta nireganatuaz, pa bero goxoa egin zidan kopeta erdian.

* * *

Bigaramon goizean, iguzkia bere larre urdiñera zanean konortik gabe aurkitu ninduten inguruko baserritarrak, eta gurdian iratzear-tean Ames-larre mugako basetxe txuri garbiraño eramanik, oe txukuncan eduki ninduten nire senera nintzano...

ERKIAGA Eusebio
1956

ZEIN OTE ZAN... ZERA?*

Goizeroko lana bukatu nuanean, beranduxka zan. Etxetik urrun xamar nengoan. Eta orregatik, lendabizi aurkitu nuan jatetxean sartu nintzan.

Bero galda zegoan kaleetan eta taska artan, atsegin giro sumatu nuan. Anartean, erradioak, Frantzeko inguruketaren zerzeladak ematen zituan. Baita eguraldiaren eguneroko gorabeerak ere.

Bart luzexka artan jendea erruz zegoan. Batzuek ordurako bazkalduta, numbait, kartetan ziarduten. Lau ziran, eta kafe-txikarak aldamenen zituzten. Nik, xuriko bat edan ostean, barruko alderantz egin nuan. Bizkitartean, mairen bat utzik edo libre ote zegoanentz, galdetu nuan, jantokian alperrik zutik ez egoteko.

—Baietz ba, —erran zidan gelari-mutil gazte batek. Mai batean zaldun bat zegoala bañan, maiaren beste aldean, leku zegoala iñor gabe.

—Eskerrik asko —erantzun nion. Leku ori, beraz, niretzat izango da.

Gosez nengoan, goizeko zortzirak inguruan barruratakoaz beste gabe. Sartu nintzan bazkal-tokian. Ordurarte ez nengoan iñoiz bertan. Etzan, noski, toki zabal eta edatsua; tipia bai ordea, baiñan —orain erdaraz esan oi dutenez— abetalgarria zan. Ni neu beintzat, atsegiñez eseri nintzan utsik zegoen eserlekuan.

Izan ere, silla bat bakarra zegoan iñor gabe. Nirea. Aurrean, mai tipiñoa baitzan zalduntto bat zegoan. Musuz urbil, bigote txiki mee, gizenez urri.

Igaz, bi aldiz eri egon baitnintzan, sendagilleak, bietan, mungo ura edan nuen galdetu zidaten.

—Nungo ura edan? —nion nirekiko. Nungoa? Iturrikoa beintzat, nik uste.

Baiñoan alaz ere, etzan naikoa argitasun ori, zein erritakoak, erbestekoa, ala auzokoa, etxekoa ala kalekoa...

Osatu bezin laister, esan nuan nire kolkorako:

—Zertarako geiago urik edan, medikuak galde eta galde ibiltzeko. Ardoa edan zanga zanga, eta kittu!

* *Euzko-Gogo*, 1-2, 1959.

Eta nire maikide orrek orixe zeukan maigañean: ura. Ur zurbilla, aren arpegiaren iduriko zan ur its, animagabea.

—Edateko zer nai luke, jauna? —itandu zidan mokor zabala zan neska motzak.

—Edateko... ardaa, alabatxi! —bermearrak esan dutenez. Eta berealakoan, an ekarri zidan Azpilikueta bonbil-erditxo. Neure kautan bai nik esan ere: Amaika jende poztuarazi du zorionez ere, Azpilikueta bedeinkatu onek. Ezpaita berdin pitxar bete ur edan da gero maietik jeikitea, ala txopin pare bat ardauaren sainetea dranga dranga mustatu al izatea. Geldi or!

Eztakit lendabizi zer artu zuan nire maikideak. Baiñan bigarentzat, legatz zati ez aundiak ere, ekarri zizkioten. Legatzak arraultzaren igurtzi ariña ba zuen, agian; baiñan, ala ta guzti ere, motel edo tristeberaa izan nurbait, eta gure zalduntxoak limoe-puxka eskatu du. Ekarrri diote bada, puxka ori; obeki esan, puxkaren puxka. Diodan au egia dala ziurtzeko, urrengo lerro erdi au irakurtea aski duzuke, irakurle.

Ain zuzen, puxketaren puxketa ori eskuartean artu ta beingoan, bere legatz zati aizpa aiek gantzutu asmoz asi danean, irrist egin dio limoc-bizar ark eta... an zioak, nora eta... gizon biren erdian bazkaltzen ari dan andre gazte eder baten zangoan zegoen nilonezko galtzerdiraiño!

—Ene!... oi u egiñaz, xalto egin du emakume arek.

—Barkatu, ene andre goragarri orrek —esan du, lotsati, ene maikide kolore zuriak.

—Barkatua dago —jardetsi dio, biguinki, gizonezko biren artean dagoan emakume sinpatika arek.

Orduan konturatu nintzan zerbaitegaz. Gizonezko bi aiek, bata baiño bestea xaloago ta adiguritsuago ta anultsuago zeuden emakume pertxenta arekin. Izketa bizi bizian ziarduten, eta ez nuan, damuz, ezer ulertzeko betarik izan; baiñan bata ta bestea leiaz mintzatzen zitzaizkion emakume mami-goxoari.

Neskanean ere agertu zan eta, nire maikideak, beste zatitxo berria nai zuela jakinarazi zion. Limoe aura, oinpera eroria izan baitzan.

Berealakoan ekarri zioten limoe-puxka bigarrena. Ni, adi-adi egon nintzan bigarren saio ura nola irteko ote zan jakiu bearrez. Arako emakume aragi-goxoa eta bere lo satelite bi aiek, begi zabal zegozten.

Orduan, artean zurbil zan ene maikide aren masailletan, kolore-xirrianta makaltsuaren erraiñuak gorritzka antza artu zuten.

Artu zuan eskubiko eskuak limoe-zatia, eta beste eskuak ere, bere erantzupenaren zeraz konturatuak, besteari lagun egiten zion —gaurko esakeran, bizkarra zaitu—.

Artu zuan bada limoe-puxka, geldiro, astiro, eta apurka ertsi ta estutuaz, tanto lodi batzuek aterarazi zizkion. Beste saio bat, eta zitroe-puxketa, ximel ximel, utzi zuan, emekiro, platertxoan.

Emakume aragi-goxo ark, eskubide aldeko gizonezkoak, ezker-aldeko zaldunak... eta bostok, arnasa zabal egin genduan. Boskarrena, noski ba, arpegi zurbil aura zala argiro dago, nik uste.

Nire maikidea asi zan orduan, sardañoa, eskuan txairo arturik, legatzari zatzakadak ematen, zatiak uratutun, aora eramaten. Bigarren ekiñaldian garaitza izan baitzuan.

Babarrun gorriak eskatu nituan nik. jateko zuri eta zurixkak alako tristura ematen bait dit; oeko noraezko bazkari eta aparti illak gomutara eltzen zaizkit-eta.

Babarrun ondoren, legorreko arrain-zatia naiago nukela, esan nion gure neskame gizen mokor-zabalari, itsasokoa baiño.

Saiets aldean nuan irukotea, jan, edan eta berriketa eta loraketan ziarduan. Duda batek zulatu zidan barrua. Emakumeak, bazuan, bai, erian, bere ezkon-craztuna. Gizonezkoak, batak ere, etzuten alako ezaugarririk. Alaz eta guzti ere, neure senak ematen zidan, bi aietatik bat, andre aren senarra ote zanekoa. Ezin izan nuan igarri, ezin somatu, ezin jakin.

Eta larreko arrain baten tatoari —zatiari— erasoaldiak eman bitartean, nire buruan auxen nion:

—Baiñan, zein ote emen... senarra eta zcin... zera?

Amaitu zuan emeki emeki, ene maikideak, legatz-zatia; eta bigarrena ere bai nik neure artean nerabillen ez-jakin bereizkuntza ori azaldu orduko.

Azkengarrizat,flan txiker bat eskatu zuan. Eztakit «toci» ala urdai...

Jan zuen laister, ori bai, eta goxo-zale zaneko antza artu nion; alako Maritxu bezela.

Españiak xamur igurtzi, bere bigoteari perekaldia egin, arratsaldeon! guri eskaiñi, eta joan zitzaidan maian izan nuan laguna.

Nire ardaña ere amaitu zan, eta oso ona eta egokia zala ezin ukatu.

Aldameneko aiek, txanpan boteilla bat ekarrarazi zuten, eta edan ere bai, noski. Gero irurak erre ere bai, Lucky bana. Parre biguñiak ere entzun al izan nituan.

Orduan, ene adiskide Pernando eldu zan, eta neure maian bertan eseri ta autuan asi zitzaidan. Konturatu nintzanean, irukote aiek jeikiak zegozten, eta pagatu ere nunbait egiñik, neskameari auxe entzun bait nion:

—Eskerrik asko jauna.

—Barkatu, Pernando, baiña, une okerrean eldu zara nire ondora.

—Zergatik? —erantzun zidan Pernando-k, isil samar, eta nireganatz makurtuaz bizkar eta buru.

—Ikusten al dituzu or atean kanporantz dioazten iru oiek?

—Bai.

—Emen bazkaldu dute eta... norik pagatzen ote zuan jakin nainuan eta...

—Zergatik bada?

—Ezerez. Jakinguratxua bakar bakarrik. Orain, dudaz gelditu bearko ni, ordu bete leenago bezela.

—Zer duda, alegia?

—Auxe besterik ez: gizona ezko oietan, zein ote dan... akerra!!

Pernandok parra algara aundia egin zuan, eta ao zabal zegoan, nire adiskidearen aurpegi benazkoak, alako irri-gogoa zeukala ikusirik...

BARU-ALDIAK*

Antonio Arrue jaunari

Ipuññaren alako itxura baldin ba lu ere, gertakari egiazkoa ta mamiz betea duzu onako au.

Caldera oso jakiñen artean, ba da bat guztiz ezaguna: “zenbat lagun zerate etxean?”. Ez da atzo goizekoa, nonbait ere; baiñan oraingoan bikoitz egiña da. Esan nai dut, itaune orrek bere aizpa berdiña izan duala.

Ta onenbestez, azal dezadan ager bear au.

* * *

Mundu ontan, beste askoren artean —onclaxen asten bait-ziran guretarren mintzairako zenbait ipuin— adiskide ou bat dut, ni baiño gazteago dana, ain zuzen.

Aldi batean, alkarrekin lan egiten genduan, ugazaba berberaren ta nagusi berdiñaren begipean. Izaten zituan, bai, noizean bein, niri erdi-isillean adierazi bearreko gai bakanak.

Beññola, kanpora joan zan eta illabete inguru, erbestean egon zan, zeregin berezi batzuek egiten, ez alperkerian iñola ere. Erri artako ezagunak ba zituan eta aiekin ibilten zan. Alako batean, ezagun oietariko batek esan omen zizkion bere adiskide batezaz atsekabetxo ta mingoskeriak.

—Ikusten al duzu agurtu berri dugun Tobias jaun ori? Ederra adiskidea! To!! Eta, batez ere, itzeko gizona.

—Zer bada?—jardetsi zion ene adiskide gazteak.

—Zeeer? Zera! Utsa!... Or dakusazun ori, arrantzuan ari izaten da jai egunetan eta, larunbat arratsetan eta.

—Denbora pasa, esan nai izango duzu.

—Noski. Ala dirudi beintzat. Joan orduko, jakin oi dut joango dana. Joan ostean, ordea...

—Ixildu egiten al ditu bere zerak? Arrigarria orixe, eiztariak eta arrantzale “sportzale” oiek, izugarrikeriak kontatzen, maixu jatorrak izaten dira-ta.

* *Egan*, 15, 1960.

—Alaxen da. Joan orduko... Ara: amaika bider entzuna naiz, aren ezpainen lelo au: “zenbat lagun zarete etxean?”.

—Eta gero, ixildu, diozunez.

—Bai, mutil. Gero, aste osoan isiltasun paketsua, urrengo jai-bezperara arte.

—Beraz, arraien opakizun edo urrutiko eskaiña egiten dizu, baiñan arraiñik...

—Oraindiño nire agiñik ez ortzik ez da zikindu arek emandako arrainkiz.

—Eta, zenbat bider izan da ori?

—Zenbat bider? Batek daki!... Orrelan daramazkigu pare bat urte, gaur ez, eta biar ere ez.

—Gogorra da Tobias jaun ori, gero!

—Ori esan ba!

* * *

Nire adiskide gazteak zertu zidana azaldu dut, aurreragoko lerro oietan.

Eta kontuak kontu, ene adiskidetxoa ere, arrantzale “sportzale” bilakatu zan. Erosi zituan nekazale erdi-apain auek orain erabilten dituzten otarra eta kaiñabera; auxen gainera, orixe bai! karrete ta guztikoa. Ederera aparejua! Batean itsas-ertzera, urrengoan Bizkai-ko etziñaldeko ibai garbietara, asi zan gure gizona ere, jai egunetako lan-jolas edo jolas-lan auetan.

Alako batean —larunbat goiza zan, gogoan dut— esan zidan argi ta garbi:

—Eusebio, zenbat lagun zarete etxean?

—Gu? Ba, emaztea ta iru seme-alaba, lau; eta nire burua bosgarren. Zer ba?

—Ez, ezer ez. Zera... gaur eta biar, Armintza aldera joango gera arrantzuan eta... alako arrain egoki bat atzematen ba nu, ba daki-zu...

Eta onenbestez, ene etxeko norabidea galdetu zidan, eta ziur ziur papertxo batean idatzi zuan.

Lendabizi, bat bateko eskain orrek zerturik utzi ninduan. Orraitio...

—Kontxo! —erantzun nion gerotxoago. Iñoz entzun izan dizut arako erri artan, zure ezagun andi bati gertatu zitzaiona, “arrantza-

le"... utsegille batekin. Arek ere... alako galdera berdin xamarra egiteko oitura zuan.

—Bai zera! —jardetsi zidan berealakoan. Ba dakizu ni, itzeko gizona naizena...

—Gizona, gizona! —gaiñeratu nion, larregitxo edo aipatu izanaren gozagarri. Aimbesterik ez nuan nai, ba, zertu.

* * *

Galdera jator aura, ez zan seme bakar gelditu. Jai bezperetan eta, anaia ugaritzea izaten zuan. Maiz entzun oi nion ene adiskide gazteari, "zenbat zarete" ori.

Eta arek aipatzen ez zuanetan, nik neuk oroitarazten nion batzuetan, arrantzaleketa asmoak agertzen zituan bakoitzean:

—Eusebio, etxean zenbat lagun zarete?

Eta arek, asarre xamarreko muxin-kopeta jarririk, erantzun ere bai:

—Ez uste izan, ordea, aazturik nagoanik.

Baiñan, aaztu bai, aaztu ez, ene emazteak ez du gaurdaiño kutxillu ertzik asko moztu, arek emaniko itsas-arrain ez ibai-arrainen zetaka garbitzen... —esan bearko.

* * *

Orain ez dugu alkarrekin lanik egiten. Ene adiskide... maitea, ez dut, beraz, noizean baizik ikusten.

Zorionez, joan dan udazkenean ikusi nuan, eta niri berri onak agertzeko gogoz somatu ere. Barruak ere, bira egin zidan.

—Ba al dakizu itsaso ta ibaiei agur egin diedanik?

—Ez ba!

—Utzi diot arraiñetan jardute orri.

—Orra ba! —irten zidan aotik erdi isil, eta samin-antz. Inoiz entzuma nintzan arrain gorriren bat edo, urrabururen bat edo...

—Ez estutu, Eusebio —adierazo zidan amultsuki. Orain, eizan jardungo dut. Eiztari egin naiz.

—Eiztari, e? —esan nion ao zabalik.

—Bai, gizon. Erosi dut eskopeta ere, berri berria; Eibar-en egiña. Txit ona bera, gero.

—Orduan... gu etxean zenbat lagun geran ba dakizu eta...

—Bai, bai. Bost, ezta?

Olaxen, geroztik nobedaderik ez dugu izan-eta.

* * *

Ortan amaitu zan gure azkenengo alkar-izketa. Geroztik... amai-ka bider galdetu izan dut nik, etxeratzean:

—Ta? Arraiñik edo egaztirik bialdu al du iñork niretzat?

Ene emazte onak, irri leguna agerrarazten daki orlakoetan, bere kolkorako “sinispera ez bestena” esan bitartean.

Eta egunak joan, egunak etorri, emen bizi gera nasai asko, edota al dan bezela, arako amuarrain edo zarboren baten saltxa gozoaz aaztu-niñez gaudelarik, iñoiz, bear bada, eper, oillagor edo galeperren baten iztartxo samurren bat, agin-artean baratze-baratze birrintzeko zorion urrutikoaren itxaropen-laiñopean...

(Bilbao, 1960-IV)
ERKIAGA, Eusebio

SONIA LIRAIÑA*

Behiñere ez dut jakin Aldontzari zer gertatu izan zitzaion neskatxa harekin. Sonia benetan neskatxa polita zan, agian politena, udakutsuko erritxo hartan.

Ba zekian hori Soniak, eta hala ibili omen zan gaztezaroko urte txuri-gorri haietan, mutillen bihotzetan zulogiñen pipia zurean antzo.

* * *

Soniaren laguntxo izandakoak anitz ziran. Bata, gazte samurra, anartean bere sei arriben artean bizi izandakoa. Samurregia, noski, emazteki batekin naierazko jolasetan jarduteko.

Aldontza zan gazte samur hau. Honen begietan itsasoa agiri izan ohi zan, begi urdin argiak baitzituen; zeruaren zatia ala ur-tantoa ziruditen begiak. Soniarenak, ordea, beltzak ziran. Eta biurriak. Zorarazleak.

Aldontzak Soniarengana maitetasun suarra ukan zuan bere budarrecan.

Bigarren maitariak, Urzai ta Gelbintzu izan ziran, biak batera sentitu izan baitzuten Soniaren begien soera berokoia.

Baiña Aldontzak, zoritxarrez, Soniari atsegin ez zitzaion bizi bidea izango zuan. Itsastarra zan; kanpoetan egotaldi luzeak egin behar izango zituan. Eta Sonia ez zan, noski, arrizko iduri apain, baiña otza.

Gelbentzu gonazalea zan aiñean; Sonia, ordea, galtzazalea. Ez orraitio berak jazten zitualako —agirian behintzat—, galtzadunen barruan zer bizia, gizaseme odolduna somatuaz poztutzen zalako baik.

* * *

Aldontzaren maite-aro lehendabizikoa, poliki asi zan.

Sonia illunabar batean ezagutu zuan, itsas-gaiñeko aitzetan zegoan jatetxe alaian. Gaztelu zaharren itxura zeukan jatetxe harek, eta iluntzetako argi-illunean aintziñako sorgiñen ez baiña oraingo, ta betiko, gonadunen maite-ardoak sortutako lillura nabaritzeko, tokerik txanbeliñena ta laiñotsuena zan.

* *Egan*, 1-6, 1965.

Negu-leheneko arrats-behera eze harek, berekin zeraman miñeria. Aldontzak, bere ikaste-saioak egoki bukatu berri, itsaso nerukaitza zeukan besoak luza ta zabal, laztanik gozoenak artzeko gertu. Bizipi-dea uhiñen gaiñekoa izango zuan eta portu bakoitzean amorant berria sortzeko aukera paregabeca... Horixe esaten genion legorrean geratuko giñan haren adiskide aspaldikoek.

Aldontzak ba zuan penaren ondarra dastatu beharreko ordua.

Bai. Han urrutetan izango zituen milla maitari, edari-truke, usai-gozo-truke, diru-ordez, aragizko maite-dardara eskeñi izango ziotenak.

Aldontzaren bihotza, ordea, ar berriak minberatua, bere kai politetan geratu beharreko zan.

Neskatxa bat izen gozoa zuana, alegia: Sonia...

* * *

Hau, pelotariaren alaba zan eta erritxo hartatik iges egin zuan, udazkenak bere laiñozko errezelak zabaldu bezin laister, aiñara iduri.

Pilotu-gai gaztearen bizitzako liburuan, lerro berri ta gorriniñak agertu ziran lehendabizikoz. Aurtzaroko egun ariñak eta gaztezaroko aste alaiak, aize zurrumbilloak astindu ta eraman zituan, deabruak dongaren arima bezela.

* * *

Aldontzak, behiñola aitortu zidan bere maitemiña: Sonia eder zitzaion, ta bildur zan. Ezetzaren bildur. Edota, etorkizunaren bildur.

Halaere, Aldontza bezelako dantzari azkarririk ez zegoan erritxoan, eta Soniari atsegin zitzaion guztien aurrean, bere burua, dantzaririk liriñena bezela agertzea.

Ez ziran koxka pitiñak Soniarenak.

Itxura, agerpena, batetik. Baiña urrutetako maitaria, nunbait, ez zan bere gustoko zera. Senar balizkakoa ez zan harentzat egiten zana. Biziko alarguntasuna ez zan janari auta Soniarentzat.

Pelotariaren alabak beste aize batzuk zituan bere txapeltokian.

Urzairen alde onak ere ikusi nai izan zituan eta urteak aurrera joanik, emakumeak ohi duan gudu-joera berezirako, bere ardura ta tresnak gertuko zituan, noski.

Aldontzaren ahoz zerbait jakin nai izan nuan, baiña alperreko lana, ordea, aspaldi hartan.

* * *

Sonia, bere aitarekin ta amarekin joan zan joan udazken hartan, Madrid alderantz. Giro hartako bizipidea, hala-halakoa izanen zan harentzat. Aldontzaren oroipena baiño sarkorragoa noski.

Buru-mendu medarretakoen asmo ta jobide motzak baiño zabala-goak izan zituan, hangoak. Baserri-usaiak astinduko zituan. Eta santu-jazteak ere bai.

Egunak, agian ez ziran hain luzeak izango, baiña illumetako orduak bai, orraitio, esna bizitzeko. Kanpoko aizea ta argia baiña nahiago izan zuan gau-giro epela ta dantzari ariñen besartea.

Ba nekian jakin, Urzai ere damurik geratu zana bere eritxoan. Soniaren edertasunak lilluratutako txoria zan hau ere. Adin inguru batean eziña izan ohi da buruaren zartadei men egiterik, kilikagarrigo baitira aragiaren deiera ta zaiñen astin-nahia.

Gelbentzu, bai, eldu izan zan Gaztela zabaleko uri zahar baiña berri-nahiko hartara. Ez zioan Soniaren galde soillik; galtzarpean ba zeramazkian zenbait garatz eta irabazpideko arazo. Egiten ere, hainbat mutil zakarren buru zorrotzek hantxe arkitu izan baitituzte ondusun berriak iristeko iturri ezkutu ta gordeak.

Ederki estali zidan niri Gelbentzuek, mixterioaren isilla.

Aldi hartan ta ez lehenago ta ezta gero ere, ez nuan nik Sonia ederrarekin artu-emanik izan.

Atsegingarri izan zitzaigun gure taldeko batzuei. Guk geuk, ordea, Aldontzarentzat eskeiñi izan genduan usakune ñabar hura.

Gelbentzuren anima, zabala zan, itsasoa iduri. Haren galbaiaren neurririk ez nuan zertu. Gizasemeek alkarrentzako izan behar zutela, maiz esanik zeukan.

* * *

Urrengo udaran, Sonia gure mendi ezectarantz berriro agertu zanean, ez genion sumu aurpegi ta kopetan, are gutxiago begietan, lehengo mardul-antxa, lehengo argitasuna, lehengo izaera.

Auts-igurtzi lodia zeraman masailletan, eta begi-inguruetan ikazkiñaren ukitua. Halaere, ez zan hori urik eta txaboirik izaten ez zualako, aukeran. Emakuneen aize-joera zan. Ez zan aski, jakiña, berez polita izaterik. Politasun horrek astero ta maizago ere, aldatu behar gorria ukan ohi zuan.

Berdintsu-kutsua ezpaitzan haren gogoko zera. Aldako txoriaren izaera zuan maitakorrago besterik baiño.

Halatsu gizonetan ere.

Lege zaharreko gazterik ez zitzaion kolkopeko lore. Joan, etorri, ibili, aldatu horra neskatzaren gupil urduria. Halaxe, eguzkia berdintsu xamar izanik aspergarri baldin bada ere, illargiak ba ditu bere aldakuntzak.

Soniaren gogo, illargiarena baiño ere aldakorragoa zu. Beti herrizalea, lehen ikusigabearen egarri, urduritasunaren zimikoak noiznahi zirikatua. Haren buruko illeak ere, legum luze, labur kixkur, beltz, gorrista, urdin ta are berde ere jantzi izan zituan.

* * *

Esanak esan, Aldontzaren arnasa, Soniarentzako izan zan aspaldi luzean. Lehendabiziko maitetasunaten griña ta garra, ezigaitzak izan!

Entzun nuan, entzun ere, itsastar gazteak Soniari baiezko azken itza eman ziola, udako egun epelaren agur-une minkunean.

La Coruñan alkar arkitu zuten, ta Aldontzari ziri ederra sartu gogo izan zion neskatzak, Galiziko uri alai ta kristaltzu hartara, mutillaren galde soil-soillik eldu izan zala-ta. Lanbro eme ta ozkirri ezearen doiñuan eskeiñi zion Aldontza samurtuak, ezkontza-itza.

Soniaren asmoaren sakonak ez zuen ondarririk, agian.

Urzaik esan zidan berri hori. Ez nion siñistu. Eziña zitekean. Nik ez nuan behiñere Soniarik ikusi Madrilleko kale ta aretoetan, baiñan hemen gairdiko ibillerak, hangoen neurri borobilla ematen zidaten.

Eta zer? Ez, ezertxo ere ez. Hauxe soilik: ez ninduan bete Soniak bere jokabideaz, Aldontzari eskeiñia baldin bazegoan.

Besteak beste, neretzat opa ez nuana, ez nuan opagarri Aldontzarentzat batipat, baiña ezta beste iñorentzat ere.

Horregatik, arbindu nintzan, eta Aldontzaren senideei, haren jomuga jakiñerazteko eskatu nien, Ameriketa alderako joera zeraman gure mutil zintzoak eta handik itzultzean izango omen zan ezta-jaia. Halako kanpaiak aizatu zituan, behintzat, Sonia arrai labanak.

Aldontzaren senideei nire gogoaren egoneziña agertu bezin laster, irri ximela erakutsirik, batere ez estutzeko erantzum zidaten.

Ez zala, alegia, Aldontza, Soniaren sare mehetan eroriko ta galduko.

Ez dakit zer gertatu zan orduan, Aldontzaren barruan.

Geroztik ez da erriratu. Ameriketan bertan legorrera omen zan, behin-behingo, ta gero, Gran Colombiana untzietako itsasgizon bilakatu. Aldontza gizarajoa!

Eta geroztik ez dut jakin, Soniaren semetxo beltzeranaren aita zein izan zau.

E. ERKIAGA.

IRUGARREN GAUA*

Ots egin zidan Oianbeltz-ek.

Iraduzko otsa, leioak crtsi, atea crtsiago.

Dei egin dizut, azkeneko oharrak jakiñarazteko.

—Azkenekoak? —galdegin nion, erdi kezkaz.

—Bai. Lerro guztiak dute bukaera; ibaiek amaia: biziak etena.

Ez nion zearo ulertu. Halaere ez nintzan geiagorik ezer galdetzen ausartu. Erdi jaso bainion erran gogo zuana.

—Nireak laster egingo du. Baiña une hori eldu baiño lehen, nire zuhurtziak ikasi berri duana azalduko dizut. Zera, erranen dizudana, nire ilburukoa izanen dala.

—Bai. Irugarren gaua.

—Nola dakizu erran hori? —jalki zidan biziro, bere begi bakar argiduna bestea itsutua— niri begira-begira ezarririk.

—Jauna —erantzun nion urduri— berorrek agindu izan zidan bertsu illun batzuek egiteko... hura il zanean.

—Ta, egin abal dituzu?

—Bai, jauna; egiñak ditut. Eta ez dakit nun ditudan.

—Irugarren gaua!... Gau honen maindire beltz artean emanen dut azken-arnasa. Harako egun senti joria, hainbat bider joranezko amespean izana, ez da urbil, ez da bertan. Damurik!

* * *

Oianbeltz isildu egin zan.

Haren bekokiko zimurak geitu, buruko illeak urdindu, aurpegi-ko koloreak margulagotu ta argidun zuan begi bakarra lanopean jarritzenago sumatu nizkion.

—Orain dudan etsai-taldea ez da, alegia, lehenak baiño makalagoa.

—Lehengoctaz gaiñera?

—Oraingo doillar hoiek ere... Txanton Pipirriren aldi hartan ere ba ziran, baiña.

—Azalez ezagun ote dute lazkeri hori?

* *Egun*, 1-6, 1966.

—Ez, noski. Isillean ari dira. Ta niretarrak ere, joko biguin horren bide linburian eror ditezke. Areago. Sare mehe hoietan arrapatu nahi dituzte, eiki. Besteren lepotik gizenduaz.

—Ta, nola eragotzi hori, izpirituko gauzetan eta bihotzeko arloetan askatuak baldin badira?

—Askatuak!... Itz utsa. Uztarriak bazter guztietatik ikusteu ditut. Geroago ta areago. Idien taldea ez da bukatu, hala beharrez, ez irenduen sailla amaitu.

—Lokarriak eten nahi dituzte gizonak, ordea.

—Bai —erantzun zidan Oianbeltz-ek—. Gizonak, uztarriak puskatzen ahalegin egiten duten bezenbatean, beste gizon batzuek, —gizonak hauek ere, jakiña— uztarrigiñen ari dira. Uztarrigilleak eta puskatzalleak gudu etengabea ari dira, eguna ta gaua bezela. Eroak! Ergelak halakoak!

—Baiña, agian, gazteek, semeek ez dute izango bedorrek adiña begiramenik ez egonarririk. Oianbeltz.

—Beharrik. Gaiñontzerakoan ez dute gizaldi berriek aitzina joaterik. Erdi-mendera baizik.

Orduan, Oianbeltz-ek leio-alderantz eraman ninduan. Ta leio-oialak aldeetara bilduaz, geitu zidan:

—Etxe trinko ta gora hoiek, ikusten? Diruak sortu dituan kartzela berriak dituzu. Noski. Gizonak, andreak, umeak... lurretik gorago baldin badira ere, ez dira, ordea, zeruarengana urbillago. Aitzitik, lurretik urrunago jarri dituzte. Orain, lur-jabe ere, ez dira.

—...?

—Zintzilik biziko dira, txoriak izan gabe.

—Baiñan ez dute lokatzik zapalduko, arean.

—Iri aundiko miñak jo ditu, ta eri datzate. Ez dute geiagorik lurrik maitatuko. Halabaiña, asfaltoa iguin izango.

—Lurra guztiontzat izango da, noski.

—Ez, aurre, geroago ta ezago.

—Asarre-antza jarri nuan nik, eta orduan Oianbeltz-ek, irripar gozo ta mingotsa eskeiñi izan zidan.

—Lehengo aundikiak, Axular-en boteretsuak, bakarka ziran jauntto. Oraingo aldi hontan, berriz, jaunttoak, jauntto-talde bilakatu. Eta trinko elkartuak. Egoki estekatuak. Eta indarraren, diruaren eta zikoitzen erpeetan dakusat ondatu-agiñean nire ametserria ere. Esanak esan, erri horren gau luze honen egunsentia... ez dut nik neuk ikusiko.

Itz larri, legor ta samin hoiiek ebaki ondorean, Oianbeltz-ek arki zabalaren magalean etzin zuan bertanbehera bere gorputz nekatua.

Orduan, bakartade-miña nabari izan nuan bular-bizkarretan.

* * *

Oianbeltz-ek ez ikusiko, alegia, egunsenti mozkor ta alai hura, hainbestez ta hainbestez ames egiña.

Ots egin nuan, baiña ez otseñik ez miraberik ez seniderik ez zan agertu.

Oianbeltz bipilla, begiak zabal, ahoa zabalago nenkusan, arki zabalaren altzoan zerraldo. Izu-laborri nengoan ta ikarak burutik behatzetaraiño iñarrosi ninduan.

Nedukan zapi garbi garbia ezarri nion musu ubelaren gaiñean, eta handik aldegin nuan, isil isilla.

E. ERKIAGA

IKUSI BAKARRIK*

(Ipuintxu mingotsa)

Gabon usaña eldu zan uri aundiko kaleetara, eta apainketak aberastasunaren ezaugarri zirudien.

Alan bere, aberastasun aro orretan, czeukiak eta txiroak bere, auzokide izateko eskubidedun apal izan, arean. Aundikien alboan landerrak oi dira-ta; aaltsuen inguru, otseñak-eta.

Kale zabalenetako zugatzetan, adarretatik dindilizka, kolore askotako argiak, lokarri nabarrak, pitxiak, kanpaitzuak, eguzek baino bere, illunabarrean egozan zoragarriago.

Laterriko gobernuaren onu ta esanak gorabecera, jentea ez egoan gauzarik merkeen zale izanik biziteko asmoz.

Kanpoetako gauzak eta saleroskaiak eskabide aundiago eben, politika mugetatik barrukoak baino. Atzerri-diruen ezaugarriak eta agiriak nekatsuagoak izan arren, urruneko gauzak oi daben lillura ta izen arroa agerriago jakon erriari.

* * *

Kale aretako ertz batean egoan janari-edari denda luze zabalak, ganezkako emoia agertzen eban, bei esnetsuaren errape biribillaren taurara.

Ango edari-izen eta irudi ezberdiñak! Ango otzara ta zimeren oparotasuna! Ango eskaparate luzeen arrokeria ta kukurrukua!

Zumetzko ta izko otzaratxuak lastandua, kolore biziko zintz gurgilleriak, alako txairo antz berezia ezarten eutsan sail bakotxari aña eskaparate osoari bere.

Ango botillen eta txongillen izenak jakiteko gogoa eban edozeñek, ez eukan berakautakoa makala! Nok irakurri, bear zan lez, atzerri izkuntzetan ezarriak zituen apain-izenak?

Mutil koskor batek ikusi ta ikusi ziarduan izen bakan eta itz arrotz aek. Eskaparate luzeari begira eragoion arretaz, ekin luzean. Goitik beera begiratu ezkerre, errezto igarri zeitekeon mutiko ari, beartsuen seme zana.

* *Karmel*, 1, 1970.

Oiñetako zarpillak, kaltzerdi arre illunak, eta guztien gain, txartes zikin maiza eukan mutiko arek. Burutsik egoan, baiña aren uleak, ez eben agiri orraziazko kutuntasun aundirik.

Bera baiño geiago zana agertu jakon gerogarrenean albora, mutiko soster ari.

Ceiago zan eldubarria, bai urtectan, bai ondasunetan bere.

Baiña mutikoaren antzera, geratu egin zan eskaparate aurean; ainbat ikusgarri erakargarriei begira lotu zan, ziñez, a bera bere.

Urtetsuago ta aaltsuago zanak, begirakune luzeak egin eutsazan mutikoari; eta alakoren batean, berba bere, egin eutsan.

—A mutiko —esan eutsan zaldunak—; iñoiz ikusi al dok ainbeste gauza ederrrik?

—Ez, —erantzun eutsan mutil sosterak.

—Oraingo umeok etxoek aziera onik artu. Txotxo: ez jauna esan bear deusak zaaragoari erantzutean. Entzun al dok?

Gizon ezezagun aren bildur lotu zan mutikoa, nunbait, arrezkero isil antzean geratu zalako.

—A mutil, —ekin eutsan geroago gizon arek—; jateko ta edateko gertu jagozak or egon bere, egotekoak! Ba al dakik etzi zein egun doan?

—Cabon eguna.

—Ta, nun egingo dok ik Cabon?

—Aitagaz eta amagaz.

—Ba... nik etxoat aitarik ez amarik. Il zoazan. Ik aitaren eta amaren premiñea izango dok, aurki. Nik ez, orraitio.

—Zegaitik? —itandu eutsan mutikoak, ulergarri ez jakona ulertu guran.

—Gure aitak eta amak ez dauke dirurik. Aitak lantegi baten lan egiten izan dau, arik eta kalera bota dabean arte, gorria dala-ta.

—Eta amak ez al jok bearrik egiten?

—Bai, interiña dabil eta batzuetan praka zaar batzuk ekarten deuskuz aitarentzat, niretzat, nire anaientzat...

Gizona isilik lotu zan apurtxu baten.

Arik lasterrean, mutikoari begirakune barriak egin ostean, geitu eutsan:

—I ta ni, bardin samar gaiagozak, mutil. Or, eskaparate orretan agiri dituan gauzarik geienak, niretzat alperreko dituk, kaltegarri joadaz-ta.

—Zelan, ba, gauza orreek erosteko aiña diru ba dozu-ta?

—Bai, baiña nire urdaillak, nire gibelak, nire kuntzurruak eta nire zanok, orreen auzokotasuna kaltegarri joek. Orregaitik, nik etxoat or agiri dan ezer afalduko gaur gabcon, ez janari ta ezta edaririk bere.

—Nik bere ez.

—Ik... dirurik ez doalako.

—Eta zuk?

Itaun ori ain gozaro egin eutsalako edo, gizon zalduna isilik geratu zan, eta eskuak patrikaran sartu zituan.

Mutikoaren begietan itxaropen txingarrak dirdiz ariña egin eben.

Eta mutil sostorra zaldunari arpegira begira geratu jakon.

Gizon arek, ostera, albora bira egin, musturak estutu —eskuak aiña—, eta mutikoagandik aldegin eban, eta urrundu.

Kalertzean ostendu zanean, itxaropena galdubari eban mutiko gizajo arek, ezpan artean zertu eban, illun eta minbera:

—Daukanak, ez ete daki, eskatu barik emoten?

1969

Eusebio Erkiaga

GILTZ EGOKIA*

Aitak utzitako lantegietan ardura artu zuanean, ez zekian ondo Elortza gazteak, lantegi bateko nagusi izateak, alegia, olajabe izateak ohi duan astuntasuna. Amaika buruauste ematen daki ariketa horrek! Egunero ez baldin badira ere, astero izaten dira kezka ta axola, agintariaren barruan.

Elortza zaharra zanak, guztia lau ta zelai utzi ziola bere semeari, uste izan zuan ta azken-egunak sekulako bake goxoan eman zituan.

Egia esan, Elortza zaharrak halako aldi baretsuagoa ezagutu izan zuan. Baretsuago esateak, ez du zuzenagoa esan gura. Bai zera!

Munduan bildurrak aginpide zabalagoa zuan aldikada hartan, gazte banaken egitadak eta asmoak, nabarmenago, okerrago etsiak izan ohi ziran. Nork erantzun gogorrik eman aitari, orduan? Zeiñek ezer erantzun ugazaba zutiaren itz epaitzailleei? Ba zegoan oberik! Arik eta...

Arik eta, Marx-ek agertutako egundoko egi borobilak, munduko bide ugarietan zehar ibiltzen asi ziran arte.

Marx-en egietan, gezurrak egiak baiño ugariago zirala aitortu ohi zuan Elortza zaharrak; halaxe komeni izan zitzaiolako, noski.

Elortza zaharrak ez zuan beiñere Marx-en usterik zuzentzat jo. Esaterako: langileak, irabazietan neurririk ez nahi izatea: ugazabarentzat bai, ordea. Baiña, eta urte zakarretan, galtzaiak nagusi diranetan, langileak lagunduko ote dio ugazabari, zorpean ondatzeko arriskuan linburtu ez dadin?

Ez zuen, noski, arrazoi osoa Marx bizartsuak ere, beste iñungo gizonak ez duan bezela. Aginpidea, goikoari dagokio, ta saria ta zigorra banatzea. Eta behekoari, goikoaren esanera jardutea, zintzoa ta purrkatua izatea eta... ematen diotena artzea.

—Karl Marx aberatsa ta olajabea izan baldin balitz —cpaitzen zuan Elortza zaharrak—, ez zukean halako doktrina modurik agertu izango. Ezta!...

Jakiña, Elortza zaharra «belle époque» zalakoan bizi izan zan. Usadio zaharrean. Atau maiztuetan. Burukera ta pentsamolde urdin-ductan.

* Hegatsez, 1971.

Anartean, ezkertarren asmakizunak ziranak, eta beraz, gaiztotzat etsien joerak, ez ziran aintzat artzekoak. Agian, Elizak zer bait adierazi bitartean, gezurra ta nahaspila-bide besterik ez ziran langileen gehiegikeriak. Orraitio, Elizak ere itz egin zuanean, Elortza zaharrak diska berria sortu zuan, bere onerako.

—Elizgizonak sar bitez sakristi-gaietan. Ezagun da hoiiek langillerik ez dutena. Ezta ondorengorik ere, ondasunak obatuaz ta mardo-agotuz lagateko.

Lantegiak, bizi izango baldin bazan, gizon berriak, odol gorria, beso azkarragoak eta abar behar zituan. Eta, makiña egokiak ere bai.

Ez zan noski, apartekoa izango, Elortza gaztearen lantegia.

Eta Elortza zaharrak ezagutu ez zuana, hain zuzen ere, laister ezagutu beharra izan zuan olajabe gazteak.

Halaere, lantegi hartan gehienbat modu lehengoetan ari izan arren, langillerik, gehienak lehengo ezikuntzaz beteak izanik ere, ba ziran gazte batzuk, ugazabaren nagusitasuna zeharokoa zanik ontzat artzen ez zutenak. Batez ere, bat zan beste langilcen artean azkorrena, ezigaitzena.

Haren aho-mihietan, ítz zakar bi entzuten zituan, zorigaitzez maizegi, ugazaba dohakabeak. Itz atsekabegarri ta minbera haiek, hauetxek ziran: eskubidea eta sindikatua.

Eta aldian aldiko, Elortza gazteak asi zuan bere nekabide mingotsa.

—Gure aitaren denporan, ez zan erri txiki hontan, honelako auzimauzi latzik ezagutzen. Nola jarrai nezake lantegi hontan? Gazte oker hori kalera egotzi ahal bageneza! Deabruarengana jaurtiko banu? Nola, ordea, sindikatu bitarteko «lokarri» edo dalakoa, berbera baita?

Ta bateko hau zala, besteko hori zala, geldialdiak izaten ziran gaur bai ta bihar ez, lantegi baketsua izandako hartan.

Burukomiñik ba zuan, egia esan, olajaun berri harek.

Adiskide aspaldikoarekin topo egin zuan goiz batean.

—Buruko miña maiz izaten diat.

—Sendatzaillari agertu ahal diok ire gaitz hori?

—Ez duk midikuak zerizen dituan hoietaka.

—Zer duk, ba?

—Hara langille artean bat diat oso okerra, txit bihurria. Gañontzekoak nahasten, mutilla duk hura!

—Kalera bota zak.
—Nola ordea, «lokarria» ere, berbera baituk!
—Enkargadurik ba ahal duk?
—Bai, ba diat, aukeran zahar xamarra.
—Ba, hura saripean jarri eta... jar ezak enkargadu, gazte bihurri hori.

—...

—Entzunberri duk epaia.

Elortza gaztearen barruan, zalaparta izugarria sortu zuan adiskide min harek, osiñeko uretan erori arri aundiak antzo, ubin astinduak jasoaz.

* * *

Handik geroetara Elortza gazteak bere adiskide begiko hura arkitu zuan muturrez-mutur kalertzean.

—Kaxo, Elortza aspaldiko gizona!

—Kaxo, adiskide.

—Ta nola?

—Etxean ongi.

—Ta gainontzean?

—Lantegian ere, poliki poliki ari gaituk. Orain ez dik iñortxok ere txistik ateratzen. Guztiak lanean jo ta su, isilik eta txintxo txintxo.

—Ta langille bihurri hura?

—Ire esanera, enkargadu jarri nian bertatik.

—Ikusten!

—Ikusi, Marx-en doktriña ere, beste isurki batetik egiten dik orain, harek berak ere.

—Alegia, goikoen tajua agiri jarri zaio.

—Proletario mailla amesgarrian baiño bapoago bizi baituk orain.

—Jakiña!

GIZON TOTOLOA*

Mutikotxua zala, Iker noizean behin aititaren basetxera joaten zan, egun batzuk emoteko.

Pozik eta gozaro pasatzen ebazan egun apur hareek, basetxeko lagun mazalen artean eta batez be, lehengusu lehengusinekaz olgetan eta jolasean ibiliz.

Kalean ez egozan gauzak aurkitzen ebazan baserrian. Hango umetxu senideak atseginez emoten eutsiezan arasa-ganean edo txoko ezkutuetan gordeta cuki ohi ebezan intxaurrak, urretxak, negualdea bazan; eta okaranak, motako mailuki txikiak eta abar udabarri beranduan, eta kerixak eta albertykuak. Ceroago, ikoak eta sagarrak eta gaztainak.

Ikerrek, batzuetan, oinetakoak kalean baino errezagot zikinduten ebazan, patin inguruan, potxingo ertzean edo iraudan dzapa! urrats egiten ebanean, arean, leku zingiratsuetan.

Halan, korta ikuiluan zikindu arren be, behien eta txalen artean ibiltea, eta honeen bizkar eta mustur-ganeak igurzte, erakarkor eta guragarri izaten jakon Iker mutikotxuari.

Lehengusuak eskolara joaten ziranean, basetxeko ume koskorra-goekaz eta aititagaz —amama hil zanean, abadea eroan ebela ez jakon sekula ahaztuko— eta osaba izekoekaz egoten zan, baina beti be edo sarri behintzat, hara goiko bidezabalera begira, lehengusu lehengusinak eta auzoko basetxeko neskatiko politak be, noiz etozan ikusguran.

Atsedean unadetan, eguraldi onez, bost sei mutiko, auzunekoak, etxaurretik hurrean egoan arta zabalaren adar lodien ganera igon eta han jesarrita edo gora ta behera ezkurak hartzen ibiltzen ziran; bien bitartean neskatoak mutikoei begira batzuetan, potxingo ertzean uragaz jolasean hurrengoan.

Arbolatik jatsi, eta mutikoak, eskuzabal, neskatoei ezkurak bananduten eutsiezan, eta guztiak pozik, baktotxa bere etxerantz. Eurria zanean garaian, sagardao usaincan, edo labagelan, hemen bai zapatuetan ogi eta arto eta tremes errebarrien usain zoragarria, eta osterantzean, ganbaran, sabaian galtzeko edo jausteko bildura iza-

* *IKA argitaldaria*, 1984.

ten ebelako. Koltzan be, gauza politik egoten ziran, errotatxua, zorroztarriak, eta abar.

Eskolumeak bihurtu, eta bazkaldu baino lehen, gaztetxuok han urrintxuago egoan iturrira joan behar izaten eben, "Ur gozoaga" iturrira, tangartak eta txongilak hartu, eta aurrera, burdibidean zehar, batzuetan beherantz, hurrengoan gorantz. Iturrira heldu baizen laster, lehenengo ur drungadea tangartaren tapan edaten eben umeok, eta geroago, txongil eta kaikuak urez ondo beteta, bira etxerantz, jeurt egiten eben, bazkaldu eta barrero be azkar eskolara joan eitezau, iluntzerarte.

Orduko txakurraren izena Kanelo zan, gaztaina kolorekoa haren uler; guztiz olgetaria zan, mutilekaz jolasean eta igurtzietan ibilteko beti gertu. Astoak garra-garraka hasten ziranean, ostera, zaunka egiten eutsen.

Basetxeko eta aurreko etxe bietako lagunena adiskidetasunaz gancera, beste ezaupide bat eukan Ikerrek. Han aldapan goratxuago bizi zan baserritarrak, Ikerri halango amesbidea sortzen eutsan. Gizon hori morrosko samarra zan, baina txikerra. Beraz, gizon totolea zan; baina orduan Ikerrek, ume guztiak ohi dabena lez, berba batzuk oker esaten ebazan. Eta horrelan, gizon totoloari "gizon totonua" eritxon, eta inguruko guztiak be, irribarrez edo algaraz, "gizon totonua" esaten eben.

"Gizon totonua" berbeta gozokoa zan, Ikerri lilurazko berbak esaten eutsazan, eta gauza bakan eta erdi zoragarriak eukozala sinistuerazo. Berbarako, etxeko bazterretan eta ganbaran hainbat koloretako eta modu ezbardineko txoriak, txintak eta kantik sarri aldatuten ebezana txori ikusgarriak. Ohepean, erbiak ibiltzen zirala. Eta ganbaran, ganera, erleen eztiak, soloan mokila baino ugariago. Eta intxaurrak eta, mizpilak eta... Jaungoikoa lagun. Teilatupea bete-alean egozan gauza bitxiak

—Etorriko haz morroi gurera? Etorriko al haz, Iker? —esaten eutsan txitean pitean, gozaro esan be, "gizon totonuak".

Totonuak ez eukan umerik, ez eukan seme alabarik, umezale itzela zan arren.

Ikerrek haren berbak entzui bai, baina irribarre egin eta ez eutsan inoiz be, baietzik esaten.

—Morroi etorten bahaz, hirezat izango dozak txoriak, erbiak, eztiak eta igaliak. Asto txikerraren ganean ibiliko haz gura doan guztian.

Ikerrek irribarre, baina baietzik ez.

Txorien kantuak benetan gustatzen jakozan mutikoari.

Baina txoriak ihes egiten ekiela be, jakin ba ekian. Horraio, baserritar patxaratsu haren esan koipeak, zarrada biguna egiten eutsien barruan mutikoari, lur samurrean euri zaparrada maminak egin ohi dauan antzera.

Eta alkarren antzeko ziran egun hareek emon ostean, Iker aititari eta enparauei agur egin ondoren, gurasocngana joan zan, kalera.

Hurrengo udan, Iker basetxera bihurtu zanean, biharamonean ikusi eban "gizon totonua". Sekulako txerea egin eutsan etxaunak, eta ohi eben lez, bere eskeintzea egin:

—Gurera morroi bahator, hango txoriak, eta erbiak, eta... gauza guztiak hiretzat izango dozak.

Ikerren burua, ostera, argitzen joian, eta bere lehengusu lehengusinekaz totonuaren erbien eta txorien autuak erabiltzen ebazan.

Iker zer honezaz konturatu zan:

—Gizon totonuaren basetxea hantxe, hur-hurrean, aldapan goratuago egonik, eta lehengusu lehengusinakaz beti auzoan bertan bizi izanik, zelanik ez eben sekula be ez txoririk, ez erbirik... ikusi edo susmau?

Gura ta guraez, morroi joan behar ete zan, basetxe hatako patari politak ikusi ahal izateko?

Kezkea sortu jaken umei, eta zalantza ta duda usaina totonuaren berba gozoak zirala ta ez zirala.

Basetxeokak irribarre egiten eben eta alkarri begiratu, umeen erdi ixileko barriketak entzutean.

Egunak txiri txiri joan ziran, eta Ikerri handik alde egiteko ordua hurreratu jakon. Lehengusu lehengusina zaharrenakaz, batzar ixilekoak egin ebazan, etxera joan aurretik. Arrats beranduan, amagaz joan zan kalera Iker.

Biharamonean, goizean, basetxeo umeak eskolarako gertu egozanean, aldapan beheara arrapaladan nun datorren Peru Zarakondegi, "gizon totonua".

Zoli egiten eban berba, eta ezkerreko besoa bizkarraldean ezkutauta ekarren.

—Nun dago Iker, gurera morroi etorteko dan Iker hori?

Aitita eta osaba izekoak erdi harrituta egozan, totonua hain goizetik atartera etorkiela ikustean. Eskolumeak labagelara sartu ziran

arineketa, eta hango leiho zabaleko egurrezko langa zutunduen bitartetik kurika ziharduen, barreari eutsi ezinik.

—Iker nun dan dinozu? —erantzun eutsien basetxeakoak—. Bart joan zan amagaz herrira.

—Ikusten al dozue atartearen mukitaren gainean itxi deustan txori koloretsua?

Eta hori esatean, bizkarraldean ekarren eskua aurreratu, eta mantar bategaz estalduta ekarrena agertu eutsen han egozan guztici.

—Sekulako txori lumatsua! —esan eban karkaxaz aitatik.

Bai zera txoria! Patata galanta zan, oilo-lumaz bere inguru guztia josita ebala, eta mustur batean, piku antzean, arta-ezkurra polito ipinita.

Egundoko barre algarrak egin ebezan guztiak.

Eskolumeak, arrapaladan urten eben labagelatik, trumonadea izan eitekeana, barre gozoetan amaitu zala ikustean.

—Ai, Ai! —deadar egin eutsen, burlezar, totonuak umeci—. Zuek jakin dozue, jakin, barrabanok, Ikerrek “gizon totonuari” erregalau gura izan deustan txori kantaria zelangoa dan...

Eta umeak eskolara ihesi joan ziran, aldapan gora barik beste bide baten zehar, barre ta barre, lehengusua be han urrunean bere lagunei kontetan atseginez ibiliko zala uste izanik.

ARPEKO MARI*

Baserriko mutiko aurpegi gorri bat kaleko eskolara hasi zan. Begi baltz baltzak, bizi biziak.

Lehenengoz heldu zan egunean amagaz etorren. Goizerdi ingurua zan eta neska-mutilak jolasunea hasteko egozan.

Txomin konturatu zan lehenen.

—Ene! Mutiko barria dator eskolara, baserrikoa —esan eban.

—Aufa! —gehitu eutsan beste batek, pozarren.

Umeteri gehiena jolasera joan zan. Txomin-eta, ostera, han hurrean geratu ziran. Neskato batzuk be, han alborago egozan.

Irakasle baten aurrean, ikasle barri izango zana han egoan, amaren ondo ondoan, burua makurtuta, baina noizean behinka burua apur bat jaso, ta begiak ezker-eskuma bizkor erabiliaz, barriro be lurra begira jarteko.

—Txoriak lez begiratuten dau —esan eban Txominek.

—Txori artean haziriko umea izango da-ta —erantzun eutsan, patxadaz eta irribarreka, Simonek.

Gerotxuago ama joan egin zan, eta irakasleak ikasle barria beste mutikoengana eroan eban.

—Umeok! —aldarri egin eutsen—, laguntxu barri bat dozue eskolan ibilteko.

—Izena zelan dau —itandu eban Txominek.

—Zeuk esan —inotsan Irakasleak, zirikatua.

—Andres —erantzun eban heldubarriak.

—Zelaaan? —diadar egin eben heldubarriak.

Ikasleak alde egin eban barrurantz.

—Zelaaan? Ez dogu ulertu.

—Andres —esan eban gogortxuago.

Inguruan egoan aldrako mutil batzuk, barrezka, algaraz, kantuan hasi ziran, sarritan entzuna gogoratuaz:

“Andres,

Andres,

katua negarrez;

ama,

* *IKA argitaldaria*, 1934.

ama,
ana iturrian,
kaka eperdian...”

Han aurrean egozan neskato batzuek, bai mutilei hasarreka esan be:
—Lotsagaldukook!

Mutilak, neskatoen agirakea gorabehera, bigarrenez be, kantuari ekin eutsien.

Andresek musturrak estutu eta ingurukoei begiratu eutsen.

Lehenengo zerean, bere burua bakartadean ikusten eban.

Horraitino, eskolara barriro sartu baino lehen, mutikoetariko hiru-lau, lagun barri egin jakozan, eta Txominen eta Simonen besoak sorbalda ganean ebazala joan zan bere ikaste-lekura.

Iluntze hatan Andres basetxeratu zanean, ama arduratan egoan, bere semeak eskolarako gogorik-eza agertuko cte eban. Baina, bai zera! Andresek ez eban halango berbarik aitatu, lehenengotan burle egin eutsiela, etxekoei azaldu eutsen arren.

* * *

Andres, kaleko eskolumeen artean ondo zertu zan. Ikasteko zale-tasuna agertzen eban eta eskolako zereginetan errime aurrera egin.

Hotz egoanean pelotaka egitea gustatzen jakon, eta epel edo bero egoanean jolasaldietan kontu-esaten batzen ziran aldrakoak arbola-pean. Ordurako, aldrea be, handiago zan.

Urte batzuk horrela joan ziran.

Kaleko mutikoak horko ta hango abilkeriak, guzur eta abar esan ohi ebezan, eskuak eta gorputzagaz zeinu ta paristak eginaz. Andres, halango kontu garratzak entzun arren, ez zan aho zabalik, konkortuta geratzen. Ipuinen haria eten edo egiten zanean, orduan leun leun gehitu ohi eban:

—Horra ba; Arpeko Marik, barriz!...

—Zeer?

—Ba dakit nik...

Eta hurrengoan eta hurrengoan, barriren barri goiak eta beheak, atzera-aurrera itzelak kontatzen ebezanean, Andresek, ezer esango ez baleu lez:

—Bai ba; Arpeko Marik, barriz!...

Andresek etxerantza aldegin ondoren, Txominek eta Simonek euren artean:

—Guk handiak esaten doguzanean, Andresek Arpeko Mari...
—Arpeko Mari nor dan itandu behar deutzagu bihar bertan.
—Hori, hori!
Esan eta egin.

* * *

Biharamonean, jolasunea heldu zanean, mutiko lagunak:
—Zuk, Andres, Arpeko Mari aitatuten dozu sarri.
—Sarri ez, batzuetan.
—Baina, nor da?
—A, bazenkie jakin!... Han gure inguru guztian ezaguna da.
—Bai, e?
—Zer esan bakoa.
—Ta, nun bizi da?
—Bizi ba... Arpean. Horregaitik da...
—... Arpeko Mari —esan eben danak.
—Jakina, ba.
—Eta, zer egiten dau?
—Zer egin? Harek?... Hori... ezin leitekio inori edonoiz esan, edozein egunetan.
—Noiz, ba?
—Trumon-egunetan bakarrik. Beste gauzak orduan esatekoak dira. Eta han goian, mendian.
—Horrelan ba, gu hara gora... trumoiak joten dauan egunen batean?
—Horixe.
Eta Andresek, piperra baino zerago gehitu eutsen:
—Kaleko mutil bildurtirik ez dau ikusi gura izaten.
—Guztiok batera joan ezkerre, ez dago bildurrik.
—Ondo da; baina lagun lar joaterik ez da komeni. Lehenengo txandan batzuk joango zarie, aldra bat. Eta beste batzuk hurrengoan; berbarako, Txomin, Simon...
Mutilak baietzcan geratu ziran, eta eguna izentau behar izango zala. Horraitino, Txominek eta Simonek euren artean barrero be:
—Hauxe dok ederra! Lagun zerenak geu izan, eta hurrengorako bazterrean laga gaitu.

* * *

—Ta, Andres, noiz joango gara ba, Arpeko...
—Begitu, laster hasiko dira trumon-egunak, behin maiatzera ezkerre. Maiatzeko domeka arratsalde baten, trumoiak jotzen dauanean...

—Ta ziur zelan jakingo dogu?

—Goizean eguna bero badator, zerua hodeiz eta laubroz beteten hasten bada... zuok, bazkal-ostean tipi-tapa ekin aldapan gora.

—Arperako biderik ez dakigu, baina!

—Ez dozue zetan jakin be. Urrategi auzunean gora jo, ta han laster dago San Martingo ermitea.

Hantxe egongo naz zeuon begira.

* * *

Maiatzeko domeka hatan eguzkia min-min etorren eta mutikoei goiz sargoritsua luze egin jaken, batean herriko erlojuari begira, hurrengoan hodei txikiei ta gero hodei moltzoei begira. Hegohaizea zoro zoro ebilen.

Mutilak zubi-ondoan bazkal-ostean alkarrenganatzan hasi ziran. Une guragarria ganean eben. Txomin eta Simon, joaterik ez ebela-ta penaz beterik egozala, agertu be ez ziran egin.

Eguzkiak hodeipean zeharo kuku egin eban eta haize errea kiribil dantza gangarrean ebilen, orbelkak eta zaborreria batzen.

Mutilak Urrategi auzorako bidean gora jo eben.

—Trumoa entzun dot —esan eban hareetariko batek.

—Nik, barriz, oinestua ikusi dot.

—Ni euri-tanteak jo nau belarrian.

—Alperrena joten dau lehenen.

—Hona hemen Salomon!

Hor eta hemen itaunak eginez, burdibidean gora heldu ziran San Martingo ermitaraino.

Andres han egoan.

—Trumoirik entzun ete dozue? Ba, nik entzun dot. Hiru bider jo dau. Laugarrenez jo orduko, Arpera heldu behar dozue.

—Urrun al dago?

—Ez, ba.

Burdibidea laga ta zidorrean eta oin-bidean zehar joiazan. Andres aurretik, erakusle antzean; besteak ondoren. Otak, sasiak eta elorriak han egozan euren arantzak, euren ezpata zorrotzak aterata. Horkoak zizt eta hemengoak zazt; urrakadak mutilen eskuetan eta berna biloizetan.

Heldu ziran koba txikiaren aurrera. Euri-tanta lodiak hasi ziran eta koba sarrera ondoko aterpe estu hatan, horma kontratan alkarri

sakaka egozan. Alboan egoan zulo iluna, sakona, baltza, ixila. Barrutik hozkirria etorren, lezo antza.

—Aiko, bildur? —esan eutsan mutiko batek albokoari.

—Ez... txixelarri besterik ez.

—Ba daukazu nun egin.

—Baita zeuk be.

—Ta... nun dogu Andres?

Guztiak alkarri begira hasi ziran eta han ez zan Andresen gerizarik be agiri.

Tantak zaparrada bihurtu ziran, eta geroago euria botalan zan. Haizeak intziri egiten ebala zirudian eta txixelarri ziranak ugaritu egin ziran.

Oinestu ikaragarriaren eta trumon-orroaren osteango ixilunean, bat-batean... han, koba barruan sekuleko burdina-hotsak, uluak, kankarro-hots itzelak, eta demorrioko zaratak, eta txakurren zaunkak, txakur amurratuen ausiak, eta zantzo zoroak.

Mutilak, alkarri berbarik be egin barik, tximisteak baino arinago aldegin eben Arpetik, euri mamina burutik behera ebela.

Nundik eta handik San Martingo ermita ondoan zehar, aldapan behera joiazan arineketan edo narrasean.

Urrategiko basetxe bateko atartera busti busti eginda heldu ziran mutikoak, etxekandre maratzak sukaldera eroan ebazan.

—Nundik zatoze ba, mutil ederrok, jai eguneko jantziok lexiban sartuta?

—Arpetik —esan eben, arnas estuka.

—Arpean zer egoan, ba?

—Andresck eroan gaitu, trumon-egunetz Arpeko Mari ikusi daigun.

—Ta, ikusi bai, gero?

—Ez, e... txakur amurratuak...

—Elorrioak!... Zatoze sutondora ta siketu hemen zeuon jantziok.

Ta sagardoa emon eutsen andra maratzak, barreari eutsi ezinik irauan eban luzaroan.

·Etxerakoan, bidean behera, mutiletarik batek esan be bai:

—Hau dok kalekoari ziria sartzea!

TRONPA TARTAINA*

Neguko iluntze aretan be, kai-erriko eskola mutillak euren ikasteregeña amaitu ebenean, kontsejupera joan ziran.

Tronpa-sasoia zan eta mutikoek, bakotxa bere tronpea eta korde-la patrikeratik atara, eta guztiak asierako aprobak egiten zertu ziran.

Era ezbardineko tronpak edo ziboak eukezan.

Tronparik morroskoena Manuk eukan. Barrabaskeriak egiten ebazan tronpa mardo arek. Entzutetsua zan. Koloreak be ezarrita eukazan, biribillean, gerrian eta sorbaldan.

Aldi aretan eskolumeak ez ziran asaro bizi, eskoletan neguan berogailurik inoiz ez inoiz ez egoalako. Azkordiñak ugari izaten ebazan.

Ziboak arta-egurrez eta pago-egurrez egiñak izaten ziran. Arretzezkoak be bai. Ziborik eskasena Jon Txetxurena zan, tartaiña, saltaria, "lorik" egiteko gauza ez zana, arek teman baietz esan arren. Bai, tronpa-kordelik politena Jon-ena zan, baiña baita ziborik tartaiñena be.

Azkordiñak gora-beera, kontsejupuan tronpa-jokozko ariñeketak eratuten ebazan, aterpearen luzera osoan joan-etorrian iru-lau ostera egitea; osterok diruak egiten ebazan, tronpa dantzaria eskutik-ara diru ganera jaurti, eta onen abiadea amaitu arte, jokaldi bakotxean.

Dirua, txakurtzikia edo zentimo bikoia izan oi zan, batzuetan ondarez igurtzi-igurtzi eginda, urregorri antza emonikoa. Talde bakotxak bere txanpona erabiltzen eban, tronpearen takarrekoa artu-alean, saltoka edo narras ariñean aalik urrumen joan eitean. Ormara eltzean, bira beste aldera, eta olantxe, jokia amaitu arte.

Joko ori mutikorik ausartenak eta leberrenak asten eben. Manu onen artekoa zan. Beste mutikoak areei begira lotzen ziran, euren gogoia bataren ala bestearen alde agertuez eta atsegiñez denporea emonez.

Apur bat nagosiago ziran mutikoak zokondo baten alkarregaz batu eta etxean osturiko matakinto tabako apurra erreteko aalegiñetan ibilli oi ziran. Gauzak trukegitea be, ardurazko zeregiña izaten eben: karameluetako pelikula ataltxuak, pelotak, liñoa sartzeko flau-

* Zer, 78, 1984.

tak, arrainetarako kordeletak eta jokoan ibilteko "zantarrak" eta "kantarruak". "Zantarrak" pospolo kaxatxuen azalak ziran, geienak motzak, merkeenak; orraitino besteak, karuagoak irudidunak ziran; eta tratuan besteek lango bost edo amar balioten eben, plazakoa zelan ebillen. "Kankarruak" lustre-kaxa zapalduak ziran.

Oneek gauza guztiok jokoan erabili ezezik, truk-egiñez ganera, zorrean edo zorko be lagaten eutsezan alkarreri, baiña geroago, biur-tze orduan, geigarri zerbait be lagatzailleari emotekotan. Dirua euken mutikoeak, arria egoan lekuan txanpan eta parretean egiten eben, arik-eta abuzilla agertu, eta diruak bertan beera laga, eta ies egin arte.

Karrerren jokoa asteko, kontsejupe erdian egoan karatxarri bizi antzekoa zan unerik egokiena. Antxe ipinten eben txakurtxikia alde batekok zein bestekok.

Orduan, bakotxa bere tronpea dantzari jarrierazo, eskuagaz artu eta zirulika ziarduala, tronpearen zambulua erara parau eitean besoa erabili, eta aukeran dzin! tronpearen gerriagaz dirua jo, eta an joaten zan dirua urrun edo ez ain urrun. Gertaten zan tokian, barriro be, bear modu bardiña, bizkor, esaniko osterak amaitu arte.

Tronpea eskumeagaz artzen eben geienek; exkertiek, ostera, ezker-ragaz zertzen eben euren jarduna.

Orretan aspertuten ziranean, korroan egiten eben Lurrean, arri-ganean beti be, gredeagaz edo untzegeaz oboa edo marra biribilla egiten eben, eta aren erdian obotxua; au da, galtzen joiazeneztako gar-bitokia, purgatorioa.

Biribileko joko orretan agiri izaten ziran tronpalari guztien erre-mintak: lodiak, sendoak, luzeak, zapal antzekoak, erkiñak. Tronpa sendoak, jatorrak, zirulikan eskuan artzerakoan gozozoak ziranak, astunak arren tronpa sedea eritxoenak. Lurrera sokea askatu-ala jaurti eta lenengotan biribil andia egin eta gero, toki berberean geratu eta "lo" egiten ebenak, beti biraka, lerdin, indarra amaitukeran itzartu, hurra gerriagaz igurtzi eta narrasketa ostean geldirik lotzeko.

Erdiperdiko tronpak lo egitea, alperreko guraria zan, eta oneen artean tartaiña Indiako paria antzeko cristen zan, bazterren barrag-ari.

Egun aretan be, korruko jokoa egitea erabagi eben. Obo andia ta obo txikerra markau, eta ekin mutillan, aal ebanak aal ebana. Ziboa-ren dantzaldia obo nagosian, barruan asi bear zan. Ibilkeran obo nago-

sitik urten ezkeru, prest egoan barriro be jaurtiduteko; baiña obo nago-sitik kanporatu ezik, azken narrasa barruan egitezkeru, tronpeak aska-tasuna galdu eta obo txikian atxilo laga bear zan. Andik berez urtete-rik ez egoan joko bitartean, beste tronparen batek takarrekoa emonez, atara ezean. Norbera jolastu eta urkoaren tronpeari lagundu, zelanbait alkartasuneko jolasa zan. Iñoiz, besteren tronpea askatuerazo, eta nor-berena aske ez geratutea be, eitekeana zan. Jokoaren arriskua.

Cartsu eta joranez asi ziran mutikoak korruan. Tronpea erabilten azkarrenak nortzuk ziran antxe ikusiko zan. Bakotxa bere ziboari dantzan eragiñez. Tronpa batzuek, arro eta jasean dantzan egin eta obo nagusiaren marratik kanpora urten eben. Beste batzuk, barriz, jauskera txarra izan edo erabilera moldakatxa, obo nagosian, urten barik gerta. Eta orra! utsik egoan obo txikerra, tronpa atxilotuz bete-tan asi zan. Orduantxe etorren zerikusia ta biotzen pilpirea; barruko-ak zeiñek atarako, zelan urtego, eta abar.

Jon Txetxuren tronpa tartaiña be, laster zan purgatorioan. Ango barre zoro eta zorrotzak!

—Aupari ta kazkarri madarikatuok alakuok! —esan eban ezpan artean Jon Txetxuk.

—Ez ikaratu, laster atarako dogu-ta —zertu eutsan lagun batek.

Batzuek tronpak eta jaurti eta besteak tronpa askatuon jauskere-aren zain, ikntu bigunez ala takarreko sendoz... askatuak izan cite-zan, artega ta urdui, laguntasun eske, baiña grñiaz eta kezkatu.

Aske ebiltzanen jauskera arro eta ibilte apaiñak, atsegiña eta garraztasuna, biak batean, emoten eutsezan ainbarik geratu ziran tronpalariei. Baiña itxaropena dirdiz euken bularretan. Aske laster...!

Alangoren batean Manu esku. Ziboari sokea egokiro lotu gerri-raiño, eskumako besagaiñez indartsu hota eta artez joan zan obo txi-kerrera, an preso egozan tronpen gane-ganera. Bai aparau be!

Eta eukan pisuagaz eta eroian indarrez, etzunda egoan tronpa a-reetarik bat bizkarrean jo... eta glak! azpikoa erdibi egin zan. Aska-tzailea arro etorren obo nago-sitik kanporantz, mutiko batzuk deadar egin ebenean! "tartaiña"!

Jon Txetxu amasa barik geratu zan. Orraitiño, bapatean, arro eto-rran Manuren tronpeari oratu, iésari emon, eta portuan moilla ertze-tik uretara jaurti eban. Atzetik jarraitu eutsoen mutikoak begira ego-zan, eta tronpeak uretaratueran plost plost! dzanga egin eban. Ur azalean obo gero ta andiangoak zabaldu ziran, ixil ixilik.

Manuk, bere senera zanean, Jon arrapau gura izan eban. Alperrik. Onek, bere tronpa tartaiñaren azken baltzari gatxez erantzunik, ospa egin ebalako. Orduan, mutikoetarik batek, Manuri zearretara begiratu-
tuez:

—Plost plost... bai ederto esan dauala!...

ERKIAGA'TAR EUSEBIO

XIMIN JENDEAREN BILTZARRA*

Moscoun hasi zen istorio hau. Larunbat arratsalde batean Zoo berrian zegoen ximino gazteak Voronov doktor jaunaren liburu bat —kaiolatik hurbil norbaitek utzitakoa— eskuetan hartu eta hura irakurten gau osoa eman zuelako.

Ximino gazteak bere hezlearen boligrafoa ostu eta liburuan irakurriaren berri emanez bere ama Ximin andreari idatzi zion, anartean alargunberri zenari.

Alegia, Voronov jakingura harek gizonari kemen berria eskeini nahirik, ximinoaren gorputzera jo zuela, eta hain zuzen ere, ximinoaren koskoilak aukeratu zituela, gizon makalduari txertoa egin ahal izateko.

Ximino gazteak ba zituen lehendanik ere gizonarekiko zalantzak, harako Darwin-en idatziren bat irakurri zuenez gero.

Noski, ximinoek ez zutela beste modutako pataririk menderatzen eta gizonek bai, gizonek hainbat modutako piztiak mende zeuzkatela.

Hor ikusi Zoo berri hortan bertan. Hainbat eta hainbat abere, kaiola barruetan anitz, beste batzuk ez hainbestean.

Eta kaiolen giltzen jabe beti eta beti gizona.

Bere ximin-jatorria ahantzi nahirik.

Horra ba. Hori aski ez zela, ximino preso eukiz gainera, horien gorpuzkiz baliatze berri horri ez zion inolaere zuzen iritzi ximino irakurleak.

Zezenak irentzea aspaldietakoa zen. Izan ere, zezena bildurgarria bait zen, mendez mende. Eta lur-lanetan aritzea, atsegina ez zitzaiona. Eta orduan gizonak zezena idi bihurtu zuen.

Eta aspaldietakoa zen orobat gizona gizonaren etsai zela eta oilarrek egiten duena egin nahi izatea. Ordea, inguruko etsai horrek bere antzekoari jokorako gogoia kentzeko modua asmatu; alegia, zezenez eta oilarraz egina berbera.

Bainan... eta ximino dexentearen izter-saguetan ganibeta sartzea, hori doilorkeria garbia, sarraskia besterik ez zen. Eta bizia zuzenean kendu ezik ere, sorkunde eta bizia emateko soinaldea alfer uztea, ize-nondo gabeko itsuskeria izango zen. Jasan ezina.

* *Argitaratubakoa*, 1984.

Siomondarrek noizbait beraien aldeko zirkinaldia hasi zuten bezala, ximinoek ere, Ximinartea (gizonek Gizartea halaber), Ximinartea antolatatu, zaindu eta indartzeko premi gorria zutela.

Afrika magalean bizi zen ama Ximinok, arretaz zabaldu eta jakinarazi zien bere kideei Moscouko albiste zirikaria. Ximinarteko jende zeheak berehala jaso zuen gizonaren seta gaizto horren berria. Eta pixkanaka, goragoko jendeagana ere heldu zen Ximinartearendako jazarpen arriskuaren susmoa.

Kontinente beltzeko ximino guztiak lanean hasiko ziren, elkarren lehian. Biltzar orokorra... Hitz hori zebilen harik lasterrean ahoz-belarri.

Unadako gaiak aztertzerakoan, munduko Biltzar Orokorra antolatzeari oniritzia eman zioten Ahaide Nagusiek; alegia, primateek. Eta hortarako, egunik galtzeke, beste Continente guztietako ximino guztiei gaztigu berehalakoa igorriko.

Ximinarte osoaren Ximinbidetari berriz ikertzea, sakona halaere, egin behar zitzaion, hogeigarren mende atzena baino lehen.

Urduritasun sendo horren eragile izan zena argiro aipatu beharrez, mezupaper orotan, txalogarri bezala, maskota antzera jarri zuten zera, Moscou-ximin gaztea, itxaropen zuzpertzalea.

Lehenik, mundu osoko Ximin-komunitateen erroldak osatu beharra ikusi zen, eta cdozein estadistika aldikotu beharra.

Af eta As aldeetan, ba zeuden erroldak berri xamarrik, baina Am eta At lurraldeetako zenbaki zehatzik eta ximin-jardumen azken albisterik ez zegoen, Zoo berri zenbait geroztik jarri bait zituzten. (Berlinberatasun joeran, Europa arruntaren ordeztu At idazten zuten, Atlantidan galdu ziren Ximinoen oroipenez).

Gizonaren seta gaiztoak ez zuen ateraldirik ximin jende apal eta bakezalearen aurkako bultzadan.

Lehenbizikoko urtearen erdian Afrikako demografi zernolak bilduko zituzten. Bigarren seilabetekoan, As eta Am lurraldeetakoak, eta agian, At osokoak ere.

Bigarren urtean zehar, beraz, zernola ugari izango, Biltzarrerako estrategia antolatzen hasteko. Primateek gertu zeuden behar zen dirua aurrez emateko, interesik merkeceanean egin ere.

Eta horrela, hirugarren urtean Biltzar Orokorrerako deia eta ospakundea bera ere, egikizun izango, ziur asko. Uztarriak puxkatzen eta

erretzen hasteko garaia laster helduko zen eta Ximinarte gaztetuak Ximinbide modernoaren oinarriak jarriko, Ximinerri batasuna oihuzkatuz.

Moscou-ximin gaztearen amak, joranez eta bere burua agertu beharrez, informatika tramankulu batzuk, bigarren eskualdikoak, erosi zituen eta Erakundeari doarik eskeini. Horraitio, ama Ximino bildurak jo zuen bapatean eta seme mocouitari giltz-hitzez idatzi zion.

Ximin moscouiarrak berehala teletipoz erantzun: "Nire kaiola zaina boltxebikia den ariora, ni ere erdi boltxebikia naiz, eta kurtsilo laburraren ondorean zeharo boltxe izateko aukera ezin hobeagoan nago. Alde hortarik, ez dago batere kezkarik. Gizonak, beraien ezjakintasunean, guztiak bardinak dituzu. Zure eskariari adi, alegia, Ximin-Biltzar Orokorreko lanetan ari direnen gurariari adi, txostena egingo dut, eta Balt nahiz Beltz Itsasondora joango naiz, eta hondartza inguruko zuhaitz luze adartsu batean idatziko. Ongi izan eta laster artio,

Xim Txik, Moscouiko."

Biltzar nagusi koordinatzaileburuak atseginiak handienaz jaso zuen txosten horren mamia. Eta noski, bidea irekiten zuela, beste goimailako Zoo guztietako Xim Txik guztiek, eta are urtetsuek ere, berdinki joka zezaten.

Gerotik gerora ibilteak, zera, luzamenduak ohi duen nagia eta zabarrera gerta ez zedin, Biltzar Orokorren Dei zabala Boletin Ofizialean argitaratu zuten jadanik. Hitz mordoa argi ta labor emon nahirik, Boletin ofizialeko Biltzar Orokorra B.O.-ko B.O. izango zen; beraz, BokoBO. Hona hemen Ximin orrendako dei-ikurra.

Handik hamar egunen buruan Londongo, Parisko, Moscouko, New Yorkeko, Pekingo eta Tokioko albistari eta eguneroko nagusietan lehenengo orrialdeetan letra izugarritz eman zuten egin gogo zen biltzar horren iragarpena. Are gehiago, Javako egunkari zabalduenak lankideen hiru artikuluko ere agertu zituen. Prado del Rey-ko gizon bizardunek, bere garaian, Biltzarreko bilera garrantzitsuenak zuzenean erakutsi nahi izango lituzkeela adierazi zuten Xim-Lurret-bis-tan zehar edo haren bitartez.

BokoBO gertaria geratu ezina bilakatuko zen.

Parisko eta Leningradoko Pazkunc jakintsunek batzorde tipiak eratu zituzten. Gizartearen pare Ximinarte sendoa jarriko zen mun-

duko bost ataletan. Abere moeta askotako kudeatzaileek ere, ziote-
nez, delegadu bereziak bialiko zituzten Biltzar ezezagunera.

Ezarian iragan zen lehenbiziko urtea eta egindako lan ixilak
urrats handi zirudien. Behintzat, Koordinatzaileburuak guztiz positi-
bo etsi zuen.

Emigrazio bitartez Afrikatik alde eginak asko izanak ere, han
gelditu zirenen atzeko buztandunen eta buztangabeen sabelpeak,
—ximindarrenak erran nahi da— osorik eta onik zirauten, zori onez.

Munduko giza-laterririk aurreratuenetakoek Biltzarrera sikologo
taldeak bialiko zituzten, obserbadore gisa.

Hogeigarren mendeak bere amaieran, aspaldietan gerta ez zen
Ximinarte indartsu eta izugarri progrea ezagutuko zuen. Susmo guz-
tiek iragarten zutenez Gizarte/Ximinarte izango zen inolaere zahar-
kildurik zebilen mundua, iraunkor jarriko zuen alternatiba.

Plaza gizon bi horiek, Gizartek eta Ximinartek alegia, deuseztatze
aginean zegoen mundu kirastua salbatu egingo zuten, oreka egokia
bilatuz. Hortarako, galgarriak oro kendu beharko: giza iskilozaleari
bere tresna madarikatuak urtuz, asmatuberri zen kimi itogarri oro
ezereztuz, haizeunea txoriendako laga eta itsasoaren sakona arrai-
nentzat utziz. Eta gizonak sortu zuen armarik gaiztoena, gezurra
hain zuzen, behin eta betiko hodeien azpitik, itsas-uren gainetik eta
lurraren azaletik —eta are harpeko zuloetatik ere— suntsiaraziz.

Biltzar orokorrerako apailuak egiten hasi eta aintzin-urratsak
eman-ala, Ximin-sendiko Ahaide guztiek, bai Nagusi, bai Txiki,
beren buruak agerrarazi zituzten. Biltzarrerako ere ez soilik zerbait
diru zorretan lagatzeko, gertu zeuden Primate Txit Jatorrak. Lehen-
dakaritza-mahaian toki gorena eta ugaria eskatuko zutenez gero,
hori burutan izanik, beste aulki-lerroak mailaz-maila izendatuko
ziren eta zehetasunak begi-aintzinean izanik gertakizunak somatuko,
zuhurtasuna erakuspenua orotan agerturik. Agian, ximinoak oro joan
ezina izango bait zen, ordezkarien portzentaia erabaki beharko.

Parisko Xim Txik batek bere ohizko egunkarian nahasbiderik sor-
tu ez zedin, lantto bat idatzi eta hara bialdu zuela, alegia, Ximin esan-
dakoa argitalpen hartan Chemineau bezala jorratua izan bait zen.

Biltzar-deia zeharo jendakinki eta axola handiz eta grinatsu jaso
zuten Gorilen leinuak, Orangutanen leinuak, Txinpantzeen leinuak.
Oniritzi bete-betea iritsi zen. Beherago-eremuetaoena ere, noski.

Hiri-giro sortze hortan, Xim askatuen mailakoez Xim langileen (menperatuen eufemismoa besterik ez zen) sail izugarriaren sentimena mindu nahi ez-eta, biltzar-deietan eta agiri orotan, uztarribean zeudenak uzkurdurarik eta gutiesterik izan ez zezaten, Xim (pregiz) eta Xim (posgiz) deituraz aipatzen zituzten.

Biltzarreko bilkuretarako paparreko ikur-txartelak kolore berdineko egingo zituzten. Letra-jokoa kontinenteka apailatuko: Af. As. Am. At, baina txartelaren beheko zokoa ezkerretara, Pre letrak edukiko, askatuen mailakoez: eta Pos letrak, ordea, ezker aldean, etxetik kanpora lan egiten zutenen txartelek.

Gainerontzekoan, biltzarrerako jantziak ere berdinak izango zituzten, pixama biguinak, barneko motza, kapela borobilak buruan, eskularruak, oinetakoak; eta atzeko buztana libre, euki zeukatenek.

Antolapenak azkortu eta agurotu egin ziren, beharrik, eta hala, bigarren urtearen erdi inguruan Asia zabaleko eta Ameriketako estadistikak zehaztatu ezezik, munduko beste zokoetako ximinen gora beherak ere, burutu xamar zeuzkaten. Ondorioz, Biltzarrerako zirrihorro erabatekoak taxutzen ere hasiak ziren. Udako oporren ondorean Biltzarrerako gaiak oro, egunak eta lekuak ere buruan erabili zituzten, eta mundu borobileko TB zenbaitez adiarazi albiste gogoangarria BOKoBO Biltzarra Afrikako toki bitan eta beraz, aldi bitan ospatuko zen.

Gaia hain sakona eta zabala zenez, komisino tipiek jo ta ke ekin, zioten bideko lahar eta belar kaxkar oro kentzeari aurrerantzerako kernalak bildumaturik jarri arteraino.

Eta geroztik, lerro nagusiak Biltzarrak berak finkatuko.

Beraz, lehenbiziko aldiko bilkuretan argitasun eta zehaztasunak zernalak eta eztabaida tipiak bahetuko. Bigarren aldikoek, ordea, izango zuten eragin sendo eta indartsua, ernagarria eta crabakien ordua ere, etorkizuneko Ximinartea antolatzeko eta Ximinbidearen garapen eta hedapen gorena mamitzeko, anartean Gizarteak izandako nagusigoa berdintzea iritsi arte.

Hogetabatgarren mende-hasieran Gizarte eta Ximinarte munduko potentzi aldizkako bilakatuko, eta beraz, beste mila urterako pakebide borobila gerturik jarriko.

Tokioko espia bat harrapatu zuten Afrikan, batzorde-aintzitiko batzordepeko talde-ataleko xizkin bateko hiru laguneko mordoxkaren aztarnategian dokumentuen fotokopiak ateratzen ari zenean.

Kukuzari hori Primateengana eraman zuten berchala. Horien aginduz, hogetamaika metro luze zen zubaitzaren adar gorenean, puntatik hurbilean lotu zuten, ez galtza, ez galtza motx. Egunez, Txori superegaldunek geriza egiten zioten eta dozenerdi datile jaten eman. Gauzez hurrera jeisten zuten eta Goril Night Club berezian loarazten.

Espi honen gertaeren berri Izvestian agertu zuten, eta beste erresumetako kukuzari-ikasleak ilcak latz, lauorrian zeuden, iragan-txartelak erre nahiz itsasora edo ibaietara jaurtikitzeraino.

Biltzarrerako istudio-arlo larrienak itxuratuz eta xedatuz zihozten: Jatorria eta jatortasuna, beraz, sorterroa eta etorbidea ta ondorioz, eskubideena.

Jakintsuen txosten luzeen laburpenak egin behar zirenez, adione-ko test anitz taxutu zituzten. Itzulariak egundokoan lanpeturik zebiltzen, ximindarrak kontinente guztietara aldatuak zirenez gero gurasoengandiko ximizkerak ere, aldaketa zenbait jasan zuelako.

Hastapeneko bazterralde bilkurak bakoitzak bere hurasoan egingo, arrolioaren garesti mehatxua gainean zegoen eta. Errazpidez Brasilen, Indian eta Urruneko Ekaldean ordezkariak bereziak antolatu zituzten. Egiptologoez beren jakituri laguntasuna eskeini zuten. Ximin jakitun batzuk antropologoan lan modernoak heriosuar ikertu ondorean Ximinologia antolatzen ari ziren. Lehen tomoa BOKOBO-ren hasierako goibileretara eraman ahal izateko, inprentara garaiz biala beharrez, eske-ma nagusiak eta zirriborroak tarrapatan mamitu nahi zituzten.

Gaztelan zeuden ximin gazteek hango hiztegi tipia hornitzen hasi ziren. Mono, mona, izen eta izenondo; monada eta moneria, izenak hauek ere (monada =bakun, bakarki, beste eremu bateko zen) esangura polit antzera. Horraitio, monigote ere jaso behar, goganbeharrez bederik. Eta ele-moldeko erran hau ere: "ximinemea sedaz jantzi arren..." Ximinarteari irain egitea ez ote zen.

"Jatorri" arloaren oinarri-lanak... Ordurarte izandako zalantza ikasita eta batez ere Darwin-en ustari osoa ximinizkerara itzuliak, geratu zenean, Primate batzuen seme unibertitariet Darwin-en azalpenak berandu zetoztela adiarazi zuten. Bada, agian, gizona ximinartearekiko ihestari zen, soilik.

Gizonak bere aintzinamenduan zer egin du? Mintzatzea asmatu. Mintzate horren alabarik handiena zein? Gezurra bera. Eta iraina, eta azpijokoa, hitzez antolatua.

Ximin jator irauten duenak, ordea, buruan duen asmoa eta jakituria eta zuhurtzia ez dio besteri agertzen; beretzat gordetzen du, argia delako, pakezalea delako. Behintzat, gorde izan ditu orainarte.

Orain, ordea, progre-izurriaren ukitua izan eta gizonaren axuta eta mehatxua jasan ondorean, ximin jakintsu eta letradunak idazten hasi dira. Horren jarraian monitoretza eraikiko, ximinerria alfabetatzeko, lehenbizi ximinera idatzia irakatsiz. Geroago, fonetikako korapiloak arautu bezin laster, mintzaira modernoa sortzekotan.

Horretarako, premi gorriak zirikatuta, ximin filologo eta ximinizkeralari ausartenak Israelera bialiko, Siondarren hizkel-irakaskuntzaz bertatik jabetu beharrez.

Txosten batek arazo latza sortu zuen, horraitio. Noski... ximin bera, gizonaren oinordeko eta jarraitzaile balitz, zer?

Atzeko buztanaren sorreraz ere, argudioa piztuarazi zuten. Gizonak atzeko buztana galdu egin al du, ala gizonak ez zeukan atzeko buztan hori, ximin enda azkarragokock antolatu ote dute?

Eta eztabaida horrek beste puntu hau azaleratu: ximin eta gizon baino lehen, zein izan zen lehendabiziko bularduna, ugaztuna, titiduna?

Zena zela, ximin eta gizon erkatzea egin behar zen lehenik. Mendeak mende, bitzuok gaitasun zeharo berdinak ez zituztela zirudien. Erkatzeak bateratzea lekarkeela, eta hori, soluzino bikaina izango. Horraitio, batasuna ez zela berdintasuna. Esaterako, gizarteak bere seme batzuk ilargiraino bialti zituela; alabaina, ximinartea ez zegoen gerturik horrelako ahaleginketak burutzeko.

Bainan bestalde, gizona biesku zen, soilik. Ximin oro, ordea, lauresku. Gizona ez zen gauza —Tarzan salbuespen— zuhaitzetan abarrik-abar jauzika ibilteko. Ximinoa bai. Eta bi oimen gainean eta lauazka ibilteko, eta lauazka igoteko. Gainera, zimin-leinu batzuetakoen atzeko buztana, boskarren esku bezala etsi zitekeela.

Txit nabarmen zen ximinbidearen analetan ez zela behinere gezurtirik ageri izan. Aitzitik, gizonaren kroniketan datza: “Gizon oro, gezurti.”

Gizonak ximin-mailaz bereiz, irrifarra egiten ikasi omen zuen. Damurik, regre izugarria gerta izan da hogeigarren mende erdian, hor eta hemen “Egizu irrifarra, arren” errana-k hitzez eta idatziz erruz zabaldu izan bait dituzte zeltiberlur eta ingurumenetan.

Are gehiago. Hor irakurria izan da: “Hogeigarren mende amaierako azken laurdenean, gizonak ximinoak baino serioago bilakatu dira.”

Etorkizuneko arazo larrien artean, gizonak doan bidetik ekarriko duen hondamendia eragozteko lan eta lan egin beharra. Iskiloak eta kimika, izakari bi horiek lurraren azaletik suntsiarazteko ihardukizun noraezeko eta luzapidegabekoa zen Ximinartearendako.

Bien bitartean, munduko primateek beren hartuemanenez eta elkarrekiko indarrez eta ahaleginez, pakea zaindu nahi. Primate esatean ximin/gizon ulertu behar zela. Ximinek ere, kasko urdinak eratu.

Azken orduetako agerpideak argi ugari ekarri zutelako, ximinerria zinetzi-mailan ere, gora ta gora zihonan.

Azturak bide garbia jarririk zeukan eta aztergaiak poliki jorratzen hasi ziren ximin haundikiak eta primigeniak eta ximin eta ximinkoi oro, orangutan eta txinpantze eta gorilak.

Dossier mardulak zituzten engoitik; zernola-elementa baldetan eta apaletan.

Gorila morroskoak eta txinpantze argiak eta azkarrak sintesiak bahetzen ari ziren, irargiak arakutzen zituzten, Indiatik eta Malasiatik etorriarazitako gibon gazteak, bibliotekari besoluzueak lagun egoki zituztela.

Buztandun ximinoek gertu zeuzkaten beren isatsak, hautsez beteriko paper-xortak biguinki igurtziz garbitzeko. Katirriñoek atseginez hartu zuten izendatu zitzaizen lana eta emandako agindua; lanik gabe zeuden eta bizikatura dexentearen jabe ezin bait ziren, aldizko.

Oroigarrien artean, han zeuzkaten harako Phitecanthropus zutiakoa (lehen aztarna Javan zuen), han Sinanthropus pekindarra, han Mauer-en matrailezurdun presapiens. Eta geroago... iluntasun osoa.

Ximin—> gizon. Gizon—> ximin. Eta homo sapiens fossilis.

Eta enda txuriko hezurak, Cromagnon eta Chancellade.

Eta beltzekoak, Grimaldiren haurrak.

Eta geroeneko Teilhardi azkarraren omega puntua.

Nahiz eta Ximin enda kimi-zale eta odol-ikertzaile ez gerta gizon-lanen berri izan zuenean, bere ustea indartu besterik ez zuen egin. Alègia, goril primigeniaren eta gizon gezurtiaren odoleko hemoglobina kasik alderik ez zegoela; aminoazido bat bakarraren aldea.

Gizona, txinpantzea baino zer bait handiago eta gorilaren neurri antzekoa delarik, pongido moetak izan zitekeela ere aipatu zen han. Batzorde gorenean.

Are gehiago —eta horrela zihoazten aztarnarik aztarna; Afrika sartaldeko izaro batean Hannon-en aldian gorila izena zuten emakumeak gizaseme ala ximineme ziren, inork ez zekien, gizartean behintzat. Ximinarteari zegokion misterio hori argitzea ere.

Txosten batek galdera eta jaukipen zorrotza zekarren; nunbait ere, arratoinen historia negargarria, Biltzar Orokorrek oroimenean josi behar zuena. Alegia, *Rattus rattus*, hau da, arratoi beltzek, kalte egingo zien beren kideen bultzada izugarriean beren leku aberatsetatik anka egin behar izan zutela; etsaiak *Rattus norvegicus*, arratoi nabarrak izanik.

Horrezkero, kasu ximinoek —arratoi beltzek— gizon arratoi nabarrari. Azpiratu ezezik, irendu nahi gaitu eta —bukatzen zuen txosten ernagarri harek—.

Aterakizumen lerroan hau ere jarria zuten. Ximin, gizonaren ustez antropomorfo baldin bada, ximinak gizona ximinomorfo dela aitor dezakeela.

Heldu zen astea, heldu, Afrikan munduko ximin ordezkariak oro biltzeko. Etorberriak abetaltzeko gerturik zeuden ostatuak eta senideen etxeak, basoak eta oilhanak. Paperak pila izugarria metatuak; janari edariak tegietan gainezka. Elefante nexkak gertu biltzarkideei urezko garbitasunak egiteko.

Lehendakaritzako Batzorde Iraunkorreko hogetabat primate bil-durik zeuden lasai ibaiaren ondoko baso urdinean, ilargi beteko gauan. Hasierako hitzaldia idazten jarri eta berehala, lurrikara esker-ga izugarria somatu zuten. Inguruetako abere saldoak oro tarrapatan suntsitu ziren eta zuhaitzak eratsiak izan ziren eta ingurumen zaba-lean su handiak sortu eta baztarrak erre ziren.

Iraunkorrekoek lur satortuari atxikiak zur ta lur ikaratu ziren. Munduaren azkena ote zen?

Goizaldean, cercopiteco bat, buztana erreta agertu zen, eskuan mezu hau zekarrela: “Kuwaiteko kablea. Giz, gure etsaiak, Exocet jaurtikiko zuei andanaka. Gibelatu Biltzarra hor lurpeko etxeak gertu arte: Ximin Intelligence Service.”

BASOTX*

Neguko gau haretan sutondoan enbor lodi zaharrek xixpor xixpor zihardutenean, amonaren inguru bost anai-arrebok bildu ginen.

Abenduko gau luzea izango zen, amonak gauak bi zati zituela esan ez baligu.

Afaria goizetik izan genuen. Ondorean, larunbata bait zen, lotara baino lehen jostaldia izango genuela adiarazi zigun, gozara, amonaxo maiteak.

—Amonatxo —oroitarazi zion gutariko txikiena genuen Alexek—, noiz esango diguzu Basotxen ipuina?

—Egia, amonaxo. Hainbeste bider aipatu diguzu eta behinere ez kontatu Basotxen gertaria.

—Basotx, ai Basotx... basojaun txikia! —esan zuen astiro eta misterio mintzoz gure amonak— Zuek oraindino kontu lardaskatuak entzuteko...

—Bai, amona. Ez gara beldurtuko.

—Beldurrez jartzen denari kokolo eta inuska esango diot, eta behinere ez da gau ilunean kontakizumen entzule izango. Bai ote?

—Bai, bai, amona, kontatu, kontatu —erantzun genion guztiok.

Orduan amonak cztarrian garramaztua zertu ondorean, ahots apalez:

—Ai, Basotx, Basotx...! Inork ez zuen jakin gure baso eta mendietarantz etortzeko gogoa noiz agertu zuen. Urteak dira...

Hemen lamia bat, Izarnel bere izena, hemendik urrun eta urrun ero ero joan zanean, han Baso beltz ospatsuan egon omen zen aldi batez.

Han zegoenean eta zebilenean Basotxek Izarnel ezagutu, eta ordu-tik gero, beti heren ondorik eta haren jarrai ibiltzen omen zen.

Maitemindu ere egin zen eta Izarneli argiro adiarazi zion: "Izarnel, maite maite zaitut".

Izarnelek, ordea, ihardetsi:

—Baina ni ez naiz hemengoa. Alderdi hauetako ohidurak eta usadioak jakitearren soilik heldu bait naiz zuen herri honetara. Laster be noake berriz ere nere lurraldera.

* *Argitaratubakoa*, 1985.

Basotxek lehengo maite-aitorrera bigarren aldiz agertu zion.

Basotx orduan mutil sendoa eta indartsua zen.

Alde batetik barnean izugarrizko atsekabearen eta mingostasunaren haizea somatu zuen Basotxek bere lurralde ederreko eremu, landa, zelai, baso eta oihanak utzi eta erbestera joan behar izango zuelata. Baina Izarnelekin bizi izango zela amets eginez, liluraz eta atseginenez ganezka jartzen zitzaion barrena. Muino eta mendi eta baso eta ibai berriak ikusiko zituen eta Izarnelen maitetasun doinuz beterik bizi izango.

Beraz, Izarnelek Basotxen bihotzean erein zuen maite-hazia erne egin zen eta loratu ere bai.

Izarnel hemen, Euskalerrian jaiotako lamiarik politena omen zen. Haren ileli ugaria urrezkoa zen eta dirdizaria haren begien argitasuna.

Haren musu horobilean ezaugarri apainenak bildu ziren.

Ahoan agertzen zitzaion irrifarrak normahiren barrena piztutzen zuen, eguzkiak egunsentian gizartea eta abereak pozez jartzen dituen antzean.

Belarritako bakar ikusgarri polita zeukan.

Basotxek behin eta berriz galdetzen zion beste belarritakoa nonbaiten galdu ote zuen.

Izarnelek ezetz. Norbaitek ostu ziola, soilik.

Norbait hori zein ote zen axolaz eta kezka zebilen Basotx.

—Amona, eta Izarnelen eskuak...

—... eta oinak?

Eskuak... halako eskurik ez zuen Basotxek inoiz ikusi. Horregaitik biziro xarmantak iruditu zitzaizkion. Esku guri haietan muin emateko imintzioak maiz egiten zituen, baina Izarlanek ez zion behinere muinik ematen utzi. Horrelakoetan, Basotxen bihotzari mingostasuna zerion.

Belarritako berria eskaintzea otu zitzaion.

—Han, gure Herriko oihanetariko baten —adiarazi zion behin Izarnelek— haritzondo lerdnaren aldorrean omen dago belarritako eder honen aizpa. Berdin berdina dena.

—Eta zergatik...

—Ezin dut nik haritzondo horren aldorreraino igo, Basotx. Mika beltxuriak han izkutatu zuena bizardun batek hartu behar izango luke.

—Oihanik ba al da zuen Herri haretan?

—Bai, anitz dira, hemengoak baino ferdeagoak, hezeagoak. Lehen ere inoiz adierazi dizut, baina zure oroimena txatxoa da —ziotzan erdi pipertsu Izarnelek Basotxi, honen epeltasuna zerbait zuzpertz nahiean.

Basotxen kopetan izurrak sortu ziren.

—Eta gainera, han ba dugu zuk inoiz ere ikusi ez duzuna.

—Nik inoiz ez ikusi? Zer duzue, ba?

—Itsasoa.

—A, ba dut entzutea.

—Horraitio, entzutea da bat, eta ikustea eta jakitea beste bat. Itsaso hura da munduko arrainik gozoenak dauden tokia. Horrelakoxea da gure itsasoa.

—Zelaia bezalakoa omen.

—Bai, zelai bizia, ordea. Pake aldian urdina da eta ferdea ere bai. Orduan da zelai luze zabal mugarik gabea. Zerna goietan, haren iduriko.

—Eta arrainak...?

—Arrainak barrenean bizi dira. Urezkoa da haien etxea, urezkoak bideak, urezkoa...

—Aspertzu egingo dira, beraz, hainbeste ur eta ur.

—Bai zera! Belardiak ere ba dituzte, eta basoak, eta harpeak, eta hondartzak, eta txirlariak. Behinere ez dira egarri. Itsasoa jolasti da, gainera. Noizean behin, ordea, haserretu egiten da. Muturrak loditzen zaizkio, ezpainak gizentzen, eta sekulako indarra gorderik duenez, besoak eta bularra eta oinak hanpatu eta zelai paketsu hura, irakiten ari den eltzeko ura bezin dardaretsu eta borborborkari bilakatzen da. Ur azalaren bagak eta ulinak sortu eta zerurantz hegaldatzen dira. Hura uraren indarra, kemena, orroa, Ekaitza duzu, eta kaioak eta antxetak ere, beldurrak jotzen ditu, eta lehor alderantz abiarazten.

—Nik ere ba dakit basoetan, oihanetan ekaitza sortzen. Horregatik dut Basotx izen hau.

—Baina itsasoaren erasoa eta basoko haizeena ez da berdina. Itsasoak halako haserrealdietan ontziak irentsi egiten ditu, txiki nahiz haundi bere sabelera sartu, guk marrubiak iresten ditugun bezala.

Izarnelek kontatu zernolak adituz, Basotx harrituta eta kezkatu geratu zen.

—Ontziak irentsi...

—Bai, barneko gizon, andre, zahar, ume ta guzti.

Izan ere, Basotx jaio eta bizi izan zen tokitik urrun semar egon itsasoa. Halaere Basotxek Izarnelen maitakundea iritsi nahiean itsaso hain beldurgarriarengandik hurbil samar ere bizi izateko, gertu zego-ela adierazi zion.

Itsasoen eta oilhanen gaindi Izarnelen edertasuna eta bihotza zeu-
dela sinesten bait zuen.

—Eta Basotx Euskalerrira...

—Bai, ba, enetxook. Beldurrak noizean behin Basotxi barrena estutu eta azala zimurtzen bazion ere, azkenik Basotxek bere jantziak bildu, oinetako sendoak ongi lotu, biderako puxka lehorra zuzendu eta urritz makila eskuan zuela, Izarnelekin batean honantzako bide-ari ekin zion.

Zorionez bideak poliki egin eta Auñamendian zehar tontorrik tontor zetoztela, Kantauri alderantz heldu zirenean...

—Zelai handi bakan hori? —galdegin zion harrimenez Basotxek Izarneñi.

—Horixe duzu gure Itsasoa. Horren odola ura da, ez ordea ibaie-
tako ur geza motela, ur gazia baizik. Odol bizia da, geldirik egoten ez dena. Horraitio ez doa ibaieko ura bezala beti beherantz. Itsasoko uraren ibiliak bai gora, bai behera izaten dira. Gaua eta eguna bira osoan ari direla, itsasoko urak bi bider gorantz, bi bider beherantz ohi doaz.

—Eta ez ote zaio burua nahastutzen?

—Inoiz ere ez. Are gehiago. Eguzkiaren eta batez ere, ilargiaren indar ixilarekin harremana baitu, aste birik behingo egun jakinctan, mugitze handiako izaten ditu itsasoaren urak. Gainera, urtearen joanean, lau aldiz, izugarrizko goi-behe marrak iristen ditu.

—Eta guztiok iresteko ahalmena baldin badu, horren aldamenean zergatik bizi zarete?

—Ahalmen izugarria du, noski; baina haren kemenak bere legeak ditu, eta horiei men eginez, bere orduak zeharo neurtuak ditu. Toki jakin batean atzo ura noraino heldu zen, ba dakigu, eta zein ordutan. Bihar noraino eta zein ordutan helduko den ere, jakin dakigu. Harri-
garria, ezta? Bada, hemendik urte batera ere, itsasoko ura noraino eta noiz helduko den jakin dezakegu. Gizon jakintsuek liburu mires-
garrietan idatzirik dituzte, eta hantxe datza egun bakoitzeko goraldi eta beheraldi bikoitza.

—Basoan ez dugu horrelakorik.

—Basoan, ilargiaren eta eguzkiaren bideen berri izaten dugu, Basotx. Horraitio, ibaiak, errekek, iturriak hurrengo urtean urez ugari edo murriz izango diren jakiterik ez dugu.

—Eta horko arrainak?

—Uretan zoriotsu bizi dira. Uretatik kanpora ito egingo lirateke. Gu, ordea, uretan murgildu, eta igari jakin ezean, ito egingo. Igari jakinez gero, ur azalean luze eta zabal etzinik egon gaitetzke, txoriak ere egun paketsuetan ur gainean egoten diran bezala.

—Hori bai zoragarria. Zu, Izarnel, ene atseginarean handiz ezagutzen zaitut. Laster zuen itsasoa ere ezagutuko, eta hartxe nik atsegin izango.

—Gu... ibaietan, erreketan, iturrietan ibiltzen gara. Ura dugu maite. Ur geza, ur gozoa. Itsasoan, ordea, senitartekoak ditugu.

—Senitartekoak?

—Bai. Andre-arrainak.

—Eta zure antzeko...

—Begira. Horiak zer berezia dute; gerritik gora, emakume eder dira, bular borobileko.

—Eta behetik, lirainago?

—Behetik, arrainaren itxura dute. Itsas handian ibiltzen diren arren batipat uharteen inguru eta itsasertzetan biltzen dira. Gainera kantariak dira, eta haien kantuak hunkigarri bilakatzen gizonentzat, liluratuta gelditzeraino.

Une haretan Basotxok ez zion ezer crantzun ez galdetu Izarneli.

Eguzkia tipi tapa zilhoan bere bide ixilean zehar eta inularreko hodei gorriak dantzari ari ziren goietan.

Izarnel ere ixilik geratu zen. Kezka batek zizta egiten zion bihoztean.

—Zergatik, amona?

—Zergatik...? Anartean, Basotxen barrenean Izarnelen irudia txit errotua zegoen arren, Izarnelek zerbaiten susmoa hartu zion. Alegia, Basotxen buruan, irudimenean beste emakume baten zernolakoa sartzen ari ote zen. Zalantza ari zen, beraz, lamia liraina, eta zalantzak maizenik, behazuna dakar.

—Behazuma, amona?

—Bai, laztaña. Bezuma gure kolkoan izaten dugu belar txarretako bat duzu. Mingostasuna sortzen du lehenbizi, geroago samina. Behazunak jende ugari erre du. Bekaitz bihurtzen baita; bekaitz.

Izarnel eta Basotx Añamendiaren oinetara jatsi zirenean, honen barrenean txerren bihurriak zebiltzala esango nuke.

—Nor da txerren, amona?

—Mundu honetako bizitzaldian, gu konturatu gabe maizenik, txerrenen bat edo beste gure aldamenera heltzen zaigu, eta bere borondateari ziri eta ziri eginez, azkenean sarri askotan, haren gogoia egiten dugu, eta ez gurea.

—Txerrenak nolakoa du jantzia?

—Hurrengoan esango dizuet Patxiko Txerrenen ipuina. Begira. Bidasoa ibai ederrera heldu, eta Basotxek itsasoa eta beraz, itsasertza ikusi nahi zuela adiarazi zion Izarnel bere lagumari. Honek, nekatuta zegoela eta ibaiondoko harri baten gainean atsedean eginez, hantxe itxedotea erabaki zuela. Halaere, Basotx itsaertzean kontuz ibili zedila eta aguro bihurtzeko agindua eman zion.

Basotx, begiak zabal zabalik, itsasoaren marraraino joan zen, lehenbizi erdi beldur, gero orde, ausartago. Itsasoko aitzetaraino ere joan zen, andre-arrainen bat nun susmatuko, nun ikusiko, nun...

Itsasoaren marruak eta uhinen plisti plastek zorabiatuak jarri zuten. Bainan, haren irudimenean, haren buruan beste zerbait zebilen.

—Zer, amona? Haizea?

—Haizea, noski. Gurariaren haizea. Basotx urduri bai urduri zegoen. Izarnel ez baina, honck kontatu zion andra-arraina bilatzen zuen. Idoro arte, ez zen haren barrena baretuko.

Hantxe, miresgarri zitzaion bits zuri artean agertuko zitzaiola. Horixe sinesturik zebilen Basotx.

Doinua ere entzun uste zuen, andre-arrainen kantu bigun gozoa, noski. Inoiz entzun ez zuena, bainan barrenak adiarazten ziona.

Aitez aitz saltoka joan zen, azken aitzera heldu arte. Aitz pika eta erpina zen. Gero eta hobeki entzuten zuen harako kantu xarmanta. Amodio hasperena; alegia, bidezti eta itsastar galdua galtzenago zezaketen kantua.

Zerualdean inularreko argiño zilarreztatutak izeki ziren.

Aitz bakar erpincan zegoenean, han behetian, uraren zirimol berezia soinatu zuen, kantua ozenago bilakatu zen eta, xurrust xurrust, andre baten burua eta bular hanpatuak uraren barrenetik azalera ziren.

Haren begien ederra, haren musu argia, haren lepo-aitzina, haren...

—Andre-arraina?

—Bai, ba. Uretan agerturikoak Basotxi laguntzeko eskatu zion. Basotx, durundua belarrian, lausoa begian, aitzean beherantz abiatu zen.

—“Eskua, emon egidazu eskua”, —ziotsan erdi muxin, erdi limuri, agertuberriak Basotxi.

—Bai, xarmant hori nik salbatuko zaitut, nik...

Beste hitzik ez zuen Basotxek ebaki. Irrist egin eta uretaraino zili-purdika joan eta hantxe murgildu.

Uhinen zipirri zaparraz gaimetik glu, glu, glu...! oihartzuma entzun zen.

—Eta andre-arraina, amona?

—Ez zuen inork ikusi geroztik.

—Eta Izarnel?

—Izarnel itxedon eta itxedon aspertu zenean, itsasalderantz joan zen. Mariñel zahar batekin topo egin zuen, eta hari galdetu inguru haretan mutil sendo bat ikusi zuenentz.

—Gazte sendoa? Noski. Azken aitzeraino joaten ikusi dut. Gero aienatu egin zait, suntsi ene ikusmenetik. Horraitio, geroxeago glu, glu, glu aditu dut.

—Eta... andre-arrainik? —galdetu zion Izarnelek.

—Hori nahi izan baldin badu, han aurkituko du, noski.

—Mariñel zaharrak ahoan zeukan pipattoari tengada luzea egin, kee txuria atera eta beste hitzik gabe, handik aldegin zuen.

—Eta Izarnelek amona, zer egin zuen?

—Izarnelek ere, alde. Bere basoko iturriraino ihes egin zuen eta hango ur gozoa edaten ari zenean, kantu hau entzun:

“Eperrak kantatzen du
goizean intzetan
ez zaitezela fida
gizonen hitzetan...”

IXILAREN EDERRA!*

Uri haundiko bizimodu zaratatsu eta esturazkoan hainbat urtean iraun ondoren, Nestor langile eta lanzaleak, bere emazte Pauline lagun ebala, erabagi itzela hartu behar ebala esaten ekian.

Lan neketsuaren buztarriean egotea, preminazkoa ebela uste izan arren, itsumustu antzeko aroan beti bizi izateari ez eritxon horren atsegingarri.

Urteen berezko nekeak eta lan jarraikoaren izerdiak eta ardurak jasan ondoren, gorputza eta besoak ahulagotu, makalagotu egin jakozala sinestu erazo eutsan bere buruari. Bere buruari lehengoko eta emazte Paulineri hurrengo. Hau, Nestor baino urte mordotxua gazteago zan.

Senarra uri haundiko alderdi bazterrean munduratu zan. Emaztea, barriz, uriaren erdi inguruan jaio eta hazi. Uri haundiko kalerik nausienetan, plazarik jatorrenetan, ibilpide eta egurasteleku jentzez beterikoetan ibiltzen zale-zalea zan.

Paulinek denda eskergak zein denda txikiak, jolaslekuak, kafetegi apainak, zine antzokiak eta eleizak be, sarritan zapaltzen zituan. Uri haundiko aroan bizi, ibili, iraun. Aroan, emakume urduriaren antzean han hor hemen ibiltea, eta horrelan azkenengo albistea, zurrumurrua, sendietako gorabeherak, ezkontza, banatze, umegaltze, lapurretak, porrodunen bilerak, politikea be, tartean zala. Paulinek jasoteko antena onak zituan.

Gogoko izaten jakon hain lekutara joatea, beste toki horretara heltzea, bere burua erakutsi baino besteen zerak, aziorraziak astindutea gurago. Bai, orraztutea eta jorratzea.

Atxurrik bako jorrak eta saraketak. Ahoan barruan preso dagoan hazur-bakoari datzan eraginez.

Etxean egotea be, gustauten jakon, baina kalera urteteke egun osoan, hori... croangaitz egiten, aldapa.

Goizean, goiz beranduan hoba, kalera osteratxua, egunerako janari behinen bila. Bezperan zerbait eroan ahal izan arren, ez zan jasa eta ganorea dendara agerraldia ez egitea. Eguzkia ixilik ibiliko da bere bidean zehar. Emakumea ez hainbestean, soimutsuago, berba-

* Argitaratubakoa, 1985.

tsuago baino. Honeen artean Pauline kalakaria; inoren kontra be, ez; baina, ekin!

Jagi ta baterakoan, senarrari gosaria gertu jarri. Horixe eguneko lehenengo zeregin arduratsua.

Goizean ohi diran gorputzeko garbitasunak zertu, gosaria barruratu, atondu eta han joan ohi zan Pauline takoiakaz tikitaka zarata zorrotza eginez kalera, alai, lora zabaldu barria bailitzan, haize eta argi goiztarraren bila. Ogi, esne, barazki, igaliak; eta haragia, arraina edo arrautzak erosteak, hasierako arloa. Saltzaileei eta beste andra erosleei entzun eta berba egin, eta eguneroko papera eta batzuetan emakumen arteko aldizkari iruditsua be erosi, eta bapatean estura antzean etxeruntz.

Etxera orduko ezagunik ez aurkitzea miraria izango zan. Aukeratxua kontu esaten jarduteko, beti berandu ibilteko bildurrez, baina...

Sukaldean azken erako elektrindarreko tresnak zituan. Garbiketako egiteko, jatekoa zertzeko; eta ikustekoak eta entzutekoak. Horrezaz ganera, astean hiru lau bidar, emakumea etorten jakon zereginik nekatsuenak burututeko. Eta bide batez, lapikokoa eta abarrak be, zaindu eta egiten eutsazan. Emakume horrek be, bere albistak ekartzen zituan. Dendatara be bialtzen eban, bera etxean geratzen zan egunetan.

Senarra bazkaltzen etorten jakon. Lehenago umeak, be bai. Semelabak ezkondu zireanik harrezkero, senar-emazteak eurak bakarrik jateko, emakume hori agertzen ez jaken egunetan.

Nestor barriro be aguro bere lanera, eta Pauline berberak edo emakume laguntzaileak bazkal osteko zerak batu eta tresnak egin ondoren, zabal zabal geratzen zan, entzun, ikusi edo irakurraldia egiteko. Inoiz josten edo plantxan, eta enparauetan trikota edo paixea egiten eban. Edo leihotik kalera begira egon.

Astegunetan esturak bazkalorduan izaten ziran. Gero, iluntzean Nestor astiroago etxeratzen zan, hor hemen tabernaren baten sarturtena nasai nasai eginez. Baina ez egotaldi luzeegirik. Uda udea izan ezik, Nestor etxean egoten zan berandu barik. Afalorduan baino lehen, beti be.

Guzti hori ondotxu ekian haren emazte Paulinek.

Horregaitik, bai lehenagoko, bai oraintsuago biak bakarrik egoazenean be, Paulinek polito zertzen zituan bere asmoak, jardun orduak eta astia aukeran izateko.

Senarrak bere emaztea arratsaldean etxean sartuta egongo ez zana ba ekian. Antxina errosariora joan eitekean; harrezkero, mezafara. Eta bien bitartean kalean dendarik denda batzuetan, parkera hurrengoan edo lagunakana askarituaren usainean.

Horretan, Nestor gizon demokrata aspaldikoak bere sailhets zatia-ri halako norberetasuna, autonomia betidanik aintzat hartu eutsan. Gizon praktikoa zalako. Berbarako, eleizeak egin eban antzera, San Jose eguna barikuz gerta ezkero, haragi izteko legea zetan gogorrean ezarri? Munduko jakituriak darabil munduen joan-etorria, gizonen mundutxuena, sarri bai sarri, zeruko ixiltasunari lurrekoen ixilgura berbatsua eta zalapartaria ganean ezarririk.

Hainbat urtetako bizimodu hori, ostera, egunen baten aldatu egingo zala-ta, Nestorrek bere amesen amesak noizean behin atseginenez eta irribarreka garanduten zituan, urrezko artaburua garandu ohi dan lez.

Nestorreri ixiltasuna gogoko izan arren, ondotxu ekian ixiltasun hori bere emaztearen eraspeneke santua ez zana.

Munduaren hasieran gizakia eta siminoa alkarren antzekoak zira-la dinoen arren, Nestorrek argiro ikusi eban beti gizakiak berbetan ikasi ebenean, gizonezkoa hasi zala, adimenaren eraginez, hizkerea atonduten, eta horrelan, munduko moduren bateko ixiltasuna eten egin zala; hausi, urratu eta betiko apurtu, barriz, emakumeak gizonaren berbakuntzeaz jabetu eta ugaritu ebanean.

Eta mihina berba egiteko dan ezkero —gizakiak dakie hori, pataririk gchienak ez— eta andrazkoa bakarrik berbetan jarduteko sortua ez danez, emakumeak halako zorietan bakartadearen haize iluna uxatuteko, kantua asmau eban, txoriak egiten ebenari antza hartuz.

Horrelan, hutsari berbetan jardutea gauza zentzumbakoa zan ezkero, bakarrean kantuari ekitea be, inbentu ta aurrerapen handia izan zan. Unada haretan txori guztiak harriturik geratu ziran gorputzean lunarik ez, eta horra anka bikoak kantari. Halakorik...

Ixiltasuna, lurreko eta zeruko doe eder zan emoi zaratabakoaren gurari biziz eukan beti bai beti Nestor ixilberek bere kolkoan. Makina artean urteak urte lan burumbadatsuan jarduniko Nestorrek. Izan be, dringidrangak, karrakadak, durundi amaibakoak edonoiz, han lantegian. Eta uri haundian.

—Pauline, urteak ba doaz eta...

—Urteak, nora, Nestor?

—Ez, ez doaz. Bizkarrean lotzen dira. Zera... lanari egumen baten agur egingo deusadala.

—Zuk bai, ziur asko. Sarri esan deustazuz horrelakoak. Baina, nik zer? Aseguruan egon ez egon, nik, gero be, lan egin behar izango dodana sinesturik nago.

—Oraingo beste, ez behintzat.

—Ez gero? Janaria, etxea, horreek egumeroko zera dabe; jantziak garbitu, saretu, birjosi, eta gero leundu...

—Zorioneko etxea! Bai... ba dakit etxeak gura izan ezkeru, lan ugaria, amaibakoa edo, ekarten dauana. Baina... kalean dabilzan etxekandrak... ez dagoz beti etxeko lanari atxikiak, menperatuak.

—Etxerako gauzen bila joaten diralako.

Senar emazteok noiztik noizera zirikadak eta akulukadak hasaratu barik eskeintzen eutsezan alkarri.

Nestor lanpetuak, bere gogoz, ixiltasunari altarea egunero apaindu eikeon. Horraitino, lehenago egiterik izan ez ebana, zahartzaroan egingo. Lurreko ixiltasunean bizi. Ixiltasun hori entzun, bere barruan entzun.

Zeruetako ixiltasuna izan egian be, hegazkinen zelaietatik urrun samar bizi izango zala asmoak eginik zituen.

Ziur asko, bere habia barria Arratia aldeko toki baketsuaren baten horniduko eben. Bere adiskide batek eginiko ez eban egingo; arcan, uri handian bertan lotu, etxe tantai barri bateko hogeigarren oinean bizi izatea. Ez horixe! Han, ibar baketsu haretan hobeto; preminarik izate ezkeru, uri haundira be, txakada baten heltzeko moduan. Seme-alabengadik bereiz, baina ez urrinean.

Aspaldian entzun eban esakune hau, ez eban Nestorrek egundo gomutatik kendu. "Jakituria ezkutuetan, ixileko zeretan jarri dau".

Gizonaren guraria —Nestor berarena— harako ixiltasun horregana hurreratzea izango zan. Egumen baten bete ahal izango eban gurari bizia. Inoiz be adorea galdu barik, Izadiak berberea dauan ixiltasun horreganuntz hurreratu.

Bien bitartean, ustebako zerak heldu jakezan. Paulineri eztarrian tokor zeha txikerrak urten eutsan. Berba egiteko duintasuna makaldu, ahotsa moteldu, apaldu egin jakon. Hareek esturak! Berba egite-

ko inoiz izan ez eban oztopoa, loturea. Aldi berean senarraren entzumenaren apurren bat gortuten hasi zala, eta hor kontuak!

—Barregarri behar dogu! —inoan Paulinek—. Nik ezin berbarik ebagi zure belarrietako zuloak sor ta gor.

Zorionez, horraitino, Paulineren ezbehartxuaren jatorria samako suloan eukan txokortua, polipoa, galgarri-eza suertatu, eta osagileak kaixkada baten kendu eutsanean, horra Pauline barriren barri berbagin eta berbaldun biurtu.

Senarra be poztu egin zan, emaztea mutu geratzea gerta izan balitz, hil be, laster egingo zala sinestu ebalako. Pauline ixilik egon!...

Bere entzumenaren guztia beharrekoa izatera heldu baino lehen, bitarte haundia eukala, adierazo eutsan belarrietako sendagileak. Horrenbeste “decibelio” preminea izan arren, tira!

Honctau, horraitino, emaztearen aurrean lar kexu ibilterik ez jakola komeni. uste izan eban. Uuum... gorreri kontu hori, hortik hemendik erdi ahazturik lagatea, hoba. Gauzak okertu ez eitezana.

—Ai, Pauline; izadiak daukan ixiltasunaren ederra! Uri haundian nagoan artean, alperrik, alperrik horren ondorik ibiltea.

—Gizona, itsasondora baldin bagoaz, gau eta egun orroa eta marrua besterik ez dogu entzungo.

—Ez da hainbesteko marrurik. Ganera zu ta ni ez gara ontzian kolokan, gau eta egun ibiliko; ez gaitue olatuen zaparrada zazkarrek harrapatuko; uhinek atx sendoen kontra ataraten dabena zarateagandik urrun bizi izango gara-ta.

—Baserrira joan gura badozu, Nestor, arbola arteko haize zurrustadak eta intzirriak, ekaitzaren burrukaldietako zaratak, txingorra, trumoiak dumbada bapatekoak, eta gorago, sekula amaitzen ez dan durundu itzela...

—Ekaitzak, andratxua, urtean hiru lau bidar baino ez dira izaten. Haizea sarriago gerta arren, burdinen krakadak eta burua zorabiatuteko aina diran motorren gorrongorron horreke... ut, ut!

—Gura dozuna esango dozu, baina lureko ixiltasun hori papaozeria besterik ez dozu. Munduan ez dago inor muturik.

—Emakumerik ez behintzat.

—Hara osterakoa. Platerean daukazu oilaskoa hotzitu egingo jatzu, berba ta berba. Zu zeu be, ez zara mutua, gero. Gaur, behintzat, hori da etorria.

Nestor apur baten ixildu egin zan, eta senar-emazteak aurrean platerean euken oilasko zatiari, bai ekitaldi sendoa egin be! Hotzitu orduko.

Ixiluncaren ostean, barrero Nestorrek:

—Emakume mihina. Horrelako makineriarik ez dauka Roll Royce-rik bikainenak be. Hazurbako motorra.

—Hor ba!... Zuk mihina, luzetxua daukazulako, traba egiten ja-tzu-ta.

Izan be, Nestorrek ahoko mihina luze ta lodi semarra eukan.

—Haria galdu barik, hau dirautsut. Orain lanerako orduak moztu daroezan antzera, eta beraz atsedeen orduak luzatu, ez ete litzateke egoki izango berba egiteko uneak be, moztuago, bakanago dan legepean ipintea?

—Ai, gizona, noiz jakingo dozu emakumeon atsedenetarik bat, barriketan jardutea dana?

—Ba... ba... ba... Emakumecaren legea ez da izadiaren legea... ixiltasunari doakonez. Halan be, zuek be ixiltasuna... lurreko ixiltasunaren antzekoa izaten dozuela lo zagozanean. Eta zuen barruan bizi barria hazten hazten doanean, lurpean hazia lez.

Pauline harrituta geratu zan. “Areak, emakumeok be, ba dogu ixiltasuna geure zeregin gorenean, behar bada.”

Harik lasterrean, urteak aguro joaten dira-ta, Nestor hain opagarri izan jakon lurreko ixiltasuna gozartzen hasi zan. Arratian burdibide eta zidorretan zehar gogara ibiltzen zan, lurreko ixiltasuna, samur eta apal entzunez. Ixiltasun horren senitarteko lez, zeruko harako ixila goratzen eban. Ames be, ixilik egiten zala. Asmoak be, ixilean sortzen.

“Zeruen ixiltasun harrigarria, han ibili dabiltzan beste izar, izarbel, mundu ezezagun!... Makinen karrakadarik bage, motorren zurrunburrunik barik, zeruko makineriak zoragarrero ebiltzan, ez okerrik, ez aldakuntzarik. Eguzkiak goizero munduak irribarreka agurtu, eta iluntzean bere bideari adi, ostendu. Ixil ixilik. Eta iretargia, lirain eta beti gazte, hileroko misterioa —emakumecaren beraren misterio ixila— zaratarik bage, jaio, hazi, hil, eta barrero jaioaz.

“Eguzkia, iretargia gure mundu biziari laguntzen, eusten, sorrerazotzen, uda, negu eta udabarri, ixil ixilean...”

“Izarren ixiltasuna, amesik gozoenen orduetan...”

“Eta ixilaren noizbehineko atsedentxua lez, haizeen astinaldi zoro alaia eta itsaso zabalaren marrua eta kantuak, gizonak lo egin dagien, arrainek durundia zer dan ahaztu ez dagien...”

“Egileak, Jaun bakarrak gizonari eskeiniriko lurreko eta zerueta-ko ixilune zoragarria. Barrua bare ta baketsu daukan gizonak bakarririk entzun legian ixila. Ixilaren ederra...”

—Atzena—

MARTIN ANTONEN POTINA*

Martin Anton mutikoa hor dago itsas hegalean.

Goizero joaten da itsasoa ikustera. Iluntzetan be bai.

Goizean, egun argiko itsasoa ikusi ta ikusi egongo da. Ilunabarrean, barriz, itsasoaren etenbako marraoak entzun arren, itsasoagaz berba egiteko bitarteak bilatuko ditu, barruan dituan amesak esateko, sentimen kutunenak adierazoteko.

—Itsas, zer dozu? —esaten daki Martintxuk—; zure burua, zure izatea niri beti geraka ta urduri agertzeko? Lo, noiz egiten dozu? Basoak gauean lo egiten dau, eguzkia bere bide luzearen bihurtzera heldu eta kuku egiten dauan. Iretargi aldakorrak, horrek bai, gauetan ditu bere jardun zorangak. Ez beti bardin, ostera, txandaka baino.

Halan be, iretargi hits zurbil hori ixil ixilik ibiltzen da. Ez daki berbetan. Ez dau inor ez ezer berotzen. Noizean behin argi ditzira mehe motelez deusaz gizonari bideak eta kaleak argitzen. Goraldia dauan egunetan teilaturik teilatu doa eta katuak barriketan jarten ditu; miau erdiragarriak egiten ditue, ni lotan egon eta iratzarri egiten nabe.

...

- Itsas, eta zu, inoiz be ez geldi, inoiz be ez ixilik. Inoiz be ez zimel, inoiz be ez igar, inoiz be ez ustel.

Konkortuta naukazu; tutuluturik.

Mendiak eta ibarrak, ibaiak, eta latsak, erreka eta iturriak, mendibide eta kaiak atseginez ikusten ditut.

Zu, ostera, Itsas bizi, nire biziaren espilu eta erro zara. Bide ta muga zaitut.

Ohea maite dot gauerako. Horraitino, umetan, seina nintzanean —cz, nik neuk ez dakit, esan deustelako baino; eta nire antzean baina ni baino geroago jaio diran seinen kulunkari euren ama edo amama ikusi ditudalako—, nire schaskan nigandu nituan zanbulu neur-tuen ibili zoragarriek laga eusten higiera ta doinu hori dot buruan, zanetan, erraietan. Ahaztu ezina dot.

* *Argitaratubakoa*, 1985.

Eta higiera hori, erritmo hori zeu zatxataz, Itsas. Amairik ez dauan kuhunka miresgarria zaitut, ixiltzen ez dan doinu sorgina, bir-
loratzen nauan etenbako oihartzuna.

Etxeko sehaskearen antzekoa dan. Eta ez dan sehaskea egingo
dau.

Ontzi-arotzek potina egingo deutsoe. Astileruan tratua eginbarri
dau; neurria ta tankerea, Martin Antonck dakiz. Adierazo deutsez
entzuten euki dituan ontzigileci. Lehengoan erdi zirikari, geroago
erdi harrituta entzun ditue mutikoaren kontuak. Potina euki gura
izan dauan inogan ez dabe egundo halako joranik, halako gora-gora-
karik susmatu.

Martin Antonek gizonakandik aldegin dauanean astileruko gizonek
alkarregaz berbetan jardun dabe, halako enkargu arrunta egiteko,
hainbeste azalpen eta berba, preminazko ez zirala ulertzen ebelako.

Martintxuren guraria zergaitik ez eben zeharo ulertzen? Haren
eskaria, agindua? Ontzi-arotz hareek ez izan Martintxu. Eta beraz,
mutikoaren sentimena eta amesa...

Egun batzuk iragan ondoren, Martin Anton astilerura doa.

—Hasi al dozue nire potina? Nun dago? Gila sendoa izango ete
dau? Egiten hasi ezkeru, zenbat egun...?

Ontzi-arotzen belarriak minbera dagoz. Egun birik baten han
dabe Martintxu, itaunka, eske.

—Zetan da nire ontzia? Oraindino ez al dozue ezer be...?

Ez da egia izango. Ezin sinestu nei.

Martintxu kai luzcaren muturrera joaten da goizetan, itsasontzio-
lara bazkalostean; itsasertzera barrero ilunduten danean.

—Itsas, zure adiskideago izango naz laster. Nik zugaz, orain bai-
no egote luzcagoak egingo. Kutunagoak. Udan egunero, neguan be
sarritan.

Bazkaloste baten poza hartu eban, poz apartekoa.

Potinaren gilca han egoan, lurrean egoki jarrita. Jaioten hasia zan
potinak kodasta be, ba cukan. Eta saietsazur batzuk be bai.

—Hau al da?

—Begiak zetarako dituzu, Martin Anton?

Ontzi-arotzek potina egiten hasi arteko unadeari Martintxuk luze-
retxi eutsan arren, egun haretako bazkalostetik guerarteko orduci

sekularea eretxi eutsen. Ordu nagia gorik, astiaren ibilte alperrantze-ko gorik ezin eitekean inork asmatu be egin!

Horraitino, iluntze epela gertatu eta Martintxu inoiz baino lehenago joan zan itsasoagana; inoiz baino beluago etxeratu.

Kaiaren mutur urrunekoaren puntan egon zan, harmailetan beherra jatsi zan eta eskuak kresaletan sartu zituan, itoasoa igurtzi nahirik.

—Itsas, aspaldion ixilean gorde dodana oraintxe esango deusut. Potina egingo deuste; egiten hasiak ditut. Bai, ontzi-arotzek hor dihardue. Potina ba dakizu zelakoa dan. Baina potin hau... potin hau ez da besteak lakoa izango. Ondo entzun. Ez da lapurra izango. Zure erreinuan, Itsas, lapur izateko ez da sortuko. Ez...! Inondik inora be ez. Nire potinak lapurretarik egingo baleu, ez nintzateke Martin Anton izango.

—...

—Ixilik zagoz, Itsas. Entzun eta entzun. Ez ete deustazu sinestu-ten? Izan be, gizon guzurti ugari zuk ezagutu eta...

Martin be ixildu egin zan.

Maitearen aldamenecan egoan. Itsasoari, edozein maiteari darion usain berarizkoa erion. Hain zuzen, kresal usaina. Marroaren pare antzerakoa dan marrao zarata bakoa. Itsas lurrina.

—A!... Ba dakit. Nire buru hau be...! Bai buru txarra! Zuk... potinaren izena jakin nahi, ezta? Bai...! Alkar maite dabenek beti dabe zer esan; ez dabe dakien guztia jarraian esaten. Horixe entzun deusut ni baino zaharrago diranei. Bai; bihar jakingo dozu. Neuk zertuko deusut. Bateratsu al gagoz? Baietz nik uste.

Biharamon goizean ez zan Martin itsasertzeratu. Piper egin eban. Baina eguerdi ostean, bere potinaren aurrerakuntzea begien aurrean izan eban.

Bezperan brankan kodast zorrotza, biharamoncan popa tankerea, eta bitarteetan hainbat ontzisaihets, zureria. Hazurrutsok betetakoan... ontzia amaituta egongo.

Potinari zein izen ipuiko jakon, itandu eutsan Martintxuri ontzigileetariko batek.

Martintxuk, gitxien uste ebana, bere burua une haretan ez jakin aurkitu eban. Matrailak gorri gorri jarri jakozan. Sagar gorri heldu bi zirudien.

Arratsalde beranduan eskolatik urten ebenean, Martintxuren mutiko lagunak eta adiskideak alkartuta ikusi, eta harekana hurre-ratu zan.

Une haretan mutiko guztiak ixildu, eta Martinen guztiei arpegira banan banan begiratu eutsen. Guztiak irribarre egin eben, eta baita Martinek be.

Brastakoan mutiko guztiak arrapaladan sakabanatu ziran, mor-doskan dagozan txoriak norbait lurretik harria hartzeko makurtzen ikusten dabenean, hegada bizkorrean sakabanatze diran antzean.

Martin poztu egin zan guztiak aldegin ebelako. Haretara, itsaso-gana bera bakarrik joateko eretia izango ebalako.

Eretia bai, baina...

Potina pagatu ahal izateko dirurik erdia baino ez eukan berbatu-ta. Arean be, aitak eta amak, hau da, gurasoek lauren bana eskindu eutsoen. Hor eukan, beraz, domu erdia.

Eta beste diru erdia ordurarte kasketean eukan, ez beste inun. Eta dapa! Beste iturburu bi erdi ikusi zituan. Osaba gaztena... Eta aita-bitxi...

- Aupa! Eginda dago. Emongo deuste. Jaungoikoa zeruan dagoan lez. Eta honeek biok zurituteko... potinaren izena eurek gura dabena izan dadila. Horixe.

Eta orduan izen horren bila hasi zan.

—Arrainen baten izena? Txoriren batena? Ala, ikusten eban bakotxean begiak samurtuten eutsazan neskato politaren izena?

Hor egoan kakoa.

Barbarina... potina gorria balitz? Kaioa, zuria balitz? Eta berdea izate ezkerok... Izena aitaturteko be, lotsati ekusan bere burua Martin-txuk, mutiko lagunek susmoa hartu eta ixeka egingo eutsoelako.

Osabagaz eta aitabitxigaz berba egin, eta berak izen batzuk aho-mihinean erabili, eta hareek erabagi egiela.

Ilunabar haretan itsasertzeruntz joiala, berak behar zituan gizon biak tabernatik urtetan ikusi eta arineketan egin bitartean, deadar fin eta maitatiak Martintxuk:

—Osaba!... Aitabitxi!...

Honeek Martin eurekana zanean, batak bizkarrean zaplada bigu-na, besteak arpegian eta buruan igurtziak mutikoari.

Martin Anton eskola-mutil zintzoa!...

Mutikoak, gehiagoko barik, argi ta garbi azaldu eutsen bere arazoa eta buruan erabilen asmoa.

Zurrutean cbiltzan gizon garatuak erdi harrituta eukazan Martinek.

—Potina? Ederto. Baina... eskuartea?

—Egon. Aitatzuk diruaren laurena. Amatxuk, beste laurena. Horra nun dodan kapital erdia.

—Eta beste erdia?

—Ba... ba... osabea zetarako da? Lauren bat emoteko. Eta aita-bitxi, ba... beste laurena...

Gizon garatu biek alkarrri begiratu eutsen eta irribarrea egin.

—Tira, ba! Horrelan izango da. Horraitino, Martin... zorra egiten dozu. Ta noiz ordainduko?

—Haizerik ez dagoanean.

Barre purrustadca egin eben hirurek.

—Halan be, ordezkotzat zerbait guri... Arrainak edo?

—Eeeez. Nire potina ez da itsasoari amarrukeriaz arrainak ostuteko izango. Nik... itsasoan ibili nahi dot. Ez arrainik ito.

Gizon biak begi handi jarri ziran.

—Eta... zeinek irakatsi deutsu doktrina hori?

—Niri? Inork be ez. Zuek jai egunetan mendietara zoaznean, nahi-ta-ez arbolaren bat jo ta cratsi eta etxera ekarten ete dozue? Ba nik be, itsasoan ibili arren, ez arrainik ostu, ez galdu, ez ito. Bizi daitezala euren urrezko basoan, urrezko etxean. Diruaren ordezkoa... potinaren izena izango da.

—Hor kasketean izenen batzuk ez ete dituzu dagoaneko, Martintxu?

—Potina zuria balitz, izentzat... kaioa edo?

—Bai, txo! Zuri zuria izango da —osabeak txaloka.

—Kaioa izango da —gehitu eutsan aita-bitxik.

—Baina... Egon. Kaskazur barruan argia isiotu jat. Kaioa be, arrain-lapurra da; bapatean harrapatu eta jan egiten ditu arrainak, itsasoaren une errubakoak.

—Hori dinozu...!

Hirurak ixildu eta behingo baten mutikoak:

—Horra! Ba dakit orain. Lapurra ez danaren izena ipiniko deusagu.

—Zein?

Martin Anton ixilik une baten, misterioak behar dauan ilunaldiaren giroa ta zalantza ta jakingurea ernatu nahian.

—Hauxe izango da nire potinaren izena.

—Ez dozu behingoan esango.

—Bai. hauxe: “Bitsa” Hona hemen nire potinaren izena. Bitsa... nire itsaso maitearen eguneroko apaingarri garbi ederra.

Aho zabalik geratu jakozan osabea ta aitabitxi.

—I az mutila!

Eta bertatik Martin Anton kantari hasi zan, laran laran laran lan, laran lan, laran lan...

—Poz pozik orain, e?

—Bai. Eta ba dakizue zergaitik?

—Ez, ba.

—Ez jakin? Ba... gauza bi crabagi eta lortu ditudalako.

—Zeintzuk?

—Izena eta dirua.

Potina, ontzigintzako aterpetik uretara botatea egin eta kaian harro baizen apal ikusi eta norena zan jakin ebenean, eskola mutil lagunek laster ederretsi eben, batzuek onberatasunez, erresuminez besteek.

Itanduten eutsan edozeini bai esan be Martintxuk bere potina zetarako izango zan, zetarako izango ez zan.

Ekanduari jarrai, eta doinu ta neurri jakinari oratuz, laster zabaldu zan kai inguruan lehenengo, uri osoan geroago, honako kanta barrirazu hau:

Martin Antonen potina
danetarik ezbardina,
danetarik ezbardina
Martin Antonen potina.

Martin Antonen potina
erremua ta latina,
erremua ta latina
Martin Antónen potina.

Martin Anton,
Anton Martin,
Martin Anton,
Anton Martinen
potina.

NIK NERONEK ERE EZ*

Ez nuen halako erantzunik itxaroten, baina Asunek bipil agertu zuen bere mihiaren zorrotzetasuna.

— Azken arratsa gaur izango duzu horrelakorik egiteko. Nire ego-narriaren kaikuak gainez egingo baitu. Orain, elkarrengandik banan-du baino lehen, ezaugarri nabaria emango didazu.

— Ezaugarria?

— Alegia, maite nauzun ezaugarria.

— Ez al dizut...

— Gezurti hutsa izan zatzaizkit.

Asunek zer esan nahi zuen pentsatzen hasi nintzen.

Anartean ez zidan behinere honelako brastadakorik jaurtiki.

Ixilik nengoela somatu harek eta ardailari berriro ekin zion.

— Bai, gezurti hutsa.

— Hutsa, Asun? Zuk ere egiarik diozunik ez nuke aitortuko. Gezur ez diren gertariak eta zernolak maiz adiarazi dizkizut. Ez nazazula odol berotuta jarri.

— Zuzen ari zaren zeuk jakingo duzu.

— Zuzen ari? Esan behar duzuna, argi ta garbi ageriezadazu.

Ixilaldia, orduan, Asumena izan zen.

Loretégian geunden eserlekutik zutitu nintzen eta joateko imin-tzinoa egin nuen.

Horrezaz konturatu eta Asun, kopetilun, lurrera begira jarri zen. Nik, mimo jokoan bezala, nire jantzietako sakelak arakatu nituen.

— Nora...? —galdetu zidan neskatzak.

Nora hitz hori ebaki izan ez balu, Asunen aldamenetik betiko aldegingo nukeen.

Atsekabea, mingostasuna duten umeek ere bizi eta jasan behar ditugula uste izan nuen, ordea. Noraezekoa, mundu honetan beheral-diak eta bihotzil liparrak guk garaitu beharra.

Zorion zelaictan mugagabe sartu nintzela inoizka sinetsi izan nuen arren, usterik batere ez denean, erbia ez baina behazuna bide-ra irtetzen zaigula, horixe da uka ezina.

* *Argitaratubakoa*, 1986.

Asumen lehengoa eta nirea oroipeneko liburuaren orrietan bapatean ikusten asi nintzen. Eta zerau sinetsi, alegia, igaroa ez dela beti geroaren ikurra. Baita zera ere!

Agian, berrikustea zen, baina egia esan, lehenago ikusi ez nituela aitortzea egiago, noski.

Txori maitariak bezala hasi ginen elkarenganatzan. Gazterik hasi ere. horraitio, handik lasterrera gure elkartasun horrek etena izan zuen.

Eta ez dakit nola, biok asazkatu edo, lasai lasi geratu ginen, bakoitzak bere askatasuntxo eskuratu genuela uste izanik. Baina geroago... urak beuren bidean.

— Tabakurik ez dut.

— Nik dudanentz ez didazu galdetu.

— Tabakurik noiztik zuk? Izatekotan... txarra.

Esan banion, esan nion.

Jeiki zen Asun ere, eta handik aldegitoko plantak egin zituen. Ni, orduan, eseri egin nintzen. Eseri. Zezenak ikusteko zutik baino egoera egokiagoa zela uste izan nuen-eta. Lekutan!

Asunek besoen ukalondoak, bildurik, zorroztu egin zituen eta ukabilak marduldu. Urdailean edo aupegian joko ninduela zirudien. Baina erakuspen antza zertu bazuen ere, eraso zitekeena ezerezean geratu zen.

— Ausartu ez, ezta? —zirikari, nik.

Ixeka zitala harek jasan ezin eta eskuian zeukan kartera beltza nire musuan sentitu nuen, talkada zakarrean. Kolpe zakarra niri batere gozo ez izan, eta kartera iraintzaileari nire esku indartsuz tirakada sendoa egin eta kendu egin nion.

— Agur esan iezaiozu zure zarpa zarpil honi.

— Zarpila zu, asto haundi hori.

— Errekara jaurtiko dut. Baina... barrukoa ikusi ondorean.

Kartera beltza iriki nuen.

Asunek hiru lau urrats eman zituen niregandik aldeginenez.

Gelditu egin zen, ordea. Ni, eserita, kartera hura ikusteko nagi, astitsu. Asun amorrutz, noski.

Loretetikoko lur gainean haize bolara batek orbelak dantzari jarri zituen.

Negarrez hasi zela ohartu nintzaion.

- Zakur makurra eta andre-negarra, peto.
 — Min egin didazu, kirten horrek. Eskumuturra gorri gorri jarri zait.
 — Iturriko ur hozkirria horretarako egokia.
 — Alena ez bestena! Kaikua! Gure amonak maiz esana.
 — Nori buruz? Ez nuen nik zuen amona hori ezagutu. Hobe biloba ere, ezagutu izan ez banu.

Begirada hasarrezkoa egin zidan. Han hurbilean zegoen beste banku baten eseri zen. Ez nuen kartera barrua aztertu.

Jeiki eta Asunen aurreko aldetik iraganez, kartera beltza aren magalera jaurtikiteko zinoa nik, baina azkenean, banku gainean laga nuen; eta hauxe esan:

— Tabakua erre nahi duenak, bila dezala.

Eta parra lotsagabeari atea iriki, eta handik anka nik.

Goruntz zioan bidexkan zehar harengandik zerbait aldendu nintzenean, Asun bere hartan zegoenentz, urrunetik zelata egin nuen.

Loretegiko tabernatxoa irikita zegoen, ni hara heldu nintzenean. "Morris" berria erosi nuen. Eta mistoak.

Urrunetik zuhaitz enbor lodia atzetik kirik egin nik, eta Asun han zegoela ikusi nuen. Zalantza egosgorra sortu zitzaidan.

Zer egingo nuen, berriro harenganatu ala nire kasa aske aldegin? Haizeari galdetzea otu zitzaidan. Nola galdetuko, ordea? Orbelik iharrena aukeratu eta lurretik jaso nuen. Harrijasotzaile ez baina orbel jasotzaile bilakatu nintzen. Parragarria.

— Lehenbiziko haize bolaran orbela libre utziko dut. Orbela bidexka honen barreneruntz joateak, ni Asunengana joatea aldaraziko du. Bestera balitz, nire oinek aukeramen txit jaregina, nahi dudana tokiruntz joan nadin.

Baina haizea alpertu egin zen. Zuhaitzen gainetik jeisteko, nagitu.

Arbola puntetako orriak urduri ta zambuluka zebiltzela nik ikusten; ordea, nire inguruan haize putzik ere ez nuen nabari izan. Eskuan nuen orbel ihar hura laga, eta lurreruntz erortzean bidexka erdian bertan goxo egin zidan. Bigarrenez saiatu, eta berdin berdin. Orbel nabarra bidearen gilborrean pausatu. Haize zirtzila ez egon, nonbait, nirekin tratu egiteko betaz. Emakumea eta haizea...

Hirugarren saioa gorabehera, nire asmakizuna ez zioan aurrera. Lurretik harri koxkor bat jaso nuen eta txikitan bezala, harri zapalaren alde bat nire ahoko txistuz busti nuen. Harri koxkorra goruntz egotzi poliki poliki eta lurreratzean nire begiok ikerlari.

— Bustia dago eguzkitara; lehorra, berriz, azpikaldea. Horra arazo argi jarri.

Halabaina, orduantxe konturatu ni, bustia eta lehorra ez nituela aldez aurre bakoitzaren esanguraz sailkatu.

— Bego, bada. Bustia balitz, adiskidetzea. Zerbait hezotasun bederik, ba dagoela esan daitekkelako. Harriak bizkar lehorra agertuko balu, ordea, dena lehortu dela, eta gure ernamina, maitemina idortu egin dela. Eta bakoitza bere bidean zehar. Bapo!

Harri koxkorra berriro zeruruntz bota nuen. Lurrera zenean, bizkar bustia azaltzen zuen. Harri zirtzilaren aurre-epai hori ez zitzaidan batere gustatu. Adua, ordea, hantxe zegoen. Siratsa, halabehera.

Eta idiak egiten ez duena, nik... Alegia, bi aldiz harri berean oztopo. Kaiku ote nintzen, Asunen amonak esaten zuen bezala?

Batzuetan nahastea pakea baino nahiago izaten dugula sinetsi eta bidexkan beheruntz abiatu nintzen, Asun lehengo bankuan ote zegoen so egiteke.

“Morris”-en azala urratu nuen eta zigarreta izeki. Ahokada keia gozaro bota nuen. Hurrena, sudur ziloetan zehar.

Inortxok ere ez daki une zehatzetan tabakua erreteak ematen duen lasaitasuna, patxara, atsegina.

Horixe pentsatu nuen, mundu gainean erretzaile pionerua nintzelakoan. Keiaren ihes kiribilari oreka ta baretasuna eskatzen nion. Eta kirola, gogo jolasa.

Bidexkan behera ninoan, baina Asunenganuntz joateko biderik luzeena hautetsi nahi nuen. Luzamenduetako gurpilean zoriaren bila. Bidea zenbat eta luzeago izan, gogorago ni. Maiz izaten duguna bata. Heldu gura ta ez heldu gura. Ohetik jeiki nahi, eta ez jeiki nahi. Ezkontzeko irrikitzen, eta uztarriaren irudia ere uxatzeko prest.

— Eserlerku haretan ez baldin badago, ez diot Asuni jaramonik egingo.

Asun ez lehendabiziko bankuan ez bigarreanean ere ez zegoen.

— Ba! aldegin dik. Alea jacta est. Kaiku, gizon jaregina haiz —esan nion nire buruari—. Beste bide zabal horretan zehar joan eta Olinpo zoragarrira helduko haiz; Venusik gabe, ordea. Beharrik!

Urrats patxaratsuk eginez goialdeko zabalunera jo nuenean, palmondo baten gerizan zegoenak hotsegin zidan:

— Kubaraino joan al zara?

Halakorik! Asunen mintzo horrek, kurubioa bait litzen, zaztada egin zidan belarri barruan.

— Ez, bada. Haruntzago joan naiz. Virginian egonberri nauzu. Besteri ezer jakin nahi duzua?

Halabaina, ez nintzen eseri. Zutik nirauen. Zigarreta hurrera jaurtiki nuen eta berria izeki. Errespetu neurtuz eskeini nion.

— Erre nahi?

— Sar ezazu elementu hori...

— Ixo! Hori al da señorita baten haziera liraina?

— Arraren harrokeria biziki gorroto dut.

— Gezurtia naizela esan ez al duzu?

Ni eseri ez nintzenez, Asun dapa! Zutitu. Zutitu eta ibiltzen hasi. Ni, ordea, eseri.

— Hauxe dut inoiz erre dudan tabakurik gozaberaena. Gaur jaio naizela esango nuke.

— Ergelak ba direla jakin nekien, baina hainbestean...!

— Nortzuk?

— Gizonak, noski. Anka biko pistiak zarete.

— Eta emakumeak mihi biko hegaztiak.

— Bi mihi?

— Bi mihi aina. Ordea, oroimena adimena baino garaigo duzue. Eskuetan nuen "Morris" paketeari igurtzi samurrak egiten nizkion.

— Mihirik ez duen gauza atseginetarik bat, hauxe.

— Gaztik gabeko galtzadunik ezagutu dut —ihardetsi zidan.

— Horra! Gonapean biluzik al zaude? Beraz...

— Petral hori!

Bikote gaztea hurbildu zitzaigun gure bankuraino. Eseri zirenean, Asunek eta biok aldegin genuen. Hura aurretik zioan. Ni, atzera samar, jarrai joateko neke astuna, nonbait. Ez zuen atzeruntz begiratzen. Asunen belarriak, ordea, nire urratsen oihartzuna entzuteko adi zeudela somatu nuen. Ixilik ginoazen. Horrela jarraitzea erabaki nuen. Atzetik apal zioan zaldia nirudian, baina niri axolirik ez.

Erabaki haundien abagune gurena zela auteman nuen. Senak ematen zidan. Lokarriaren harietan etenak gertatu ziren eta lokarria ez zegoen berritan bezin trinko. Arriskua gero ta nabarmenagoa zen.

Asun etxeruntzeko bidez ez zioan. Luzamenduko katramil berrietan sartuko ninduen, ziur asko.

— Ez dakit non gauden —esan nion goraki.

— Zerorrek jakingo ez duzu; nik bai —haren erantzun errea.

— Ni, besteak beste, etxeruntz noa, berandu da-ta.

Ez zidan ihardetsi. Urratsak azkartu nituen, nire bideari adi.
Berehala Asunek oihu:

— Txatxo hori, zer ari zara? Nor naizela uste duzu?

— Ene, bada! Asun ez al zara?

Eta une haretan Asun arineketan nire aldameneratu zen eta besotik heldu zidan.

— Aizu, ez gara kale gorrian honelako zerak zertzen hasiko!

— Ihes doan etsaiari, zilarrezko zubi.

— Etsaia al zaitut?

— Bo! Arrats hain zatarrik ez dut nire bizitzan jasan. Ziztrin bategatik.

— Hor ibili zatzaizkit ibili, jarraian jarraian zakurra bezala.

Joandako aldia aipatzea soraiokeria zela aitortu nion. Atzoko orduak inoiz gehiago barrantzuko ez direla. Bai. Joanak joan. Horrelakoak aipatu nizkion.

Besoa askatu zidan.

— Horrela, hobe —ahapetik ihes egin zidan.

— Esker txarrekoa izatea munduko agerkaririk ezeztagarriena. Donatek utzi zintuenean zuzaz ni urrikaldu, eta horra! begiramenezko hitz erdia azaldu nizuneko, nire irudia buru buruan eta bihotz bihotzean zenuela esan zidan mutil mukitsua ez al zara?

—... ni zurekin? Ja jai...! Kanta jatorra duzu. Bilintxena.

Oroitzen ez zuena gogoraziko niola zemai egin nion. Arratsalde baten Asunenean egin genuen guateke hura ez zitzaidala ahaztu. Amaren loisintxak eta amarrukeriak bere alaba Asunekin konponnendin!

Munduko neskatarik mazalena zala. Garbia, maratza, langilea, atsegingarria. Zer ez ote zen haren alaba Asun!

Haren hitzak nik iretsi —arrainak amuzkia bezala—, eta peilo hau, Asun begi onez ikusten hasi nintzen. Halabaina, hurrengo bigirara ez nintzen azaldu. Halaere, Asun ehize zakur bilkatu, eta handik gorakoan, eguerdi aldean ez bazen ilunabarrean, nire lantokiko sarrera-irteeratik hurbil ibiltzen zen. Garai haretan ondasunen berriketak izaten zituen. Itsasoz haraindi bizi ziren osaba-izebak seme-alabarik gabeak gerta, eta haien etorreran —senideok beti etortekotan ziren—, ilobak, batez ere emakumeak —Asunek aizpa bat

zuen eta lehengusine bat besterik ez—, osaba-izeben ondare jabe bihurtuko omen.

Ameriketako diruen txintxin zoli ta alai entzunarazten zidan ezarian, eta are nabarmen. Zilarra izango zuten. Zilarra izango genuen. Itxarozko giro horretan sartu bezin laster, lanik gabe geratu nintzen; eta bizikaturarik, ez niretzat ez inori eskeintzeko, ez nuela-ta, lanbila haren osaba-izebarenera joko ote nuen galdegin nion. Ea haien zuzenbidea lortzeko modurik ote zen. Amak orduan galga estutu egin zuela uste izan nuen. Agian, ni guztiaz jabetzeko gizon bildurgarria ez ote nintzen. Kontua ez zela ni haien ondasunen jabe egitea. Asunen jabe bai, egin nintekeen, baina nire izerdiz bizi izateko. Urruneko hotsak beti haundi... Horrelakorik ba zela konturatzen hasi nintzen. Gainera Asunek ez zuen itsasoan zehar beste alderatzeko gogorik.

Ezta nik ere. Horretan bat gentozen.

Lan bila Aragoia aldera jo nuen. Marka berriko salgaiak merkatuan sartu behar nituen. Nire lan jatorrean aritzeko aukerarik ez, eta saltzaile antzera hasi behar.

Lehenbiziko asteetan batera ta bestera ibili nintzen eta neka neka iluntzerako. Zapatak urratu eta komizio murrizta besterik ez nuen lortu. Lanbide hori zeharo aspergarri bilakatu zitzaidan.

Asuni, ostatz nengoen lekuaren izenik eman ez banio, txotxon-gilo honek! Txitean pitean telefonoz deika zorarazi behar ninduen. Bost igande elkar ikusi gabe, eta ea beti etxean sartuta usteldu behar ote zen, galdetu zidan behinola.

— Usteldu?... Zoaz kalera... eta pikotara ere —esateko gogoa, barnean irakiten izan nuen.

Asuni ezer aipatzeko ostatz aldatu nintzen. Ez zuzenbiderik, ez urrutizkinik. Lasaitasun apurra behar nik, eta horra! Zirt zart jokatu nuen.

Geroztik, aitak hotsegin zidan:

— Seme, lan berria izango duzu, non eta Donostian. Nire adiskide batek behar zaitu. Beraz, horko kontuak garbitu eta zatoz etxeruntz.

Handik hiru lau egunera etxeratu eta berehalakoan Donostiara. Aldaketa guzti horiek Asuen ixilik zertu nituen.

Lanean ari nintzela, deia nire mahaigaineko telefonora pasatu zidaten.

— Aragoiko zalduntxo, non utzi duzu zure usoa?

- Usoa Aragoien dut utzi. Hara noake ni etzi.
- Etzi igandea duzu, maitea. Oporrez jarriko dute trenbidea.
- Oinez joanen naiz, oinez. Oinez eta mendibidez.
- Berriketa merkeko ahoa; zatoz, hemen duzu giroa.
- Zertara?
- Ni ikustera. Asun nauzu, ez al dakizu?
- Munduan mile lore direla ez zait ahaztu.

Hurrengo igandean ama ikustera joan nintzen. Makal samar bait zebilen, haren ondoan ordu gozoak eman nahirik ni. Amatxo pitxia! Seme-alabontzako duen maitetasuna; aitarentzat duen harrera maza-la! Cure ama eta Asun bi izaki berdinezak zirela begitandu zitzaidan. Ez dakit nola, baina ama-minak jo ninduen eta egun haietan beste gonadunik ez nuen gogoan izan.

Horraitio, Asuni mezu iluna biali nion. Hurbil ziren Eguberri jaie-tan, agian, elkar ikustea zitekeena zela, eta... Amestutako gauza urru-nea aipatu nuen, irrimiri. Harako ondasun kopurua non ote zen.

Aldi haretan, Asun berriz ikusi nuenean mutur erre eta hasarre-koia begitandu zitzaidan. Lehen zuen erakarpenik niretzat behintzat ez zuen. Asunek ere, lehengoa ez nintzela somatu bide zuen.

— Trakeskeriak meneratu zaitu, kaiku. Ala aspertu...

Ixilune luzeak izugarri ematen zuen. Txoriak ere lokarturik zeu- den, eta loreak buru makur.

Halaere, dantza lekura joan ginen. Girorik ez genuenok giro berri bila. Musika iskanbilatsuen edo iskanbil musikartean murgil zeuden nire belarriak. Buruan ez nuen batere argitasunik. Asun, aurrera begira egon arren, gatzezko emakume bilakatu zitekeela.

— Zergatik gu hemen? —galdetu zidan.

—Hortxe datza zadorra. Oroipenaren ihartzunak diraueno, tira! baina urruntzen denean, ixiltzen denean, galtzen denean... oro da galdua.

— Ikusiko duzu —esan zidan Asunek, negarra begian.

—...

Etixeraino lagun egiteko eskatu zidan.

Atadira heldu ginenean, hitzik gabeko agurra gerta zitzaigun. Biharamonean nire lanera, itsasaldera.

Handik egun batzuetara karta labur eta lakarra jaso nuen. Pentsa nezan, aste beteko epea iragarten zidan.

Astebete, hilabete, eta host ere iragan dira.

Ez diot erantzun. Ezta egiteko usterik ere.

“Asunek eta, Ameriketako diruak laster izango omen dituzte”.

Berri hori, nireganaino ere hel dadin, Asunen neska adiskideren batek zabaldu du.

Gau horretan urrutizkinez zuhurki mintzatu natzaio.

— Asun, berri ona jakin dut. Zaitetz zoriontsu osabaren-izebaren aspaldi amestutako ondasunekin. Eta beste gizonen batekin. Ez nizaz batere penarik. Nik neronek ez dudan bezala. Amen.

Amaia
1986

TALOA TA ARRAINA*

Sabas amugina eritxonak amugin izateak irabazi urri ekarten eutsala susmatu, eta bere lantegitxua pintura-denda bihurtu eban. Tindu, patente, orio eta abarrez ganera, lehenagokoak zituan amu, karpin, korai, txanpel, zurda, pita eta sokak be, salgei eukazan.

Baserriko alaba zan Baldasaragaz ezkondu zan eta honek lehenengo egin eban seinua neskatzua izan zan; Aintzine. Tamalez sein hori harik lasterrean hil zan. Hurrengo jaio zan seinua, barriz, mutikoa izan zan.

Seina eleizara bateatuten eroan aurretxean, etxean, eztabaidea sortu zan. Aitabitxi, Sabasen anai Leon «Maluti» izango zan-eta, honek seinari izen bardina ezarri behar jakola uste eban. Ezizen hori txikitan haren buruko ulea hori-zuriskea zalako asmatu eutsoen. Amabitxik, ezetz.

—Leon... Patariaren izena dozu-ta...

—Zer dinozu? Aita Santuak be, hainbat izan dira, ba.

—Ba, nik i... Doro...

—Ut, andratxua. Hor dabil Doro. Ta zer dau atzetik? Horixe be!

—Doro... Doro... gomutan zein Doro dozu, ba?

—Basai! Leon Okotz, Leon Garitx... gorputzeko zatiak dira.

—Eta Dororen zerak?

—Errenta bako errenteruak. Nik be, han «arsenaliin» ezagutu nituan. Baina harrezkero... iztarrarteak garbi.

Etxean egozanek barreak egin zituen. Eleizarakoan kalean edozeinek galde seinua norena zan.

—Aitarena ta amarena —erantzuten eutsen Leon «Malutii»-k, ardatza baino tenteago joiala.

—Gizonaren taranta —zertu eban eleiz-aurreko plazan egoan andra zabal batek—. Harro zer ez doia berau. Neskatoa al da?

—Mielgarik nahikoa dogu. «Antxoba txikixe»...

—Zazkar hori!

—Zé zazkar eta zazkarrondo. Hemengo berbetea ez al dakizu?

Ume kozkor egin zanean, beste edozein umeren antzera, Leon be eskolan ibili zan, bost urte zituenik aurrera. Baina eskolea lagateko

* *Lore kontu-kontu lore*, Ondarroako Kultur Etxea, 1986.

adinera heldu orduko, etxe zabal ha lar zapaldu barik aldegin eban, traskotsen artean hasteko, itsasoa bere begira eukala zirudian-eta. Ostera, ordurako traskoen orde z gomazko oinetako bigun eta eroso-goak egiten zituen, eta beraz, Leonek bere itsasorateetan ez eban traskotsik entzungo, egin-eginean.

Etxe-egunetan mutikoak frontoirako zaletasun apurra agertzen eban. Bere adineko mutikoakaz jarduten ebanean, horraitio, hutsak egiten zituan sarri. Baina harek berak, horrelakoetan, inork ezer esan orduko «sostor». Eta horra! Handik gorakoan Doro Poto... izan eitekena, Leon Sostor izango.

—Entzuizu, Sabas. Gure mutilari be, ezizena asmatu ei deutsoe.

—Zein ezizen, Balda?

—Sostor. Leon Sostor... Honezkero uriko gazte guztiak dakie, eta auzoetakoek be.

Ezizenaren zioa emazteak argitu eutsan.

Ez da hain iraingarria. Txarrago dozu horren antzekoa.

—Zein?

—Zaztar. Hor jabiltzu jai usainik izan ezkeru, iluntzeetan, lebazkumea aldean dauala Kruz, Kruz Zaztar.

Eskolea laga ebanean, Leon itsasora gogotsu eta joranez hasi zan. «Arrantzuko bizimodua dan garratza»!... Hamaika bider entzun eban hori. Bizimodu latza ta nekatsua. Horraitio, itsasondoko umeek gehienbat itsasoaren deia barruan daroie. Haren amaibakoa, uraren bizitasuna ta egonezina, kresalaren ederra, olatuen indarra, hango zirkin etenbakoaren erakarpena, eguzki urretsuaren dirdizpean. Izugarritasuna ekatxaldietan, halako zoragarritasuna egun bare ta irri-barretsuetan. Itsasoaren dei sarkor esanezina.

Eta arraina, itsaso adiskidearen emoi etenbakoa. Arrain handi, txiki, ertain. Sasoian sasoiko batzuk; edonoizkoak, beste batzuk.

Aitari ta amari lehengo dirutxuak etxera eroan eutsezanekoa...

Horraitio, mutikoa lehenengo itsasoan joan eta joan egin ezkeru, lehorrak begien bistatik aldegiten ebala konturatuten hasi zan. Kostako mendiak ezezik, lur barrurago egoazan tontor erpinak be, ikusmenetik galdu egiten jakozala. Eta orduan, ez zelan ez zegaitik ez ekiala, bere irudimenean etenaren irudia sortzen jakon, lehorraren eta itsasoaren bitartean luban zulo sakona zertzen zala. Eta bapatean, bizkoilaran etean halako larría hasten jakola, gura ez arren.

Lehorrean ez eban halakorik inoiz sentidu. Ontziratzean irudimena eta sabela..., Itsas haundiratzean, ostera, barruan larria, saman goruntz esturea, eztarrian gorazkoa.

Ontzilagunetarik batek susmoa hartu, eta esan be bai:

—Txo? Zer? larria? Zorabio antzekoa? Itsasoan lehenengotan zein ez da zertu? Hemen «izurdii» izan behar da, ez kabixoi ez abotxa. «Kafi» emongo deutsut eta «zarbuu» baino bizkorrago geratuko zara.

Baina Leoni horrelako esanek ez eutsoen hoberantzakorik ekar ten. Bere buruagaz hasarre ebilen. Ez eban gura inork makala zala esan egion.

Horraitio barruak ez lagunduten eta ok!... ok!... sarri bai sarri okada Leon gizajoa. Lagunek igarten eutsoen, baina ixilik. Leonek, aitaren ixilik, amari adierazo eutsan bere arbintasuna eta esturea.

—Ekandutuko zara —esan eutsan amak, lehenengotan.

Bai zera! Ez eukan hobekuntzarik. Ohean erabagiak hartu gura izaten zituan, asmo sendoak, adoretzu jarduteko, hasierako larriak gainduteko.

Eta jagi, goizetik jagi, eta barriro itsasora.

Joan eta joan, egunsentiaren ostean han ontzian goian zerua, behean ura, hain zuzen bazterrik bakoa ikustean, infernutik bialduriko behaztuna, mingotsa, eztarrian gora goraka susmatzen eban. Beti garratz, beti larri... harik-eta herriko bandan han goian Antiguako Amaren eleizatxuarèn taiu atsegingarria begien aurrean izaten eban arte. Orduan, lehenago irudituten jakon traganarrua, bale eta zeroien itsasaldia, zingorik aurkitu ezinako zan luban zuloa eta berebat samatik gorunzko garraztasuna, igarri barik bertan behera urrunduten jakozan. Arnasa zabala ta nasaia egiten ebanean.

Egunetan eta egunetan horrelan jaso zan. Domeka baten, han kortzelean alkar aurkitu eta ontziko patroiak Sabas amuginari esan eutsan:

—Sabas... zuen mutila... ez dakit nik baina, itsasoak ondo ez daukala hartzen, esango neuke. Estimadu neukan arren, beste zeozer pentsa behar izango dozue. Esan egiozu emazteari.

—Hau lorra! Itsasora pozik hasi zan, ba!

—Hain pozik... Gauzen ardurea hartzen eta zerean... laster susma nik. Eta mutil argia dozu. Zegaitik eskola gehitxuago ez emon?

Ettxera zanaz batera. Sabasek Baldasarari esan behar, ba.

Gero mahaian, aitak autua atara eban.

—Leon, han kortzelean, Leokadik ez baina, gaur eguerdi aurrean zuen patrioiak berba egin deust. Zu zeu, gizajo hori, ixilik ibili zarean arren, harek berak esan deust zure larritasunen eta gorazkoen gora-behera hori. Guztiok ez gara edozertarako ta... Ni neu be, txikitan, mutikotan itsasora hasi nintzan. Itsasoak ni ondo hartzen ez, eta nire ahaleginak alperrekoak izan ziran. Lehorreko eskulanari oratu neutsan, eta halantxe, hamaika amu, karpin, korain eta abar egin be. Sabas amugina izan naz ni. Dinodan hau holantxe da, ezta, Leon?

—Bai, halanbeharrez edo...

—Eskolara hasiko zara barrero, Leon. Urte bi zutzat laster joango dira, gutzat luzeagoak izan arren. Baina gurasoak umearen ona gura dau. Guk be bai. Zuen patrioiak edegi deustaz begia. Gizon zintzoa bera. Geroago... ba dot nik hor neure laguntzar bat, «bankeru» deritxaguna, kontuginen artez dakiana, dagoan lekuan dagoalako. Haxe izango litzateke maixu egokia. Mesede hori ukatuko ez deustala uste dot. Eta ordainduko deustagu zelan edo halan.

Aita berbetan eta Leonek, noizean behin, amari begiratuten eutsan. Honek, Sabasen berben ganerako, buruagaz baietz eta baietz.

Izan be, Leoni eskolako hilabeteak eta asteak igarri barik joan jakozan. Hurrengo udan astegunetan dendari, aitari laguntzen; eta iluntze aldean aitak erosi eban potinca joaten zirean biak. Baina batez be, domeka eta jaietan egiten eben euren itsasoratetxua.

Kaitik hurrean ibiltzen ziran aita-semeak, biak pozik hatan be.

Potinean joaten ziranean Atxazpi, Ikopea, Anakabe... hantxe izaten zituen euren begien aurrean. Eta Sagustan... sasoi baten lentoien lekua. Edo Zaldu, Kurutzemendi, Saturraran, Arno, Getariako sagua.

Lupinarik ez urrabururik ez bazan, berdel, itsaskabra, arraingorri eta karraspioak hartzen zituen. Etxerako lain eta gehiago be bai, horrela potina apurka apurka ordaintzeko, horren baten. Eta tximinoiak, txibiak,...

Eskolan jarraitzen eban arren, udabarri aldera aitak Leon lehenago aitatu eutsan harako «bankeru» gizon jatorragana eroan eban. Honek mutilari itaunak eta abarrak egin eutsazan. Udako oporretararte eskolan jarraituko eban.

Hamalau urte ondo beteak zituen eskolea behin betiko laga eban. Uda haretan be dendan eta potinean ibiltzen zan. Horraitio, irakasle izango ebanak liburu errez batzuk laga eutsazan, irakurten eta

ikasten hasi zedin. Kontugintzakoak eta horren inguruko gaiak euketzan liburuak ziran. Astean hiru egunez irakasle barriagana joaten zan, irakaspenak zertzeko eta etxean lantxuak burutu egizan.

Lan eta irabazi arloan urte eskasetan sartu ziran, mutila lanean hasteko gogoz egon arren. Aukera urria egoan ezkerero, mutilak ikasi eta ikasi jardun eban, bere maila apalcan. Eta halan, geroago, irakasle bereziaren berbetatik, gauzei buruzko «pratika alu» premiazkoa zanez, eta bide batez, hari berari lana arinduteko, kafetxe bateko kontuen paperak eta argitasunak aztertzen jarri eban, eta zerak ordenan jarten; horrelan Leon tarte baten egunero kafetxera joaten zan, eta han gela berezian jarduten eban hornitzaileen eta emoileen kontuak arakutzen.

Lan hori astuna ez zan, baina etenaldiak izaten zituan Leonek, noizean behin kafetxeko alaba gaztina albora joaten jakolako; neskato polita, ule baltzerana, Emeren izena ebana.

Leonek bere lanari adi jarduteko gogora erakusten eban, baina neskato urduriak batzuetan haren ondoan egotaldi ixilak egiten zituan arren, mutilari begira egotea atsegin izaten jakolako, barriketak hasteko gurariari eutsi ezinik susmatu eitekean.

Irakasle bereziak beste lantxu bat be, leporatu eutsan Leoni, izatez antzerako lana zana. Zera, Pixapeko Abaroko kontupaperak be ordenan jartea eta arakatzca. Beraz, Leoni zereginak gehituz joiakozan.

Behinola, Emeren mutila lanean ikusteko edo, gelara sartu zan. Barriketan hasteko gogoia, eta numdik handik:

—Leon... Hona etorten naitzazu, zeure albotxura. Eta zuk jaramonik be ez.

—Jaramon... Zu, «neski zaa». gu, mutilok, geuretara ibiltzen gara berbetan eta jolascan. Erdi «umik» gara-ta, guk neskakin...

—Zceer? «umii» zu? lehen bai, baina orain? Laster zenbat... Hasi jatzuz dagoeneko ulebizarrak hor...

—Goiko ezpanean apur bat.

—Goiko ezpanean bakarrik. Ijijiji... ijijiji...! Zu ta ni «loran gaaz».

—Zelan dakizu?

—Jakin.

Mutila neskatoari begira-begira jarri zan.

—Nik hemen zerbitzen dihardudanean, Leon —nik ez entzun egin arren—, mutil gazteei, eta gizonci be, konturik asko entzuten deutset.

Batez be, soldautzea eginbarri dabenei... itsasoetan ibili diranei. Horreek bai jakin! Horreek e...

—Zelako kontuak?

—Mutilen kontuak, neskatilenak, andrenak. Ba dakit nik...

—«Ba dakigu».

—Ez. Ez. «Ez dakigu». Nik, zeozer. Zuk... «ixeez».

—Zeuk esango?...

Neskatoak arrapaladan ihes egin eutsan, beste berbarik esateke.

Patroiak egun baten Sabas amuginari agerraldia egin eutsan. Dendan beste inor ez egon eta, patrioiak honelan berba egin eutsan:

—Sabas! Joan diran egunetan hiru lagunegaz berba egin dot. Horren ostean naiatortzu. Ez dakit jakitun zagozan, baina han zerean, Kofradian Kleto idazlaria ondoezik daukagu. Hara agertzeko ez da gauza hainbat ezago lanari oratuteko. Luzaroko gaixoa ete dan. Han, horratio, laguntzailea behar dabe, behar dogu. Bihar baino gaur hoba. Asmoa agertuko deutsut. Hona. Bankeruagaz berba egin neban lehenengo! harrezkero haren lehendakariagaz. eta oraintsuen Erremonegaz, ba dakizu, diruzainagaz. Eta hauxe da erabagia; behin behinekoea, jakina! Bihar goizean zuen Leon kofradiara joan dadila. Erramonen galdea egingo da; Sabasen seme Leon dala esango deutso, eta neuk adierazota doiala. Ulertzen; bai ze, honelakoetan azkar ibili behar da. Ezin daikegu eretirik galdu. Itsasaldiak ez gagizala esku hutsean atrapa.

—Kontxo! Milesker zeuri. Gomutea be!...

—Aspaldiko adiskide gara, Sabas. Ez dozu niri eskerrik zetan emon. Bihar mutila... hara! Goizean goizetik. Bitartean, ixilik. Inork be ez dau jakin behar. Lehenengo joaten dauanak, alde haundia dauka. Ondo dakizu.

—Kontxo!... Kontxo!...

—Berba erdirik be ez gehiago.

Sabas zur ta lur geratu zan, baina ez titan, sinestu ezinik.

Atsegin izaten jakon Leoni, lanetik lanera bitartean, bere uriko bazter jatorretan hara horra ibiltea, batera bestera.

Egidazu azkenean itsasoari begira ez zanean, Lameran, Kanttoipean, Zubizahar inguruetan, Kortzelean, Arrigorrin, Erriberan eta abar. Inoiz Erreteriraino be heltzen zan holakoetan. Iturribarri eta Alliri antzinako sagardautegi ospatsuen aurretik ibiliz.

Horrelan ebilen baten, ezebezetik buruan gurari bat sortu jakon. «Txirringea erosiko baneu? Bizikleta arin bat? Txirringularia ez bai-

na, inguruko toki politetara osterak egingo nituke. Saturran alde-
ra, Baurdo aldera, errekan gora Artibaiko urak ikusiz. Astegunetan
arte-bitartetan, baina batez be, jai-egunetan... Nire adiskide bi hor
dabiz. Ez naz eskasago. Bigarren eskukoa edo...»

Etixerakoan amak emon eutsan albisteagaz, konkortuta geratu
zan.

—Benetan ama?

—Ez, zera! Sinestu egizu beti amaren berbea.

—Kofradian sartuko ni? Eta eskribiente izango? Bihartik?...

—Bihartik, bihartik, ez. Baina zuen patrioiak hori esan badau, eta
lehendakariak, eta Erremonek... zeuk pentsa.

Apur bat baretu zanean, eta kaioa orekan lez une baten egon
ondoren, ikasten ziharduan liburu lodiagoaren orrialdeak iragan eta
iragan jardun eban, ikasirikoa bapatean gomutaratu gura baileuan.
Liburuak eta kontuketa paper luzeak eta liburuska laguntzaileak.

Arbin eta urduri egoan. Hurrera begira eta urrunera.

Kaskarrean eban asmoak be, hondartzako matxinsaltoak lez,
brinko ta jausi egiten eutsan. «Txirringea laster, bota barrura!» ira-
bazia, irabazi ziuerra izango eban laster. Ganorazkoa, aldi luzea joan
orduko. Amak ahotik kendu eutsan berba izan zan.

—Leon, orain ez baina, laster alobera ipiniko deutsue; bizikaturea
izango dozu.

Gerogarrenean aita etxera zanean, bere ahoz adierazo eutsazan
patrioiaren berbak eta agindu zehatza.

—Bihar goizean goizetik, zu, hara! Eta bertatik, Erremonegaz
berba egin. Eta erue bost zentzunak, han ipiniko deutsuezan kontuak
eta zerak artez eta bizkor egiteko.

Izan be, egunak begia zabaldu baino lehen kofradiara erdi ilune-
tan sartu zan mutila zein izan zan, gautu orduko jakin eben lehorre-
an egozan arrantzale gazteek eta gizon batzuek. Azterkuntzea egite-
ko Leon gela baten sartu eben arren, nahikoa izan zan han norbaitek
mutilaren belarri-ertza ikustea, albisteari hego arinak jarteko.

Leihotik leihora esan eutsoen haren amari:

—Baldasaaara... Zuen mutila han kofradian...

—Cure... A, ez dakit ezer.

—Ez jakin? Bazkaritan jakingo dozu, lehenago ez baldin bada.

Arratsaldean barriro joan zan Leon bere zerera. Eta biharamo-
nean.

Egun horren iluntzean, katuak gizonak baino hobeto ikusten dauanean, patrioiak Sabasen dendako atea ertzedegi, burua sartu, eta dendaria bakarrik ikustean:

—«Trés bien» —esan eutsan, itsasgizon laterriartekoa bailitzan.

—«Merzi beaucoup» —crantzun eutsan txeratsu eta jakituriz, aintzinako arrantzale baino geroago lehorreko arrain bihurtu zanak.

Etxfcrakoan, Sabasek bere emazteari hizkera murriztez —esperi-entzi barriaren bideari adi edo— adiera eutsan:

—Balda.

—Zer?

—Kodigoz jardun dogu.

Emazteak ixilunearen ondoren eta senarrari begira:

—Kodaina ta kodasta zer direan ondotxu dakit. Baina kodigu hori...

—Ikusi-makusika, andrea.

—Baina... zeinegaz zu ikusi-makusika?

—Ixilik... Zeragaz, patrioiagaz.

—Ba nengoen, ba!...

Baldasarari buruko garuntan zehar joan jakon, bere senarra gonartean edo, kodigo jokoz ete ebilen.

Egun bi edo hiruan Leon kafetxera joan ez zanez, han bere gelan lanean hasi baizen laster, agertu jakon erdi muxin Emeren neskatoa.

—Hutsak egin dituzu, hona agertu barik. Nun ibili zara?

—«Lanin».

—Nungo «lanin»?

—Ez dakizu, ala? Kofradiara joaten naz, «oyente».

—Kofradiara zu? zu!... Ume hori?

Orduan Leonek, harako autua atara gura izan eban.

—«Umii»... «erdi umi». Niri kontua esango zeustala adierazo zenuan, Eme.

—Zein kontu?

—Mutil kontu, neska... kontu.

—Angela Maria! Bibotea gehitu egin jatzula, esango neuke.

—Laga biboteari; eta esan... zerak.

—Itzartuten hasi gura orain, e? Lehen «umii» zinala-ta... Ba... ba... Gauzak apurka esan behar dira; bestela, ikaratu egingo zara-ta. Oraindino zu ez zara oilaskoa, txitea baino. Horregaitik... ba...

Neskatoak bere buruko uleei oratu, eskuan artu eta lepatxokotik paparraldera aldatu zituan. Igurtzi eta igurtzi hasi zan. Mutilak haren uleei begira ziharduan.

—Ule baltz luze ederrak daukazuz —esan eutsan, erdi lotsor.

—Nik i... gauza polit asko ditut. Baina zu, erdi tentela izan eta...

—Tira, Eme, esan egidazuz...

—Mutilen kontuak esango deutsudaz lehenbizi. Begitu. Zuk ez daukazu arrebarik, ez neskari etxean. Nik bai. Ganera neba bat ni baino zaharragoa, eta bestea mutikoa oraindino. Honek biok...

—Ba dakit. Zetara datoz azalpenok?

—Honeek biok ureztatze-gelan, ba dakit nik... eta zeuk be bai.

—Zer? Ez nik.

—Txotxolo hori! ba... daukezanak eta... ixildu nadin! Zera... mutilen goraberak esaten hasteko, neskaitilen konturik entzun gura ezbadozu, mutil zahar geratuko zareala esango deutsut.

—Horixe da nahastea!

—Ez. mutilzahar geratzen dircanak, badakizu zeintzuk direan?

—...Emakumeagaz bakarrean egoteko gauza ez diranak. Horreek... mutil-zahar.

—Zegaitik?

—Ezbardinen hartu-emona gaztetarik hasi behar dalako. Hori dala-ta nik, mutilzahar ikusi gura ez zaitudalako, ziri egiten deutsut. Ziri.

—Zer dauke, ba? Emakumeen bildurra?

—Bildurriak dirala, makalak, inuska antzekoak. Eta gero... mutilzahar. Ez ete dakizu iretargira be, gizon ezkonduak bialtzen dituela?

Mutila neskatoak zer esango eta zer egingo egoan. Honek, bere ule ederrak leporantz bota zituan.

Mutilagana aurrez aurre aurreratu, esku biakaz arpegia goitik behera eta behetik gora astiro igurtziz:

—Bai politik dirala zure begiak, Leon!

Honek, igurtzieldian, neskatoaren kolkoa ikusi eban, paparra zabal samar eukalako.

Emerenck bapatean igurtziak amaitu, eta arineketan ihesari emon eutsan.

«Ez zara «umii», ez Emeren. «Eletrizidadii» sortu deustazu gorputzean».

Alkarrizketa hau bere adiskide bateri azaldu eutsanean, honek, bape harritu barik esan be bai:

—Leon, zuri... katuarena pasa jatzu.

Semeak bere bizitzako esperientzi txikietan murgin lehenengoak egiten zituan bitartean, aita Sabasek bere artean esan eban:

—Gure mutilak oraingoan... pelota jokoan soster konturik ez dau aiatu behar. Ez hutsik egin, Kofradiako arazo horretan... besagain bete-betea dart... eta jokoa irabazi. Horixe!

Bere zeregin barrian, eta lehengo beste kontugintza txikiak laga barik, laster joan jakozan hile bi Leon arduratsuari. Asmoa beteteko era heldu zala uste izan ebanean, dapa! Han joan zan bizikleta den-dariagana. Amari erdi ezpanartean adierazo eutsan, gero honek berez berez aitari jakinerazo egion txirringa kontu hori. Ez jakinerazo behar. Lehenago eztanda egin.

Txirringa zaharrei eta barriei begira ibili zan. Bigarren eskukoak be, han egozan. Baina Leonek han egoan barri-barri bateri begia bota eutsan. Bai, ba; bigarren hilabetea: zertzean, lehengo eskupekoa emon eutsoelako, ez zan lehen baizen ez-eukia. Amak berak agindu eutsan, ba: «Hartu egizu zerbait, patrikerarako».

Orduan jakin ba ekian bizikletan. Aurrerantzean, maixu egingo zan «ziklistii» ez baina, hobeto ibiliko zan, eta ardura handiz jagongo eban bere burdinazko asto barri-barria. Ikusi eben mutil koskorrak, eta ez hain koskorrak, ahoa zabalik laga zituan. Hilero honenbeste ordainduz, zorko erosirikoa laster zorrik bage lagako eban.

Emerenek Leon bizikleta ganean lehenengoz ikusi ebanean, bere biziko txerea egin eutsan:

—«Zoroburdi» hori zeurea al da? Eta niri be ez adierazo, lantzoi horrek?

—Bapateko burutasuna... eta hona hemen «ankarteko panderu».

—Ja, Ja, ja, ja!...

—Izen-modu hori baserritarraei neuk entzuna da-ta, zeri barre-ok?

—Entzun tira! Baina esau, zeuk esan?... Zera, Leon, domekan dantzara joango al gara... norabaitera? Txirringa ganean ni croango...?

—Nigaz joan? Domeketan zuk u... ez al dizu hor Lukas «Bokarta»[?] Harek zure «erreturatu» erakutsi eustan behin.

—Ba... «Andra Maixekatu, plazakuu». Ez jaramonik egin.

—«Plazakuu»? Ba zuk han... «korbati» lako zinta estua okaran bien ganean eta ixkitarako zalabardo txikia... «zereko zeriin»... bes-terik ez.

—Lotsabakoa. «Plazakuu» da. Bene benetan. Gorputza ez da nirea, burua bakar bakarrik, oholaren atzean jarri nintzan eta, rast! «erretratu».

—Ganera Lukasek zure ule bi gordeta dituala, «Burukuk».

—...

Txirringa ganean aldatzetan gora hasi baino lehenago, bide laueta zehar joatea erosoago ez ete zan uste izan eban Leonek. Horrelan, Erriberatik aurrera joiala. Zubibarria alde batera laga eta Errenteriaruntz abiatu zan. Egun polita ekarren domeka harek Artibaiko uren ondoko bidean zehar joateko, batez be, txirringa barriaren ganean.

Aitak egun haretan, semearen guraria susmatirik, potinean bera bakarrik joango zala adierazo eutsan.

Grin!... grin!... grin!... eta han joian Leon, Erribera kalean batez be, txirrinari hots eraginez eta galga biei sendo oratua noizean behin, ahaleginez inor jo ta bota ez egian. Praka motzak eta jersei polita soinean, dotore agertzen eban bere burua mutil alaiak. Hasi barritan, mutikotxuek, ha ikusiez batean, oihu egiten eben: «Aiba... «ziklistii»!

Baina mutil hazitxuagoek, bai laster bota be, inork eskatu bako erantzuna: «Leon Sostor, eta ez beste inor». Uriko neskatoek be, begira egoten jakozan. Ibili-ala, gero ta hobetoago ikasten eban, zuzenean aina okerrunetan be, azkar joanez; zuzenean tente gorputzaren goiko alde, bihurtzetan, berriz, itsasontziaren bela luzea haizearen eraginez, alboratzen dan antzera.

Ikasi ezezik ikusi be egiten zituan begien aurrera etorkiozanak; mendiak, muinoak, solo eta zuhaztiak, bideko zubitxu, alboetako basetxe, bidean joiazanak eta etozanak, beribilak, burdiak, astoak eta astodunak.

Ikusi, ikusi... Horraitio, behinola, ordurako hiru lau bidar bere begien aurrean izanikoari, lehenengoz ikusi baileuan, erdi tentelduta, Leon begira ta begira geratu zan.

Astoganean etorren neskato begi argia, buruko ulea urrezkoa... «Bai, bai. Hori ikusi izan dot nik. «Baine»... Leon, nun egon zara orainarte horrelako gauza ederraz konturatu barik? «Gauzii» ez, «emakumii»...!

Neskatoak alboan bere astodun bat ekarren, andra sasoikoa bera.

Leonek joian bideari bizkarra emon, eta uriruntz egin eban, astodun biei ixilean lagun eginez, baina hareen atzetxutik.

«Nungoa ete da, Milloikoa, Larruskaingoa, Azpiltzakoa, Berrittukoa, basetxe ezkuturen batekoa? Jakin egin behar dot, jakin. Gaur ez bada, hurrengo domekan, barrua bareago dodala. Ene, ene! Horixe bai «txibi zurixe»! Ezin galdu negi; ezin...!

Hurrengo domekan, aitak potinean joateko konbita egin eutsan Leoni. Barruko guraria apur bat tximurtu jakon aitaren berba hori entzutean. Itsasora joan zirean eta goiz eder haretan arraina polito hartu eben. Asteak txiritxiri ihes egin eban, eta jai egunean, aita mezatan egoan bitartean, zer gertako, txirrinaren ganean han joan zan Leon, Erreteriruntz. Orduan be, neskatoa ikusi eban, baina beste astodun bi alboan zituala. Ikusmenari —eta buruari— atsegin cimon eta Leon pozpozik etxeratu zan, hainbat bidar neskatoari begiratu, eta honek be, begirada samurrak egin eutsazala sinestu ebalako.

Jai goiz harek argitasunaren hasierea zirudian, eta halantxe, beste jai goiz baten, Kamiñazpi haruntzago, aurrez aurre ikusi eban uriruntz etorren neskatoa, oinez, astoa trailan ebela. Galgea zeharo estutu eta etozanen alboan geratu zan.

—Zeer? Plazakoagaz, e? —esan eutsan Leonek, erdi kezkaz, erdi lotsor.

—Bai, ba. Jango bada, egin behar da —erantzun eutsan mazal mazal baserriko alabeak—. Eta zu, haruntz zinoiazan... Inoiz ikusi zaitudala, esango nuke.

—Bai, ederra; behin baino sarriago alkar ikusi dogu. Baina mutuak baiginan ibili gara. Gaur, ostera, zeure berba... lagaten badeustazu...

Leon bizikleta ganetik jatsi, eta hau eskutik ebala, bera be oiñez ibiltzen hasi zan, neskatoari lagun egin beharrez. Eta esan be bai:

—«Nunguu zaa»?

—Zu zeu, berbetatik, arranondoarra —eratzun eutsan, berezko jakiturriagaz neskatoak. Baina marinela ez zara. Dendaria edo, Kordeleleriakoa edo...

—Gure aita, eta ni neu be, arrantzale izanak gara. Baina zeu...

—Zetarako jakin gura dozu? Ni, baserriko unca naz.

—Ez zara «umii». Ez, ez; zeuri begiratzea besterik ez dago. Goi-zetik lorea, gure amak esango leukenez.

Neskatoak irribarrea egin eban. Astoari «arri» esan eutsan.

—Bizikleta dotorea, e?

—... bai; zeu lakoa.

Ezti koloreko ulea eukan neskatoak urrunera begiratu eban, ixilik, ez-entzun egin baileuan.

Honetan atzetik bizkorrago etozan astodun emakume batzuk gazteen parera heldu ziranean, neskatoagaz autuan hasi ziran.

—Amaitu da gure arlo gozoa, laztana —esan eutsan neskatoari.

—Lehenengo egunean... laztana diraustazu?

—Bai. Ez dakit nik guzurrik esaten. Agur, hurrengo bat arte.

—Agur... txotxo.

Leonek Plazakolaraino joan-etorri azkarra egin eban. Hegoak eukezan txirringearen gupil finak. Bideondoetako beresi eta txaraketan bidegarroak kantari ebiltzala iruditu jakon. Goizaren ederra!... Etxerakoan ez eban astodunik ikusi.

Iluntze haretan Leonen irudimena harro eta haizetsu egoan. «Haxe bai babalorea! Ai, txibi zuri hori!... Nun horrelakorik?» berbok buruan erabili ta erabili, zortzikoaren doinuz jantzi zituan bertso laburrok:

Ai, txibi zuri hori!

Zeinek hartuko dau?

Amodioa ete

gurari bero hau?

Egun lorrina gertatu zan hurrengo domekan, euri ziriña, haize zazkela. Damuz baina, «etxe eguma» egin beharko txirrindulari gazteak. Aukeran etorkion, berriz, kafetxeko lanei ekiteko. Emerenen begiak gogara ikusi eben Leon. Ingurumari ibili jakon neskatoa, bes-tetan lez, hau esan, hori galdetu.

—Hauxe da neskearen txirritolea!

—Txo, ez al zara konturatu nire buruko uleaz? Beste modu bateko orrazkerea. Ikusten?... Alperrik! Ni, zertu naiaztu, be.

—Zertu egin zareala, Emerentxu?

—Ai, uste bako mutil loratsua. Ba... zeuk be, orraztuak eta... bibotea be, moztu egin dozula. Nogaitik egiten...? Esango? Ez esango? Begitu: argazkia daukat zeuri emoteko, baina...

—Ea, ikusi.

—Berbetan... eta zelako kontuak esaten genduzan, ahonekoak... Bai. Atsegin zintzatزالako. Neska batek ez deutsoz edonori esaten arruko... Ba dakit nik. Orain, txirringa ganean... nora, Leon, domeketan?

Ez zalakoan ba zalakoan, Emeren maite-muxinak izki egiten eutsan. Izan be, haregaz egin izan zituan lehenengo neska-mutil autuak; harek begiak edegi eutsazan, numbait. Lehenengo emakume usaina, lehenengo igurtziak. «Haxe txibi zuri haxe ezagutu ez baneu...»

Eta bigarren zirikaldi honek garai egin eutsan. Eguerdi aldera zerua garbitu eban, eta arratsaldean Leon bideak jaten joango zan, txirringa ganean, Artibairen uren auza dan bidean zehar.

Bideetan ez egoan gura ebanik. Berritturaino heldu zan. Eleizatik azkenengo atso banakak urtetan eben. Plaza aldean gazteak aldretan egozan. Barriketetan eta barre algaraka. Aldra baten ikusi eban bila ebilena. Bertatik, alboan eukan mutil morrosko batek neskatoari besotik oratu, sorbaldan besoa ezarri eta biak tabernara sartu ziran. Leon, lehengoan taketa lez, geldi zertu zan. Berehalakoan barruak eraginda. Tabernara joan zan. Erdi ilunetan, lehenengotan ez eban aurean begietako lausoa besterik. Horraitio... han egozan, mahai baten inguru mutil morroskoa eta neskatoa, astoganeko neskatoa, harako txibi zuria. Leonek handik brastadan aldegin eban. Bideetan ez eban bidegarroren kantarik susmatu. Artibaiko uren kantu arinik be ez. Errezu motela eretxi eutsan. Ordu lauren baino lehen, etxean egoan, «Mendebalak atrapau nau, ez arrain eta ez aparior...»

Afaritan amak trumonaizearen zera nabaritu eban. «Gaur... domekea. Honek e, gogoko jakon neskaren bat... beste norbaitegaz ikusi dau».

Harik egun batzuetara, Kofradian lancan ziharduala, mutil morrosko bat heldu zan, eta Erremonen galdea egin eban. Leonek berak eroan eban harengana. Zanak zertu eutsan: «Hauxe da Berrittun ikusi neban morroskoa, baserritarra. Baina... txibi-koraina nik baino azkarrago erabili dauana».

Erremonek, morroskoa ikusi ala, panparroi eta zarataka:

—Hona hemen gure lobe, gure indianoa... Gollibarko semea...

Lehenengoan eta bigarrenan be, Leonen anes-lorea erdi zimeldu egin zan arren, ez eban etsi. Azterrenak gehitu egingo zituan. Eta horrelan, han Zubibarri inguruan ezagun jakon baserritar andrea ikusi eban hain zuzen asti bi alboan zitala.

—Andratxua... Asto galant honen jabea... Zera, bere izena...

—Bai, mutil, asto honen jabea Basi dozu, Basili Bolu.

—... zerekoa, ezta?

—Bai, ba; Berrittukoa izatez. Ezer gura...

—... eee, ez. Goraintziak emon egiozuz, hemengo mutil baten...
Kafetxera agertu zanean, hasierako berbak tiraina ekarren.

—Zenbat egunean agertu barik, Leon? kontuak atzeratu edo...
Emongo deustugu, emon!

—Zer emongo deustazu, txiki? Esan egidazuz zeure gauzatxuak,
nik neure lanari ekin bitartean.

—Nik zuri ezer emon? Zoaz... Arrigorrrira.

—Bai, zeugaz joatekotan. Noiz joango gara? Han ikusi gura zai-
tut; «bokartak» ikusten ez dauana nik neuk... Pelotan egingo dogu,
eta igerian gero, Eme.

—Leon, horrek dira berotasunak. Zelan orain bapatean? Zeure
uko horreen ostean ni beste bategaz...

Leon ixilik lotu zan. Neskatoa erdi haserre, sukalderuntz joan zan.

Lotaratu zanean, Leonek «Hauxe da edan bako moskorra. Txibia
baserritarrak hartu deust. Zetarako jakin haren izena eta nungotasu-
na? Emeren zenteilak harturik ikusi dot... Ez txibirik ez olagarrorik!
Hor konpon guztiak. Mendizale egingo naz. Pelotaka jardungo dot
neure laguntzarrakaz. Domeketan, potinca. Arratsaldean zinera eta
dantzan...»

Itzartu zanean, egunaren argia leihoko zirrikitutik sartzen zan,
alai eta ixilik. Leonek buruko astuna susmatu eban. Baina jagi, gosald-
du eta Kofradiara joan zan. Doinu baten durundia eukan belarrietan,
berbak esan gura ezta ebilen doinua... «Ai, txibi zuri hori...»

Zapatuak domekea ekarri eban, eta honck... sagardauaren eta
bertsolarien urira bide Leonentzat. Mendiak goisko samar egozan,
nunbait. Artibairen alboko bidea zabala, lauago.

Lanbroa al zan, lausoa eta zan? Bai, zera! Basil etorren, astoga-
nean, trakatraka; bakarrik etorri be. Leon, geldi, oinak lurrera. Itxa-
roten.

—Ta, Basili! Aspaldikoa. Nun da ba, harako morrosko ederra?

—Enc! Nire izena jakin dozu... eta morroskoarena, zeinek esan...

—Ardureak.

—Morroskoa... ba... urrunera joan da. Hemendik hiru lau urte-
ra...

—Lastimea —urten eutsan mutilari ezpan-artetik.

—Lastimea... zer?

—Nik zu lchenago ezagutu eza. Ha bera ni baino morroskoagoa
da baina, harek daukana nik be...

—Bizikatura, adierazo gura deustazu?

—... bai.

Bideari ekin eutsen, uriruntz. Neskatoa astoganean, Leon oinez, bere tramankulua eskutik eroiala. Mutilak Basiliri arpegira begiratu-ten eutsan sarri, behetik gora. Begien beherazkoan, ostera, ikusmena jaisterakoan, neskatoaren belau politik, berna biribilak astiro eta gozari ikusten zituan.

Neskatoak halako baten, soinean eukan jersei botoduna erantzi eta belauak eta bernak estaldu zituan.

—Basi...

—Zer?

—«Ixez».

Leonek bideruntz eta urruneruntz begiradak egin zituan.

—Zera... zuk nire izena jakin dozu, eta nabarmen zakustaz niri begira ta begira —inotsan neskatoak—. Baina zeure izenik ez dakit, nor zerean ez dakit... zuk... nire arduraz zagozala esan arren.

—Ai, Basi...

—Zeer?

—Argiro esango deusut. Nire izena Leon da. Arranondoarra naz, bai. Lanbidean sartu ninduen eta kontugintzea da nire zeregina.

—Gizon izateko bidean zoiaz. Ta oraindino gazte zara. Neu be bai.

—Zuk, horraitio, bidelaguna...

Ixilunea gerta zan eta honetan haize brastadeak Basiliri belau ganean eukan jerseia aidean eroan eutsan, eta hurrera jausi zan.

Mutilak jerseia berehala hartu eban, eta jaso.

—Emoidazu —neskatuak, eskua luzatuik.

—Geldi.

—Emoidazu, bestela astoganetik jatsi egingo naz.

—Zeutzako txarrago. Ez zara jatsiko!! Entzuidazu: zeruak edertasuna emon badeutsu —eta emon deutsu— zetarako dana estaldu? Gorputzean daukagun guztia geurea da, berezkoa da, ona da.

Neskatoak ixilik, Leonen berbak hausnartzen zituala zirudian. Mutilak barriren barri goitik beheruntz astiro begiratu eutsan, astiro.

—Basi...

—Zeer?

—Eutsi, zeure jersei hau. Eta parkatu. Baina ez dozu lehen lez, berea ez dan lekuan ipiniko. Mojak be, gonak laburtu egin ditue. Eta zu eta ni... mundukuak gara. Bakotxak norbere zerak ditugu. Ez al da egia?

Neskatoak, irribarrez, bere jerseiari oratu eta bizkarrean zabaldu eban.

—Dana dala, Basi, zuk eginiko taloa norik jan legian...

—Zintzoa danak.

Bapatean arrapaladan iragan zan beribilak astoa izutu eban eta hau gora gora hasi zan. Mutilak, txirringea lurrera jaurti eta astoari samatik sendo oratu eutsan.

—Geldi, astoa! Eskerrik asko, zera... Leon. Beranduegi nabil. Bizkorrago joan behar dot. Ez zara mutil «txaarra». Eeeez.

—Domekan, Basi... goizean barik arratsaldean ni...

—Ez, arratsaldean, ez. Oraindino haren zain nago-ta.

—Ha... urrun dago. Ni, hemen. Ez zaitut bakarrik laga gura. Entzuten, Basi... txu...

—Baaai.

—Astoa ta astoganekoa uriruntz aguro joan ziran. Geroago Leon be bai.

Etxean bazkaritan amak honetara ziharduan.

—Lehen, mezatatik urteieran, andra batzukaz nentorrela, haizearen astinaldiak, eskuetan neukan mosuzapia eroan deust. Lurrera jausi da...

—Lurrera jausi? —esan eban ez ustean Leonek.

—Bai, lurrera jausi, haizeak teiltura eroan ezean. Ba niharduan lez, neskatila polit batek hartu eta eskeini deust:

—Eutsi, andrea. E... Leonen ama, ezta?

—Baaai. Ezagutzen al dozu?

—Ez hoba!

Eta irribarre samurra egin eta bere neska lagunakana joan da. Neskatila polita. Polita neskatilea! Ule baltzarena. Liraina eta haziera onekoa. Kafetxekoa dana, lagunak esan deust.

Leonen bekokian izurrak sortu ziran, haizeak itsasazalean ohi dituan бага txikien antzekoak, koltxoiak ez baina. «Emeren ama, Basili... Mundua darabilenak emakumeak ete dira? Bainak amak ez daki danaren laurenik be. Ai, ama, «txibi zurixe» ezagutuko bazendu...!»

Kofradian, Erremonek albista pozgarria emon eutsan. Izentapena behingoan egingo ebela eta Leon han lanoineko geratuko zala. Bizikaturea eskuetan eukan. Gizon egingo zan ezkerero, mundua... zabalago izango eban. Bere bideak, berberak aukeratuko zituan, emaku-

meei jaramon gitxiago eginik emakumeak... atzetik etorri eitezala. Emakumeak, sorginak ziran.

Horraio... sorginen artean, sorgina ez zan bat eukan; bere ama. «Gure ama, gehicnetan susmo onekoa da. Kafetxeko neskea polita dala, liraina eta haziera onakoa. Bai, ez da makala. Baina, ama, ha... zeure antzerako baserritarra... Emerenek, arranondotarren gatza eta edertasuna euki dauka. Atsegin jat. Zetarako guzurrik esan? Basili agertu ez balitz baina agertu egin jat eta...»

Bere misterioa inori azaldu gura ez, eta azkenean be, adiskide kutun bateri zertu eutsan. Hau, kanposantuko hilobiaren antzeko izango zan.

—Neskatila bat maite dozu, Leon. Bestea, ustez, maiteago. Zoiaz honen ondorik urte bi hiruan, gora beherak zertu leitekez. Bihotza, sarritan, burua baino jakintsuago da honelako zeretan. Horraio, maitetasun bidea luzea da. Bizitza guztikoa izan leitekena. Ezkontzako berbak, berbak baino ez dituzu.

Adiskidearen esan honek zartada haundia egin eutsan Leoni. Aurrera egin beharko. «Maite izango danaren zer guztiak errespetagarri izango dira. Basiliren gauza guztiak. Eta asmoak, eta egitadak. Baiña... bertan behera ezin laga negi. Itxaropenaren argiak diz diz egiten deustan artean».

Harrezkero, Errenterian zehar ibiltzen zan arren, Leonek ez eban aldikada luzean Basiliren gerizarik inon ikusten. Zeozer jakin guran eta behin bidean, neskatoaren ezaguna zan andra maratza aurkitu ebanean, honengandik jakin eban Basili Larruskainen egoala, izeko gaixoari laguntzen joana. Txirrindulariaren partez goraintziak emon egiozala esan eutsanean, astodun andreak zertu eutsan, samurkiro:

—Zuk u, neskatila eder hori maite dozu, ezta?

Mutila ixilik geratu zan, baina baserrikoak irribarre eginez batean, buruagaz be, baitz zirautsan. Alkarri agur egin eutsen.

Ama Baldasarak begiak eta belarriak erne erabiltzen zituan.

—Kantari dabil gaur etxeko txoria.

—Zein txori? —itandu eutsan Sabasek.

—Zein txori izango da? Gu txori zaharrak gara kantateko.

Baldasarak bere artean: «Kantuon eragile, kafetxeko ule baltzerana ete da? Ez neuke ezetzik esango, gustagarria da-ta. Baina beronek ez dino ezer, eta ez deustat ziririk egingo».

Kofradian Erremonen galdea egin eben urrutizkiñez. Arinekoa zala. Erremon, oster, ez egoan han une haretan.

—Heldu baizen laster, anaicari dei egin degiola.

Hain zuzen Erremon laster heldu zan eta deiez hasi.

—Eeee?... Zelan?...

—...

—Ezin, baina.

—...

—Bai, beraz? A, gixajo handia. Hain gazterik. Horra ba. Oraintxe noiatzu, haren basetxera alkarregaz joan gaitезan.

Erremon arnasea bete ezinik geratu zan. Kofradiako langileak eta idazlariak hurreratu jakozan, zer jazoten ete jakon. Izerdi larria erion bekokian eta matrailletan behera. Leon, han egoan, adi adi.

—Harako gure lobe... ba dakizue... aurtemcin Ameriketara bihurtu zana, Gollibarko alabearen semea... hil egin dala. Ez beharrez; beribilak alkar jo eta... hiru lau urte barru bihurtzekotan, eta ea ba...

Erremoni larria egin jakon. Horraitio, Leonen barruan zer jasoten zan berberak be ez ekian. Burua ondarrez bete jakola uste izan eban. Belarriak eta ahoa, urez. Itsasoa ura gora bizian etorrela edo.

Erremonek handik aldegin ebanean langile enparauak baktoxaren lanari ekin eutsen barru. Leonek paperak atzera eta aurrera erabiltzan arterik hartu ezinik. Gurmca eta lainoa batean eta argitasunik ez.

«Zeñek esango honelakorik? Ahaztutea, hasarratzea, lagatea, gauza latzak dira gazte batentzat. Baina brastadako heriotzea... han urrunean! Maite dodanaren samina, neure samina da. Basiliren atsekabea ez da txikia. Zer egin negi? zer egin negio? Baina ni, nor naz, inora edo inogana joateko? Honelako gauzak jasoten ziranik ez neban sinestuten. Liburuetako zerak, pelikuletakoak...»

Leonek laneko orduari adi kalera urten ebanean, puntarengo moilara joatea erabagi eban. Han itsasoari begira ta begira egon zan, adi, geldirik, ixil-ixilik, itsasondoko gizasemeek egoten dakien antzera, sorgor, urrunera begira, ezer ikusteke, behar bada.

Urrunera begira... baina begiko kaniketari josita eukana Basiliren irudi maitagarria zan. Lorrez ekusan, han basetxean, atsekabeturik, negarra begian.

Leonek itsasoruntz azkenengoz begiratu ebanean begiak zeruruntz be jaso zituan, eta han urrunean itsasoak eta zeruak mosuka ziharduela iruditu jakon.

Harik egun batzuetara, eguerdi aurrean mahaian bere lanari ekio-
nean, Leoni emakume ahotz gozo eta ezaguna entzuten ebala begi-
tandu jakon. Burua dzart! jaso eban arren, egoan lekutik ez eban hel-
dubarría ikusten.

—Erremon jauna hemen al da?

Han hurrean egoan idazlariak emakume hori Erremonengana ero-
an eban honen despatxura. Leoni luze bai luze egin jakon unadearen
ostean, despatxuko atea eregi eben eta Erremonek eta heldubarría
erdi barruan erdi kanpoan berbetan ziharduenean, Leon apurka
apurka, katuak ohi duan antzera leku egokiruntz urreratu zan.

Emakumeak hau ikusiaz batean, gozo gozaro:

—Leon —esan eutsanean, mutilak erantzuez.

—Basi... —berba laburra ebagi eban, samurkiro, eta neskatillea-
ri eskuan mun egin eutsan. Honek eskutik sendo oratu eutsan Leoni.

Erremon, giro sentimentuzkoan hain murgildurik egoana,
harritu egin zan. Begiak zabal zabal jarri zituan, eta batari eta bes-
teari, gurasoak ohi dauan samurtasunez begira eta geldi, tenteldu-
ta egoan.

—Ene! Basili gaixo horrek... gure mutil barri hau ezaguna al
dozu?

—Beronek esan dagiala —generatu eban harek, berez berez eta
tolesbaga.

Erremonek eskuak antxumaturik, zurtzatuta, berba barik geratu
zala zirudian. Ixilune nekatsu haren ostean:

—Leitekena da... leitekena... Holakorik i! Horraitio... leitekena
da.

Gazte biak hurrera begira egozan, txori izutuen antzera.

Erremonek, erion negar-malkoa, esku ganeagaz lehortu eban. Eta
hurrengo malkoa be bai.

—Horra, ba, Basili! Honclan izan ez balitz eitekena zan, nik
beranduagorarte zu ez ezagutzea. Eta geroago be, betiko edo, zuk eta
harek hain urrunera aldegitea. Orain, berriz, leitekena da, gugandik
hurre hurrean...

Erremonek Basiliri bostekoa zertu eutsanean, neskatokak hil zana-
ren osabeari mosu emon eutsan.

—Agur, Basili! Eta zuk, Leon... zer egiten dozu hain geldi?

Zoiaz, lagun egiozu, erbestetik etorri jakunari. Etorri... jatzunari.
Gizabidezkoa dozu. Zoiaze. Leitekena da... leitekena...

Eta neska-mutilak, lotatik urteniko umeen antzean, alkarri
eskuak emonik han mailetan behera ikusi zituanean, Erremonek,
ixildu ezin, eta berba egin beharrez:

—Bihotzaren legeak... Uxatu ezinak —esan eban errezu antzera.

Atzena
Erkiaga'tar Eusebi

LUKASEN ERAKUTSI ONA*

Nok ez dau ezagutu Lukas Ulegorria, langilleetan langilleena?

Berba oneek esanik asi eban aitita Batxik, neguko gau luze aretan sutondoko ipuiña. Aititari adi adi, an egozan bost ume, neska mutilak, afaritarako artozopea egiteko, laratzean topiña galanta esnez beterik egoanean. Aitita Batxi sutondoko zizailluan jesarrita, umeak barriz zurezko aulki txikietan. Eta unerik koskorrenak bere abiea aititaren belauñ ganean egin ebala zirudian. Ume soster oneri Paule critxon, eta aititak pipea artzen ziardueñean, aoa eta sudurzilloak keez beteten jakozan eta eztulka asten zan arren, ez eukan bere jesar-leku azur ganekoa beste iñori trukegiteko. Alperrik iñok Pauletuxuri aolkurik emon. Paule aititagaz beti.

—Lukas lagun askok ezagutu eben —jarraitu eban aititak—; nik neuk be bai.

—Zelakoa zan, aitita, zelakoa?

—Zelakoa zan? Txikia baiña gogorra, arako Arratiako zekorraren antzekoa. Gizon bardingoa baiña apur bat apalagoa, txaparrotea, aragi andi bakoa.

—Aragia zer, aitita?

—Ba... koipe gitxi eukala Lukasen gorputzak. Txikia ta lerdena zan. Tripa leua, gantzik bakoa. Ez uste izan gero, gantzik bakoa zanik.

—Gatza?

—Pertsonen gatza ganorea da, jasa, trebetasuna. Eta Lukasek ba eban orrelako doerik. Berbako gizona, apaltasuna zan aren ezaugarri nagusia. Ba dira ume indartsu ta jasekoak be.

Une onetan, neska mutikock euren arteko Manutxuri begiratu eutsoen, onek be, txikia izan arren, mutiko indartsuaren entzutea ebalako.

Manuk, serio samar, ixilik eta geldirik egon eitezala jakiñerazo eutsen ume enparaueti, atzamarra ao aurean jarriaz, eta beste eskua zabal zabalik, beeruntz beeruntz eroaten ebala. Orraitiño, zan eska-sean bere bularra aizez beteten ebala zirudian.

Aitita be, Manuri begira jarri zen eta bere biloba ori morroskoagoa begitandu jakon.

* Zer, 107, 1987.

— Bai, Manutxu be —jarraitu eban aititak— txikia izan arren...
Eta soiñuari oratu ta aintziñako kanta au abestu eban:

“Txikia izan arren
izan lei sendoa;
gora gure erriko
tanbolinterua”...

Umeak barre algarea egin eben, barriketa utsa zana, soiñu ta kanta alai biurtu zanean.

—Baiña indar utsa, indarra besterik bage, arrokeria lez crakutsi gura izatea ez da bidezko, ez da zuzena. Manutxu ez da bapere arroa, eta ori ondo! Ba... esaten niarduan Lukas ori, pertsona batzuen ustez, bazterrean izteko gizon apala zalakoan edo, aintzat artzea be, merezi ez ebana zalakoan edo... an egoan eta an ebillen. Izan be, bere burua erakuste zalea ez izan, eta bere nortasuna gordeta lez eukala esan giñei.

—Nortasuna zer da, aitita?

—Nortasuna bakotxa bere izatean dago. Nortasuna... danok dogula esan giñei. Baiña askori ukatu egiten jake. Gizonezko batek edo andrazko batek besteen aurrean erakusteko dauan izakera berezia, orixe da nortasuna. Eta nortasuna daukanari lotsca, errespetua, begiramena izaten jake.

—Eta bildurrik, aitita?

—Bildurra be, sartzen dabe iñogan, nortasun gogorreko diranak. Bai, besteen kolkoetan. Baiña Lukas apala, bakezalea ta ixilla zalako, nortasunik bakoa zala uste eben batzuk. Gizajoa zala, une izate-tik artean urten ez ebana.

—Gure errian ba da iñor nortasunekorik?

—Bai, mutil. Berbarako, Zoilo Lazurtegi. Ezagutzen al dozue? Ba, Zoilo ori, uriko alkate izana da, iru bidar ganera. Zer esan gura dau orrek? Erritarrak estimadu euki izan dabela.

—Aitita, gizon guztiak izaten al dira alkate?

Aititak irribarrea egin eban, eta aoan eukan pipan tabaku barria sartu, eta su emon.

—Gizon batzuk ez dabe kargurik gura izaten. Baiña karguak gitxi izaten dira, eta gizonak geiago. Orretara ezkerro, batzuk, kargua gura izan arren, ez dabe sarritan edo iñoiz be, kargurik lortu.

—Eta zu, aitita, alkate...?

—Ni, txotxo, ez naz alkate iñoiz izan, baiña epaille birritan izan naz.

—Neskato mutikoek alkarri begiratu eutsen, pozez edo, arrotasunez edo.

—Eta, zer da ori, aitita?

—Begitu. Alkateak erriko ondasunak, erriarenak diran gauzak, diru, kale, eskola, argiak, garbideak eta abar zaindu bear ditu. Eta epailcak, ostera, batzuen eta besteen artean sortzen diran eztabaidak, eskubideak banandu eta zuzendu bearra izaten dau. Eta karguetan jarduteko, nortasuna bear izaten da; osterantzean, kittu.

—Eta Lukas...

—Lukas, esan deutsuedan lez, ez zan nagusi antzeko edo kargua bereganduteko kezka bizi. Orraitiño, bere apaltasunean erakutsi ona emon eban, bapere arrokeriarik azaltzeke. Erakutsi ona...? Bai, bein! Onelan izan zan.

Bazter bateko kalean egoan etxe zaarra konponduteko lanetan asi zirean arotz eta igeltseru. Etxe zaar orrek iru mailla gora eukazan, iru pisu. Konpontze obra ori egiteko, aldamiño antzekoak edo, ipintekotan asi zirean. Ipintekotan diñot, ganoraz asi ez zirealako. Zapatua zan egur eta ol batzuk zelan alan orma kontran erdi ipiñi ebezanean. Egur eta ol banaken auzo antzean, teillatu apurtuko aga ustelak be agiri egozan, kaletik ikusteko moduan.

Biamonean, domekea, eta eguerdi inguruan, kalean naikoa lagun ebillenean, mutiko batzuk, atetako atea edegita egon be ta, goruntz joan zirean, an goian zer ikusiko. Mutikook, zirti-zarta eta triski-traska, teillatu zulatuaren ganean agertu zirean. Kalean egozanak konturatu, eta arrituta egozan eta bildurrez.

—Mutillak! Geldi or! Alde ortik atzeruntz! Bestela arriskuan sartuko zaree, arrisku andian...!

Mutikoak entzun ez entzun, an ebiltzan euren okerrerietan. Eta orra! Aga zaar baten musturra ausi, eta mutiko bi ormatik beeruntz etozala, an egoan aldamiño ganorabakoaren ol mee eta estu baten ganera jausi zirean.

Ikusleen bildurra eta izua! Mutillok errez jausiko dira, ol estu ori be, austen bajake. Orixe uste eban jenteak orduan.

Jentea jai eguneko jantziz egoan, alkarri begira eta goruntz begira.

—Bonberuen zera edo, bear izango litzateke.

—Bonberuak urrunegi dagoz.

—Orduan, gizon gazteren batek edo...

—Umeak igon dabe, baiña aldamiñoak ganora barik dagoz oraindiño, eta nor joango...

—Ba, zeozer egin bearco da.

—Egin bear izango dogu, esan gura izan dozu, ezta? Baiña nok?

—Jai eguneko jantzia ez banengo!

—Aitzakia makala! Ene, mutillak dagozan olaren grakadea entzun dot. Ausi egingo da, eta...

Guztiak goruntz begira geratu zirean.

Eta uste ez ebena ikusi ebenean, arrituta eta bildurtuta jarri zirean. Teillatuaren musturrean, orma estuan, Lukas ankarkulo.

—Ene! Zer egin bear dau orrek?

—Ez dau orrek indarririk mutikoei eusteko. Zer egin bear ete dau?

Barritsu guztiak ixildu egin zirean. Lukasek esku bategaz ormea-ri eldu, eta gorputza kanporuntz eta beeruntz oker oker eginda, mutillengana makurtu, aetariko bateri eskuturretik sendo oratu eta apurka apurka, baretasunez, goraiño jaso eban eta teillatuaren barruko aldean laga eban. Beingoan, beste mutikoa be, bardin bardin jaso eban.

—Orrelakorik...! Beste berbarik ez zan entzun inguru aretan.

Emakume batek geitu eban:

—Autsak daukaz gazte orrek! Eta, nun orrelako indarririk?

—Bear dan lekuan —erantzun eutsan gizon zaar batek.

Jazoera ori zabal izan zan errian eta baita auzoetan be. Lukasek be, orduantxe azaldu ebalako bere nortasun berezia. Apala ta borondate onekoa, koipekeri bako gizona, sari billa iñoiz ibilli ez zana. Lukas Ulegorria!

Andik gorakoan, estimadu izan eben erriko guztiak, eta batez be mutikoak euren salbatzaitzat artu ebelako.

EUSEBIO ERKIAGA

GAMISTOA, EUSKAL-EDASPENA*

Gardata auzunean gorago eta beherago, ba zirean basetxe mordoskak.

Eta sagasti zabalén artean, solo gizenak eta zelai mota bedar-tsuak. Inguruetan baita pagadi eta gaztainadiak be. Otaio mendiaren goietan, toki malkartsuan, arte ta txaparrak, elorri ta gurguxa, herri biren usia; eta atxa ta otea baino ez zana.

Mendiaren mendebaldean, sartalderuntz, tontorra baino behe-rgoko bizkarrean ba zan basetxe txiki bakarra, etxea barik txabola haundia zirudiana. Galardi haren izena. Etxe horrek bazterrik euka-nik be, ez zan aitaturgarri. Hain murrítza zanez, Galardikoak apo-poan bizi zirean. Sasoi haretan aita eta alaba neska motza besterik ez zirean bizi.

Etxekojaun gizarajoari «Apurre» eritxoén, arpegian hazurra ta azala baino erakusten ez ebalako. Gizon zimela ta baltza, ez eban inork jakin nuntarra zan be. Alabea aita baizen baltzerana zan.

«Apurrek» galarrak hor hemen batu eta aldikadetan egur-ikatzá egiten eban. Otaio mendiaren inguru osoan ibiltén zan egurretan. Inoiz, Arrakizko sakonera be joaten ekian, gaztain arbaztak eta aretx kimuak be, ebagi ta batuaz. Alobereko be, ibiltén zan sarrítan.

Baturiko egurra bere etxera eroateko asto haundi bat eukan. Berak atonduriko ikatza herrira ta kalera eroateko be, bizkar sendoa eukan asto galanta.

Jai egun arratsetan, batzuetan, «Apurre» eleizaldeko herriko tabernara agertzen zan, gizartera. Ez zan berbalduna. Halan be, tabernan alderdi haretako gizonik zaharrenagaz eukan zerbaitako ezagupidea eta hartu-emontxua, berbetarako baino ez bazan be. Agure zaharrak berba ta berba, «Apurre»-k entzun ta entzun, bat-zanduten zireanetan horrelan emoten ebezan iluntzeko ta gau lehe-neko orduak.

Tabernan egozanak, alkarri kinu makurra eginez zirikari:

—Hor jagozak abade zaharra ta autorlea.

—Ikatz-egurra salduta bakarrik zelan bizi ete dozak?

* *Lekeitio*, 2, 1990.

—Aloberean be... eta ahuntzak eta ahumea be...

—Zeeer?

—Ez, ezer be ez.

Gardata kofradiaren erdialdean goiti-beheti, hor zan eta hor da, Akelarra. Landa guztiz txikerra da, ez luze, ez zabala. Haundia zan, horraitino, hango gau batzarren entzutea. Entzute horrek orain be, ba dirau.

Harako bariakuan, ilunduta gero, iretargi betea agertu zanean, gauaren ixiltasuna bapatean urratu zan. Batez be, Akerlarratik hurre bizi zireanentzat.

Gardatako Ezenarro basetxekoek ixiltasun urratze hori laster susmatu eben. Etxekandreak giro zerbela igarri eban. Arbin eta urduri jarri zan, egonezinak zitzadea egin baileutsan.

Etxeko jaunak, «Oilagor» eritxoenak honelako berbak esan eban:

—Ikusgarria ez ete da izango gau honetakoa?

—Gau honetako... zer? —erantzun eutsan emazteak brastadan.

—Gortuta al zagoz, edo ez ete dozuz kantzak eta barreak entzuten?

—Nork nori gorra esango! Barre zoroak eta kanta nabarmenak.

—Kanta nabarmenak... Gustatuko litzakit...

—Zer gustatu ta gustatu ondo! Hemen inor ez ete dozu?

—Bai, baina...

Akelarreko kantzak, bizi biziak, tiraina ekarren, eta haizearen hegocetan ebiltzan horra ta hara.

Akerlarra, Akerlarra,
iretargi bete gaua;
Otaiopéan batzar txikia,
laster jatorku Akerra.

laster jatorku Akerra,
okozpean dau bizarra,
adar oker bi ta biak tente,
atzean dauka izarra.

U yu yú, yí, yí...

U yu yu, yí, yí...

atzean dauka izarra.

—Ikusi gura neuke...

—Ez zara joango, senar gaizto. Bazoaz, horreek zeu be, sorgindu egingo zaitu. Sorgintzu barrabana, bakea hausten jatorkuna!

Sorgintzuaren aparra,
nun dira sasi ta larra?
Aker haundiak janda guztiak,
atzean dauko kedarra.
U yu yu, yi yi
A ja ja ja, ja ja...
I ji ji ji, ji ji...
Zatika ta Zatikatxu, hortik gora aldapatsu,
Arte zabalak gerizpe ona,
bariekuan sorgintzu.
U yi yi, yu yu...

—Ba noa, ba noa.

—Nora, senar gordin hori?

—Sorgin gazteren bat ikusi gura neuke.

—Ikusi bakarrik...?

Samea sikatu jaku,
gizonik ez da agertu;
amantalpean kinkirrinkoia
danontzat izango dogu.

U yi yi, yu yu...

Akerlarra, Akerlarra,
edonork ez dau bizarra;
oilagor horren belarrietan
gau honetako kaparra.

I ji ji, ja ja

—Noren izena diñoie, emazte?

—Zagoz ixilik, koipatsu hori. Joan bazaitez joan, etxe honetan

ezin zu gehiago sartu. Bildurtu be, ez al zara egiten? Ba, ondo daki-
zu: gaue, gauekoentzat...¹

Ar bat hamar andrarentzat²
antxinakoek egizat,
Galar motzeko neska motz honek
bariku gauean zirt zart.

OHARRAK. Irakurleak Ichenengoz ezagutuko dauan lantxu hau, LEKE-
TIO gure aldizkariako idatzi dagidan eskatu dautse. Harako «leyenda» deritxe-
netarikoa izan gura leuke. Haize horregaz asmatu eta atondu dot. Tokia ta ingu-
ruak ziurrak dira gaur be. Horraitino, pertsonai nagusien ezizenak eta basetxe
biren izenak, ez dira egiazkoak, hain zuzen, Ezenarro eta Galardi. Giroa ta burue-
rak orain berrehun urte zirelakoak edo. Gure mitologian arnas hartu dot. Gamis-
to berba honek txilio guztiz zolia adierazoten eban (B-oñ). Akerlarran, gu txiki-
nak gincanean, auzo-eskolea egin eben. Baina harrezkero be, sorgintzurik izan ei
da toki horretantxe. (Cf. J. Caro Baroja, Exploración en conciencias actuales).
«Las Brujas y su mundo» Pág. 283.

1. Podríamos defender, sin embargo, que en todas estas composiciones bur-
lescas o humorísticas se trata de tema con la misma intención con que ha sido tra-
tado por Goya, por Moratín y por otros artistas, es decir, una intención satírica a
todas luces: el negro «akerra» es objeto de risa y burla y sus adoradoras más pro-
blemáticas, también. Pero, aunque el tema es escabroso y difícil de investigar, hay
indicios para creer que aun en nuestra época algunas gentes han celebrado reu-
niones de aire misterioso y de intención diabólica como tantas veces satirizadas.
Las informaciones que poseo acerca de esto son de diverso origen. Recordaré aquí
algunas.

El año de 1932, el doctor R***, cirujano que trabaja en Madrid, pero natu-
ral de Deva, en Guipúzcoa, sabiendo que yo estaba interesado por la cuestión de
la Brujería, me contó lo que sigue: «Una noche de verano, hace de esto tres o cua-
tro años (hacia 1929), iba yo de Deva a Bilbao en automóvil, por la carretera de
la costa. Al pasar entre Lequeitio e Ispaster, muy cerca ya de este pueblecito, divi-
sé en medio de la carretera un bulto negro que permanecía inmóvil, a pesar de que
a fuerza de toques de bocina quise llamar su atención para que se apartara. A
unos metros tan sólo de él me percaté de que se trataba de una mujer. Algo mal-
humorado por la falta de atención de ella, paré el auto y le pregunté en vascuen-
ce: —¿por qué no hace usted caso, cuando se toca la bocina? —La mujer quedó
un instante indecisa y luego, echándose a reír, dijo: —¡No ve usted que estoy en
el aquelarre! —Apenas había dicho esto cuando se oyeron las voces de otras per-
sonas, que estaban en un prado vecino, y la mujer se fue allí corriendo. Yo prose-
guí mi ruta, sin prestar más atenciones a lo sucedido».

¹ «Gae gauekoentzat, eune cunezkoentzat...» (Atam, C).

² Urruxa = Hembra (ANb, BN, L.) Urruxa (S). Abrecna, baina BN eta S
aldean, emakume be, ulertzen dabe berba horregaz. «Ar bat aski da hamar urru-
xaren» (Dial.bas. 100-10).

Hori entzun eta Ezenarroko andrea konorte barik geratu zan.

Ezenarroko etxekandrea bere senera zanean, kantak, barreak, dantzak, ixilik. Senarra ohean ez egoala konturatu zan. Jagi, etxe osoa ikusi, kortan be begiratu... «Oilagorra» ez egoan etxe teilatupean.

Seme-alabak itxartuerazo eta aita etxean ez egoala, esan eutsen. Zeruan iretargi zuria egoan arren, gaua... gau.

Sukaldera joan zirean eta ilintia hauspetik atara eta sua zuzpertzura izan eben. Txinpartak hasten zirean, baina suak ez eban garrrik hartzen. Haizerik putzik be, ez egoan. Zelan halan, gar apurra hasi jaken eta berakatz-zopea egiteko egozanean, alarau motela, geroago gamisto bihotz erdiragarria entzun eben, eta eskuak alkarri emonda geratu zirean.

—Laudardoan nago —esan eban amak. Parte txarrekoak ibili dira. Barragarri behar dogu, arriskuan... Harrokeria zigortuten daki Ambotoko Marik. Ai, ene!...

Suak garra egoki hartu eban eta berakatz atalak zuritu ebezau, eta ogia mehe mehe ebaten hasi. Bapatean seme nagusiak:

—Ez dozue ezer entzun?

—Eeeez.

—Kantua, baina zurrunbilozkoa edo, biortua...

Orain gora ta gora

Akerra beste aldera...

Lamina koba ta Jentil koba...

eta bidea, aurrera.

—Horra! Hortik gora Galardirako bide malkarra besterik ez da.

—Baina guri... zer deusku?

—Guri? Ez dakit. Zoaze Akerlarrara. Antxina be, esaten dabe...

Ezenarrokoek ez eben etxetik urten.

Eguna argitu eta harik berandu barik, Gardata auzunean Ezenarro basetxeko gizona, «Oilarra» eritxoena, gau lehenean etxean egoana, egunsentia baino lehen nora ete zan, zabal zan.

Ez eban etxetik urteten inork ikusi. Ez eban inork ezer entzun.

Goiz haretan, Zatikako andre gaztea, esnea ta abar saltzeko, astoa lagun ebala, basetxetik kaleruutz joianean, artadiaren erdiunean zutunik, ez arbolea ez pataria zan ikusi eban. Zutunik egoana akulua

zan, hurean apur bat sartuta, eta akuluaren puntan esegita, txartes gorri iluna, alboan, ezkeraldean, tarratades eukala.

Horrek ikusi eta bere bideari ekin eutsan, baino Akerlarraren ondotik igaro eta Ezenarro basetxean oles egin eban, dei ixila.

Ezenarroko etxekandreak, negarra begian, atartera urten ebanean, Zatikakoak:

—Zera... Artadiaren erdian akuluan esegita, txartes gorri iluna dago. Ez ete da... Alboan tarratadea dauko.

«Oilagorria»-ren emaztea zizpuruka hasi zan.

—Tarratadadun txartes gorri iluna...

Autua eten eben.

Auzolanean, Gardate kofradiako etxe bakotxetik gizonetzko bat izentatu eta hiru-lau aldratan banatu, eta Otaio mendiko bideska, txaraka ta usa, gaztainadi ta pagadi ta sastraka eta txapar, bazter guztiak arakatuten ibili zirean, Asto Zuriko lezan, Jentil koban, Lamina koban diadarrak eginetz. Mendi tontor ta itsasaldeko ertzak, zer ez eben aztertu! Alperrik izan zan, Azterrenik inun be ez.

Akerlarran lurganean pitxar zuri bat apurtuta egoan eta bazter baten sorgin-bedar txortea, zimelduten hasia, atorra mendelagaz lotuta.

Gizonetzko gazteagoek, ahoa zabalik, zaharragoei arpegieta begiratu eutsen.

Gorpurik bako hiletea egin ebenean, elizan egon ez zirean gardatarrek, intziri luzea entzun eben, eta soloan egozanek, hodei zuriskea ikusi eben, eguzkialdetik sartalderuntz bizkor joaiala.

Ezenarrokoek gabaz, barriri be gamistoa entzun eben, itzala ta ikaragarria, korta ganadu guztiak be murrusaka jarri ebazana.

Harrezkero, Galardiko «Apure» bere asto handia, egur-ikatzta bizkarrean, lagun ebala, lanaren etorria kalean saltzeko astelehene-tan joaten zanean, Zatikako Arte Zabala ertzeko estarte hartzen eban, Akerlarra alde batera itxirik, Urkitzaruntz joateko, han Urkitza-aurreko ate nagosiak daukan diabruaren erpeek eginiko suzko marka baltzari, begirakune makurra esturaz eginetz. Bakarrik bizi izan zan Galardin, alaba baltzerana sorgindu zan harako barietu gautik.

Ezenarroko basetxean «Oilagorria» zanaren alargunak gauetan, eskatzeko kurtzelua, arrainsainaz hornidua, amatauten ebanean,

kandela gorristea, biorkadea eginikoa biztuten eban, eta Otaio tontorreruntz apur bat amore emonez ipini oli eban.

Lasterrean, Galardi inor barik geratu zan, hango bizilagun bakarra, «Apurre» sutondoan erreta aurkitu ebenean.

Eusebio Erkiaga

ADISKIDE BI KONTU KONTARI*

Uda hasieran Doniane inguruan, atun-txorien antzera geure urire azalda ezkerro, benetan atsegin izaten jat txikitako lagumekin autuan hastea.

Lagun eta adiskideetarik bat Rufo dot. Praka laburrak genduazanetik. Karamelo gomazkoak alkarregaz jaten genduzanetik.

Ganera Rufok, zorionez, urteetan izan dauan ardura etenbakoak, biziro eta egoki, Lekeitiori dagokiozan hainbeste gorabeheren pape-
rak eta batez be, argazkiak, erretratuak daukaz.

Indomito esateko beste.

Autuak, luzeak izaten dira, eta ezin, ezin artikululu baten batu, irakurlerik gehienak idazlan errez, argi ta laburrak nahiago izaten dabezelako.

Lehorrean itsasoari begira dagoan herri honen zerak barriro gomuntaratutea, berezkoa ohi da. Ura goitik beherantz jostea lez.

ARMARRIA ETA BALEAK

Uriko lehenagoko eskuduan, historigileek dinoenez, irudi bakarra, arranoa ei zan. Txori harro ta ederra. Aldi haretan, artean, Lekeitio erderazko berbaz «concejo abierto» ei zan. Uriko jentearen batzarrak; eleiz hilerriko agina (tejo) arbolapean batzanduten zirean. Ez da horrelan, Rufo?

—Bai, txo. Hor dago noizko bat, 1487, urteko urtarrilean egin eben batzarraren gomutagarri.

—Udaletxerik ez egoan, antza.

—Geroago, «concejo cerrado» bihurtu, eta 1706. urtean uriko etxea edo udaletxea jaso eben.

—Eskuduaren aldakuntzea be...

Jakin dakigu lekeitiarrak 1381 urtea baino lehen be, baleak hartzen hatarakoak zireana. Zer esan bakoa.

—Eskudu barriari dagokionez, sarritan irakurri doguma: «Ur-azalean balca eta alboan balen-kunea. Aurrez aurre balenontzia, eta barruan

* *Lekeitio*, 2, 1990.

arrantzaleak. Eurretariko batek eskuetan arpoia gertu, baleari trintze egiteko. Arpoiari deutsala soka luzea, arrainak ihes egin ez dagian»

—Eta armarri goiskoan gaztelua, eta honen artekoetan errege moro biren buruak. Horretara biribilduten da esaldi harroaren osotasuna: «Reges debellabit, horrenda cette subjecit, terrae marique potens...» Eutsi horrerri!

—«Ceta» ipinten dabe orain.

—Baina ez dago hori artez. «Cette»... horixe da berba egokia, Hore, «Beheko kalea be» be asmau dabe. Baina hori bostehun urte inguruan «Behaskoa» izan da; hau da, herrikoen berbetan Biskokalia, ta ez behekoa. Lehen be idatzi neban, baina hor astakeritxua egin dabe. Zuzendu beharra dau. Bai. Zuzen egoana, oker aldatu dabelako.

—Hemengo baleari europar jenteak «Bizkaiko balea» erizten eutsoen.

—Eta euskaldunak, barriz, han Terranova aldean aurkitu ebezan bale talde itzalei «Sardako balea».

—Zelako aberastasuna baleen gauzakin! koipea edo balen-saina, gantza. Balen-bizarrak, matrailazur zati luzangak kortseak eta guardasolak egiteko. Eta miñen balioa, txo!

Hori dinozu!

—Baleen minak saldu eta batzen eben dirua, lekeitiarrak hiru zatitan banaduten ekian. Zati bi, kaia, portua, nazea konpontzeko; hirugarren zatikina barriz, eleizea egiteko. Eta bai egin be, harrizko eleiza galanta. Ordukoen sinismena eta esku-zabaltasuna...! Hemen daukat nik txanto bat, bale hartze urte batzuk izentauten dira. Historia zatia dira gutzat.

—Horraitino, literatura herrikoian be, Azkuek baturiko erdi bertso hauxe:

«—Nok hil dau balea?

—Kolondriñon seme

Kolondriñok.

Etxeak, habea jok».

—Aita arpolari, semea be bai.

—Bai, ba. Gure denporan ez dogu bale konturik entzun ez asmau. Halan be, azkenengo txalupak ezagutu genduzan. Eta lehenengo baforak... «Urtxoriya», «Zaldupe»...

—Kofradia 1381 urtean eratua ete dan: «Cofradia de San Pedro de pescadores y mareantes». Guk baino zaharragoek paperetan ikusi

izan dabenez, 1591 aldian, modu baten edo bestean, itsasoan ebiltzanak laurhun gizonetik gora zirean. Arrantzuan, edo tratu eta joan-etorrietan eta baita, gerra usaineko egintzetan be.

BURDINAZKO BALEAK

Berbok irakurri eta... barregurea edo. Baina ez dago hemen gezurrik.

—Baleak amaitu zireala esan dozu, Eusebio. Baina harrezkero gure arrantzaleek beste aukeratxu batzuk be izan dabez. Esango deusut. Gogoratuten zara harako «airoplano bi pasata...»

—Bai, gero! «Seberianok ekarri...» ikasi genduan. Geroago, «Miren Begoñak ekarri...» Bardin yeutsak. Han ikusi genduan barran pondo emonda, Abareen moilearen mutur aldean, kanpoan.

—Baleak eta zeroiak amaitu zireanean...

—Zeroia... Berba hori azkenengoz Gregorio handiari entzun neutsen. Hiztegian be, ikusi dot: Zeroiari «cachelot» erraiten zaio frantsesez (L-zokoa).

—Bai, arrain eskerga hereek amaituta gero, gutarrak haragizko aberen truke edo, burdinazko arrainen jabe egin izan dira. Seberianok ekarri ebana, txori frantsesa izan zan. Lekeitiarrak gogor egozan hidroabioi hori kaira albait lasterren eroateko. Frantses ontziak be, han itsasoan ebiltzan eta ez eben holakorik gura. Geroago, gogorrean barik, tratu bitartez eurakandu nahi eben, eurena zala ta. Baina lekeitiar itsas «autoridadeak», Asentsiok...

—A, horixe da harako...

«Goizeko sei ta erdietan

Asentsio burutsik...»

—Kepiza jazteko be, asti barik, han azalda zan moila ganera, lekeitiarrik arriskuan sartu ez eitean. Bakean ete ezerezean geratu zan kontu hori. Baina handik hogetaz urteetara, ziur esateko 1943 urtean, hidroabioi alemana. Gure arrantzaleek urrunetik ikusi, eta zer ete zan urreratu... eta itsas-hegazkina ostera be. Ontzia orduan «Reina de los Angeles, 2» izan zan, Hipolito Gezuraga patroï, Matxitxakotik. 35 mila kanporantz. Alboratu, eta berba egin... ez egoan erantzunik. Orduan Jesus Anakabe (geure denporako Kesus Baltza) an joiak hegazkin barrura. Eta haren berba beroak: «Ez dago inor be. Geuk topa dogu, eta geutzat. Part, bota sokea, lotzeko. Zapran gara, txapel bete diru daukagu.»

«Dornier» dotorea zan, hiru motorrekoa. Atoian ekarri eben, eta hain zuzen be, Seberianok itxi eban lekuan pondo emon.

—Zapran zirean, benetan be.

Sekulako begirakuncea egin deust Rufok, eta irribarre tximurre.

—Zapran... Harako gomen denporan be, zapra ikaragarriak, inpirioak izateko eta azkencan... Ingelesak hegazkina armadoreari emon, honek Erandion txatarratzat saldu, eta arrantzale baktxari, zenbat uste dozu? Baforeko lagun baktxari bi mila ta zortzireun pesetas ezkil... eta «jantropia» Beitian.

—«Dormierra»...

— Oriorik bako salda epela.

LAU HANKAKO ARRAINA ZOILOK

Hirugarren arrantzu modua be, esan behar daustala, eta esan egin deust Rufok. Hegazkin bien aldi bitartean, 1920, urtean, lau ankako arraina, eskamarik bakoa, baina narruduna hartu ebala gizon guztiz ezagun batek.

—Zelan, zelan?

—Zoilok Urresti «Paitero» ospatsua han egoan tximinotan Argatz inguruan. Zer da kontu... ta jentea asaldau zala Sanjuan Talakon.

Zoilok bere artean, «zeozer jazo dok hor. Noian haruntz».

Mataderian hormako txiogetean lotuta egon zan zekorrak bere burua libre ikusi ebanean, jo goruntz eta erdi zorabioan, itsasora jau-si zala.

Zoilok, hain modutsua bera, baretu eban zekorra, ez dakigu korainagaz ala korain barik, baina dana dala, potinari eutsala, portura ekarri eban. Baserritarra, ganadujabea, bere pataria bizirik eta osorik ikusi ebanean, prest egoan arrantzalari aldean cukana emoteko.

Baina Zoilok ezetz; hainbesterik ezetz.

—Hogerleko bi. Nahikoa dot.

Eta Zoilok orduan, etxean eta menpean, ezkatza bete ume cukan.

Eusebio Erkiaga

1990

«UNTZORRITXU»*

Horma zaharraren ondoan eukazan bere sustrai lehenengoak. Bide zidorra egoan alboan; sarriro zapaldua zanez, ganeko lurra lehor samarra, teila zatiz eta harri koskorrez betea, lupetza bigun zikina izan zana idortu zedin. Hormearen babesean atea egoan.

Belaunaldi ezbardinetako jentea ezagutu eban. Umeak be, sarri ibiltzen ziran zidor haretan zehar. Umeontzat, «Untzorritxu» zan.

Umeak han zehar, batez be, sasi-eskola egiten ebenean, txarritan ibiltzen ziranean agertzen jakozau, inguru ha toki gorde ezkutua zalako.

Behar ez ziran orduetan kaleetan zehar dinbili danbala inork ikusi ez egizan, eta batez be fruta sasoi bazan, han inguruetako lehenengo kerixak eta goizetiko madariak, eta geroetan sagarrak eta ikoak eta abarrak harrapauten eta lorrinduten ibilteko, haraxe jotzen eban.

Horrelangoetan Untzorritxuk ume okerrei agiraka egiten eutsen:

—Gose zareen antza emoten dozue, eta zuhatzetako igaliak gogorreen kentzen dozuez, hormak apurtu, lurra zapaldu eta adarrak hausten deusazuezala; eta jarraian, haginka egin eta beste barik, brast! hurrera jaurtiten dozuez. Ez dago eskubiderik!

—Eta zuri, zer? Berez datorrena, edonorena da.

—Ez da egia.

—Surraren ondoan begia —mutiko bihurricen erantzun kakoa—.

Garai haretan Untzorritxuk sustraiak polito errotuta eukazan lurpean, eta bere kanpo-aihenak eta adarkiak euren bizar-erpe ta guzti, horma zaharrari atxikiak. Ateari berari be, adar puntakaz eta ostro berdeen bitartez, laztankadak eta igurtziak egiten eutsazan.

Horraitino, beti toki batean egoteaz, gogait edo egin eban.

Eta bere atzamar puntakaz ikututen eutsan ateari esan eutsan behinola:

—Hemen bizimodu bardinez eta gogaikarriz egoten aspertu egin naz.

—Hemen naukazu neu be —erantzun eutsan atek—, uda ta negu egon egoncan.

* *Bilbao hiria ipuinak, 1980-89*, Bilboko udala, Kultura eta Turismo saila, 1990.

— Bai, baina zuri giltzagaz rist! egiten deutsuenean zure sabelaldeko mihina serraila barruan sartzen da, eta horren jarraian, rast, rast! eginez, mihin hori luzatu eta hormako harriaren zuloan barriri sartzen da, eta zuk, bitartean, zeure dantzatzua egiten dozu, batean eskoitara jira, jarraian ezkerredera bira.

—Dantzaldi guztiz motxa da, baina tira! Halan be, euriak eta hai-ze hotzak eta beroak nekea emoten deuste eta kalte egin sarritan neure gorputzean.

—Nik be, hartzen dodaz haizearen sastadak, euri zaparradak, lei zitalak eta sargore kiskalgarriak; eta txarrago dana, mutil ziztrinen urakadak, lorak eta ostroak lardaskatzen deustezala.

—Zuk, Untzorritxu, horraitino, lurretik edan egiten dozu, egunero edan be, zeure mama gozoa. Nik, barriz, antzina galdu neban barruko hezotasun hori. Egur sendoa nintzanean jarri ninduen hemen, arre koloreko pinturaz igurtzi eusten gorputz osoa, bizkar, sabel, sorbalda, oin. Kolore horretakoa izan zan nire lehenengo jantzia. Ostera, buru bage laga ninduen, atalburua nahikoa nebala-fa.

—Nik horrelako azal barik ezagutu zaitut. Beti bilosik.

—Bai, zu gaztea zara. Zu jaiio eta hazi zinanean, ni orduko be, zaharra nintzan eta asko ikusia. Aspaldietan hazurruts bizi naz eta orain azalik be ez dot. Antzinarik etsita nago, baina zeregin handirik be, ez dot-eta, egon, hementxe egon. Margulduta.

—Hautsaren arpegia daukazu. Ate guztiak horrelakoak ete dira?

—Bai zera! Ezta urrik emon be. Ni baino ate ederragoak eta gazteagoak be hor dira, kolore ezbardinak daukezanak. Ni neu be, egia esan, ez nozu barrutik ezagutzen.

—Baina laster, geroago eta gorago hazi nadinean, zure horma honen goiko aldeari atxikiko natxako, eta beste alderaino, barruraino eroango dodaz neure eskuak eta aupa eginez, osoro ikusiko dot...

—Ez, Untzorritxu, ez dozu horrelakorik egingo. Ezin egin zinei. Ihartu egingo zinatekez, neure kolorea hartuko zeunke, arrea, iharra, hauts eta basakolorea.

—Eta arrisku horretan nengoke, benetan be?

—Bai. Lar hazi gura badozu eta horma ganetik nire inguru honen barrukaldea ikusteko ahalegina egiten badozu, zure azkena orduantxe izango litzateke.

—Ene bada! Hor barruan zer daukazu ba... edo nor zara?

—Ilunbea naz eta nire izena linboa.

—Linboa...? Ume errudun-errubakoak jaurtiten dabezan lekua?

—Horixe.

—Urik ba aldozu?

—Ja, ja, ja!... Lehen bai, ba neban ura be. Horraitino urteen urteez, idortu egin zan, eta orain idorrune hutsa da, sikua, agorbazterra.

Untzorrityuren bekoki inguruari izerdi larria erion. Bildurrak jo eban, halako arrisku itzela beregain etorri eitekiola susmauz baka-
rrik.

«Idortu, gogortu, jaio eta bertatik hiltzen ziranen tegi hotza, ixila».

Buruera hori ikaragarri bihurtu jakon, eta arteak hartu ezinik zertu zan. Barru guztia irauli jakon eta buruari bira eta bira, gau haretan bertan handik aldegitia erabagi eban.

Hautsez igurtziriko atea, eguneko neke ezerezaren ondoren lo zorroan egoala susmau ebanean, adimenean erne jakon asmoari amore emonez, sustrai samur batzuk lurretik atara, lora-mortxakatik hazitxu batzuk sakelean gorde, adar gogor batzuk barruko min haundiz urratu eta eten, eta sustrai eta adarrok besartean hartu eta Untzorrityuk ixil ixilik toki haretatik hanka egin eban, bere gorputz eginaren zati ederrak heriotzabidean han lagata.

İbili ta ibili, inguru haretako bidean joi ala alboetan horma txiker apalak aurkitu ebazan, baina aterik ez eban bapere susmau.

Sekula ez eban etxetik urten, sekula ez zan munduko bide ekaizberetan ibili, eta bildurtu egin zan. Bere ule ta bizarrak lastu jakozan.

Atx mokor baten alboan lo egin gura izan eban bakartade haretan norbaiten ondoan egon nahirik. Txakurren zaunkak entzun ebazan.

Oinetakoen uhalak hobeto lotu eta ibilteari ekin eutsan.

Barrero be joan eta joan, noizbaiten beste ate bat idoro eban arte. Ate baltza. Zeharo itxita egoan eta nahikoa zabala zan.

Untzorrityu hantxe geratu zan; ortosik jarri eta bere sustrai samurrentzako lurrik bigunena bilatu guran, aztarka egin eban eta lur arinean eginiko zulo txikirrean sartu ebazan. Sustraien jarraiko aihenak ate alboko horman iratzi ebazan eta hazitxuak arduraz gorde, etorkizunerako.

Ate baltzak lo egoala zirudian eta Untzorrityu bien bitartean ixilik ebilen bere zeretean, zaratarik atara bage.

Ate baltzagaz ezagupidea egin gura eban, haren auzo izango zala uste ebalako, eta haren borondatea bereganatu guran, eztarrian garramaztua baileuan eztul antzekoa zertu eta oles egin eutsan.

—Egunon! Zera, ate baten bila nembilen eta hona ba! aurcan zaukadaz.

—Ondo etorria —erantzun eutsan ate baltzak—.

—Toki hau...

—... egon egotekoa ez dana, jakin behar zeunke, onaino etorri zaran ezkeru.

—Berba horreekaz zer adierazo gura deustazu? Sustrairik hemen sakon errotu ez dagidala?

—Ez hainbestearaino be. Hona etorri datozenak, arean, hona barrura sartzen diranek, hemen egoera iluna jasan behar izango daberen arren, amaitzen dan egotaldirako eskubidea dabela iragarri gura izan deustut.

Berbok esatean, ate baltzak musturrak okertu ebazan. Ixilune laburraren ostean, barriri ekin eutsan.

—Egoera hori iluna bada be, nik behintzat, itxaropena eskeintzen dot. Hemengo egotaldia atsekabeduna izango da edonorentzat. Horraitino sartzen diran guztiak, luzarago beranduago, banan banan hemendik alde egingo dabe. Hori, ziur. Noiz? horixe ez jakin.

—Hemendik urten... leku txarragora joateko, aurki?

—Horixe ez! Toki hobera joateko, bai ostera.

Atea ixildu egin zan.

Cerogarrenean Untzorritxuk atearen kirrinkadea aditu eta norbait barrura sartu zala susmau eban. Atea itxi ebenean, belarriak zuhur, adi-adi lotu zan, barruan zer ikusiko edo zer entzungo.

Zizpuru, aiene eta intziriak entzun ebazan. Noizean behin, kantu motelen bat izan eitekeana be bai.

Harik ezebezean, atea kirinkada barria egin eban. Untzorritxu erne jarri zan. Atea cdegi zanean, atearen ertzean zerrenda berdea ikusi eban, eta urteierako agurrak zirudienak zertu ebazan. Joakera-ko agurrak ilunak izaten diran arren, joakera haretan pozezko agerpidea susmau eban. Ez zan ostera ziur konturatu, pozezko agur berbak, joan joianak ala geratu zanak esan ebazan.

Atea brast! barriri itxi zan, eta intziriak iraun zirauen.

Halan eta be, Untzorritxuk atseginez beterik, eskuak igurtzi ebazan, eta aldean eukazan ostro berde apurrak atearen ertz berdearen albo alboan ipini ebazan. Liluragarri jakon koloreen kidetasuna.

Untzorritxuk ategaz auzo lagun egoki antzera portau guran eta ate baltza bapere berbalduna ez zala susmau ebanean, bere burua

berba egiteko prest jarri eban, erremuskadaren bat hartzeko arriskuari aurre emoteko gertu egoala.

—Ate baltz, entzun! Ni, Untzorri naz. Laguntzat Untzorritxu. Hauxe dot lehenengo ibiltadia. Zu zeu, nor zaitut?

—Ba, ni, eta ez zaitez lar estutu, purgatorioa naz. Arima erdi galduak garbitzen diran toki baltzeko atea.

—A, ardi galduak.

—Ez, ez; erdi galduak esan deutsut. Dakarren zikina hemen garbitzen deutset eta zeharo txukun dagozanean, biderako gertau daitezcan adierazoten deutset, eta soineko barri zuriak soinean dabezala bialdu egiten dodaz, aske bialtzen dodaz, baina ez edonora joan daitezcan. Doazenci betiko agurra egiten jake.

—Aske... eta lotuta joaten dirala esan gura zenduan?

—Esango deutsut, ba. Hemendik doazanak, eta artez joan be, azkenengo ateraino ez dira geldituko. Han dauke betiraumeko hotela gertuta.

—Betiraumekoa, e? Dana aseguru gizartekoaren kontura?

Iribarre gaiztoa egin eban ate baltzak.

—Bai, Baina kontuan izan betiraune bi dirala.

—Ezbardinak?

—Hain ezbardinak...! Ura eta sua langoak.

—Biok be, lar diranean ez dira gero, elementu onak!

—Laga egistazu amaitzen. Hemendik doazanak, betiraune zorionekora doakez.

—Zorionekora, e? Eta beste zera, zelakoa dan ba ete dakizu?

—Jakingo ez dot, ba.

—Horrezkero, hau toki ona ez da, baina behin ona etorri ezkero, zorioneko bidean dabil hona datorrena.

—Horrelantxe da, baina hona etorri gura izatea da bat, eta etorri ahal izatea, beste bat. Bidean zehar batzuk ixilik joaten dira, baina askok eta askok berba bardin antzekoak esaten deustez, eta larri bai larri doazela susmetan dot nik: «Ate baltz, ai, ate baltz! hartu nagizu zeure kolkoan, erruki zakidaz oraingoan».

—Eta zuk jaramonik be ez.

—Ezin egin. Dakizui lez, atea gizonak egina danez eta beraz, gizonaren laguna, edozein atek, eta nik be bai, bere bihotza, bere samurberatasuna dauka. Halan be, ezin jaramonik inori egin, honako paperik ez baldin badakar. Eragozpena horixe da, atzerira joate-

ko behar diran lez, hona sartzeko be paperak jasean ekarri behar dabez. Horra hor untzea.

—Eta ni untzorria izan.

—Ixildu zakidaz apur batean. Barritsua dirudizu. Zetan ginan...? A...! bai. Paperak hutsik bakoak izaten diranean, dena dago prest. Paper batzuk artez euki arren, beste batzuk hutsez eta zuloz beterik ba dakarz, hori hemen geratuko da, garbikuntza luzea ala laburra egin arte. Horren ostean, esan deutsudan lez, joan doaz.

—Lehenago egon nintzan atean barrura sartzen ziran guztiak, han zimelduko ei dira, hantxe igartuko behin eta betiko.

—Zein aterean ondoan egon zinan, ba?

—Hauskoloreko atean zan.

—Hara doazan gizajoak ez jaio, ez bizi, ez hil.

—Bidean joan doazanak, esan dozu lehen.

—Bai, hemen zehar iragan behar dabe, hemen gelditzeko ez dato-zanek. Batzuk atseginez eta nasai joaten dira. Besteak, estu eta larri, sukarez, ito beharrean, arnasestu garratzez.

—Arnasestua dinozu?

—Itzela hatan be, ikarea hazurretaraino sartzekoa.

—Eta ito egin dira, ezta?

—Ez ba. Hor dago ba, zerik makurrena. Arnasestu horrek ez dauka azkenik. Ez dira inoiz be itoko, eta leku haretatik urten be ez dabe sekula cgingo.

—Sarrerea bai eta urteierarik ez.

—Egia esan dozu. Hemen barriz, zeuk ikusi dozu, urteiera dago, eta goizago nahiz beranduago, guztientzat. Hemengo negu iraukorra amaituko jake, geroago han, udaondo emonkorraren gozamina lortzeko.

Untzorritxu konkortuik egoan horrelango zerak entzuten.

«Areak be —inoan bere kolkorako—, atea kolore bateko ala beste koloreko izan, harako alde haundia, zeharo bestelakotua!»

Damu antzean lotu zan, hauskoloreko edo kolore bagako ate zimel haren alboan, bere gaztezero ederra hain ganora barik emon ebalako.

Gomutauta be, erremina etorkion. Saman gora be, halako garraztasuna, bihotzerrea.

Izan be, aspergarri eritxon une haretan, joandako gaztezaroko bere egoereari halako auzo nagiaaren alboan. Ate arreak... ez jan, ez

Jan. Zeregin haundirik ez, eta halan bere, bere burua txukunduteko be ganorarik ez, eta zikinak jan. Serraillearen mihina bere be ugerrak janda geratzeraino! Eta ateko akerrak eta bandak be arrakalatuta...

Horraitino borondate ona erakutsi eutsala, autortu gura eban Untzorritxuk bere kautan. Izan be, han barrua osoro anbotua, ihar-turik eukala eta ikusita beste barik, Untzorritxu bera be, zimel eta ihar jarriko zala esan eutsanean, ate hasukolorekoa ondo portau zan, barru samurrez jokatu eban.

Baina, halako gomuta ezerezgarriak lehenbailehen hoba abaztu. Joana, joan.

Ate baltz ertz berdeduna, ostera, jasekoago eta eragin handikoa zana, dudarik be ez. Turistek eurek be, ezagunago ebela zirudian. «Horraitino —inotsan bere buruari Untzorritxuk—, ba ete dakie jakin halakoek, ate baltzaren ostera joatea, kontuak kontu, handik urtetea baino errezago ete dan?».

Eta Untzorritxuk irribarre maltzurra egin eban, eta hauxe gehitu, hutsari herbetan bailegoan: «Ezkondu baino lehen...».

Ate baltza sartu-urten ugarikoa zana agiriko eukan Untzorritxuk.

Horraitino, behin eta bariro ohartua, sarrerak askozaz be ugariagoak ziran. Parrastadan sartu, baina tantakadan urten. Sartzaierea ebilen garaizarrean.

Inguru haretan ez zan umerik agiri izaten eta Untzorritxuren ostroak ugaritu eta hazi egin ziran; eta uda antzak lora-mortxaka ikusgarria ekarri eutsanean, egun eguzkitsu batean erle piloa etorri jakon eta lorak zurgatu-alean, sekulako murmurrean ziharduen, atso bedeinkatuen errosarioa edo monjen koruko otoitz lizea bailitzan.

Azaleko onerizkoa gorabehera, sartzaierarako bakarrik edegiten ebenetan, Untzorritxuri bihotza opildu egiten jakon eta iztarrarteko azalak tximurtu.

—«Orain be, zuntzunak eta sen-urrikoak eurrez sartu dira barru horretara» —esaten ekian horrelakoetan, bihotz hilda, Untzorritxuk.

Ostera, urteierako asmoz atea edegiten eben bakotxean, ai! orduan anasea zabal hartzen eban, pozaren iturria erionez hasten zala iruditen jakon eta gorputz osoan esne ta zumo barriak zertzen jakozan; egundoko eragindurea izaten eban. Zanak bero bero jarten jakozan eta ostroek be, zazpiak eskuetan ebezala, agur eta agur pozkorra egiten cutsoen zorionera joianari. Horrelakoetan, inguruan

ebiltzan tximeletak eta marisorgin guztiak, ostroen dardakadea ikusita artega jarri eta ostroganean gosateko bildur, alde egiten eben.

Untzorritxu, leku harek ondo hartzen eban arren, ordurarte tenteltasunik nahikoa eta lar izan ebela konturatuz, beste ate gehiago be ikusteko gogoak azkurea egiten eutsan bere barruan.

Zirikada horrerri amore emonez, ostera be bere traste guztiak batu eta goizean goiz, ate baltz eta berdeari agurrik be egin barik, Untzorritxu ameslari barriak handik aguro alde egin eban.

Joan eta joan, inguru hareek larre egozan, otalur eta sasieta huts ziran. Gerogarrenean, horma luzca begiztau eben eta horma hareri ikutuka joanean, atea eukala zertu eban.

Zabala.

Gorria.

«Ate ingurua, ausaz, negurako berebizikoa, suaren irudia eta berotasun emoile gerta citekealako» —inoan Untzorritxuk bere artean—.

Ateari ikutu eta bultzadaxua be egin eutsan. Sendo egoan, gogor itxita egoan; ez eban ikararik be egin. Serraila-zulorik ez eukan eta ezin barrura begiratu. Zirudianez, barruan barrukoak, handik ez eban inork, giltza eskuetan ebala, urteten.

Artean, belarria zuhur atondoan, beste aldean zer entzungo. Sutegian eta laban sortzen dan zirt-zarta zan entzungarri eta erreusaina sartu jakon surtziloetan barruna.

Untzorritxuk atz egin eban buruan. «Hauxe ete da, ba...»

Bapatean burrun! atea edegi zan eta Untzorritxuk, izututa, esti! atzera egin eban. Lehengoa baino durrumbada handiagoa entzun eban, atea berez hertsiz zanean. Beraikizko atea zirudian, automatikoa.

Harrezkero txitean pitean edegi ohi zan eta beti brastada gaiztoan itxi. Batzuetan, atal bikoa ete zan be, uste izan eban Untzorritxuk, hain zabalera luzca zertzean. Gorritasun itsugarria agertzen zan edegikeran; berbaro hasarre eta zaratatsua entzungarri, eta biraoak eta intziriak eta inkesak. Kirastarri usainak ihes egiten eban handik, kaiolatik txoriak lez. Untzorritxuk esku biak begien aurrean ipinten ebazan, itsututa gelditu ez zedin.

Han gelditu ala hanka egin, zalantzan jarri zan. Horraitino bere egunkarian, zabarkeriaz hutsarteak lagateari ondo ez eretxi, eta egotaldirako prestaketea egin eban. Sustrai samurrak lur barrura, aihe-

nak hormeari eutsoela jarri, erpebizarrak atxiki, ostro berdeei buruko uleak orraztu eta etxuran ipini, eta puntako adaskak hormearen gailurrerantz joan eitezala agindu.

Punterengo ostrotxuak, horraitino, zurbiltzen, horitzen eta gogoritzen ikusi ebazan, ezebezeko denporan. Orriak orbel.

Cauzak okerragotu baino lehen, zer egingo zer ez egingo, kilimolo ikusi eban bere burua. Munduan zehar ibilteko eginda egoala lehen-txuago uste izan eban arren, artegatu ezezik izularritu be, egin zan. «Bakarrean harroputz, eta inoren aurrera baino lehen lauorrian. Hauxe be, ba dok ba!» esan eban bere artean. Eta apurren bat adoretu zanean,

—Eguon! —esan eutsan ate gorriari—. Parkatu, baina ez dakit zure izenik eta...

—Ate gorri naz, eta aspaldi nago, eta beti hementxe, inora alde egin barik. Ibiltari bidegalduren bat ete zara horrelan ganora handi barik inguru honetan zeure txabolea jasoteko?

—Lur-zergarik pagau behar ote dot aurretiaz?

—Ez; hor kanpoan egoteagatik, ez. Nor zarean esan behar deustazu, horraitino. Bada, hona sartu ezketino, albistaria izanda be, jakin egizu urteicrarik izango ez zeunkela.

—Kontxo, apo! —urten eutsan ahotik Untzorritxuri—; baina bere burua ez-jakin egin eban. Eta harrituarena, sorbaldak goratu eta eskuak zabalduz.

—Ezagun dozu ume soster mokotia baino ez zarana. Ez al dozu harako infernuaren entzuterik? Barre egitekoa da, zer guztiz latza ez balitz.

—Eskolara hasi nintzan, baina gero...

—Eskoladun eta eskolabako, nire barri ez dakianik ez da bazterretan. Eموirik inoiz izango ez dozun landara aihendun ziztrin eta erdi bizkarkari horrek, zer jakin be... Horraitino, zeure ezereztasunean neure hormak sendotuteko ala arrakalatuz lorrinduteko, hatarakoa zara. Ez egizu ba, nire aurrean tentelarena egin.

—Zuri ezetariko kalterik egiteko asmorik ez nekarren ekarri, Turismoan nentorren, soil soilik.

Barre purrustadea egin eban, barre alai, eta Untzorritxuk ezkerreko begiagaz keiñu egin eutsan, eta zigarrotxu gorristea eskeini. Besteak eskuan hartu eban, eta begiratu eutsan, eta,

—Camel —esan eban—. Ez zara txarto bizi, eta ganera emonkorra zara, esku zabala. Hona datozenak, batak be ez deuste honelango oparixurik egiten.

Untzorrirtxuk txiskerua sakeletik atarateko imintzioa zertu ebancan, adiskideak:

—Bai, hoba. Sua hemen euki ba daukat, baina gar handikoa, eta zure eta nire zigarruak hots batean kixkaldu egingo leukez.

Orduan Untzorrirtxuk txiskerua eta beste zigarrotxu bat atara ebazan. Lagunari su eskeini eta gero, berea be isiotu eban. Ate gorriak sekulako ke-aldiak egin cuntsazan, bata bestearen hurrengo, eta surtziloetatik irauli.

—Aspaldiko tabakorik gozoena! Gure ugazaba hor ibiltzen da munduko lagun guztiak nahastau guran, baina harek tabakorik ekarri... Bai zera! Izatekoan be, tabako txarra. Eta zuk, eskatu be egin ez deutsadan arren, taka! Horra ba, azal ona eta malmutza bazara be, begiko eta gogoko egin zatxataz. Jum... Turismoan, e?

—Bai, ba; modan dago-ta. Zera, ugazaba aitatu dozu... Hain zuzen be, beste ateetan ez deuste ugazabarik izentau be egin.

—Behar bada, ez. Baina hemen, ugazaba daukat nik. Egonezina eta nahastekari itzela da. Hemen egote gitxi egiten da. Munduan nebozio handiegiak ei daukaz, bera hemen egoteko. Dana neure kontura lagaten dau. Egia esateko, zeregin handirik be ez dago hemen.

—Horraitino, soziotzako aukerakoa ez ete neuke izango? Nik be, edozein antzera, gora egin nahi neuke-ta; prosperau.

—Ahopean esango deutsut, baina kontuz inori esan! Sozio guztiak hondatu egiten ditu. Berak gura dauan guztia egiten dau hareekin, eta azkenen buruan, belarritik oratu, hona ekarri eta brast! zokondo batera jauarti eta hortxe dagoz guztiak, eta hemendik gorakoak be, honaxe. Batzun batzuk adionez ihes egiten deutse, baina harako «gerotik gerora» dabiltzanak, horreenak be, laster egingo dau.

—Beste Mutilaren antzekoa ez ete da?

—Berbera dozu-ta.

—Txerrena...?

Ate baltzak buruagaz baietz adicrazo eutsan Untzorrirtxuri.

—Orduan zu...

—Ni... haren etxea; etxeko atea, esan gura neban.

—Horrezkero ospatsuak zarec, bai bata bai beste hori. Ha bera zelakoa dan esan deustazu. Beste zigarrotxu bat...?

—Tira ba, horren adiguria zaran ezkeru. Neure barri be, jakin nahi dozula igarri deutsut. Konturatu zara dagoeneko, nurbait be, baina ni infermua naz. Zabalean estu, berotasunez hotz, zaratatsuz

ixil, oinaze zaldien eta txirringen tegirik handiena, berba zakar guztien hiztegi nagosia. Zeharo okertu dana zuzendu ezin eta. Tentel handiak halakoak! Bildurrik ez dabela esango dabe, gero! Beranduegi. Baina, oker nabil. Bildurra deuskue, ezetz esan arren. Eta bildurgarri izatekoak gara. Ziur egon!

—Prai Bartolon sermoien durundua dakarste zure berbok.

—Ai, prai Bartolo! Harek zeredozer jakin ekian. Bai behin! Nire arerioa zan, ugazabaren aurka baino setatsuago neure kontra egiten, Bezeria kentzen ahalegin egin eban, aldi batean. Baina ha be, joan zan; edo eroan eban. Dana dala, ez zan hona sartu, inoiz hortxe ateaurrean, zeu zagozan lekuan kurika ibili arren. Ez dago nire estadistikan. Horraitino, jo kontuak, eta ha hil zanean, infernuo amaitu zala uste izan eban askok eta askok. Fraileen kontu hutsa zala-ta. Zuk zer uste dozu? Bedar txarra ez da horren errez galtzen.

—Bedarra aitatu dozun ezkerero, gu biok senitartekoa ete gara?

—Inondik inora be ez! Zu landara kazkarra besterik ez gara. Senitartekoa bi dodaz: bata iztar-lehengusua, urrinekoa; txiroa, esan ohi dan lez. Harek ez jan, ez lan. Jantzirik be ez ei dauka soinean. Baina bestea, barriz, etxeko haundi dot barruko izareren, ez hartuemontan; hori bai gauza bakana! Hara doan inor, ez dator hona. Orainarte huts emon deust beti; ez deust hona inor be bialtzen. Eta hango eta hemengo bizimoduak bardin samarrak izan! Bai, alde haxe: handik edo zeinek urteten daukala, baina hemendik, turrit...!

—Ba dakit nik; hango sartu-urtena etenbakoa da, Bilboko zazpikaleetako tabernetakoa lez. Horraitino, urteten baino sartzen erreza-go.

—Argiro azaldu dozu. Turista leberra zaitut.

—Harek kolore bi daukazala be, esango deustut. Baltza eta berdea, neure gustokoa. Edozeinek ez daukana.

Ate gorriak hori entzutean txistua iruntsi eban, eta erdi haserre, beste zigarro bat eskatu eutsan.

—Txo, pakete guztia amaituko deustazu, eta hemen inguruan ez dot estankurik ikusi.

Baina emon eutsan, eta sua be bai.

—Bakotzak berak daukaz euki behar dituanak —erantzun eutsan ate gorriak—. margo berdearen esangurea itxurakeria hutsa da.

—Ate baltzaren ondamuz bizi ete zara? Ez neban esango...

—Gure garatzak beti goran doaz.

—Sartu bai eta urten ez, tokia beteko jatzue, eta orduan?

—Lurraldeak zabalagotzeko berba eginda gagoz, eta behar izango danerako, hor atzekaldean doguz gerokoraturik erreserban... Dana dala, zer bi sinistu egizuz: gizona lar ona ez dala eta zu zeu be infernuaren bildur bizi izatea, hoba dozula.

—Arraioa arraioa! Filosofua be, ba ete zara!

—Ez izan? Hona datozanetarik asko eta asko, unibersidadeetan ibilirikoak dozuz. Horreek ei dauke jakituriaren giltz urrezkoa. Eta hemen, intziri eta birao artean, curen lehenagoko eztabaida setatiak garanduten dabez eta dakien guztia esaten dabe, eta blaust! barruan ezer be gorde barik, lehenago maltzur jokutzen eben arren. Orduko guzurrak, orrazketak, maratilak eta trikimailuak bilosik agertuz. Abadeari ezkutauriko zerak be... Gizona tokian tokiko da, ez da lar ona. Eta horrexek galduko dau. Alperrik ezetz esan...!

—Begaz, gizonak zer egin dau? Inor izorratu...?

—Ahal dauan guztian, eta esangura guztietan. Baina geroago hemen... Hementxe ikasten dabe zuzena eta okerra, senar-emazte ezin izan daitekezana. Alperrik manikeoei harrika ibili. Gizonak barruan daroa zuzen/oker hori.

—Versus adierazo gura dozu, ezta?

—Bai... baina batzuek bertso... aldrebesak egiten dabez, eta geroago glask! eta heriotzeagaz ordaindu dauala esaten dabe bizirik geratzen diranek. Ez dago horrelakorik, horraitino!

—Hildakoak, hilda ez al dagoz?

—Hau, autu luze gertako litzakigu... Eta, ikusten al dozuz hor datozan egazkinak? Lagunez beterik datoz, eta hain zuzen be, etorrerea aurreratu egin jak. Ugazabak esan deust lehentxuago.

—Charter hegazkadaren bat?

—Horixe. Ezbehar handiren bat gerta da, hangoen berbetatik. Guk geure argoten «bai-beharra» deritxagu. Guztiz positibo. Datozenei azken-harrerea egin behar deutset; gero, hemen itzelak ikusiko dabez, senperrenak! Ez dirautsut besterik. Hurrengoan berba...

—Zera, itxaropenak...

—Ez dau hemen sarrerarik. Zetarako? Ez dogu erlojurik, ez egutegirik ez noizik.

—Egoera gogaikarri eta aspergarria, begaz?

—Horixe. Bėti ito-aginean eta ito ezin. Labur esateko, hona datorrrena, asperraldiak erreten dau. Horrelakorik surik ez dago. Petroleorik be ez dogu behar, eta ekonomi merke-merkean iraungo dogu.

Hegazkinetan etozanak, hainbat hegazkin arean be, ate txikerretatik esturaz urten eta sailean, alkarrerri sakaka eta bultzadaka, bi-raorik ozenezak entzumerazoz, burrunbadarik lazgarriengan sartu ziran ate gorri zabalcan barruna. Drangada erdiragarria eta bapatean ixiltasuna.

Untzorririxuk hotzikarea sentidu eban, hazuren gunetarainoko hotzikarea. Bakarrik ikusi eban bere burua, izu, lauorri.

—«Goazan hemendik, enetxuok» —esan eutsen bere sustrai, adar, aihen, ostro eta erpe-bizarrei. Gogortadezko aurrerakadea eginik, bere gorputzatalik gehienak urratu eta eten egin ziralda sentidu eban arren, ihes egin eban ate gorriaren albotik.

Ibili ta ibili, oinak mindu jakozan, eta Untzorririxuk orduantxe izan eban bere bizitzako etsialdi larria. «Hegazontzikadak hondamendira doazenean, ni, ziztrin hau, nora...».

Laudarduan gertau zan, eta loak hartu eban sasitza ondoan. Itzartu zanean, begiak igurtzi ebazan, eta betulak eta bekainak erreta eukazala konturatu zan, erreusainez.

Horraitino, haize finaren esku leunak arpegian ikutu beratza egin eutsala susmau eban. Haize garbi bizigarria zan. Bultzada zakarrez barik, egutaize bigun eztiak txera samurrez ziharduan. Aldi berean berbaro arinaren soinu entzungatxa ekarren. Igurtzi guri biguna nabari izan eban arpegian. Udabarriaren mosua zan. Maitagarriaren laztanaren antzekoa.

Zapi zuriekaz bere ointxuak estali eta jagi, bere azken zerak batu eta abiatu zan. Bere senak adietan emon eutsan bidean zehar, biderik arean ez egoan arren. Zelaietako bedar jaiobarriak goizeko garoaren osinetan bustieran ikusi ebazan. Lora ohiz bestekoak binan binan edo hirunan hirunan jolasean ziharduen eta kilker kantariak euren hegal zeheak dantzan jarri ebezan, soinulari.

Ortzian hodei politik eta laino zuriskak euren uleak orraztuten susmau ebazan, eta txori txikerrak lehen kantu eta egazkadetan. Zuhaitzek orrien batzar baketsuak egiten ziharduen, eta sakonean lats eta errekek nagiak kentzen susmau ebazan. Untzorririxu gelditu, eta oinak busti eta garbitu ebazan. Gero, eskukada ura edan eta urrunerantz begiratu eban. Garitza zabalak, berde berde, eta ardantza eta mahastiak ikusi ebazala begitandu jakon. Munetan atxak egozan, ardien antzera etzunda.

Horma luze luze antzekoa zana be ikusi ebala uste izan eban. Harantz abiau zan erdi narras, tatarrez, nekepean. Bere barruan, ostera, halako eragin ixilaz ohartu eta gelditzen jakozan ostroen margo bizizalea bere begien aurrean jarri eban.

«Itxaropenak alde egiten badeust, nireak...» eta esaldia amaitzeke, maitekiro laztandu ebazan beso artean eroiazan ostroak.

Horma luzearen barren-goienak zeharo lauturiko harlanduz eginak zirala konturatu eta iluntasuna egin jakon, konorta galdu eban. Harik laster, bere senera zanean, bere soinaren erpe-bizarrak horma leu laban haretan ipina ahal izateko, barragarri ibiliko zala sinitu eban. Elorrioak...!

Horraitio han, aurrerago horman bertan hutsunea egoala susmau ebanaz batera, harantz joan zan, esturaz, baina itxaropenez.

Eta izan be... garai! Atea egoan zirrikitu haretan.

Ate zuria.

Estu estua, halanbeharrez. Banan banan sartzeko edukoa.

Atalburuan alde batera eta bestera etzun samar, palmadar ikusgarri ederrak, eta erdian argia, eguna zan arren, biztuta egoana, urrezko dirdiraz inguru osoan iluntasuna uxatuten ebana.

Halako soinu arrotzaren oihartzunak, anartean entzun ez eban musika birloragarri harek erraiak irauli eutsazan.

«Ez inoren begik ikusi eban, ez inoren belarrik entzun».

Berba horreen durundiak zorabioa egin eutsan eta Untzorritxu lurganean jesarrita, begietan erionean eukazan malkoak lehortuten hasi zan.

—Ez hemen negarrik, laztana —esan eutsan bigun bigun ate zuriak.

Amaren berba samurrak zirala eretxi, eta orduan eta zerago negarri emon eutsan Untzorritxuk. Bere sustrai, aihen, ostro eta erpe-bizarrei begiratu eta malko eslaikorrak zirala-ta, mazkal eta itxura-bakotuak eretxi eutsen.

—Ai, ene! Lorrindu jat neure hazpegia, galdua dot neure izatea. Arren, parkatu! Hau al da...

—Bai, txikitxu, bilatu dozuna hauxe dozu, eta aurkitu dozuna. Ez zaitetz estutu. Heldu zara, eta horregaitik zure lora-mortxakea loretan lora izango da mendeen mendeak amaitu daitezenean be.

Untzorritxu belatuniko jarri eta ate zuriaren oinei mun egin eutsen.

Bapatean ate zuria edegi egin zala begitandu jakon, eta ezer ikus-

terik lortu ez eban arren, norbaiten sarrerea izan zala igarri eban eta hango txaloak, hango gorak, hango barre zabalak entzun ebazan, kantu bizi zoragarrien artean:

«Goresten zaitugu,
ezagutzen zaitugu,
maitatuten zaitugu...»

DEI EGITEKOAK*

“Lekeitio kalean
besigu denpora danean...”
 (“Txanton Piperri operan)

Geure uriko jaiak hemen doguz barriro be, San Antoliñak.

Honelako bare aldietan, hemen izan genduzan ohitura batzuk gomutara ekarte, aukerako izan ohi jaku.

Beste esakera bat be izan dogu: “Sanantoliñak ezker, jakia lep-
ra”.

Negua, arteetan, urrun samar egon arren, estututen lasterregi has-
ten ete garean, ba.

* * *

Igarri be egin barik esaten zan, “laster dogu ganean besigutarako sasoi”. Sasoi horretakoa zan ohitura bereziari ekingo deutsagu. Aldi haretan txalupak eta ontziak haizearen indarrez eta gizonen erremu-
kaden bitartez ibiltzen ziran. Ez goan lurrunontzirik, ez makinarik.

Cure arrantzale adoretzuek itsasoraterik ezango zan ala ez, egu-
nero jakin behar izaten eben. Hain zuzen be, goizalde baina lehen,
gau ilun postixuan, deia egiten eben emakume azkarrak be, kalera
urten behar.

Bertso zaharrok ba dabe esangurarik:

“Seineru gaiztoa demonintresa
beti itsasorako deia,
lau sagar gordin, ogi zati bat
egun guztiko jakiya”.

Lehenengo zirkin egin behar ebenak harako seimeruak izaten
ziran. Sasoi baten lagun bi edo hiru gau ilunean, albakoa baino asko-
zaz lehenago ohetik jagi, eta seineruok San Juan Talako ingurura joa-
ten ziran.

Hantxe hasten eben euren zeregin hain goiztarra: itsasaldera begi-
ratu, lehorrera, zeru ertzerara... olatuen indarra, haizearen indarra, joe-

* *Argitaratubakoa*, 1990.

ra ta soinua ta igurtzia zelakoak ziran konturatu, eta erabagia hartu behar izaten eben. Etorri eiteken arriskuan buruz aurrera ez sartze-ko, horixe zan ardura nagusia.

Erabagia? Bat ala bestea: itsasoratea, ta bestela, etxeguna.

Seineruka euren susmo ta jakituriaz baliaturik eztabaidan jardun ondoren. Itsasoratea bazan, seineruak Talatik kofradiara etorten ziran albait lasterren.

Dei egitekoak ordurako han egoten ziran prest.

Seineruak Kofradiako teilatuan egoan txilinari teinkadak egin eta txilin horren hots bizia ta zolia izaten zan lehenengo agerkaria, gau ilun barruko goizabarra baino lehen itsasoratea egongo zala adierazoteko.

Seinerua han joaten zan, farola eskuan, Arranegi kale luzena zehar, eta kantalbarren guztietan, patroren baten izena deitu: "Iñazio... trastiak sartu!"

Horren ostian, dei egiteko emakumeak, gazteak eta ez hain gazteak, bakotxak berak bere txalupako tostartekoci banan banan dei egiten eutsen, kale eta etxe jakinetan, musika bigun eta lauan, hiru interbaloko doinuan, tonua gorago, tonua beherago, bakotxaren aukeran:

"Kose Miel...! Gora, Jaungoikuaren izenian..."

"Kuan Pedro...! Gora, Jaungoikuaren izenian..."

"Manuceel! Gora, Jaungoikuaren izenian..."

Domeka edo jai eguna baldin bazan, esaldia luzeagoa izan ohi zan, honelan:

"Kose Miel...! Gora, Jaungoikuaren izenian... mezia entzuteko"

Kanta zaharren beste ataltxu batek hauxe dino:

"Ba goiaz danok estropesuan

bakotxa bere tostara...

Andra ta umiak oian itxita

Lehorrekuen kontura..."

Deia entzutea bizi-agergarri lez izaten zan, eta jagi behar ez ebentzat batez be, atsegin ikutua eukan musika gozoa. Gau ilumeko

isilunean emakume dei-berba bigun eta apala, tonu goibehe ezbardinetan, bata bestearen ondorik eta nahastean, ohiartzun iheskorra. Hauxe be, itsas-soinua zan urrunago ta hurrerago, soinuzko olatuen zurrumurrua...

Etxeguna, barriz, besigu denporan itsasoraterik ez egoan eguna izaten zan. Holakoetan be, seineruak batu egiten ziran, erabagia hartzeko. Ezetzekoa bazan, Seinerua etorriko zan, Ezpeleta muturrean hasi eta Arranegi kalean zehar farola esku baten, makila luze samarra bestean, eta honen puntan burdinazko txarrantzea, harri-ganean dandarrez eroanaz, burdina zarrastada luze-luzea egiten ebana. Txarrantxearen burdina zarrastada hori, nahiz-ta egun haretan irabazirik ez izan, atsegina izaten zan batzuntzat, ezkonbarri samarrentzat. Une horretako esakerea ba, ba da: "Buelta, Madalen, albia da ta".

IÑORI ENTZUNIK

1990

E. Erkiaga.

UMERIK BAKO ATSEGIÑA*

Beste askoren antzera Anton eta Matilde be, ezkondu ziran.

Hori jazo izan zan baiño leen, orraitino, esamesak eta iruzkiñak ez eben utsik egin.

Mutillen artean barriketak izan ziran, eta ao-miñetan astiñaldirik gertatu be bai. Neskatilla gazteek, ostera, zeresan eta zio ugariago, moduetan atan be, ezkontza orren ezbardintasuna nabarmen jarri bearrez.

— Ez da Matilde Antonentzat emakume irona, aren emazte izan dadin. Mutil ori sasibidean sartu da eta ez dau ezetariko urteierarik idoroko. Alperrik billatu!...

— Izan be, Anton etxezale ta amazulo utsa dozu.

— Ori esan egizu, ba! Anton orrek non euki ditu begiak?

— Begiak, tira! Matildek neska polita da, izan. Baina burua, zentzuna...

Esanak esan, Matilde Anton sakristiara eroatea lortu eban. Honen ama Mariñazi, semearen ezkontza orrezaz, ez egoan hape zurituta “Umeak azi, nekeak bizi” —inoan esaera zaharrak.

Ama, ezkonbarriakaz bizi izateko asmoz egoan, lehenengotan behintzat. Antou zan kutuna, amagaz beti bizi izanikoa, eta horra, ba. Orraitino, gogora sarri etorten jakon arako “errana, arrana”. Anton zelakoa zan ondotxu ekian arek. Matilde... ez jakin, ba.

Kalean entzuniko berba gangarren durundiak minbera jarri eutsan biotza eta Anton eta biak bakarrik egozan baten, amak semeari esan be bai:

— Badaezpadako kontuak entzun ditut. Matilde gora, Matilde behera.

— Ama, ba dakizu. Aldian aldiko... orain ez dago leengo konturik.

— Ez egon? Dana aldatu eta irauli behar ete dozue?

— Ama, jasankorra izan bear dozu.

— Bai, baiña Matilde bera, orrelakoa ete da? Aren beraren berbarik asko, gangarrak eta ariñak ez ete? Berbarako, ezin daiket ulertu emakume batek seme-alabarik ez gura izatea.

* *Argitaratubakoa, ¿?*.

— Orreek, esanak dira, ama. Esan utsak.

— Esanak eta izanak. Sein barriaren amama izateko nire aizeak!
Baiña ez dago musik.

Anton ixildu egin zan eta jesarri. Amari begrira, bekokia ilun.

Antoneri leenetara joiakon gomutea. Bera, amaren kutuna izanikoa. Geroago, Matildegan jarri zituan bere begiak. Au, orduan, neskatok bizkorra zan, kalcen edonoiz agiri izaten zana. Ume bakartia, inoiz txakur koskorren bat trailan, bizikleta ganean, orra eta ara. Baiña ez jakon gogoko, eta burutik kendu gura izan eban.

Neskatoa, barriz, erakusgurea izan, eta kafetxe horretan, hango taberna apaiñean, kanpoko mahai biribillen inguru jesarrita, alboan inor ez... Belauna belaumaren ganean, tabakoaren kei biribila begien aurrean, arpegian lapizen azterrenak.

Zelan ez ekiala, Anton frontoian illuntze baten neskatilla bakarzale aregaz berbetan asi eta horra! Maite-lakirioan katigatu, numbait. Baina ori ur joana zan; ezkontzako buztarripean egoan arrezkero.

— Ama, berba asko esan egiten dira, baiña aotik kanpora edo.

— Ez, ene seme ori. Berbak geienetan barrutik urteten dabe.

— Guztiok ez gara bardiñak, ama.

— Egia. Ostera, Martiñe nire beste erranari inoiz be ez deusatzun arinkeriazko berba gangarrik. Aregaz ez dot egundo...

— Nire zera bizi samartxuago da-ta...

— Nik i... ama guztiok dogun senaz, zerbaiten usaiña, susmoa dot. Ezer estaldu bearrik ez baldin bada, bedekinkatua gure Jauna...

— Zer, ama?

— Ni neu, Jaunaren legean eta bildur santuan bizi izateko gogoz eta arduraz ibili naz beti.

Mariñazi ixildu egin zan eta sukalderuntz joan. An zetan edo atan jardun ondoren, semeari haxe esan eutsan:

— Nekatuta nago eta oera sartuko naz apur baten.

Ori adierazo eta ama bere logelara sartu zan eta atea glask itxi eban.

Çau hartan Matilde eta Anton batera eldu ziran etxera. Ordurako ama Mariñazik afaria gerturik eukan. Afaritan ama-semeak berba gitxi egin eben. Matildek, barriz, berba eta berba, eta geroago urrunikuskiñaren aurrean sekulako barreak be bai. Ama an egoan arren, Mariñaziren gogoa urrun ebillen. Antonek estu erabillen bere barrua, emakume bien artean bake eta txerazko zubia zelan jaso ez ekiala.

Amak ixilean maia batu eta sukalderuntz aldegin eban. Arik gero-ago gazteei "Gabon" esan eta bere gelara joan zan.

Matilde alakoren baten zeozetaz konturatu eta bere senarrari:

— Anton, ixilik zakustaz.

— Ba... bestetan lez; gauera ezkeru, nekea.

Matilde arrapaladan sukalderuntz joan zan; beingoan agertu zan kafe-ontzia eskuan, lurruna eriola.

— Nekeak uxatuteko, akeita edango dozu.

— Baaai edo.

— Zelako bai motela, Anton. Txola ekarriko deusut.

— Ba...

— Zer?... Gaurko gau au ez dogu otza izango. Ezkonbarrientzat au al da "plana"? Tximista gorria!

— Laga.

— Ez. zuk kopatxu bat eta nik bestea. Ez niri, gero, milingakeriarik ekarri orain!

Matilde Antonen altzoan jesarri zan.

— Okil oskillik ez dot gura nik emen. Gitxiago oean. Ondo dakizu.

Antoneri laztanak eta musuak egiten hasi jakon.

— Gizona, zer jazotzen jatzu? Soinekoak erantziko deusudaz, ea orrelan gizonduen zarean.

— Guraria...

— Neu nozu guraria. Emen naukazu. Zeutzat. Baina zu, neutzat. Tira, edan egizu, eta goazen amesen lekura, maitaleen abia epelera. Ez dagigun griña giro eder au alperrik galdu.

Mariñazik barbaroa bai, baina gazteek zer esaten ebenik, ez eban entzun; are gitxiago ulertu. "Alkarrenak dira, eta konponduko dira".

Goizaldean, Mariñaziri norbaitek gelako atean kax kax! oles egin eutsan.

— Ama.

— Sartu zaitez, seme. Zer gura, ala bear ete dozu?

— Matilde kexu dago. Eta miñez.

— Oztitu egingo zinecn edo, zeuen... ai, ixildu nadin.

— Ez, bapatean... odolgaltzea izan dau.

Amak beingoan zapart egin eban oetik.

— Ai, ai, ai, Anton! Odolgaltzeak sarri dira emen, zuek umerik gura ez arren. Atsegiña bai; baina ondorengorik ez!!! Matilde eta zu

Londonera jua zinenean, zer barrabankeri egin eban arek? Goazen ama alperrik galduari lagunduten, errukarriak izan bear dogu-ta.

Errenaren gelara sartu zanean, amak, berba oneek bakarrik esan zituan: Ai, opa ez direan umeak! Zuek opa izan zaituegu, ba...

Atzena

TXAKUR ZAHAR ETA GAZTEA*

Behin baten, ba zan txakur handi eder bat, uri nagusietako etxebizitza baten, etxeokoe maitakiro zaindurik eukena. Txakurrak berak be, etxea ta etxeokoe zaindutea eukan bere zeregintzat, jabeek horixe erabagi ebelako.

Txakur handiaren ulea baltza zan, eta nahiz-eta bere jabeak euskaldunak ez izan, "Baltza" izena ezarri eutsoen.

Orduan be txakur basatiak eta kalezaleak ba ziran arren, "Baltza" erosi baizen laster, jabeek hazi-ahalean hezi egin eben. Honeek ama eta semea zirean; etxebizitza horretan alkarregaz bizi zirean.

Noizean behin, etxeokoe alabea edota honen seme-alabatxuak be etorten zirean amamagana, ordu batzuk edo egun batzuk emoteko ustez. Batez be, Cabon jaietan, jai errenkadea hasi eta amaitu arte, amamarenean geratzen zirean.

"Baltza" gehienbat etxeokoe andreagaz eta semcagaz bizikide zalarik, bere eginbeharrak zeintzuk eta zelakoak zirean jakiten hasi zan.

Esi gogorra, neurririk estuena bere beharrizanak noiz, nun, zelan zertu behar ebazan, lehenengotan gorgor egiten jakon, baina gizonak bere idekoa, gizonak bere menpekoa hezi ohi dauan antzera; arean bere, emakunea eta zaldia eta txakurra eta landako aberreak bezatu ta legepe jarten dituan moduan, etxean bizi danaren txakurarentzat neurri estuagoak izango zirean.

"Baltza"-k etxean egoan bitartean, etxeokoe orduetan, jan edo edan egin eikcan, baina ez txizik ez kakarik nasai egiterik ez eban izango, erremuskadaz, herba latzez eta idizilaren amenazuz be, ikasi eban, eta ondo ikasi be.

Kalerako orduak gehienbat, egunsentia eta gau berandua izaten ebazan, etxeokoe semea gidari ebala. Egun argiko orduetan inoiz edo behin bakarrik ibilten zan uri handiko espaloi zabaletan zehar, betiror etxekandarearen edo honen semearen esanera, nahiz bate nahiz besteak idunetik lotuta trailan eroiela.

Osterantzean, eguzkiaren argia eta epeltasuna, etxearen hegoerantz egoan patio handiko leihoan zehar joaten jakozan bere gorputzera, garramura grinearen ordezkoe lez izanik, emebako berotasun hori.

* *Argitaratubakoa, ¿?*

Uda baten jabeek itsasertzeraino eroan eben eta egun gozatsu hareek ez jakozan ahaztuko ganeko urteetan. Askatasunik ederrena gozartuten eban Harrigorri hondartzan, olatuei eutsi ta tati eginez. Uhinek batuz, beherantz egiten eben bakoitzean, "Baltza" uraren ondorantz joaten zan, baina olatu barria ardi zuriak eginez bizituta etorrenean, rast! lehorrerantz salto ta brinko egiten eban, jolasak jolas buruturik. Geroago, olatuei apur baterako agur esan, eta arineketeari ekiten eutsan, lau oinka azkar eta azkorrak be, bere gustokokak zireala, jabeei eta edozeincri adierazoz.

Arratsaldetan inoiz Gorozikara eroaten eben arren, iluntzean Egidazun ibiltea zan bere gogarako. Orduan be, aske lagaten eben, eta txakur lagunakaz, atze, tutu eta azpikaldeetan alkarrri usain hartzen jardun eta mustur igurtziak zertu ondoren, jauzka eta guau-guau eginez, egundoko jolasak eratuten ebezan, garramura zirikaldiei be, amore emonez. Arbolei eta etxekantoiei ohi dalako ixuri epela be eskeiniz.

Harrezkero, "Baltzak"-k bere fraile bizimoduan, sarritan gogoratzten ebazan Harrigorriko goiz urdin disdiratsuak, eta arcago Egidazuko txakurremcen txerak eta tatiak.

Haren bizimodua beti zan bardin antzekoa. Goizean goizetik jabe mutilagaz kalera, laga beharrekoak laga eta barriri etxeko lau horma artera, gau berandurarte.

Hemen, ate aurrera norbait heldu eta tirrina joten ebenean, "Baltza"-ren zaunkak entzungarri izaten zirean etxebarrukoentzat, ate aurrean egoana dardaraka jarteko eta goiko eta beheko auzoek, aterik ate nor edo nor etorrela edo, susmatu egien, argiaren, uraren, gasaren arduradunak euren aste jakinetan, eta beste edozein enparako edozein ordutan.

Zaunka eginez ala ixilean, pasiloan zehar egundoko joan-etorriak egiten ekian. Geldi egotea ez jakon atsegin sarri askotan.

Deiez egoanari etxekoak atea edegitean, ai, orduan eta zaunka lodi eta ozenagoak, heldubarria izu-laborri jarteraino.

—Ez, ez estutu —esan ohi eban etxekoak—, jabea aurrean dagoanean, ez, deutso honek inori ezer egingo. Ixi, Baltza!! Zer uste dozu? Beti lapurrak edo... Zoaz zeure lekura, zoaz sukaldera. Parkatu. Bakarrik dagoenean be, hutsari ausi egiten deutso, laguna gura daualako, eta laguna heltzean, etxekoa izan ala ez izan...

—Orduan be, zaunka, ezta?

—Bai, ba! Baina ez deusku onek behin ez behin samintasunik ekarri

Behinola, gabeko orduetan mutil jabeagaz kalerik kale ebilela, txakur txiki zuri bat ikusi eban, jabeak baino lehen. Eta zaunka eginez adierazo. Mutila orduantxe konturatu zan. Txakur baltzak eta txakur zuriak alkar agurtu eben, eta begien eta musturren bitartez, bakotxak bere matrikulea adierazo eta aurrekoarenaz jabetuz, pozik egozala zirudien.

Mutilak, txakurtxu zuriak bere jabea izango ebala-ta, inguruetara begiratu eban. Ez zan inor agiri.

Arbolondora joan zirean txakurrak eta han, euren rituala zertu eben. Mutila geldi egoan, hareri begira.

—Alkar jango ete daben, baina, ez dirudi.

“Baltzal”-k berba egin gura ba eutsan lez, mutilari eta txakurtxuari begirakunak egiten eutsezan.

Ba zirudian hau esaten eutsala:

—Zera!... Nire urruneko senitarteko hau, umezurtza ete da. Errukia emoten deust, hain argal eta zikin. Etxera eroango bagendu...

Eta mutilak, adi-adi, “Baltza”-ri:

—Ez dakigu norena dan. Ez dakigu bere izenik be.

Eta “Baltza”-k ostera be:

—Ni zahartu egin naz, eta sekulako bakartadea be...! Ganera ez da emea, eta ez dozue prolemarik izango. Gehienik be, “gai” samarra izatea edo.

Uneak joan joiazan eta “Baltza” ta mutil jabea etxerantz bihurtu zirean. Eta txakur txiki zuria euren ondorik.

—Zoaz etorri zarean bidetik! —azaldu eutsan mutilak, erremuskada nahikoa latza eginez.

Guztiak ixilik.

Bigarrenenez be:

—Ospa, hanka hemendik! —besoa luzatuz eta atzamar azkarra zorroztuz.

“Baltza”-k zaunka kexu ta zakarra egin eutsean jabeari.

—Horraitio! Ezezagunari bando eta nirekiko gozokatx, e, “Baltza”? Zelanik hori? Otsoak otsoa laztan... esakerea ez al da? Tira, ba; baina gola sartu deustazu zuk oraintxe, uste-uste bage sartu be.

Etxaurreko espaloira heldu zireanean eta mutilak giltzagaz atetako atea edegi, “Baltza” bera baino bizkorrago, txakur txikia tximis-

tea lez sartu zan, ateta ezezagun haretan. Eta gorakinean “Baltza” ta jabea baizen azkar.

—Lotsorra ez da, behintzat! —esan eban mutilak berba entzun-garriz.

“Baltza”-k jabeari begiratu eta keinu be egin eutsala, uste izan eban mutikoak.

Etxeko atera heldu, edegi eta han be, ezetariko atzerapiderik bage, barrura!

Ama ohean egoan, irakurten edo, argia isiotuta eukan-eta. Mutila amagana joan eta txakur txiki zuriaren kontua zertu eutsan.

—Bat nahikoa genduan, eta orain... beste bat?

Heldubarria gosea izatea eitekeana zan, eta mutilak hazur zatia emon eutsan. Baita “Baltza”-ri be.

Hazurragaz unca gozatu eta orduan “Baltza” bere lekuratu zan, lotarako ordua zala-ta. Honen alboan lurrean marrasa tolestuta ipini eutsean mutilak, eta etzuteko agindu eutsan.

—Bihar kalera eroango dot... eta doala!

Eguna argitu ebanean mutila eta patari biak kalera zireanean, txakur txiki zuriak ez eban ihes egiteko asmorik erakutsi. “Baltza”-ren ondtxurik ibili zan, han ebiltzan beste txakurrei jaramon handirik egiteke.

Etxerakoan, esan be bai:

—Ama! “Baltza”-k gola sartu deusku.

Horretara ezker... GOL izango da horren izena.

Handik gorakoan, GOL izan zan haren izena.

GOL, ostera, “Baltza” baizen esanekoa ez zan izan. Laster susmatu eben. GOL... askatasun-semea zan. Txakur zaharrari bere zerak eta zereginak irakastca errez izan bajaken be, GOL-ek inoren esanei jaramon eskas giten eutsen.

Zikina zan eta ezin eskura ekarri. Bainuzale ez zala, etxea edonun etzuten zala, emoten jakozan jatekoci muxin giten eutsela. Elorrioak!

Zortzi asteen ez eben ama-semeek aurrerantza handirik lortu. Okerra, zikina eta lorrina. Mutilak atz giten eban buruan.

Goizalde baten, etxeko, semea patari biakaz kaleratu zan arren, lorategian hara-horra ezetariko ardurra barik ebilenean, GOL suntsitu, aldendu egin zala konturatu zan. “Baltza”-ri itaunea egin, baina alperrik. Etxerakoan hiru bizidun barik, bi bihurtu zirean. Eta amari adierazo eutsan.

—Bai, popakoxu zala-ta nengoan, eta horra! Hile bian gurea jan ondoren joan da. Ezin etxe barruan egon, nunbait. Jabe barriaren guran, eta txakurreme gaztetxuen guran...

Eta halan joan zirean egun batzuk.

Gerogarrenean, goiz beranduan, "Baltza"-k sarrerako atearen ostean, han eskilara buruan zaunka zoli ezagunak entzun, eta bera be, horretan hasi zan, alkarpidea bailitzan.

Etxekandrea zaunkadaz ohartu eta zer ete zan, "Baltza"-gana hurreratu zan.

—Horraio! —haginar-tean esan, eta brastadan edegi eban atea. GOL, ausardirik gorrienaz etxera sartu zan.

—Nun ibili zara hainbeste egunetan, tunantetzar hori?

Baina GOL eta "Baltza" ez egozan inoren agirakak entzuteko. Bata bestearen ondoren arrapaladan joan zirean pasiloan zehar.

Mutila etxera zanean, honek be asarre egin eutsan.

—Ez dozu inoiz horrelakorik egingo. Ostantzean, joan zaitkeez bertatik sekulako.

Ganeko egunetan lehengo antzean jarraitu eban gauzak, GOL zikina, okerra ta lorrina eskuratzea ezer ez zala.

Gau baten, GOL popakoxuak ostera be ihes egin eutsen kalera.

Egunak joan, egunak etorri betiko agurea zala-ta egozanean barriro be, goiraino, etxeko ateraino heldu eta hantxe ausika, dana zikin, dana argal.

—Zantar hori, golfo handi hori...!

"Baltza" ixilik, "laguna lagun zakidaz" esaera zaharra gomutan ebala, nunbait.

Gau haretan eta biharamon goizean be, GOL lotuta eroan eban mutilak kalera, "Baltza" zintzoa aske joian bitartean. Hainbat egunetan honelan jardun eban eta GOL barriro garbi eta zerbait gizen-duta jarri eban.

Gau baten, etxerakoan, semeak amari:

—Hiru joan gara, eta bi gatoz, ama. Barriro baletor, garbitu egingo neuke.

Eta "Baltza" adi-adi entzuten, begiak zorrotz, belarriak tente.

Egunak eta gauak iragan zirean.

Behinola, bestetan lez, "Baltza"-ri bere janari berezia plater zaba-lean musturren aurean jarri eutsocan, lehenengo haginkadak hazurrari egin eutsazan. Hurengo, han eukazan beste sistorretarik

bat kausk egin eta ahoratu ebanean, matrailazurrak geratu egin jakozan eta ahoa zabalik jarri, jaten hasiriko sistorra errebesatu gura bailéuan.

Intzirika eta inkesaka hasi zan.


Ama-semeak hurreratu jakozan, ohi ez lako muxin bihotz-erdiragarriak egiten ebazala konturaturik. Sistorrak egozan lekutik alden-du egin zan, eta intzirjak eten barik, begirakune ilun ete saminezkoak egin jabeei.

Ama-semeek sistorrek ustel-usainik ete euken, edo beste ezer nabarmenik, ikutu eta aztertu ebezan.

Biharamonean, etxekandrea harategira joan zan eta sistorraren jazoera mingotsa azaldu eutsan. Harakinak, andrearen berbak entzun entzun egin ondoren, arpegia eskuaz igurtzi eta esan eban:

—Ai, ai! Susmatuten dot. Atzoko txakur-sistorrak... kalean harrapaturiko txakur gazte baten haragi-hazurrez beteak zirean, eta zuen “Baltza”-k erreztua hartu... eta negar.

AURKIBIDE KRONOLOGIKOA



1930

Oroipenez (*Bizkaitarra*, VIII, azaroa, 1930) 783
 Abertzaletasunatzaz (*Bizkaitarra*, XII, abendua, 1930) 786

1931

Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-V-24) 787
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VI-26) 788
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VII-4) 789
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VII-10) 791
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VIII-2) 793
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VIII-20) 794
 Ea'n Igandian (*Euzkadi*, 1931-X-15) 796
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-XI-1) 798
 Ez asarrerik, anayak! (*Euzkadi*, 1931-XI-26) 800
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-XII-31) 801

1932

Izki-Mizki (*Euzkadi*, 1932-II-6) 803
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1932-III-10) 805
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1932-IV-3) 806
 Izki-Mizki, udako gatzak (*Euzkadi*, 1932-VI-25) 807
 Izki-Mizki, udako gatzak (*Euzkadi*, 1932-VI-29) 810
 Euzko-erri jakintza (*Euzkadi*, 1932-VII-2) 813
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1932-VII-4) 814
 Izki-Mizki, entzun baña aztu (*Euzkadi*, 1932-VII-10) 816
 Iski-Miski, Andolin Deun Jayak-eta (*Euzkadi*, 1932-IX-16) 818
 Igaziriko igandez (*Euzkadi*, 1932-X-20) 820
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1932-XI-18) 822
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1932-XII-17) 823
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1932-XII-31) 825

1933

Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-I-5) 826
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-II-25) 827
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-III-16) 828
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-V-12) 829
 Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-V-28) 830
 Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1933-VI-7) 832

Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933-VI-30)	833
Txakartegi'tar Andolin (G. B.) (<i>Euzkadi</i> , 1933-VII-6)	836
Jayak-jai (<i>Euzkadi</i> , 1933-IX-22)	838
Izki-mizki (<i>Euzkadi</i> , 1933-X-13)	840
Azkatasun bidian (<i>Euzkadi</i> , 1933-X-25)	85
Gero... gerokuak (<i>Euzkadi</i> , 1933-XII-6)	842
Euzkerea esituta... eta erderean nun-nai (<i>Euzkadi</i> , 1933-XII-30)	843

1934

Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-6)	845
Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-13)	847
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-31)	848
¡Aratuzte, Ñauteri! (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-10)	849
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-15)	851
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-25)	852
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-2)	853
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-8)	854
Izki-mizki (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-10)	855
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-15)	856
"Euzkerari omena" (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-7)	857
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-14)	858
Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-19)	859
Amoroto-Urregarai (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-21)	861
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-27)	865
Biar-biarrekua Abertzaletasunaren zabalgundia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-4)	867
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-5)	868
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-24)	869
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-29)	870
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-31)	874
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-31)	878
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-1)	880
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-2)	885
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-6)	888
Eztalakuan-baidalakuan (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-8)	889
V ^o gn. Euzko-Olerti Eguna. Bijar, Zarautz'en (<i>Euzkadi</i> , 1934- VI-9 / <i>Ekin</i> , 123, 1934)	891
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-10)	893

Ene bijozkadak (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-14)	894
Domingo Agirre Euskeltzalia (<i>Ekin</i> , 124, 1934)	896
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-29)	897
Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-4)	898
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-13)	899
Erri-itzak: "Bizkaitarra" (<i>Ekin</i> , 128, 1934)	901
"Kresala" ta "Garoa" (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-29)	902
Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-9)	903
Baserrira abertzaletasunaren ixenian(?) erderea zabalduten (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-28)	904
Euzkel-gaiz (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-31)	905
Perretxikotan (<i>Euzkadi</i> 1934-IX-2 / <i>Ekin</i> , 135, 1934)	906
Euzkel-idazliak erdeltzale (?) (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-11)	908
Abaroa jaunari gorasarre (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-13)	909
Asarre barik (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-15)	912
Mixiolari euzkeldunak (<i>Ekin</i> , 141, 1934)	914

1935

Udabarija, itxaropena (<i>Euzkadi</i> , 1935-III-27)	916
Erremu-eguna (<i>Euzkadi</i> , 1935-IV-14)	918
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935-V-11)	921
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935-VI-15)	923
Mendexa'ko jayak (<i>Euzkadi</i> , 1935-VIII-4)	924
Sanantoliñak (<i>Euzkadi</i> , 1935-VIII-30)	926
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935-X-24)	928

1936

Esnedunak (Neguko goiz batez) (<i>Argia egutegia</i> , 1936)	1079
Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-I-17)	929
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-II-14)	930
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-V-28)	931
Lekeitio'ko Olerti-Eguna / Gomuta samurrak (<i>Euzkadi</i> , 1936-VII-5)	933
Akarregi'tar Gurutz (G. B.) (<i>Euzkadi</i> , 1936-VIII-26)	936
Gomuta samurrak / "Aitzol" biotz-begietan dodala (<i>Euzkadi</i> , 1936-XI-6)	937
Antzerki yayan izan naiz... (<i>Antzerti: euskel-antzertiaren illero- koa</i> , 49, 1936)	90

1937

Len, zer? Gaur, ba-dakusgu.— Gero geuk nai doguna (<i>Eguna</i> , 1, 1937)	939
Karraxika, ota-lore (<i>Eguna</i> , 63, 1937-III-14)	941
“Aitzol”, olerkari zuzperzalle (<i>Eguna</i> , 95, 1937-IV-22)	943
Uskola'tar Errapel (<i>Eguna</i> , 124, 1937-V-27)	945

1951

Sinisogorra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1951)	94
--	----

1952

Euskeraren hel-oihua (<i>Gernika</i> , 18, 1952)	631
Sinisogorra (<i>Egan</i> , 2, 1952)	111
Platon-en Parmenides edo Eideena (<i>Argitaratubakoa</i> , 1952)	699

1953

Iparragirre'rekin solasian (<i>Gernika</i> , 24, 1953)	421
Erabiltzeke, eztugu cuskara lantzen ahal (<i>Gernika</i> , 22, 1953)	635

1954

Kaia ta Estalpea (<i>Argitaratubakoa</i> , 1954)	115
---	-----

1956

Pake eguna (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, <i>Argitaratubakoa</i> , 1956)	134
Ames-Larreko maitagarria (<i>Egan</i> , 5-6, 1956)	1081

1957

Nire senargeia (<i>Argitaratubakoa</i> , 1957)	158
R. M. Azkue aundiari omena Bilbao'n (<i>Egan</i> , X, 1957)	423

1958

Kezkak eta koxkak (<i>Egan</i> , XI, 1958)	637
---	-----

1959

Zein ote zan zera? (<i>Euzko-Gogoa</i> , 1-2, 1959)	1084
Ravel, Ziburu-ko seme (<i>Egan</i> , XII, 1959)	947
Alperrontzi (<i>Argitaratubakoa</i> , 1959)	178
Ate-osteko irudiak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1959)	184

1960	
Baru-aldiak (<i>Egan</i> , 1, 1960)	1088
Kanpaien atsekabez (<i>Euskera</i> , V, 1960)	200
Oññazez (<i>Argitaratubakoa</i> , 1960)	220
1961	
Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (<i>Olerti</i> , 1961)	429
Bizkaiko bertsolariak, nor goragoka (<i>Karmel</i> , azilla-lotazilla, 1961)	951
1962	
Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga (<i>Olerti</i> , 1962)	444
Aita Kandido Basabe, S.J. euskal-idazlea (1867–1928) (<i>Olerti</i> , 1963)	456
Amandarrikuak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1962)	275
1963	
Bilbao'tik (<i>Zeruko Argia</i> , 1, 1963)	953
Zinea, zeñek galduko du? (<i>Zeruko Argia</i> , 2, 1963)	954
Udaberriaren begira (<i>Zeruko Argia</i> , 6, 1963)	956
Panini'k Kristo maitatu zuanekoa (<i>Zeruko Argia</i> , 6, 1963)	763
1964	
“Belu-Mendu” zintzoari, agur (<i>Zeruko Argia</i> , 66, 1964)	471
Resurreccion Maria Azkue-z ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak (<i>Egan</i> , XXIII, 1964)	473
Lekeitio-ko Azkue-tarrak (<i>Zeruko Argia</i> , 76, 1964)	957
1965	
Peter Etxeberria Euskalerrian egon da udabarrian (<i>BIBI</i> , 9, 1965)	403
Izkuntzaren nekazalea (“ <i>Orive</i> ” omenaldi liburua, 1965)	492
Sonia Iruñia (<i>Egan</i> , 1–6, 1965)	1092
Azkue-Sariak eta Guipuzkoako ta Arabako Diputazioen jokabidea (<i>Zeruko Argia</i> , 134, 1965)	490
1966	
“Arrugain”ek bere, agur egin deusku (<i>Zeruko Argia</i> , 169, 1966)	497
Zirikadak eta erantzunak (<i>Zeruko Argia</i> , 188, 1966)	960

Parisko Sorbonnekoa (<i>BIBV</i> , 15, 1966)	408
Irugarren gaua (<i>Egan</i> , 1-6, 1966)	1097
Erriko Izarra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1966)	302

1967

Euskal-Dantza Barriak (<i>BIBV</i> , 17, 1967)	411
Arrutza ta Egia'tar Mikel (Arrugain) 1890-1966 (<i>Olerti</i> , 1967)	499
Euskaltzaindiaren deia (<i>Anaitasuna</i> , 30, 1967)	641
Zizka-mizka atsegiña ("Atalak" liburua <i>aren hitzaurrea</i> , 1967)	681
"Gernikako Arbola" ta Lekeitio (<i>Egan</i> , XXVI, 1967)	964

1968

Eleder-Sailla (<i>BIBV</i> , 23, 1968)	415
Bizente Amezaga Aresti (<i>Euskera</i> , XIII, 1968)	506
Migel Arrutza Egia (<i>Euskera</i> , XIII, 1968)	507
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 156, 1968)	972
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 157, 1968)	975
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 158, 1968)	977
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 159, 1968)	979
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 160, 1968)	982
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 161, 1968)	984
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 162, 1968)	987
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 163, 1968)	989
Zaartzaroaren bildur (<i>Anaitasuna</i> , 164, 1968)	992
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 165, 1968)	994
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 166, 1968)	997
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 167, 1968)	1000
Munduko bearizanak (<i>Anaitasuna</i> , 167, 1968)	1002
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 168, 1968)	1004
Itxasalde paregabea (<i>Anaitasuna</i> , 169, 1968)	1007
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 170, 1968)	1009

1970

Pablo Fermin Irigaray Goizueta "Larreko" (1869-1969) (<i>Egan</i> , XXX, 1970)	508
Ikusi bakarrik (<i>Karmel</i> , 1, 1970)	1100
Gau batean (<i>Argitaratubakoa</i> , 1970)	312

1971	
Giltz egokia (<i>Hegatsez</i> , 1971)	1103
Euskaltzaindiaren urre-eztaiak, Erkiaga Jaunaren hitzaldia (<i>Euskera</i> , XVI, 1971)	643
1972	
R. M. Azkue en la literatura (<i>El Correo Español-El Pueblo Vasco</i> , <i>Suplemento gratuito</i> , 1972-9-10)	517
1973	
«Larreko» gizon. Pablo Fermin Irigaray Goizueta (<i>Euskera</i> , XVIII, 1973)	523
Dos centenarios lequeitianos: El del músico Zapirain y del poeta E. Azkue (<i>El Correo Español-El Pueblo Vasco</i> , 1973-8-1)	1011
Euskal-Antropologiazko II gn. astea (<i>La Gran Enciclopedia Vasca</i> , 1973)	650
1974	
Eusebio Maria D. Azkue gizon eta idazle (<i>Euskera</i> , XIX, 1974)	529
“Gora Arratia” (<i>Egan</i> , 1-6, 1974)	338
1975	
Requiem Altuberen Arauei (<i>Egan</i> , 1-6, 1975)	654
Lan honen agerpena (“ <i>Diez lustros en la villa de Lequeitio</i> , <i>1925-1974</i> ” liburuaren hitzaurrea, 1975)	683
1976	
Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939) bere bizitza eta lanak (<i>Euskera</i> , XXI, 1976)	552
Aritzmendi, baserritar unibertsala (<i>T.U. Lankide</i> , 1976)	1017
1977	
Anaforikoak aldez edo moldez (<i>Lekuona'tar Manuel Jaunaren</i> <i>omenezko idazki-bilduma</i> , III, 1977)	659
1978	
Kiri-sorpeneko biri-antura (<i>GMB</i> 75, 1978, 10)	765

1979

Lekeitio uri begikoan egindako bakaldun-egonaldian aipamen
zeatza (*GMB* 76, 1979, 5-6) 766

1981

Itunben Ekonomikoaren Legea (*Diputación Foral del Señorío de
Vizcaya / Bizkaiko Jaurreriaren Foru Ahaldundia*, 1981) 767

1984

R. M^a Azkueren inguruko gorabeheratxuak (*Sustraiá*, 49, 1984) 572
"Azalpenak" Lauaxeta (*Idatz & Mintz*, 7, 1984) 1047
Gizon totoloa (*IKA argitaldaria*, 1984) 1106
Arpeko Mari (*IKA argitaldaria*, 1984) 1110
Tronpa tartaina (*Zer*, 78, 1984) 1115
Ximin-jendearen biltzarra (*Argitaratubakoa*, 1984) 1119
Eraketa bileraren batzar-agiria -1979- (*Actas de las Juntas Ge-
nerales de Vizcaya-Bizkaiko Batzar nagusietako Batzar-agiriak:
1979-1983. Diputación Foral de Vizcaya / Bizkaiko Foru Aldun-
dia*, 1984) 771

1985

"Gazigozoak" - Agirre, T. (*Idatz & Mintz*, 9, 1985) 1049
Azkueren zentsurape 1918gn. (*Idatz & Mintz*, 9, 1985) 1052
"Itxastarrak" (*Ondarroa*, 1985) 1057
Tarot argi, Tarot ilun (*Argitaratubakoa*, 1985) 346
Basotx (*Argitaratubakoa*, 1985) 1128
Ixilaren ederra (*Argitaratubakoa*, 1985) 1135
Martin Antonen Potina (*Argitaratubakoa*, 1985) 1142

1986

Nik neronek ez (*Argitaratubakoa*, 1986) 1148
Talo ta arraina (*Lore kontu-Kontu lore*, Ondarroako Kultur
Etxea, 1986) 1157
Augustin Zubikarai Bedialauneta'ri omenaldia (*Karmel*, 2,
1986) 583

1987

Urdaileko hodi-chun ugaltzea (*GMB* 84, 1987, 3-4) 775
Zubikarai euskal-idazleari gorazarre (*Idatz & Mintz*, 13/14,
1987) 590

1230

“Iribarrea galtzen danean” (<i>Idatz & Mintz</i> , 15, 1987)	1062
“Uneka gaba” (<i>Idatz & Mintz</i> , 15, 1987)	1065
Lukasen erakutsi ona (<i>Zer</i> , 107, 1987)	1178
Gonaluzeren tarota (<i>Argitaratubakoa</i> , 1987)	363
Patxi Antxustegi (G. B.) Olerti lanetan (<i>Karmel</i> , 4, 1987) . . .	593
Abade euskaldunak jardunean (<i>Karmel</i> , 1, 1987)	1023

1988

Bilbo, barriro Europari adi (<i>Bilbao</i> , 5, 1988)	1026
Lekeitio hitzaren jatorriaz (<i>Lekeitio</i> , 1, 1988)	1028
Ardaoa ixilpera (<i>Bilbao</i> , 8, 1988)	1032
Euskalduna, ontziak num dituzu (<i>Bilbao</i> , 12, 1988)	1035
Eusebio Erkiaga-ren Emoketa, Euskatzaindiari (Euzkaltzaindiaren Azkue Biblioteka, <i>Argitaratubakoa</i> , 1988)	417
Omenaldiko azken egunean (<i>Argitaratubakoa</i> 1988)	599

1989


Agirre Ondarrutarra (<i>Ondarroa</i> , 1989)	607
Aita Lino Akesolo, (<i>Karmel</i> , 2, 1989 / <i>Euskerazaintza</i> , VII, 1989)	609
“Mutiko baserriar baten oroitzapenak” (<i>Idatz & Mintz</i> , 18-19, 1989)	1067
Bilbo polita eta garbia (<i>Bilbao</i> , 15, 1989)	1037
Medikuen agerkaria Bilbon (<i>Bilbao</i> , 17, 1989)	1040
Gauza harrigarriak hemen? (<i>Bilbao</i> , 20, 1989)	1042

1990

Irakurleak bai, idazlerik ez (<i>Bilbao</i> , 25, 1990)	670
Liburuak / Igone Etxebarriaren eskutik Bilbon «Ixtorio-Mixterio» (Jean Barbier, B. M. Garro) (<i>Bilbao</i> , 28, 1990)	1069
Gomutak iluntzen diranean (“Eguna” egunkariaren birrargitalpena, 1990)	686
Gamistoa, Euskal-edaspena (<i>Lekeitio</i> , 2, 1990)	1182
Adiskide.bi kontu kontari (<i>Lekeitio</i> , 2, 1990)	1189
“Untzorrirtxu” (<i>Bilbao hiria ipuinak, 1980-89</i> , Bilboko udala, Kultura eta Turismo saila, 1990)	1193
Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zanaren mendeurrena: Migel Arruza Egia (1890-1966) (<i>Euskera</i> , 2, 1990)	615
Dei egitekoak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1990)	1208

Sarrera: berdetik gorrira (<i>Bizkaia profunda / Bizkaia barru-</i> <i>-barrutik</i> , 1990)	776
1991	
Boltxebikiak, Eguzkitza ta honen saio «gizarte auzia» barriro (<i>Karmel</i> , 2, 1991)	621
1992	
Ordu onean, Augustin (<i>Augustin Zubikarai omenaldia 1992 /</i> <i>Zer</i> , 169, 1992)	625
Zamarridak cu— / au— adiztaiu aldaera ixila, bere azken gra- matikan (<i>Iker</i> , 6, 1992)	673
¿?	
Alkarrizketa kaixkarra (<i>Argitaratubakoa</i>)	380
Nori, zeri, zeineri? (<i>Argitaratubakoa</i>)	388
“Euskarazko bertsoak”-Eusebio Maria D. Azkue Barrundi (1911- 1973) (<i>Argitaratubakoa</i>)	1071
Umerik bako atsegiña (<i>Argitaratubakoa</i>)	1211
Txakur zaharra eta gaztea (<i>Argitaratubakoa</i>)	1215

AURKIBIDE ALFABETIKOA



Abade euskaldunak jardunean (<i>Karmel</i> , 1, 1987)	1023
Abaroa jaunari gorasarre (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-13)	909
Abertzaletasunatzaz (<i>Bizkaitarra</i> , XII, abendua, 1930)	786
Adiskide bi kontu kontari (<i>Lekeitio</i> , 2, 1990)	1189
Agirre Ondarrutarra (<i>Ondarroa</i> , 1989)	607
Aita Kandido Basabe, S. J. euskal-idazlea (1867-1928) (<i>Olerti</i> , 1963)	456
Aita Lino Akesolo, (<i>Karmel</i> , 2, 1989 / <i>Euskerazaintza</i> , VII, 1989)	609
“Aitzol”, olerkari zuzperzalle (<i>Eguna</i> , 95, 1937-IV-22)	943
Akarregi'tar Gurutz (G. B.) (<i>Euzkadi</i> , 1936-VIII-26)	936
Alkarrizketa kaixkarra (<i>Argitaratubakoa</i>)	380
Alperrontzi (<i>Argitaratubakoa</i> , 1959)	178
Amandarrikuak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1962)	275
Ames-Larreko maitagarria (<i>Egan</i> , 5-6, 1956)	1081
Amoroto-Urregarai (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-21)	861
Anaforikoak aldez edo moldez (<i>Lekuona'tar Manuel Jaunaren</i> <i>omenezko idazki-bilduma</i> , III, 1977)	659
Antzerki yayan izan naiz... (<i>Antzerti: euskel-antzertiaren illero-</i> <i>koa</i> , 49, 1936)	90
¡Aratuzte, Iñauteri! (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-10)	849
Ardaoa ixilpera (<i>Bilbao</i> , 8, 1988)	1032
Aritzemendi, baserriar unibertsala (<i>T.U. Lankide</i> , 1976)	1017
Arpeko Mari (<i>IKA argitaldaria</i> , 1984)	1110
“Arrugain”ek bere, agur egin deusku (<i>Zeruko Argia</i> , 169, 1966)	497
Arrutza ta Egia'tar Mikel (Arrugain)1890-1966 (<i>Olerti</i> , 1967)	499
Asarre barik (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-15)	912
Ate-osteko irudiak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1959)	184
Augustin Zubikarai Bedialauneta'ri omenaldia (<i>Karmel</i> , 2, 1986)	583
“Azalpenak” Lauaxeta (<i>Idatz & Mintz</i> , 7, 1984)	1047
Azkatasun bidian (<i>Euzkadi</i> , 1933-X-25)	85
Azkueren zentsurape 1918gn. (<i>Idatz & Mintz</i> , 9, 1985)	1052
Azkue-Sariak eta Guipuzkoako ta Arabako Diputazioen jokabi- dea (<i>Zeruko Argia</i> , 134, 1965)	490
Baru-aldiak (<i>Egan</i> , 1, 1960)	1088
Baserriera abertzaletasunaren ixenian(?) erdereza zabalduten (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-28)	904
Basotx (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	1128
“Belu-Mendu” zintzoari, agur (<i>Zeruko Argia</i> , 66, 1964)	471

Biar-biarrekua Abertzaletasunaren zabalgundia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-4)...	867
Bilbao'tik (<i>Zeruko Argia</i> , 1, 1963)	953
Bilbo polita eta garbia (<i>Bilbao</i> , 15, 1989)	1037
Bilbo, barriro Europari adi (<i>Bilbao</i> , 5, 1988)	1026
Bizente Amezaga Aresti (<i>Euskera</i> , XIII, 1968)	506
Bizkaiko bertsolariak, nor goragoka (<i>Karmel</i> , azilla-lotazilla, 1961)	951
Boltxebikiak, Eguzkitza ta honen saio «gizarte auzia» barriro (<i>Karmel</i> , 2, 1991)	621
Dei egitekoak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1990)	1208
Domingo Agirre Euskeltzalia (<i>Ekin</i> , 124, 1934)	896
Dos centenarios lequeitianos: El del músico Zapirain y del poeta E. Azkue (<i>El Correo Español-El pueblo vasco</i> , 1973-8-1)	1011
Ea'n Igandian (<i>Euzkadi</i> , 1931-X-15)	796
Eguzkitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939) bere bizitza eta lanak (<i>Euskera</i> , XXI, 1976)	552
Eleder-Sailla (<i>BIBI</i> , 23, 1968)	415
Ene bijozkadak (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-14)	894
Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal (<i>Gernika</i> , 22, 1953)	635
Eraketa bileraren batzar-agiria -1979- (<i>Actas de las Juntas Generales de Vizcaya-Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-agi-riak: 1979-1983. Diputación Foral de Vizcaya / Bizkaiko Foru Aldundia</i> , 1984)	771
Erri-itzak: "Bizkaitarra" (<i>Ekin</i> , 128, 1934)	901
Erremu-eguna (<i>Euzkadi</i> , 1935-IV-14)	918
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1932-VII-4)	814
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1932-XII-17)	823
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1932-XII-31)	825
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-I-5)	826
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-II-25)	827
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-III-16)	828
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-V-12)	829
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-V-28)	830
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-31)	848
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-14)	858
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-27)	865
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-5)	868
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-24)	869
Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-31)	878

Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934–VI–6)	888
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934–VI–10)	893
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934–VI–29)	897
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935–V–11)	921
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935–VI–15)	923
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935–X–24)	928
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936–II–14)	930
Errijetatik–Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936–V–28)	931
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–V–24)	787
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–VI–26)	788
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–VII–4)	789
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–VII–10)	791
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–VIII–2)	793
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–VIII–20)	794
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–XI–1)	798
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931–XII–31)	801
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932–III–10)	805
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932–IV–3)	806
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932–XI–18)	822
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933–VI–7)	832
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933–VI–30)	833
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–II–15)	851
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–II–25)	852
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–III–2)	853
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–III–8)	854
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–III–15)	856
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–VII–13)	899
Errijetatik–Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934–VIII–9)	903
Erriko Izarra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1966)	302
Esnedunak (neguko goiz batez) (<i>Argia egutegia</i> , 1936)	1079
Eusebio Erkiaga–ren Emoketa, Euskatzaindiari, (Euzkaltzaindiaren Azkue Biblioteka, <i>Argitaratubakoa</i> , 1988)	417
Eusebio Maria D. Azkue gizon eta idazle (<i>Euskera</i> , XIX, 1974)	529
Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (<i>Olerti</i> , 1961)	429
Euskal-Antropologiazko II gn. astea (<i>La Gran Enciclopedia Vasca</i> , 1973)	650
Euskal-Dantza Barriak (<i>BIBV</i> , 17, 1967)	411
Euskalduna, ontziak nun dituzu (<i>Bilbao</i> , 12, 1988)	1035

Euskaltzaindiaren deia (<i>Anaitasuna</i> , 30, 1967)	641
Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zanaren mendeurena: Migel Arruza Egia (1890-1966) (<i>Eusker</i> a, 2, 1990)	615
Euskaltzaindiaren urre-eztaiak, Erkiaga Jaunaren hitzaldia (<i>Eusker</i> a, XVI, 1971)	643
“Euskarazko bertsoak”-Eusebio Maria D. Azkue Barrundi (1911-1973) (<i>Argitaratubakoa</i>)	1071
Euskeraren hel-oihua (<i>Gernika</i> , 18, 1952)	631
Euzkel-gaiz (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-31)	905
Euzkel-idazliak erdeltzale (?) (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-11)	908
“Euzkerari omena” (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-7)	857
Euzkerea esituta... eta erderea nun-nai (<i>Euzkadi</i> , 1933-XII-30)	843
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-29)	870
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-31)	874
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-1)	880
Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-2)	885
Euzko-erri jakintza (<i>Euzkadi</i> , 1932-VII-2)	813
¡Ez asarrerik, anayak! (<i>Euzkadi</i> , 1931-XI-26)	800
Eztalakuan-baidalakuan (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-8)	889
Gamistoa, Euskal-edaspena (<i>Lekeitio</i> , 2, 1990)	1182
Gau batean (<i>Argitaratubakoa</i> , 1970)	312
Gauza harrigarriak hemen? (<i>Bilbao</i> , 20, 1989)	1042
“Gazigozoak” – Agirre, T. (<i>Idatz & Mintz</i> , 9, 1985)	1049
“Gernikako Arbola” ta Lekeitio (<i>Egan</i> , XXVI, 1967)	964
Gero... gerokuak (<i>Euzkadi</i> , 1933-XII-6)	842
Giltz egokia (<i>Hegatsez</i> , 1971)	1103
Gizon totoloa (<i>IKA argitaldaria</i> , 1984)	1106
Gomuta samurrak / “Aitzol” biotz-begietan dodala (<i>Euzkadi</i> , 1936-XI-6)	937
Gomutak iluntzen diranean (“ <i>Eguna</i> ” <i>Egunkariaren birrargital- pena</i> , 1990)	686
Gonaluzeren tarota (<i>Argitaratubakoa</i> , 1987)	363
“Gora Arratia” (<i>Egan</i> , 1-6, 1974)	338
Igaziriko igandez (<i>Euzkadi</i> , 1932-X-20)	820
Ikusi bakarrik (<i>Karmel</i> , 1, 1970)	1100
Iparragirre'rekin solasian (<i>Gernika</i> , 24, 1953)	421
Irakurleak bai, idazlerik ez (<i>Bilbao</i> , 25, 1990)	670
“Iribarrea galtzen danean” (<i>Idatz & Mintz</i> , 15, 1987)	1062


Irugarren gaua (<i>Egan</i> , 1-6, 1966)	1097
Iski-Miski, Andolin Deun Jayak-eta (<i>Euzkadi</i> , 1932-IX-16) .	818
Itunben Ekonomikoaren Legea (<i>Diputación Foral del Señorío de Vizcaya / Bizkaiko Jaurerriaren Foru Ahaldundia</i> , 1981)	767
Itxasalde paregabea (<i>Anaitasuna</i> , 169, 1968)	1007
“Itxastarrak” (<i>Ondarroa</i> , 1985)	1057
Ixilaren ederra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	1135
Izki-Mizki (<i>Euzkadi</i> , 1932-II-6)	803
Izki-Mizki (<i>Euzkadi</i> , 1933-X-13)	840
Izki-Mizki (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-10)	855
Izki-Mizki, entzun baña aztu (<i>Euzkadi</i> , 1932-VII-10)	816
Izki-Mizki, udako gatxak (<i>Euzkadi</i> , 1932-VI-25)	807
Izki-Mizki, udako gatxak (<i>Euzkadi</i> , 1932-VI-29)	810
Izkuntzaren nekazalea (“ <i>Orive</i> ” omenaldi liburua, 1965)	492
Jayak-jai (<i>Euzkadi</i> , 1933-IX-22)	838
Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga (<i>Olerti</i> , 1962)	444
Kaia ta Estalpea (<i>Argitaratubakoa</i> , 1954)	115
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 156, 1968)	972
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 157, 1968)	975
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 158, 1968)	977
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 159, 1968)	979
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 160, 1968)	982
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 161, 1968)	984
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 162, 1968)	987
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 163, 1968)	989
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 165, 1968)	994
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 166, 1968)	997
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 167, 1968)	1000
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 168, 1968)	1004
Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 170, 1968)	1009
Kanpaien atsekabez (<i>Euskera</i> , V, 1960)	200
Karraxika, ota-lore (<i>Eguna</i> , 63, 1937-III-14)	941
Kezkak eta koxkak (<i>Egan</i> , XI, 1958)	637
“Kresala” ta “Caroa” (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-29)	902
Kiri-sorpeneko biri-antura (<i>GMB</i> 75, 1978, 10)	765
Lan honen agerpena (“ <i>Diez lustros en la villa de Lequeitio, 1925-1974</i> ” liburua <i>hitzaurrea</i> , 1975)	683
«Larreko» gizon. Pablo Fermin Irigaray Goizueta (<i>Euskera</i> , XVIII, 1973)	523

Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-13)	847
Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-19)	859
Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-I-17)	929
Lekeitio hitzaren jatorriaz (<i>Lekeitio</i> , 1, 1988)	1028
Lekeitio uri begikoan egindako bakaldun-egonaldian aipamen zeatza (<i>GMB</i> 76, 1979 5-6)	766
Lekeitio'ko Olerti-Eguna / Gomuta samurrak (<i>Euzkadi</i> , 1936-VII-5)	933
Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-6)	845
Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-4)	898
Lekeitio-ko Azkue-tarrak (<i>Zeruko Argia</i> , 76, 1964)	957
Len, zer? Gaur, ba-dakusgu.— Gero Geuk nai doguna (<i>Eguna</i> , 1, 1937)	939
Liburuak / Igone Etxebarriaren eskutik Bilbon «Ixtorio-Mixterio» (Jean Barbier, B. M. Garro) (<i>Bilbao</i> , 28, 1990)	1069
Lukasen erakutsi ona (<i>Zer</i> , 107, 1987)	1178
Martin Antonen Potina (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	1142
Medikuen agerkaria Bilbon (<i>Bilbao</i> , 17, 1989)	1040
Mendexa'ko jayak (<i>Euzkadi</i> , 1935-VIII-4)	924
Migel Arrutza Egia (<i>Euskera</i> , XIII, 1968)	507
Mixiolari euzkeldunak (<i>Ekin</i> , 141, 1934)	914
Munduko bearrizanak (<i>Anaitasuna</i> , 167)	1002
“Mutiko baserritar baten oroitzapenak” (<i>Idatz & Mintz</i> , 18-19, 1989)	1067
Nik neronek ez (<i>Argitaratubakoa</i> , 1986)	1148
Nire senargeia (<i>Argitaratubakoa</i> , 1957)	158
Nori, zeri, zeineri? (<i>Argitaratubakoa</i>)	388
Oiñazez (<i>Argitaratubakoa</i> , 1960)	220
Omenaldiko azken egunean (<i>Argitaratubakoa</i> 1988)	599
Ordu onean, Augustin (<i>Augustin Zubikarai omenaldia</i> , Ondarroa 1992 / <i>Zer</i> , 169, 1992)	625
Oroipenez (<i>Bizkaitarra</i> , VIII, azaroa, 1930)	783
Pablo Fermin Irigaray Goizueta “Larreko” (1869-1969) (<i>Egan</i> , XXX, 1970)	508
Pake eguna (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, <i>Argitaratuba-</i> <i>koa</i> , 1956)	134
Panini'k Kristo maitatu zuanekoa (<i>Zeruko Argia</i> , 6, 1963)	763
Parisko Sorbonnekoa (<i>BIBV</i> , 15, 1966)	408

Patxi Antxustegi (G. B.) Olerti lanetan (<i>Karmel</i> , 4, 1987) . . .	593
Perretxikotan (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-2 / <i>Ekin</i> , 135, 1934)	906
Peter Etxeberria Euskalerrian egon da udabarrian (<i>BIBV</i> , 9, 1965)	403
Platon-en Parmenides edo Eideena (<i>Argitaratubakoa</i> , 1952) .	699
R. M. Azkue en la literatura (<i>El Correo Español-El Pueblo Vasco, Suplemento gratuito</i> , 1972-9-10)	517
R. M ^a Azkueren inguruko gorabeheratuak (<i>Sustraia</i> , 49, 1984)	572
R. M. Azkue aundiari omena Bilbao'n (<i>Egan</i> , X, 1957)	423
Ravel, Ziburu-ko seme (<i>Egan</i> , XII, 1959)	947
Requiem Altuberen Arauei (<i>Egan</i> , 1-6, 1975)	654
Resurreccion Maria Azkue-z ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak (<i>Egan</i> , XXIII, 1964)	473
Sanantoliñak (<i>Euzkadi</i> , 1935-VIII-30)	926
Sarrera: berdetik gorrira (<i>Bizkaia-profunda / Bizkaia barru-barrutik</i> , 1990)	776
Sinisogorra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1951)	94
Sinisogorra (<i>Egan</i> , 2, 1952)	111
Sonia liraiña (<i>Egan</i> , 1-6, 1965)	1092
Talo ta arraina (<i>Lore kontu-Kontu lore</i> , Ondarroako Kultur Etxea, 1986)	1157
Tarot argi, Tarot ilun (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	346
Tronpa tartaina (<i>Zer</i> , 78, 1984)	1115
Txakartegi'tar Andolin (G. B.) (<i>Euzkadi</i> , 1933-VII-6)	836
Txakur zaharra eta gaztea (<i>Argitaratubakoa</i>)	1215
Udabarrija, itxaropena (<i>Euzkadi</i> , 1935-III-27)	916
Udaberriaren begira (<i>Zeruko Argia</i> , 6, 1963)	956
Umerik bako atsegiña (<i>Argitaratubakoa</i>)	1211
"Uneka gaba" (<i>Idatz & Mintz</i> , 15, 1987)	1065
"Untzorritxu" (<i>Bilbao hiria ipuinak, 1980-89</i> , Bilboko udala, Kultura eta Turismo saila, 1990)	1193
Urdaileko hodi-ehun ugaltzea (<i>GMB</i> 84, 1987, 3-4)	775
Uskola'tar Errapel (<i>Eguna</i> , 124, 1937-V-27)	945
V'gn. Euzko-Olerti Eguna. Bijar, Zarautz'en (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-9 / <i>Ekin</i> , 123, 1934)	891
Ximin-jendearen biltzarra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1984)	1119
Zaartzaroaren bildur (<i>Anaitasuna</i> , 164, 1968)	992
Zamarripak eu— / au— adiztaiu aldaera ixila, bere azken gramatikan (<i>Iker</i> , 6, 1992)	673

Zein ote zan zera? (<i>Euzko-Gogoa</i> , 1-2, 1959)	1084
Zinea, zeñek galduko du? (<i>Zeruko Argia</i> , 2, 1963)	954
Zirikadak eta erantzumak (<i>Zeruko Argia</i> , 188, 1966)	960
Zizka-mizka atsegiña ("Atalak" liburuaren hitzaurrea, 1967)	681
Zubikarai euskal-idazleari gorazarre (<i>Idatz & Mintz</i> , 13/14, 1987)	590

HIZTEGIA



Abenda: enda
abenderria: nazioa, herria
abetaldu: txeraz hartu
abetalgarria: txeratsua
abotsa: abixoi (*Atherina hepsetus*, *Atherina presbyter*)
adiguratsua: abegitsua
albait: ahalik eta
aldaberatasuna: aldakortasuna
aldako txoria: txori aldakorra, hegalaria
aldamiñoa: aldamiola
aldekoa: - (r)en aldekoa
aldeztu: babestu, defenditu
aldikatu: txandakatu
aldintsuba: balio handikoa
aldizkingija: aldizkaria
aldorrean: erro-erroan
aldra: talde, multzo
alena: alu (gaitzestekoa)
alfabetoaren kirian: alfabetoaren hurrenkeran
alia: alea
alkargarriak: alkartzeko modukoak
alkhi: akort, ados
alobera: alogera
alorta: alorra
alta: hala ere
amareunpekoa: armiarma-sarepekoa
amugina: amu egilea
amurrutsua: amorrutaz betea
anartean: bien bitartean
andarraia: andarraia, pleura
andigoa: 1 asmo zabalekoa
 2 handia, handitasunekoak

ankarkulo: (zerbait) lepoaren gainean eroan
ankerkeria: krudelkeria
anpatu: handitu
antutsa: harroputza
antxeta: itsas txoria (*Larus argentatus*)
antxumatu: antzutu
antzikurra: irudia, sinboloa
apailua: aparailua, arrantzarako tresna
aparau: zerbait lortu
apika: piskana-piskanaka
apo-apoan: estu-estu
apukoa: aitzakia
araindi: beste aldean
aranotsa: oihartzun luzea
arasa-ganean: armario gainean
aratinik: buruz gora
aratu: arakatu
arata: garbia, distiratsua
arautegi-montioa: araudi multzoa
arbaztak: makilak
arbina: artega, bizia
arbindu: artegatu, biztu
ardaila: leloa, erretolika
ardiulea: artilea
arduria yeutsak alemanari, *barrako baizakaitik*: ardura gitxi jako goiko mailakoari, behean dagoanarengatik
arenbaten: berehalakoan
argimintza: filma
ariago: areago
ari-albaiñua: hari mehea
arildu: bilbatu
arina pielak: hildakoen arimak

ariurria: aiurria
arkamelea: ipuina
arki: 1 laster
 2 noski
 3 jarlekua
arlandua: harri landua
arrabita: bibolina
arraildu: arrakalatu, pitzatu
arraiotan!: demoninoak!
arrasketa: astinketa
arrea: 1 ur nahasia
 2 nabarra
arren bai arren: mesedez
arre-txuria: nabar-zuria
arrimena: harritzeko ahalmena
arrobisa: harrobia
artamendatu: gomendatu
arte: lasaitasuna
artezkaria: zuzendaria
artezkuna: zuzentzeko era.
artotza: arto-soloa
asago: urrunago
asaldatu: ikaratu, izutu
asazkaldia: atsedena
asazkatu: lasaitu
aselea: leienda (aspaldiko istorioa)
asele-notiña: leiendako gizabakoa
askorra: hazteko erraza
askundia: hazkundera
aspilezurrekoa: azpil-hezurra, pelbisa
astemea: asto emea
astonabarrena: asto barrukoa
atalkidea: atal berekoa
atarramendua: ganora
ataua: atakatua

atazkuak: nonbaitetik kanpokoak
ateko bandan: kanpoko aldean
atsanditu: arnas estuka ibili
atsekabegarria: atsekabe sortzaila
atsendu: atsedena hartu
atxeterra: medikua
atxitu: harrapatu, hartu
atzendu: atzeratu
atzerea: azkena
aukeramena: aukeratzeko ahalmena
aundilurruna: asmo handinahi-koa
aundizurena: harroputza
aurduban: orduan
aurki: 1 laster
 2 noski
aurreztikabea: aurrekorik bakoa
aurtemein: oraintsu
auterestia: zerbaiterako gogo, xedea
autetsi: aukeratu
autorrentzulea: autortza entzulea
autuka: berbetan
auza: auzoa
auzi-barrutietako: epaitegi, lurralde eskumenekoa
axuta: dema, erronka
ayatutia: eragitea, bultzatzea
ayurrija: aiurria
azaldau: azaldu
azaribuztena: azeri-buztana, azeri-belarra
azarmindu: keixu ibili
azbegia: arpegia
azi-orraziak: gorabeherak, nondik norakoak

azkets-eske: parkamen eske
azketsi: parkatu
azkordiña: ospela
azkorra: ikusi *askorra*
azkua: trebezia
azpertzeka: aspertu barik
azpijorra: azpikeria
azpilla: pitxarra
aztamuka: itsu-itsuka
aztamukatu: itsu-itsuka ibili
aztatu: ikutu
aztorea: txori harrapakaria
(*Accipiter gentilis*)
azturazkoa: ohiturazkoa
azturua: ohitura

B*aga*: bage, barik, gabe
bahea: galbahea, iragazia
baiki: baietz
baitean: baitan
bakaldarra: erregezalea, monarkikoa
bakaulkija: errege-aulkia
baltzua: alkartea
bandoa: udal agindu mota
(ahoz zabaltzekoa)
barakuillua: marraskiloa
baranuan: inguruan
bardingetasuna: bardinbagetasuna
bardinpena: bardintzea
barko: atzo gaueko
barrabana: bihurria, maltzurra
barribera: barrizalea
barriren barri: beste behin be
barritzeta: barriketa
barrunatekoa: barruratzekoa
baskundea: bazkundea, alkartea

bastokakoa: trauskilekoa
batbedera: baktotxa
bazkal-iskidan: bazkari arina
bazkintza-artezkaltza: alkarte-zuzentzailea
bearkuna: betebeharra
beazuna: mingotsa
bedegarra: bereizia
bederik: behintzat
begiratuki: kontu handiz
begitartea: 1 begien keinua
2 harrera, abegi
begitaziñoa: irudipena, asmake-ta
begi-ziskua: begi poltsa
begi-zizta: so egitea, begirada
begizkoa: begiz joa
behin edo behin: noizean behin
belbila: berebila, automobila
belbildu: automobilerian sartu
belgundaria: misiolaria
belguntza: misioa
belumendua: berandützea
beluria: zurbila
benazki: zin-zinez
beratza: indargea
beraukatakua: bere baitakoa
berbalapikoa: herritsua
beredin: asko, franko
berekautakua: bere baitakoa
berekia: berezia
berengiz: berariaz
bereterra: abade laguntzailea
beretzakotu: beretzat hartu
berhain: behintzat, gutxienez
bero galda: bero-beroan
berokoia: berotzeko joeraduna
berredegiakundia: berridegiera

berregia: hornidua
bertzegipena: bestelakotzea
besada: besoarteko zama (neurria)
betbetan: bat-batean
bete-alean: bete ahalean
betondoa: begiaren gaineko ulea
bezatu: zentzatu
bezuza: oparia, esku-erakutsia
bidadzia: bidaidea
bidekatu: bidetik atera
bihorrera: bihurrera
bihotzila: bihotz bakoa
bihurbidea: itzulerako bidea
bilbea: egitekoa, funtsa
biorkadea: jauzi bihurria
bipila: ausarta, gogotsua
biraldia: zirkulua, oboa
birgizendu: loditu
birigarroa: txori mota (*Turdus philomelos*)
birizorroa: bronkia
bizikaturea: bizimodua
bizkoilara: urdaileko ahoa
blai: busti-bustia
bolbola: borborra
bordaria: baserritarra
bornuan: inguruan
botalan: bota ahalean
brinbela: sarrera
buia: itsas baliza
bulka: eragina
bulko: ideia, asmoa
bultzagiña: bultz-egilea
buperea: milika, milinga
burlezarra: txantxa, burla
buru-asa: buru estali bagea
buruazkoa: bere baitakoa

buruenekoa: goi-goikoena
buruenik: ziurrenik
buru-eretzia: norberekoa, harroputza
burugiña: bizizalea
burukuntza: ardurua
buruleria: zentzubakokeria
burulkeria: ikusi *buruleria*
buru-mendua: buru joera
burutan: aintzat hartu
burutzuta: harroa

Dabordutik: dagoaneko
dardaganean: dardaraka
dartadaz: zartadaz
dendua: oreka
dendu-eza: orekarik eza
denporalia: ekaitza
dependido: juxtu-juxtu
deplauki: oso-osorik
didarra: deiararra
dindila: eskegikoa
dirdaia: distira
dirumentsa: diru eza
doatu: dohainez bete
doe-herria: uria
doillorra: zitala
domu: kapitala (dirua)
donespena: bedeinkapena
dongakerija: gaiztakeria
dongea: gaizkilea
donokija: zerua
drungadea: zurrutada
duban: dohain
dzauan dzauan: geldi-geldi

Ebazkizuna: ebazteko gunea
ebaztegia: epaitegia

edaslea: barritsuak, barriketaria
edatsi: berba egin
edatsua: barritsuak
edeak: uhalak, narruzkoak
ederraztatu: aintzat hartu
edestaria: historialaria
edestia: historia
edonungia: edonongoa, edozer-
tarakoa
edoski: xurgatu
edua: egoera
egiantza: egi-itxurakotasuna
egimen eraikuntzakoak: eraiki-
tzeko ekintzak
egimena: ekintza
egin-egiñean be: hain zuzen be
egingoa: egitekoa, eginkizuna
egipidia: betebeharra
egitada: ekintza
egitamua: moldea
egitia: egiazkoa
egiunea: kontratua
egonaria: eroapena
egon-tvakia: egongela
egoturia: egoterria, egoitza uria
egurastelekua: atsedentekua
ehundazak: ehundaka
eiki: beharbada, seguru asko
eioezina: eho ezina
ekandutu: ohituratu
ekaztu: inprimatu
ekhurgaitza: ezinegona, urduria
ekuru: geldī
elaztua: eraztuna
elaztuntxuba: eraztuntxoak
elebitza: elebitasuna
elederreko: berba egite dotorekoa
elegabia: hizkuntza bakoa

eleizatea: elizaldea, elizatea
(herria)
elekundea: hizkuntza
elemania: aniztasuna
elemenia: aniztasuna
elertia: literatura
eletaria: esataria
elia: elea, mintzoa
elizkaria: hileta
elkarkaria: elkar-egilea
elkhardura: lotura
elorríoak!: demoninoak!
emagina: sortzaina
emea: emakumea
emoiak: emoitzak
enaia: nekatua
endekatua: lizundua (fig.)
engoitik: hemendik aurrera
eniagaitik: niregaitik
enkaillatu: hondoa jo
entzuleria: entzule multzoa
entzuterrean: entzuteko ingural-
dean
enuxu banuzu: ezbaian egon
eragon: ekin
eragonketa: ekina
erail: hil
eralgipena: gastua
eralguntzea: antolakuntza
erasan: iragarri
eraspen: lerrakera
eratau: erotu
eratsiberria: 1 desegin berria
(eraikina)
2 behiaren errape-
tik jetzi barria
(esnea)
eratsi: lerratu

erbaila: makala
erbaizerua: arrain eroalea
erdal-elderia: erdal-adurerria
erdalitzak: erdarazko berbak
erdeina: mesprezua, destaina, erdeinua
erdeiñua: mesprezua, destaina
erdietsi: eskuratu
erdimerdi: erdizka
erdu: oratu
ereinoa: ereinotza
eresaldu: abestu
ereskina: musika tresna
erespatza: abestia
eretia: abagunea, aukera
eretza: era, modua, tankera
eretzean: (-ri) buruz
eriantia: atzamar handia
erkala: errepublika
erkia: eskualdea
erkina: makala
erlaiza: amildegiaren bazterra
erloa: zatia
ermaiñua: akats fisikoa
ernamina: kimua
eroapena: egoarria
erostaka: errietan
erpebizarra: atzamar bizarrak
erpea: atzamar zorrotza
erraldatu: eraldatu
erranera: esanera
erredixa: altzaria
errekaratu: errekarera eroan
erezela: kortina
errezpea: agirakara
errezto: erraz
errinea: trebea, iaioa, sendoa
erri-txiñela: aguzila

errola: zeregina
ertxadona: eliza
ertzedegia: erdi idegia
esanerazo: esan eragin
esangina: barritsua
esbarrua: esparrua
esipean: itxipean
eskeiniza: eskaintza berba
eskierki: eskuarki, oro har
eskuar: eskuera
eskuduna: eskuan daukana, dagokiona
esku-erakutsia: oparia
eskukotasunak: eskumenekoak, eskuduntzak
eskukunea: norbait ordezkatzeko ahalmena
eslaikorra: lapranekoa, zeharkakoa
espaka: intzirika, inkesaka
espantua: zarata, itxurakeria
espena: epaia, eritxia
espengilea: epai, eritxi emoilea
etorkuna: etorkina
etorliarra: etorkina
etxamon: kasurik ez
etxaramon: jaramonik ez
eundua: ehotua
eunurteburua: ehunurtegarrena
eupadea: eupada
euri saramia: euri arina, fina
urrez: asko, franko
urrezean: askotan
euslea: euskarria, eustekoa
ezagukuntzea: ezagupidea
ezaungiak: ezagunak
ezikorik (bage): bat be baztertu barik

ezikuntza: hezkuntza
ezilbehartasuna: hil ezintasuna
eznaia: ezgogoa
ezotu: busti
ezpalekoa: errokoa
ezpesten: ez besterena
eztandazi: eztanda arazi
ezunea: urritasun garaia

Fiura: planta, figura

Gaitzitu: haserretu
gaizkatu: salbatu
gaizkatzalia: salbatzailea
galartzu-zintz dantza: zinta
dantza
galbaia: galbahea
galbarria: burusoila
galdura: galbidea
galga: balazta
galgalean: borborrean
galtzaia: galera
gamistoa: deiadar zorrotza
gangorra: buru erpina
garabiak: gruak
garagarrak: astinaldiak
garaikerrian: garaitu nahian
garaizarra: abantaila
garatza: negozioa
garauna: 1 alea
2 buru barrukoa
garautxua: aletxo
garbala: ospe handikoa
garbimina: garbirako gogoa
garbi-miñezkotarra: garbi go-
goetan
gardena: gardena
gardia: eritxia

garerdikoa: adin nagusikoa
garmendua: garrantzia
garoskua: lanbroa (euria)
garramaztu: leundu
garranga: amua
gatibua: giltzapean
gau-gurtzaillea: gau-gurketaria
gaur dan egunean: gaurko egu-
nean
gaztegina: gazte itxurakoa
gebendu: debekatu
gentza: bakea
geraka: ezinegona
gertaliskia: gertaera txikia,
nimiñoa
gert-gert: prest
gila: ontziaren azpiko susterra,
killa
gilborra: sabela
ginbaila: kapela, burukoa
girgilleria: txirtxileria
gizartearra: gizartekoa
gizatagia: giza multzoa
gizelana: luze-zabalekoaren
neurria
gizelikoa: leinu, giza-talde bere-
koa
goaitu: zain egon
gobiozkada: arnasa, taupada
gogaitu-agiñian: gogaitzeko
tenorean
goiskoan: goizekoan
goitarrena: goikoarena
gonburua: neurriaren gainekoa
goraki: gora-gora
goratzapena: goralpena
goritu: berotu

gorpu-lorra: hileta
gorrimiña: gorri-gorria
gorriñaduna: uherduna
gorritzakoa: gorritzat hartua
gorua: beharra (fig.)
gozartu: gozatu
gozartzailea: gozatzaillea
grakadea: krakada, karraskada
«*gramatika nabarra*»: gramatika
maltzurra
grauskadea: zirrara, zauzkada
gredea: klariona
gudaloztekoa: euskal armadaren
gudaria
gudamutila: gudaria
guenekoa: azkeneko
guenetan: azkenetan
guenez: azkenez
guketz: gure aldetik
gunea: unea
gurbila: errobera
gureketz: gure aldetik
gurena: 1. goi mailakoena
2. maiteena
gurenda: garaipena
gurguxa: gurbitza (*Arbutus unedo*)
guria: samurra
gurlotasuna: zalantzagarritasuna, anbiguotasuna
gurmea: lainoa

Handigoia: harroa
harqindikoa: bestaldekoa
harlosa: harlandua
harrikatza: harri ikatza
harrimena: harridurarako ahalmena
hauteslaria: hauteskundekoa

hauziorraziak: gorabeherak, nondik norakoak
hazkortu: hasi, heldu
heiagora: oihua, deiadarra
herri-hoskaria: herriaren gogo esataria
herrua: lokatza, basatza
hitzorkuna: etimologia
hiztokia: berba egiteko lekua
hozkirria: hotza
hunaindikoa: alderdi honetakoa

Iadetsi: lortu, eskuratu
ialki: atera, bota, jaurti
iare: aske
iauzkatu: iraulkatu
ibildeuna: prozesinoa
ibilerea: ibilera
ibilkizuna: ibiltzekoa
idazkortza: idazteko luma
idazpurua: titulua
idaztortza: idazteko luma
idealpetu: idealizatu
idekoa: cite berekoa
idizilla: makiltxoa, zartakoa
idorrunea: lehorreria
iduna: kokotea
igazi: igaro
igidura: mugimendua (fisikoa)
igimena: mugimendurako ahalmena
igimintza: filma
iharra: igarra
iizkoa: mihimenezkoa
ikoa: pikoa
ikurritza: goiburua
ikusterrean: ikusteko moduan
ilentia: su txinparta

illunbezukoa: ilunekoa
imintzioa: keinua
ingi-loretxuba: paperezko lore-
 txoa
ingira: nazka, iguina
ingoskija: inprenta
ingurumarian: inguruabarrean
intziria: inkesa
inularrekoa: ilunabarrekoa
inuska: ikaraturik
iñaka egin: egin ahalean
iñarrosaldia: astinaldia
irabiaketa: iraulketa
irabiatu: irauli
iraditu: arrazoitu
iradua: arin-arina
irakorri: irakurri
irarkaldia: inprentaldia
irarri: inprimitu
irataldia: argitaratze aldia
iratzi: idatzi
irendu: zikiratu
irona: abantailatsua
irozogarría: jasangarría
irrada: abiada
irritsa: grina
iruntza: garoa
iruzaku egin: iruzur, amarru
 egin
istillua: liskarra
itaia: igitaiá
itailla: golde mota
itaunea: goldaketa
itaurrean: gidaritzan (fig.)
itaurreko: gidaritzako (fig.)
iteguna: luze-zabalaren neurria
 (idi-lanaren neurria)
ito-ginean: itotzeko tenorean

ituna: triste, goibela
ilusurea: itxoina
itxeikiyuna: eginkizuna, egite-
 koa
itxulasketa: iraulketa
itxulaspéna: iraulketa
itxulastu: irauli
itzera: eskukoa
itzularia: itzultzailea
itzulingurua: itzultzekoaren
 aurre-atzea
itzuriezina: sahietsezina
itzurrena: joskera
itzurtia: iheskorra
izakaia: esentzia
izenidea: izen berekoa
izetu: piztu
izkelgia: euskalkia
izkia: letra
izkilloia: izkira handia
izkindea: gramatika
izkintokija: barritsuén lekua
izkintzarija: barritsularia
izkiriatzaltea: idazlea
izneurkuntza: olerkigintza
izparringia: egunkaria
izu-laborria: ikara-bildurra

J.l.: jangoikoa lagun
jaikunea: jaia, ospakizuna
jara: jare, asko
jaragiñak: askeginak
jarijona: eriona
jarits: jadetsi, eskuratu
jarki: aukeratu
jasan: pairatu
jasian: jasean
jaunarkundia: jaunartzea

jaupa: meza
jaupa-eresia: meza kantua
jaurbidea: jaurpidea, erregimena
jaurreria: jaunaren herria
jaurgoera: jaurpidea, erregimena
jaurkintza orokorra: gobernu orokorra
jaurpidea: gobernu erregimena
jazarpaena: persekuzioa
jazokuna: jazoera
jendakinki: gizalegez
jeurt-egin: atzera joan
jita: eitea
jopua: esklabua
gorana: gogoa
gorrea: jorra, astintzea
jortzija: ehortzia
jungudea: txingurea, iungudea
jungura: ingudea, txingurea

K*abana*: arrain-kontserba fabrika
kabixoia: arrain mota (*Atherina hepsetus*)
kaltzaduna: prakaduna
kanpo-aihana: kanpoko kimua
kantalbarrena: kaleko behealdea
kaparra: lakasta, laparra
karakatxa: usain txarra
karatxarria: harri karetxa
kardantxiloa: kaiolatxoria (*Carduelis carduelis*)
karela: ontziaren albo
karpina: hiru hortzeko amua
kartagina: karta idazlea
katanarua: zorroa
kayua: itsas txori gaztea (*Larus argentatus*)
kerrua: gorroa

kerua: usain txarra
ketxemarina: itsasontzi txikia, masta bikoia
kilimolo: atzera egin, jazartu zerbait eramateko
kiribila: kizkurra
kirikioa: kirikiñoa
kirmena: leiala, zintzoa
kirrua: kizkurra
kistarra: kristaua
kodaina: sega
kodasta: branka burdina
kolayoa: arrain mota (*Galeus melastomus*)
koltza: ganbara, bazter-gela
kondoa: hondakina
kontugina: kontu-egilea
koraia: koraina, txibi-koraina, potera
koraskerea: itxura, traza, antza
korasta: kodasta
kordea: konortea
koskoila: barrabila
kosterrez: kostatik hur-hurrean
kosterrezian: kosterrezean, kostatik hur-hurrean
kozkona: 1 haria, gaia, autua
2 hazia
kukuzaria: izkutaria
kurrumazua: urruma
kurubioa: kuruminoa
kusan: bilketan ibili
kuturtu: menderatu

L*abakitu*: sailak prestatu lane-rako
laburmina: labur gogoan
labur-zurrean: labur-laburrean

lagungiña: lagunkoia
laguntzarra: aspaldiko laguna
laidoa: iraina
lakarra: gogorra, hotza
lakemena: gozarena
laket egin: atsegin
lakirioa: amarrua, tranpa
landerra: aukera
lanoineko: menpeko (behargina)
lantuilua: intziria
laratza: beheko suaren tresna
lardaskeria: nahaskeria
lardatsa: euritsua
larderiatua: gogorra
larrabea: larreko behia
lasatu: lasaitu
laterriartekoa: nazioartekoa
laterrikoa: naziokoa
laterria: nazioa
laudardoan: ikara bizian
lauskitu: laztandu
lautada: lur zabala, laua
lauziriko-laumarikoa: lau txo-
 txikoa, balio gitxiko moneta
lauzkitu: laztandu, ferekatu
lazeriya: gabezia, urritasuna
lazkeria: zabarkeria
lazkitu: izutu
lazo: lasaia
leberra: trebea
legerría: estatua
legorretan: lehorretan
lehorrekoa: lur gainekoa
leinargikoa: leinukoa, aitoren
 seme-alaba
leitu: izoztu
lekhorean: kanpoan

lentoia: pantxoak lako arrain lu-
 zanga
leñargiak: leinukoak
leozpetu: espetxeratu
lepatxo: sorbalda
lepo betena: sorbalda betena
leratsua: grinatsua
lerdena: liraina
ler-ikara: lehertzeko ikara
lerrenak: ahaleginak
lerrotxa: lerrotxoak
letaña: letania
leu-leua: lau-laua
likitsa: zikina
limuria: labaina, irrista
limurtu: labaindu, irristatu
linburia: lerratua
linburtu: lerrotu
liparra: ueña
listau: prestatu
liztorra: kuruminoa (*Vespula
 vulgaris*)
lizundu: urdindu
loak-argaria: lo eragilea
lobatzakoa: lobatzat harturikoa
logina: lo-egilea
lokatu: trokatu, kolokan jarri
lokunea: lotura
lora-mortxaka: lora-erramua
lorra: nekea
lorrindu: lardaskatu, nahasi
lotzeikiak: lokarriak
lubana: lubakia
lubaria: lubakia
lugin: baserritarra
lupua: luhartzua (*Gryllotalpa
 gryllotalpa*)
lurrasoa: lurraldea (norberarena)

luzakaria: luzcera

luzanga: luzexka

Maingua: herrena

maña: trebezia

maite-urrama: maite-fereka

maiza: maiztua, zaharkitua

maiztu: ahitu, zaharkitu

maketsa: matxetea, kanibeta

makil-erpiña: makil-punta

makuesak: elantxobetarrak

malguki: samurki

malmuzkeria: maltzurkeria

mamurtu: txikitu

manatan: itxuretan

maneatu: prestatu

mantarra: zapia, oihala

manyuya: arrain multzoa

maratila: txaranbelak

maratza: bizkorra

mardul-antxa: mardul-itxura-
koa

mariabera: itsasbelhera

marmo-egiña: mozorro egina

marrasa: oihal urratua

marria: marrea, manta

marroa: amarrua

martzala: leinua

masta: ontziaren belatarako tan-
taia

matarlak: matraila ondoak

matarlonduak: matrailak

matordua: jatordua

matrallaguna: matraila gunea

mauka: aukera, pagotxa

mazala: 1 begikoa

2 lasaia

mazija: karnata, beita

mazkala: ahula

meatza: bakana

meaztu: mehetu

medartu: luzatu, mehetu

meko-meko: ahul-ahul

menak: menpekoak

mendazaiñak: mandazainak

mendela: oihal singlea

mendua: izakera

mengela: ahula, erkina

miats: gitxitan, sarritan ez

miazkatu: milikatu

miesa: oihala

mihaztatu: milikatu

mihesa: miesa, oihala

milinga: bupera

millekotak: melokotoiak

mingulindu: intzirika jardun

min-kunean: inkesaka

min-min: mintsuki

mintza: mutua

mintzula: mutua

mintzurretan: ahotsetan

miñaroa: minaldia

miñeria: mingaisoa

mirikua: medikua

mirotza: arrano gaztea (*Circus*
sp.)

mirua: txori harrapakaria (*Mil-
vus nigrans.*)

mismirua: mizpila

mizpilak: mismirua

mokerkeritsuba: trauskiltua

mokila: mokorra, zokila

mokotza: ogi mota berezia

mondagea: moldabakoa

montioa: multzoa

morapilotu: korapilotu

morokildu: lotu, moropildu
mozala: ahokoa
mozkindu: kendu
mueta: mota
mugadura: muga
muinkide: muin berekoa
mukita: muki zapia
mukurra: erro oinarria
mukurua: gehienekoa
mun-egin: musu emon
murmuxe: marmarrean
murrusa: orroa
must egin: uretan dzangada egin
must(a): uretako dzangada
mutuldu: kendu, zuritu
muxina: keinua

Nabaski: beharbada, ausaz
nahasturia: nahastea
narda: nazka, iguina
nardagarri: nazkagarria, iguin-
garria
narras: arrastaka, ozta-ozta
naspila: nahastea
nonok: baten batek
norki: gizonki
notina: gizabanakoa, laguna,
pertsona
nozoz: noiz edo noiz

Obenduna: akastuna
oboa: zirkulua
odol-usteldura: septizemia, odol-
kutsadura
ogetaz: hogeita eta zenbait
(urteak), hogetazak
oguzi: ahoskatu
oguzkera: ahoskera

oinargoa: oinazpia, oinpea
oinazea: sufrimentua
oindiñokarren: oraindik
oinestua: txinista
oixtion: arestian
okada: gomito-larria
okertzakoa: okerrekotzat hartu
oldarra: aintzat hartzeko, ohar-
garria
oldargia: ausarta
oldea: ausarta
olde-baga: ausardiarik bagekoa
oldia: oldea
oldozmena: gogoetarako ahal-
mena
oldoztu: gogoetan jardun
onbidetsua: bide onekoa
ondamuz: tamalez
onerapenezkoa: lerrakerazkoa
oneregarria: onesteko modukoa
onez onean: pozarren
onibarra: lur ondasuna
ontson: lasaitasuna
ontzigintzaria: ontzigilea
onua: aholkua
onuragina: onuragilea
opaldu: eskaini
opildu: kokildu
oputza: emoitza, ondorioa
oraintsumenguan: oraintsukoan
oratu: heldu
ordaria: ordaina
ordelaria: ordezkoa
orea: multzoa, masa
oroigaillua: oroigarria
orokar-lekukoa: lekuko orokorra
orokarra: orokorra
orpoz-orpo: ezari-ezarian

orrenbaten: hortik, hor nonbait
ortokia: moldea
orubea: lur zatia
osasungea: osasun gabekoa
osatebakilea: zirujaua
osatebakuntza: operazio kirurgi-
 koa
osertza: ostadarra
oskilla: hozkila
ostatu-iskikoa: ostatu-txikikoa
ostendu: izkutatu
ostetasuna: multzotasuna
ota: otea
otalurra: ote-lurra
otamuloa: ote multzoa
otoz oto: bat-batean
otsaldia: doinu aldia
otsazala: fonetismoa
otseina: morroia
otseintza: morrointza
oturuntza: bazkaria
ozkileria: hotzikara
ozkirria: freskoa
ozkirri-beraan: hozgiroan, fres-
 kuran

Pairagarria: jasangarria
palagua: balakua
papaokeria: ganorabakokeria
paristak: pariztak, keinuak
pataria: aberea
patentea: pintura mota, batez be-
 ontzietan
pedarra: pitxarra
peitua: gabezia
pekua: menpekoa
pentzudea: kontu, harreta
perekaldia: laztanaldia

perlarria: perla harria
pertxenta: ederra, galanta
pindarra: txinparta
pisigaitza: fisiopatologia
piskala: fiskala
pita: hari mota (arrantzan batez
 be)
pleita: ontziaren fletea
politzakoa: politzat hartua
polpola: borborra
popakoxua: urduria
poparean: popatik
pornostikua: su emotekoa, me-
 txeroa
potxolomendia: maite-maitea
pozkidaz: pozaren pozez
prenda: hala-holakoa (fig.)
purgaduna: purga hartzailea
putzileria: zirtzileria

Sailean joan: erreskadan joan
salmeratsua: esanguratsua
salokarija: jostuna
salokia: jostuna
samalda: tropela
samurbera: bihozbera
sangrestaua: sakristaua
santu-otsean: santua zalako
 aitamenean
sapailoa: balkoia
saraketa: lurra lanketa
saratsa: sahatza
sardañoa: sardañoa
sarrakioa: triskantza
sasieta: sasilekua
sasipera: sasien azpira
sastakaia: sastagaia, kanibeta
seilua: zigilua

sekularrea: sekularra, apaiz ez dena
seneratu: zentzatu
sermogiña: sermogilea
sinatu: izenpetu
siratsa: atsegina, laketa
sistorra: antzua
soera: begirada
soinburu-besohezurrekoa: eskapulohumerala (gorputz hezurra)
sonatsua: ospetsua
soraiokeria: odolgabekeria, geltodasuna
sorbarritu: jaio barritu
sorkun-lagia: sorrerazko legea
sosiuz: soseguz
sostorra: gogorra, trinkoa
suaga: kanoia
subilla: erroa
sudumitza: sudur-zuloa
supita: esanera
sutzarrea: sualdia, su aroa

T*ai gabe*: gelditu bage
taiua: tajua
takarakoa: takadakoa
talkada: topetada
tangarta: ura ateratzeko ontzia
tantaia: masta
taranta: jarduna, hitz aspertu luzea
tarranta: auto zaratatsua
tartaiña: jauzkorra
tatanekuak: ume txikienak
tati egin: gelditu
tautik: ezer ez
taxuketea: tajukeria
tenkorra: ten egitekoa

terminak: terminoak, hitzak, berbak
terter: narras, doi-doi
tertiyuan: tertzioan
testularia: zirtolaria
tileta: puntua
tindu: tintatu
tinkhor: tinko
tintila: tantaka, apurka-apurka
tiraina: erresaka, eragina
tiramena: eskatzeko eskubidea
tirriñotsa: tirrinotsa
toilana: astinaldia
tokorra: enbor zatia
tolezik: tolesik
tordantxa: txirritxorroa (*Charadrius sp.*)
toton egin: ahuldu, etsitu
totonera: etsipena
trabesea: zeharrekoa
traganarrua: ur jausia
trailan: sokan ekarri
trankarta: iruzurra
traskila: trauskila
traskotsa: traskoen zarata
tremesa: ogi mota berezia
treotzarea: arrantzarako otzara
triku-harria: dolmena
trintze egin: ebagi
troka: amildegia
troxa: haur-oihala
ttattarra: gorbata
tuntuva: buia txikia
turdidu: harritu, txunditu
turkia: urkia (*Betula celtiberica*)
turrit-egin: ez sinistearena egin
tutarrez: oso-osorik
tutulutu: tontotu

txadea: txaidea, ibilbidea
txadonea: eliza
txaidea: kalea, ibilbidea
txakada: une laburra
txakia: gela
txalinea: lazodun gorbata
txalma: zigorra
txalo-otsez: txaloka
txanbeliña: polita, ederra
txanbiurra: soka bilurria
txangotiarra: bidaiaria
txankamea: anka-mehea
txanpela: aparailuaren soka
txantelea: agiria
txantoa: lur kuadroa
txantxadura: legamia
txaparra: txikerra
txaranela: txaranbela, maratila
txarrantzea: txarrantxa, karda
txarretsigarria: txartzat hartze-
koa
txarritan: piper egin, eskolara
joan ez
txartesa: brusa
txaunburua: parrokoa
txauneskiño-armonijoa: elizatxo-
-armonioa
txeigoratu: goratu, jaso
txeigua: balkoia, pendizea
txera: harrera, abegia
txerpolaria: titiritero itxurakoa
txerrena: deabrua
txertua: txertoa
txibia: txokoa (*Sepia officinalis*)
txibitea: makila luzea
tximinoiak: txipiroiak (*Loligo*
vulgaris)
txingarra: su txinparta

txiogetea: txingeta, horman lo-
tzeko oboa
txirikila: ume jokoa
txirikorda: korapiloa
txirlarria: txirla harria, perla
txiritolea: errobera
txitean pitean: sarri-sarri
txola: kopa
txolartea: hitzordua
txolindu: alai jarri
txolingarria: pozgarria
txolkatxoa: kopautxoa
txongila: ur ontzia
txonitza: sermoia
txoriandia: diru moneta (hamar
zentimokoa)
txostena: azalpen idatzia
txotxatu: umetu, lelotu
txotxintasuna: txepeltasuna
txumila: akitua

Ubel-antxa: ubel itxura
uberan: urbeheran
uberka: uharka
udalgina: udatiarra
udamiñian-udagoyenian: uda-
udazkenean
ugela: igela
ugiña: uhin, olatua
ugutzau: bateatu, bataiatu
ugutzaukera: bateatukera, ba-
taiatzea
uhalak: uhelak
ukamenekoa: euki-ahalmenekoa
ukhika: ikutuka
umant: heroia
unada: umea
unaindi: alderdi honetan

unaria: esentzia
unatu: nekatu
untan: honetan
untzegaria: zekalea
untzorria: huntz-ostoa
urdindu: lorrindu
urraburua: arrain mota (*Sparus aurata*)
urreka: urre kolorekoa
urrian: hurrean
urriketa: murrizketa
"urrun-agerra": telebista
urrunikuskiña: telebista
urritidazkia: telegrama
urtzinge: jaungoikorik bakoa
usia: gunea, alderdia
uso-mirotzak: uso-miruak
ustaria: teoria
uxela: ureztatu
uzia: helburua, gogo
uzilu: zatitu
uzkurdura: adoregabezia, ikara
uzkurtza: erlijioa

Xakia: xakea
xaloa: laua, tolesik bakoa
xalotasuna: lautasuna
ximena: garbia
xinta: argi
xirrinta: polea txikia
xir-xir: txir-txir (euripean)
xixpor xixpor: zispuru-zispuruka
xizkina: zelula
xurgatu: milikatu
xurikatu: zuritu

Yangua: jangua, jantokia
yaundu: jaun egin

yualea: joalea

Zadorra: isilpekoa
zaharpildua: zahartu
zailutasuna: gaiztasuna
zakarra: narratsa, trauskila
zakatza: arrainaren brankia
zakatzerria: arrain-herria (fig.)
zal: ekite
zalabardua: arrantzarako tresna
zanaldia: burutazioa, egokiera
zantarra: gaiztoa
zantiratu: okertu
zapaztoa: trauskila, oiesa
zapran: zorionean, zorte handiaz
zarbo: muxoia (*Diplodus vulgaris*)
zarpila: zarpaila, baldrasa
zarrada: zarpila, baldresa
zarran: narras
zarrontzalea: tradizionalista
zauzkadea: zztada
zauzkeragilea: zztada egiten duena
zazkela: iguingarria, nazkagarria
zazkel-antza: ugtin antza, nazka itxura
zazkeleria: iguinkeria
zeeko: eskuko (neurria)
zeiherra: kontrakoa
zeindu: zaindu
zelo-esanak: jelos-esanak
zemat: zenbat
zerbela: epela
zergabagetasuna: zergapekorik bagetasuna
zeroia: balcaren kumea
zerraldoa: gorpua

<i>zeya</i> : merkatua	<i>zirkiña</i> : mugimendua
<i>ziboa</i> : zinburua	<i>zirrilea</i> : zirri egilea
<i>zietz</i> : zehatz	<i>zirimarratu</i> : zirriboratu
<i>zigor-jaurriko</i> : zigor-erregimene- koa	<i>zirrina</i> : torretxoria (<i>Apus sp.</i>)
<i>zigor-zemaiak</i> : zigor mehatxuak	<i>zirtolaria</i> : erantzule trebea
<i>zijoa</i> : zioa, arrazoia	<i>zirtzilla</i> : hezea, euritsua (haizea)
<i>ziki egin</i> : akuilatu	<i>zirulika</i> : bueltaka
<i>zil-aginpidea</i> : zentralismoa	<i>zizaillua</i> : jarlekua
<i>zilla</i> : zuloa	<i>zizkua</i> : gunea
<i>zil-zillean</i> : zulo-zuloan	<i>ziztagarria</i> : zizta egilea
<i>zima</i> : txima	<i>ziztaketan</i> : ziztadan
<i>zimardika</i> : nahaspilaka	<i>zolia</i> : erne, bizkorra
<i>zimela</i> : ahitua, iharra	<i>zolitu</i> : ernetu, bizkortu
<i>zimera</i> : eskuko otzara	<i>zorangea</i> : zoraska
<i>zimikoa</i> : keinua	<i>zorarazlea</i> : zoratzekoa
<i>zindoa</i> : osasuntsua, gaitzik bakoa	<i>zorko</i> : zorpean
<i>zingoa</i> : zin egitekoa	<i>zunua</i> : zukua
<i>zinkhuria</i> : inkesa	<i>zuntzuna</i> : ergela
<i>zinkurina</i> : inkesa, kexua	<i>zurda</i> : soka
<i>zintz</i> : sudurrak garbitzeko hotsa	<i>zureria</i> : zurezkoa
<i>zintz-egin</i> : sudurrak garbitu	<i>zurikatu</i> : zuritu
<i>ziñaldaria</i> : lekukoa	<i>zuripengarria</i> : zuritzekoa
<i>ziñoa</i> : fedea	<i>zurtzatu</i> : harritu
<i>ziñopea</i> : martiria	<i>zuta-zearrak</i> : goitik behera eta alde batetik besterako zutabeak
<i>ziplaka</i> : irainka, laidoka	<i>zutia</i> : zutunik dagoana
<i>zirimola</i> : zurrunbiloa	<i>zuzen-jagoleak</i> : zuzendari-ikus- katzaileak
<i>zirina</i> : urduria, arina	<i>zuzitu</i> : hornidu
<i>zirkillua</i> : zurkulua	<i>zuzpertz</i> : berpiztu
<i>zirkin egin</i> : mugitu	

AURKIBIDEA

I. TOMOA

<i>Atarikoa, Karmelo Etxenagusia</i>	21
<i>Eusebio Erkiaga, Berbalauaren kulunkan, Andres Urrutia</i> . . .	23
1. Bizitza-zertzeladak	23
2. Liburu honen edukia: hautaketa baten zergatiak	28
3. ERKIAGAREN langintza arloz arlo:	31
3.1. Antzerkia	32
3.2. Boletín Informativo del Banco de Vizcaya (BIBV)	34
3.3. Euskal literatura	35
3.4. Euskararen inguruan	36
3.5. Hitzaurreak	37
3.6. Itzulpenak	38
3.7. Kazetaritza	38
3.8. Liburuen kronikak	40
3.9. Narrazioak	41
4. ERKIAGAREN pentsamoldea: ezaugarri nagusiak	41
4.1. Abertzaletasuna gidari	41
4.2. Euskaltzale nabarmena	42
4.3. Estetikaren bila	48
4.4. Euskara, noranahikoa	51
4.5. Lekeitio eta Bilbo, ERKIAGAREN bitasuna	52
4.6. ERKIAGA, katolikotasunaren bidetik	56
5. ERKIAGA, euskaltzain osoa	58
6. Gure argitalpena	67
7. Eskerrak emotea	69
<i>Eusebio Erkiagari buruzko bibliografia</i>	71
<i>Opera omnia, Eusebio Erkiaga</i>	77

ANTZERKIA

1933. Azkatasun bidian (<i>Euzkadi</i> , 1933-X-25)	85
1936. Antzerki yayan izan naiz... (<i>Antzerki: euskel-antzerkiaren illerokoa</i> , 49, 1936)	90
1951. Sinisgogorra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1951)	94
1952. Sinisgogorra (<i>Egan</i> , 2, 1952)	111
1954. Kaia ta Estalpea (<i>Argitaratubakoa</i> , 1954)	115
1956. Pake eguna (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, <i>Argitaratubakoa</i> , 1956)	134
1957. Nire Senargeia (<i>Argitaratubakoa</i> , 1957)	158
1959. Alperrontzi (<i>Argitaratubakoa</i> , 1959)	178
1959. Ate-osteko irudiak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1959)	184
1959. Kanpaien atsekabez (<i>Euskera</i> , V, 1960)	200
1960. Oñazez (<i>Argitaratubakoa</i> , 1960)	220
1962. Amandarrikuak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1962)	275
1966. Erriko Izarra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1966)	302
1970. Gau batean (<i>Argitaratubakoa</i> , 1970)	312
1974. "Gora Arratia" (<i>Egan</i> , 1-6, 1974)	338
1985. Tarot argi, Tarot ilun (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	346
1987. Gonaluzeren tarota (<i>Argitaratubakoa</i> , 1987)	363
¿?. Alkarrizketa kaixkarra (<i>Argitaratubakoa</i>)	380
¿?. Nori, zeri, zeineri? (<i>Argitaratubakoa</i>)	388

BOLETÍN INFORMATIVO DE LA REVISTA FINANCIERA DEL BANCO DE VIZCAYA (BIBV)

1965. Peter Etxeberria Euskalerrian egon da udabarrian (<i>BIBV</i> , 9, 1965)	403
1966. Parisko Sorbonnekoa (<i>BIBV</i> , 15, 1966)	408
1967. Euskal-Dantza Barriak (<i>BIBV</i> , 17, 1967)	411
1968. Eleder-Sailla (<i>BIBV</i> , 23, 1968)	415
1988. Eusebio Erkiaga-ren emoketa Euskaltzaindiari (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, <i>Argitaratubakoa</i> , 1988)	417

EUSKAL LITERATURA

1953. Iparragirre'rekin solasian (<i>Gernika</i> , 24, 1953)	421
1957. R. M. Azkue aundiari omena Bilbao'n (<i>Egan</i> , X, 1957) . . .	423
1961. Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (<i>Olerti</i> , 1961) . . .	429
1962. Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga (<i>Olerti</i> , 1962)	444

1963. Aita Kandido Basabe, S. J. euskal-idazlea (1867-1928) (<i>Olerti</i> , 1963)	456
1964. "Belu - Mendu" zintzoari, agur (<i>Zeruko Argia</i> , 66, 1964) .	471
1964. Resurreccion Maria Azkue-z ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak (<i>Egan</i> , XXIII, 1964)	473
1965. Azkue-Sariak eta Guipuzkoako ta Arabako Diputazioen jo- kabidea (<i>Zeruko Argia</i> , 134, 1965)	490
1965. Izkuntzaren nekazalea (" <i>Orive</i> " omenaldi liburua, 1965) .	492
1966. "Arrugain" ek bere, agur egin deusku (<i>Zeruko Argia</i> , 169, 1966)	497
1967. Arrutza ta Egia'tar Mikel (Arrugain) 1890-1966 (<i>Olerti</i> , 1967)	499
1968. Bizente Amezaga Aresti (<i>Euskera</i> , XIII, 1968)	506
1968. Migel Arrutza Egia (<i>Euskera</i> , XIII, 1968)	507
1970. Pablo Fermin Irigaray Goizueta "Larreko" (1869-1969) (<i>Egan</i> , XXX, 1970)	508
1972. R. M. Azkue en la literatura (<i>El Correo Español-El Pueblo</i> <i>Vasco, Suplemento gratuito</i> , 1972-9-10)	517
1973. «Larreko» gizon. Pablo Fermin Irigaray Goizueta (<i>Euskera</i> , XVIII, 1973)	523
1974. Eusebio Maria D. Azkue gizon eta idazle (<i>Euskera</i> , XIX, 1974)	529
1976. Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939) bere bizitza eta lanak (<i>Euskera</i> , XXI, 1976)	552
1984. R. M ^a Azkueren inguruko gorabeheratuak (<i>Sustraiá</i> , 49, 1984)	572
1986. Augustin Zubikarai Bedialauneta'ri omenaldia (<i>Karmel</i> , 2, 1986)	583
1987. Zubikarai euskal-idazleari gorazarre (<i>Idatz & Mintz</i> , 13/14, 1987)	590
1987. Patxi Antxustegi (G. B.) Olerti lanetan (<i>Karmel</i> , 4, 1987) .	593
1988. Omenaldiko azken egunean (<i>Argitaratubakoa</i> , 1988)	599
1989. Agirre Ondarrutarra (<i>Ondarroa</i> , 1989)	607
1989. Aita Lino Akesolo (<i>Karmel</i> , 2, 1989 / <i>Euskerazaintza</i> , VII, 1989)	609
1990. Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zanaren mendeu- rrena: Migel Arrutza Egia (1890-1966) (<i>Euskera</i> , 2, 1990)	615
1991. Boltxebikiak, Eguskitza ta honen saio «gizarte auzia» barri- ro (<i>Karmel</i> , 2, 1991)	621

1992. Ordu onean, Augustin (<i>Augustin Zubikarai omenaldia, Ondarroa, 1992 / Zer</i> , 169, 1992)	625
---	-----

EUSKARAREN INGURUAN

1952. Euskeraren hel-oihua (<i>Gernika</i> , 18, 1952)	631
1953. Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal (<i>Gernika</i> , 22, 1953)	635
1958. Kezkak eta koxkak (<i>Egan</i> , XI, 1958)	637
1967. Euskaltzaindiaren deia (<i>Anaitasuna</i> , 30, 1967)	641
1971. Euskaltzaindiaren urre-eztaiak, Erkiaga Jaunaren hitzaldia (<i>Euskera</i> , XVI, 1971)	643
1973. Euskal-Antropologiazko II gn. astea (<i>La Gran Enciclopedia Vasca</i> , 1973)	650
1975. Requiem Altuberen Arauei (<i>Egan</i> , 1-6, 1975)	654
1977. Anaforikoak aldez edo moldez (<i>Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma</i> , III, 1977)	659
1990. Irakurleak bai, idazlerik ez (<i>Bilbao</i> , 25, 1990)	670
1992. Zamarripak EU- / AU- adiztaiu aldaera ixila, bere azken gramatikan (<i>Iker</i> , 6, 1992)	673

HITZAURREAK

1967. Zizka-mizka atsegiña ("Atalak" liburuaren hitzaurrea, 1967)	681
1975. Lan honen agerpena ("Diez lustros en la villa de Lequeitio, 1925-1974" liburuaren hitzaurrea, 1975)	683
1990. Gomutak iluntzen diranean ("Eguna" egunkariaren birrargitalpena, 1990)	686

II. TOMOA

ITZULPENAK

1952. Platon-en Parmenides edo Eideena (<i>Argitaratubakoa</i> , 1952)	699
1963. Papini'k Kristo maitatu zuanekoa (<i>Zeruko Argia</i> , 6, 1963)	763
1978. Kiri-sorpeneko biri-antura (<i>GMB</i> 75, 1978, 10)	765
1979. Lekeitio uri begikoan egindako bakaldun-egonaldian aipamen zeatza (<i>GMB</i> 76, 1979, 5-6)	766

1981. Itunben Ekonomikoaren Legea (<i>Diputación Foral del Señorío de Vizcaya / Bizkaiko Jau-erriaren Foru Ahaldundia</i> , 1981)	767
1984. Eraketa bileraren batzar-agiria -1979- (<i>Actas de las Juntas Generales de Vizcaya-Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar-agiriak:1979-1983. Diputación Foral de Vizcaya / Bizkaiko Foru Aldundia</i> , 1984)	771
1987. Urdaileko hodi-ehun ugaltzea (<i>GMB 84</i> , 1987, 3-4)	775
1990. Sarrera: berdetik gorrira (<i>Bizkaia-profunda / Bizkaia barru-barrutik</i> , 1990)	776

KAZETARITZA

1930. Oroipenez (<i>Bizkaitarra</i> , VIII, azaroa, 1930)	783
1930. Abertzaletasunatzaz (<i>Bizkaitarra</i> , XII, abendua, 1930)	786
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-V-24)	787
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-VI-26)	788
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-VII-4)	789
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-VII-10)	791
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-VIII-2)	793
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-VIII-20)	794
1931. Ea'n Igandian (<i>Euzkadi</i> , 1931-X-15)	796
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-XI-1)	798
1931. ¡Ez asarrerik, anayak! (<i>Euzkadi</i> , 1931-XI-26)	800
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1931-XII-31)	801
1932. Izki-Mizki (<i>Euzkadi</i> , 1932-II-6)	803
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932-III-10)	805
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932-IV-3)	806
1932. Izki-Mizki, udako gatxak (<i>Euzkadi</i> , 1932-VI-25)	807
1932. Izki-Mizki, udako gatxak (<i>Euzkadi</i> , 1932-VI-29)	810
1932. Euzko-erri jakintza (<i>Euzkadi</i> , 1932-VII-2)	813
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932-VII-4)	814
1932. Izki-Mizki, entzun baña aztu (<i>Euzkadi</i> , 1932-VII-10)	816
1932. Iski-Mizki, Andolin Deun Jayak-eta (<i>Euzkadi</i> , 1932-IX-16)	818
1932. Igaziriko igandez (<i>Euzkadi</i> , 1932-X-20)	820
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932-XI-18)	822
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932-XII-17)	823
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1932-XII-31)	825
1933. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933-I-5)	826
1933. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933-II-25)	827

1933. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-III-16)	828
1933. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-V-12)	829
1933. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1933-V-28)	830
1933. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933-VI-7)	832
1933. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1933-VI-30)	833
1933. Txakartegi'tar Andolin (G. B.) (<i>Euzkadi</i> , 1933-VII-6)	836
1933. Jayak-jai (<i>Euzkadi</i> , 1933-IX-22)	838
1933. Izki-Mizki (<i>Euzkadi</i> , 1933-X-13)	840
1933. Cero... gerokuak (<i>Euzkadi</i> , 1933-XII-6)	842
1933. Euzkerea esituta... eta erderean nun-nai (<i>Euzkadi</i> , 1933-XII -30)	843
1934. Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-6)	845
1934. Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-13)	847
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-I-31)	848
1934. ¡Aratuzte, Inauteri! (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-10)	849
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-15)	851
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-II-25)	852
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-2)	853
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-8)	854
1934. Izki-mizki (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-10)	855
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-III-15)	856
1934. "Euzkerari omena" (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-7)	857
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-14)	858
1934. Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-19)	859
1934. Amoroto-Urregarai (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-21)	861
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-IV-27)	865
1934. Biar-biarrekua Abertzaletasunaren zabalgun dia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-4)	867
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-5)	868
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-24)	869
1934. Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-29)	870
1934. Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-31)	874
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-V-31)	878
1934. Euzkerea, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-1)	880
1934. Euzkerca, euzkoen elia (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-2)	885
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-6)	888
1934. Eztalakuan-baidalakuan (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-8)	889
1934. V'gn. Euzko-Olerti Eguna. Bijar, Zarautz'en (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-9 / <i>Ekin</i> , 123, 1934)	891

1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-10)	893
1934. Ene bijozkadak (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-14)	894
1934. Domingo Agirre Euskeltzalia (<i>Ekin</i> , 124, 1934)	896
1934. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1934-VI-29)	897
1934. Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-4)	898
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-13)	899
1934. Erri-itzak: "Bizkaitarra" (<i>Ekin</i> , 128, 1934)	901
1934. "Kresala" ta "Garoa" (<i>Euzkadi</i> , 1934-VII-29)	902
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-9)	903
1934. Baserrira abertzaletasunaren ixenian (?) erdereza zabalduten (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-28)	904
1934. Euzkel-gaiz (<i>Euzkadi</i> , 1934-VIII-31)	905
1934. Perretzikotan (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-2 / <i>Ekin</i> , 135, 1934) . . .	906
1934. Euzkel-idazliak erdeltzale (?) (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-11)	908
1934. Abaroa jaunari gorasarre (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-13)	909
1934. Asarre barik (<i>Euzkadi</i> , 1934-IX-15)	912
1934. Mixiolari euzkeldunak (<i>Ekin</i> , 141, 1934)	914
1935. Udabarrija, itxaropena (<i>Euzkadi</i> , 1935-III-27)	916
1935. Erremu-eguna (<i>Euzkadi</i> , 1935-IV-14)	918
1935. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935-V-11)	921
1935. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935-VI-15)	923
1935. Mendexa'ko jayak (<i>Euzkadi</i> , 1935-VIII-4)	924
1935. Sanantoliñak (<i>Euzkadi</i> , 1935-VIII-30)	926
1935. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1935-X-24)	928
1936. Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-I-17)	929
1936. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-II-14)	930
1936. Errijetatik-Lekeitio (<i>Euzkadi</i> , 1936-V-28)	931
1936. Lekeitio'ko Olerti-Eguna / Gomuta samurrak (<i>Euzkadi</i> , 1936-VII-5)	933
1936. Akarregi'tar Gurutz (G. B.) (<i>Euzkadi</i> , 1936-VIII-26)	936
1936. Gomuta samurrak / "Aitzol" biotz-begietan dodala (<i>Euzkadi</i> , 1936-XI-6)	937
1937. Len, zer? Gaur, ba-dakusgu.— Gero geuk nai doguna (<i>Egu-</i> <i>na</i> , 1, 1937-I-2)	939
1937. Karraxika, ota-lore (<i>Eguna</i> , 63, 1937-III-14)	941
1937. "Aitzol", olerkari zuzperzalle (<i>Eguna</i> , 95, 1937-IV-22) . . .	943
1937. Uskola'tar Errapel (<i>Eguna</i> , 124, 1937-V-27)	945
1959. Ravel, Ziburu-ko seme (<i>Egan</i> , XII, 1959)	947

1961. Bizkaiko bertsolariak, nor goragoka (<i>Karmel</i> , azilla-lotazilla, 1961)	951
1963. Bilbao'tik (<i>Zeruko Argia</i> , 1, 1963)	953
1963. Zinea, zeñek galduko du? (<i>Zeruko Argia</i> , 2, 1963)	954
1963. Udaberriaren begira (<i>Zeruko Argia</i> , 6, 1963)	956
1964. Lekeitio-ko Azkue-tarrak (<i>Zeruko Argia</i> , 76, 1964)	957
1966. Zirikadak eta erantzumak (<i>Zeruko Argia</i> , 188, 1966)	960
1967. "Gernikako Arbola" ta Lekeitio (<i>Egan</i> , XXVI, 1967)	964
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 156, 1968)	972
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 157, 1968)	975
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 158, 1968)	977
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 159, 1968)	979
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 160, 1968)	982
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 161, 1968)	984
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 162, 1968)	987
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 163, 1968)	989
1968. Zaartzaroaren bildur (<i>Anaitasuna</i> , 164, 1968)	992
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 165, 1968)	994
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 166, 1968)	997
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 167, 1968)	1000
1968. Munduko bearrianak (<i>Anaitasuna</i> , 167, 1968)	1002
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 168, 1968)	1004
1968. Itxasalde paregabea (<i>Anaitasuna</i> , 169, 1968)	1007
1968. Kaleko gizonak diñoana (<i>Anaitasuna</i> , 170, 1968)	1009
1973. Dos centenarios lequeitianos: El del músico Zapirain y del poeta E. Azkue (<i>El Correo Español-El Pueblo Vasco</i> , 1973-8-1)	1011
1976. Aritzmendi, baserritar unibertsala (<i>T.U. Lankide</i> , 1976)	1017
1987. Abade euskaldunak jardunean (<i>Karmel</i> , 1, 1987)	1023
1988. Bilbo, barriro Europari adi (<i>Bilbao</i> , 5, 1988)	1026
1988. Lekeitio hitzaren jatorriaz (<i>Lekeitio</i> , 1, 1988)	1028
1988. Ardaoa ixilpera (<i>Bilbao</i> , 8, 1988)	1032
1988. Euskalduna, ontziak nun dituzu (<i>Bilbao</i> , 12, 1988)	1035
1989. Bilbo polita eta garbia (<i>Bilbao</i> , 15, 1989)	1037
1989. Medikuen agerkaria Bilbon (<i>Bilbao</i> , 17, 1989)	1040
1989. Gauza harrigarriak hemen? (<i>Bilbao</i> , 20, 1989)	1042
 LIBURUEN KRONIKAK	
1984. "Azalpenak" - Lauaxeta (<i>Idatz & Mintz</i> , 7, 1984)	1047

1985. "Gazigozoak" - Agirre, T. (<i>Idatz & Mintz</i> , 9, 1985)	1049
1985. Azkueren zentsurape 1918gn. (<i>Idatz & Mintz</i> , 9, 1985) . . .	1052
1985. "Itxastarrak" (<i>Ondarroa</i> , 1985)	1057
1987. "Irribarrea galtzen danean" (<i>Idatz & Mintz</i> , 15, 1987) . . .	1062
1987. "Uneka-gaba" (<i>Idatz & Mintz</i> , 15, 1987)	1065
1989. "Mutiko baserritar baten oroitzapenak" (<i>Idatz & Mintz</i> , 18- 19, 1989)	1067
1990. Liburuak / Igone Etxebarriaren eskutik Bilbon «Ixtorio-Mixte- rio» (Jean Barbier, B. M. Carro) (<i>Bilbao</i> , 28, 1990)	1069
¿?. "Euskarazko bertsoak"-Eusebio Maria D. Azkue Barrundi (1911-1973) (<i>Argitaratubakoa</i>)	1071

NARRAZIOAK

1936. Esnedunak (Neguko goiz batez) (<i>Argia egutegia</i> , 1936) . . .	1079
1956. Ames-Larreko maitagarria (<i>Egan</i> , 5-6, 1956)	1081
1959. Zein ote zan-zera? (<i>Euzko-Gogoa</i> , 1-2, 1959)	1084
1960. Baru-aldiak (<i>Egan</i> , 1, 1960)	1088
1965. Sonia liraiña (<i>Egan</i> , 1-6, 1965)	1092
1966. Irugarren gaua (<i>Egan</i> , 1-6, 1966)	1097
1970. Ikusi bakarrik (<i>Karmel</i> , 1, 1970)	1100
1971. Giltz egokia (<i>Hegatsez</i> , 1971)	1103
1984. Gizon totoloa (<i>IKA argitaldaria</i> , 1984)	1106
1984. Arpeko Mari (<i>IKA argitaldaria</i> , 1984)	1110
1984. Tronpa tartaina (<i>Zer</i> , 78, 1984)	1115
1984. Xinin-jendearen biltzarra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1984)	1119
1985. Basotx (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	1128
1985. Ixilaren ederra (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	1135
1985. Martin Antonen Potina (<i>Argitaratubakoa</i> , 1985)	1142
1986. Nik neronek ez (<i>Argitaratubakoa</i> , 1986)	1148
1986. Talo ta arraina (<i>Lore kontu-Kontu lore</i> , Ondarroako Kultur Etxea, 1986)	1157
1987. Lukasen erakutsi ona (<i>Zer</i> , 107, 1987)	1178
1990. Gamistoa, Euskal-edaspena (<i>Lekeitio</i> , 2, 1990)	1182
1990. Adiskide bi kontu kontari (<i>Lekeitio</i> , 2, 1990)	1189
1990. "Untzorririxu" (<i>Bilbao hiria ipuinak</i> , 1980-89, Bilboko Uda- la, Kultura eta Turismo Saila, 1990)	1193
1990. Dei egitekoak (<i>Argitaratubakoa</i> , 1990)	1208
¿?. Umerik bako atsegiña (<i>Argitaratubakoa</i>)	1211

¿?. Txakur zaharra eta gaztea (<i>Argitaratubakoa</i>)	1215
Testuen aurkibide kronologikoa	1221
Testuen aurkibide alfabetikoa	1233
Hiztegia	1243

SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

15. IXTORIO-MISTERIO/IPUIN-
-MIPUINAK
Jean Barbier-Bernardo M^a Garro
"Otxolua"
Moldakuntza eta sarrera: Igone Etxebarria
16. GUDA NAGUSIA (1914-1918)
Ebaristo Bustinza "Kirikiño"
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. ZAAR-BARRI
Jose Antonio Oar-Arteta
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. EUSKO-UMEAK ATZERRIAN
Xabier Goitia
Eratzailea: Jaime Kerexeta
19. ARRANEGI
Eusebio Erkiaga
Moldakuntza eta sarrera: Iñaki Sarriugarte
20. IDAZLAN GUZTIAK
Sorne Unzueta "Utarsus"
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. GRIMM ANAIEN BERROGEITA
HAMAR UME IPUIN
Ipolito Larrakoetxea "Legoaldi"
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. BERBALAQUAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. BERBALAQUAREN KULUNKAN
PROSA LANAK • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia



LABAYRU IKASTEGIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE
CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiordetza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura

ISBN 84-89816-56-5



9 788489 816565